



YANOZ

UNDAITZ'EKO NAGUSIA

ZUBIRI'TAR IÑAKI

EUSKERAZAINTZA'KOA

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(EUSKERAZAINTZAKOA)

YANOZ

UNDAITZ'EKO NAGUSIA

Bizkai'ko Foru Aldundia
Kultur Saillaren laguntzaz
"Euskerazaleak" Alkarteak argitaratua

AURKIBIDEA

IDAZPURU	ORRIALDE
SALDUKERIA	11
IRATI'KO OIANEAN	31
IMOZ'EN OBENA	35
TXARTXA	45
OIANE	59
IÑARKUN - ALDIA	73
AKITANI'RAKO BIDAIA	87
URREAREN DIZDIRA	91
ETOIAREN ARRENKURAK	101
EZPATEAREN ITZALA	107
YARRE'KO GAZTELUA	111
EIZTARIEN OSTATUA	117
AKITANIAR BURUZAGIA	121
ARNAUT LEPOKERRA	129
AITA KLOBIS	135
AKITANI'KO URIBURUAN	143
ERIoTZ - EUPADEA	167
BURRUKEAREN OSTEAN	175
YARRE'N ATXILLO	189
IGESA	193
JAZARKUNDEA	203
LAKARRIKO AINGERUA	213
IMOZ'EN YAREIKUNTZA	219
FORTUN'EN TXARKERIA	225
"IRU GEZIAK"	237
YANOZ'EN EKINTZAK	247
EKAITZ - GABA	263
UNDAITZ'EKO IZARRA	267
ARNAUT'EN EDESKIA	273

Depósito Legal: BI-1.559/91

Fotocomposición e Impresión:
 FLASH Composition, S.A.
 Ercilla, 11 - 1.º derecha
 48009 - BILBAO

ELEBARRIETAN, KONDAIRA IRAKASLE

Erriari irkasteko eta bere biotz-biotzean abertzaletasuna sortzeko naiz bizkortzeko, bide asko dagoz, baiña bide eder eta zabal bat, kondaira irakastea ta bizi-erazotea da.

Kondaira irakatsi eta bide orretatik abertzaletasuna sortzeko era bi dagoz gitxienez, biak egokiak: Jakingarriak zeatz eta garbi agertzea da bata eta jakingarrien zeatzasunari ta sakontasunari estuegi begiratu barik, aundi-aundiak artu eta barruan dan bizitasuna agertzea da bestea. Eta bigarren bide au oso egokia da, batez be ikasketa sakonak egiten zaleak ez diranak besteen antzeko elburua lortu dagien, erria ezagutu ta maitatzeko elburua.

Bigarren elburu onetarantza joten dau, gaur aurketzen dogun Zubiri'tar Iñaki'ren elebarriak. Liburu au irakurten irakurleak poza ta atsegiña aurkituko dauz, liburu eskuetan artu ezkeru itzi-eziña somatzen dauanaren poza. Eta gaiñera irakurketak beragan abertzaletasuna ta barru-min zintzoak, zuzenak eta gizarte-girokoak sortzen dauzala ikusiko dau.

Orain-artean be bein baiño sarriago artu dau bide txalogarri au gure Zubiri'tar Iñaki'k, eta geroago ta arrigarriagoa agertzen da irakurgai ederrak idazten.

Baiña begiratu dagigun zeatzago elebarri au, ez bere aria ta bertako jazokizunak azaltzeko, ori liburuan aurkituko dau irakurleak, alegindu gaitezau beste iakingarri batzuk irakurri baiño lenago iragarten.

Kondaira-elebarria dala esan dogu. Eta elebarri-mota onetan, beste liburu batzuk gogoratu geinkez. Ezin aitatu barik itzi mota beratakoa, baiña erderaz idatzia dan Navarro Villoslada'ren **AMAIA** elebarria. Emen Euskaldunen eta Godoen artean izan ziran artu-emonak azaltzen dira ederkiro. Elebarria irakurgarria da baiña barrenean azaltzen dan jokabidea ezin onartu geinke oso-osoan: Godoak eta euskaldunak ezkontza-bidez egiten dabe alkartasuna eta erri barri bat sortzen da alkartze orretatik: "**Amaia da asiera**". Ezin ori onartu, euskaldunak lenago erria izan ziralako eta gero be erria izaten jarraitzen dogulako.

Orretan zuzenagoa ta garbiagoa da gure Txomin Agirre'k bere **Auñamendi'ko Lorea**'n artu eban pentsabidea. Elebarri labur eta eder onek Frankoen eta euskaldunen arteko artu-emonak dauz gai, baiña orretan ez da erri-nasterik sortzen, naizta maitasuna agiria izan, "goikoak goian eta bekoak beian", bakoitza bere lekuan geratzen dira. Eta Elebarri onetan agertzen dan erri-miña benetan beroa ta txalogarria da.

Kondaira-irakurgaien bide orretatik doa gaur aurkezten dogun elebarri au be eta Euskaldunen eta Akitania'tarren arteko artu-emonak dira gai oraingo onetan.

Galdera bat: Izan ete genduan guk Akitania'tarrakaz artu emonik?

Baietz erantzun bear eta zalantza barik. Egia esan, Julio Zesar'en "Galietako Gudaketa" latinezko liburuan oso gitxi agertzen dira euskaldunak, naiz ta gai au iñoz aztertubakoa izan. Ba- dira an toki izen batzuk eta gudari-taldeen izen batzuk gure erria gogoratzen dauskuenak eta Garona ibaiaren izena bera lenengo. Baiña guk ondo dakigu antxiñako akitaniarrak euskaldunak izan zirala eta Akitania'n aurkitu diran latinez idatzitako illobi-idazkietan euskal-izenak ugari agertzen dirala: Seme, Inko, Eneko, Bela ta Belasko ta abar. Orregaitik ondo esana da elebarri onetan esaten dan au: "Gure izkuntza euskerea da, diñoe akitaniarrak, baiña zori txarrez izkuntza eder au galtzen dago".

Elebarriak argi be argi agertzen dau Adur ibaitik arantza dagoan erria, Euskalerrriaren adiskidea ta senitartekoa izan arren, beste erri bat dala.

Norki euskaldunak eta akitaniarrak asko ta ondo zeaztuak agertzen dira elebarrian. Berrogei inguru bai. Alde bietatik agertzen dira zintzoak eta etoiak, baiña oitura garbiak eta jokabide zuzenak aldezen dira, oker dagoana oker dagoala zalantza barik ikusten da. Azkenean zuzentasunak egiten dau argi, bai Akitanian eta bai Euskalerrrian. Akitania'ko Dukeak eta Naparroa'ko Errege barriak okerbideak ondo zuzentzen dabez.

Norkien artean eta etxeko lez, adiskide lez, Txartxa deritxon artza gogoangarria dago eta etorkizunerako be beste Txartxa bat geratzen da, abereak euskaldunen lagun doguzala adierazteko.

Eta norki onein artean alkar-izketea ugaria, erreza ta egokia darabil idazleak. Nok ez daki elebarri baten zelako garrantzia dauan alkarizketeak?

Elebarrien barruan beste gai bearrezko bat tokia izaten da eta arlo onetan zeatza da elebarri au, ardura aundia artzen dau idazleak tokia ondo zaintzeko. Toki-arloan lau ardatz aurkitu dauz idazleak: Erro-Aezkoa, Irati, Akitania'ko uriburua (500 km. bitarte) eta Iruña. Ba-dira beste urtenaldi batzuk eta ardatz antzekoa da Zuberoa be. Muskaria noizean bein aitatu egiten da eta alkar-izketa askotan inguruaren toki-zeazketak egiten dira, arlo zabalagoa artuta.

Kontuan artu-bearreko beste gai bat aldia da eta aldiagaz gaurko elebarrigilleak trebekerri aundiak egiten dabez. Elebarri onetan ikuspegi bitatik begiratu geinke aldia: Bata zein gizalditan kokatzen dan elebarria eta bestea, jazokizunak betetzeko idazleak artu dauan aldia.

Naparroa'ko lenengo Erregea izan zan Iñigo Aritza'ren aldian jazoten da dana, 824'n urtean izan zala ori agertzen da elebarrian. Ori baiño ogei bat urte lenago asten dira jazokizunak eta Errege-Barria koroatu eta laster amaitu.

Aldia zeaztasun aundiaz daroa idazleak, tokia baizen zeatz eta argi. Noizean

bein, elebarriaren trebetasunak eskatzen dauan lez, aria ebagi eta atzeratu egiten da, barriro arira etorteko eta alkar-izketetan lenagoko aldiak be gogoratzen dira.

Aldiaren arazoan, beste au be esan bear da: Batzutan jazoerak astitsu jazoten dirala, esaterako Irati'n igarotako 8 urteetan. Beste batzutan osterara arin, Akitania'ko edestietan esaterako. Aldiaren gogo-ikuspegia edo "sikolojiko" da ori eta elebarriaren eragiña edo "ritmoa" adierazten dau.

Eleberrietako bitxiak zeazketak izaten dira eta orreikaz batera barru-miñak eta irudiak. Ba-dagoz olakoak be elebarri onetan baiña ez ugariegi. Gogoratu otsoaren begiak gabea, edo leopokerraren zeazketa eta abar.

Edeslaria nor dan izan daiteke azkenengo esan nai doguna. Onetan trebebidetako asko dagoz, baiña idazleak irakurgairik geienean, berak egiten dau edeslari-lana, eta azkenengo ataletan norki bateri izten dautso edeslari-lana egiten. Onek amaitzen dau elebarria.

Ona emen elebarri eder bat, benetan irakurgarria ta atsegintsua, euskerazko elebarriak onenen parekoa. Izango al da bardiña irakurketa amaitu ondoren irakurlearen eritxia.

OLAZAR'tar Martin'ek.



Udagoiko arratsalde aretan, Naparra'ko Aezkoa ta Erro aranen artean iparretik egorantz edatzen dan Elke mendi-katetik, amabost urteko mutil bat ibillera ariñez, bere etxera, Undaitz'eko gaztelura abiatzen zan. Soin lerden eta garaikoa izanik, zan baiño zaarragoa emoten eban. Bederatzigarren mendean euskaldunek erabili oi eben soiñekoaz jantzita egoan, au da, orkatz-narruz egindako jake ta praka laburrak, ardinarruzko abarkak, eta belaunetaraiño eltzen yakozan edeakaz lotutako artulezko galzertiak. Aldi aretan euskaldunek oi eben antzera, burutsik joian, eta bere adats gaitankara lepoan beera erorkion. Sorbaldan eskegita, agiñezko uztaia ta gezi-ontzia erabillezan, eta gerritik dingilizka, abailla.

Begi nabar argitsuak ebazan, aurpegi eder eta atsegiñari adimen ernaiaren itxura emotsoela. Sudur mee baten gaiñeko begien itxura amesgarriek barruko gentza ta dendua iragarten ebezan, eta onein azpian kokaturiko abo ta okotz irmoai zangartasuna erien. Aurpegiko larmintz zurixka eguzkiaren eragintzaz zerbait brontzeturik ikusten yakon. Zabaldiko biziareak soiña arindu ta malgutu izan eutsan, eta bazirudian bere oiñek lurra ozta-ozta ukutzen ebela.

Bere aitak, Undaitz'eko nagusiak aginduta, Erro aran aldetik alatzen ziarduen beitalde ta artaldeai oikoa zan noizbeinkako ikertaldia egitetik etxera biurtzen zan, eta gazteluan laster izango zalako oldozkunak oiñetan egoak ipinten eutsazan. An goian, arrastiko azken eguzkiak musukaturiko gazteluko ormak eta oiñarritzat eben arkaitz zorrotzak urrezkoak zirudien. Izan be, Naparra'ko zaldun batzuk iñoenez, "Odeien artean ames dagian gaztelua" zan Undaitz'eko egoitza. Gaztelua lauki erakoa zan, eta kantoi baktxean almentutako dorre txairo bana zorrotz jagiten zan. Lau ormetan gezi-leio ugari ikusten ziran, etsaien erasoak uxatzeko. Gaztelura sartzeko zubi jasokorra edo altxa-zubia gaztelu ta onen aurreko zelaiaren artean edatu bear zan, eta gizonetzkoak eta zaldiak barrura edo kanpora ezkerre, zubia jasoten zan ate anditzarra biuriturik. Barrukaldean, lau ormek inguraturiko larrain nagusia. Beekaldean, kortak, morroien lo-gelak, sukalde, eta jatoki zabal eta ederra aurkitzen ziran. Bigarren mailan etxeko nagusien eta ikerleen gelak. Gaztelua berreun bat urte lenago eraiki izan zan, Aezkoa, Erro ta Arze aranak babesteko. Gaztelua eraikia zan arkaitzaren izena Undaitz izanik, lenengo nagusiak onen izena artu eban, eta arrezkero ondorengoek abizentzat izen ori eben.

Pozik joian mutikoa arratsalde aretan Elke mendi-katean zear, laster bere aitarekin batuko zan-eta. Undaitz'eko seme bakar onek ez eban aukera andirik bere aitare-

kin egoteko, beronek sarri askotan, naiz iparreko naiz egoko etsaien aurka beste napartar zaldunekin burrukan egiten ziardualako. Aspaldi aretan, baiña, Orreaga'ko mendietan eizaketan ziarduala, basurde batek eraso izan zan azta-makillaz jazarten eballa. Onen ondorioz istarrean letaginkada sakona artu eban, eta origaitik orain gazteluan geratu bear izan eban. Egun areitan, Undaitz gazteluko gudari geienek Naparra'ko egoaldean gudaketan ziarduen. Ezinbestez, Iroz, gazteluko nagusia, tamal andiaz etxean geratu zan, basurdeak egindako zauria osatu ekion arte. Aspaldi aretan akitaniarrek, iparreko etsaiek, Naparra'ri erasoten ez eutsoen ezkerero, Undaitz'eko nagusiarekin lau gudari geratu izan ziran soillik, enparauak, len esana lez, oiñezko ta zaldunak, Iroz'en buruzagi baten agintzapean egorantz abiatuak zirala.

Augaitik ba, Iroz'en semeak ereti ugariak ebazan aitarekin egoteko. Iroz'en emaztea ume egitean il izan zan, eta ume gaixoak ez eban beste maitasunik ezagutu aitarena baiño. Bazan emakume bat mutikoa bizi-bizi maite ebana: Aezkoa'ko Oroz-Betelu'tik aita dei egiñiko Amañe, seiña bulartu egian. Emakume zintzo au orain bere errian bizi izaten zan, baiña mutikoa semetzat maite eban, eta onek aal izatekotan aren etxera joian bere iñude aztueziña besarkatzeko. Emaztea il egin yakonetik, Iroz'ek ez eban iñongo zorionik ezagutu, eta arekiko maitasun-oroitaz ez eban beste emakumerik ezagutu nai izan. Aita-semeen arteko maitasun-lokarriak urteen bidean sendotu izan ziran, eta Undaitz'eko nagusiak ez eban beste maitasunik semearena baiño, eta euskaldun nagusi jatorra billakatu zeitela bere amesik biziena zan. Au zalata, bere gezilaririk onena zan Fortun buruzagia maisutzat jarri eutsan, eta onek gezi-jaurtiketeari buruz ekian guztia, mutillari erakutsi eutsan. Luzaro barik ikaslea maisua aiña azaldu zan, eta errialde aretako gezilaririk onena biurtu zan. Eskutur sendokoa izanez gaiñera, mutillak arranoaren ikusmena eban, eta begia nora, gezia ara.

Baeban mutillak beste bereiztasun bat: abaila erabilteko antzea. Txikitarik oitua zan iskillu ori erabilteko, eta zenbat-gura arribil bere aukeran eban ezkerero, abailari bikaiña billakatu zan. Gaztelutik urtetan zan bakotxean, uztai-geziakaz gaiñera, gerritik eskegita abaila ta ubel-arrien zorrotzua eroaten ebazan beti. Baekian mutillak zeintzuk arribil autatu, jaurtiketea saiestu barik zuzen-zuzen joan zeiten. Beti gerturik eroian, arribilla ubelean jarrita, iñongo arrapagairik iges egin ez ekion.

Arratsalde aretan, Elke mendi-katean zear etxera biurtzen zala, oraindiño argi samar izanik, ur gardenetako lats bat zearkatuta, abailari oratu eutsan, eta aurreko bedardia begi zorrotzakaz aztetu eban. Baekian Undaitz'eko semeak, toki aretan erbi ugari egon oi zala, eta aitari erbikia benetan atsegin yakonez, etxera eldu barik areitariko bat arrapatu nai eban. Alako baten, bedar-gaiñeko oatzetik, izuturiko erbi eder batek tximista lakoa zearretara ikoti bizitan igesari emon eutsan. Irugarren zapartada ozta-ozta egiñik, baiña, arriak txistu zorrotzaz buruan aparta egin, eta erbiak tximistak jota lez illik amildu zan. Pozezko oi bat jaurtita, mutillak jaso ta gerritik eskegi eban, eta aitari emongo leuskion pozak eraginda, urrats ariñez mendi-gora abiatu zan, illundu baino len etxera eltzeko asmoz.

Alako baten, Eriz'ko arizti usua inguratzen eballa, onen barrutik gizon bat urten yakon didar bizitan dei egiten eutsala:

–Yanoz... Yanoz...!

Mutillak bereala ezagutu eban Igun, etxeko artzain zintzoa, eta gelditurik, auxe itaundu eutsan:

–Zer dala-ta, Igun, emen izateko...?

Artzaiñaren itxurea ikustean, suzmo txar bat mutillaz jabetu zan. Eta izan be, Igun'en antzak ez eban ezer onik iragarten. Soiña goitik beera dardarikatzen yakon, eta aurpegi zurbillak bildur itzela erakusten eban.

–Baiña, Igun –mutillak barriro be–, zer jazo yatzu orren izuturik agertzeko...?

–Yanoz, nire mutilla, ez zaitez biurtu etxera, zure burua ilda ikusi gura ez ba'dozu –mintzo itoaz esan eutsan artzaiñak–, zure aitaren gaztelua arerioen eskuetan dago. Ai ene... Ai ene bada...!

Zirrara izugarri batek Yanoz'en biotza zapaldu eban, eta Igun'en eskuari oratuz, ikara bizian auxe oiukatu eutsan:

–Nire aita, non dago nire aita...!

–Ez dakit, Yanoz, ez dakit, baiña gauza onik ez dot uste gertatu dakiola.

–Arren bai arren, Igun –artzaiña sorbaldatik astinduz agindu eutsan mutillak–, esaidazu bertanbera jazo dan guztia aiko-maikotan ibilli barik.

–Ara ba... –asi zan Igun–. Orreaga'n gora akitaniar gudari-talde bat onantza etorrela mezuaz, Auritz'eko unai bat atzo eldu yatan, eta gaur arin baten dana itzita, zure aita jakitun ipinteko Undaitz'erantz abiatu naz. Orain ordubete bi-edo gaztelutik ur samar nintzala, gudari-talde arrotza iparretik etorrela begiz jo egin dot, eta ikusi ez nengien gaztelu-aurreko sastrakan ezkutatu, eta begirari jarri naz. Gaztelupean dagoan atxari erasita joiazan ezkerero, Undaitz'etik ikusteziñak ziran. Atxaren babesetik urten aurretik, eta taldea gelditzen zala, onetatik oinkari bi aurreratu egin dira, eta gazteluko atera elduta, oles egin dabe. Ba al-dakizu oinkari bi orreik nortzuk ziran...?

–Nortzuk izan zeitekezan...?

–Siñisteziña baderitxazu be, Yanoz, Arike'ko zure aitaren beitzaiñak Ganix eta Gurbix anai bikiak ziran...!

Otz-ikara batek astindu eban Yanoz'en soiña. Ezagutzen ebazan Arike'ko bere aitaren beitzain bi areik, eta ezin egikean siñistu Igun'ek iñotsana. Mintzo dardartsuz artzaiñak edeskiari jarraitu eutsan onetaraxe:

–Etxeko beitzaiñak ezagutzean, barrukoek zubi-jasokorra beeratu dabe gaztelura sartu zeitezan. Sartu baiño ez, eta zubia oraindiño goratu barik egoala, Atxaren ezkuntunean egozan berrogeitsu gudari arrotzak, arrapalada baten urten, zubia zearkatu, eta gazteluaz jabetu dira, iskilluen zaratea ta zaurituen intzirriak aditzen zirala. Gero, dana isil-isillik geratu da, Yanoz, eta ikara larrian baso onetan ezkutatzera erabagi dot egitekoa ausnartzeko. Gero onantza ikusi zaitut, eta bidera urten naiatzu. Ai ene, gureak egin dau, Yanoz maite ori...!

Igun zintzoa edu onetan aika egoala, Yanoz'ek gogoetari emotsan. Alako baten artzaiñari auxe esan eutsan:

–Aizu, Igun, geratu zaitez emen ni biurtu arte.

–Nora zoaz, baiña, Yanoz...?

–Gaztelura noatzu.

–Ez zaitez joan, Yanoz, arrotzen aurka egiterik ez dozu-ta...! Il egingo zaitue barruan egozanak il dabezana lez. Arren eta arren, Yanoz, geratu zaitez emen nirekin, eta arrotzak joanda, gaztelura biurtuko gara zer jazo dan jakiteko.

–Uste al-dozu, Igun, emen ezer egin barik lotu naitekela, an barruan nire aita atxillo dala jakiñik...? Entzun ondo auxe, Igun: badaezpadakoan emen geratuko zara, eta bitartean –jarraitu eban Yanoz'ek erbia emoten eutsala–, eizaki au narrutu ta erreko dozu. Gau onetan bertan biurtuko ez ba'nintz, orrek il nabela iragarriko leuke, eta jarei izango zara beste nagusi bat aukeratzeko.

–Ez zaitez joan, Yanoz, il egingo zaitue-ta. Geratu emen nirekin, eta zure aita il izan ba'litz, egunen baten, mairuen aurka burrukan diarduen etxeko gudariak biurtu daitezenean, Undaitz'eko nagusia billakatuko zara. Arren, Yanoz, ez joan...!

Artzain zintzoari malakoak eriozan mara-mara, mutilla bene-benetan maite eban-eta. Orduko, baiña, Yanoz mendian gora joian, eta aren irudia illunabarko itzaletan laster atzindu zan. Oinkada malgu ta ariñakaz, luzaro barik mutilla gaztelu-aurrean aurkitu zan. Orduko gau betea izanik zeru garbian izarrak ñir-ñirka ikusten ziran.

Mutillak aurrekaldera jo eban, zubi jasokorra etzanda idoroteko asmoz, baiña itxaropen au ustel azaldu zan. Gazteluko atetik ez egoan sartzerik, zubia jasota zalako. Yanoz, orduan, berak ondo ezagutzen eban gaztelu-inguruko luebagiaren ertzera jo, eta billaturikoa laster idoro eban. Luebagiko orma aretan, berak bakarrik ezagutzen eban bidexka estu ta malkorra egoan. Aitak kanpoan gudaketan ziarduala, eta onen aginduari men egiñez, etxeko zerbitzariak mutilla urten zeiten lagatzen ez eben ezkerro, Yanoz leio baten zear urten, eta gero gazteluko oiñarrira elduta, arkaitzetik luebakiaren ondoraño jatsi, eta emendik orman gora zabaldira urten oi zan. Olan ba, ez eban zubiaren bearrak sar-urtenak egiteko, eta inguruetan ugari ziran erbiak abailaz eiztatzeko.

Laster idoro eban Yanoz'ek billatzen eban zidor ezkutu ta malkartsua, eta eskua-kaz arrien artean arrakalak billatuz, zulorik-zulo, sasiz beteriko beekaldera eldu zan, eta asun eta sastraka ugarietatik illuntasun betean ibilliz, gazteluko oiñarri-arkaitzera eldu zan. Leku onetatik arkaitz biziko ormeak gora egiten eban, eta erpiñean gaztelua egoan. Arkaitzaren gaiñetik Undaitz'eko gaztelua arrano-abia bai'litzan, bere lau dorreak zeruetan zear jagiten ziran. Oiñarriaren inguruan, erlaiz estua eratuz, ibilbide arriskutsu bat edatzen zan, eta bizkarra ormeari eutsita, ardura andiz bazan be, zearretara ibilli zeitekean.

Arantza ta asunen ziztaden artean, luebakiz bestaldera eldu zanean, baekian Yanoz'ek atx bizian gora zein lekutatik igon, eta len lez, baiña orain gorantza egiñez,

lauazka igoten asi zan arrakaletan oraleku egokiak billatuz. Eta sorbaldatik eskegitako uztai-gezien eragozpena andia izan arren, astiro-astiro, gaztelutik iges egitearren erbillitako atx-bidean gora, noizbait erlaizean aurkitu zan. Une batez arnas-estuka gelditu ostean, luzaro barik erlaiz-luzeran ardura andiz ibiltzen asi zan. Alako baten mintzo batzuen zurrumurrua aditu eban, eta onek zuzenduta, noizbait gezi-leio baten ondora eldu zan. Ondo ezagutzen eban Yanoz'ek zein zan aurrean eban leiatilla: iskilloen aretokoa ain zuzen be, eta ia arnas egiteko azartzen ez zala, gezi-leiatillaren zear barrura begiratu eban... eta latz-ikara batek menperatuta, leiatilla-barrenari oratu bear izan eutsan ez jaustearren.

Iskilloen aretoa zuzi batzukaz argituta egoan, eta onein argi aulpean, eskuak atzetik lotuta, aulki baten jesarrita bere aita ikusi eban. Bularrean beera zauri batetik odola erion, eta aurpegi zurbillak aulezi andia iragarten eban. Begiak utsari begira, geldi-geldi egoan, eriotzaren igurikan bai'litzan. Aita edu onetan ikustean, oi u zoro bat ez jaurtiteko bere biziko indarraldia egin bear izan eban mutillak. Aren ondoan, burdiñezko ontzi baten txingarren artean sastakai bat ikusi zeitekean, eta suari eragiñez, aurpegia irribarre gaiztoak piztuta, Ganix beitzain etoia zutunik egoan.

Gezi-leiatilla oso estua izanik, Yanoz'ek ezin egikean besterik ikusi, baiña entzumenera etorkion suzmurragaitik, agiri zan aretoan gizaki batzuk aurkitzen zirala. Alako baten, eta aitaren alde zer egin leiken buruan erabillela, mintzo latz, zakarra, aditu eban aitari auxe iñotsala:

–Aizu, Iroz, alperrik da ez-jakiñarena egin dagizula. Argibide ugari eldu yataz, aspalditik Iruña'ko etxe baten, Eneko Aritza'rekin Auñamendi'ko buruzagi edo nagusi batzuk alkartu oi zariela, dalako Eneko orren agintzapean Naparra'ko erreñua sortzeko, eta au akitaniarrok ez dogu begi onez ikusten. Auñamendi'n zear bearezko joan-etorriak gure aukeran egin nai doguz, eta napartarrek errege baten agintzapean jarduten ba'dozue, zailla biurtuko yaku, Auñamendi'ko bideak gure aukeran erabilli zernaitarako. Onezaz gainera, ez dogu ezelan be gura, lengo gizaldian Orrega'ko atxartean, zuek euskaldunok, Karlomagno'ren gudarosteari egin zeutsien triskantza, barrero be jazo daiten...

–Ondo merezitako ekintza gure asabek Karlomagno'ren gudarosteari egin eutsuena –ebagi eutsan Iroz'ek–. Muskari'rako bidean gure Auñamendi'tik igarotakoan, guztitariko ondapan eta eraiketak egin euskuzan. Gero, egoko lurraldeetatik bere errira biurtzean, lengo zitalkeriak egiten asi zan dalako gudarostea. Orduan, Erronkari'ko mugatik Gipuzkoa'renaraño, euskaldunek iskilluak artuta, Orrega'ko atxartean egundo ez ezaguturiko eraiketa egin eutsoen, gudari arrotzak millaka jausi zirala, eta onein artean, Erroldan, Karlomagno'ren loba kufuna. Euskaldunak bakean itzi ba'leuz, ez leukean alako sarraskia izango.

–Ixo, madarikatu ori...! –erantzun eutsan mintzo zakarrak–. Aurrez-aurreko burruka izan ba'litz, geu billakatuko gintzazan garaille, baiña zuen asabek ezustez eraso eutsoen gudaroste bikain ari...

–Aizu, Bertran –eten egin eutsan Iroz'ek barriro–, bakotxak bere eretirik egokie-na aukeratzan dau etsaiari aurre egiteko, eta...

–Naikoa bedi oraingoz –oiu egin eutsan Bertran dalakoak– Jakin egizu, akitaniarrok lurralde au zearkatzeko eskubide betea dogula. Eta eskubide ori zemaizen dauana, gure etsaia biurtzen da. Zure zerbitzariok Ganix eta Gurbix anaiok, emen egosten danaren buruz nire mezulariai guztitariko argibideak damotseez aspalditik. Onen ondorioz, zuek darabiltzuen asmoa egi biurtu ez daiten, emengo arazoetan eskua sartzea erabagi dot. Orain Undaitz gazteluaz jabetu naz eta zu atxillo zaitut, baiña zuen asmo ori bein betiko eragozteko, Eneko Aritza, zuen buruzagirik ospetsuena arrapatu nai dot, eta txakurra ilda, amorrua joana.

–Aizu, Bertran –irautsi eutsan Iroz'ek–, zure burua akitaniarren ordezkariatzat agertzen dozu, baiña ziur naz zure nagusia dan Undobika'k, Akitani'ko Dukeak, zeuk darabiltzun maltzurkeria ez dauala onartzen. Aspaldi baten Akitani'ko nagusiak itz emon eustan, euskaldunen aurka ez leukela inongo ekintzarik egingo, eta Dukea gizon artez eta zintzotzat daukadan ezkeror, orain darabiltzun guzurkeria, zure kabuz egiten dozula argi dago niretzat. Bertran, ondo irabazita dozu "Konte Baltza" izengoitia.

Bertran'ek barre-santzo zaratatsua jaurti eban, eta gero,

–Egia esateko, Iroz –esan eban–, ezagun ta aide maitia dozun Undobika Dukea, Akitani'ko nagusia, zearo lelotuta dago aspalditik, eta ni nozu Akitani'ko arazoan ugalak darabillena. Dukeak neugan uste on osoa jarri egin dau, eta nik diñotsadana arentzat beste barik egi biribilla da. Bere jauregira biurtu naitenean, Biarne'ko mugak ikertetik natorrela esango dautsat, eta berak, kokolotzar andiak, nik esango dautsadan iruntsiko dau.

Barre egin eban barriro abots zakarrak, eta baretu zanean,

–Baiña entzun egistazu ondo, Iroz. Akitani'ra baiño len, Euskalerrri'ko nagusi bi, Eneko Aritza ta zeu batez be, garbituko zaituet. Atzaparretan zaukat orain, Iroz, eta arazo au bear dan lez burutzeko, Eneko'z jabetuko naz. Orretarako, baiña, Iruña'ko zein etxetan Naparra'ko nagusiekin batzen dan esan bearko daustazu, ondo baidakigu batzar orreitan tartekoa zarala, ezta Ganix...?

Gezi-leiatillatik Yanoz'ek ikusi aal izan eban, aitarene ondoan egoan zerbitzari etoiaren irribarre isekaria, auxe iñoanean:

–Bai, nagusi. Orain illabete bat-edo, gaztelu onetara zekor batzuk ekartera etorria nintzala, ondo ezagutzen dodan Eneko Aritza'ren morroi bat mezu batekin etorri zan, eta gela onetan Iroz'ekin egon ondoren, egoalderantza ostendu zan. Urrengo egunean, lau gudariekin Undaitz'eko nagusi onek Iruña'rako bidea artu eban. Bost egun igarorik biurtu zanean, oso pozik zirudian.

–Zital alena...! –oiu egin eutsan Iroz'ek begiai txinpartak eriezala–. Zenbat diru eskiñi dautsu Konte Baltza orrek, zure Jauna ta erria saldu dagizuzan...?

–Zuk bizitza osoan emongo ez zeuskidana.

–Judas, besteren Judas...!

–Naikoa bedi oraingoz –eten egin eutsan Konte Baltza'k–. Ez dagigun gure astia alperrik galdu. Esan bear daustazu, Iroz, Iruña'ko zein lekutan egiten dozuezan batzar orreik, baita arin be, lenbailen ara joan gaitezana.

Ez eban, baiña, Iroz'egandik erantzunik artu, eta mintzo asarrekoiaz auxe esan eutsan:

–Aizu, Iroz. Nai-ta-ez autortuko daustazu billatzen dodan ezkutunea. Begira: txingar orreine artean nire zerbitzari zintzoa dan Ganix'en sastakaia dago. Ez al-dakizu uso-ekarle onak biurtu daitezen, pagausoak zelan billakatzen diran itsu...? Ara ba... betseiñak burdin gori batz erretzen yakez, eta orra or betiko itsu biurturik. Zeu be bardin ikusmen barik biurtuko zara, madarikatu ori, iñoiz Iruña'ko batzar-lekura joan ez zaitezana, oraintxe bertan Aritza'ren gorde-lekua jakin-erazoten ez ba'daustazu. Onezaz gainera, itsututa gero, oiñaze bizitan jarriko zaitut, eta nai-ta-ez alamen izugarri artean, nai dodana autortuko daustazu, eta gero askatuko zaitut, zure soine ezain inguingarria munduan zear erakutsi dagizun.

Une batez, Bertran isildu zan, eta,

–Azkenengoz, Iroz –itaundu eutsan–, esan egistazu Iruña'n alkartzen zariene tokiarene izena.

Iroz'ek, baiña, begi irmoak aurrerantz zuzenduta, isillik ziruan. Orduan Konte Baltza'k oiukatu eban:

–Ganix, aurrera...!

Etoia makurtu zan, eta sastakai gorria kirtenetik atzituta, aboan irri isekaria marrazten yakola, Undaitz'eko bere nagusia itsu biurtzeko zertu zan... baiña Yanoz orduko gerturik egoan. Konte Baltza'ren agindua entzun ebanean, bere agiñezko uzta bikaiña atezuan ipini, une batez gezia zuzendu, eta jaurti eban. Tximistaren antzera geziak Ganix'en saman apara egiñik, alderik-alde zearkatu eban. Oiu larri erlatsa ozta-ozta aditu zan, eta etoia soine-ikara larien artean sorura amildu zan eriotzaren itzalek inguratuta. Saltzaille arene mintzoak ez leuke aurrerantzean iñongo salakuntzarik egingo.

Une labur batez isillune larria sortu zan, baiña bapateko arritasun garaituta, Konte Baltza'ren oiuk aditu ziran,

–Danok kanpora...! Gezi-leiatilla orretatik jaurti dauskue. Lekorean barrandan izandako bategandik etorri da. Goazen, urten gaitezen eta arrapatu dagigun arerioa...!

Ormako euspenetik zuziak artuta, birao ta iskillor-zaratarene artean, akitaniarrak astrapala bizian urten, eta gazteluko igaro-bideetatik sakabanatu ziran, iskillor aretoa illunpetan itzirik.

Yanoz orduan, gazteluko ormeari eratsita, erlaiz estutik ibiltan asi zan, atera joateko asmoz. Ona eldu zanean, katezko kirrinkaz zubia beerantz asten zan, berantetsitako gudari arrotzen didarrak aditzen zirala. Zubia etzanda jarri zanean, Bertran'en agintza-oiuk aditu ziran, gaztelu-inguruan iru taldetan sakabanatu zeitezan esanez. Bitartean, Yanoz, orma-bular baten atzetik kukurio jarrita ate-ondoan babestu zan, eta

ardurarik andienaz atean zear begiratu eban. Barrukaldea txit illun egoan, larraña zuzi bakan batzuen artean soillik argituta egoalako. Tximista lakoa, Yanoz sarrerako igarobidea arin baten zearkatu, eta larrañeko illuntasuna ustiatuz, iskillo-aretora sartu zan. Barrura baiño ez, txingar-ontziak edatzen eban argi aul gorritzapean, bere aitaren irudi jesarria ikusi eban. Ikoti bataz urreratu yakon aboepen auxe zirautsala:

–Aita, aita, nasaitu zaitze, emen nozu-ta.

–Bedeinkatua bedi Jaungoikoa, seme, bizirik gorde zaitualako, nire Yanoz mai-tia...!

–Arrotzak biurtu baiño len, joan gaitezen, aita.

Au esanik, bere aitzoz aitaren lokarriak ebagi ebazan, eta onen eskuari oratuta atera zuzendu zan. Iskilloen aretotik urten baino len, Iroz'ek orman eskegita egoan bere ezpata astuna artu, eta astirik galtzeke aita-semeak larrañean zear gazteluko aterantz abiatu ziran. Baelbiltzan gudari bakan batzuk batetik bestera zer egin ez ekiela, eta onein urduritasuna ta inguruko illuntasuna ustiatuz, biok atera eldu, eta zubia zearkatuta, euren burua jarei ikusi eben. Gaztelutik eun bat metrora egoan txapar baten babestu ziran, bitartean egitekoa ausnartzeko.

–Aita –isil-misilka esan eban Yanoz'ek–, jakin bear dozu emendik urrun ez dagoan Eriz'eko ariztian, Igun gure begira dagola, badaezpadakoan an egon zeiten agindu dausat-eta. An atsedean artu aal izango dogu, zuk batez be, nekatuta ikusten zaitut-eta, eta argi andia izan ez arren zurbilduta zakust. Esan, aita, gezi-leiatillatik iskillo-aretoan ikusi zindudazanean, bularrean beera odol-jarioa ikusi neutsun, Zer jazo zan gazteluan, ni eldu baiño len...?

–Ara ba, seme –mintzo kolokaz asi zan Iroz–, Ganix eta Gurbix'en saldukeria ustiatuz, Konte Baltza ta beretarrak gaztelura sartu ziranean, bidetik jarki yakezan nire gudari ta zerbitzari zintzo ta urriak erailten ebezala, iskilloen zaratak eta eriotz-intzirriak goiko nire idazgelatik aditu nebazanean, ezpatea artzearren iskillo-aretora jaisten nintzala, Konte Baltza'k larrañean zear ikusia izanik, bere azta-makillaz eraso, eta zauritu ninduan. Jarraian baituta, iskilloen aretoko aulki batera lotu ninduan. Bertran'ek gorroto itzela dausku euskaldunoi, Eneko Arizta'ri ta niri batez be...

–Zergaitik, aita...?

–Laga dagigun ori oraingoz, seme, eta ikusagun aurrenik zelan urten gaitkezan estu-aldi onetatik...

Une aretan bertan, zuzien argi makalpean, Bertran'ek kanpora igorritako iru talde-tariko bat, zabaldia alperrik aztertu ondoren, gaztelura biurtzen zan. Amabitsu gudari izango litzakez oiua ta biraoen artean biurtzen ziranak. Taldearen gidari, Gurbix, Aribe'ko beitzain etoia etorren, eta une aretan auxe iñoan:

–Ziur naz, Iroz madarikatuak gazteluan dirauala. Nora joan zeitekean zauritua izanik...? Kanpotik nire anaia erail dauana, gazteluko gudariren bat izango zan, aurki. Ziur naz onezkero, beste taldekoren batek arrapatuko ebala dalako gudari zoroa. Biurtu gaitezen ba, eta aztertu dagigun gaztelua azken txokoraño...

Une aretan, zerbitzari etoia txaparretik ogei bat metrora egoan, eta bere alboko zuzi batek aurpegia argitzen eutsan motelki. Aserre bizi ta itsupean, bizkarreko gezi-ontzitik Yanoz'ek jaurtiki bat atara eban eta Gurbix'eganatz zuzendurik, uztaia atezuan jarri, eta gezia tximistaren antzera eguratsean zear txistuka, etoia bularrean zauritu eban. Miñezko oiua bat jaurtiz, lurrera amildu zan. Yanoz'ek orduan gezi-jaurtiketeari aalik arinen emon eutsan, eta arrotzen taldeak gudari-saldo batek erasoten eutsalakoan, etoiaren soña lurretik jaso, eta astrapala bizian akitaniarrak gaztelurantz oldartu ziran, onen orma lodien babesa billatuz.

Astirik galtzeke, semearen eskuari eutsirik, Iroz'ek,

–Goazen, Yanoz –agindu eutsan–, auxe da gure aukerea.

Aalik ariñen, aita-semeak mendian beera abiatu ziran. Agiri zan, baiña, Undaitz'eko nagusia galdutako odolagaitik makal joiala, eta au ikusirik, Yanoz'ek beso batzuek aitaren gerria inguratu eban, eta onen beso bat lepo-gaiñean jarrita, ibiltetari jarraitu eutsoen. Edu oentan ordubete bat igarorik, Eriz'eko basora eldu ziran, eta Yanoz'ek txistu egin eban. Andik laster Igun agertu yaken, eta bere ugazaba ikustean, negar baten eskuari oratu eutsan.

–Jauna, Jauna –esan eutsan eskuari muin egiñik–, au nire poza zu bizirik ikustean...! Jesarri zaitze, makal ikusten zaitut-eta. Yanoz'ek len emoniko erbia gerturik dago txingarren ondoan.

Ariztira sartu ziran, eta seme-serbitzarien laguntzaz Iroz jesarri zan. Orduko, erretako erbiak usain gozoa edatzen eban, eta irurok jateari ekin eutsoen. Iroz, baiña, jangar izanik, nekez irunsi egikean. Dardar bizipean aurkitzen zan, eta suaren ondolan egonda be, otz-ikara andiak artuta egoan. Laiño antzeko errezel batek Undaitz'eko nagusiaren begi zorrotzak moteltzen ebazan. Orduan, aitari buruz arrenkura larriak artuta, Yanoz'ek artzaiña alde batera eroan, eta,

–Aizu, Igun –esan eutsan itxura kezkatiz–, gure egitekorik beiñena, aita zure eskortara eroatea da, baita aalik ariñen be. Baiña ezin dabilkenez, atondu dagiguzan bearrezko baillartak.

–Bai, Yanoz, zuzen zagoz.

Mutillak orduan, aitaren ezpata astuna aizkoratzat erabilliz, enbor gazte bi moztu, eta jarraian mimen batzuk zearretara jarrita, lan oneitan guztiz trebea zan Igun'en laguntzaz, luzaro barik baillartak gerturik egozan. Joan baiño len, Igun'ek nagusiaren zauria aztertu eban, eta aal eban giñoan bedar batzukaz garbitu ondoren, lotu eutsan, eta beste barik, Iroz baillartatan etzanda jarri eben. Abiatzeko zorian zirala, Yanoz'ek aboepen,

–Aizu, Igun –esan eutsan–, zer deritxazu zauriari...?

–Ez dakit, Yanoz, baiña kutsadurea da bildur emoten daustana. Onezaz gainera, odol ugari galdu dauan ezkerro, oso makal dago. Ez dakit, Yanoz...

Artzaiñaren itzok eta itxurak batez be, otzikara larria sortu eben mutillagan. Gaba amaibakoa azaldu zan. Igun'ek bideak ondo ezagutu arren, gau-giroa illun-illu-

na zan, eta izarren argi motela zerbait laguntzen baeutsen be, Iroz gizon andi ta sendoa izanik, oztopoka ta arnas-estuka, gau izugarria emon eben egi malkartsu ta zidor estu areitan zear. Egunsentia agertu-agiñean zala, sukar andipean ames-zoro batek artuta, Iroz berba zentzunbakoak esaten asi zan. Noizbait, eguzkia jagi zan eta andik ordubete batera, lerrenak eginda, apurtuta, artzaiñaren sarobera eldu ziran.

Etxolako oatze baten jarri eben Iroz, eta arnasa ta indarrak irabazi ebezanean, Igun'ek zauri-azterketa zeatza egin eutsan. Itxura txarra erakusten eban, eta gazta-gazur ugariz garbitu ondoren, artzanora baten zaintzapean, Yanoz'ek eta Igun'ek lo egiteari emon eutsoen.

Gaberdia igaroa zan Yanoz eta artzaiña itxartu ziranean. Eguraldia ederra zan, eta udazkeneko ego-aizepean ortzi gardenean izarrek iñoizkorik argien bereizten ziran. Zuzi bat piztuta, artzaiñak Iroz'en zauria aztertu eban barrero. Loturea estalgetu ebanean, zirrara larri batek menperatu eban. Itxura txarra eskintzen eban zauriak, eta osakuntzaren arloan gauza andirik ez jakin arren, bereala oartu zan Igun, Undaitz'eko nagusia txarto egoala. Zauria gazta-gazuraz aalik ondoen garbitu eutsan, eta gero garai aretako oiturari jarraituz, bedar bereziakaz estalduta, ardurarik andienaz lotu eban. Artzaiñaren erabiltea isillean begizatzen eban Yanoz'ek, sendaldia amaitu zanean,

–Aizu, Igun –itaundu eutsan–, zer deritxazu orreri...?

–Arazo oneitan ezgauza naz, baiña atzo baino gaizkiago ikusten dot. Sukarrak gora egin dau, eta gaiñera, makal dago.

Sukar andipean aurkitzen zanez, iturritik arako ur ozkirria edanerazo eutsan Yanoz'ek. Gero, aurpegi ta eskuak busti eutsazan. Andik laster Igun mendiko ardiak batzearren urten zanean, Yanoz aitaren ondoan jesarri zan, eta aal eban giñoan, aren egarri ta oiñazea arintzen saiatu zan. Agiri zan aita kinka larrian egoala, eta semearen itaun maitekorrai itz eten eta zentzunbakoakaz erantzuten eutsen.

Mutillaren bizitzean lenengoz, larritasun esaneziñak menperatzen eban. Jaio zanean ama il egin yakon, eta au zala-ta, ez eban beste maitasunik ezagutu aitarena baiño. Era berean Iroz'ek semeagan maitasun guztia jarri eban, eta bere emaztea aur-egitean il yakonean, beste emakumerik ez eban ezagutu nai izan. Edozein guda-ekin-tzatik etxera biurtzen zanean, asti guztia semearekin emoten eban, eta aitak ekian guztia semeari erakusten eutsan, eizan eta iskillo-erabiltean batez be. Gaztelutik urten bear izaten ebanean, irakasle baten zaintzapean lagaten eban, eta edu onetan irakurri ta idazteaz gainera, aldi areitan oikoak ziran jakintza-gaiak ikasi ebazan be. Baiña Yanoz zoriontsu egitsana, aitaren laguntza zan, eta au kanpoan ebillanean, mutillaren irrika osoa biurpenean jarrita egoan. Ondo ezagutzen eban Iroz'ek berarekiko semearen eraspene, eta etxean zanean, Yanoz'ekin zabaldian zear joian, orein eta basurdeketan. Aitaren ardureak mutilla gudaririk onenakaz inguratu eban, eta olan abailari ta gezilari bikaiña billakatu zan, lurralde areitako onenetariko bat, alegia. Iroz semeagan urentasun-sentipenak ereintzen saiatu zan, baita giristiñoen legea be, aldi areitan Euskalerrian guztiz edatua zana.

Egun aretan, Igun'en sarobean aita zauritua aalik ondoen zaintzen aalegintzen zala, Yanoz larritasun ezaugue batek atxillo sentitzen zan. Aita berarekin beti izango leukela uste izan eban, eta gaur aita txarto ikusteak atsekabe bizia sortzen eutsan. Eta olan orduak igaro ziran, aita batetik bestera iraulkatzen zala sukar gaiztoaren opari, itz adigaitzak esaten ebazala. Ezoturiko zapi bat, Yanoz'ek aurpegi ta eskuak igurtziten eutsazan, ezin-egona zeozer baretzen yakola bazirudian-eta.

Illuntzean Igun ardiekin biurtu zan, eta jangai batzuk gertaturik, aparti ariña izan eban. Iroz'ek, baiña, ezin egikean gauzarik iruntsi, eta orduan Igun'ek larranbillo-ura atonduta, zelan edo alan edan-erazo eutsan. Artzaiñak Yanoz'eri lo egiteko etzan zeiten eskatu eutsan, baiña sentipen bakanak jota, mutillak ez eutsan jaramonik egin, aitaren jagoteari jarraituz. Olan gabeko ordu batzuk igaro ziran, eta alako baten, Iroz bere lokumatik itxartuta, sutetik edatzen zan argi aulpean semea alboan ikusi eban, eta,

–Yanoz, nire maitia –mintzo makalaz esan eutsan–, emen al-zagoz oraindiño...? Zoaz lotara, bear dozu-ta.

–Ondo nago, aita, eta zu zelan sentitzen zara...?

–Orain obeto, baiña neureak egin dau, Yanoz...–

–Ez, aita –oiu egin eban mutillak mintzo urratuaz–, danok bear zaitugu, neuk batez be...!

–Entzun, Yanoz, ni banoa zure amagana. Beti irrikan bizi izan naz noiz etorriko litzakidan ordua berarekin biltzeko. Zu jaiotzean joan yatanetik, nire bizitza basamortuan zear egiten dan bidaia izan da, agindutako lurralde zoragarria noiz elduko litzakidaren begira, eta orain zoroki maite izan nebana barrero ta betirako besarkatzeko garaia eldu yat, seme. Jakin bear dozu, baiña, Yanoz, nire bizitzaldian zear izandako ibilte alderrai onetan, zeu izan zaitudala bidea argitu daustana, eta zeuri esker zorionezko uneak ezagutu dodaz be...–

Ona elduta, arnas artzearren Iroz isildu zan, eta orduan semearen negarra oartzean,

–Ez negarrik egin, seme –abots neketsuz esan eutsan– pozik ilten naz-eta. Baiña joan baiño len, garrantzi andiko zerbait esan bear dautsut, eta auxe, alegia: Naparra'ko euskaldunek errege bat aukeratu bear dabe, erreñu sendo ta aaltsu bat sortzeko gai izan daitezcan ego ta iparreko arrotzen erasoai jarkitzeko. Azken urteotan Naparra'ko etsaiek bide guztiez gure lur maiteaz jabetzeko aalegindu dira, Auñamendi'ko gure lurralde au beste tokien ate ta igarobidea dalako. Lurralde onetako buruzagi batzuk, azken aldiotan batzar batzuk izan doguz Iruña'n, gure erriaren duin izan daiten nagusi bat erregetzat izendatzeko. Badirudi napartar zaldunon auke-rea Eneko Aritza'ren alde jarten doala. Bitartean, txarto ikusten dogu gure burua aske izateko. Mairuak ez diranean, iparreko akitaniarrak gure aurka doguz, eta azken baten gure aberririk kanpora botaten ba'doguz be, etenbako triskantzak jasanez gainera, gure abelgorri ta giberriz jabetzen dira, Naparra'k aberastasun eta gizonetan galtze

andiak jasaten dauzala. Bearrezkoa yaku, beraz, akitaniarrekin bake-itunpen iraunkorra egitea.

Ona elduta, Iroz isildu zan indarrak irabazteko, eta semeak eskintzen eutsan ura edan ondoren, soñia jagi egion agindu eutsan, eta jarraian, eten egindako gaiari barriro ekin eutsan onetaraxe:

–Orregaitik, seme, ni ilda gero, auxe egin dagizula nai dot: Irati'ko oianean eremutar dagoan Imoz nire anaia agana joango zara, eta an urte batzuk igaroko dozuz burrukan egiten ikasi ta bearrezko indarrak jaritsi dagizuzan arte. Imoz nire anaia ezpatari gain-gaiñekoa da, eta nire ezpatea erabilten irakatsiko dautsu. Garaia etorrira, Akitani'ko duketegi edo dukearen kortera joango zara, eta...

–Aita, –eten egin eutsan Yanoz'ek–, zelan jakingo dot nire garaia eldu izango yatala...?

–Ikusten dozu orko ormatik eskegita dagoan nire ezpata ori...? Ara ba... esku bakar bat az erabilteko gai izan zaitezanean, orduan Akitani'ra joateko garaia izango dozu. Duketegira elduta, Undobika Duke agana joanda, nire alde, Undaitz'eko Iroz'en alde zatokziola esango dautsazu, eta ezaugarritzat, nire ezpata ori erakutsiko dautsazu...

–Baiña, aita –ebagi eutsan Yanoz'ek barriro–, zelan joan naitekio, gure erriari orren gorroto andia dautsanagana...?

–Undobika, Akitani'ko dukeak ez dausku iñongo gorrotorik.

–Orduan, zergaitik orren sarritan erasoten dauskue akitaniarrek, atzo bertan egin eben lez...?

–Eraso zital ori ez zan Undobika Dukeak aginduta jazo, Bertran'ek, Konte Baltza'k bere kabuz egindakoa baiño. Onek, napartarrai, eta niri batez be, gorroto itzungieziña dauskue.

–Zergaitik, aita, zergaitik gorroto dautsu zeuri, munduko gizonik onenari, dalako Konte Baltza'k...?

–Ori edesteko autu luzea izango litzake, eta orain nire aukeran dodan astia laburra da. Eki odan, beraz, beñenari... Undobika Dukearen aurrean zaitezanean, gure aurkako bere gudarien eraso ugarien barri emongo dautsazu, baita zelan geuk euskaldunok bakean bizi izatea nai dogula be, eta aldi luzerako itunpen bat egiñez, gure onerako izanez gaiñera, euren onerako be billakatuko litzakela, Orreaga'ko trokan lengo eunurtean Karlomagno'ren gudarosteari jazorikoa, barriro gertatu ez daiten...

–Aita, zuk diño zuna zentzunez beterik ikusten dot, baiña zelan lelotuta dagoan batekin itunpen bat egin...? Atzo, gazteluan Bertran'ek atxillo zinduzanean, ez eutsun esan ba, Dukea txotxolotuta egoala...?

–Ez orixe...! Gizaki zitala izanez gainera, Konte Baltza'k ez dautso ezetariko begirunerik bere nagusiari, eta sarri askotan, Undobika Dukea iparreko mugan, Germania aldean, arazopetuta dagoan ezkerre, Konte Baltza eretiaz baliatzen da bere nagusiaren baimenik bage, Euskalerrria'ri erasoteko. Zaarra da Undobika Dukea, Akitani'ko nagusia, baiña jaurlari ona ta arteza da...

Ona elduta, arnas-estuka Iroz isildu zan, nekearen-nekez begiak ixten ebazala. Yanoz'ek aitaren aurpegiko izerdia txukatu ondoren, ura eskiñi eutsan. Atsedene baten ostean,

–Entzun egistazu ondo, seme –Iroz'ek barriro–, itunpen ori jaritsi dagizunean, aberrira bihurtuko zara, eta Undaitz'eko gazteluan, gure jatorriko etxe indartsuan kokatuko zara, gure endari jarraipena emonez gaiñera, antxiñatik jazo dan lez, Aezkoa, Erro ta Arze ibarreko erri ta jendeak babesteko. Orduko, orain mairuen aurka burrukan egiten diarduan Fortun nire buruzagi zintzoa, gudatik bihurtuko zan. Zerbitzari zangar onen laguntzaz oiko gudatalde bikaiña sortuko dozu, beti lez Naparra'ren alde ekiteko...

–Aita, arren, atsedene artu unetxu batez –etsiak artuta eskatu eutsan Yanoz'ek–, eta gero jarraituko dozu.

–Aukerea amaitzen yat, seme, eta inguruan dana illun agertzen yat... Entzun ondo auxe, Yanoz... Eneko Aritza'ren agintzapean... Auñamendi'ko buruzagiak alkartuko zarie, eta... orduan Naparra'ko erreñua sortuko dozue... eta olan indartsua izanik, gure aberrira jareiz izango da... Otz naz, Yanoz maitia... emon egistazu eskua... banoa zure amagana... Baiña auxe entzun egistazu ondo... egunen baten aal dagizunean... eroan egizuz nire gorpuzkiak Undaitz'eko gaztelura, larrañeko arlastenpean obiratuta dagoan zure amaren ondoan ipinteko... eriotzak berak be alkarregandik baztertu ez gagingan...

Begiak itxita, Auñamendi'ko Iroz, Undaitz gazteluko nagusia lo-antzean geratu zan, aurpegian zear bakezko itxurea edatzen yakola. Lekorean ego-aizearen suzmurrek sarroba lastantzen eben, eta aitaren gorpuaren alboan, Yanoz'ek negar etsi bateri emoten eutsan.

Bazkari ariña egin eben Yanoz'ek eta Igun'ek. Jarraian, bion artean endai-aitzurakaz obi zabala sakondu eben. Au egitean bioi malakoak mara-mara eriezan. Obia gerturik egoanean, Iroz'en gorpua ekarri eben eta bekokian Yanoz'ek musu luze maitekorria emonda, Igun'ek eskuari mun egin eutsan, eta jarraian, Undaitz'eko Iroz zangarraren gorpua eortzi eben. Orduko, eguzkia sartaldeko mendien atzetik ostentzeko zorian zan. Izarrak agertzen asten ziranean, Igun'ek egurrezko gurutz bat obi-buruan jarri eban, eta sarrobera bihurtu ziran. Artzaiñak Yanoz mai-ondoan jesarrierazo eban zeozer jan egian, baiña atsekabeturiko mutillak ezin egikean mokaurik iruntsi. Malko samiñen artean Igun'eri auxe esan eutsan:

–Aizu, Igun, egunen baten aitaren gorpuzkiak Undaitz'era eroango doguz, ezta...?

–Bai, Yanoz, an, gazteluko larrañean, arlasten pean zure amaren ondoan atsedena aurkituko dau. Bitartean zure aitak agindutakoa bete bear izango dozu.

–Entzun zenduan esan eustana...?

–Emen nengoan ezkerre, zeozer aditu neban, eta auxe benetan: egunen baten ez

dakit zelako itunpena egiñik, ona biurtuko zarala, eta Fortun'en laguntzaz gazteluaz birjabetuta, Naparra'ren alde aalegindu bear izango dozula.

–Bai, aitaren aginduaren azken zatia da ori. Biar bertan, Oroz-Betelu'n bizi dan nire iñude Amañe'gana zu ta biok joango gara, arako bidea ondo ez dazagut-eta. Andik ona biurtuko zara gure ardien zaintzari jarraitzeko. Bitartean, aita niri agindutakoa betetearren lur onetatik alde egingo dot, baiña jende guztiari jakin-erazoko dau-tsazu, egunen baten Undaitz'eko jabetasuna artzeko biurtuko nazala. Amar-amabi urte igarorik etxera biurtuko ez ba'nintz, gaztelua ta beroneri dagokiozan lurak, Nagore'ko nire lengusu Garroz'entzat izango dira. Gora-beera guzti oneik idatziz emon-go dauzadaz nire Amañe zintzoari, baiña aitaren zerbitzaririk onenarikotzat zaitudan ezker, orain bertan jakitun ipinten zaitut. Ulertu daustazu ondo, Igun...?

–Bai, Yanoz. Nasaitu zaitez, zu biurtu arte artaldea zainduko dot eta zure aitaren gomutea ta dagokizun eskubideak barruti onetan bizirik iraun-erazoko dodaz. Eta orain, Yanoz, lo egin, biarko bidegitea luze samarra da-ta. Atsedean artuizu nasai, nire artzanorak jagole izango dogu gau osoan zear-eta.

Azken egun bietan jasandakoagaitik apurtuta, Yanoz etzanda jarri, eta luzaro barik lo geratu zan. Udagoiko zeru gardenean, aize epelaren urrumak izar keiñulariak laztantzen ebazan zabalduko gau-eresiak lagunduta.

Egungentian, gosaria artuta gero biok Elke mendietan zear, Agoitze'tik urrun ez dagoan Oroz-Betelu'rantz abiatu ziran, eta andik zazpi ordubetera Amañe'ren etxera eldu ziran. Aldi areitan baserria zan, sei bat etxe baiño besterik ez ebazala. Semetzat eban Yanoz ikustean, zorionez gaiñezka Amañe'k besarkatu eban, eta gero, eldu barriai etxeko janaririk onena eskiñi eutsen. Bazkaria amaitu baiño ez, Igun Elke mendietako sarobe edo eskortara biurtu zan, bere ardurapean egoan artalde andia jagotearren. Urteterakoan, Yanoz'en eskuari oratu eutsan mun egiteko asmoz, aldi areitan zerbitzariak ugazabai egin oi eutsien antzera, baiña mutillak artzaiña besarkatu eban estu-estu, mintzo urratuaz auxe zirautsala:

–Agur artzain zintzo ori, nire aitaren alde egiñikoa ez yat egundo be aztuko, Igun maitia...

Une aretako zarrastadak eraginda Yanoz'eri begiak lañotu yakozan. Malkoai eutsi eziñik, eta itz bat bera be esateko gauza ez izanik, Igun, Elke-mailloko artzaiña, urrats ariñez bere eskortara abiatu zan.

Arratsalde aretan, azken egunetan jazorikoa edestu eutsan Yanoz'ek Amañe'ri. Onek, gazteluaren ondapena ta Iroz'en eriotza batez be jakin ebanean, negar baten asi zan, Undaitz'eko ugazaba biziro maite baieban. Onen ostean, astiro ta ardurarik andienaz mutillak idazteari emon eutsan. Amaituta, idazkia estalki baten sartu, eta onen azalean auxe idatzi eban: "Nagore'ko Garroz'entzat" Jarraian, berandu samar izanik, apaldu eban, eta egun aretako bidegiteak nekatuta, oeratu zan.

Biamonean, leioan zear sartzen zan eguzkiak iratzarrita, jagi, eta sukaldera

jatsi zan. Orduko, Amañe'k atondu izan eutsan gosaria, eta iñudeari auxe esan eutsan gosalduta gero,

–Agur, Amañe maitia, eta entzun ondo auxe: aitak aginduriko arazo bat betetera noatzu, eta urte batzuk igaroko dira biurtu aurretik.

–Baiña, Yanoz, nire maitetxua, zergaitik ez zara geratzen gurean...? Emen ondo gordeta bizi izango zara, eta Batix nire senarraz beste, ez dau iñork jakingo Iroz'en semea emen dagola. Edozelan be, ziur naz Konte Baltza'k ez dauzala arakatuko inguru oneik zure billa.

–Baiña, Amane, ez dakizu zer diñozun. Emen geratuko ba'nintz ez neuke lortuko Naparra'k bear dauan bake-aldia, nire aitak ikusten eban bearrezko baldintza gure aberria onik urten daiten. Bera zan lako gudari ona billakatu nai dot, eta egunen baten agindutakoa burutu dagidanean biurtuko naz. Ni, Iroz'en semea bizirik nagoala, eta garaia etorrita nire gaztelura biurtuko nazala, Igun'ek eta zeuk barruti onetako euskaldunai oroitu-erazoko dautsezue. Baiña gaurdanik amar-amabi urtera biurtuko ez ba'nintz, idazki az Nagore'n bizi dan nire lengusu Garroz'eri eskuratuko dauzazu. Aditu dozu ondo, Amañe...?

–Bai, Yanoz.

–Orain atondu egistazuz ogitarteko batzuk biderako, eta erakutsiko daustazu Abodi'rako bidea.

Biderako janaria atonduta, Amañe negar baten ateraiño joan zan, eta Batix bere senarrak eskaturiko norabidea azaldu eutsan. Betarik galtzeke, iñudea besarkatu eban estu-estu, eta jarraian Yanoz bidean gora zuzendu zan.

Begietan malkoak, atetik Amañe'k maitasun amatarrak begizatzen eban ugase-me kutuna. Izan be mutil sendo ta ederra zan, eta ezpaibarik egunen baten Naparra'ko zaldun bikaiña billakatuko litzake.

Aitaren ezpata astuna sorbaldatik eskegita saiets batetik, eta bestetik uztai ta gezi-ontzi laga-eziñak, Yanoz aranean gora bideratu zan Batix'ek emondako argibideai jarraituz, eta Goiko Abaurrea atzean itzita, Abodi mailloko aldapari ekin eutsan. Eguraldi ederra izanik, gaba orduko basoko orbel-meta baten gaiñean etzanda jarri zan, aparizat ogi-tarteko bat janda gero. Nekatuta egoanez lo egin eban ederto, eta egungentiaz batean itxartu zan. Zeozer iruntsirik. Abodi-katean gora bideratu zan, eta eguberdia barik mendiko bizkarra zearkatuta, aurrean berak iñoiz asmatu ezin egikean oian amaibakoa agertu yakon. Pago tantaiezko oian eder a ezin zeitekean Irati'ko pagadia baiño izan. Aurrerago, baiña goian, erraldoi baten antzera, Ori mendiko gailurra jagiten zan. Ez eban, beraz, iñoren argibiderik bear Irati'ko oianera eldu izan zala jakiteko.

Bedar samurraz estalitako Abodi'ko bizkarrean jesarri zan, eta ogi-tarteko bateri ekiñez, bere buruari bein eta barriz itauntzen eutsan, pagadi amaibage aretan zelan idoroko leuken osaba Imoz. Izan be, zaila izango litzakio zugaitzezko itsaso aretan gizasemerik ikustea.

Mendian beera asi zanean, arrituta begiztatzan eban inguruko edertasuna. Udaz-kena izanik, pagoen ostoa zugaitzetatik jalgitzeko zorian, laster ostenduko litzak arrats-beerako eguzkipean, guztitariko urrezko litsak erakusten ebezan. Ozkorriak Orreaga-aldeko zerua gorrimaña biurtzen ebala, Yanoz basora eldu zan, eta orbelek estalitako lur azkor aberatsean, baeritxan abarkak oin-oial biguna zapaltzen ebela. Barrunbe aretan, danak illunduagoa zirudian, eta noizbait goseak eraginda, aparirakoa jaristeko gertatu zan.

Eroiazan iskillo guztiak lurrean lagata, saietseko zizkutik arribil bat abaillean jarri, eta basoan zear barrendu zan. Ibilli ebillela, alako baten orkatz gazte bat ikusi eban lats bateko urak edaten ziarduala. Abaillari eragin, eta jaurtikia tximista baizen azkar abiatu zan, baiña ariñegi jaurtita-edo, arriak uts egin eban. Aalik azkarren orkatza pago-sarrian ostendu zan, Yanoz abo bete agiñakaz geratzen zala. Orduko illunegia zan, eta iskilloak len itxitako lekura biurtu zan. Gau otza izanik, inguruko abar batzuk batu, eta erdai-sukarriakaz sua piztu ondoren, onen alboan etzanda, orbelen gaiñean lo geratu zan.

Urrengo goizean gose gorriak eraginda itxartu, eta nagiak atararik, bearrezko eizakia lortzeko gertatu zan. Ereti onetan, baiña, Yanoz'ek uts egin gura ez, eta uztai erabiltea ebatzi eban. Geienetan naiago eban abailla, jaurtitako geziak askotan galtzen ziralako, eta barriak egiteko berak ez eban aukerarik. Abailla erabilteak, oster, ez eutsan buruausterik emoten, arribillak zelangura jaritsi egikeazan-eta.

Artu eban, beraz, agiñezko uztai ederra, eta gezi-ontzia sorbaldatik eskegita, aalik isillen, aurregunean ikusitako latsaren ertzean beera abiatu zan. Baekian Yanoz'ek, eizarako eretik onenak goizaldean eta illunabarrean izaten dirala, abereak orduan edan oi dabelako, gau luzearen ostean eta eguneko bazka-aldia amaituta. Andik laster, latsaren ukondo batera elduta, igigetasunik andiengan pago-enbor baten atzetik barrandari jarri zan. Luzaro barik orbel-gaiñean kirrika motelak aditu ziran, eta oreinkume bat ertzean urreratu zan. Gezi bat uztai jarri, eta aurreko besaburua- ren atzekaldera zuzendu eban. Bere aitak erakutsi izan eutsan, eizakia lenengo jaurtikiz erail bear dala, aalik eta gitxien pairatu daiten, eta augaitik Yanoz'ek biotzean zauritzea aalegintzen zan beti. Txistu labur bat, eta tximistak jota lez, oreinkumea lurrera amildu zan. Arin baten oldartu yakon mutilla, eta txamarrapean eroian aitzoaz laster narrutu, eta lengo lekura biurtuta, eizaki-zati ederra erre eban.

Goiz-erdia izango litzake, Yanoz osaba Imoz'en billa asi zanean. Bide-zorrora oreinkumearen erreki-zati andi bat sartu, eta nora ez ekiala, basoan zear ibiltzen asi zan. Noizean bein geldituta, aalik indartsuen irrintzi egiteari emoten eutsan, tartean "Osaba Imoz"en deia ozen aldarrikatzen ebala. Olan igaro zan egun osoa, eta illuntzean, arribillen artean suzmurretan joian ur gardenetako ibai ederra aurkeztu yakon. Ezin zeitekean besterik izan Irati ibaia baiño, eta izan be olantxe zan. Antxe gaba emotea erabagirik, su andia piztu, eta errekiaren zati bat azpaldu eban an bertan lo egin baiño len.

Egun batzuk osaba Imoz'en billa batetik bestera ibilli zan alperrik, oiana etenbarik aztertzen ebala. Irati ibaiari ezkeraldetik Urzuria deritxan errekarren ur garden eta biziak erasten yakoz, eta andik laster, Irabia atxarte malkorretik urak atxik-atx ikotika, Aezkoa arana igarota, egorantz abiatzen dira.

Irabia'tik asita, Irati ibai-alde guztia, eta Jauregi Zaarreko lepoa igarorik, Benaparra'n aurkitzen dan iturbururaino eldu zan. Baiña aalegin au be ustel billakatu zan, eta Irabia'ra biurtuta, Urzuria'ren lurraldea arakatu eban. Baziran amabost egun osaba Imoz'en billa ziarduala, baiña onen zantzurik inon ez. Zorionez, eguraldia epel eta eguzkitsua zan, Martin Deunaren uda-ondarrari dagokionez, eta onezaz gainera, zenbat-gura eizakia edonon aurkitu zeitekean. Bapatean, baiña, osabaren billa iru bat aste igaroak zirala, aize zakar bat putz egiten asi, eta zugaitzen ostoa orbel biurtu ondoren, negu-aurreko euritea aurkeztu zan.

Bein baten euriz blei-blei eginda, batetik bestera Yanoz'ek osabari oi ta irrintzika erantzunik artzeke dei egitsala, otzak artuta eta urez txirrioka joiala, Urzuri ibaitik ur egoan atx andia aurkitu eban. Zulo baten aterpea idororik, su egiteko gertatu zan, baiña estu ta larri egiztatu eban, ardaia bustirik billakatu zala, eta beraz ez ebala su egiterik. Otz-ikara bizitan txoko baten kukurio jarri zan agiñak klaskatzen yakozala. Alako baten arribil baten iraultetea entzunda, begiak jaso ebazan, eta zauskada itzelak jota, ezin egikean siñistu aurrean ekusana...

Zuloaren sarreran islatuta, bere aitaren mamua ikusten ebala iruditu yakon. Aurpegi argal zurbilletik, begi gaztainkara sarkorrek arrigarrizko itxuraz begiratzen eutsoen. Gizaki areri billo luzeak bizkarrean beera erorkiozan, eta sokazko gerriko bat az inguraturiko, aparra-mantarrakaz jantzita egoan. Esku baten makil luzea erabilan, eta geldi ta isillean, zarrastada andipean bai'litzan Yanoz begiztatzan eban, berekiko auxe inoala "Bere irudi zoragarria gizon biurtuta dakust, ala zorotzeko zorian ete naz...?" Alako baten mutillagana joanda,

–Zu ete zara, oraintsu didar bizitan ibilli dana...? –esan eutsan

Yanoz urreratu yakon, eta gizon aren aurpegia urretik ikustean, zauskada bakanak eraginda besarkatu eban, oiuka auxe inotsala:

–Osaba Imoz, osaba Imoz, noizbait idoro zaitut...!

Gizon arek zur eta lur biurtuta, begiak zabal-zabalik begiztatu eban siñistu eziñik ekusana, eta berak be mutilla besarkatuz,

–Izango ete zara, ausaz, Iroz nire anaiaren semea...?

–Bai osaba, eta aren alde natortzu. Begira osaba...

Baiña mutillaren otz-ikarak oartzean, Imoz'ek eten egin eutsan, eta,

–Aizu, Yanoz, maite orrek, gorde zure edeskia gerorako, otzez dardar ikusten zaitut-eta –esan eutsan txera andiaz–. Goazen nire bizitegira, sutondoan legortu ta berotu zaitez.

Lobearen eskuari eutsirik, ibai-gaiñetik egian gora joian bidexka estu batetik

abiatu zan Imoz, eta andik laster zelaigune batera elduta, zearkatu eben eta atx bizian leize bat agertu yaken. Orduan,

–Aizu, Yanoz -esan eutsan osaba Imoz'ek–, koba au bizi nazan lekua da. Sartu gaitez an eta berotu zaitez, otz andia da-ta.

Sartu ziran, eta bospasei metrora, obo baten antzekoa zan amar metroko zabalune batera eldu ziran. Albo baten su ederra ikusten zan, eta onen argi gorritzapean, bizileku aren gora-beerak ikusi ebazan Yanoz'ek. Sutondoaz bestaldean orbelezko oatze bat egoan. Subazterreko ormatik eskegita, maskillo bat eta katillu batzuk ikusten ziran, baita ezpel edo urrotzeko zaliak kaiku baten inguruan. Iru-oiñeko baten gaiñean, burnizko zaflan gaztain batzuk erretzen ziran, eta suetez bestaldean, buztiniezko lapiko baten, bedarrak egosten ziran.

Sartu baiño ez, Imoz'ek erantzi zeitean agindu eutsan lobeari, eta burusi zaar batz estalita, egurrezko aulki baten gaiñean, sutondoan jesarri-erazo eban. Luzaro barik, suaren eragintzapean, mutillari otz-ikarak baretu yakozan, eta zuzpertz zanean, osabeari bere etortearen zergaitia azaldu gura eutsan, baiña Imoz'ek zeozer jan arte geroratu egian agindu eutsan. Ain zuzen be, osabak laster atondu eban aparia, eta egositako bedarretatik koillarakada batzuk erratillu baten eskiñi eutsazan. Bedarrezko lapikokoa ez yakon oso gogokoa gertatu mutillari, motelak baiziran koipearen ezagaitik, baiña urdaillearentzat berogarri izanik, iruntsi ebazan. Jarraian, katillu bete auntzesne emon eutsan, eta Yanoz bizkortuta ikustean, Imoz'ek apari bardiñari emon eutsan. Amaitu ebanean, beste egurrezko aulkixuan lobearen ondoan jesarrita,

–Orain, mutil –esan eutsan maitetsu–, azaldu egistazu zergaitik etorri zatzazkidan.

–Aitaren aginduari jarraituz etorri naiatzu, osaba. Begira...

Eta jarraian, Yanoz'ek osabari iru egun aurretik jazotakoa edestu eutsan, zertzelada txikienak be isildu barik. Begiak txingarretan josita, edeski guztiaren bitartean, itz bat bera be esan barik iraun eban Imoz'ek. Amaitu ebanean, aurpegian beera malkoen ildo bi ikusi eutsazan mutillak. Onen ostean, une luze batez biok isillik iraun eben, eta noizbait,

–Orduan, Yanoz –mintzo urratuaz osabak–, Auñamendi'ko zaldunik onena zan Iroz nire anaia, il egin da...?

–Bai, osaba, eta il aurretik zugana igorri ninduan, Akitani'ra joan baiño len, indartu naiten eta burrukan egiten irakatsi dagistazun.

Une batez isillik iraun eban Imoz'ek, eta gero,

–Bai, Yanoz –mintzo dardartsuz Imoz'ek–. Benetan diñotsut: Naparra'ko ezpata-ririk onena billakatuko zara, eta au zin dagitsut nire asaben gomutagaitik.

Negarra lobeari ezkutazearren, Imoz'ek aurpegia eskuen artean ezkutatu eban, baiña ezin egikean ezelan ostendu, astindutako bere bularraren negar-zotiñak.

Yanoz'ek be, begiak malkoz lañoturik ebazan. Isillune luze samar bat edatu zan egoitz basati aretan. Noizbait, egoera larria eten egiñik, besoa osabaren sorbalda-gaiñean ipiñita,

–Aizu, osaba Imoz, –galde egin eutsan Yanoz'ek–, zergaitik etorri zara basabazter onetara bizi izatera...?

–Orain urte asko, oben edo pekatu andi bat egin neban, eta ordaintzeko ona igorri ninduen.

–Zer jazo zan, osaba...?

–Pekatu izugarria izan zan neurea, Yanoz.

–Zelako pekatua...?

–Ez niri itaundu orain. Egunen baten, orretarako gai oartu naitenean esango dautsut dana, baiña orain ezin dagikezut esan. Onezkero berandu samar da, eta jasan-dako nekeen ostean on izango yatzu oeratzea. Etzan zaitez orbel-pillo orren gaiñean –eratsi eban Imoz'ek txoko bat erakutsirik–. Biarko oatze egokiago bat atonduko dautsut. Gabon, Yanoz.

–Baita zuri be, osaba.

Mutilla, agindutako orbelaren gaiñean etzan zan, eta luzaro barik loak artu eban.

Gaberdia igarota zan iñusturi ozen batek mutilla iratzarri ebanean. Lekoretik zugaitzen abarrotsak aditzen ziran ekaitz bizipean uluka. Yanoz barrero lo egitera gertatzen zanean, amestxar baten pean, aurki, osaba Imoz'en mintzoa onetaraxe aditu eban:

–Ene Jaungoiko maitia, zergaitik eroan dozu gutariko onena zan Iroz, eta ez ni pekatari andi au...?

Gero, leku aretan isiltasuna danaz jabetu, eta nekearen-nekez Yanoz lo geratu zan barrero.

Urrengo egunean Yanoz itxartu zanean egun argia zan jadanik, eta sarreraren ondoan osaba Imoz belauniko otoitzari emotsala ikusi eban. Mutilla jagi zan, eta sutondoko ormatik aurregunean eskegitako soiñekoa legor egoanez, jantzi, abarkak sartu, eta osabagana joan zan. Onek ikusi ebanean, zutundu zan, eta lobearen eskuari eutsirik, auxe esan eutsan:

–Yanoz, zure itxuragaitik badakust zuzpertz zarala. Orain gosalduta, eta ingurumarietatik egurastuko gara, luzaroz bizi izango zaran lurraldea esagutzen asi zaitez. Osaba Imoz'ek endaitxu batz txingarren artean arribil batzuk atara, eta kaiku bateko auntz-esnera sartu ebazan. Bereala, esne errearen usain berezia edatu zan, eta jarraian katillu bete esne bana edan eben. Leizearen barrukaldean arrizko sabaitik urrada ederra jausten zan, eta zulo baten zear ostenduta, atx-erraiak irusten eban. Antxe bertan garbitu ebazan Imoz'ek katilluak, eta gorostizko makillea artuta,

–Goazen, Yanoz –esan eban–, urten gaitezen ezagutu dagizuzan gure aldame-nak, eta bidebatez janaria irabazteko be.

Urten baiño len, Yanoz uztai-geziak artuta, osabaren atzetik urten zan. Ortzia odeitsu agertzen zan, baiña euririk ez. Leize-aurreko zelaian zear ibilli ebillela, osaba Imoz'ek landare-batzeari emon eutsan, berba egiteari eten egin barik.

–Aizu, Yanoz –esaten eban makurtzen zala–, oneiri iturri-bedarrak esaten dau-tsie, eta erreumea kentzeko bereziak ei'dira, eta ori egia dalakoan nago, ona etorri nintzanetik gatx ori ez dot ezagutu-ta... Ara... kardaberak dirudien beste oneik, inguruetako landararik gozoenak dira, eta sasoikoak diran ezker, aspaldi onetan ainbat eta ainbat jan dodaz... Begira, Yanoz, gorosti-garau gorri-gorri orreik orain umotzeko zorian, batu bear dira, zozok eta basaoillarrek garbitu dagiezan aurretik. Erreta jatekotas, garauok gozo-gozoak dira... Basaran asko be idoro daiteke Irabia'ko aldamentan, eta Dagonilla-Irailla'n umotasun osoa lortzen dabezenean, asko jan oi dodaz...

Edu onetan ziarduan Imoz'ek berba egiteari itzi barik, baiña landare areiri Yanoz'ek ez eutsen zaletasun andiririk, eta gaiñera eiza-kilikak jabetuta, osabari auxe esan eutsan:

–Aizu, osaba, zuk landare-biltzeari ekiten dautsazun bitartean, ni basoan zear joango naz, ia eizakiren bat ikusten dodan...

–Bai, Yanoz, joan zaitekez, baiña geiegi ez urruntzekotan. Gogoratu eguberdian biurtu bear dozula.

–Bai, Yanoz, joan zaitekez, baiña geiegi ez urruntzekotan. Gogoratu eguberdian biurtu bear dozula.

–Bai, osaba, gero arte.

Aldatz-gora abiatu zan Yanoz, oin-oial gozoa zirudian lur baltz biguna zapalduz. Atsegin yakon benetan Irati'ko oiana, zenbatu eziñeko pago tantaiek goikaldeko argia billatuz lerdan-lerdan. Ibilli ebillela zugaitzak bakantzen asi ziran, eta noizbait, zelai baten ertzean gelditu zan. Barruko sen bereizi batek eizakiren bat idoroko leukela iragarten eutsan, eta pago mardo baten atzetik barrandari gelditu zan, eskuetan uztaia ta gezi bat gerturik ebazala. Alako baten, tximista bai'litzan, zugaitzen artetik erbi bat zelaira sartu zan, eta ikoti egiñik, landare bat jaten asi zan. Geziak alderik-alde zearkatu eban, eta zer jazoten yakon oartu aurretik, illik amildu zan. Yanoz'ek urreratuta gezia kendu eutsan, eta erbia gerritik eskegita leizera biurtu zan. Eldu zanean, sarre-raren gaiñean ormeari eratsita, ezpata aundi bat ikusi eban, eta bere buruari itauntzen eutsala aren zergaitia, barruratu zan.

Orduko, osaba Imoz'ek bildutako landareak egosten ziran, eta sutondoan jesarri-ta, Yanoz'ek sastakaiaz erbia narrutu eban, eta osabari auxe esan eutsan:

–Aizu, osaba, ankutsik ikusten zaitut, eta erbi onen narruaz, eta beste urrengo baten arrapatuko dodanaz, aztal-zorroak egingo dautsudaz datorren neguan otzik jasan ez dagizun.

–Eskerrik asko, Yanoz –irribarrez erantzun eutsan osabak–, baiña ni aztalutsik ibiltera oituta nago...

–Ikusiko dogu zer diñostazun jantzi dagizuzanean. Ez al-do zu burduntzi bat erbia erretzeko...?

–Ez, iñongo okelik ez dot jaten-eta, baiña nai izatekotan, zearkatu egizu gezi bat, eta muturra lurrean jarrita, biraka eragiozu.

Olan egin eban mutillak, eta andik laster leizea usain kilikagarriaz bete zan. Erreakia biraka erabillela, sarrera-gaiñean dingilizka egoan ezpatea gogora etorri yakon Yanoz'eri, eta,

–Esan, osaba –itaundu eutsan–, zergaitik dago eskegita ezpata bat sarrera-gaiñe-an...?

Une batez isillik irauñ eban Imoz'ek, eta gero astiro auxe esan eutsan:

–Orrek nire pekatuarekin zer-ikusit andia dau. Egunen baten orren zergaitia jakingo dozu. Orain ekin dagozun bazkariari, berandutxu da-ta.

Gogoz ekin eutsien gertutako bedar eta errekiari. Amaitu ebenean, uztaia ta geziak artuta, Yanoz atera abiatu zan barriro eizatzeko asmoz, baiña osaba Imoz'ek geldi-erazo eban, auxe iñotsala:

–Nora zoaz, Yanoz...?

–Eizaketara, osaba.

–Begira, loba maite orrek: badogu oraindiño apaltzeko lain janari; ez do zu be-raz, ezen billa joan bear. Pekatu andia da, bearrezko ez danean, Jaungoikoak irazan edo sortu ebazan abereak iltea. Eta gogoan gorde bear do zu beti, izadi-aurkako legea dala kirol-zaletasunaz edo astia emoteko, iñongo abere errubakoari bitzta kentzea.

Biar joan zaitezke janaria amaituta, beste eizakiren billa, eta arrapakiña andia ba'litz keatuko dogu, eta irauñ dagian arte, ez do zu beste eizaketarik egingo. Entzun...?

–Bai, osaba, zuzen zagoz. Aitak be, olan esaten eban. Osteratxu bat egingo dot, eta illuntzean biurtuko naz.

–Joan zaitez ba, eta eroan zure iskillioak badaezpadakoan, zure burua galtzoriren batetik jagoteko.

Arratsalde aretan oianean zear joiala, ederretsi aal izan eban Yanoz'ek barruti aretako eiza-aberastasuna. Nonai ikusi zeitezkezan, orein, orkatz, erbi, azkonar, artz, basa-katu, eta beste abereen aztarnak. Lats baten ertzera eldu zanean, edaten ziarduan basurde batek igesari emon eutsan. Ikusi ebazan baita be, pago-adar billutsen artetik basaoillar batzuk, guztitariko egazti txikiagoak aipatzeko. Edozelan be, Yanoz'ek egiztatu eban oian aretan zenbat-gura janaria jaritsiko leukela. Jaurtiketeari, baiña, ardura andia emon bear izango leuskio, uts egitean, geziak geienetan orbelpen galduko litzakez-eta.

Arpera eldu zanean, lurrean belauniko osaba Imoz oitutz sakonetan murgilduta egoan. Lobeak ikusi ebanean, alboan belaunikatu zeiten agindu eutsan, eta amar Gure Aita alkarrekin esan ebazan. Oitutzaldia amaituta, oiko bedar egosiak janda gero, enparauko erbi-erreakia jan eben, eta mai-azkentzat eskukada bana gaztain erreka auntz-esnez lagunduta. Apaldu bitartean, osaba Imoz'ek auxe esan eban:

–Begira, Yanoz, egunero aparia izan aurretik, amar Gure Aita alkarrekin esango doguz, arimak be janaria bear izaten dau-ta. Nik egunoro ordu batzuk oitutzan diardut, eta apal-apal Jaungoikoari barkapena eskatzen dautsat. Jaritsiko al dot egunen baten...! Oitutzak Jaunaganago garoaz, baiña orretarako Berarekin itz egiten ikasi bear da. Niri beintzat, asiera baten aspergarria egin yatan, baiña ekiñaren-ekiñez, orain orduak unetxu laburrak biurtzen yataz. Baiña zeuk, gazte orrek, osaba Imoz nekegarria dala uste izan ez dagizun, naikoa bedi gaurkotz, eta gabon Jaungoikoak lagun.

Biamonean Yanoz oianean zear egurastearren joana zala, Imoz'ek egur batzuka-oz oer-antzeko bat gertatu izan eban, eta barrukoa orbelez beterik, oatze eroso billa-katu zan burkoa ta guzti. Eta izan be, gau aretan nekatuta egoanez, Yanoz'eri munduko oerik bikaiñena iruditu yakon.

Eta olan osaba Imoz'ekin Irati'ko oianean biziera zoragarria asi zan Yanoz'entzat. Goiz eta arratsaldero, bere biziko ibillaldiak egin oi ebazan, eta olan ia oartzeko bazter yaukal aren gora-beera guztiak ezagutzen asi zan, au da, zugazti-arteko zelaiak, Irati, Urzuri ta lats askotako ertzak, atx-arteko troka estu, biurri, aldapatsuak, Abodi mailloko egi ezoak, iradi zabalak, eta goikaldeko amildegi bildurgarriak. Ezagutu ebazan baita be, eizakiek naiago ebazan edaska ta bazka-tokiak. Nai ebanean be-arezko janaria jaristen eban, eta osaba Imoz'en aginduari jarraituz, ez eban beste abe-errik eizatzen, irautzeko bear ebena baiño.

Osabarekin bizi izaten asi zanetik, agiri zan aren aldakuntza. Ordurarte landare utsakaz janaritutako eremulariaren irudi azurtsu, argala, lobeak etxera ekarrezan eiza-

kiakaz, betetzen asi zan, eta bere lengora biurtuta, Yanoz'eri sarri askotan iruditzen yakon aita barriro ikusten, eta aren mintzoa entzuten ebal. Imoz'ek maite-maite eban lobe, gero ta geiago izan be, kontuan arturik batez be, Yanoz'en aurpegi ta igikunek gogora ekarkioena.

Irati'ko oianean igaro eban lenengo negua gogorra azaldu zan. Eizakien narruakaz osaba-lobak orkatzezko janzki bikaiñiak atondu ebezan, baita Yanoz'ek osaba Imoz'eri agindutako azmantalak be. Onezaz gainera, abarka bigun gozoak erabillezan, eta etxeko (Imoz'ek arpera etxea esaten eutsan beti) sua gau ta egun piztuta egoanez, ez eben ezelako otzik jasan. Eizean jardutea bearrezkoa ez zanean, keaturiko okela naikoa ebelako, sutondoan jesarrita, autu luzeari emoten eutsoen, eta Yanoz'en jakin-naia asetzeko, Imoz'ek berak bizi izandako amaika jazoera ta burruka edestu oi eutsazan. Edu onetan Yanoz apurka-apurka, aberria ta beste lekuak entzutez ezagutzen asi zan, baita zaldun napartarrek mairuen eta beste arrotzen aurka izaniko burrukak. Onein artean batez be, Naparra ondatu ondoren Karlomagnoren gudarostea etxera biurtzen zala, euskaldunek Orrega'n egin eutsoen triskantza izugarria. Beretarren ekintzak ezagutzean, Yanoz'en adorea mailla gorenetaiaño igoten zan, irrika bizian bere buruari esaten eutsala, noiz letorkioke garaia Akitani'ra joateko.

Udabarria etorri zanean, bizitza, eresi ta margoz beterik, oiana berpiztu zan. Orduan Yanoz ibillaldi luzeak egiten asi zan, eta egun-argia luzatzen joian giñoan, berak be ibillaldiak andiagotzen ebazan. Sarri askotan egunsentiaz batean jagita, ez zan biurtzen illunabarrak argia uxatzen eban arte. Era onetan, Irati'ko barruti guztia ezagutzen joian, eta olan, ibaia Benabarra'ko Bizkartze mendian jaioten zala egiztatu eban, eta gero, Mendibeltz'eko egian biurgune zorrotza egiñik, Naparra'ra sartzan zala. Oianean zear, eta Irabia'ra eldu aurretik, Ori mendi garaitsutik etorren Urzuria'rekin bat eginda gero, Aezkoa'n zear egorantz bideratzen zan ibaia.

Bein baten, Ori mendiko tontorrera joatea ebatzi eban, eta aldatz gogorrean gora, pagoak amaitu ziranean, izai ederren zear jarraitu eban, eta oneik amaituta, aldapa arritsutik gora gaillurrera eldu zan. Emendik egoalderantz, Erribera'raiño edatzen ziran Naparra'ko mendi ta ibarrak garden-garden ikusten ziran. Sartalderantz, Aztobizkar eta Orrega'ko mendiak. Sortaldean, Erronkari igarota, mendi garai ederak, artean Iru Erregeen Maia bereizten zala. Gero, iparrerantz begiratu eban, eta...

Zirrara bakanak astindu eban. An, urrutian, ikusmenaren mugaraiño lautada neurribakoa edatzen zan... Ango lekuren baten Akitania bere begira egoan, aita agindutako egunen baten ezagutuko leuken Dukerri ospetsua. Lurren arek beragan erakarpin sorgingarria sortzen eban, egunen bidean bere baitan andituko litzakion zorame-na. Ara joateko, baiña, urte batzuk itxaron bear izango leukez, Iroz'en, bere aitaren ezpata astuna esku bakar bataz eusteko gai izan zeiten arte... Mutillak asperen bat jaurti eban, eta mendian beera biurtu zan etxera.



IMOZ'EN OBENA

Irati'ra etorri ta bigarren urteko udako gau eder baten, osaba-lobak arpeko sarrean jesarrita egozan eguraldi yaukala gozatzearren. Zelaiaz bestaldean, pago-tantaien adaburu illunak ortzian islaturik marrazten ziran, baretasun osoan lotan bai'litzazan. Illargibako gau sakon gardenean, pilpira lakoa dan euren etenbako keiñuan, izarrak iñoizkorik argien bereizten ziran. Noizean bein, suzko lorratz luzea atzean itzirik, izar igeskorak une labur batez ortzia zearkatzen eben. Egun aretan egiñiko ibillaldi luzeagaitik nekatuta aurkitzen zan Yanoz, baiña gabeko sorgindurak lilluraturiko, ez eban oera joan gura. Alako baten Imoz'ek,

–Gaur lako gau zoragarria zan nire oben zitara egin nebanean... Gaur lez izar igeskorrek ortzi illunean euren suzko bidea marrazten eben, basoetan zear zoroaren antzera norabarik or-emenka nenbillela, nire etsipena baretu eziñik. Bai, Yanoz, garaia da ezagutu dagizun zure osaba Imoz'ek orain urte asko egin eban pekatu andia...

Une batez isildu zan Imoz, eta gero mintzo dardartsuz,

–Baiña asi naiten –jarraitu eban– Yanoz loba maite ori, lenengotik. Eneko Aritza'ren agintzapean mairuen aurka burrukan egin ondoren eta gauzak baretu ziranean, Muskaria'n (Tudela'n) gure adiskidea zan Musa Ibn Musa'k uri aretako jabetasuna gure laguntzaz artuta gero, napartar gudarostea etxera biurtu zeiten erabagi eban Eneko'k, baita aspaldi batez Lizarra'n atsedendaldia bat izatea be. Zure aita, nire anai Iroz gure artean egoan, eta izan be, gudarostean entzute andia eban zangar eta indartsutat. Guztiz ondo artu ginduezan lizartarrek, euren etxeetan pozik be pozik ostatua emonez.

"Lizarra'ra eldu ta egun batzutara, urduritasun andia sortu zan, eta izan be, ez zan gitxiagorako. Mezulari batzuk etorri ziran, Akitani'ko Dukea bere korte edo jarraigoaz urreratzen zalako barriaz. Aspaldi aretan, Undobika Dukea, euskaldunen adiskidea zan, eta euskeraz itz egiten eban, akitaniarrak jatorriz euskaldunak dira-ta, euren artean frankotarren izkuntza gero ta geiago erabilli arren. Undobika Dukearen etorrerea jakin genduanean, Eneko Aritza Lizarra'tik aurregunean joan zanez, napartarren arteko zaldunetarik urtenenak, batzorde bat sortzea erabagi eben, beste batzuekin artean, zure aita, nire adiskide Kaiotz, eta neu izanik.

"Eldu zan ba Dukea bere jarraigo dotoreaz, eta geuk napartarrok abegirik maitetsuena egin geutsan, baita guztitariko jaiak aren alde gertatu be. Undobika Dukea

gizon indartsua zan, eta gerritik eskegita eroian ezpata astuna esku bakar bataz euste-ko gai ei'zan. Alarguna zan orduan, baiña bere emaztea Lizarra'ko sendi uren batekoa izanik, bere ezkon-anaien jauregian kokatu zan.

"Akitani'ko Dukea eldu ta iru egunetara, napartarren batzordeak apari bikain-bikaiña berari ta jarraigoari eskiñi geutsen. Undobika maipuru zala, eskumatara bere seme Osartza ta ezkerretara Dukearen alaba Yunilde zoragarria kokatu ziran. Baegozan jarraigoko andere dotore ta ederrak, baita Akitani'ko Jaun garrantzitsu asko jai aretan. Aparia asi aurretik artez-jai bat ospatu zan, eta Undobika'ren ezkon-anaiek Naparra'ko zaldunak Akitani'ko jarraigoari aurkeztu eutsoezan, baiña an gengoanok ez genduan besterik egiten, Yunilde ederrari begiratu baiño.

Ona elduta Imoz isildu zan, ortziko izar igeskorrek begizatzen ebazala. Isillunea etentzearren, Yanoz'ek osabari auxe itaundu eutsan:

–Osaba Imoz, zelakoa zan Yunilde...?

–Zelakoan zan...? –amesetan lez erantzun eutsan Imoz'ek– Oso zailla da, Yanoz, aingeru bat zelakoa dan adierazotea, eta Yunilde, Akitani'ko dukearen alabea, neuk egundo ez ezagaturiko emakumerik ederrena zan, baita sotillena be. Aren begi arre andik eurakan zerbait azaldu-eziña eben; adatsa urreduna zan, eta bere abo gorri bete irribarre egiteko edegiten zanean, bazirudian oro edertzen dauan eguzki-printz bat bitargi baten zear etorkigula... Nik ez dot a lako edertasunik ezagutu, ezta ezagutuko be. Aren jas eta azkaia erregin batena zan. Bai euskaldunek bai akitaniarrek ez genduzan begiak beragandik kentzen. Euskaldunok alboko mai luze baten ondoan jesarrita gengoan, eta akitaniarrek gure aurrean egoan beste baten. Onein artean bazan Yunilde'gandik begiak kentzen ez ebazan andiki bat. Gizon andi ta indartsua berau, gero jakin nebanez, Bertran kontea edo Konte Baltza zan.

"Apari aretako jakiak ugari ta bikaiñak izan ziran. Asteko guztitariko mai-aurrekoak, ara: basurde-buru ta urdazpia, lukainkak, ziztorrak, odolosteak, galaperren arrautz egosiak, karramarroak, bildotsen miñak Erribera'ko moduan, perretxikoak, grisol erreak intxaur-saltzan, gaztain egosien arrauzpilla etab... Gero, basoillar-sukua intxaurrekin. Jarraian, Urederra'ko arrainkariak, eta onein ostean Urbasa'ko orkatz erreak erbikiak beteak eta gaztain-saltzaz inguratuak. Amaitzeko, guztitariko igaliak eta sukaldeko mai-azkenak. Jakiña, aparria Naparra'ko ardaoaz ondo bustita.

"Gaberdi inguru, jendea ainbeste jan-edanez guztiz adoretua aurkitzen zanean, Undobika'ren ezkon-anaia jagi, eta auxe esan eban:

–Jaun-andreak, Undobika'k, Akitani'ko Dukeak zaldun napartarri begirunerik andiena adierazoten dautse, eta poztasunik andienaz gaurkoaren ordaintzat, artuko zindukiez bere Akitani'ko dukerrian, egunen baten ara joango ba'zintzaze. Baiña nik baiño obeto, berak azalduko dautsue zuekanako sentipen anaikorrak.

Jesarri zan Undobika'ren ezkon-anaia, eta Dukea zutundurik, onetaraxe mintzatu zan:

–Napatarrrok, poztasun andiaz gure asaben izkuntza zaarraz mintzaten naia-

tzue, oroz gain nire eskerronezko lekukotasuna zuoi adierazoteko. Nire ezkon-anaiak esan dautsuen lez, Akitani'ko nire gaztelua zuentzat beti zabalik egongo da, gaur nire biotza beteten dauan zurekiko adiskidetasunaren ezaugarritzat. Eta au bene-benetan esanda, goazen beste gai batera.

Isildu zan Undobika Dukea, eta an egozan guztiai astiro begiratu, onetaraxe jarraitu eban:

–Atzo, Abarzuza'ko Jaunak itaundu eustan, egia ete dan munduan zear bala-bala dabillan auxe: nire arbasoakandik yarauntsiriko ezpata astuna, esku bakar bataz jasoteko gai ete nizan. Nik ez neutsan Abarzuza'ko Jaunari ezer erantzun orduan, baiña orain zuek guztion aurrean, erantzuna emon nai dautsat.

Eta jarraian bere jarraigoko zerbitzari bateri zuzenduz,

–Goriz, ekarri egistazu ezpatea.

Andik laster, ezpatatza itzela ekarrela, Goriz agertu zan, eta astiro-astiro akitaniarren eta napartarren maien artetik igarorik, apailiar guztiek Undobika'ren ezpatatza ikusi aal izan eben. Ezpata luze, zabal, eta astuna zan. Gurutzeko alde batean errubi eder bat eban. Danok ikusi genduanean, zerbitzariak Akitani'ko Dukeari emon eutsan.

Orduan maien arteko zabalunean zutunik jarrita, Undokika'k ezpateari oratu eutsan, eta indarraldi itzela egiñez, ezpatea soru-gainetik astiro-astiro jagiten asi zan, eta zearretara jarrita, apurka-apurka soru-gaiñean kokatu zan ostera. Ekintza au ikusleek oiuka ta txaloka ospatu eben. Zaratea baretu zanean, Undobika'k auxe esan eban:

–Bai ete da zuetariko baten batek, orixe bera dagikeanik...?

Areto osoan isillune bat egin zan, eta orduan Dukeak barriro,

–Zuetarikoren batek orixe ba'legi, Yunilde, nire alabearen eskutik, nire aita zanak Ejito'n idorotako Anubis'en urrezko txola irabaziko dau.

Orduan, Goriz zerbitzariak, urrezko txol dizdiratsu bat mai-gaiñean jarri eban. Txikia zan baiña antze andiz landua. Danok Yunilde ederrari begiraten geutsan, eta gutariko bakotzak irrika bizipean, aren esku samurretik bitxi a artzearren, edozetarako gerturik gengoan.

Iru akitaniar eta napartar bi saria irabazteko aurkeztu ziran, baiña danek pot egin eben. Au ikusirik, Undobika'k an egoan zaldun akitaniar bateri irribarrez,

–Aizu Bertran Kontea –esan eutsan–, Naparra'ko zaldun onein aurrean, ez alza azartzen zure burua indartsuentzat azaltzeko...?

Dalako Bertran Kontea, egoan jarlektatik jagi, eta maira urreratu zan. Gazte indartsua zirudiana astiro ta arro maien artetik igaroten zala, napartarri erdeñuzko irriñoa jaurtiten eutsen. Une aretan, nik ez dakit zergaitik Yunilde'ren aurpegian zear itzal antzeko zerbait edatu zan.

Bertran'ek Yunilde gur bat azartu eban, eta guztien aurrean ezpata-jasoteari ekiteko gertatu zan. Bere baitan bilduta, iskillaren muturra lurrean kokatuta, indarraldiari emon eutsan. Une batez, danok arnasari eutsirik, ezpatea gora egiten asi zan,

baiña ozta-ozta arrabete bat soru-gaiñetik jasota, lurreratu zan barrero. Leiaketea irabazteko, baiña, ezpatea besoa luze-luze zearretara eutsi bear zan. Bertran'ek saioari ekin eutsan ostera be, baiña aurrekoan lez uts egiñik, leiaketeari uko egin eutsan.

Orduan, nire anaiaren belarri-ondoan, abopeka auxe esan neutsan:

–Aizu, Iroz, ez al-zara azartuko arrotz orrean artean, napartarren jasa erakustera...?

Banekian, zirudian baiño askozaz indartsuagoa zala nire anaia. Burrukalari ta eiztari zan aldetik, iñarkunak zimel eta zantsua biurtu izan eban. Onezaz gainera, malgu ta ariña izanik, aren bereiztasunik andiena txairotasuna zan.

Orduan, Iroz zure aita, jagi ta ibillera malguz mai nagusira urreratu zan, eta buruaz makur ariña egin eutsan Yunilde'ri irribarre batekin lagunduta. Dukearen alaba zoragarriak beste irribarre bat az erantzun eutsan, eta orduan Iroz, gelaren erdian jarri zan. Unetxu batez soru-gaiñean egoan muturrari begiratu eutsan, eta gero astiro baiña eten egin barik, esku bakar bat az Undobika Dukearen ezpata ospetsua gora egi-ten asi zan, sorbalda-eiñean zearretara ipiñi arte, eta olan ezpateari eutsirik, une batzuk igaro ziran. Gero, ezpatea jatsi zan baratxe-baratxe sorua ukutu arte. Txalo ta oi u itzelak durundu egin eben, eta jarraian, mai nagusira urreraturik, Iroz'ek Yunilde'ren esku bigunari mun egin eutsan, eta gero onek eskintzen eutsan txola irribarretsu artu eban, txalokada trumoisuaren artean.

Aretoan isillik eta betillun egoan bakarra Bertran Kontea zan, eta aren begietan bekaitza ta gorrotoaren antzekoa zan zerbait agertzen zala, begitandu yatan. Ezin egi-kean jasan berak gai egiteko ez zana, zaldun arrunt batek egikeanik, eta gaiñera, Yunilde ederraren eskuz Anubis'en urrezko txol ederretsia irribarre batez lagunduta artzea. Ez nekian orduan, Bertran edo konte Baltzak Yunilde zoroki maite ebal, eta Dukearen alabea berarentzat ez jaristeak, guztitariko gaiztakeritara eragingo leukela.

Nire aulkitik jagita, Iroz'egana joan nintzan euskaldunen izenean goresmenak emotearren. Une artean, Undobika Dukeak auxe itauntzen eutsan:

–Nor zara, zaldun napartar ori...?

–Iroz naz, Duke Jauna.

–Nongoa zara...?

–Naparra'ko Añamendi'koa

–Non bizi zara...?

–Aezkoa ta Erro arteko Undaitz gazteluko nagusia nozu.

–Zergaitik eta nork emon dautsu "Undaitz" abizena erabilteko eskubidea...?

–Ez dakit, Jauna, baiña nire asabek abizen ori betidanik erabilli dabe.

–Aizu, Iroz, euskaldun indartsu ori, neu izan ezik, orain arte ez dot ikusi zeu baiño nire ezpatea esku bakar bat az jaso egikeanik. Esan, zelan billakatu zara orren indartsua...?

–Ez dakit, Jauna. Gazterik, azkonak, aztamakilla ta ezpata-erabiltari oitua naz, gure mendietako basurdeai eraso, eta gure erriko etsaiari aurre egiñez.

–Poztuko nintzake benetan, zeu lako zaldun asko ba'neuz. Barrero be, artu egizu

nire zorionik beroena, eta irabazi dozun Anubis'en txol ori urte askotan zurekin izan bedi...

Une aretan, Iroz adi-adi begiztatzen eban Yunilde'k,

–Aita –eten egin eutsan–, zergaitik ez dautsazu zaldun oneri dei egiten biar gurekin bazkaltzera...?

Undobika'k bere alabearen eskariari ezin zeitekion jarki, eta,

–Undaitz'eko Iroz –esan eutsan–, nire ta nire alabearen izenean, biar gurekin bazkaltzera dei dagitsut.

–Eskerrik asko, Jauna, baita zeuri be, Yunilde. Poztasunik andienaz artzen dot zuen eskintza, eta biar zuekin izango nozue.

Itz oneik esatean, sorginduriko Iroz'ek ezin egikeazan Yunilde'gandik begiak kendu, eta izan be, Undobika Dukearen alabeak, gizonen ederrespena erakarten eban, bai eder-ederra zalako, bai beragandik erion zoramen angerutarragaitik.

Arrezkero, berandu samar izanik, apailiarrak taldeka aretorik urtetan asi ziran, danek gorapatzen ebela, napartarrek batez be, Iroz'en ekintza. Kalean, gutariko bospasei lagun batu gintzazan, eta erriko kaleetan zear ardandegiak ikertzeari emon geutsan. "Zaldi gorria" izenekora sartu gintzazanean, ondo bustita gengoan, eta azken ardandegi onetan, edateari jarraitu geutsan mozkortu arte. Orduan, gure taldeko batek Yunilde'ren edertasuna aipatu eban, eta aren alde txiribogiñari edan-aldi bat eskatu eutsan. Gurekin egoan nire adiskide Kaiotz'ek, baiña, bere edontzia lurrera bota eban, eta,

–Ken ortik mutil –mintzo totalaz esan eban–, aren edertasunak lelotu zaitue, baiña Andra ori edozein urdangaren antzekoa izango da. Emakume guztiak bardiñak baidira...

–Kontuz diñozunaz, Kaiotz –asarrez eta ardaoaz itsu, esan neutsan–, zure ama be emakume da-ta...

–Neurea ezik, beste guztiak bardin.

–Irain ori –erantzun neutsan–, benetako zaldun batek ezin dagike jasan, eta beraz, esanikoa arinkeritzat autortzen ez ba'dozu...

Ez naz oroitzen zer besterik esan geutsan alkarri, danok ordipean gure oarmena galdu izan genduan-eta. Kalera burrukan egiteko urten gintzazanean gomutatzen dodan gauza bakarra da, gau illuna zala, eta atean zear ardandegitik etorkigun argi motela. Ezpatak atarata, gure biziko burruka ilgarri bateri ekin geutsan. Ezin dagike-sudaz leiaketa aren gora-beerak emon, edariak gure zentzumena ezereztu euskualako. Alako baten, Kaiotz lurrean ikusi neban nire ezpatak alderik-alde zearkatuta bularretik odola parrastaka eriola. Orduan, lo-zorro batetik senetara etorria lez, nire ekin-tzaren izugarritasuna aurkeztu yatan, eta zoratuta, Kaiotz nire adiskidearen soifia lurretik jaso, eta illik egoala konturatu nintzan. Ezpata odoldua eskuan neroiala, didar eta negar baten erritik urten nintzan, eta mendian gora Urederraren ertzetik, Urbasa mendirantz jo neban.

Ona elduta, Imoz'ek edeskiari eten egin eutsan, aurpegi oiñazetuan gau aren izua marrazten yakola. Une batez gau gorrotagarri aren ikara bizia aurpegian azaldu yakon, eta gero,

–Bai, Yanoz, loba maite ori. Au lako gau illuna zan, eta ortzian zear izar igeskorak nonai ikusten ziran, eta orrek jazoera aren izua gogora dakarkit... Urbasa menditik zoratuta alderrai ibilli nintzaizun, eta egunsentia etorrita, iges norabako areri jarraitu neutsan. Gaba egin zanean, artzain baten eskorta edo sarobera eldu nintzan, eta ango artzaiñak nitzaz errukiturik, abetaIdu ninduan, eta bere janari bakunetik zeozer janda gero, lastozko oatze bat eskiñi eustan. Gau oso aretan, ezbearrean lagundu egistan Jaungoikoari eskatu neutsan, eta noizbait, egunsentiarekin nire egitekoa argi ikusi neban.

Gure Jaunaren legeari begirune andia gorde dautsat beti. Astirik galtzeke mendian beera abiatu, eta illuntzea oroz jabetzen zala, Iratxe'ko lekaidetxera eldu nintzan. Orduan, etxe aretako nagusia Munio Abata santu ta jakintsua zan. Nire olesari erantzun emonez, lekaide batek atea edegi, eta Munio Abata ikusi nai nebala jakin ebanean, itxaroteko agindu, eta andik laster Abatearen gelaraiño lagundu eustan. Munio leio baten ondoan zutunik egoan lekorera begira. Gizon argal eta garaia zan, aurpegiari zerbait zerutarra eriola. Atea itxi nebanean, nigana biurtu zan, eta,

–Esan egistazu seme orrek –mintzo maitekorraz esan eustan–, zerz zakaz neugana. Munio Abatearen oiñetara oldartu nintzan, eta ikara bizitan,

–Abata Jauna –esan neutsan belauniko–, bakarpenaren eske natortzu. Araiñegun, Kaiotz nire adiskidea il egin neban...

–Zu zaitut, orduan, Lizarra'ko kale baten illik agertu zan napartar zaldunaren eraillea...?

–Bai, Abata Jauna, ni naz nire lagunaren eraille zitala.

–Seme doakabe ori, nasaitu zaitetz, guztiz urduri zakust-eta.

Aulki baten gaiñean jesarri-erazo ninduan, eta nire alboan egokituta, auxe san eustan:

–Orain, edestu egistazu jazotako guztia.

Aren maitasunak erakarrita, nire doillorkeriaren gora-beerak emon neutsazan, eta amaitzean, bere aurpegiari begiratzea azartzen ez nintzala, bera gogoeta sakonetan murgildu zan, eta gero,

–Izugarria da benetan, egin dozun erailketea. Jaungoikoak bitzitzaren sortzaillea da, eta gizonari ez yako zillegia iñongo atxakiz lagun urkoaren bizitzeari eten egitea, eta are gitxiago be adiskide min batena. Sendi bateri zorigatx andia ekarri dautsazu, gurasoen atsekabea seme bat galtzean betirakoa da-ta. Baiña mundu onetan, Jaungoikoak barkatu ez dagian obenik ez dan ezkeru, zure damua ikusita, Nik Munio'k, Iratxe'ko Abateak, Jaunaren izenean zure oben laria barkatzen dautsut.

Eta itz oneik esanik, nire buru-gaiñean gurutzaren ikurra egin eban. Gero onetara mintzatu yatan:

–Barkapen ori, baiña, benetakoa izateko baldintza bateri lotuta dago: ordaintzari; eta zure pekatua andia dan ezkeru, dagokion ordaiña aren baten izango da.

Une luze batez oldozkor geratu zan, eta,

–Begira, Imoz, seme maite orrek: bakartegi baten eremulari bizi izango zara, eta ez dozu irauntzeko iñongo iskillorik erabiliko; lurrak emon dagitsunaz soillik janarituko zara, eta ez zara iñongo etxetan bizi izango. Basadiak eskiñi dagitsun koba edo leize bat izango dozu egoitza, eta arpe orren atadian, iskillu-ukapenaren ziñaldaritzat, zure ezpata odoldua eskegiko dozu. Gau ta egun zure obenaren barkapena Jaungoikoari eskatuko dautsazu, etenbako otoitzaz lagunduta. Olan, egunik-egun garbituko zara, Jaungoikoaren barkapena jaritsi dagizun arte.

–Abata Jaun agurgarri ori, noiz jakingo dot Jaungoikoaren barkapena jaritsi dodala...?

–Zeruak berak, ezaugarri argia emongo dautsu, aren bideak arrigarriak baidira. Orain, Imoz, geratu zaitetz egun batzuk etxe onetan, zuzpertz zaitetzan arte, guztiz makal eta nekepean ikusten zaitut-eta. Zatoz orain nirekin lekaretxea erakutsi dagizudan.

Iratxe'ko Abataren eta lekaideen errukiak lagunduta, iru illabete leku baketsu aretan emon nebazan indartu arte, eta noizbait, lekaidetxeko atadian Munio Abatak besarkatu ninduan auxe iñostala:

–Agur, Imoz, seme maite ori. Jaunak bedeinkatu zagizala.

–Agur, Abata agurgarria. Jaungoikoak ordaindu dagitsula nire alde egiñikoa.

Eta astiro-astiro, lurrak emostanaz eta izarpetan lo egiñez, illabete bi igarorik, oian zoragarri onetara eldu nintzan. Badira amazpi urtebete eremulari bizi izaten nazala leku bakarti onetan.

Ona elduta, Imoz'ek bere edeskia amaitu eban, eta begiak gau sakonean zear galduta, izar igeskorren argizko lorratzak begiztatu ebazan, berekautan auxe iñoala: "Bai, gaur lako gau baten jazo zan ori..."

Gabaren sorgindurak lilluraturiko osaba-lobak, luzaro samar isillik iraun eben. Alako baten,

–Aizu, osaba Imoz –itaundu eutsan Yanoz'ek– zer egin eban nire aitak leiaketea irabazi ebanean...?

–Euskaldunen eta akitaniarren begirunea irabazi eban, eta arrezkeru, zure aita Iroz, napartar ospetsuenetariko bat billakatu zan. Zoritxarrez, zeuk edestu daustazunez, Konte Baltza'k zaurituta, zure besoetan il zan. Gorroto eutsan, gorroto, Bertran'ek zure aitari, ezerk itzungi ez leuken erra neurribakoa...

–Eta zergaitik gorroto ori...?

–Zure aitak gau aretan guztien aurrean, bera baiño indartsuagoa zala erakutsi ebalako. Baiña bazan beste zio bat Bertran'en gorroto itzela piztu ebana...

–Zein, osaba Imoz...?

–Yunilde zoragarriaz maitemindua zan, baiña ezin egikean aren maitasuna irabazi. Beste batek jaritsi eban neska ederraren maitasuna...

–Nork, osaba...?

–Iroz, zure aitak. Alkar ezagutu eben gau aretatik, Yunilde'ren biotz eta sentipenak zure aitarentzat izan ziran.

–Eta, zer jazo zan, osaba Imoz...?

–Jazo zana auxe da: Undobika Dukea bere jarraigoarekin Akitani'ra biurtu zan, baiña Yunilde zoragarria, Naparra'n geratu zan... Undaitz gazteluan zure aitarekin eriotzararte bizi izateko. Undobika Dukea Akitani'ra biurtu aurretik, Iroz eta Yunilde Munio Abatak Iratxe'n ezkondu ebazan, eta ezkon-barriak Undaitz'era biurtu ziran, Undobika Dukeak eta onen jarraigoak lagunduta. Gaztelutik Akitani'ra biurtu baiño len, Dukeak bere ezpata ospetsua zure aitari ezkon-saritzat emon eutsan.

–Orduan Yunilde...

–Bai, Yanoz. Yunilde, Akitani'ko Dukearen alabea, zure ama izan zan.

Aurpegiaren beera Yanoz'eri malkoak eriozan ezagutu ez eban amaren alde. Ilbeerako iretargia zugaitzen adaburuen gaiñetik jagiten zan. Alako baten,

–Ez negarrik egin, Yanoz –mintzo leunaz esan eutsan Imoz'ek–, zure ama aingerau zan, eta zu jaiotz bereala Jaungoikoak eroan eban mundu onetatik.

–Bai zoriona niretzat, ezagutu ba'neu...!

–Orduan zure aitak Oroz-Betelu'ko Amañe iñudetzat ekarri eutsun, eta onek semetzat maite izan zaitu betidanik...

–Baiña ez da bardin, osaba Imoz. Amañe'k benetan maite izan nau, baita nik bera be, baiña ama ordeztea eziña da.

–Zuzen zagoz, Yanoz.

–Esaidazu, osaba, zelakoa zan nire ama...?

–Ainguruak zelakoak diran zailla da azaltzea. Amazazpi urte igaro dira ezagutu nebanetik, eta unetxu batez soillik, baiña atzo bai'litzan gomutean bizi-bizi daukat... Urrezko adatsak inguraturiko aurpegi zoragarria eban. Onetan kokatuak, artizarrak bai'litzazan begiratze gozozko begi andi-andiak, arima garbi baten ispilluak. Suur zuzen txanbelinpean abo gorria, lora-atal bien antzera eratua. Irribarre egiten ebanean, bazirudian illuntasunak iges egiten ebala egunsentiaren argiak uxatua. Larmintz zurixkakoa zan larrosa baten litsaz edertua. Duke baten alabea zan, baiña ain zuzen be, jasa ta azkaiaz erregiña zirudian. Malgu ta txairoa, ibilli ebillenean lurra ozta-ozta zapaltzen ebala zirudian.

Une batez isildu zan Imoz, eta gero,

–Bera ta zure aita, alkarrentzat egiñak zirala esango neuke, eta maitasun andiak lotzen ebazan. Yunilde il zanean, zure aita zoratzeko zorian billakatu zan. Bein baten, arrotz batzuk Aezkoa'rako bidean oian au zearkatu eben, eta Undaitz'eko gaztelura bideratu nintzan, nire anai Iroz jakiñaren gaiñean ipinteko. Eldu nintzanean, zure ama il barria zan, eta nire anaia zoratu-agiñean aurkitu neban. Aal neban giñoan adoretzen saiatu nintzan, baiña dana alperrik. Zure aitak ez leuke mundu onetan beste emakumerik maite izango, eta arrezkero, Yunilde, zure amaren oroitzaz bizi izan da. Or-

duetik, zure aitaren begirunez, Undaitz'eko gazteluan ez zan barrero be, Yunilde zure amaren izena aipatu, eta danek "Andrea" izenez itarantzun eben. Zorionez, baiña, zu aren aringarria izan zintzakozan, eta bere itxaropena zuzan jarrita, etorkia beste ikuspegitik agertzen asi yakon. Egun aretan Undaitz itzi nebanean, besoetan zinduzan, eta zure aurpegitxuari begiratzean, irribarre egiten eutsun.

Isillunea egin zan barrero, eta,

–Osaba Imoz –itaundu eutsan Yanoz'ek–, Akitani'ko Dukea euskaldunen adiskidea izanik, zergaitik aren gudariek erasoten dauskue...?

–Undobika Dukea, gure adiskidea da, baiña bere egoko errialdea, au da, Aturri (Adur)'erañe edatzen dan mugea, Konte Baltza'ren zaintzapean dago, eta onek, Akitani'ko nagusiaren urrun izatea ustiatuz, gure aberriari erasoten dautso, abelgorria ta giberria lapurtuz eta aal dauzan euskaldunak eraillez. Augaitik, il-zorian zala zure aitak, aitiata dozun Dukeagana joan zaitezcan, eta zure nortasunaren ezaugarritzat, aitari emondako ezpatea erakutsi dagiozun agindu eutsun.

–Eta zergaitik ez eustan agindu, astirik galtzeke aitagana joan neiten...?

–Begira, Yanoz, Akitani'ra sartu baiño ez, zelan edo alan Konte Baltza'k jakingo eban, salatariak edonon jarrita daukazalako, eta laster erailgo zindukez. Augaitik, ara joan aurretik, gizon trebe ta indartsua biurtu zeintezan nai eban zure aitak. Ori jardesteko, baiña, gizondu bear zara, eta onen ezaugarritzat, bera lez esku bakar bat az ezpatea jasoteko gai zaitezanean, orduan Akitani'ra joateko garaia izango dozu. Onez gaiñera, ezpata-erabiltea menperatu bear dozu, eta orretarako garaia elduta, ikasletzat artuko zaitut.

–Baiña zelan irakatsiko daustazu, Munio Abatak ezpatarik erabilli ez zengian aginduta gero...?

Imoz'ek irribarre egin eban, eta auxe esan eutsan:

–Ori, laga niretzat, Yanoz. Garaia etorrita, zin dagitsut ezpata-erabilteari dago-kionetan, dakidan guztia ikasiko dozula. Bitartean indartu ta malgotu zure soiña oianeko biziareari emonda. Jarraitu abail eta uztai-erabilteari, eta egunen baten, Akitani'ra joateko gerturik izango zara.

Dagonilla'ko goiz eder aretan, kumeek jarraituriko artz-ama eder bat oianean zear janari-billa joian. Iru artzume zituan, urte aretako Urtarrilla'ren azkenerantz artzuloan jaio yakozanak. Jaiotzean, artzume bakotxa ozta-ozta bosteun gramokoa zan. Iru illa-bete ta erdi igarorik, eta edoski-aldia amaitu barik, Loraila'n artzulotik urteten asi ziran, eta astiro-astiro amaren irakaskintzapean idoroten ebenaz janaritzen ikasten ziar-duen. Baso-kipulak, sustraiak, perretxikoak, grisolak, basaranak, ezkurak, gorostialeak, gaztaiñak, masusta ta masusta-gorriak, baso-zerbak, aingeru-bedarrak eta beste landarekiak idoro ta jaten irakasten eutsen amak. Baiña oraindiño, euren janaririk geiena amaren bularretikoa zan. Laster ikasiko leukiez kumeek aberekiak jaten, esaterako, saguak, satorrak, mixarrak, katamixarrak etab. Aldiaren bidean, artzamak errekaoko arrainkariak arrapatzen be erakutsiko leuskie, inguru areitan ugari ziran-eta.

Eguna ederra zan, eta pozaren-pozez, jan bitartean kumeak jolas egiteari emoten outsoen, euren arteko ekintza izanik, soiña arildu, eta aldatzean beera txirrindolaka joan aldapa amaitu arte. Zugaitzen arteko malda, zelai txiki baten amaitzen zan, eta egun aretan jateko ugari idoro izan eben ezkeru, artzamaren begikada arduratsupean, jolasteari emotsoen.

Alako baten, eta irutariko artzume bat zelairaiño firi-firika eldu zanean, lurrak iruntsita lez ostendu zan. Andik laster, kumearen oiurriak aditu ziran, eta oneik erakarrita, artzama zulo sakon baten aurrean aurkitu zan. Basabereak arrapatzeko aspaldiz egiñiko zulo sakona zan, iru metrokoa ain zuzen be. Osin baltz aretako beekaldekik artzumearen antzi izutuak amaganaiño eltzen ziran, eta onek kumeari oratzeko besoa luzatzen baeban be, ezin egikean ez urrik emon be, kumetxua atzitu. Naigabeturiko artzamak, aren antzi larriai kurrinka negartsuakaz erantzuten eutsen, bein eta barriro zuloan zear begiratzen ebal. Amaren ondoan beste artzumeek anaia-aren intziriai erantzuten eutsien, jazorikoa ulertu eziñik.

Egun osoan zear iraun eban artzamak zuloaren ondoan, jausitako kumeari erantzun eta erantzun, noizean bein alde egiten ebal urduri, barriro be biurtzeko. Edu onetan orduak igaro ziran, illunabarra oianaz jabetu arte. Orduan, itxaropena galduta, beste kumeek jarraituriko, andik urrun samar egoan artzategira biurtu zan, zuloan baitu egindako artzumearen intziri negartsuak ezabatzen zirala. Gaba igarota, urrengo egunean artzamaren oroimen motelduan, irugarren kumearekiko gomutea, laiño baten artetik etorkion sentipen aula biurtu zan, eta beste egun bat igarorik, ezer ez.

Baitutako kumetxua bakarrik geratu zanean, artzamaren urretasun baregarria galduta, bildur etsiak jabetuta, antzi etenbakoari emon eutsan, orduak gero ta larriago billakatzen yakozala zulo izugarri aretan. Noizbait, nekeak eta lo-gurak menperatuta, beekaldeko orbelaren gaiñean loak artu eban. Tarteka itxarten zan, eta bere egoera larria oroitzean, aika egiteari emotsan ostera be, neke utsaz lo geratu arte. Izan be, kumearentzat bere bizitzaren gaurik ikaragarriena azaldu zan, zulo bildurgarri aretan danek itzita bere burua ikusi ebanean.

Goiz aretan Yanoz itxartu zanean, etxeko janaria amaitzeko zorian izanik, on litzakela oianean zear osteratxu bat egitea osaba Imoz'ek esan eutsan. Olan ba, eizatresnak artu, eta goizeko eguraldi ederrak adoretuta, pagadian zear abiatu zan. Eiztari saiatuari egokionez, pago-arteko azpigarri bigunean, ibilte isiltsuaz joian, begiak ernai ta entzumen itzarriaz, basoko gora-beera guztiak oartzeko. Alako baten, zur eta lur gelditu zan. Zelaigune baten aurrean aurkitzen zan, eta oi eban lez, jarraitu baiño len azken lerroko zugaitzen artetik, adi-adi geratu zan.

Zelaiko lekuren batetik negar-antzeko intziriak etorkiozala iruditu yakon. Dagonilla'ko goiz eder aretan, oianeko usain gozoen eta egaztien txorrotxioen artean, oi u larri areik nai gabezko ukitzea jarten eben inguruko alaitasunean. Entzumenak zuzenduta, zelaian zear ibilten asi, eta andik laster zulo sakon baten ertzean egoan. Aozpezturik, barruko illuntasunaren zear begiratu eban, eta adi-adi jarrita, artzume baten negarra zala begitandu yakon.

Norbaiten urretasuna somatzean, antzi egiteari itzi barik, artzumea batetik bestera igitzen asi zan, besotxuak gorantz luzatuz laguntzaren eske. Yanoz'en begiak illuntasunari oi tu ziranean artzumea ikusi eban, eta bere buruari auxe esan eutsan:

–Bazan ordua, artzume-errekia jateko. Ona etorri nintzanetik, ez dot egundo be eretirik izan, aren okelea txastatzeko. Undaitz'en noizean bein aren errekia jan oi genduan, eta izan be, nekez aurkitu daiteke jaki gozoagorik.

Mutillaren burua oxin-ertzean ikustean, artzumearen negar etsia, itxaropen eta eskarizko kurrinka irrikatsua biurtu zan. Une batez, ausnartzeari ekin eutsan Yanoz'ek artzumea andik jareitzearen, eta noizbait eginbidea idororik, zulutik alde eginda zugaitzen artean billatzeari emon eutsan. Laster, adar lodi samar bat idorota, artu eban, zulora biurtu, eta oxiniñaren beekalderaiño jarri eban goiko muturra ertzean jarrita. Uztai-geziak lurrean lagata, adarrean beera oxiniñera jatsi zan. Mutilla bere ondoan ikusi ebanean, pozezko kurrinkak jaurtiz, artzumeak aren aztalari besarkatu eutsan, lauazka igoteko gurariz. Yanoz'ek besoetan artuta jaso eban auxe iñotsala:

–Astiro, mutil, astiro, laster urtengo gozak-eta.

Iduneari besarkatuta, eskerronez gaiñezka artzumeak aurpegia bein eta barriori miazkatu eutsan. Orduan, Yanoz'ek arrelepoan artu eban, eta artzumeak besarkatuta, adarrean gora igon goiko ertzera eldu arte. Lurrean itzita, egun-argiz kumetxua begiztatu ebanean, samurtasunezko sentipen batek menperatu eban. Aurrean, bost bat kilo-

ko artzume zoragarriak begi txiki baltz dizdiratsuakaz, so egiten eutsan eskaritsu, eta bere aztalari eutsita besoetan artu egian adierazoten eutsan.

Ezustean, samurtasun andi batek artuta, abereño a ezin egikeala erail konturatu zan Yanoz, eta bere amagana joan zeiten onena izango litzakela erabagi eban. Orduan, zulo-ingurutik kumea ibilli-erazo, amaren aztarnak idoro ta aren atzetik joan zeiten, baiña zoritxarrez ordu asko igaroak ziran artzuma andik joan zanetik, eta kume gaixoak ezin egikean aren zantzurik idoro. Amaren atzetik joan zeiten eziña zala ikusirik, Yanoz zelaiko bedar-gaiñean jesarri zan, korapilloari urtenbideren bat idorotearren. Artzumea bere ondoan jesarri zan, eta amarekin oi eban lez, Yanoz'en besoari eutsita, kurrinka negartsuz janaria eskatu eutsan. Andik laster, zer egin ez ekiala, mutillak auxe esan eutsan:

–Gaiozak etxera, barrabas ori, eta an irekin zer egin erabagiko yoagu.

Au esanik, Yanoz ibilten asi zan atzetik artzumeak erraikiola. Luzaro barik, baiña, aurreko egunetik baraurik egoanez, nekatzen asi zan, eta mutilla urruntzen yakola ikusirik, kurrinka negartsuz dei egin eutsan bakarrik laga ez ekion. Yanoz'ek, orduan, kumetxua besoetan artu eban, eta ibilte ariñaz arpera abiatu zan berandu samar zan-eta. Ibilli ebillela, kurrinka maitekorrak jaurtitzen ebazala, artzumeak aurpegia miazkatzen eutsan, eta mutillak irribarretsu, eskuaz burua laztentzen eutsan auxe iñotsala:

–Ederra egin yaustak, mutil, irekin zer egin ez yakiat-eta. Ikusiko yoagu osaba Imoz'ek zer yiñokan... Barrabas ori...!

Eta noizbait etxera eldu ziran. Yanoz'en olesari erantzunez, osaba Imoz sarreran azaldu zan, eta artzumea ikusirik,

–Baiña, Yanoz –arrituta esan eutsan–, zer dakarstazu or...?

–Begira, osaba...

Eta jarraian Yanoz'ek jazotakoaren barriak emon eutsazan. Amaitu ebanean,

–Aizu, osaba –esan eutsan–, zer egingo dogu barrabastxu onekin...?

–Aurrenik, janaria emon. Gosez zorotzeko zorian dago-ta.

–Eta gero...?

–Zer deritxazu –adarra joteko itxuraz osaba Imoz'ek– onekin erreki gozo-gozoa atondu dagigun...?

–Ez orixe, osaba...!

–Orduan, bizitza barkatuko dautsagu, eta giristiño zintzoai dagokigunez, janaria emon bear izango dautsagu, basabereak Jaungoikoak egiñak baidira. Artuizu kaiku ori, eta jatsi egizuz auntzak. Bitartean, janari-ondakiñen bat ia idoroten dodan artzume ori baretzeko, biurtu zaitezcan arte.

Unerik galtzeke, kaikua artuta Yanoz urten zan, eta andik ur samar egozan auntzak jatsi ebazan. Iru ziran, soka bataz zugaitz banatan lotuta. Egunoro, Yanoz'ek lotu-lekua aldatzen eutsen, kimu samur barriak idoro egikiezan. Otzanak ziran auntzak, eta ez eben inongo eragozpenik jarten jaiste-unean.

Laster biurtu zan mutilla kaiku bete esne ekarrela, eta txingarren artetik eretirako erabilli oi ebazan arribil gorriak atarata, esne-barrura sartu, eta ziizka labur egiñik, esnea egosita gertatu zan. Bere ondoan jesarrita, artzumeak begi irrikatsukaz mutillaren erabilteari begiratzen eutsan, besotik teink egiten eutsala beratzaz aztu ez zeiten adierazo nai bai'leutsan. Bereala Yanoz'ek erratillu bete esne eskiñi eutsan, eta onetara oldartu zan artzumea arrapalada baten, miin larroskaraz miatzkatzen ebala amaitu arte. Mustur-ingurukoa esnez zurizkatuta ebazan ezkerro, Yanoz'ek barreka garbitu eutsan, eta andik laster, artzumea sutondoko txingarren ondoan etzanda jarri zan, eta igarotako aurreguneko izugarri ta nekea zirala-ta, ango epeltasunean arilduta, loak artu eban, artzumearen erron-erron neurtua aditzen zala.

Bazkalduta gero, Yanoz eizaketara urten zan barriro, eta illuntzea barik erbi eder batekin biurtu zan. Artzumeak lo-zorroan zirauan, eta eizakia narrutu ondoren, leizebarruko ozkirrian eskegi eban biaramonean erretzeko asmoz. Apalostean, gabero osaba-lobak egin oi eben lez, Gure Aita batzuk aletu ebezan, eta jarraian osaba Imoz'ek zuzi bat piztu eban oeratu aurretik. Sutondoan arilduta artzumeak lotan zirauan, bere zurrunga neurtuak lagunduta. Yanoz urreratu yakon, eta maitekor begizatzen ebala, narru leuna laztandu eutsan. Alako baten,

–Aizu, osaba Imoz –esan eutsan Yanoz'ek–, artzume au ikustean, gomutara yatort umetxua nintzala, Iruña'tik etorri zan bein baten, iñude Amañe'k ekarri eustan jostaillu zoragarria. Au lako artzume txiki-txikia zan, eta danek artza aipatzen eustenez, nire mintzo totelaz noizbait "txartxa" esaten lortu neban. Ez naz gogoratzen zertan amaitu zan nire "txartxa", baiña aurrerantzean artzume zoragarri au, niretzat "Txartxa" izango da.

Biaramonean, egunsentiko aurreneko argia arpera sartzen zala, zerbaiten oarpen bakanaz itxartu zan. Ez ekian zelan, baiña gau aretan lo egoala, artzumea oera sartu izan yakon, eta mutillari erion epeltasunak babestuta, lo geratu izan zan goizalderarte. Orduan iratzarrita, mutillaren aurpegia miatzkatzen asi zan, eta kurrinka leunakaz jateko zeoz ermon egitsan eskatu eutsan.

Bereala jagi zan Yanoz, eta osaba Imoz'ek urunaz eta auntz-esnez atunduriko aia katillu baten emon eutsan, eta mutil-artzumeak gosaria alkarrekin artu eben. Amaituta gero, Yanoz'ek,

–Aizu, osaba Imoz –esan eutsan–, zelan konponduko gara artzume onekin...?

–Ori, Yanoz, zure arazoa da. Zeuk idoro, eta eriotzaren atzaparretatik atara dozu. Orain ezin itzi, bere kabuz bizi izaten ikasi arte, beintzat. Abereiño gaixo onek jagoletzat artu zaitu, eta beste aukerarik ez dagoan ezkerro, aren iñudea izan bearko dozu.

–Baita pozik be, osaba. Zainduko dot anditu arte, eta bere garaia etorrita, basora biurtuko da bere kidekoen biziereari emoteko. Bitartean geratu bedi gurekin. Orain banoatzu osteratxu bat egitera, ia baso-kipularen edo perretxikoren bat aurkitzen dodan erbikiari laguntzeko. Bitartean, osaba, zaindu egizu gure lagun barria.

Au esanik, Yanoz urtenbidera abiatu zan, baiña ozta-ozta arpe-aurreko zelaian zear joiala, kurrinka negartsuz artzumea atzetik oldartu yakon.

–Baiña, Txartxa, barrabas ori, ezin aiteke unetxu batez bederik etxean geratu osaba Imoz'ekin...? Nai ba'yok etorri aiteke nirekin, baiña oiñez ibiltekotan, ez eik uste jaió barri baten antzera besoetan artuta eroango audanik, ez orixe...!

Au esanik ibilteari jarraitu eutsan, alboan lauazka laburraz, Txartxa'k jarraitzen eutsala. Goiz aretako eguzkipean, Yanoz'ek artzumearen irudia bere aukeran aztertu eban. Margo nabarrekoa zan, sabelpean zurixkagoa biurtzen zala. Begi txiki biziak zituan alkarren ondoan jarrita, eta mustur txanbeliña orban baltz bat az inguratua zan. Belarri txiki politik entzumen zorrotzaren apaingarriak ziran, eta oso urrundik ots txiki-txikiak aditzeko gai zan. Baiña beragan nabarmenena usainmena zan, eta onek ordaintzen eutsan ikusmenaren urritasuna, gauzak urrundik ondo bereizten ezin egikezan-eta. Esku ta oiñetan bosna atzazkal ebazan, laburrak oraindino, baiña egunen baten anditasun osoa lortu egiane, aitzo bildurgarriak biurtuko litzakezanak.

Egun aretan oiana amaika usain, suzmur, eta txorien txintakaz betea zan, aize bigun batek eragindako pagoen ostoeke euren eresia abesten ebela. Ibilli ebiltzala, Txartxa noizean bein gelditzen zan, malluki edo masustaren bat aurreko erpeakaz arrapatzeko, barriro be Yanoz'en jarraian arintzen zala. Alako baten, pago tantai batzuen ondoan, gelditu, eta lurrean aztarka asi zan. Ikus-naiak jota, Yanoz ondoan gelditu yakon, berekautan auxe iñoala:

–Baiña iñuzente orrek, uste al-yok lurpetik balio yaian gauzarik atarako yokala...?

Artzumea begizatzen ebala, baiña, Yanoz'eri laster ezabatu yakon ezpanetako irriñoa, eta bapatean, Txartxa'ganako begirunea mailla gorenetaiño igon yakon. Izan be, une aretan Txartxa'k lurpeko emoitzarik gozoena atzaparrakaz argitara ekarren: grisolak, ain zuzen be. Noizean bein, baiña oso gitxitan, osaba Imoz'ek banaka batzuk ekarrezan txingarren artean erretzeko, edo erreki baten betegarrirako, eta eza-gutu ebazantetik, Yanoz'ek oroz gain ederresten ebazan. Txartxa'ren ondoan belauniko, Yanoz'ek lur-jorratzeari emon eutsan, eta luzaro barik, sorbaldatik eskegita eroan oi eban zorroa, grisolez bete egin zan. Gero, or-emenka egurastuta, eguberdian biok etxerakoa egiten asi ziran. Laster, baiña, ainbeste ibilteaz nekatuta, oi eban lez, Txartxa'k mutillaren aztalari oratu eutsan, kurrinka negartsuz adierazoten eutsala, besoetan artu egian. Yanoz'ek lurretik jaso eban, eta lepoan artuta etxera biurtu zan.

Orduko, narruturiko erbia burduntzian sartu-aginean zan, eta Yanoz'ek ekarrirako grisolak ikustean, pozez gaiñezka, osaba Imoz'ek errekiaren sabelean betegarrizat sartu ebazan, eta usain gosegarria edatzen zala,

–Aizu, Yanoz, –esan eutsan osabak–, zelan aurkitu dozuz grisol oneik...?

–Neuk ez dodaz aurkitu, barrabas orrek baino. Ezustean, lur-jorratzeari emon dautso, eta grisolak agertu egin dira.

–Dirudianez, ez dozu mauka txarra egin artzume onen bidez. Grisolak aurkitzea

zaila da benetan, eta ba ei'dira txakurrak orretarako gai diranak, baiña olan eta guzti be, oso bakanki aurkitzen dira. Ia gaurkoa sarritan jazoten dan.

Grisolez beteriko erbi-errekia gozo-gozoa billakatu zan, eta idorokunde ederretsiaren ordaintzat, Txartxa'ri erreki-zati andia etorri yakon. Arratsaldean, Yanoz'ek eta Txartxa'k oianean zear ibiltari emon eutsoen, eta bidetik idoro ebazan masustak artzumeak arin baten iruntsi ebazan. Arrigarria zan, benetan, Txartxa'ren trebetasuna eskuetako erpeakaz garauak bereganatzeko.

Egunen bidean, basoan artzen eban janariaz, baita etxeko esne ta errekiakaz be, Txartxa azi ta biribilten zanez, illabetea igaro barik, anditasunez bikoiztu zan. Baiña beragan nabarmenena, Yanoz'eganako eraspina zan. Mutilla nora, artzumea ara, eta izan be, oianean zear joiazanetan, bere geriza bai'litzan Txartxa'k edonora jarraitzen eutsan. Benetan, artzumearen usainmen bikaiña, osaba-lobentzat bedeinkapen andia azaldu zan, guztitariko landareak, baso-kipulak, perretxikoak, eta grisolak batez be, erraztasunik andienaz aurkitzen ebazalako.

Aldiaren bidean, Txartxa gero ta azartiago biurtzen zan, eta oianean zear joiazala, or-emenka zugaitzen artean ostentzen zan, ustekabez barriro agertzeko ugazabaren billa. Baiña artzumearen ostentetak Yanoz berantesten ebenean, txistu sarkor batatz eratorri oi eban. Mutillaren aginduak beteteko oso esanekoa azaldu zan Txartxa, eta egoana-egoala, Yanoz'en txistua entzun baiño ez, lauazka bizian etorkion. Txartxa oso ikus-gura zan, eta zugaitz baten adaburuan zerbaitek erakarten ba'eban, atzaparrak enborrean tinkatu, arin baten zugaitzean gora igon, eta adaburura orduko, askotan katamixarren bat gar gorritaren antzera, adarrik-adar abaroan zear ostentzen zan.

Udea igaro zan, eta udagoian oiana urre biurtu zanean, pagoetatik jausiriko ezkurak jangai gozoa azaldu ziran artzumearentzat. Bein baten, Urrilla amaitzeko zorian zala, oiko zorroa eroiala, Yanoz Irabia'n beera Aezkoa'rantz abiatu zan, beti lez Txartxa'k erraikiola. Alako baten, gaztaiñadi batera eldu, eta morkotsen artean Yanoz'ek gaztain mardoen batzeari emon eutsan. Mutillak uste izan eban bazala garaia Txartxa onuragarria billakatu ekion, eta keiñuz agindu eutsan zorroa beteten lagundu egitsan. Artzumeak, baiña gaztain bat zorrorra sartu, eta beste bi urdaillera. Ekiñaren-ekiñez, baiña, danak zorrorra sartu egiazan lortu eban Yanoz'ek, artzumeak lana kiroltzat artu ebanean batez be.

Bein baten, uztaia gerturik eizaren billa joiala, eta artzumea bere gogora or-emenka ebillela, Yanoz'ek Txartxa'ren kurrinka larriak aditu ebazan, eta artzumea galtzori gorrian egoala somaturik, arin baten, didarrak etorkiozan alderantz oldartu zan. Andik laster, abotik dingilizka Txartxa eroian azeri anditzar bat ikusi eban. Aalik ariñen urruntzen zan azeria, baiña ariñago egan egin eban Yanoz'en geziak, eta atzeko iztar baten zaurituriko azeria ariñago joatearren, artzumea bertan-bera laga, eta errenka, aalik azkarren ostendu zan. Txartxa'k ez eban kalte andirik jasan, piztiak lepoan egin eutsan zauri illauna izan ezik. Mutillak Txartxa besoetan artu, eta au jasandako bildurragaitik oraindiño dardarretan egoala, auxe esan eutsan:

–Ikusi al-yok, barrabas orrek, jazo yakana neugandik urrun ibilteagaitik...? Ia, bein betiko nire ondotik joaten ikasten yokan, ostantzean egunen baten, piztien janaria biurtuko az, iñuzente ori...!

Ikara gorripean aurkitzen zan Txartxa'k, Yanoz'en iduneari besarkatuta, ez eban besterik egiten kurrinka leunen artean, mutillaren aurpegia miatzatu baiño. Arrezkero, Txartxa zuurragoa biurtu zan, eta Yanoz bere aldetik zaintza ernaiagoaz artzumea jagoten asi zan. Ikusmenetik galtzen yakonean, txistu zorrotz batez eratorri oi eban. Izan be, abere guztiak kumeak diranean ezigatxak dira, eta esanekoak egin daitezen, bearrezko adiña iritxi bear dabe, eta auxe aldiaren bidean ikasiko leuke Yanoz'ek.

Negua eldu zane kotz, lurra orbelaz estalduta egoan, eta adar billutsen artean, ipar baltzak eta mendebalak eresi itunak abesten ebezan neguaren etorrerea iragarritz, lo-guraren pean oiانهko bizitza makaltzen zala. Bein baten, arpetik urteteko zorian zala, Txartxa'k jarraitu nai ez eutsala, egiztatu eban Yanoz'ek. Neguteko lenengo edurtza jausi barria zan, eta etxeko janaritegi utsa ordeztarren, eizaketara joan bear izaten eban. Zenbait egun aurretik, Txartxa'k orbel eta oroldioketari emotsala, oartu izan eban mutillak, eta orain oiko txistuari artzumeak jaramonik ez.

Estu ta larri, Yanoz osabagana joan, eta artzumeari buruzko bere arrenkurea azaldu eutsan.

–Ez zaitez larritu, mutil –esan eutsan osabak–. Negua datorrenean, lo-guraren menpe, artz guztiek iru-lau illabetez arpe edo koba baten ezkutune baketsua billatu oi dabe, eta txoko baten, oroldio ta orbelaz oatze bat negua igaroteko atontzen dabe.

–Orduan, osaba Imoz –eten egin eutsan Yanoz'ek–, gure Txartxa iñongo ezkutune batera joango ete zan negua emoteko...?

–Bai, eta koba onen ezkutuneren baten egongo da onezkero, egunokaz orbel eta oroldio ugari sartzen ebalu ikusi dot-eta.

–Baiña zergaitik lo egin bear ori...?

–Ori euren olde-barruan dagoan gauza da. Negua baiño len, udagoiak eskintzen dautsezan emokariak ustiatuz, au da, ezkurak, gorosti-aleak, basaranak, gaztaiñak, baita atzitu dagikiezan aberekiak janaritzen dira, eta orduan, soin bete koipez neguko lo-aldiari emoteko gerturik dagoz...

–Baiña, osaba, iru-lau illabeteotan zelan dagikie iraun...?

–Neguko lo-aldian, soin-berotasuna beeratzen yake, eta au dala-ta, ez dabe indar andirik erabilli bear bizirik irauteko.

–Eta noiz itxarten dira...?

–Udabarria datorrenean. Orduan arnasa biziago egiten yake, eta ona ezkerro, udagoian irabazitako koipea amaituta, göse andipean, euren eskutunetatik, au da, kobatatik urtetan dira, eta sasoiak eskintzen dautsezan emoitzakaz, jasandako barau-aldiari aurre egiteko oiko biziera askeari emoten dautsoe barriro.

–Osaba, zelan eta noiz jaioten dira artzumeak...?

–Bagilla'n (Ekainilla'n), artzara edo ernaltze-miña aurkezten yake, eta ernaldura eginda, ar-emeak banatzen dira. Zazpi bat illabete igarorik, eta artzama bere ezkutunera neguko loa izatearren baztertu izan danean, bi edo iru kume jaioten yakez. Oso txikiak dira, 400 gramoko inguru, eta arrabete bat andi. Au bearrezkoa da, Artzamak janaririk artzen ez dauan ezkeru, kumeak andi jaiu ba'litzakioz, ezin legikioe bularrik emon. Txikiak izanik, osteru, edoskitu dagikez, eta udabarria datorrenean, ama-kumeak iratzarrita, gorde-zuloetatik urten oi dira. Orduan, jateko ugari dagoan ezkeru, kumeen azkuntza erraza da, eta amaren laguntzaz, euren kabuz bizi izaten ikasten dabe. Urrengo neguan, ama-kumeak neguko lo-aldia irauntzeko, lengo ezkutunera biurtu, eta amarekin bigarren negutea lotan igarorik, udabarrian barrero be, oianera biurtzen dira, baiña orain kumeek ez dabe amaren bearrik, eta bakotxa bere aukeran bizi izateko aldentzen da. Orduan, artzamari ernaltze-aldia datorkio barrero, eta urrengo neguan kume barriak izango dauz. Urte biro, beraz, artzak ugaltzen dira.

–Aizu, osaba, datorren urtean Txartxa artz gotorra biurtuko da, ezta...?

–Ez, Yanoz. Artz batek benetako anditasuna jaristeko, iru urtebete ta erdi bear izaten dauz.

–Zelakoa izango da orduan gure Txartxa...?

–Añamendi'ko artz ar batek berreun eta irureun arteko kiloko pisura eldu daiteke.

–Orduan Txartxa andia izango da, ezta osaba...?

–Ederra billakatuko da gure Txartxa, baita adimen argikoa be. Aalegintzen ba'zara, Txartxa gauza arrigarriak egiteko gai izango da, artzak ikasteko doai andiaz ornitutakoak baidira, eta egonarriz irakasten ba'dautsazu, amaika gauza egiteko gai izango da. Gurea lako artz batek, garapena lortuta besoetan eta lepoan indar ikaragarria jaristen dau. Onezaz gainera, guztiz ariña da, eta orduko 50 km egiteko gai da. Lauazkan, zugaitzetan gora erraz igon daiteke. Abere onein beste bereiztasuna, uretan murgil egiteko gaitasuna da.

Egun batzuk igaro ziran, eta ikus-naiak menperatuta, Yanoz'ek zuzi bat artu eban, eta leizeko txoko guztiak arakatu ondoren, noizbait, sakonenean Txartxa orbelezko oatze bigunean etzanda ikusi eban. Astiro-astiro arnas egiten eban, eta begiak itxita, lo zorro batek artuta egoan. Yanoz'ek une luze batez begiztatu eban maitetsu, eta gero sutondora biurtu zan.

Oianak be, edurrezko estalki lodipean lotan zirudian, eta Yanoz ia egunoro eizaketara joian etxeko janari urriari aurre egiteko. Oianean zear joiala zerbait uts emoten eban biziro, ain zuzen be, Txartxa'aren laguntza. Artzumea noraiño maite izaten eban, orain oartzen zan benetan. Joiana-joiala, oraingo bakartasuna barruraino sentitzen eban, irrika bizian negua joan zeiten nai izaten ebala, bere Txartxa barrero ikus-tearren.

Bajoiarian egunak aurrera, eta udabarriak bere oiko janzki urdiñaz oiana ikertzen ebala, txoriek kimu barrien eragintza sentitzean, zoro biurtzeko zorian abesteari emotsoen, zugaitzen azpiko edurra lurmentzen zala. Bein baten, leizearen sarrean

jesarrita, Yanoz'ek berpizkundearen miraria begiztatzan ebala, ustekabez, norbaitek atzetik besarkada estu-estua emon eutsan. Nor eta Txartxa...! Artzumeak pozez zoraturik, mutillari aurpegia miazkatu eutsan, eta pozaren-pozez, Yanoz'ek bere ondoan jesarri-erazo eban, esku bataz lepoa laztantzen eutsala.

–Txartxa maitia, bai luzaro alkar ikusi barik...! Bayirudik anditu ta argaldu azala. Begiraik, itxura gosetia yok benetan, eta ire urdaillearen orruak baretzeko, bayoagu oraindino erreki baten ondakiñak. Ator barrura.

Gose itzelaz Txartxa'k errekiari ekin eutsan, eta jarraian pozaren-pozez, biok oianean zear abiatu ziran. Izan be, Txartxa argal-argal aurkitzen zan, eta ibilli ebillela, guztitariko landare-jateari emotsan buru-belarri. Agiri zan, baiña, negute aretan artzumea azi izan zala, eta luzaro barik egokion loditasuna jaritsiko leukela.

Arrezkeru, artz-mutillak barrero be alkarrekiko bizitzari emon eutsoen, eta len lez oiana ta ibai-erreken ertzetatik, janari-billa edo besterik ezean, aldia emoteko joiazan. Eta aspaldian lez Txartxa'k osaba-lobentzat betiko perretxiko ta grisol gozoak batez be, idoro ebazan, eta janaria bearrezkoa ez izanik, biok jolasteari emoten eutsoen. Artzaren kirolarik naietenariko bat, Yanoz'ek uretara jaurtiten ebazan arriak eta zotzak, agiñen artean edo erpeakaz atzituta atzera ekarte zan, eta izan be, arrigarria zan Txartxa uger egiten begiztatzea. Ekintza onetan, gitxi, iñor ba'zan kidetu zeitekean artzumearekin.

Bein baten, baiña, Txartxa'k mutillari ezuste atsegiña emon eutsan. Bagilla'ko (Ekainilla'ko) goiz argitsu baten, biok Urzuri'ren urlo baten ertzetik egurasten joiazala, Yanoz'eri arribil bat uretara otu yakon artzak atzera ekarri egitsan, baiña mutillaren arritasun andirako, uretatik urtetezan, atzaparren artean Txartxa'k arrainkari bat ekarren. Yanoz urreratu yakonean, baiña, beingoan iruntsi eban. Osteru be, mutillak artza uretara zirikatatu eban sotz bat gainaldera jaurtiz, eta len lez, urgelditik urtetezan beste arrainkari batekin agertu zan, baiña mutillak kendu egitsan baiño len, aginkada bataz garbitu eban. Yanoz'ek asarre egoalakoa eginda, keiñuz eta didarrez, iruntsi-bearrean berari emoteko adierazo eutsan, eta orduan barrero be irugarren arrainkaria uretatik atarata, ugazabari emon eutsan.

Edu onetan, Txartxa etxeko arrantzalea biurtu zan, eta eizakiak urri billakatzen ziranean, Txartxa'k arraintzarako eban trebetasunaz arrainkiaz ordeztan ebazan. Zaila gertatu yakon Yanoz'eri asiera baten, artza esanekoa biurtu zeiten, orretarako oraindik gazteegia baizan. Dana-dala, Yanoz'ek bere aukeran zenbat-gura asti-uneak izanik, Txartxa'ren eziketeari emon eutsan, eta egunak igaro-ala artza adimen ernaikoa zan ezkeru, edozer ikasteko gai zala egiztatu eban mutillak.

Illabeteak arin igaro ziran, eta negua etorri zanean, bere oldeari jarraituz, Txartxa barrero be lengo urteko txoko berean neguteko lo-aldian murgildu zan, eta urrengo udabarria itxartu zanean, Yanoz'ek lagunduta oianeko bizitza askeari emon eutsan. Orduko, Txartxa urte biko abere ederra billakatua zan, eta zutunik egoanean, Yanoz baizen garaia zan.

Aspaldi aretan, bere lagunak aurrerapen andia egiten ebala konturatu zan Yanoz, eta au ustiatuz Txartxaren eziketeari emon eutsan, eta izan be, gauza arrigarriak egiteko gai azaldu zan. Berba bakar batatz, askotan keiñu batekin lagunduta egitekoa agindu oi eutsan, eta laster ikasi eban Txartxa argiak, mintzo ta keiñuen esangurea, eta tximistaren antzekoa agindutakoa bete oi eban. Olan ba, noiz jesarri, zutundu, lauazka ibilli, aurrera naiz atzera joan edo gelditu irakatsi eutsan. Txistu-soiñuz be aginduak emoten eutsazan, urrun ebillenean batez be, eta edu onetan mutillaren txistu bereizi bat entzutean, tximista baizen azkar baso-sarrian ostentzen zan, an bertan irauala beste dei-txistu bat entzun arte. Orduan arrapalada baten Yanoz'egana etorren.

Baiña irakaskintza guztia ez zan orretan amaitu. Yanoz'ek, adar, lasto, eta aparra-mantarrakaz giza-irudiak egin oi ebazan. Erdipurdikoa ziran, baiña gizakien irudia eben. Yanoz'en didar bat entzutean, Txartxa irudien aurka oldartzen zan, eta aurreko atzaparrakaz puskatzen ebazan. Batzutan, ondapen-lan oneitan ziarduala, abots bereizia jaurtirik, mutillak geldi-erazoten eban. Eziketa oneitan osaba Imoz'ek adoretzen eban, ondo bai ondo ekusan eremulariak, egunen baten Yanoz'ek artz indartsuaren laguntza bear izango leukela... Akitani'ra joateko garaia etorri litzakionean batez be. Augaitik ba, osaba Imoz'ek lobeia eragiten eban artza burrukarako gertatu egian, eta ain zuzen be, Txartxa ikasle urtena azaldu zan.

Lau urte bete ebazanean, Txartxa garapen osora eldu zan. Berreun eta larogei kilo inguruko artza bikaiña billakatua zan, eta Yanoz mutil ederra izan arren, artzak arrabete bat kentzen eutsan. Baiña Txartxaren bereiztasunik agiriena, bere indar itzela zan. Bazan gai, pago ertain bat sustraietatik atarateko, eta sorbalda-gaiñean edonora eroateko zotza bai'litzan, baita bosteun kiloko arriak jaso ta jaurtiteko be. Bein baten, pago-adar andi bat iskillotzat erabilli egian otu yakon Yanoz'eri, eta izan be, zauskagarria gertatu zan, ugazabaren agintzari jarraituz, zelan ondatzen eban areitariko giza-irudi bat. Luzaro barik baekian Txartxa'k adar lodiak zelan erabilli, gizakiek makillakaz egin oi daben antzera.

Bein baten, Irati'n gora orkatzen billa joanak izanik, eta Ori mendiko tontor-rantz edatzen ziran izaien artean aurkitzen zirala, illuntzeak ezustean arrapatu ebazan. Etxetik urrun samar egozan, eta iretargibako izateko zan gabaren bildurrez, burutapen batek artuta, mutillak artzari dei egin eutsan, eta onen bizkar indartsuaren gaiñean arretxikoa jesarrita, lepoko ule ugariak eutsirik,

–Aiko Txartxa –agindu eutsan–, gaba etorri baiño len gauazan etxera arin baten.

Izan be, Txartxa'ren gaiñean orduan berrogei ta amar kilometro eginez, zugaizten artean sigi-saga zoroan joiazala arinketa kilikagarria azaldu zan. Milla ta milla urteetan zear, orbelen jauskereak azpikoa oin-oial biguna biurtuta, artzaren lauazka malguak, lur-gaiñean baiño eguratsean zear egindako egaketa zirudian. Arinketa zoro aretan esku biakaz artzaren ule luzeari tinko-tinko eutsita, Yanoz'ek ezin egikean bere poztasunezko zauskadea menperatu, eta barruko atsegiña oi bizitan aldarrikatzen eban. Noizbait, eta eguneko argia itzungita zanean, etxera eldu, eta osaba Imoz'egana

joanda, bidaiaren kilikadurak eragindako, mintzo urduriz jasandako zauskada zoragarria edestu eutsan. Amaitu ebanean, eta isillune baten ostean,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan osabak–, ederto deritxat orreri, baiña Txartxa'ren lepo-gaiñeko lauazkari itzi barik, zure soiña indartzeko ta arintzeko ez da beste iñar-kunik oiñez ibiltea baino. Jakiña, onuragarria izango yatzu ezpaibarik, arretxiko joaten bearrezko izan daitenean batez be, baiña ez artu ori zure oiko jarduntzat. Akitani'rako garaia etorri dakizunean, on izango yatzu zaldika joaten, baiña soiñaren iñarkuna aztu egin barik.

–Bai, osaba, zuzen zagoz, eta zeuk esondatzen daustazuna aintzakotzat artuko dot.

Aldiaren bidean, eta osabak esandakoa aztu barik, Yanoz'ek artzaren gaiñean lauazka egiteari noizean bein emoten eutsan, eta luzaro barik zaldun saiatua biurtu zan, aldiaren bidean gai zala Txartxa'ren lepo-gaiñean irautea eskuen laguntzarik bage.

Bein baten, orein bateri gezia jaurtiteko uztaia atezuan jarten ebala, ezustez krask egin zartatzen zala. Arazo larria benetan, bere ta osabearen janaria eizeari alkartuta egoalako. Au zala-ta, astirik galtzeke beste uztaia barri bat lortu bear izango leuke. Etxera biurtuta, osaba Imoz'eri jazotakoaren barri emon eutsan, eta gero,

–Aizu, osaba –itaundu eutsan–, non jaritsi nengike agiñen baten adar egokia, uztaia barri bat egiteko...?

–Erro ta Aezkoa'ko gudariek, Orrega ta Luzaide artean datzan agin-sail bateko adarrakaz egin oi genduzan gure uztaiak. Begira: Orbaizeta'ko ipar-bidetik Auritz'era joanda, Ortanzurieta'ko egitik Luzaide'ra barik, agin ugari dago bear dozun adarra aukeratzeke. Egun bitako bidaia dan ezkerro, eroan egizu bearrezko janaria baita zure abaila be, eta jakiña, Txartxa eroango dozu, arrotzek ango bideak noizean bein erabilten dabez-eta. Badaezpadakoan zure burua ez agirian ipiñi, bideetan zear artzarekin joanez. Artzak zugandik aldentuta jarraitu dagitsula zugaitzen artean ostenduta.

Urrengo egunean, argitu orduko, jateko batzuk lepo-zorrora sartu, eta Txartxa'k lagunduta, mendian gora Auritz'era abiatu zan, illuntzerako osaba Imoz'ek itarantzuniko agin-saldora eltzen zala. Irailla'ren gau eder aretan agin baten ondoan berak eta artzak lo egin eben, eta urrengo goizean aizkoreaz adar egoki bi aukeraturik, ebegi ebazan. Astirik galtzeke, Orreaga'rantz bidean gora abiatu zan gurdi-bide batetik. Olan ibilli ebillela Txartxa'k lagunduta, gogora etorri yakon osaba Imoz'en oarra, eta txistu batatz aldameneko pagadi baten artean ezkutatu zeiten agindu eutsan artzari .

Alako baten, bideko ertz batetik ezustean iru zaldizko zugaiztetatik urten, eta mutilla inguratu eben. Akitaniarrak zirala laster oartu zan Yanoz zaldien edeakaitik, eta gizon areik erabiltzezan soin-babeskiakaitik. Bere burua inguratuta ikustean, bildur bakana beratzaz jabetu zan. Orduan, areitariko akitaniar batek ezpata luze batatz zemaizten ebala, auxe esan eutsan:

–Aizu, mutil, nongoa zara...?

Yanoz'ek ez ekian zer esan, baiña zeozer erantzun bear, eta itzetik-ortzera etorri yakona jaurti eutsan.

–Mezkiriz'koa naz.

–Ederto, mutil. Arako garan ezkerro, zatoz gurekin eta bidea erakutsiko dauskuzu.

–Ez da bearrezkoa, Jauna, ez dozue besterik egin bear, bide oneri jarraitu baino.

–Dana-dala, gurekin etorriko zara.

–Ez naz zuekin joango, beste iñon osabea nire begira daukadalako.

Orduan, areitariko zaldun batek, jatsi barik ezpateaz aurpegian zartako basatia emon eutsan. Ezusteak eta artutako miñak mutilla alboraka ibilli-erazo eben, bekokian beera odola borborka eriola. Miñaren-miñez Yanoz'ek oi u bizi bat bota, eta eskua bekokira eroan eban zauria estaltzearren. Olan egoala, artza bere laguntza bakarra zala, burura etorri yakon, eta arek entzun egitsan, birien indar osoaz didar egiteari emon eutsan. Arrotzak orduan,

–Aizu, mutil –zalditik jatsirik esan eutsan–, isiltzen ez ba'zara, beste zartako andiango bat emongo dautsut. Orain iges egin ez zakiguzan, eskuak zaldiaren buztanari lotuko dautsudaz.

Au esanik, bere lagun bien barre-santzoen artean, lokarri bat az Yanoz'en eskuturak zaldiaren buztanari lotzeko gertatu zan. Ekintza onetan ziarduala, baiña, kurrinka aserrekoi batzuk ausitako adar-karrasken artean aditu ziran, eta arrapalada bizian Txartxa oldar asarrekoiaz agertu zan. Yanoz'ek orduan didar auxe jaurti eutsan:

–Uia, Txartxa, uia...!

Axe zan sasi-iñarkunetan mutillak bota oi eutsan zirika-oiua, giza-irudiai eraso egitsen adierazoteko. Kurrinka basatiak jaurti bitartean, Txartxa'k gudari arrotzaren gerriari eutsi, eta lumatxua bai'litzan aidean jaso, eta zartako itzelaz pago-enbor baten aurka lertu eban. Arrautz baten oskola lez, arrotzaren burua ausita, gudaria illik lurre-ra amildu zan. Au dana begi-keiñu baizen arin jazo zan, baiña ezustean artutako beste arrotz bitariko bat bere zerera biurtuta, gezi bat uztaian jarrita, artzari jaurti eutsan. Jaurtikia Txartxa'ren besaburu baten untzatu yakon, eta miñaren-miñez itsu eginda, arrotzaren aurka oldartu zan. Akitanien zaldiek, baiña, artzaren bildurrez igesari emon eutsoen zoraturik, eta etorritako bidean beera lauazka bizian ostendu ziran, euren gudataldekoekin alkartzeko, atzean lagun illaren gorpua izten ebela. Asarre gorrian, Txartxa atzetik oldartu yakon, baiña Yanoz'ek txistu bat az eratorri eban.

Artutako ezpata-ukaldiagaitik oraindiño zeozer zorabiotuta egoan Yanoz, baiña, luzaro barik bere einera etorri zan. Bekain-gaiñetik zauritik odola parrastaka erion ezkerro, arkondararen zati bat az bekokia estu-estu lotu eban, odol-jarioa eten egin arte. Jarraian, Txartxa'ri zauria aztertu eutsan, baiña ez zan azartu gezia atarateko; oba osaba Imoz'ek kendu egion, bere buruari esan eutsan. Ibillerak eragindako bilinbolakak zauria zabaldu ez egitsoen, Yanoz'ek gezia ebagi eutsan, muturra barruan geratzen yakola. Zauritik ez zan odol andirik urtetan, eta onek baretu eban mutilla. Amaitu ebanean, artza besarkatu eban estu-estu, auxe zirautsala txeratsu:

–Gaiuzan etxera, Txartxa, an osaba Imoz'ek gezi-muturra ataraku yauat-eta.

Bidean gora jarraitu eben, baiña Txartxa lauazka ezin ebilken ezkerro, zutunik

joan bear, eta augaitik etxerakoa egun bitan egin eben. Bigarren egunean Txartxa'k ez eban mokau bat bera be iruntsi gura. Begiak gorrituta, eta sukarrak artuta, nekez ebillela oartu zan Yanoz.

Etxera eldu baiño ez, osaba Imoz'ek aurrenik Yanoz'en zauria aztertu eban, eta gauza andirik ez zala ikustean, bedar egosiak aztertu bat eginik, bekokian ipini eutsan. Bereala, Txartxa'ri zauria aztertu ondoren, gezi-muturraren atarateari emon eutsan. Arazo oneitan Imoz antze andikoa zan, amaika bidar burruken ostean zeregin ori bete egin bear izan ebalako. Erratillu baten bedar batzuk irakin bitartean, Txartxa etzan-erazo eban, eta goritutako aitzo bat az ardurarik andien az alboko narrua urratu eutsan, eta andik laster gezi-muturra atarata, egositako bedarren uraz zauria garbitu eutsan. Ekintza onen bitartean, Yanoz'ek jazotakoa azaldu eutsan, eta amaitzean,

–Aizu, Yanoz, –esan eutsan lobeari–, dirudianeaz, iru arrotz orreik atzetik etorren gudatalde baten bide-azterlariak ziran, urrean, eta oneri buruz gure jendea jakitun ipiñi bear dogu. Augaitik, jatsi zaitez lenbailen Orbaizeta'raiño, ango jendeari Orreaga'n gertaturikoaren barri emotearren, baita Erro'ko gure jendeari mezu bat bialdu dagitsoela, zain egon daitez. Zoaz lenbailen, baiña arren, ez iñori esan nor zaran, Konte Baltza'k leku guztietan zelatari edo usnariak dauzalako, eta Iroz'en semea emendik bizirik dabilela jakingo ba'leu, munduko azkeneraiño jazartuko zindukez.

Noizean bein, arrotzak Naparra'ko mendietara sartu oi ziran, geienetan Dantxarinea, Aldudes eta Orreaga'tik, baita gitxitan bazan be, Irati'ko oianetik be. Erasotzailleak geienetan Konte Baltza'ren menpekoak ziran, eta akitanien onein elburua, abelgorri ta giberriz jabetzea zan, erritar eta onein onibarrari bidebatez aalik eta kalterik andiena egiñez. Sarri askotan, akitanienrek sarraski andiak jasan bear ebezan euskaldunen aitz-erasoetan. Augaitik, arrotzen lapurketak iraupen laburrekoak ziran, baiña Auñamendi'ko menditarrek ondasunetan galtzen eben az gaiñera, beti zain egoteari beartuak ziran.

Au zala-ta, arrotzen urretasun-barriak osaba Imoz'en ezaguereari etorkionean, Aezkoa ta Erro ibarretako biztanleai jakin-erazoten eutsen, eta era onetan, arrotzai jarkiz gaiñera, sarritan gizon eta iskillotan galtzai andiak egitsiezan. Augaitik, akitanien erasoak mugatuak ziran.

Orbaizeta'tik arpera biurtu zanean, Txartxa'ren osasun-egoera zeozer obatua zala egiztatu eban, eta artza lengora biurtu bitartean, osaba-lobak garrantzi andiko ekintza bateri emon eutsoen, eta oneri ain zuzen be: Yanoz'eri bearrezkoa yakon uztaibari baten atontzeari. Mutillak ez ekian zelan egiten ziran uztaiak, baiña osaba Imoz iskillotan arazotan maisu andia zan.

Aitzo bat az, Yanoz'ek ekarritako agiñezko adarrak, zuritu, leundu, eta bardindu ondoren, metro biko luzeeran ebagi ebazan. Au egin bitartean, mutillari auxe esan eutsan:

–Aizu, Yanoz, gizon baten egiturea artzen asi zara, eta beraz, oraingo uztaia len-

goa baiño andiago ta indartsuagoa izango da. Uztaiari benetako taiua emoteko, baiña, txingar asko bear dan ezkeru, ipiñi sutean egurketa andia txingarretan biurtu daiten, eta bitartean eratu dagigun lurrean uztaiaren itxurea.

Au esanik, osaba Imoz zelaira urten zan, eta lurrean taket batzuk sartu ebazan. Jarraian, agiñaren adar bat taketen artean jarri eban, uztai txairo baten irudia lortu arte. Onen ostean, uztai gordiñaren ondoan txingarrak ipiñi ebazan, adarra onein berotasunaz erre barik igartu zeiten.

–Orain, Yanoz –osabak eratsi eban–, etenbarik txingar barriak ipiñiko doguz suak iraun dagian, eta adarra barruko guna lurrindu dakienean, zur-izpiek oraingo era edo taiua gordeko dabe betirako, eta uztaiek malgutasun osoa artuko dabe.

Ogei ta lau orduz txingar jarteari emon eutsoen, eta jarraian, taketak kenduta, uztai bikain bat lortu eben. Onen ostean, bigarren uztai-atontzeari ekin eutsoen, eta andik beste ogei ta lau ordutara, bigarren uztaia lenengoa baizen sendo ta malgua jaritsi eben. Gero, osaba Imoz'ek mimenezko esku-leku bana jarri eutsen, eta azkenean, txortaturiko orein-kiriokaz, areintzako agunak atondu ebazan.

Orduan, Yanoz'ek uztai bat arturik, pago-enbor azalean jaurti-iñarkunari emon eutsan, eta lengo uztaia baiño indar andiagoa erabilli bear izaten ebalu egiztatu eban, baiña baita poz andiaz be, geziak tximista lakoak egan egiten ebela, eta onen ondorioz aparta ziurragoa jaristeko gai zala,

Egun batzuk igarota gero, Txartxa osatu zan, eta zaurituriko besaburuak lauazka egitean min egitsanez, asikerean zutunik ibilli ebillen, eta andik laster lauazka egiteko gai izanik, Yanoz'ekin oiko ibilte ta eizatzeari emon eutsan, bere lengo biziereari biurtuta.

Bost urte igaro izan ziran Yanoz osaba Imoz'ekin Irati'ko oianera bizi izatera etorri zanetik. Mutil garai, malgu ta ederra billakatu zan orduko, eta areago biurtuko litzake soiñaren garapen osora jaritsi egianean. Ekiñaren-ekiñez, gezi-jaurtiketan trebetasun arrigarria lortu izan eban; begia nora gezia ara, ain zuzen be. Osaba Imoz'ek aginduta, jaurtiketak egiteko esku biak aldizkatzen ebazan, eta era onetan eskumaezkerti billakatu zan. Au zala-ta, aldiaren bidean indarretan beso biak bardintsuak ziran. Oian eta mendietan zear ordu askotan gora ta beera ibilteagaitik, bere soiñak arintasun eta txairotasunean ez eban kidekorik. Begimen eta entzumena, oianeko izakiek jaristen dabezan baizen bikaiñak ebazan, eta bereiztasun oneikaitik, zailla zan benetan, eizaketatik esku-utsik biurtu zeitenik.

Yanoz'ek, zabalduko biziera oroz-gain maite izan arren, osaba Imoz'ek, beste gaiak be ezagutu egiazan beartzen eban: irakurten eta idazten, alegia. Sarri askoten auxe zirautsan:

–Aizu, Yanoz, Naparra'ko zaldun on bateri dagokionez, irakurten eta idazten ikasi bear dozu.

–Osaba –adarra joteko esan oi eutsan Yanoz'ek–, zalduna izateko zaldi bat jabetu bear da. Non dago nire zaldia ba...?

–Egunen baten zaldi eder baten jabe izango zara. Zure aitak ebazan areitarikoak baizen ederra, ain zuzen be. Baiña benetako zalduna billakatzeko, gogoia ta adimena landu bear izango dozuz. Iroz'ek nire anaiak zure ezletzat aukeratu ninduan ezkeru, bere azken naiari jarraituz, aal dagidan gai guztietan irakasle izango nozu.

Osaba Imoz'ek eremulari izateko Iratxe itzi ebanean, Munio Abatak Biblia edo Idazti deun bat emon eutsan, bakardadean lagungarri ta ikasgarri billakatu ekion. Eta izan be, narrukizko esku-idazti aretan, arimaren aringarri ta betegarria idoro ebazan, baita onezaz gainera, erdi-aroko aldi areitan oikoa zan ezjakintasuna garaitzeko be. Edu onetan ba, Yanoz irakurten asi zan, eta Idazti Deunaren zati illunetan, osaba Imoz'ek azalpen lagungarriak emotsazan, eta ez-arian lez bere adimen eta gogoia aberasten yakozan. Irakurten ondo ikasita gero, egazti-luma baten bidez osabak idazten irakatsi eutsan, eta luzaro barik irakaslea baizen ondo idazten jaritsi eban. Lobeari irakasteko Osaba Imoz'ek neguko eguraldi zakarra ustiatzen eban, eta igarri barik Yanoz'eri jardun oneik onuragarriak izanez gaiñera, atsegiñak billakatu yakozan.

Baiña oroz gain Akitani'ra abiatzeko noiz letorkioken garaia irrikatzen eban

Yanoz'ek. Igarotako bost urte areitan, Naparra'ko erraldoiaren antzera jagiten zan Ori mendiko tontor arritsu ta malkartsura sarri askotan joana zan, ango begiratoki bikaiñetik iparrerantz edatzen zan zabaldi neurribage ta leuna begiztatzeko. An urrutian, Benaparra ta Zuberora'z bestaldean Akitani'ko ordoki zabala edatzen zan. Egunen baten, aitaren agindua betetzearren dukerriko nagusia ikertuko leuke, Euskalerrirako bearrezko bakea jaristeko. Lurralde zabal, zadortsua ikusten eban bakotxean, zauskada bakanaren menpean bere irudimenak egan egiten eban.

Osaba Imoz'eri sarri askotan auxe iñotsan,

–Osaba Imoz, noiz etorriko yat Akitani'ra joateko garaia...?

–Oraindik ez dozu garaia, Yanoz. Urte batzuen buruan aukerea izango dozu.

–Baiña, osaba, ogei urteko naz onezkeru...!

–Ara joateko, asko ikasi bear izango dozu, au da, ezpata-erabilte etab. Zure aitaren agintzari men egiteko, bere ezpata astuna esku bakar batatz sorbaldaraino jaso bear izango dozu. Au egiteko, zaran baiño askozaz indartsuago biurtzen ez ba'zara ez dozu joaterik izango.

–Osaba Imoz, zelan jaritsi dagiket orretarako indarra...?

–Arri andi ta pago-enborrakaz iñarkunak egiñez. Onezaz gainera, on izango yatxu Txartxa'rekin buruz-buruko sasi-burrukak egitea. Indartsua dan ezkeru, iñarkun orreik zure indarrak areagotzen beartuko zaitu, eta orduan, ezpatea jasoteko gai zaitzanean...

–Orduan, itziko nozu Akitani'ra joaten...?

–Ikusiko dogu, Yanoz. Zure burua zaintzeko gai zaitzanean, orduan joango zara, baiña bitartean emen iraungo dozu indartu zaitzean eta ezpata-erabiltea ondo ikasi dagizun arte.

Yanoz'ek asperen bat jaurtiten eban, eta Idazti Deunaren irakurteari emoten eutsan, egunen baten bere aitaren lurralde ikusiko leukela ames egiten eba.

Bein baten, gezien kopurua urritu egin yakola egiztatu eban Yanoz'ek. Geienetan, jaurtitako geziak birjasoten ebazan, baiña orbelaren artean ezkutauta gertatzen ziranean, azpikoa zeatz-zeatz arakatu arren be, baten bat noizean bein galtzen zan. Onen ondorioz, aldiaren bidean gezien kopurua urrituta, gezien billa joan bear izan eban Yanoz'ek.

Gezi barriak jaristeko, baten bateri ostutea bide bakarra zan. Lapurketa ori egiteko, Irati'ko lurralde itzi bear izaten eban gudaritalde bat aurkitu arte. Orduan zelatari jarrita, gabeko illuntasuna ustiatuz kapardira isillean urreratu, argiak moteldu edo itzungi ziranean, orduan iskillotegira narratz urreratu, gezi-eskukada bat jaso, eta etorria baizen isillik andik urrundu.

Ekontza au, lengo urteetan bizpairu aldiz egin bear izan eban Yanoz'ek, eta osaba Imoz jokabide-arazoetan oso estu ta zorrotza izan arren, lobearren gezi-ostuketea onetaraxe onartzen eban:

–Izan be, Yanoz maite ori, edozein lapurketa iguingarria da, Jaungoikoaren lege-

auspena dalako, baiña kontuan izanik zure aukeran iñongo bide zillegia ez dozula, eta beste kalteak ainbatu barik, akitaniarrek ostu oi dauskuena kontuan arturik, zuzentzat joten dot gezi-eskukada bat kendu dagiezula. Gaiñera, gose gorria asetzeko okondo bat ostutea pekatua ez dan ezkeru, zuri be zillegia yatxu gezi orreik jaristea, egunero-ko janarirako lagungarria izanik batez be.

Ereti onetan ba, aurrekoetan lez, osaba Imoz'en baietza lortuta, eta Txartxa'k lagunduta mutilla joateko zorian zala,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan osaba Imoz'ek–, Auzki'ko bordetan zear iparrerantz doana biderik egokiena izango litzake, eta auxe Atarratze ta Donibane Garazi arteko bidea dan ezkeru, akitaniarren kapardiren bat aurkituko dozu, urrean. Dana-dala zeugan dago zein bidetik joan. Zaindu zure burua, eta ez aztu, bizirik iraun bear dozula Akitani'ra joan nai ba'dozu zure aitaren agindua beteteko. Txango orretatik biurtu zaitzanean, ezpata-erabiltea irakatsiko dautsut.

–Bai, osaba Imoz, pozik artuko dot zure irakaskintza.

Txistu sarkor batatz Yanoz'ek artzari dei egin eutsan, eta oianetik zearretara ibiliz, Irati ibaira eldu ziran. Udako egun eder aretan, ortzian ez zan ikusten odeien zantzurik, eta eguzkiak laztanduriko adaburuetan, katamixarrek su biziko lorratzak marrazten ebezan adarrik-adar ikotika, txorien txintak inguratutik.

Ibaian gora joiazala, mutillak Txartxa'ri itxaron bear izan eutsan, txaparren artean garauak arrapatzeko gelditzen zan bakotxean. Eguberdian Benaparra'ko mugara eldu ziran, eta emen bazkaltzeko geldiune laburra egiñik, aurrera abiatu ziran. Oianean zear ebiltzala, edozein ots ez-oitua aditzen zanean, txistu bereizi batatz Yanoz'ek artzari ezkutatu zeiten agintzen eutsan. Noizbait, Irati ibaiaren biurgune andi batera elduta, Mendibeltz'eko egian zear iparrerantz jo eban, atzean Irati'ko barrutia izten eba. Eguzkia Aldudes alderantz makurtu zanean, borda zaar bat ikusirik, an bertan gaba emotea erabagi eban Yanoz'ek, eta etxetik ekarritako jakietatik apaldu ostean, txoko bateko iratzan etzanda jarri ziran lo egiteko.

Urrengo egunean, egunsentiaz batean jagi ta bideari jarraitu eutsoen, eta basoa amaituta alagune zabal batera eldu ziran, aurrean Auzki'ko bordak agertzen yakezala. Yanoz'ek artzari urrundu zeiten agindu eutsan, eta areitariko borda bateko atean artzain bat ikusirik,

–Aizu, lagun –oles egin eutsan–, ikusi al-do zu nonbait gudari-talderen bat...?

–Zer ba, galdu ete yatxu zeozer arrotz orrein artean...?

–Ez, baiña Akitania'n anai bat dot, eta arekin biltzeko asmotan nago.

–Nongoa zara...?

–Aezkoarra naz. Etxean aspertu eraginda nozu betiko biziera bardiñaz, eta beste kizimodu baten billa noa.

–Begira, lagun, gudari-talde bat ikusi dot orain ordu bete bat-edo, Maule'tik Beorlegi'rako bidetik joiala, Olabarrieta'ko basora sartzeko zorian zanean.

–Zein da Olabarrieta'ko basoa...?

Besoa luzatuz artzaiñak iparrerantz zetzan baso bateko orban andi orlegia erakutsi eutsan.

–Eskerrik asko, lagun –Yanoz'ek esan eutsan–, banoatzu ara.

Illuntze orduko Olabarieta'ko basora eldu zan, eta orduan oiko txistuaz artzari dei egiñik, oi eban lez kapardi bat idoro egian adierazo eutsan keiñuka. Bereala Txartxa lurra usaintzen asi zan, eta andik laster geldituta, aurreko atzaparrakaz orbelak arramaskatu ebazan.

–Ederto, Txartxa, orain gaiuzan astiro ta isillean.

Mutillak jarraitutako, gero ta illunago biurtzen zan baso-sarrian zear abiatu zan Txartxa. Astiro joian usainmenak zuzenduta, ordu batzuk lenago lurrean irarrita egozan gudari-talde baten aztarnai jarraituz. Laster gau osoa egin zan, eta goitik etorkien izarren argi aula adaburuek areago motelduta, illunpe osoan ebiltzan artzaren usain bikaiñak zuzenduta. Andik ordubete batera-edo, kurrinka leunak jaurtikiz Txartxa gelditu zan. Zugaitzen enborren artean argi aul bat ikusten zan, eta abotsen suzmur itoa aditu zeitekean. Yanoz'ek artza geldierazo eban, eta urrats batzuk aurrera ibillita, baso-soil baten ertzean aurkitu zan. Bedar laburraz estalitako zelai eder aretan, amabi bat kapar egozan, eta erdi-erdian, su andi baten inguruan, garrek ondo marraztuta ogei bat gudari ikusi zeitekezan. Kapardia obo baten antzera su-inguruan jarrita egoan, eta beste kaparren artetik besteak baiño andiago ta apaiñagoa, gudarien buruzagiarena zirudian kapar bat bereizten zan. Yanoz egoanetik eskumatara, baso-ertze-ko zugaitzetan estekatuta, zaldi batzuen noizbeinkako irrintziak aditzen ziran.

Une luze batez Yanoz'ek gogoeta sakon bateri emon eutsan, bere egitasmoa ausnartzearen. Gudariak lotara joan zeitezanean, sutatik ur samar egoan iskillotegitik ontzi bete gezi artzea ta aalik ariñen igesari emotea, biderik errazena izango litzake. Orretarako, baiña, itxaron bear izango eban gudariak oeratu arte, eta augaitik, badaezpada-koan, txistu leun bereizi batz Txartxa'ri dei egin eutsan, eta jarraian biok baso-soillaren ertzetik begirari jarri ziran. Itxaron bitartean, aukera betea izan eban Yanoz'ek gudariak aztertze-ko, eta izan be, arein jantzieratik akitaniarrak zirala oartu zan. Onezaz gainera, akitaniarrek erabilten eben euskera bereiziak ez eban iñongo ezpairik eskintzen.

Noizbait gudariak banan-banan kaparretara sartu ziran, eta azkenean ez zan beste gudarik geratu, iskillotek zaintzen ebazan begiraria baiño. Isiltasun betea laster jabetu zan kapardiaz, besterik entzuten ez zala, noizbeinkako zaldien irrintziak baiño. Yanoz jagi zan, eta Txartxa'rekin baso-ertzetik ibiltzen asi zan buruzagiaren kaparrera urreratzen zala, auxe iskillotegitik lekuri urrena zan-eta. Ona elduta, Yanoz gelditu zan, eta iskillotek metari begiratu eutsan. Zaindaria etenbarik batetik bestera ebillen, noizean bein egurren bat sutara jaurtiten ebala itzungi ez zeiten. Dana-dala, kapardia illun samar egoan, eta begiraria oartu barik, Yanoz ontzibete geziz jabetuko zan, eta basoko illunpetan igesari emongo leuskio ikusteziña. Mutilla gogoeta oneitan zala, ustekabez, buruzagiaren kaparretik autu baten mintzoak aditu ziran; bata gizonarena,

bestea ikaratuta zirudian neska batena. Ikusnaiak zirikatuta, Yanoz'ek kaparreko eunean zulo txiki bat atzekaldean egin eban eta andik begiratzean arrituta geratu zan.

Ogei ta bi urte inguruko gazte bat aulki baten jesarrita egoan. Jantzkiaren apaintasunak andikia zala erakusten eban. Beste aulki baten jesarrita, eskuak lotuta abazala amabost bat urteko neskatoa egoan. Zuzi baten argi motelpean, zuriz jantziriko neskatilleari aurpegian beera malkoak eriozala ikusi eban Yanoz'ek. Arnasari eutsirik, kaparreko argia oso urri izan arren, neskatoa edo neskatillea edertasun bardinbakoala zala oartu zan. Une aretan, akitaniarrak onetaraxe berba egiten eban:

–Aizu, neskatilla ori, ez bildurrik izan, edertasuna aintzakotzat ederresten dakian zaldun baten babespean zagoz-eta.

–Nik ez dot iñoren babesik gura –negarrez iñotsan neskatoak–, nire etxe-koekin izan baiño. Arren bai arren, laga nagizu etxera joaten...

–Uste al-dozu onaiño ekarri zaitudala, beste barik etxera biurtu zaitezane...? Ez, nire usotxu zoragarria, Akitani'ra eroango zaitut nirekin, zure edertasun bardinbakoak dagokion lekuan dizdir egin dagian. Akitani'ko Dukearen kortera eroango zaitut, danek ederretsi dagikien zure bikaintasuna, nire aingerutxua...

–Arren, laga nagizu etxera joaten...

–Begira, nire bitxi zoragarri orrek, ez al-dakizu Akitani'ko gudarostearen buruzagia nazanik...? Akitania'n bizi izan zaitezanean, zure bizileku ezaiñetik atara izateagaitik eskertuko daustazu.

Buru txanbeliña makurtuta, neskatilleak negar mingotsari emotsan bularra zotiñek astinduta. Alako baten, Akitani'ko buruzagia jagi, eta neskatillagana urreraturik, ezpanetan irribarre gaiztoa marrazten yakola, matraila laztandu eutsan. Burua areago makurtuz neskatilleak didar itoa jaurti eban. Akitaniarra barre-santzoka asi zan, orain buru txairoa laztantzen eutsala. Sumin basatiak eraginda, Yanoz kaparreko atera oldartu, eta ikoti batz barrura sartu zan buruzagi arrotzaren aurrean kokatzen zala. Onek, ezusteak jota, begiak zabal-zabalik zer egin ez ekiala geratu zan... Bere gudariari dei egin aal izan baino len, Yanoz'en ukabil sendoak matraillean jo eutsan, eta tximistak jota lez lurrera amildu zan kordebage. Bertanbeera, Yanoz'ek neskatillearen eskuturrak lotzen ebazan lokarria ebagirik, eskutik artuta, kaparretik urten-erazo eban, eta baso-ertze-ko elduta, auxe esan eutsan:

–Aizu, ez zaitez bildurtu, gaizkatzera natortzu-ta. Laster eroango zaitut etxera, baiña orain geratu zaitez emen, ni barrero etorri arte, zeozer egin bear dot-eta. Ez izan artz onen bildur –jarraitu eban Yanoz'ek Txartxa erakutsirik–, nire lagunik zintzoena da-ta.

Au esanik, txistu bereizi batz jarraitu egitsan artzari aginduta, Aalik isillen baso-soilleko ertzetik, zaldiek estekatuta egozan lekura zuzendu ziran. Azken unean mutilla oartua zan, akitaniarrek zaldiz jazartuko leukiezala urrengo egunean, eta au eragozteko, bearrezkoa zan zaldiek galdu egiezan. Zaldiek andik, baiña, ur egozala, oneik artzaren usaiña artu eben, eta izuaren izuz egundoko astrapala eginez, irrintzika

ta ikotika asi ziran. Arin baten, Yanoz'ek aitzoaz zaldiai lokarriak banan-banan eten egin eutsezan, eta jarraian, Txartxa uiatu eban zaldiak sakabanatu egiazan. Atzaparka bizitan artza arein artera oldartu zan, eta izuturiko zaldiak lauazka ostendu ziran basoan zear, artzaren usaiñak eta kurrinkak zoratuta. Laster, baso-egian beera zugaitzen artean zalaparta bizian galdu ziran.

Orduko, kapardia akitanien oiu ta joan-etorriakaz bete egiña zan, eta ango iskanbilla ta erdi-illuntasuna ustiatuz, arin baten Yanoz iskillotegira abiatu zan. Ondoko sua ia itzungita egoan ezker, iñoren suzmoa iratzarri barik, mutilla ontzi bete geziz jabetu, eta arrapalada baten, neskatillea geratu izan zan tokira biurtu zan. Erabillen janzki zuriak erakarrita, laster idoro eban, eta eskuari eutsita,

–Urrundu gaitez an astirik galtzeke –esan eutsan Yanoz'ek–, eta ez bildurrik izan, gudarien zaldiak artzaren laguntzaz uxatu dodaz-eta. Oneik barik ezin gaikiez jarraitu.

Andik laster Yanoz gelditu zan, eta txistu sarkor batzukaz artzari dei egin eutsan. Luzaro barik, lauazka bizian Txartxa urreratu yaken, eta irurok alkarrekin basoan zear ibiltari emon eutsoen. Agiri zan, baiña, jasandako ordu izugarriakaitik neskatillea indarren mugan aurkitzen zala, Ezin ebilkela ikusirik, Txartxa'ren bizkar zabalaren gainean jarri eban Yanoz'ek, auxe iñotsala:

–Aizu, neskatilla, oratu egiozu artzaren idune-inguruko uleari, eta nasai-nasai eroango zaitu.

Illuntasun betean ibiltari ekin eutsoen barriro. Laster, baiña, oartu zan Yanoz, loak eraginda neskatillea jausteko zorian zala, eta orduan besoetan artu eban. Lotan egoan neskatillearen aurpegia bere bularrean kokatuta, laztanaren antzera sentitzen eban Yanoz'ek, eta bere buruari iñotsan, izango ez ete aingeru bat besoetan eroiana, eta aurrera ibilli ebillela, zama zoragarri arekin ez litzakela iñoz nekatuko begitandu yakon.

Bajoiazan orduak gabea zear, eta basoa amaituta, zelaigune baten zear artzainen bidexka batetik bidaiari jarraitu eutsoen. Noizbait, Zuberoa aldetik egunsentiaren aztarnak agertu ziran, eta jazartzailleen bildurrez, baso baten ezkutatzea erabagi eban Yanoz'ek. Laster agertu zan pagadi txiki bat, eta an bertan atsedena izatearren sartu ziran.

Egun ederra goiztu zan, eta lotan zirauan neskatillea lurtean lagata, baso-ertzean Txartxa begirari jarri eban. Onen ostean su egiñik, neskatillea orbelaren gainean ipiñi eban otzitu ez zeiten. Yanoz suaz bestaldean jesarri zan, eta lo-guraz jabeturik sentitzen bazan be, ezin egikeazan begiak itxi, lilluratuta, neskatilleari so egiten eutsala. Ez eban iñoz ordurarte a baizen gauza ederrik ikusi, eta bere buruari iñotsan aurrean ekusan irudi zerutarra amesa izango ez ete. Adats gaztainakaren argiz ederturiko buru txanbeliña urrezko litsaz apaindua zan, eta bekoki zuriaren gainean, betazalek begi andi-andiak iragarten ebezan. Suur txiki zuzena matrail larroskara bien artean, eta okotz politaren gainean, ezpan bete gorriak mallukien antzera erdi-edegiten ziran,

aurpegiari edertasun yaukala emotsoela. Arnasak eragindako bular txairoa, leun-leun igitzen zan, esku zuri bigunak sabel-gainean batuta ebazala.

Une luze batez iraun eban Yanoz'ek irudi zerutar aregandik begiak kendu eziñik, eta noizbait, bidaiaren nekeak eta jasandako gora-beerak eraginda, bera be lo geratu zan. Arrastia asten zanean itxartu zan; suaren bestaldetik neskatilleak begiztutzen eban irribarretsu, eta Yanoz'ek beste irribarre bat az erantzun eutsan auxe zirautsala:

–Aizu, neskatilla ori, nor eta nongoa zara...?

–Oiane dot izena, eta Zuberoa'ko Lakarri errikoa naz. Eta zu, nor zaitut...?

–Napartarra nozu, baiña esaidazu, Oiane, zelan billakatu zintzazan akitanien gudarien atzaparretan...?

–Nire neba bi, goiko larretan alatzen ziar duen ardi ta beorak ikertzeko joanak ziran. Orduan, aitak, Alkai'n ezkondata dodan aizpari mezu bat emoteko igorri ninduan. Bitarte andirik ez da gure etxe ta Alkai artean, baiña bidea naikoa baztertuta da. Mezua eskuratzetik biurtzen nintzala, ustekabez, gudari-talde baten zaldien arinketea entzun neban, eta ostendu aal izan baino leen ondolik igaro yatazan. Ezustean, gudarien buruzagia zirudiana gelditu zan, eta zalditik jatsita, Beorlegi'rako bidetari buruz itaundu eustan. Eskaturiko argibideak emon neutsazan, eta amaitu nebanean berarekin zaldi-gainean joan neiten eskatu eustan. Nik eziña zala erantzun, iraduz niñoan-eta. Orduan berak gerritik artu, eta zaldi-gainean jarri ninduan, barre-santzo itzelak jaurtiten ebazala. Nire aitagana joan aal ba'neinte, zenbat-gura bildots biderako emongo leuskiola esan neutsan, baiña berak barre ta barre, Beorlegi'rako bidea artuta, illuntzeko, zeuk idoro ninduzun basora sartu ziran gaba emoteko asmoz, eta gero askatu ninduzun. Eriotza bera baiño askozaz izugarriagoa izango litzakean egoera batetik atara nozu, eta betirako eskertuko dautsut. Jakin al-dagiket nor zaran eskertu dagitsudan nire alde egiñikoa...?

–Ni, Aunamendi'ko Yanoz naz.

–Non bizi zara...?

–Laster elduko garan Irati'ko barrutian. An, Osaba Imoz'ekin arpe baten bizi naz.

–Ez al-dozue etxerik...? Orren ezeukiak ete zarie...?

Yanoz'ek irri-barre egin eutsan, eta,

–Egunen baten niri dagokidazan gora-beera zeatzak emongo dautsudaz, baiña oraingotz ez dautsut beste barririk emongo. Nire nortasuna iñori ez azaltzeko agindu eustan aitak, il zorian zala.

–Eta zure ama, non bizi da...?

–Ama il yatan jaio nintzanean.

–Bai tamal andia...! Nire gurasoak bizi dira. Gurasorik ez ba'neu, nire bizitza mingotsa litzakit.

Orduko, eguzkiak arrats-beera asten zala iragarten eban. Yanoz jagi zan, eta uztai-geziak artuta, aparirako eizakiren bat ekarteko gertatu zan. Urten aurretik,

–Aizu, Oiane –esan eutsan–, banoatzu eizaketara, eta zu emen bakarrik geratuko

zara Txartxa'rekin basotik urten barik. Gaba orduko bideari jarraituko dautsagu, eta biar bertan etxera elduko gara.

Jarraian, Yanoz'ek keiñuka ta itz laburraz, neskatiillaren ondoan geratu zeiten agindu eutsan artzari. Izan be, Yanoz eta artzaren artean alkar-ulermen arrigarria sortua zan urteen bidean, eta sarri askotan, itz bakar edo keiñu bataz, Txartxa'k baekian bere ugazabak nai ebana, eta adierazotakoa zintzo-zintzo beteko leuke iñongo indarrik gai ez zala agindutakotik baztertu zeiten. Urte askotan artzaren irakaspenari emon izan eutsan Yanoz'ek, eta onezaz gaiñera, artza ulermen argikoa izanik, mutilaren aginduak gizakia bai'litzan ulertzen ebazan. Arrigarria zan bion arteko sorturiko alkar-ulermena, baiña arrigarriena, mutil eta artzaren arteko maitasun-lokarria zan. Yanoz'entzat Txartxa bere lagun-miña zan, eta oianeko zulo aretatik atara ebanetik, neguko lo-aldian izan ezik, bere ondoan beti izaten eban. Izan be, Txartxa'k Yanoz gur egiten eban, eta ai...! norbait bere ugazabari urreratuko ba'litzakio kalterik egiteko asmotan...! Bere irureun kiloak asarrez irakiten, gauza izango litzake edozeiñeri aurre egiteko, eta zoro biurtuta, amaika demoniñoen indarraz zana-zalari erasoko leuskio.

Arratsbeera aretan Oiane ta Txartxa basoan itzita, uztai gerturik eroiala bedartza baten zear bideratu zan. Alako baten, tximistaren antzera, bedar-arte abitik, izuak artutako erbi batek igesari emon eutsan. Uztai atezuan jarrita, geziak egan egin eban, baiña erbia txiri egiñik, gezia bedar-arte ostendu zan. Laster aurkitu eban gezia, eta eizeari jarraitu eutsan. Ez eban, baiña, arrezkero beste arrapagairik ikusi, eta gautzen zala biurtu zan esku-utsik, zer eskiñiko leuskion Oiane'ri buruan erabillela. Zorionez, baiña, baso-ertzean kirikiño eder bat aurkeztu yakon, eta sutondoan erre eban narrutu ondoren. Kirikiñoaren errekoa benetan gozoa gertatu zan, eta aparizat jan ebanean, Oiane'k autortu eban, jaki bikaiña zala. Orduko gau bete zan, eta Yanoz'ek neskatileari auxe esan eutsan:

—Oiane, abiatu gaitez an etxera. Bide luzea dogu araiño, baiña biar arratsaldean Osaba Imoz'ekin izango gara.

Bedartzan zear irurok bideratu ziran, ortzian izarrek eta illargiak zabaldian argi esnetsua barreiatzen ebela. Ordu batzuk igarorik, Irati'ko oianera sartu ziran, eta nasaiezko oarpenaz egiztatu eban Yanoz'ek, eskuarra baizen ondo ezagutzen eban bere barrutira sartzen zirala. Orduko, baiña, Oiane'k nekearen aztarnak adierazoten ebanez, ibaiko biurgune zabalera elduta, Yanoz'ek sua piztu ondoren, orbel-meta baten gainean neskatilea etzan-erazo eban. Onak lo egin bitartean, lilluraturiko Yanoz'ek aren begiratzeari emon eutsan, gar-laztan gorritzak neskatiillaren irudi zoragarria argitzen ebela. Goizaldea barik, Yanoz'ek iratzarri eban, auxe zirautsala:

—Goazen, Oiane. Egunsentia laster izango da, eta Osaba Imoz arrenkura bizian nire begira izango da, lau egun igaro baidira ni azaldu barik. Nekatu ez zaitez an Txartxa'ren arrebepoan jarriko zara, ariño ibilli gaitez an.

Iduneko uleai eutsirik, Oiane artzaren bizkarraren gainean jesarri zan, eta Yanoz'en agintzapean, Txartxa'k ibillera leun bateri emon eutsan. Noizean bein, muti-

llak oianeko bereiztasunen bat erakusten eutsan neskatileari, eta edu onetan ordu batzuk igaro ziran eguberdirarte. Orduan, leku egoki bat idororik, geldi-aldi bat egin eben errekiaren ondakiñai ekiteko, eta bideari jarraituta, noizbait, arratsbeera zanean leizera eldu ziran, eta Yanoz'en olesa entzutean, osaba Imoz atadian agertu zan, auxe iñoala:

—Bazan garaia azaldu zeitez an, Yanoz, azken ordu oneitan kezka andipean izana nozu, zeozer txarra etorriko ete litzakizun-edo...

Ona eldurik, neskatilea ikusi eban, eta arrituta,

—Baiña, Yanoz, zer dakarzu or...?

—Osaba, Imoz, au Oiane, Zuberoa'ko Lakarri'ko alabea dozu. Akitani'ko gudari batzuk baituta eroaten ebanean askatu neban. Baiña orren gora-beera zeatzak gero emongo dautsudaz. Orain, atondu egiskuzu zeozer jateko; ni auntzak jaistera joango naiatzu, Oiane'k esnea artu dagian, guztiz makal aurkitzen da-ta.

Andik laster, eta Txartxa'k oianean zear jatekoa bere kabuz billatzen ebala, osabak, Yanoz'ek eta Oiane'k su-inguruan jarrita, apariari ekiten eutsoen. Kaikuaren esnea egosi zanean, neskatileari eskiñi eutsoen, eta jarraian oatze baten etzanda, nekearen-nekez loak artu eban.

—Orain, Yanoz —esan eutsan osaba Imoz'ek—, neskato edo neskatilea zoragarri orreri buruzkoa esan egiztazu.

Yanoz'ek gertaturikoaren gora-beera zeatzak emon eutsazan, eta amaitu ebanean, —Aizu, Yanoz —esan eutsan osaba Imoz'ek— gizon benetako baten antzera jokatu dozu, eta izan be zuk egiñagaitik arro sentitzen naz. Orain, oiko gure otoitzak esango doguz, Jaungoikoari bere laguntza eskertzearren. Ain zuzen be, arazo onetan zeruko laguntza izan dozula ziur nago-ta.

Gau-otoitzak esanda, lotan zetzan neskatiillagana urreratu zan Yanoz, eta garren argipean aren aurpegi zoragarria une luze batez begiztatu eban. Gero, bere ondoan egoan osabari, abocean, Oiane iratzarteko bildurrez-edo,

—Osaba Imoz —esan eutsan—, nik ez dakit zelakoak diran aingeruak, baiña Oiane baiño ederragorik, ezelan be ez.

—Neskato ori eder-ederra da benetan.

—Osaba —tolesgabe esan eutsan mutillak—, emen, gurekin bizi izatera geratu zeiten gura izango neuke...

—Baiña, Yanoz, olakorik ez leuke benetako giristiño batek egingo, Oiane'ren aipu onerako egokirik ez litzake-ta. Gaiñera, bere etxeok arrenkura bizipean aurkituko dira, euren alabea galdu dabelakoan oiñazeak jota.

—Geratu daiten gurekin astebetè batez, besterik ez bada be...

—Ez, Yanoz, bearrezkoa izan daitena gurekin iraungo dau, baiña ortik gora ezta ordu bat bera be. Bere einera biurtu daitenean, orduan etxerakoa egiteko gai izanik, Lakarri'ra lagunduko dautsazu.

—Osaba, ori zerua ikusi baiño ez, bereala galdu izatea lakoxe izango litzake.

–Yanoz, maite ori, gizon batek bere buruarekin zintzo ta zuzen irauin bear dau beti. Orain zuretzat beñena, Akitani'ra joateko gertu zaitezala da, orretarako garaia urreratzen asi yatzu-ta. Oiane'ri etxera laguntzetik biurtu zaitezanean, ezpata-erabiltea irakatsiko dautsut...

–Au bai poza, osaba Imoz'ek...!

–Urtebete baten buruan ezpateari dagokiona ikasiko dozu, baiña zure aita zana-ren ezpata astuna esku bakar bat az jasotea, beste arazoa da. Orretarako ogei ta lau urte edo areago bete bear izango dozu, nire ustez beintzat. Baiña ikusiko dozu, Yanoz, aurrerantzean zein arin igaroko yatzuzan urteak.

Urrengo egunean lo atsedengarria izan ondoren, goizaldeko lora baizen liraiña itxartu zan Oiane. Orduko, kaiku-esnea egosi-barria zan, eta gosarizat gaztain erre batzuekin artu eban. Osaba Imoz'ekin geratu bitartean, artzak lagunduta, Yanoz uztai-geziak artuta eizaketara abiatu zan, etxeko janaria urri billakatu zalako. Eguberdian, biurtu zan oreinkume bat ekarrela. Errekia gerturik egoanean, irurok bazkaldu eban, eta arratsaldean Yanoz'ek egurastutera eroan eban Oiane, arpeko inguruak ezagutu egiazan. Dagonilla'n ziran ezker, basoan mailluki ugari azten zan, eta otzara bat eroiela, biltzeari emon eutsuen. Jarraian, Yanoz'ek inguru areitako txokorik ikusgarri-erak erakutsi eutsazan, eta illuntzean etxera biurtu ziran.

Apalostean, gau ederra izanik irurok atadian jesarri ziran, zugaitzen audaburu-gaiñetik illargia zelan jagiten zan begizatzen ebela. Alako baten,

–Toki onen edertasuna...! –esan eban Oiane'k-. Ez neuke inoiz uste izango, gauza ain gitxiekin orren zoriontsu bizi izan zeitekeanik...

–Benetako zoriona –erantzun eutsan osaba Imoz'ek-, ez datza aberastasunean, bai ordea bakean, xalotasunean, eta Jaungoikoaganako maitasunean.

–Au lako toki baten –Oiane'k erantzun eutsan-, Jaungoikoaren izatasuna bertanago sentitzen da.

Osaba Imoz'eri asperen bat urten yakon, eta,

–Egi andia benetan diñozuna, Oiane. Augaitik, urrean, nire pekatua ordaintzeko Munio Abatak eremu onetara igorri ninduan...

Isillune bat egin zan, sorginduriko Yanoz'ek illargiak laztanduriko Oiane'ren irudi yaukalari begiratzen eutsala. Alako baten, osaba Imoz'ek isillunea eten egin eban onetaraxe:

–Aizu, Oiane, zelan aurkitzen zara onezkero...?

–Ederto osaba Imoz –erantzun eutsan Oiane'k, onek be osaba esaten eutsan-eta-, lengora biurtu naz jadanik.

–Orduan, Yanoz'ek lagunduta biar etxerakoa egingo dozu. Onezkero estu ta larri egongo dira zure gurasoak, eta garaia da biurtu zaitezaren arein arrenkura baretzeko. Biar, egunsentiaz batean, beraz, etxera biurtuko zara, eta biarko bidaiari aurre egiteko, goazen lo egitera.

Biaramonen gazteak itxartu orduko, osaba Imoz'ek gosaria gerturik eban, baita

aurreguneko oreinkumearen errekiak bide-zorroa beterik be. Gosalduta gero, alkarri agur esateko unea etorri zanean,

–Agur, Oiane, maite ori –esan eutsan osaba Imoz'ek– Jaungoikoak gorde zagizala urte askotan gaur baizen eder eta xaloe. Eta zu, Yanoz, zaindu egizu zure betseiñak beste. Egun batzuk emon dagikezuz Lakarri'n Oiane'ren sendia ezagutu dagizun, eta biurtzean, Akitani'ra joateko gauza izan zaitezaren, ezpata-erabiltea irakatsiko dautsut.

Jarraian, Oiane'ri bekokian mosu bat emon eutsan, eta Yanoz besarkatu ondoren, bere biotzaren zauskadea ezkutatzearren, aurki, kobara sartu zan, eta oi eban lez, otoi egiteari emon eutsan.

Txartxa'k jarraituta, gazte biok bidean gora abiatu ziran. Oiane nekatu ez zeiten, noiz oiñez noiz artzaren arlepoan joian, eta urrengo eguneko gabean, egun batzuk lenago akitaniarrek kapardia jarri izan eban basora eldu ziran, eta emen gaba igarota, irugarren eguneko illuntzean Lakarri'ko Oiane'ren etxera eldu ziran. Orduan, Yanoz'ek Txartxa'ri inguruko baso baten ezkutatu zeiten agindu eutsan.

Oiane'ren egoitza jauregi eder-ederra zan, eta inguru areitan danek "Jauregizar" esaten eutsuen. Yanoz'en olesari erantzunez, andra bat atadian azaldu zan, eta Oiane ikustean, onen besoetara oldartu zan auxe iñotsala:

–Oiane, nire alabatxua, bedeinkatua bedi Jaungoikoa, gurekin barrero zaitugulako...!

Pozaren-pozez, andreari malkoak mara-mara eriozan, eta baretu zanean, Yanoz bere alboan oarturik,

–Eta mutil ori –itaundu eutsan alabeari-, nor ete da...?

–Ama, au, Auñamendi'ko Yanoz, akitaniarren atzaparretatik onik atara nauana da. Berari esker, kalterik bage biurtu naitzue.

–Baiña, alabatxu maitia zer jazo zan...?

–Gero esango dautsut dana, ama. Aita non da...?

–Zoratuta dabil gaixoa batetik bestera zu idorotearren. Goizean amaikagarren aldiz zure billa joana da, ia non edo non agertzen diran zure aztarnak. Baiña sartu zaitez etxera, eta aparria gertatuko dautsuet.

Au esanik, zurubi ederrean gora etxeko lenengo maillara igon ziran, eta sukalde zabal bateko sutondoan gazteak aulki banatan jesarri ziran. Oiane'k amaren itaunai erantzuna emoten eutsela, gizon sendo bat sartu zan, eta Oiane ikustean, pozezko didarra jaurtita besarkatu eban, barrero be ekusala siñistu eziñik.

–Aita –noizbait Oiane'k esan eutsan-, emen ikusten banozu, gazte oneri zor dautsagu, berak akitaniarren atzaparretatik atara ninduan-eta.

Jauregizar'ko nagusia Yanoz'egana urreratuta, maitero begiratu eutsan, eta onen sorbalda eskua jarrita,

–Ez dakizu, gazte orrek –mintzatu zan-, noraiño eskertzen dautsudan. Eriotza baiño izugarriagoa dan egoera batetik atara dozu nire alabea, eta au dala-ta, etxe onetako ateak beti edegirik izango dozuz, semetarikotzat artuko zaitugula.

Apalordua zan orduko, eta mai-inguruan jesarri ziran laurok, etxeko seme biak artzaiñekin mendian ziran-eta. Apaldu bitartean, Oiane'k, jasandako gora-beerak-guztitariko zertzeladakaz, edestu eutsezan gurasoai. Amaitu ebanean, Joanes eritxan Jauregizar'ko nagusiak Yanoz'eri auxe galde egin eutsan:

–Aizu, mutil, zelan deritxazu...?

–Yanoz.

–Izen ederra, benetan; alde guztietatik urentasuna darion deitura, ain zuzen be. Nongoa zara...?

–Barkatu egistazu, Jauna, baiña oindiñokarren ezin dagikezut esan. Aitaren agin-dua dot ori il-agiñean zala. Egunen baten, nire nortasuna gordetea bearrezkoa ez daitenean, orduan esango dautsuet dana.

–Benetan esateko –erantzun eutsan Joanes'ek–, zure nortasuna argitzea ez da bearrezko arazoa, zelakoa zaran, nire alabearen alde egiñikoak ondo adierazoten dautta. Dana-dala, aurrerantzean semetzat artuko zaitugu etxe onetan. Asko zor dautsugu, eta zuk egiñikoa ordaintezia izanik, poztuko nintzake benetan, gurekin egun batzuk igaroko ba'zenduz.

–Iru egun emon dagikedaz zuekin. Pozik be pozik luzarago geratuko nintzake, baiña osaba Imoz nire begira dot, eta epe ori igarorik kezkatzen asiko da.

–Ederto, mutil, orain zuek biok joan zaitez lo egitera, ain luze izandako bidaiak nekatuta aurkituko zarie-ta.

Etxekoandreak su-burutik krisaillu bat artuta, Yanoz gela zabal batera eroan eban, eta "gabon" opa izanik urten zan. Bidaiak nekaturiko mutilla, oean sartu baino ez, lo geratu zan.

Jauregizar etxe eder eta andia zan, izan be, erriko egoitzarik ederrena, eta giberri-abelgorritan guttiz aberatsa. Joanes Lakarri'ko andikia zan, eta Zuberoko lurralde aretako onularia. Atzerritarrek barrutia zemaitzen ebanean, lurralde aretako gudari-nagusia zan. Iskilloak artuta, lugiñek eta artzaiñek oiko lanari uko egiten eutsen. Dana-dala, oiko zeregiñetan zarduenean, ezin egikeazan atzerritarren gudatalde txikian noizbeinkako eraso arifai aurre egin. Oiane'ri jazo yakona ez zan oikoa, geienetan abelgorriaren lapurketeari emoten eutsoela janaria jaristearren.

Iru egun zoragarri igaro ebazan Yanoz'ek Jauregizar'en. Bizkargane'ko egietan alaitzen ziarduen artalde ta beitalde ikertzeko eroan eban Joanes'ek. Gitxitan ikusi izan eban Yanoz'ek areik lako talde ugariak. Ikerraldi areitan eretia izan eban Oiane'ren neba bi eztagutzeko, eta izan be, begikoak billakatu yakozan. Eguberdiko otordua izateko, Joanes eta Yanoz etxera biurtzen ziran, eta bazkalostean, Yanoz'ek Oiane'kin arratsaldea emon oi eban, erria ta etxeko inguruak ezagutzen ebazala. Etxe-aurretik igaroten zan errekaeren gainean, olezko zubi bat jarrita egoan, eta gazte biok Txartxa zirikatzen eben arrainkariak artu egiazan, eta izan be, ikusgarria zan artzak erakusten eban trebetasuna arraintzari emoteko. Agiri zan, egunen bidean Txartxa'k neskatillea gero ta maiteago ebal.

Yanoz ez zan oartzten, baiña Oiane ezagutu ebanetik onen lillurapean atxillo egoan, eta bere baitan, berak ez baekian be, zorionsu ta era berean zorigaiztokoa egiten eban sentipen bakanak artuta egoan. Au ez zan arritzekoa, benetan, Oiane oldez soñiez baizen ederra zalako, eta Yanoz'ek ezagutzen eban giñoan, beragana erakarriagoa sentitzen zan. Edu onetan iru egunak igarorik, Yanoz Irati'ko oianera biurtzeko gertatu zan. Bide-zorro bete janari, baita uztai-geziak lepoan artuta, Jauregizar'koak agurtu ebazan, Oiane'k bide-okergune bateraño laguntzen eutsala. Azken agurra alkarri esateko unean, neskatilleak begi andi argiak naigabezko itxuraz Yanoz'enetan untzatu ebazan, auxe iñotsala:

–Yanoz, tamal andia dot zure joateagaitik. Nitzaz oroituko al-zara...?

–Bai, Oiane, ez zaitut iñoiz aztu egingo, eta gabero osaba Imoz'ekin zure alde otoi egingo dot.

–Jaunak gorde zagizala beti-betirako, Yanoz. Egunen baten alkar ikusiko ete dogu barrero...?

–Begira, Oiane: egunen baten Akitani'ra joateko naz, eta orduan Jauregizar'etik igaroko natzaizu.

–Noiz izango da ori...?

–Ez dakit, Oiane. Osaba Imoz'en eritxiz burrukan egiteko gerturik naitenean...

Oiane'k une batez isillik iraun eban Txartxa'ren burua laztantzen ebal. Atseginezko kurrinkaz artzak ordainez eskua miazkatu eutsan. Alako baten,

–Aizu, Yanoz –neskatilleak barrero–, zergaitik joan bear dozu Akitani'ra...?

–Ezin dagikezut esan orain, Oiane, baiña ori aitaren agindua dot. Egunen baten dana azalduko dautsut.

–Olan ba'litz, itz emoidazu arako bidaiari Txartxa zurekin eroango dozula. Maite-maite zaitu, eta bera baiño lagun obarik ezin dagikezu izan.

–Itz emoten dautsut, Oiane. Naiago dot Txartxa ogei gudarien laguntza baiño.

–Agur, Yanoz. Abia zaitez, bide luzea igurikan dozu-ta...

–Agur, Oiane...

Korapillo bat eztarrian ebal, Yanoz'ek ezin egikean besterik esan, eta Oiane'ri azkenengoz begiraturik, bidean gora abiatu zan. Ameskeri utsa izango ete...? Joateko zala, iruditu yakon Oiane'ren aurpegi zoragarrian beera malkoen dizdira ekusala...

Yanoz'ek ez eban atzera begiratu nai, baiña Txartxa'k jarraituriko aldapan gora joiala, aingeru bategandik urruntzen zala begitandu yakon, eta zerbaitek iñotsan Oiane barik bizi izateak ez ebal balio. Mutillak ez baekian be, maitasunak bere biotzaren atea jotzen eban, eta Oiane'gandik urruntzen bazan be, neskatilla yaukalaren irudiak noranai lagunduko leuskio,

Yanoz etxera biurtu, eta urrengo egunean, osaba Imoz'eri auxe esan eutsan:

–Aizu, osaba, Oiane etxera eroatetik biurtu neintenean, ezpata-erabiltea irakatsi-ko zeuskidala esan zeustan, eta ona ni emen biurtuta. Zuri dagokizu orain agindua betetea, eta niketz, aalik ariñen ikasi gura dot, bestelan, Akitani'ra joateko ordua ez yat egundo be etorriko.

Erantzuna emonez, Imoz'ek auxe esan eutsan:

–Joan zaitez oianera, eta ekarri egistazuz metro biko luze ta eskuturreko lodi izan daitezcan pago-adar bi.

Yanoz'ek eskaturikoa laster idoro eban, eta osabari ekarri eutsazan adar biak. Astirik galtzeke, eremulariak oiko ezpata baten luzeran ebagi, eta adarra landuz, ezpata baten itxurea adar bakotxari emon eutsan. Jarraian, ezpata-sagartzat kurutzaren antzera zearretara zotz lodi bana untzatu eutsen.

Amaitzean, Yanoz'ek erdeiñuz auxe esan eutsan:

–Oneik al-dira ezpatak...? Ume nintzanean, Undaitz'eko gazteluan aitaren mira-be batek orrein antzeko sasi-ezpatak egin oi eustazan, jolastu nengian. Uste al-do zu itxurakeri orrein bidez gauza onik lortu dagikedanik...?

–Begira, Yanoz: Munio Abateari itz emon neutsan, ez neukela ezpatarik erabilliko aurrerantzean. Beste aldetik zuk ezin dagikezu aitaren ezpatea erabilli astunegia yatzulako. Onezaz gainera, eta olan ez ba'litz be, Akitani'ko Dukearena izan zan zure aitaren ezpatea bitxi ederregia da iñarkunetan erabilli dagizun. Ez zapuztu sasi-ezpata oneik umeen gauza diralakoan, luzaro barik nekearen-nekez lerrenak eginda billakatuko zara-ta.

Eta olan ba, sasi-ezpata areikaz osaba-lobak eguneroko iñarkunai emon eutsien. Imoz argal aurkitzen bazan be, zaintsua, zimela zan, eta bere erasoai jarkiteko, Yanoz'ek inkeza itzelak egitera beartua zan. Egunero ekitaldi bi egin oi ebezan; lenengoa gosalduta gero; bigarrena apaldu aurretik. Ekitaldi bakotxaren ostean, Yanoz izerdi patsetan eta lerrenak eginda aurkitzen zan. Besoak batez be, berunezkoak bai'litzakiozan sentitzen ebazan, ezkerrekoa erabilten ebanean bereiziki.

Oikoa dan ezkerreko, Yanoz'ek iñarkunetan eskumako eskua erabiltea naiago eban, baiña arazo onetan osaba Imoz gogor azaldu zan.

–Aizu, Yanoz, esan oi eutsan–, esku bakotxa bestea baizen trebea billakatu dai-ten lortu bear dozu. Sarri askotan, esku bat zauritua gertatzen da, eta onik urteteko

beste eskua trebetu bear dozu, burrukeari jarraitzeko gai izan zaitez. Onezaz gainera, beso biek garapen bardiña lortu bear dabe, soñia txairoa biurtu dakizun. Nik neuk geinetan gudarien artean auxe oartu dot: beso bat areitz baizen sendo ta zaintsua dabe, baiña bestea, ordea, makal eta baldarra. Auxe jazo ez dakizun, esku biak erabiliko dozuz.

Olan ba, nai-ta-ez irakasle zorrotz aren agintzapean, besoak eta eskuak sendotzen ebazan. Au baiña, naikorik ez ezpatari trebea gertatzeko, oiñen arintasuna ta gerri-malgutasuna, baldintzak ezinbestekoak bai-dira. Oianeko biziera aske ta osantsuari esker, Yanoz azkar eta malgua zan, eta au zala-ta, osabaren agintza gogorpean, laster jaritsi aal izan ebazan bearrezko arintasuna ta gerri-zaulitasuna.

Baldintza oneik lortu bitartean, ezpata-erabiltean arerrapen andiak egiten ebazan. Osaba Imoz ezpatari bikain-bikaiña zan, eta nai izaten eban guztietan, bere sasi-azpateak mutillaren bular edo sabela ukutzen eban. Yanoz'ek, baiña, ezin egikean utsunerik aurkitu osabaren soñia joteko, eta arazo onek askotan bere onetatik atara oi eban. Sarri askotan, osaba Imoz'ek irribarretsu:

–Baiña, Yanoz –esan oi eutsan–, espatea zigor baten antzera darabiltzu, eta gainera, asarrez beterik; ori ez da ona, norberaren sumintasanak etsaiaren azpateari biga edegiten dautso-ta. Arranoaren begiak eta buru-oztasuna noraezekoak dira. Begira, Yanoz, eutsi azpateari olan, eta jarri egizu besa-zearka, au da, ez gora begira ez lurrera. Aurrenik, leikidearen erasoak ezereztu bear dozuz, et gero otzean, aren jarkipenean utsune bat billatu, zure iskilluoz tximista baizen arin zauritzeko. Begira, olan.

Baiña mutillak oartu aurretik, osaba Imoz'en azpatakadea bularrean artzen eban. Etenbarik, baiña, Yanoz azpatearen erabiltea menperatzen asi zan, eta noizbait, bein baten osaba Imoz'en jarkipena garaituz bularrean jo eutsan.

–Ederto, Yanoz, ederto –esan eutsan osabak–, badirudi azpatearen jokoa menperatzen asi zarala. Olan jarraitzekotan, urtebete baten buruan, zure irakaslea ez da gauzarik izango maisutzat jarraitzeko, ni baizen azpateari ona billakatua izango zara-ta.

Eta olan, oartzeke, aldiaren bidean osaba Imoz'ek ekiana ikasi eban Yanoz'ek. Bein baten, azpata-jokoan urtebetea inguru ziarduala, osabak auxe esan eutsan:

–Yanoz, loba maite ori, esan bearrean naiatzu ezin dagiketsudala gauza barririk irakatsi, ni aiña edo ohea izatera eldu zara-ta. Orain nekatzen dana ta ukaldi geienak artzen dauzana ni naz. Aurrerantzean inarkunai jarraituko dautsegu trebetasun eta arintasuna galdu ez dagizuzan. Ikasi bear dozun gauza bakarra, Muskaria'ko azpata-ukaldia da.

–Zer da ori, osaba Imoz...?

–Muskaria'n alantzen bat az ikasi nebana.

–Esaidazu, osaba, zer jazo zan...?

–Ara ba... Musa Ibn Musa euskaldunen adiskidea zan buruzagi mairutar zangarrak, bere laguntzan joateko napartarra dei egin euskun, Kordoba'tik etorritako Emir'en gudaroste bateri jarkiteko. Joan gintzazan ba eskaturiko laguntza emotearren,

baiña eldu gintzazaneke, Emir'en gudariak uri garrantzitsuaz jabetu izan ziran, eta jazarturiko Musa Ibn Musa Naparra'ko erdi-aldeko mendietan gure begira babestu zan. Alkarrekin aztertu genduan egoera barria, eta abo batez, Muskaria bearrezko guda-lekua izanik, zelan edo alan birjabetu bear izango gendukela.

Gure gudaiburua Eneko Aritza zan, eta berarekin buruzagi napartar batzuk artuta, Musa Ibn Musa'rekin eta onen buruzagiekin batzar bat ospatu genduan. Agiri zan, galdutako uria bearrezkoa zala guretzat, euskaldunentzat, egoaldeko atea zalako, eta ondo merezi ebazala, beraz, guztien aalegiñak barrirabazteko. Zein izango litzaken biderik onena Muskaria'z jabetzeko eztabaidatu genduan, gure aldera iges egindako uritar bat barri jakingarrien ekarlea zala jakin genduan. Aurkeztu ekigun aginduta, auxe jakin-erazo euskun:

Izaniko burruken ondorioz, erriko sartaldeko atea ta onen inguruak kalte andia artu izan eban, eta lekune onetako dorre ta gezi-leiatillak ondatuta billakatu izanik, auxe lekurik errazena zala eraso egiteko. Toki onetako ormaren gora-beera zeatzak emon euskuzan. Esku-eskillara arin eta laburrakaz lekua artu gengikeala ikusirik, aalik lasterren amabiko bat esku-zurubi atondu genduzan, eta gau illun baten, aalik isillen erasoteko zan tokira eroan, eta ontzaren oiua aditu zanean, Eneko Aritza'ren agintzapean, eraso asi zan.

–Eta zu, osaba Imoz –eten egin eutsan Yanoz'ek–, ekintza orretan tartekoa zintzazan...?

–Bai, Yanoz. Tximistaren alakoa makil-zurubi baten gora igon, eta arin baten orma-gaiñean nintzan. Kordoba'ko Emir'en gudariak ezustez artuta, atzera egiten asi ziran, baiña gero ta setatsuago burrukan egiñez, gure aurrerapena moteltzen asi zan. Egunsentian, uriko zati andi bat gure eskuetan egoan, baiña eguberrian mairuen jarkipena sendotuta, gure aurrerapena gelditu zan. Burrukak egun batzuk iraun eban, baiña arrakasta andi barik, gudatalde bakoetak ez aurrera ez atzera egin eziñik.

Era onetan illabete bat igaro zan, egoerea inoren alde erabagiten ez zala. Mairuak aspertuta egoan, egoaldean irabaziriko erresuma barriak ziurtatu ezin, eta gu bardin, beste inon bagenduan zeri begira-ta. Alako baten, Emir'en gudaiburuak esondapen edo proposiziño bat eskiñi euskun, eta auxe alegia: gudatalde bien arteko zetzan enparantzan, buruzagi mairutar baten eta beste napartar baten artean, azpata-leiaketa bat egitea, eta uria irabazlearen eskuetan geratuko litzake. Euskaldunek eta Musa Ibn Musa'k dalako esondapena aztertu genduan, eta onen ondorioz, eupadea onartu genduan.

Eretirako, Emir'en gudaiburuak Ben-Ali buruzagi zangar eta saiataua aukeratu eban. Gure aldeko autapena gatxagoa azaldu zan, eta napartarrek arazoaren gora-beerak batzar baten eztabaidatu genduzan. Guztien eritxiz, eretirako onena, Eneko Aritza izango litzakean, baiña ezin gengikean Naparra'ko itxaropena zan bera lako gudaiburu bikaiña arriskuan ipiñi, eta au zala-ta leikidetzat baztertu izan zan. Orduan, Iroz zure aita, mairuaren leikidetzat aukeratzea pentsatu zan, baiña zoritxarrez, erasoko

gabean, besoan zauritua billakatu zan. Augaitik, izen batzuk erabilli ziran orretarako, leikiderik erabagi barik. Au ikusirik, Eneko'k,

–Aurreratu daitezela –esan euskun–, gogoko batzuk.

Amabi bat gure buruak eskiñi genduzan. Eneko'k gogokoen aurretik igaro zan banan-banan aztertzen ginduzala. Amaitu ebanean, nigana urreraturik, eskua nire sor-baldan jarrita:

–Zu joango zara, Imoz –esan eustan–. Gomutan izan, baiña, uri onen jabetza guretzat eta gure lagun Musa Ibn Musa'rentzat beiñena dala. Dalako Ben-Ali ezpatari bikain-bikaina ei'da, eta burrukaren baldintzak, bietariko batek bestea zauritu edo erail dagiana, Muskaria'z jabetuko dala. Ez dot ezelan be onartuko, Ben-Ali zu baiño geiago izatekotan, zu zauritua billakatzegaitik beste barik uria galdu dagigun. Ez, burrukeari eriotzeraiño jarraituko dautsazu. Ulertu al-dozu...?

–Bai, Eneko –erantzun neutsan–, eriotzeraiño izango da.

Biaramonean eguberdian, amabi-amabietan, Ben-Ali ta biok plazaratu gintzazan ezpata bana gerabilela. Mairutarra morrosko indartsu ta saiatura zan, ni baiño indartsuagoa, urrean, baiña onen ordaiñez, ni malguago ta azkarragoa nintzan. Amabietako joalearen azken ota eguratsean zear galdu zanean, burrukeari asiera emon geutsan, esku baten ezpatea ta bestean erredola edo babeskia.

Ben-Ali gaztea zan, eta bularra burdiñez babestua, garai aretan oikoa zana. Baita oikoa zana euskaldunen artean be, ni bular-utsik aurkeztu nintzan. Egia eusteko, Yanoz, sarri askotan saiatur nintzan be, ezin burdiñezko bular-babeskiari artaratu, eta alde batetik eragozpen ba'da, bestetik, alde andikoa da arintasunari bagagozkio.

Asi zan ba burrukea erasorik bage, gutariko bakotzak etsaiaren jokaerea azter-tzen genduala, gure buruak arriskuan ez jarteko. Andik laster, alde biko erasoak asi genduzan, eta laster oartu nintzan, aurrean leikide bikaiña nebala. Babeskirik ez nerabil-len ezkerro, etsaia baiño askozaz ariño izanik, aren inguruan nenbilkion basaku baizen azkar. Ben-Ali'ren makalgunea sabela zan, babeskia orraiño ez yakon luzatzen-eta, baiña barrabas a ezpata-erabiltean maisua zan, eta erredolaz ondo bai ondo babesten eban gerritik beerako soin-enborra. Eguraldi eguzkitsua izanik, Ben-Ali gerizpean burrukatzea aalegintzen zan, eta astiro-astiro ni oartu aurretik, itzalgu-nean egoan enparantzako ertz baten aurkitu gintzazan. Ezpatakada batzuk jaurti izan neutsazan, baiña aren erredol madarikatuak nire erasoak ezereztan ebazan. Gerizpean burrukan egin arren, Ben-Ali'ren bular-babeskia zala-ta, izerdi patsetan egoan, baiña olan eta guzti be, ez yatan eretik aurkezten bere jarkipena austeko.

Leiaketeak era onetan zirauala, bakotxaren aldezelek didar bizitan burrukearen gora-beerai jarraitzen eutsien, adoretzen ginduezala. Nik ez nekian zelan garaitu leikidea, aren jarkipenean makalguneren bat zelan idoro ez nekian-eta. Ben-Ali'ren ezpateak ni zauritu-agiñean bi edo irutan billakatu zan, eta adorea ezereztan asten yatanean, besterik ezean atzera egiten asi nintzan. Olan niarduala, nire oiñetako batek arribil urten baten soster egin eban, eta jausteko zorian alboka niñoala, garaituta nint-

zalakoan etsaiak bere jarkipena lazotu eban eraso egiteko, eta erredola saiestean ni errazago zauritzearren, une aretan bertan sinisteziña badirudi be, dendua birrirabazi neban, eta arerioaren ardura-eza ustiatuz, sabelean zauritu neban. Izan be, ez neutsan zauri sakonik egin, baiña Ben-Ali odolgetzen asi zan, eta noizbait belauak makurtu-ta jausi zan, napartarren eta Muza Ibn Muza'ren gudarien garaipen-oiuen artean. Mairutar batzuk, Ben-Ali'ren soin kordebagetua jaso, eta baillartetan eroan eben. Egun aretako illuntzean mairutarrak Muskaria itzi, eta barriro be gure adiskide ona zan Muza Ibn Muza'ren menpean billakatu zan...

–Aizu, osaba Imoz –eten egin cutsan mutillak–, zuk Ben-Ali il egin zengikean, eta ez zenduan erail, zergaitik...?

–Alde batetik ez zan erabagi eriotz-burruka izango litzakenik, eta bestetik jausi-tako etsaia iltea, ez da zaldun baten jokabide egokia. Aurretik eriotz-burruka izango dala erabagiten danean, orduan soillik arerioa iltea zillegia da.

–Eta zer jazo zan gero, osaba...?

–Araba'ko mugara bideratu gintzazan, Kastilla'ko erregeari aurre egiteko. Garaipena lortuta etxera biurtu nintzanean, Ben-Ali'ren aurkako leiaketean izandako arribilgo sosterre nire onerako ustiatu nengikela otu yatan, eta arrezkero ekiñaren-ekiñez, soster egiten nebalakoa jausi barik ikasi neban, eta izan be, arrezkeroko burruketan ori laguntza andikoa azaldu yatan, nire burua txarto ikusten nebanean batez be. Ezpata-ukaldi orreri, Muskaria'ko ezpatakadaren izena jarri dautsat.

–Osaba Imoz, erakutsiko daustazu ukaldi ori...?

–Bai, Yanoz, baiña ez uste izan erraza danik, orretarako soin malgu ta ariñaren jabe izan bear. Nik neuk ezin nengike gaur bear dan lez egin, berrogetak urteko nazalako, eta gaiñera ikusmena zearo moteldu egin yat. Dana-dala, Muskaria'ko ezpata-ukaldia irakasteko gai nozu, eta izan be ikasiko dozu. Euskaldunok burdiñezko bular-babeskiak erabilten ez gara oituak, akitaniarrak egin oi daben lez. Ikuspegi batetik eragozpen andia dogu etsaien burdiñezko babeskia, baiña bestetik, buruz-buruko burrukan jare izateak alde andia emoten dausku erredola ta ezpatea obeto erabilteko.

–Osaba Imoz, burdiñezko azal baten barruan ez nengike inoiz burrukarik egin. Naiago dot askozaz be, guretara ekin.

–Ez dot esango burdiñezko babeskiak ez litzakiguzala ondo etorriko, gaztaroko malgutasuna galtzen danean batez be, baiña ori ez da zure oraingo egoera, gazte zara-ta. Gaiñera, burdiñez jantzita eziña da Muskaria'ko ukaldia egin.

–Noiz irakatsiko daustazu, osaba, ukaldi ori...?

–Biar asita, Yanoz. Muskaria'ko ukaldia izan ezik, ezpata-erabiltean dakidan guztia ikasi dozu onerkero, eta ukaldi bereizi ori izango da nigandik artuko dozun azken ikaskaia.

Aginduta lez, osaba Imoz'en irakaskintza zorrotzpean, Yanoz'ek ezpata-ukaldi barriaren ikasteari ekin cutsan. Bein baten, amaikagarrenez iñarkun orretan ziarduala, Yanoz'ek oztopo egin eban benetan, eta ez jaustearren aalegindu bazan be, aratiñik

erori zan, baiña arintasun itzelaz lurra ukutu baiño ez, itzulipurdi azkarra egiñik ezpata-iñarkunari jarraitu eutsan. Ezustean artutako osaba Imoz'ek sabelean ukaldia artu eban.

–Yanoz, Yanoz –esan eutsan osabak basarkatzen ebala–, ekintza siñisteziña burutu dozu...! ez neukean inoiz uste izango, jausi baiño ez tximistaren antzera erasko zeuskidala, ni ezustean artuta. Egin dozuna nire ezpata-ukaldia baiño askozaz ohea da, eta ckintza orretan saioaren-saioz trebetzen ba'zara, garaitu zagikezan ezpartaririk ez da munduan izango, ez orixe...!

Ain zuzen be, Yanoz'ek egiñikoa malgutasun arriagarriaren ondorioa zan, eta osaba Imoz'en adorea bidezkoa. Baekian, bere lobeak ez ebala kidekorik arintasunean, baiña ainbesterañokoa izango litzakenik ezin egikean siñistu. Irati oianeko biziereak Yanoz basakatua baizen ariña biurtu izan eban. Ezpata-ekintza barriari "Muskaria'ko itzulipurdia" izendatzea erabagi eben osaba-lobak.

Aurrerantzean, bere otoitzek lagaten ebenean, osaba Imoz'ek Yanoz'en gertutze-ari buru-belarri emon eutsan, eta aldiaren bidean mutillaren trebetasuna oba-eziñeko maillaraiño igon egin zan. Udagoiaren etorrereak egun-argia laburtuz gaiñera euritea ekarri eban, eta etxe-barruan luzarago egon-bearrak ezpata-iñarkunari ekitaldiak luzatu eutsazan, Yanoz'en antzea obatur. Arrigarria zan, benetan, zelako arintasunaz egiten eban itzulipurdia, eta ain zuzen be, lurra bizkarraz ozta-ozta jota, tximista baizen arin itzulipurdia egiñik, zutunik egoan barriro, ezustez artutako leikideari bere biziko ezpata-ukaldia jaurtiten eutsala.

Urte aretako negua bereiziki gordiña azaldu zan. Irati'ko oian ederra, Azilla asi baiño ez, edurketa lodipean estali zan, eta egunek alkarri erraikioen lurmendua barik. Ibaiaren gaiñaldea izoztua agertzen zan, isiltasun bakana danatzaz jabetzen zala, eta izadiaren eriotzaldi aretan, pago-tantai billutsak mamu izugarrien antzera jagiten ziran burutsik, eguzkiaren laztan epelak alperrik billatu naiean. Basabere askok neguko loak artuta euren babeslekuetan ezkutaturik, udabarri epelari itxaroten eutsoen, baiña neguko loa ez ebenak, au da, oreiñak, orkatzak, azeriak, basurdeak, otsoak etab., zelan edo alan eguneroko janaria aurkitu bear izaten eben. Bedar-jaleek, atxarteko lurmen edo beekaldeko barrutiak billatzen ebezan. Olan eta guzti be, sarri askotan oiñazkalakaz edurraren geruza estalgetu bear eben, azpiko bedar eta landarak agiri-erazoteko. Besteek, okela-zaleek, bedar eta landaretzaz janaritzen ziran abereak eizatu bear. Onein artean basatien eta bildurgarrienak, otsoak ziran.

Negu aretan, eguraldi gordiñak jazarrita, otsoak iñoizkorik ausartuen azaldu ziran. Aragoi'ko Auñamendi garaitik, Erronkari, Saraitsu, eta Aezkoa'n zear sarri ikusten ziran, taldeka, oi eben lez, edozein eizaki bizi ala illaren billa.

Urtarrilla'ko egun odeitsu illun baten, etxeko janaria amaituta, Yanoz'ek eizaketara joatea erabagi eban, eta uztai-geziak artuta, arpetik urten zan. Osaba Imoz'ek aurreko zelairaiño lagundu eutsan, eta alako baten, edurretan marrazturiko aztarna batzuk ikustean, arrenkurapean lobeari auxe esan eutsan:

–Aizu, Yanoz, oneik otsoen oiñatzak dira, eta dirudianeaz aurtan gure bazterretan asko dagoz. Ez yat bape atsegin, eizaketeara urten zaitezkan bakarrik. Txartxa'k lagunduko ba'leutsu...!

–Osaba Imoz, noraezekoa yaku zeozer jateko ekartea, gure okeldegia utsik dago-ta. Baiña ez larritu, arratsaldeko lenengo orduetan emen izango nozu barriro. Gero arte, osaba Imoz.

Suzmo txar batek artuta, eremulariak Yanoz'en irudi txairoari ostendu arte begiz jarraitu eutsan. Izan be, mutilla eiztari saiatua zan, eta ez eutsan ezeri bildurrik, baiña Imoz beti otsoen bildur izan zan, garai aretan Aunamendi'tarrek oi eben antzera. Arpera biurtzen zala, berekiko auxe inoan:

–Txartxa'k lagunduko ba'leutso...

Bai, artzaren laguntasunak osaba Imoz nasaituko leukean, baiña negute guztietan lez endaren legeari jarraituz, Txartxa indartsu ta adoretsua, leizeko barrunbetan lotan egoan, urrengo udabarrirarte.

Baekian Yanoz'ek, negutean eizakiek beeko lurraldeak naiago ebezala, jatekoa errazago jaritsi egikealako, eta augaitik, oianean beera abiatu zan, Orbaizeta'ko alde-rantz urreratzen zala. Olan eta guzti be, ez eban eizakirik ikusi, eta noizbait, ainbeste ibilteaz aspertu eraginda, etxerantz biurtu zan. Ozta-ozta oianean gora asia zala, erbi bat ikusi, eta gezikada bat az il egin eban. Gerritik eskegita, mendian gora bideratu zan ibillera ariñaz, arrastiko lenengo orduetan etxera eltzeko asmoz. Ez zan edur-jausterik, baiña otz andia zan zerua odeiez estalia, eta iparbaltzak putz egiten ebala zakar.

Alako baten, Abodi'ko aldetik, lenengo aiuri urruntsu bat, eta jarraian otso-talde batenak naastuta aditu ziran. Baekian Yanoz'ek auxe otsoen arteko mezu-bidea zala, baita arrapagaiak izuaren-izuz elbarrizteko erabilten eben jokabidea be. Aizeak, antza, bere usaiña otso-taldeari croiansan, eta izan be, arein aiuriak gero ta urrago aditzen ziran. Zauskada bakanak eraginda, mutillak ibillerea arindu eban, bere buruari iñotsala basabere baten aztarnen atzetik joango ete litzakezan, ala bere aztarnen jarraian. Laster, baiña, bere atzetik etozala oartu zan, irudi illun batzuk aalik ariñen etorkiozala ikustean. Zorionez, egun artean geziz ondo ornitua zan, eta ibiltari eten egin barik, uztaijan jarri eban bat.

Oraindiño urrunegi aurkitzen ziran otsoak iñongo jaurtiketa egiteko, eta oianean gora jarraituz, bitartea naikoa laburtu arte uztaija ez erabiltea erabagi eban. Alako baten, otsoak ur samar egozala, taldea jazarpenari itzi barik zabaldu zan mako andi bat eratuz. Yanoz'ek pago mardoak ikusirik gelditu zan, eta bizkarra enborrean jarrita, uztaija gertutu eban. Otsoen makoa ogei bat metrora aurkitzen zan orduko, eta taldeburua zirudian otso eder bat aurrena etorkion. Gezia tximistaren antzera urten, eta otsoak ikoti egiten eban unean, bularrean zear geziak biotza zearkatu eutsan, eta bertanbeera illik amildu zan. Arritasunak eta bildurrak jota, otso-taldea gelditu zan, ulugiteari itzi barik, eta orduan amabiko bat izango litzakezala egiztatu eban Yanoz'ek.

Astirik galtzeke, otsoen zalantza ustiatuz, Yanoz'ek ibiltuari jarraitu eutsan aalik ariñen.

Zoratzeraíño goseturiko otsoek ildako lagunari oldartu yakozen, eta kurrinka ta ortz-karraskaz lagun illaren gorpu-jateari emon eutsoen. Aida baten garbitu eben, eta baretubako gose gorriak eraginda, edur-gaiñean marrazturiko Yanoz'en oiñatzen atzetik oldartu ziran barriro be.

Laster oartu zan Yanoz otsoak ostera be etorkiozala, eta zalantza bakanak jota, etxetik ordubeteko bitartera aurkitzen zala. Orduan aalik azkarren ibiltuari jarraitu eutsan. Otsoek, baiña, ez eutsoen uko egiten jazarkuntzari, eta gose itzelak bultzatuta, arrapagaiari gero ta urragotik erraikioen. Laster konturatu zan Yanoz geldierazo bear ebazala, eta len lez pago-enbor baten babespean gelditu zan, eta urrenen etorkionari gezia bota eutsan. Jaurtikia aurreko besaburu baten untzatu yakon. Miñaren-miñez aiurika, otsoa edur-gaiñean iraulkatu zan, eta gero, errenka, taldetik urrundu zan. Ostera be, arrituriko otsoak gelditu ziran aurrerago azartzen ez zirala.

Otsoen ezbaia ustiatuz, Yanoz'ek barriro be aalik ariñen ibiltuari jarraitu eutsan, baiña luzaro barik, otsoen makoa urreratzen yakola egiztatu eban. Len lez bizkarra pago-enbor lodi baten jarrita, gezi bat uztaian ipiñirik, erasoari itxaron eutsan. Oraingo onetan, baiña, otsoek zuurrago jokatu eben, len baizen urbil etorten ez zirala. Alako baten, taldeburua zan otso andi batek ulu izugarria jaurtita, aurrera oldartu zan, lagunek erraikioela. Yanoz'ek uztaia atezuan jarri, eta... orduantxe, gezia jaurtiteko zorian, orein-kirioz egindako uztaiaaren aguna, zartada batekin eten egin zan.

Bizkarrean zear latz-ikara batek jota, zalantzan ibilli barik Yanoz'ek len eizaturiko erbia otsoai jaurti eutsen, eta oneik zalaparta bizian irusten ebela, mutillak basoan gorako bidaiari jarraitu eutsan. Baekian Yanoz'ek otsoek laster jazartuko leuskioela, baiña etxetik urbiltzen zan ezkerro, ziurrago sentitzen zan. Alako baten gelditu zan, eta aalik indartsuen irrintzi bat bota eban. Izan be, une aretan osaba Imoz arpebarruan ba'litz alperrik izango litzake, andik entzuterik ez ebalako, baiña sarreran edo kanpoan izanik, didarra entzungo leuke. Olan ba, irrintzi jaurtiteari jarraitu eutsan, noizean bein gelditzen zala. Otsoak gaiñean ebazala, Ibarbaltza izeneko atxetara eldu zan noizbait, eta ango zulo-antzeko lekune baten babestu zan.

Au zala-ta, otsoek orain ezin legikioe eraso aurre zabal baten antzera, banaka edo geienez binaka baino. Uztaia lurrean laga, eta eskuetan gezi bana artuta, azkene-raiñoko jarkitzera gertatu zan. Otso bi urreratu yakozen abo edegitik lerdea eriel, baiña une batez gelditu ziran ezpaitsu. Geziak ezpatak bai'litzazan erabilliz, Yanoz'ek eraso eutsen, eta bateri begia betzulotik atara eutsan. Zaurituriko piztiak, ulu ta uluka atzera egin eban. Besteari musturra urratu eutsan, eta lengoa lez, aiuri bizitan atzera egin eban, baiña beste otso bik arein lekua artuta erasoari jarraitu eutsoen, mutille-gandik larregi urreratu barik, gertaturikoagaitik bildur eutsoen-eta. Otsoak erasotzaille setatsuak dira, eta orduetan zear arrapagaia jazarri oi dabe, iñongo atsedetik emon bage, nekearen-nekez eizagaia azken erasoan jausi arte.

Orduko, Yanoz nekaturik aurkitzen zan, edur-gaiñetik ibilte luze ta neketsua zala-ta, eta onezaz gaiñera, janari-mokau batzuk baiño artu ez izateagaitik. Baziran sei ordu arpetik urten izan zala, eta indartsu ta ibiltari bikaiña bazan be, indarren mugan oartzen zan. Mutilla, baiña, azkenerarte burrukan egiteko gerturik egoan, eta eskuetan gezi banari oratuta, ezpatak bai'litzazan erabillezan, otsoen erasoak eragotzirik. Noizean bein, aalik indartsuen irrintzi ozen bat jaurtiten eban, baiña gero ta illunago biurtzen zan arrastian, ez eban erantzunik somatzen.

Egun aretan Yanoz agurtu ostean, osaba Imoz'ek arpea isastu ta garbitu ondoren, otoiitzean murgildu zan eguberdirarte. Orduan landareki batzuk egosten ipiñi, eta janaritxu urri au artu ondoren, arpeko atetik ortzia begiztatu eban. Ain zuzen be, itxura txarra erakutsiz gaiñera, goiko odei illun areik arratsaldeko argia moteltzen eben. Gero barruratu zan, eta belauniko oiko otoiitzaldiari ekin eutsan.

Arratsaldea igaro-ala, osaba Imoz'en arrenkura andiagotzen zan, Yanoz etxean egon zeiten garaia zan-eta. Urten zanean, arrastiko lenengo orduetan biurtuko zala esan eutsan, eta luzaro barik illunduko litzake. Imoz'en ezin-egona anditzen joiakion, eta noizean bein jagita, urteera abiatzen zan zeozer ikusteko edo entzuteko, baiña ezere zantzurik ez. Illuntzeko zorian zala, eta urduritasuna jabetu ezinik, Imoz aurreko zelaira urten, eta an barrandari jarri zan. Alako baten, eta gautzen asia zala, Ibarbaltza'ko atxetatik irrintzi bat etorkiola iruditu yakon, eta ain zuzen be, Yanoz'ena. Astirik galtzeke barrura joan, eta uzta-geziak artuta zuzi bat ixiotu eban, aalik azkarren Ibarbaltza'rako bidea artzen ebal. Zaila azaltzen yakon edurraren geruza lodian zear ibilte, baiña belaunetaraiño ondoratzen bazan be, aurrera joan zan.

Alako baten, len baiño indartsuago etorkiola, barriro be irrintzia entzun eban, baiña onen ostean ulu ikaragarri batzuk aditzean, latz-ikara batek soiña astindu eutsan. Yanoz bere lobeatsotalde batek jazartua aurkitzen zan, eta Ibarbaltza'ko atxetara oldartzen zala, osaba Imoz'ek mutillari beste irrintzi bat azartzen eutsan.

Indarren mugan aurkitzen zan mutilla, osaba Imoz'en irrintzia aditu ebanean, eta laguntzera etorkiola oartzean, adore barrituaz otsoai jarki yaken. Ia gau osoa zan arrezkerro, eta amar inguruko otsoen begiek txinpartak bai'litzazan dizdir egiten eben. Azkenengo eretia zalakoan, otsoek erasoari indartsuago ekin eutsoen, baiña mutillak iñoizkorik adoretuen aurre egin eutsen. Andik laster, osaba Imoz'en zuzi-argia ikusi eban, eta onen dizdira urreratzen zan giñoan, otsoek atzera egiten eben. Noizbait osaba-lobak alkartu ziran otsoek amabost bat metrotik inguratzen ebezala.

—Aizu, Yanoz —osabak esan eutsan—, eutsizuz uzta-gezi oneik. Somatu dot gezi-tan urri zenbillela.

—Gezitan badaukadaz oraindiño, osaba, uztaiaaren agun madarikatua eten egin ez ba'litzakit... Orain, pizti orreik merezitakoa artuko dabe.

Uztai barriaz gezi-jaurtiteari emon eutsan Yanoz'ek asarre bizian. Laster iru otso il edo zauriturik billakatu ziran, eta enparauak izuak artuta, aida baten basoan zear sakabanatu ziran.

Astirik galtzeke, osaba-lobak arpera bideratu ziran, jausitako lagunen gorpuak otsoek zalaparta bizian irusten ebezala. Arrezkero, jazarkuntzari uko egin eutsoen Yanoz'en geziaren bildurrez, baita zuziaren argiari eutsoen izuagaitik be. Etxera eldu ziranean, Yanoz aultasun andipean aurkitzen zanez, Imoz'ek etzan-erazo eban, eta aparia atondu bitartean,

–Yanoz –esan eutsan–, orain edestuidazu jazo dan guztia.

Mutillak kontakizuna amaitu ebanean, osabak esan eutsan:

–Uztaiaren agun-etendura ori zure erruz jazo da. Agunok orein-kirioz egiñak izan arren, noizean bein barriztu bear dira eten egin aurretik. Auxe sarri askotan esana dautsut, baiña dirudianez zabartu zara, eta orra or ondoreak.

–Bai, osaba, zuzen zagoz. Zin dagitsut, aurrerantzean ez yatala olakorik ostera be jazoko.

Gau aretan badaezpadakoan, osaba Imoz'ek arpeko sarreran su andi bat egin eban urrengo goizerarte. Jagi zanean Yanoz betikoa oartzen zanez, gosalduta gero, eiza-tresnak artuta eizaketara joan zan, okela bear izaten eben etxean-eta. Eguberdiko, gerritik dingilizka mutillak iru erbi eder ekarrezan.

Besteak beste, Irati'ko oianean bizitzak oi lez jarraitzen eban, osabaren laguntzaz Yanoz'ek ezpata-erabilteari emotsala. Osaba Imoz'ek ekian guztia lobeari irakatsia izan arren, egunoro iñarkun-aldi luzea egiten eben, soiña burruka neketsuaren bidez artaratzearren, eta zer esanik ez, Muskaria'ko ezpata-ukaldia obatzeko.

Udabarrarian oi eban lez Txartxa itxartu zan, eta barriro be mutillari edonora jarraitzen eutsan bere geriza bai'litzan. Abere bikaiña biurtu izan zan orduko, eta neguko gosea asetu ebanean, betikoa azaldu zan. Yanoz'en irurogei ta amar kiloak bizkarrean lauazka eroiazan lumatxua bai'litzan. Mutillak uste izaten eban Akitani'ra joateko gerturik egoala, eta izan be, edozertarako gai sentitzen zan. Orduko, lurralde aretara joateko baldintza guztiak bat izan ezik bete izan ebazan. Sarri askotan osaba Imoz'eri auxe iñotsan:

–Aizu, osaba Imoz, noiz etorriko yat ordua Akitani'ra joateko...?

–Zure aitaren baldintza, au da, bere ezpatea esku bakar bat azaldu aal dagizunean. Badakit ori zaila dala benetan, baiña ara joateko aren azken naia bete bear dozu.

–Osaba Imoz, benetan uste al-dozu, egunen baten gauza izango nazala ekintza ori burutzeko...?

–Begira, Yanoz: zure izatearen garapen osora eltzeko zorian zara, eta nik uste, benetako iñarkuna egitekotan dalako ekintza ori jaritsiko dozula. Aurrerantzean laga egizu batetik besterako egurasteari, eta goizetik gaberarte indarrezko iñarkunai emon egiezu. Ibaiaren ertzetan arri astun asko dago; jaso egizuz, eta beso-indarrez jaurti ur-joiraren bestaldera. Oratu egiezu pago gazteen enborrai, eta makurtu egizuz adaburuak lurra ukutu arte. Eta lekorera joaten eguraldi txarrak itzi ez dagitsuanean, arpe onetan bertan, Txartxa leikidetzat artuta, sasi-burruketai edo eskutur-pultsoketai

emon egiezu. Benetan saiatzen ba'zara, Yanoz maite ori, ziur naz egunen baten aita-aren azken baldintza ori beteko dozula.

Osaba Imoz'ek esonatuari, buru-belarri emon eutsan Yanoz'ek. Irati edo Urzuri'ko ertzetan idoroten eban edozein arri astuna, beso-indarrez jaso, eta bururaino goraturik, beste ertzera iñaurtiten aalegintzen zan. Pago gazteen enborretan oin bat jaririk, beerantz makurtzen ebazan arein adaburuek lurra ukutu egien arte. Iñarkun oneitan egunoro ordu batzuk ziaruan, lerrenak eginda etxera biurtu arte. Eta eguraldia urteteko egokirik ez zanean, koba-barruan artzarekin sasi-burrukak egiten ebazan. Txartxa oso ernaia izanik, guzurrezko burruka areitan mutillari jarkiteko bearrezko indarra erabillen soilik. Artza jesarrierazoten eban, eta besoak idune-ingurruan jarrita, azpiraketan egiten ebazan. Txartxa'k jausten zalakoa egiten eban, eta bizkarra ozta-ozta lurtean ipinita, eskutzarrakaz mutilla jasoten eban txingote bat bai'litzan kurrinka leunakaz lagunduta. Bestetan eskutur-leiaketak egin oi ebazan ukalondoak mai baten gainean ipiñita, noiz esku bat az noiz besteaz. Emen be, Txartxa argiak jokoa galtzen ebalakoa une luze batez iraunda gero, beso-igikun soil bat az, mutillaren besoa maia jotera iñaurtiten eban. Iñarkun oneik Yanoz indartzen eben. Bein baten...

Egunoro oera joan aurretik, arpeko txoko baten ondo koipetuta egoan bere aita-aren ezpatea artu, eta esku bat az jasoten saiatzen zan, eta gero, begirunerik andienaz Iroz'en ezpata ospetsua lengo lekuan izten eban. Bein baten, iñarkun onetan ziardua-la, Iroz'en ezpatea lur-gaiñetik baratxe-baratxe arrabete bat inguru jagi zan. Ekintza au begiztatzen eban osaba Imoz'ek, oiuka auxe esan eutsan:

–Lortu dozu, Yanoz, lortu dozu. Banekian egunen baten egingo zendukela. Orain ekiozu beste eskuaz...!

Yanoz'ek ezkerreko eskuaz beste ainbeste jaso eban, eta gero astiro-astiro ezpatea lurrera jatsi zan. Zauskada bakanak artuta, osaba Imoz'ek bere billoba begiztatzen eban gertaturikoa siñistu eziñik. Itz egiteko aalmena birrirabazi ebanean, mutilla besarkatu eban auxe iñotsala:

–Yanoz, Yanoz, nire maite orrek, sinisteziña zirudiana jaritsi dozu...! Orain arte zure aitak Akitani'ko Dukeak, eta zure aita Iroz'ek egiteko gai ziran bakarrak, zeuk be lortu dozu, Yanoz. Aalegindu zaitetz areago, eta orduan zure arbasoen ezpatea, sorbaldaren zearretara eustea jaritsiko dozu.

Gau aretan ames egin eban Yanoz'ek, Akitani'ko lurralde zoragarri ta ederrerantz abiatzen zala, bere aita Iroz'ek agindutakoa betetearren. Gero, amestxar batek jota, mintzo gorrotagarri batek auxe iñotsan: "Ez zaitetz ona etorri, Yanoz, Iroz'en seme ori, il egingo zaitut-eta". Urte asko igaro arren bere aita Undaitz'eko gazteluan atxillo ikusi ebanean eta Konte Baltza ikusi ez arren, onen mintzoa ez leuke iñoz aztu egingo, eta jazo zeitena jazo zeitela, abots arek bere aitaren iltzailleagana eroango leuke.

Arrezkero, Yanoz'ek soin-indartzeari buru-belarri emon eutsan, eta etxera biurtzen zanean oso nekatuta aurkitu arren be, gauoro osaba Imoz'en aurrean ezpata-jasotearren iñarkunak egin oi ebazan. Eta ekiñaren-ekiñez, bein baten sorbaldaraino zea-

rretara jaso aal izan eban, eta egoera onetan une batzuk iraun be. Gero beste eskuaz orrenbeste egin eban. Amaitzean,

–Osaba Imoz –pozez gaiñezka esan eutsan–, orain uste dot Akitani'ra joan naite-kela. Zer deritxazu orreri...?

Osaba Imoz une batez oldozkor geratu zan, eta gero,

–Aitaren baldintza bete dozu, eta beraz ezin dagikeot Akitani'rako zure bidaiari iñongo oztoporik jarri, baiña... Begira, Yanoz, orain udagoia danez neguan laster aur-
kituko gara, eta aro ori ez dozu egokirik iñora joateko. Onezaz gaiñera, zure aitaren
ezpateaz iñarkunak egiten jarraitzen ba'dozu, datorren udabarrian benetan gerturik
aurkituko zara, eta orduan joango zaitezke.

Osabak iñotsana zuurra zan, eta Yanoz'ek urrengo udabarrirarte Akitani'rako
bidaia geroratzea erabagi eban, bitartean oiko iñarkunai jarraituz, indarren betetasuna
ziurtatzeko. Olan ba, udagoia ta negua igaro ziran, eta noizbait Irati'ko oianari udaba-
rri pizgarria etorri yakon, eta onekin batera Txartxa neguteko loalditik itxartu zan, eta
gosez beterik or-emenka Yanoz'ekin joian, neguko barauari amaiera emonez.

Onen aurretik osaba Imoz guztiz lanpetuta billakatu zan, eretirako onduta eba-
zan orein-larru batzukaz lobeari bidegiterako bear izango leuken janzkia gertatzen.
Otoitzaldiek lagaten eutsuezan astiunetan, ardurarik andienaz txamarra bikaiña eta
zegokiozan prakak, orein-kirioz josten ebazan. Gero, ardi-narruz bearrezko abarkak
eta artulezko galtzak gertatu ebazan, eta amaitzeko txano dotorea luma bat azpain-
duta. Onezaz gaiñera, narruzko bidezorro egokia josi eban. Akitani'ra joateko ordua
urreratzen zala, Imoz naigabe andipean egoan. Izan be, zortzi urtebete igaro izan
ziran Yanoz berarekin bizi izatera etorria zala, eta epe luze orretan, lobearen xalota-
sun, zuzentasun, eta zangartasuna bere biotzaz jabetu izan ziran, eta mutilla bere
semea bai'litzan maite eban. Baekian Akitania'n galtzori andiek jazartuko leukiela,
Konte Baltza'gandik batez be Undaitz'eko Iroz'en semea zala jakingo ba'leu. Baiña
Euskalerra'ren onerako, aita zanaren agindua beteteko ordua etorria zan, eta beteki-
zun ori burutzearren joan bear izaten eban. Berak, Imoz'ek, Irati'ko oianetik egunero-
ko otoitz gartsuakaz lagunduko leuskio, galtzori guztietatik onik urten zeiten.

Joateko zan aurregunean, Txartxa'k lagunduta, Abodi'ko bizkarrean zear Ori
mendiko tontorrera igon zan. Egurats gardenean zear ikusmen-mugaraino, baso-
zelaiakaz estalitako Akitani'ko lautada amaibakoa edatzen zan, eta biaramonean
lurralde ezaubako aretarantz abiatzeko zala oldozkunak, kilikadura bakana jarri eu-
tsan. Luzaro iraun eban tontorrean, inguratzen yakonari begira ta begira. Guenez,
egoalderantz zabaltzen zan Naparra bere aberriaren sorlekua, une luze samar batez,
biotza abertzaletasunaz bor-borka begiztatu eban. Bai, axe zan bere aberria, euskaldu-
nen lurraldea, berak maiteen ebana. Urrengo egunean bere aitaren aginduz bidaia
asiko leuke, akitaniarrekin onezkoak egiteko, eta Naparra'ri ziurtasun eta bearrezko
bakea ekartearren. Illuntzean kobara biurtu zan eta oeratu aurretik, oi eban lez osaba-
rekin otoi egin eban. Oeratu baino len, osaba Imoz'ek,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, Akitani'rako bidaian Txartxa zurekin eroango
dozu. Bera baiña laguntza obarik nekez izan zengikean-eta. Niri beintzat, nasaitasun
andia emongo daust.

–Bai, osaba.

Gau aretan, lo egin eziñik osaba Imoz'ek otoitzean iraun eban. Goizaldean
Yanoz itxartu zanean, sutondoan gosaria gerturik egoan. Urten aurretik, osaba
Imoz'ek bidezorroa eskuratu eutsan auxe zirautsala:

–Emen dozu egun batzutarako janaria. Ezin dagikezut dirurik emon, ona etorri
nintzanetik ez dodalako ikusi. Orain abiatu gaitez, Errekidorra'ko mendateraiño
lagunduko daust-eta.

Koba-aurreko zelaira urten ziran. Abiatu baino len, Yanoz'ek atzerantz begiratu
eban, eta atariko atx-gaiñean eskegita egoan osaba Imoz'en ezpatea ikustean,

–Aizu, osaba Imoz –itaundu eutsan–, noiz arte egongo da or eskegita zure ezpata
ori...? Ez al-dozu naikoa ordaindu onezkero...?

–Yanoz, or egongo da Jaungoikoak bere naia agertu arte. Iratxe'ko Munio
Abatak esan eustanez, barkapena jaritsi dagidanean, Berak ezaugarriren baten bidez
jakiñerazoko daust.

–Zenbat urte emon dozuz emen penitzentziari ekiñez...?

–Laster ogei ta boskarrena beteko dot.

–Ez al-deritxazu, osaba, larregi danik...?

–Are larriagoa da egin neban obena.

Jarraian, osaba-lobak artzak lagunduta oianean gora bideratu ziran. Ibilli ebiltza-
la, amaikagarrenez osaba Imoz'ek guztitariko onuak emotsazan lobeari. Jorriailla'ren
goiz eder aretako eguzkipean, oiana bizitzaz gaiñezka pil-pira bizian sentitzen zan,
eta aizearen suzmur bigunen artean txorien txintak itxaropenezko ukitze alaia nonai
jarten eben. Oi eban lez, Txartxa or-emenka joian udabarriak eskintzen eutsazan guz-
titariko garauak janez. Alako baten, osaba Imoz'ek,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, ez litzakizu egokirik izango artzarekin agirian
agertu zaitez; artz bat nabarmenegi dan ezker, erraz mugatuko zindukiez.

–Zuzen zagoz, osaba, baiña Txartxa'k nire txistu baten bidez, zugaitzen artean
ezkutatzen ikasi egin dau, baita beste batez, gura dodanean nigana etorten be.

Iru ordu igarorik, noizbait Errekidorra'ko mendatera eldu ziran. Bestaldean,
Benaparra ta Zuberota edatzen ziran. Emen azken geldiduna egin eben, eta lobe
besarkaturik, Imoz'ek auxe esan eutsan:

–Agur, Yanoz, maite ori, Jaungoikoak bedeinkatu zagizala. Zure eginkizuna
burutu dagizunean, astirik galtzeke zatoz ona, zure begira izango nozu-ta.

–Agur osaba Imoz. Eskerrikasko nire alde egin dozunagaitik. Aitak zerutik
bedeinkatuko zaitu, osaba.

Artzak erraikiola Yanoz mendi-beera abiatu zan. Osaba Imoz'ek leku berean
zirauan malkoz beteriko begiakaz mutillaren irudiari erraikiola. Aitaren ezpata astuna

lepotik dingilizka, Yanoz'en irudi lerdan eta indartsua ibillera malguz urrutiratzen zan, aitag agindua noizbait betetzeko. Mutilla ogei ta lau urteko zan jadanik, baiña bere baitan basakatu baten arintasuna ta erraldoiaren indarra kokatzen ziran. Mutil garbi ta zintzoa Imoz'ek bere semea bai'litzen maite eban.

–Jaungoikoak gorde zagizala, Yanoz maite ori...! –abopean esan eban osaba Imoz'ek aurpegian beera erortzen yakon malko lodia txukatuz.

Gero, itun eta naigabez bere egoitzara biurtu zan.

AKITANI'RAKO BIDAIA

Errekidorra'ren mendatean beera, Irati'ko oianaren azken zatian zear ibillera txairo ta arifnez abiatu zan Yanoz, alboan eban Txartxa noizean bein atzenduten zala, landaretzaren artean garauen billa. Akitani'ra eltzeko irrika bizipean izan arren be, iparreko norabidea aukeratu-bearrean, sortaldera jo eban gazteak.

Izan be, Oiane ezagutu ebanetik, onen oroitza etenbage erorian biotz eta gogoan. Yanoz'ek ez baekian be, gizartetik urrun bizi izan zalako, urrean, maitasun andi ta garbi bat bere izaeraz jabetu izan zan, eta orain, Akitani'ra joan aurretik, bere gogoan kutunak dei jarki-eziñaz erakarten eban. Ordukotz, amazortzi urteko neskatilla izango litzake berak akitaniar gudari basatien atzaparretatik jareituriko neskato zoragarria... Orduetik biotzaren txoko baten, urteak igaro arren, Oiane'ren aingeru-irudiak beragan bizi-bizirik zirauan, eta orain bere izate guztia zirrara bakanpean dardar, aregana joian. Mendian beera joiala, Yanoz'ek ezin egikean ar baten karraska bildurgarria beragandik uxatu. Azken urte areitan, zer billakatuko zan Oiane zoragarria...? Bere igurikan jarraituko leuke, ala beste iñorekin ezkondata etxetik urrun bizi izatera joango al-zan, berarentzat betirako galduta...? Au oldoztean larritasun esangaitza beratzaz jabetzen zan, baiña gero, gomutara etorri yakon azkenengoz alkar agurtzean, Oiane'ren itz oneik: "Yanoz, tamal dot joan zaitezala. Nitzaz oroituko al-zara...? Eta gero auxe: "Egunen baten alkar ikusiko ete dogu barrero...?" Oraindiño baeritxan ikusten ebazala neskatillaren malkoz beteriko begi oztin yaukalak. Arrezkero, iru urte luze igaro izan ziran aitaren agindua ondoen betetearren bearrezko iñarkunai emonda irau ebal, eta aldioro, maitasun garbi arek itzungi-eziñeko argiaz bere gogo guztiak edertu eutsazan. Zerbaitek, baiña, baiñotsan Oiane kutunak ez ebal aztu egin.

Iru egun irau eban bidaiak, eta noizbait, arratsbeerako eguzkipean Lakarri erria agertu yakon, onen aurrean Jauregizar etxe bikaiñaren orma sendoak eguzkiak urrez-taturik bereizten zirala. Biotzaren taupada zoroak jabetu eziñik, ibillieria arindu eban, eta egun-argia Ortanzurieta'ko mendien atzetik ilten zala, jauregi-aurreko zabalunera elduta, "Eup!" ozen batez oles egin eban. Andik laster, goiko leio batetik neskatilla bat agertu zan, eta etorbarria ezagutzean,

–Yanoz, Yanoz...! –oiu egin eban.

Bereala, jauregiko atea zabaldu zan, eta arin baten Oiane oldartu yakon eskuai eusten eutsazala, eta begiak dizdir biziak piztuta.

–Oi, Yanoz –begi ederretan arima guztia kokatua esan eutsan–, Au bai nire poza...!

Asiera baten Yanoz'ek ezin egikion txintik be esan, arri biurtuta lez begiztutzen ebalatzen, eta izan be ez zan gitxiagorako. Aurrean, lora yaukala biurtuta, antxiñako Oiane aingerukoia, berak inoiz ez ames egiñiko edertasunaz ikusten eban. Une luze batez itz bat bera be esan eziñik iraun eban Yanoz'ek, eta noizbait, neskatillearen esku bigunak laztanduz, maitasunak totelduriko mintzoz,

–Oiane, Oiane! –esatea lortu eban.

–Zerbaitek baziraustan, egunen baten alkar ikusiko gendukeala barriro, Yanoz. Begira... bart krisailluaren argi-inguruan tximeleta bat biraka ikusi neban... eta orrek urrengo egunean barriak izango dirala iragarri oi dau. Bai, noizbait gurera biurtu zaiakuz... Baiña, Yanoz, zer gertatzen yatzu orren isillik egoteko...?

–Nik antxiña baten ezagutu neban Oiane neskatoa ostendu egin da, eta aren orde, emakume bat aurkitzen dot. Lenengo unean beste baten aurrean nengoala iruditu yat.

–Zeu be, Yanoz, gizon biurtuta ikusten zaitut. Andi ta indartsuago agertzen zaiataz. Baiña esan Yanoz, zelan dago osaba Imoz...? Oraindiño penitentzi egiñez bizi alda...?

–Bai, betiko eremularia darrai, barau ta otoitzari emonda. Azken urteotan asko mintzatuak gara zutzaz, Oiane. Osabak benetan ederresten zaitu, eta bere otoitzetan bizirik zaiakoz egunoro...

–Osaba Imoz dan ona...!

Une batez isildu zan neskea gogora yatorkola eremulariaren irudi garai ta azurtsua, eta aren begikada maitetsua. Gero, mutillaren esku bateri eutsirik,

–Baiña barkatu egistazu, Yanoz –esan eutsan–, urrundik zatoz eta onezkero gose andia izango zara. Goazen barrura atsedean izan dagizun, eta bidebatez, nire gurasoak agurtuko dozuz. Gogoan zaitue beti, eta ez da igaroten egunik, zutzaz mintzatu barik.

Sartu ziran jauregira, eta sukalde zabalean senar-emazteek pozaren-pozez mutila besarkatu eben, guztitariko itaunak egitsoezala. Agiri zan etxe aretan Yanoz maite-maite ebela.

Krisailluen argipean mai-ondoan jesarrita laurok apaldu eben, etxeko mutil biak, Oiane'ren nebak, morroiekin mendian ziralako. Apaldu bitartean jakiñerazo eutsen Yanoz'ek, Akitani'rako bidaiari zala, eta bidebatez ikustaldi bat egitearren "Jauregizar"era eldu izan zala. Oiane'ren aitak, Joanes'ek, jakin nai izan eban bidaiaren zergaitia, baiña mutillak bere aitaren agindua zala baiño, ez eutsan besterik esan. Egitekoa ondoen burutzearen, zertzeladak inori ez emotea erabagi izan eban Yanoz'ek. Konte Baltza'ren salatariak belarri luzeak izanik, lurraldean jazoten zan guztiaren barri nagusiari laster emongo leuskioe-ta. Olan ba, aide batzuk ikertzearren Akitani'ra joiala esan eutsan Joanes'eri, aitak il-aurretik agindu ori emon eutsalako.

Gau aretan, Jauregizar'ko gela txukun bateko oean lo egin eban nasai, urrengo goizeko berandutxu arte. Gogoz gosaldue ostean, Oiane'rekin urten zan, eta txistu bereizi batzuz Txartxa'ri dei eginda, irurok errekan gora abiatu ziran, eta artzaren arraintzarako gaitasuna neskatilleari erakustearren, urlo sakon batera murgildu zeiten agindu eutsan Txartxa'ri, eta onek azkon baizen arin arrainkari batzuk atzitu ebazan, Oiane'ren poz andirako. Arratsaldean, gazte biok mendian gora joan ziran Oiane'ren nebak agurtzearen, eta bidebatez bei ta artaldeak ikusteko. Ikerraldi arek adierazo eutsan Yanoz'eri, "Jauregizar" etxaldea oso aberatsa zala, bai lurretan bai abelgorri-giberritan.

Iru egun zoragarri igaro ebazan Yanoz'ek Lakarri'ko jauregi ederrean, goizetik gaberarte Oiane zoragarriak lagunduta, baiña aitaren aginduak indar jarki-eziñaz iparrerantz dei egiten eutsan, eta noizbait, irugarren eguneko goiz eder aretan "Jauregizar"ko nagusiari agur egiñik, bide-zorroa ondo beteta, bidaiari jarraipena emoteko gertatu zan. Abiatzeko zala, Joanes'ek zizku txiki bat eskuratu eutsan auxe inotsala:

–Eutsi, Yanoz, biderako.

–Zer da au, baiña...?

–Amabi urrezko, bideko eralguntzai aurre egiteko. Diru au ondo erabilten ba'dozu, bidaldi guztirako iraungo yatzu.

–Nik ez dot dirurik bear. Jatekoa nire geziek ekarriko dauste, eta lo egiteko, baso ederrak nire aukeran aurkituko dodaz.

Itz oneik esanda, ziskua atzera emon nai izan eutsan Yanoz'ek, baiña Joanes'ek biurpna ez eutsan onartu auxe inotsala:

–Bizi izan zaran egoeretan, orain arte ez dozu diruaren bearrizunik ezagutu, baiña laster sartuko zaran lurraldean, dirua edozetarako erabilten da, eta Akitani'ra diru barik joan zaitezala ez dot ezelan be onartuko. Begira, Yanoz, zisku onetan amabi ontzurre dagoz, eta jakin bear dozu Akitania'n oiko eralguntzetarako "sos" txanpona erabilten dala. Oneitariko ontzurre bakoetak milla sosen balioa dau. Zure bidaldian asko txautu arren be, diruketa onen bidez joan-etorria aisa egingo dozu. Orain, Yanoz maite orrek, artu nire bedeinkapena ta besarkatu nagizu.

Yanoz belaunikatu zan, eta Jauregizar'ko nagusiaren onespina arturik, alkar besarkatu eben, eta barruko zauskadea estaltzearen Joanes etxera sartu zan. Etxaurreko larraina mugatzen eban erreka-gaiñeko zubiraiño bideratu ziran Yanoz eta Oiane azken agurra alkarri esateko. Neskatillearen begi yaukalak malkoen errezelaz estalduta agertzen ziran goizeko argi betean, mutillari inotsanean,

–Agur, Yanoz, zaindu zure burua. Egunoro otoitz egingo dot onik biurtu zaitez. Esaidazu, noizean bein gogoan izango al-nozu...?

–Noizean bein baiño ez...? Une guztietan oroimenean izango zaitut, Oiane.

Au esanik, mutillak aren eskuari oratu eutsen, eta bakoitzean mosu sutu bana jarririk, ibillera ariñez urrundu zan. Bide-okergune baten atzetik ostentzeko zorian

zala, biurtu egin zan, eta zubi-gaiñean neskatillaren irudi liraiña azkenengoz begizta-
tzen ebala, onetaraxe didar egin eutsan:

–Ikusi arte Oiane, biurtzean Jauregizar'entzat nire lenengo ikerraldia izango
da...!

Eta neska zoragarriaren irudia betseñetan marraztuta, mutillaren irudi lerdena
bidean zear ostendu zan. Andik laster, oiko txistu bereziaz artzari dei egin eutsan, eta
Zuberoa'ko lurralde ederretik iparrerantz joiazala, bion irudiak ezabatu ziran.

URREAREN DIZDIRA

Osaba Imoz'en aginduari jarraituz, uri ta baserriak alderatzen ebazan Yanoz'ek,
Konte Baltza'ren zelatarien zaintza uxatzearen. Zorionez lurraldea arizti sarriakaz
estalia izanez gaiñera, nonai eizaki ugari ikusten zan, eta au zala-ta, ez eban iñongo
errija sartu bear. Gose zanean, gezien elmenera etorkion edozein arrapagaiaz jabetu,
eta sua piztuta, erre ta Txartxa'k lagundutako jateari emotsan.

Olan ba, iradu barik eta zentzumenak adi-adi jarrita, biok iparrerantz abiatzen zi-
ran. Oian usu areitan ez zan gizaki askorik ikusten, eta oneitariko baten urbiltasunaz
oartzen zanean, oztopoa inguratzen eban. Basoan ziarduen geienak egurlariak ziran,
eta onein urretasuna iragarteko, Txartxa sen bereizi bat az ormiduta aurkitzen zan. Al-
karrekin igarotako urteetan, eta artzaren adimena argia zan ezker, bera ta mutillaren
artean alkar ulertze bete sortu izan zan. Yanoz'en edozein abots edo txistua naikoa
zan abere zintzoak berealakoan men egian, eta mutillak ezkutatu zeiten agintzen eu-
tsanean, ikusteziña egiten zan ugazabaren dei-txistua barrero entzun arte. Bion arteko
alkar-ulertze ta maitasuna batez be, siñistezifak ziran, eta Irati'ko oianean eguneroko
Txartxa'ren laguntasunak mutillagan maitasun andi-andia sortu izan eutsan. Gizona
basabere bat anaiaren antzera maite izatera iñoiz eldu ba'daiteke, Yanoz'en artzareki-
ko maitasuna mailla orretakoa zan. Onen ordaiñez, Txartxa'k mutilla zoroki maite
eban, eta antxiña baten oianeko zulo aretatik atara ebanetik, gurtzaren antzeko senti-
pen bizia eutsan mutillari. Ai ene, bere ugazabari edozein kalte egingo leuskiona...!

Lakarri'ko jauregitik urten eta zazpi egunetara, oiana amaituta zelai andi batera
eldu ziran. Araindian, okergune zabalak eginez, ibai zabal eder baten joaira nagia
kiribiltzen zan. Alkarrekin ikusiak ez izateko, Yanoz'ek ertzeko zugaitzen artean
ezkutatu zeiten agindu eutsan artzari, eta ibaia zearkatzeko igarobide edo zubiren
baten billa asi zan, baiña eremu bakar aretan ez eban billaturikoa iñondik ikusten.
Alako baten, basotik urtetan zala egurlari bat ikusi eban, eta aregana joanda,

–Aizu, lagun –itaundu eutsan–, ez al-dago inguru oneitan zubiren bat ibai-
z bestaldera igaroteko...?

–Toki onetatik urren dagoan zuba, egun biko bitartera dago.

–Baiña ez ete da iñongo ibirik izango aldamen oneitan, orren luzaro ibilli
barik...?

–Inguru oneitan ez da olakorik, Aturri deritxan ibai au oso sakona da-ta. Eremu
onetan, baiña, zear-sari bat ordaintzeko gerturik izatekotan, emendik ordubete batera,

abelgorri-giberriak lorketan beste aldera eroateko, txanel andi bat ikusiko dozu. Kontuz, baiña, Txorki deritxan txalupariaz, lapur itzelaren aipu txarra badau-ta. Ikusten ba'zaitu orkatz-narruzko janzi dotore orrekin eta buru-gaiñean darabiltzun basoillar-luma bat az apainduriko kapelakin, zear-sari bikotx edo irukotx eskatuko dautsu. Edozelan be, ez egiozuz emon ogei sosetik gora.

–Eskerrik asko, lagun. Zure burubidea aintzakotzat artuko dot.

Egurlariaren argibideai jarraituz, ibai-ertzetik ibiltzen asi zan, eta andik ordebete batera-edo, aipaturiko txalupa andia ikusi eban. Eltzen zaneran, artzain batek ogeitsu ardiko talde bat txalupara sartzen eban, eta egokitu ziranean, ikoti egiñez Yanoz ontziratu zan, brankan zutunik jarten zala. Txorki txaluparia, gizaki zikin, indartsua zan, eta adats luze ta bizar likitsez inguraturiko aurpegi illun ezkibelean, txarri-begi txiki gorritzak itxura gaiztoz dizdiratzen yakoan.

Yanoz brankan egokitu zanean, beste bidaririk ez izanik, Txorki'k aga luze bateri ekiñez ibaiaren zear astiro abiatzen asi zan, Yanoz'en irudi txairo ta apaiñetik bere txarri begiak kendu eziñik. Mutil eder a aberatsa izango litzake ezpaibarik, eta eretia ustiatuz, zear-sari polita atarako leuskio, bera lako bidari gitxi ikusten zan andik-eta. Aturri ibaia naikoa zabala zan leku aretan, eta ordu-lauren bat emon eben beste ertze-raiño.

Eldu ziranean, eta artzaiñak ardiak lurreratzen ebazala, Yanoz Txorki'gana joanda zear-saritzaz itaundu eutsan. Atzazkal luzetako esku zikiñaz buruari atz egiñez, txalupariak une batzuk ainbaketa sakonari emon eutsan, eta noizbait, mintzo zakarrez,

–Berrogei ta amar sos –esan eutsan.

–Ez al-deritxazu larregi orreri...? –erantzun eutsan Yanoz'ek egurlariak aipaturiko ogei sosak gomutara ekarrik.

–Txikikeri orreri larregi deritxazu...? –betosko illunaz erantzun eutsan Txorki'k– Olan izatekotan, ontziratu zaitetz, eta lengo lekura biurtuko zaitut. Txalupari baten nekeak zerorrek jasan bear izango ba'zendukez...!

Ordaintzekoa beeratzeko asmoz, txalupari maltzur arekin eztabaidan astea bururatu yakon Yanoz'eri, baiña orrek zelanbait bere burua agirian jartea zala otu yakon, eta gogo txarraz bazan be, jakepera eskua sartu, eta ziskutik ontzurre bat eskiñi eutsan. Ontzurreen txintxiña entzutean Txorki'ren begiak irrika gaiztoz bete ziran, eta mutillaren ontzurreakaz jabetzeko asmotan, auxe esan eutsan:

–Ontzurre orren atzerakoa bederatzireun eta berrogei ta amar sos dira, eta dirutza ori neugan ez daukat. Baiña nirekin "Azeri Gorria" ostaturaiño ba'zentoz, an bertan ontzurrea aldatuko leuskizue. Dalako ostatu ez dago urrun, eta gaurko nire lanaldia amaitu yatan ezkerro, pozik lagunduko neuskizu araiño.

–Goazen ba –gogo txarrez erantzun eutsan mutillak–. Joan zaitetz aurretik eta jarraituko dautsut.

Txalupariak ontzia ertzeko taket baten lotu eban, eta astirik galtzeke, areitzez inguraturiko gurdibide baten zear abiatu zan. Une aretan, odei gorrien artean eguzkia

ibaiaren ispilluaren atzetik suntzitzen zan, arrats-beera ederrean isiltasuna danatzaz jabetzen zala. Andik ordu-laurden batera-edo, baso-soil zabal baten jagiten zan ostatura eldu ziran. Ate-gaiñetik dingilizka, azeri gorri baten irudia kulunkatzen zan.

–Eldu gara –esan eban Txorki txalupariak–. Sartu gaitez, eta ostalariak zure ontzurrea sosetan biurtuko dautsu.

Sartu ziran ostatura. Euliz beteriko ta zikiña zan leku a ez yakon gogokorik azaldu Yanoz'eri, eta ontzurrea aldatu bear izan ez ba'leu ostatu iguingarri aretatik iges egingo leukean. Mai luze, saskelaren atzean ostalaria zan gizon lodikote ta buru-soillak upel batetik pitxar bat beteten ziarduan. Bazter bateko mai-aurrean iru gizon autu bateri emonda ikusten ziran. Andi ta indartsua, oneitariko nagusia eritxana begi-bakarra zan, antza, begi bat zapi baltzaz estalita ebalako. Beste begia, sarkor eta dizdir gaiztoz Yanoz'en irudian untzatu zan, pizti batek arrapagaia begiztatzen dauan lez.

Ostalariagana joanda, mutillak ontzurrea mai-gaiñean laga, eta auxe esan eutsan:

–Jauna, aldatu egistazu urrezko au sosetan, mesedez.

Saiaren antzeko begikadaz, ostalariak ontzurrea aztertu eban, eta jarraian kutxatilla batetik txanponetan milla soseko balioa eskuratu eutsan. Yanoz'ek berrogei ta amar eskaturiko sosak Txorki'ri emonda,

–Torizuz –esan eutsan–, bakean gagoz.,

–Eskerrikasko, mutil. Eta orain, ostalari Jaunak, atara egiguzuz txopin bete ardao, orko jaun orreikin –txokoan autuan ziarduen iru gizonak aipatuz– eta gazte begiko onekin, adiskidetasunaren ezaugarritzat edan dagigun.

–Barkatu egistazu, lagun –adeitsu esan eutsan Yanoz'ek–, eta artu egizu nire eskerrona, baiña iraduz nabillen ezkerro, joan egin bear dot, baiña egarri izanik, edontzi bete ur guztien osasunerako edango dot.

Ostalari zikiña eskaturiko uraren billa joiala, Txorki'k pitxar bete ardao artu, eta txokora joanda, ango iru lagunen ondoan jesarri zan. Yanoz urari itxaron bitartean, txalupariak begibakarraren belarriondora makurtuz,

–Aizu, Gartxot –esan eutsan isil-misilka– gazte orrek zisku bete ontzurre daroa jakepean .

–Ziur ete az...?

–Bai, neronek ikusi dot. Dirudianeaz, euskaldun aberatsa da. Ori jakiteko, ez dozu besterik ikusi bear, bere janzia ta basoillar-lumaz buruturiko txanoa baiño.

–Euk zelan yakik euskalduna dokanik...?

–Bere euskerearen doiñuz. Añamendi'ko euskaldun askok nire txalupan Aturri ibaia zearkatzen dabe. Gazte orren euskerea Naparra'ko mendi garai areitatik datozen mintzaira eresintsua da, eta au naikorik ez bai'litzan, bere karantz eta azkaia ikusi baiño ez da besterik bear, euskal endakoa dala iragarteko.

Une aretan, edan-maiaren ondoan egoan Yanoz'ek edontzi bete ur ezpanetara eroian. Gartxot'ek bere begi bakar sarkorraz begiztatu eban, eta abocean auxe iges egin yakon:

–Ain zuzen be, Txorki, aren itxuraz ezin daiteke ukatu euskalduna danik, eta gaiñera sendi onekoa. Orain joan aitekez etxera, eta eskerrikasko emondako argibideakaitik. Bere garaian orren ordaintza emongo yauk.

Txorki txaluparia jagi, eta ateraiño bideratu zan. Urten-agiñean zala, Yanoz'eri zuzenduz,

–Agur, gazte –irribarre izunaz esan eutsan–, bidegite ona opa izaten dautsut.

–Baita zeuri be bardin.

Txaluparia urten zanean, Yanoz'ek uraren ordaiñez ostalariari sos batzuk emon eutsazan, eta urten aurretik, Gartxot eta onen lagunai "gabon" esanik lekorean ostendu zan.

Gautu izan zan jadanik, eta lekoreko giroa otz eta atsegiña zan bideari ekiteko. Yanoz'en asmoa iradu barik ibiltea zan, eta edonon lo egiteko leku egokia aurkituta, antxe gaba emotea urrengo goizerarte. Orduan Txartxa'ri dei egingo leuskio, eta aalik ezkutuen Akitani'ko biotzari urreratuko litzakio. Udabarriko gau yaukal aretan, zugaitzen gaiñetik illargi betea agertu zan, argi iratxokaraz dana edertzen ebal, eta iparrerantz edatzen zan bidea zidarrezko zerrenda biurturik.

Yanoz ostatutik urten baiño ez, berarekin egozan lagun biai, Gartxot begibakarra onetaraxe mintzatu yaken:

–Euskaldun gazte orreri ontzurreak eta lepo-gaiñean eskegita daroan ezpatatzarra ostu bear dautsaguz. Urrezkoakaz gaiñera, ezpata orrek balio andiko izan bear dau, gurutzean errubi baten argi gorritzta dizdiraka ikusi dot-eta.

Une batez Gartxot isildu zan egitekoa ausnartzeko, eta gero,

–Aren oiñotsek iparrerantz abiatu dala iragarri dauste, eta ez dirudi iraduz joianik. Basoko itzalguneak ustiatuz jarraituko dautsagu, eta mozoilloaren oiua jaurti dagidanean, arrapalada baten aren besoai oratuko dautsezue, eta nik atzetik makillakada bat az burua autsiko dautsat. Kontuz ibilli, baiña, gaztearen itxurak indartsu ta malgua dala iragarten dau-ta. Nik uste, aren jarraian oraintxe bertan abiatzen ba'gara, Mizan'go iturrira barik atzemongo dogula. Goakiozan ba, astirik galtzeke.

Jagi ziran iru gaizkilleak, eta urten baino len, ostalariagana urreraturik,

–Aizu, Aiñak –esan eutsan Gartxot'ek–, biar zeozer entzun dagizunean, gurekin ez dau iñongo zer-ikusirik izango, entzun...?

–Nasaitu zaitez, Gartxot, badakizu nire arazoa ardao ta ostatu emotea dala, niri ez dagokidazan arazoetan sartu barik.

–Ederto, Aiñak, gizon zuurra zaran ezker, gure nagusiak aintzakotzat artuko zaitu.

–Agur, Gartxot, eta ondo ibilli.

Gaizkilleak urtenda, Gartxot'ek aginduta lez, basoan zear sakabanatu ziran, bide-tik urrun joan barik, aalik isillen eta ezkutuen, bideko xingola zurizkatik begiak kentzeke. Alde batetik illargia eragozpen izan arren, bestetik lagungarria izango litzakie, arrapagaia errazago ikusiko leukie-ta.

Bitartean, aldarterik onenean Yanoz'ek ibiltuari erraikion ezelako suzmo txar barik, Akitani'ko lurraldea zan Kaskoiña'ko ordokian zear kemenez gaiñezka joiala. Orkatz-narruzko oiñetako bigun eta nasaiek ez eben ezetariko ibil-otsik egiten. Gabeko bederatziak izango ziran orduko, eta bidegiteagaitik zerbait nekatuta, luzaro barik basoko edozein bazter egokian etzanda jarriko litzake, bide-zorroko jaki-ondakiñak janda gero. Edu onetan joiala, alako baten iturri baten arradaren palasta aditu zan, eta andik laster, ertzeko atx bateri urak eriozala ikusi eban. Iretargiak arradeari zidarrezko zozpalak crauzten eutsazan, eta lillura arek erakarrita, egarri ez izanik be, edatearren makurtu zan Yanoz. Une aretan bertan, Mozoillo baten oiua ituna aditu zan... eta orduantxe zauskada andi batek menperatu eban, sasi-oiua zala oartu zanean. Irati'ko oianean igarotako urteak zirala-ta, ezagutzen ebazan Yanoz'ek gau-egaztien benetako oiua ta deiak. Sasi-soiña a entzutean, tximista lakoa biurtu zan, eta...

Zoritxarrez beranduegi jadanik; une aretan bertan gizon bik besoai eutsirik geldierazo eben, eta oneikandik jareitu aal izan baino len, irugarren batek gorostizko makilla bat az zartako izugarria burura jaurti eutsan. Une aretan, Yanoz'ek soiña saiestu eban, eta zartadea buruko alde baten beera lokitik laban egiñik, lepo-gaiñean eroian ezpatearen gurutzean jo, eta kaiñabera bai'litzan brintzatu zan, mutillaren aurpegiari odola parrastaka eriola. Konortea galduta lurrera amildu zan Yanoz iturri-ondoan, baiña jausi aurretik, erasotzailleak begi bat zapiño baltzaz estalita ebal, laiño-artean lez ikusi aal izan eban.

Gartxot mutillaren gaiñean makurtu zan, eta adi-adi aurpegiari begiratu eutsan, oraiñdiño bizirik ete zan egiztatzearren; baiña bazirudian eriotzaren ego baltzak aregan kokatuak zirala, gorpu baten antzera bide-ertzean geldi ta isillik. Orduan Gartxot begibakarrak keiñu bat az andik alde egiteko lagunai agindu eutsen. Bazirudian gau aretan bide-lapurrak iradu andipean aurkitzen zala, eta beste gaizkille biak urruntzen zirala, basoko zidor batetik Gartxot sarkalderantz abiatu zan. Ordu-erdi bat igarota, zugaitzak bakantzen asi ziran, eta noizbait soil baten erdian muru arritsu baten erpiñean etxetxu bat agertu zan. Leku onetatik, begibakar zitalak Aturri'ko lurralde zabala barrandatzen eban, eta onezaz gaiñera, bere menpean egozan zelatarien taldeak edonor eta edozeiñen barri emotsan.

Etxera eldu baiño ez, krisaillu bat piztu, eta onen argi aulpean ziskua irauli eban. Amaika ontzurre eder ikustean, begiak dizdir atsegiñaz argitu yakozan, eta jarraian erasotako mutillaren ezpata astuna aztertu eban. Gurutzeko errubia urretik aztertzean, kilikadura bakana beratzaz jabetu zan; bai, errubidun ezpata bateri buruz zeozer nonbait entzuna eban, eta ori gogoratzean, zauskada batek biotzaren taupadak arindu eutsazan...

Bai, urrengo egunean, Bertran Kontearen zerbitzari zintzoa ta bere nagusia zan Gurbix'egana joango litzake, eta ezpata arrigarriaren albistea emongo leuskio. Dalako Gurbix ori euskalduna zan, aspaldian Auñamendi'tik etorria, eta orain Konte Baltza'ren babespean, lurralde aretako jauntxoa. Gurbix'ek zelatari asko eban Adur

ibaiaz araindian, etozan jendeai buruz jakiteko, euskaldunak izanik batez be. Bere zelatarietarikoa eginkorrena Gartxot zan, eta onen albisten ordairiñez, "Azeri Gorria" ostatuaren barrutian gutzitariko lapurketak egiazan lagaten eban.

Pozaren-pozez eskuak alkar igurtziz, Gartxot begibakarra gelako txoko baten egoan lastamarraga baten gainean etzan zan, eta krisaillua itzungita, lo egiteko gertatu zan. Goizean goizik jagiko litzake egun bateko bitartera egoan Gurbix'en etxera joateko, eta jazotakoari buruz jakitun ipiñiko leuke...

Yanoz itxartu zanean, iturriak gabeen zear bere amaibako eresia barreiatzen eban. Ortziko gingan txirindola irrikoiaren antzera, iretargiak ames zuriakaz inguratzzen eban basoa. Mutillak buruko min izugarria oartzen eban, eta baratxe-baratxe bere zentzuketara biuruta, jazo izan yakona gomutatzen asi zan. Iturrira urreraturik, onen ur ozkirrietan burua ta aurpegia garbitu ebazan. Bazirudian buruko miña zerbait baretzen asten yakola, eta gertaturikoa gero ta argiago gogora etorkion. Alako baten, jakepeko ontzurreen ziskua ostu egin eutsoela konturatu zan, eta gero zauskada larripean aitaren ezpata ederretsia uts emon eban. Oldozkunak taiutzeko, arri baten gainean jesarri zan, eta gogoeta sakon bateri emon eutsan; luzaro barik, erasotzaillea begi bat zapiño baltzaz estalita ebalu gomutara etorri yakon, eta andik laster egitekoa argi ikusirik, jagi eta ibillera kolokaz atzera biurtu zan.

Urrezkoen lapurketeak ez eutsan naigabe andirik emoten, diru barik be, aitaren agindua beteteko gai oartzen zalako, baiña ezpatearen ebaskeria ezin egikean jasan, berarentzat munduko bitxirik ederrena zan-eta. Il-agiñean zala aitak emondakoa zan, eta ezpatearekin bere aitari, Akitani'ko Dukeari aurkeztu ekioneko agindua emon izan eutsan. Asiera bateko larritasuna asarre bizi bateri bide emoten asten zan, eta bere buruari zin egin eutsan, begibakar zitala arrapatu arte ez litzakela etsiko. Ibilli ebillela, egitekoa gero ta argiago aurkezten yakon, eta urrats errimez ostatura biurtu zan. Andik laster, iretargipean aize bigunak eraginda, "Azeri Gorria"ren ikurra agertu yakon leunkiro kulunkatzen zala.

Isiltasun osoak ostatuaz jabetuta zirudian atea jo ebanean. Barrutik ez zan argizpirik txikiena be irazten. Bigarrenez jo ebanean, baiña, goiko maillako leio bat edegi zan, eta krisaillu batekin, Aiñak, ostalaria agertu zan, eta mintzo zakarrak,

–Nor da or...? –itaundu eban–.

–Bakezko jendea –Yanoz'ek abotsa aldatuz–. Etxe onetan gaba igaroteko natortzu.

–Ez ete da berandu orretarako...?

–Bidetik deslai ibilli naz, baiña ostatu emoten ba'daustazu, sari ederra jaritsiko dozu. Edegi egistazu atea, arren.

Andik laster, ateko morroilloa eragin zan, eta ate-zubipean, lo-txano batz burua

estalita Aiñak ostalaria agertu zan. Tximistak jota lez geratu zan Yanoz ezagutzean, eta aurpegia gorpu batena baizen zurbilla, didar bat iges egiten yakola, atea itxi gura izan eban, baiña mutillak bultz indartsuz zabalduta barrura sartu zan, atea bere atzean ixten ebalu. Ostalaria dardar baten egoan, len ostatuan izandako mutillaren mamua zalakoan-edo, baiña Yanoz'ek aren zintzurrari oratu eutsanean, mamukeria alde bate-ra lagata, mutilla benetan ziarduala oartu zan, eta izu gorripean,

–Arren...! –erregutu eutsan ikara bizian–, jaregin nagizu, ezeren errurik ez dot-eta.

Yanoz'ek askatu eban, eta krisaillua kenduta, edan-maiaren gainean ipiñi eban. Jarraian, ostalariari tinko-tinko begiraturik,

–Ez dakit errudun zaran ala ez –esan eutsan–, baiña len orko txokoan edaten izan dan begibakarra non bizi dan esaten ez ba'daustazu, inpernura bialduko zaitut.

Bildur zan benetan Aiñak, gero ta geiago izan be. Mutillari Gartxot'en bizilekua-aren argibideak emotekotan, begibakarraren mendekua erakarriko leuke, baiña bestal-detik, aurrean eban gazteari jarki ba'litzakio...

Ostalariaren ezbaiak ez eban luzaro iraun. Bere ezpatea idoroteko berantetsia, Yanoz'ek idunea estutu eutsan. Zapalkuntza aren pean, Aiñak'ek arnas-estuka,

–Askatu nagizu, otoi –itotzer eskatu eutsan–, eta dana esango dautsut. Emendik ordu-erdi batera, ibai-gaiñeko tala antzeko etxol batean bizi da. Ez dozu besterik, ibai-ertzetik sortalderantz joan baiño, eta laster aurkituko dozu...

–Bereala egiztatuko dogu –eten egin eutsan Yanoz'ek–, oraintxe bertan biok arantza abiatuko gara-ta.

Au esanik, Yanoz'ek atea edegi, eta ostalaria beso batetik artuta urten zan. Ortzi ederrean, iretargiaren egoereak gaberdia zala iragarri eutsan mutillari, Irati'ko oianean bizi izandako urte luzeetan, gabeko ispilluan irakurten ekian-eta. Orduan ostalaria askaturik,

–Joan zaitez aurretik –esan eutsan–, eta bizirik iraun gura ba'dozu, ez niri iñongo maltzurkeririk egin.

Yanoz'en begi ernaiek zaindutako, Aiñak ostalaria basoko zidor estu batetik abiatu zan, eta biok isiltasun betean bideari ekin eutsoen. Noizbait, basoa amaituta, zelai bateko erdigunean muño txiki bateko erpiñean, txabola baten ebakuna marraztu zan. Aiñak geldituta, besoa luzatu eta mintzo dardartsuz,

–Orixe dozu Gartxot'en bizilekua –esan eban–. Orain, laga nagizu, arren, etxera biurtu naiten.

–Joan zaitekez, baiña gaurkoa iñori ez esatekotan, ostantzean, zure ostatura biur-tuta il egingo zaitut.

Aida baten ostalariaren irudi baltza zidorrean beera ostendu zan, barrutik ebil-kion bildurrak oiñetan egoak jarten eutsazala. Aalik isillen Yanoz txabolara urreratu, eta une batez adi-adi geratu zan. Dana isil-isillik egoan ezkeru, ostalariak iruzur egin-go ez ete eutsan, bere buruari itaundu eutsan Yanoz'ek, txabolari inguraketa bat emo-tsala. Noizbait, leiatilla baten ondoan gelditurik, oletan balarrria eratsi, eta zurrunga

neurtsua etorkiola iruditu yakon. Orduan atera biurtu zan onen aztertzeari emoten eutsala. Oi lodiakaz egiña zan, eta lekorean kisket baten muturra ikusi zeitekean. Ardurarik andienaz eragin, baiña edegirik ez ebalu ikusirik, une batez lurtean jesarri, eta gogo sakonetan murgildu zan. Zirudianez, ate sendo a atelanga lodi bat az itxita egoan barrukaldetik. Alako baten... Zergaitik ez lenago bururatu...? –bere buruari esan eutsan–, eta arrapalada baten muñoan beera ibairantz oldartu zan; ona elduta, txistu sarkor eta luze bi jaurti ebazan, eta ertzean jesarrita jazoeren begira geratu zan. Izan be, urrengo goizean lo eginda gero asmatzen eban Yanoz'ek Txartxa'ri dei egitea, baiña gertaerek asmo ori aurreratzen eban.

Luzaro barik, ibaiatz bestaldeko saratsetan zear, irudi illun sendoa uretara murgildu zan palastada zaratatsua aditzen zala. Aturri ibaiaren zingola zidartsuan zear, irudi illun batek gainaldea ildokatzen eban, tarteka-marteka pozezko kurrinkak jaurtiten ebazala. Laster eldu zan Txartxa Yanoz'ek zitxarokion tokira, eta eragin indartsuaz ertzera zapart egiñik, oi eban antzera, ugazabaren aurpegi maitia miatzatu eban, pozezko kurrinka jaurtiten ebazala, narru uletsutik ur-tantoak astinduta gero.

–Naikoa bedi, Txartxa –mutillak pozik esan eutsan aren burua laztanduz–. Geroratu-eziña dan eginkizun bat gure begira dogu. Ekiogun, beraz, unerik galtzeke.

Keiñu bat az isillean jarraitu egion adierazo eutsan Yanoz'ek, eta muñoko txabolarentz ibiltzen asi zan, atzetik artzak erraikiola. Andik laster, iretargiaren argi esnetuak inguratuta, Gartxot lapur eta zelatariaren egoitza agertu zan. Astirik galtzeke, atetik amar metroko bitartera jarri zeiten agindu eutsan artzari, eta jarraian keiñu batez aalik indartsuen ateari eraso egitsan. Txartxa argiak bereala ulertu, eta burua beeratuz lauazka bizian oldartu zan. Artzaren irureun kiloko kaska izugarriean, zotzezkoa bai'litzan, burrunba itzelaz atea milla zatitan autsi egin zan, eta artzari kanpoan itxaron egion agindurik, astirik galtzeke sartu zan.

Atean zear iretargiaren izpi zurizkak igazten ziran, txabolaren barrua erdizka argituz. Txoko bateko lastamarraga baten gainean, betzulo bat oiko estalki baltzapean, Gartxot lapurraren aurpegi maltzurra arritasunezko itxuraz ikusi zeitekean. Erdi-illuntasun aretan, karantz zemaikorraz Yanoz urreratu yakon urrats isillakaz. Mutilla ikusi ebanean, izuaren-izuz ikoti egiñez oatzaren ertzean jesarri zan, ikara bizian auxe iñotsala:

–"Azeri Gorria"n ikusirik arrotzaren mamua ete zara...?

–Apentzari baten mamua nozu, merezi dozun ordaintza noizbait artu dagizun. Bai, orain ordu gitxi, bideko iturri-ondoan iltzat itzi nozu, ziskuan neroiazan urrezkoak eta aitagandik artu neban ezpatea ostu ondoren. Baiña zure jaseko gaizkillea ez nazan ezkerro, oraintxe bertan ontzurreak eta aitaren ezpatea atzera emoten ba'daustazuz, ez dautsut ezelako kalterik egingo.

Gartxot jagi zan auxe zirautsala:

–Gazte, itziko daustazu krisaillua ixiotu dagidan, ezta...? barrunbe onetako illunpetan eskaturiko gaiok ezin dagikedaz idoro-ta.

Gaizkilleak krisaillua piztu eban. Orain, baiña, mutilla ez zala iñongo mamurik oartua zan, ostatuan ikusirik arrotza baiño, eta asierako bildurra joanda, Yanoz zelan atzipetu leiken asmatzen eban, eta oparia ezustean arrapatzeko, azeriek oi daben antzera, etenbako itz-jario bateri emotsan, mutillaren adikunea alderatzearren.

–Bai, gazte arrotz ori –asi zan lapurra–, "Azeri Gorria" ostatuan lenengoz ikusi zindudazanean, nire buruari auxe esan neutsan: "Orra or, Gartxot, zaldun itxurako gazte arrotz bat, eta baietz Euskalerriko aitor- seme aberatsa, bere jas eta itxuragaitik". Eta orduan Satanas gaiztoak zirikatu ninduan auxe ziraustala: "Urrezko txanpon gitxi batzuk gora-beera, gazte ori beti aberats, eta zuk Gartxot gaixoak, bear dozun atsedendaldia noizbait izango, jasaten dozun gibeledko makurra merezi dan lez zaintzeko.

Ona elduta, Gartxot'ek bakarrizketeari eten egin eutsan, eta atzamar bat az, krisailluaren argipean mai baten gainean zetzan Iroz'en ezpatea erakutsirik, onetaraxe jarraitu eban:

–Or dozu, gazte, aitagandik artu zenduan ezpatea. Ederra da ederra, eta errege edo duke baten duiña, gurutzean ñir-ñir dagian errubiak adierazoten dauanez. Orain ekidan arasa orretan dagoan ontzurreen ziskuari. Zertan nebillen, baiña...? A, bai, nire gibel gaixoari buruz niarduan. Ezeuki galanta izan nozu beti, eta au dala-ta, bide okerretara jo egin dot ezinbestez, baiña ziñez diñotsut, gazte, nire gaiztakeriak egitean, lagun-urkoa aalik eta begirunerik andienaz erabilli dot beti, danok Jaungoikoaren semeak garalako. Au egiztatzeko ez dozu besterik kontuan artu baiño, iturri-ondoan jaurti neutsun zartadea ardura andiz egiña zala, ozta-ozta zeugan lo-alditxu laburra eragiteko beste.

Itz-jario onen bitartean, Gartxot arasara urreratu zan, eta krisaillua onen gainean jarrita, kutxatilla bat zabaldu eban, aztamuka asten zala, itz-egiteari laga barik onetaraxe:

–Bai, oeratu aurretik ementxe ipiñi nebazan zure ontzurreak... ala beste leku baten izango ete zan...? Ai nire buru gaixo aztukorra...!

Itz oneik esanik, basakatu baten arintasunaz, lapurra biurtu zan eskuan sastakai bat ebalu, eta tximistaren antzera Yanoz'eri eraso eutsan ezustean artuko leukelakoan. Mutilla, baiña, zain egoan. Osaba Imoz'ek beste burubideen artean irakatsi izan eutsan, berbalapikoakan iñoiz ez jarteko uste onik, eta lapurra berbetan asi zanetik, Yanoz'ek ez eutsan begia gainetik kendu. Ikoti ariñez eraso saiestu eban. Gero, lurtean zetzan atalangeari oratu, eta Gartxot bigarrenez erasoteko biurtzen zanean, zartada izugarria artu eban buruan. Tximistak jota lez, lapurra lurrera amildu zan, zer jazoten yakon igarri baiño len. Artutako zartakoa ilgarria billakatu yakon, eta intxaur baten azala bai'litzan burua ler eginda, Aturri'ko lapur iltzaillearen bizitza itzali zan.

Astirik galtzeke, Yanoz'ek arasea arakatu eban txoko baten bere zizkua idoro arte, eta jarraian, mai-gaiñetik bere aitaren ezpata ederretsia artuta, Gartxot'en gorpugaiñetik igarorik, lekorera urten zan.

Txartxa'ri urretik jarraitu egitsan agindurik, iparreko norabidea artu eban Aturri ibaitik urruntzen zala. Igarotako jazokunak zirala-ta, mutilla guztiz nekatuta oartzen zan, eta gaiñera, Gartxo'tek Mizan iturri-ondoan emondako kaska itzelaren ondorioz burukomin andia oraindiño jasaten eban. Baiña barruko zerbaitek "Azeri Gorria"ren ostatutik aalik eta urrunen egon zeiten iñotsan, eta lo-gura andia bazan be, bideari ekin eutsan, batzutan zelai zabalaren artean, bestetan arizti eder usuen zear. Noizbait, eta sortaldeko ortzia odolezko urrez jazten asi zanean, zugaiztune lodi bateko babesa aukeratu, eta artzari bere ondoan zelatan jarri zeiten agindurik, bide-zorroaren gaiñe-an burua jarrita, lo astun batek artu eban.

ETOIAREN ARRENKURAK

Aturri ibaitik larogei bat kilometrora, Garzak erri politaren inguruko zelaigune baten erdian, arrizko etxe ederra ikusten zan. Etxe aretan, errikoenen artean ederrena, Bertran Kontearen jabetasuna izanik, bere zerbitzari ta zelatari zintzoa zan Gurbix bizi izaten zan. Baziran urteak Undaitz'eko Jaunaren zerbitzari etoia leku eder onetara etorria zala, bere ugazaba Iroz, Bertran'en eskuetara jarri izatearen saritzat.

Gurbix eta Ganix anai bikiak, Erro ibarreko errixka baten jaio izan ziran, eta gazterik Undaitz gaztelura morroitat ziarduen, Auñamendi'ko lurralde aretako Iroz zaldunaren artalde ta beitalde aberatsak zaintzearen. Undaitz'eri zegokiozan lurra zabalak izanik, artzaiñek baeben zeri begira, eta sarri askotan bei ta beorren billa batez be, Benaparra'ko barrutian zear joan bear izaten eben Luzaide'tik Donibane Garazi'raiño, baita batzutan aruntzago be nagusiarekin, enda bereiziko zezen edo zaldi-gurasoren bat erostera joiazanean. Au zala-ta, guztitariko jendeekin ezaguera egiten eben, onein artean akitaniarrak izanik be.

Aldiaren bidean, Erro ibarreko anaiok andikien bizierea irrikatzen asi ziran, baiña morroi ziran aldetik, diruezagaitik euren gurariak ezin bete. Onezaz gainera, diru-jokuaren griñak menperatu ebazan, eta luzaro barik zorretan asi, eta ezinbestez ugazabari abelgorria ostuten be. Orretarako, Luzaide'n, ararteko baten bidez akitaniarra saldu oi eutsiezan.

Bein baten, dalako arartekoak akitaniar zaldun garrantzitsu batek berarekin artu-emonetan asi nai ebala Gurbix'eri esan eutsan. Zaldunaren aurrean eroanda, andiki itxurako buruzagi dotore batek auxe esan eutsan:

–Diruketa andia ekarriko dautsun arazoa daukat zuretzat.

Zalduna une batez isildu zan, Gurbix'en aurpegiaren azterketa egiteko, eta gero abopeka,

–Orretarako, baiña –esan eutsan–, nire alde edozein gauza egiteko gerturik izango zara. Orain artean, zuk eta zure anaiak bei edo beorren bat ostu egin dautsazue ugazabari, eta diru batzuk irabazi. Baiña orain esondatuko dautsuedanak zuek biokandik adore edo gogortasun andia eskatzen dau, baiña irabaztea aren baten izango da.

Zaldunak itz'egin bitartean, Gurbix'ek begirune andiz so egiten eutsan, andiki arek gorengo maillakoa zirudian-eta. Iroz, bere ugazabaren einekoa emoten eban, eta bera lako morroi bateri olan itz'egiola, arrotasunez bete egiten eban. Onezaz gainera, sari on bat irabaztekotan... Gurbix'ek orduan,

–Esan, Jauna –erantzun eutsan–, eta barkatu nire azartasuna, baiña arazoa orren ardurazkoa izanik, nor zaitudan jakin gura izango neuke.

Orduan andikiak mintzoa motelduz,

–Bertran, Akitani'ko kontea nozu –esan eutsan–, eta zifñez diñotsut: buruan darabildan arazoa egi biurtzen laguntzen ba'daustazue, ez zarie iñoiz damutuko.

–Zer nai dozu ba, nire anaiak eta biok egin dagigun...? Zu lako zaldun ospetsu bateri laguntzea dedugarria da, eta ainbat areago ekintza orrek sari on bat ba'lekarkigu.

–Zuen bion lana nire gogokoa izatekotan, Akitania'n etxe bana dagokiozan lurraz izango dozue, eta nire mugalari nagusiak biurtuko zarie Aturri ibaiaz bestaldean.

Gurbix'ek ezin egikean siñistu Bertran Konteak eskintzen eutsena. Mugalarien egitekoa ospe andiko ta ondo sarituriko jarduna zan Akitania'n. Menpeko ugariak arein esanetara egozan abere-lapurretak egiteko, eta etsaien joan-etorriak garaiz iragarteko. Undaitz gazteluko morroiek iñoiz ames egin ez leikien baiño areago zan. Une batez otu yakon, bere bizitzaren aukerea izan leitekeala, eta gero,

–Esan Konte Jauna –itaundu eutsan–. Zein eginkizuna da gurea...?

–Iroz, zuen nagusia, eskuratuko daustazue.

Zirrara batek jota, une batez Undaitz'eko morroia zer erantzun ez ekiala, zur eta lur geratu zan, eta gero mintzoa irabazita,

–Jauna –berba totalaz esan eutsan–, nire anai ta bioi eskatzen dauskuzuna itzela da, eta orain bertanbera ezin dagikezut erantzunik emon, nire anai Ganix'ekin itz egin arte, beintzat. Gaur bertan Auritz'en bera ikusiko dot, eta biar ona biurturik, erantzuna emongo dautsugu.

–Ondo deritxat orreri. Biar emen bertan zuen begira izango nozue ba. Agur eta biotz on...!

Biaramonen itunduriko orduan, Erro ibarreko anai bikiak Luzaide'ko ostatuan azaldu ziran, eta Bertran'ek gela txiki baten banazean abetaldu ebazan.

–Ta...? –itaundu eutsen Konte Baltzak edontzi ardo bana eskiñiz–, jakin al-dagiket zuen erabagia...?

–Begira ba, Jauna –erantzun eutsan Gurbix'ek–, gure egitekoa itzela da benetan, eta gure baietza emon aurretik, berorren azkenengo eskintzarik onena pozez entzungo genduke...

–Orra ba –eten egin eutsan Konte Baltza'k–, Aturri ibaiaz iparralderantz edatzen dan Kaskoiña'ko barruti zabal bateko mugalari-buru billakatuko zarie, etxaguntza eder bana arturik, dagokiezan abelgorri ta guzti. Onezaz gainera, eta benetan diardudalaren ezaugarritzat, ogetamar ontzurte artuko dozuez aurretik.

Au esanik, anai bikien aurrean zizku bete urre ipiñi eban.

Gurbix eta Ganix'en begiek zekenkeri utsaz dizdir egin eben, eta beste barik Bertran'eri baietza emon outsoen.

Jarraian, Konte Baltza'k ekintzaren zeatzak azaldu eutsezan. Eginkizuna erraza

izango litzake, eta auxe alegia: urrengo egunean, Undaitz'etik ur egoan pagadian akitaniar gudariak eta anai etoiak, kontearen agintzapean, goizalde barik illuntasuna ustiatzeko bilduko litzakez, eta illunabar-irian gazteluko morroi biak urreraturik, atezaiñari oles egingo leuskioe zubia beeratu egitsen. Orduan, etoiak gaztelura sartuta atezaiña il egingo leukie. Aldi berean, akitaniarrak arin baten pagadiko ezkutunetik urten, eta lauazka bizian zubia zearkaturik, Undaitz'eko gazteluaz jabetuko litzakez. Gero jazoko litzakena, Bertran'en arazoa zan.

Edeski onen asieran azaltzen danez, zitalkeria ondo urten zan, baiña azken orduan, Yanoz'ek bere aita jaregin eban, eta Igun, artzain zintzoaren laguntzaz onen sarobean ezkutatu ziran. Andik laster, Iroz'eri, Undaitz'eko nagusiari, Konte Baltza'k egindako zauria kutsatu yakon, eta semearen besoetan il egin zan, Akitani'ko Dukeari, bere aitari aurkeztu ekion agindua emon ondoren. Bidai ori egingo leuke, baiña aitaren ezpata astuna esku bakar bat az jasoteko gai izan zeitenean.

Bertran konteak-jakin ebanean Iroz'ek bere leikide gorrotagarriak azken orduan eskuetatik iges egin ebala, zauriturik egoala ondo ekian ezkeru, urrengo egunetan gazteluko aldamenak gudariekin arakatu ebazan. Bigarren egunean gudari batzuk jakitun ipiñi eben, artzain baten sarobean obi gurutzedun bat egoala, barria izatearen itxuraz. Arin baten aratu zan konte doillorra, eta gorpua atarateko agindu eban. Noizbait, Iroz'en illotza agertu zan...

–Noizbait illik zakust, Iroz madarikatu ori –gorrotoz menperaturik jaurti eban–; bai, nire biotz minduak mendekuaren atsegiña ezagutzen dau.

Gero, lurperatu egien agindurik, eta Undaitz gaztelurantz abiatzen zala, ondoan eban Gurbix'eri,

–Aizu, mutil –itaundu eutsan ezustean–, Iroz orrek ez ete eban seme bat...?

–Bai, Jauna, Yanoz izeneko mutiko ernai ta eiztari yaioa.

–Non dagoan ba al-dakizu...?

–Ez, Jauna, eta bakana da aitarekin izan ez zeitela, geienetan alkarrekin ziar-duen-eta...

Une aretan bertan, gizon gaizto bi arein gogoetan suzmo baten arra jaio zan, eta urrengo egunean, Bertranek Gurbix etoiari,

–Aizu, Gurbix –esan eutsan– ez naz nasaituko, Iroz'en seme ori arrapatu artean. Artuizuz nire gudari guztiok, eta arakatu barruti au, eta ez laga arri bat bera be aztertu barik. Ekarrigistazu, bere aitarekin biltzera igorri dagidan.

Arakateak egun batzuk iraun eban, Gaztelu-inguruko erri, baserri, sarobe ta izan zeitekezan gordeleku guztiak aztertzen ebezala. Baiña dana alperrik zala egizaturik, bere gudariekin ta Gurbix'ekin, Bertran Akitani'ko bere lurraldera biurtu zan, etsai gorrotagarria il zalako sentipen atsegiñaz beterik. Baiña bere zoriona osorik izango litzakean, bere barrutik uxatu ezin egikean kezka baten itzala jarri ez ba'leu Iroz'en semeak...

Amar urte igaroak ziran Undaitz'eko gazteluaren artze ta Iroz'en erailketea gerta-


tu ziraretik. Arratsbeera eder aretan, etxaurreko aulki eroso baten jesarrita, Gurbix etoiak bere etxaguntzaren lur aberatsak atsegiñez gaiñezka begiratzen ebazan. Eguzkia areitz tantaiez beteriko baso baten atzetik ostentzeko zorian zan, eta une isil arek zorion neurribakoa ekartsan, bere aberastasunak gogoan laztantzen ebazala.

Bizitza osoan zear, ez eban beste yoranik ezagutu, aberatsa billakatzea baiño, eta izan be, irrikaturikoa jaritsi izan eban. Morroi izateari jarraitu ba'leutso, betirako Undaitz'en mirabe izango litzakean. Orain ordea... . Iñoiz ames egin ez leuken ondatsunen jabea zan. Konte Baltza ta bera oso ondo alkartzen ziran, eta izatez edo aiurriz egur bereko zozpalak izanik, Bertran gaiztoak ezin egikean zerbitzari a baiño menpeko zintzoago ta eskurakoiagorik aukeratu, eskuzabal ordaintzen eutsan ugazabari laguntzeko beti gerturik egoan-eta. Egia zan baita be, berak aal eban guztietan eta ondoen nagusiarri ordaintzen eutsala, eta ez eban iñoiz iñongo atxakirik jarri, Konte Baltza'k agintzen eutsazan izugarrikerien aurka. Gaiztakeri ta maltzurkerietan aren baten ebiltzen ugazaba-menpekoak. Orain amar urte igarota Naparra'tik Akitani'ra etorri zanetik, barruti aretako abersatsetarikoak zan, eta erriko emakume andiki batekin ezkondu, lau seme-alabak zituan.

Asiera baten, baiña, egoera barrira oitutea zailla gertatu izan yakon. Sarri askotan lotan zala, ames izugarriak izan oi ebazan... Ezustean, bere anai biki maitia izan zana Ganix, didar ikaragarrietan aurkezten yakon, eztarria gezi bataz zearkatuta Undaitz'eko gela aretan jausita, odolune zabal baten miñaren-miñez oi bizitan iraulkatzen zala... Izango ete... izango ete agian, saldukeriaren ordaiña...? Ustekabez, ocan jesarrita itxarten zan Gurbix, izerdi patsetan eta belarriak eskuakaz estaltzen ebazala, anai bikiaren gabeko oi izugarriak uxatu naiez. Gero, arnas-estuka etzaten zan barriro, egunsentiko argi motela leioan zear irazi arte. Orduan, soiña dardar baten jagi, eta lekorera urtenda, goizaldeko giro ozkirrian, menperatzen eban izua baretzen saiatzen zan.

Nor izan zeitekean, baiña, Ganix bere anai maitia gau aretan erail eban gezilaria...? Gai oneri amaika gogoeta emon eutsazan Gurbix'ek, eta beti ondore berera eltzen zan. Ezin zeitekean beste iñor izan, Yanoz, Iroz'en semea baiño. Izan be, mutilla ez egoan gazteluan akitaniarrak onezaz jabetu ziranean; bestaldetik, oso ezaguna zan gezi-erabilketan mutillaren gaitasuna. Augaitik, gazteluko leiatilla aren lekoreko alde malkartsutik, gezi bat az gizaki bat zintzurrean zauritzea, nai-ta-ez mutillari egotzi bear. Eta kontuan arturik, Yanoz'ek gaztelua beste iñork baiño obeto ezagutzen ebala, aita jaregin ostean, Igun'en sarobera lagunduko eutsan. Oldozkun oneitan ainbat eta geiago sakontzen ebala, ainbat eta ziurrago egoan, Yanoz izan zala Ganix bere anaia il egin ebana. Anai bikia maite izan eban giñoan, gorroto eutsan mutillari. Egunen baten onegan bere apentza edo mendeku-egarria asetzeko ez ete leuken aukerarik izango...? Arrapatuko ba'leu...! Gorroto eutsan Iroz'en semea... baita era berean bildur itzela be. Sarritan auxe begitantzen yakon: jaurtiki-ontzian Yanoz'ek gerturik ebala beste gezi bat, oraindino bizirik zirauan berarentzat. Oldozkun onek ikara bizian jarten eban. Ain zuzen be, Yanoz'eri gorroto beste bildur eutsan.

Amestxar areik zorotzen eben bildur esan-eziña barruraino sartzen yakola. Urrengo egunetan ezertarako adore barik sentitzen zan. Izan be, benetan maite izan eban bere anai bikia, eta onen azkena, biok egiñiko saldukeriaren ordaintzat aurkezten yakon. Aldiaren bidean, baiña, ames izugarriok bakantzen asi, eta azken aldietan ostendu izan ziran zearo. Izan be, orduan egiñikoa illa ta obiratua zan betirako...



Amar urte luze joanak ziran jazoera izugarri areitatik, eta urteen jarraigo uxa-eziñak, morroi etoiaren arrenkurak bareturik, gaur gezikada baten patutik jarei oartzten zan.

Zelai-inguruko areitzen adaburutik eguzkia gorrimiñezko irazekian ostentzen zan, eta illuntzeko olerkaritza isilla zabalduaz jabetzen zan, lauazka basatiz akuillaturiko zaldi bat atsanka ta bitsetan zelaira oldartu zanean. Zaldia ta zaldizkoa ezagutzean Gurbix nasaitu zan, baiña zergaitik orren iraduz...? Aturri'ko mugatik barri garrantzitsuak ekartsazan, aurki. Zaldizkoa ikoti bataz jatsi zan, eta Gurbix etoiak Aturri-ondoko Aiñak ostalariaren aurpegi erkindua ezagutu eban. Etortearen zergaitia itauntzeko gai izan baiño len, "Azeri Gorria"ren ostalariaren mintzo urduria aditu zan onetaraxe:

—Ordua da ikusi zaidazan, Jauna. Badira egun bi ostatua itzi dodala, garrantzi andiko mezua zeuri emotearren. Etenbarik, arrapalada bizian atsedean artezke etorri niaitzu, bai...

—Itzi egiozu inguruka ibiltetari, eta esaidazu argi ta garbi zerk zakaz nigana.

—Ara ba, Jauna... Gartxot il egin dabe.

Biotza pilpira bizitan asten yakola, Gurbix'ek latz-ikara bat oartu eban, eta Aiñak'en jakeari eutsita, mintzo urduriz,

—Esaidazu dana —agindu eutsan—, gora-beerarik txikiena bera be ezkutatu barik. Entzun...?

—Bai, Jauna ara...Gaur iru egun nire ostatuan nengoala, gazte eder eta apaiña etorri yatan Txorki gure txalupariarekin, ontzurre bat diru xeetan aldatu nengion, ibai-zearko saria ordaintzearren. Urrezkoa aldatuta, edateko ura eskatu eustan, eta andik laster, bideari jarraitzeko, antza, urten egin zan. Ostatuko txoko baten Gartxot eta onen lagunak egozan, eta Txorki joan yaken jakiñerazoteko, gazteak zisku bete ontzurre eroiala jakepean. Gau betea egin zanean, Gartxot-eta gaztearen atzetik abiatu ziran.

—Baiña entzun egistazu, Aiñak —ebagi eutsan Gurbix'ek— oiñez ete joian dalako gaztea...?

—Bai, Jauna, ez erabillen iñongo zaldirik.

—Jarraitu edeskiari, Aiñak.

—Gertxot eta lagunek, gaztea Mizan'go iturrian ur edaten ziarduala, ezustean artu

eben, eta gure begibakarrak zartada itzela buruan emon eutsan. Ontzurreak ostu ondoren iltzat itzi eben, baiña gazte denganiñoa kordebage egoan soillik, eta senetara etorri zanean "Azeri Gorria"ra gaberdian inguru biurtu zan, baita ni atzipetu ninduan, ostatu-billa joian arrotza zalakoan atea edegi neutsan-eta...

–Guzurra dirudi –eten egin eutsan etoiak–, gure zerbitzuan diarduana orren ardurabakoa izatea. Bertran'ek gure nagusiak jakin dagianean...

–Arren, Jauna, kontuan artuizu dana oso illun egoala, eta gaiñera mintzoa itxuraldatu eban...

–Jarraitu, jarraitu aurrera.

–Atea edegi baiño ez, idunetik oratu, eta Gartxot'en txabolara lagundu nengion beartu ninduan. Izan be, aren indarra eukan gizonik, ez dot egundo be ezagutu, bere eskuek leoi baten atzaparrak zirudien-eta. Lagundu neutsan ba, Gartxot'en txabolaraiño, eta ara eldu baiño ez, arin baten biurtu nintzan ostatura. Dirudianez...

–Dirudianez, zer...?

–Ba gazte arek Gartxot'ek berari ostutako ontzurreak eta ezpatea birreskuratu nai ebazala.

–Ezpatea diñozu...? Zelakoa zan ezpata ori...?

–Andi-andia zan, eta nire ostatuan edaten ziarduala, gauza arrigarri bat ikusi neban... Ara... krisailluaren argipean, gurutzean dizdir gorritzko errubi eder-ederra ikusi zeitekion...

Gurbix'en oiui ikaragarri batek ostalariaren edeskiari eten egin eutsan, izuaren-izuz aurpegia eskuakaz estaltzen ebala, bein eta barriz didarka:

–Ai ene, Iroz'en ezpatea... Undaitz'eko nagusiaren ezpata bildurgarria...!

Era onetan, lertxun baten orria lez dardar, luzaro samar irauan eban Gurbix'ek. Noizbait, burujabetasuna zeozer irabazita,

–Jarraitu aurrera, Aiñak –mintzo totelaz agindu eutsan–, esan egistazu gertaturiko guztia. Zer jazo zan arrezkero...?

–Aalik ariñen ostatura biurtu nintzan, nor izango ete arrotz gaztea nire buruari itaunduz. Urrengo goizean oraindiño lotan nentzala, emazteak iratzarri ninduan, gizon bat becan egoala esanez. Arrapalada baten jantzi, eta zurubian beera oldarturik, nire begira Gartxot'en lagun bat egoan, eta auxe oiukatu eustan:

–Gartxot erail dabe bere etxolan. Goizean onen aurretik igaroten nintzala, atea ostendu izan zala ikustean, sartu nintzan eta... lurrean Gartxot'en gorpua ikusi, buruko zauri izugarritik odolune andia edatzen zala. Bere ondoan atelanga odoldua ikusi neban... Zotzak bai'litzazan ateko zatiak or-emenka ikusten ziran. Atea autsi ebana indar izugarrikoa izango zan, ateko olak arrabete erdiko lodiak ziran-eta.

Au entzun baiño ez, Gartxot'en laguna ta biok arin baten muruko etxolara biurtu, eta Gartxot'en gorpua andik ez urrun egoan tantai baten pean obiratu genduan. Gero, txabola-barrukoa zeatz-zeatz arakatu, baiña ez genduan ez ontzurrik ez ezpatarik ikusi. Arrotz gazteak, antza, eroan izan ebazan. Gauza batek arritu ninduan, baiña...

–Zein gauza...?

–Len aipatu dodazan ateko olak ain lodi izanik, eta atelanga sendo bat az itxita egoan atetzarra autsi egikeanak indar itzela izango eban. Gazte arrotza indartsua izanik be, ezin a lako atea lurreratu, eta auxe da niretzat ezkutu andi bat, Jauna. Bazirudian gudan erabilten diran, areitariko esi-ausle bat-edo erabilli izan zala.

Aiñak ostalariak iñotsanari ez eutsan jara andirik emoten Gurbix'ek, eta izan be, menperatzen eban ikara bizi aretan buruan ezin besterik erabilli, Iroz'en errubidun ezpatea baiño, orain gazte indartsu baten eskuetan. Orduko, gabeko illuntasuna zabal-diaz jabetua zan. Otz-ikara batek astinduta, Gurbix'ek noizbait auxe esan eban:

–Goazen barrura, Aiñak. Gaur emen lo egingo dozu, eta biar ostatura biurtuko zara. Astirik galtzeke, Gartxot'en utsunea gure pentzuko beste lagun bat az ordeztuko dozu, "Azeri Gorria"ren inguruko lurraldea garrantzi andikoa da-ta. Zaindu inguru-mari areik begi ernaiaz, eta ez zara iñoiz damutuko.

–Bai, Jauna. Jazo daitenaren barri zeatzak emongo dautsudaz. Gabon.

–Gabon, Aiñak. Eroan zaldia kortara, gero apaldu, eta atsedean artuta, biurtu zaitetz etxera aalik ariñen.

Joan zan Aturri ondoko ostalaria, eta Gurbix ibillera neketsuz bere etxe bikaiñera sartu zan. Gau aretan umeen eta emaztearen itaunai ez eutsen jaramon andirik egin, eta ezin-egon batek menperatuta oeratu zan. Ez eban lo egin gura, aspaldiko amestxar izugarria agertu ekion bildurrez, eta oe bigunean etzanda, ezin egikean errubidun ezpatea irudimenetik kendu. Noizbait, nai ez izandako loak artu eban egunsentia aste-ko zanean.

Alako baten, iñoizkorik bizi ta argien, bere anai bikiaren irudia odolune baten erdian idunea gezi bat az zearkatuta ikusi eban. Abotik odola parrastaka eriola, Ganix lurrean iraulkatzen zan didar itoen artean. Nondik ez ekiala, beste gezi bat beragana zuzenduta oartzen eban Gurbix'ek, bere anaia eriotz-oñazetan biurrikatzen zala. Oiu itzela jaurtirik, Undaitz'eko morroi etoia oean jesarrita itxartu zan, esku dardartsuakaz eztarriari oratzen eutsala. Baekian Gurbix'ek, berarentzat bakerik ez litzakela izango, eta barriro be aspaldiko ikuskizun izugarri areik, indar barrituaz bere barruko bake ta dendua zemaizten ebezala. Zelan edo alan Iroz'en semea erailtea urtenbide bakarra zan, eta ez leuke atsedetik artuko ori egin arte. Orduantxe bertan, dalako elburua jaristeko bearrezko neurriak artuko leukez, bai orixe...!

Oetik zapart egiñik, arrapalada baten jantzi, eta bere zaldi ederra pildatu egion morroi bateri agindu eutsan; gero, gosari ariña artuta, bere ezkutariarekin iparrerantz abiatu zan.

Dordoñe ibai ederreko ertz baten ondoan, Yarre izeneko ugarte txikian, gaztelu sendo ta garaia eraikia zan. Ugartearen izena gazteluari etorri yakon, eta augaitik Akitania'n Yarre'ko gaztelua esaten eutsoen. Ugartez bestaldeko ertz aldapatsuan erri bat edatzen zan, eta gaztelua urez inguratuta izanik, erriarekin zubi jasokor batek lotzen eban. Zubia jasotean, gaztelua artu-eziña billakatzen zan, arkaitz baten gainean eraikitako orma lodiek leku garaiteziña biurtzen ebelako. Erria arresiz babestua izanik, etsaien erasoetatik jarkitzeko gai zan geienetan, baiña bein edo bein, arerioa bultzada eutsi-eziñaz erriaz jabetzen baldin ba'zan, jendea gaztelura sartzen zan, aspertu eragindako arrotzek erria laga egien arte. Yarre'ko gaztelua, ego-aldeko Akitani'ko lekurik indartsuen eta ziurrena zan.

Ederra zan gaztelua, barruko iskillu-larrain zabala areto ederrakaz inguratuta. Onein artean, jatoki andi ta zabala zuredi antzetsuz, eta areitezko zati luze lodi bakar bataz egiñiko ogei ta amar lagunentzako maia. Larraineko albo baten, zaldien korta ta gudarien etzategia. Lenengo ta bigarren mailla, gazteluko nagusi ta onein kideentzat ziran. Goikaldea lau dorrek buruturiko almenezko igarobide zabala zan. Lenengo lurpekoan zerbitzarien gelak, eta bigarreanean, urpean egoanean, espetxeko gelak edo ziega illun ezoak, Dordoñe'ko ur biziek miazkatuta.

Azken mailla au toki izugarria zan, amaika esamesa bala-bala cbiltzala erritarren artean leku izugarri oneri buruz. Ziegen erdian, estalki bat azpiko errailetan galtzen zan, eta eraildako atxilloen gorpuak oxin orretara jaurti oi ebezan, azurtegi nazkagarria biurtuz, baita batzutan be atxilloak bizirik, eriotzaldi izugarrian azkena idoro egien.

Yarre'ko gaztelua ederra ta ikaragarria zan era berean. Leku onetan Bertran Konte Baltza'k egoitza eban, eta Dordoñe ibaiaz bestaldeko erria konterriko uriburua zan. Toki onen eta Dukerriko uriburua zan Marzak'en artean, astia banatzen eban Bertran'ek. Akitani'ko Undobika Dukearen jarraigoarekin ez egoanean, Yarre'ko gazteluan aldia emoten eban guztitariko azpilanak asmatzeko, edo bere zaintzapean egoan Aturri ibairaiño edatzen zan lurraldean, gudari ta zelatarrien ekintza gaiztoak aginduz.

Akitani'ko nagusia zan Undobika Dukeak, uste osoa jarrita eban Bertran'egan, eta entzumeneraiño menpeko onen ekintza zantarrak noizean bein baetorkiozan be, bekaizkeriari egotzi oi eutsazan. Konte Baltza, Dukearen zerbitzari eginkorra zan, eta

akitaniarrek bearrezkotzat izaten eben, englistarren aurkako gudaldietan batez be, tresnaz, janariz, eta gudariakaz Bertran'ek oparo laguntzen eutsalako Dukeari. Undobika'k ez eban iñondik somatzen, bere gudarosteak bear izaten eban janaria, batzutan euskaldunai ostutako abelgorri ta giberritik etorkiola. Urteak ziran Undobika'k agindu zorrotza emon izan ebalá, euskaldunak lagun eta aidetzat ebazan aldetik, bakesu erabilteko, eta Aturri ibaiáz araindiko lurraldea ez zearkatzeke. Ezin egikean aztu Akitani'ko nagusiak, Yunilde bere alaba maitagarria Naparra'ko Auñamendi'ko buruzagitariko batekin ezkondu izan zala, eta biok ilda baziran be, euskaldunak zugaitz bereko adartzat ederresten ebazan, eta agindu zorrotza emon izan eban beti, euskaldunen aurka iñongo ekintzarik ez egiteko.

Undobika'ren jarraigo-artean Konte Baltza'k aalmen andia eban, eta augaitik, bere aurka eragoienek ezkutuka ta bildurrez jarduten eben, ari eutsoen bildurragaitik. Bertran'en benetako andiki-izena, Yarre'ko Kontea zan, baiña dukerrian geienek Konte Baltza'ren ezizenaz ezagutzen eben, urteen bidean egindako zitalkeriakaitik.

Gurbix bere morroiarekin Yarre konterriko uriburura eldu zanean, astirik galtzeke kale estu biurrietatik gaztelura bideratu zan. Zubi jasokorra kenduta egoan ezker, oles egin bear izan eban. Zaintza-buruá zanak ezagututa, zuba etzateko agindu eban. Gazteluko larrainera eldu baiño ez, arazo larri batek ekarrela zaintza-buruari esan eutsan, eta beraz, lenbailen Bertran Konteari jakiñerazo egitsan. Luzaro barik, onen aurrera eroan izan zan. Konte Baltza'k une aretan bere gudarien buruzagi batzuekin berbetan ziarduan, baiña Gurbix ikusi ebanean, urteteke agindu eutsen an egozanai, eta Adur barrutiko bere zerbitzariarekin bakarrik geratu zanean,

–Kaixo nire zerbitzari zintzo ori –esan eutsan konteak–, zerk zakaz nire gazteluraino...? Arazo beiñen batek, urrean, Baiña aurrera baiño len, jesarri zaitez nire alboan, bidegite luzeagaitik nekatuta aurkituko zara-ta.

Agindutako aulkian jesarri zan etoia, eta onen itxura urduria ikusirik, Bertran'ek auxe agindu eutsan:

–Orain, esaidazu dana, Gurbix.

–Ara ba, Jauna –aurpegi zurbillaz asi zan etoia–. Gomutan izango dozu, urrean, Auñamendi'ko Iroz'ek, Undaitz gazteluko nagusiak, Yanoz izeneko seme bat itzi ebalá il zanean...

–Ez naz oroituko ba...? –eten egin eutsan Bertran'ek–. Mukizu aren atzetik Undaitz'eko bazterrak arakatu genduzan alperrik. Arrezkero, ostendu edo iltzat izan dogu.

–Ez bata, ez bestea, Jauna. Iroz'en semea lurralde onetan dago.

–Zelan dakizu ori, Gurbix...? Zerorrek ikusi al-dozu...?

–Ez, Jauna, baiña Iroz zanaren ezpatea daroan gazte bat gure barrutian zear ei'dabil.

–Lurralde onetan nork ezagutu dagike Iroz'en ezpata ospetsua...? Gitxi batzuk bakarrik ikusi dogun ezpatea da. Nork esango dau, beraz, Iroz'en ezpatea dala...?

–Begira, Konte Jauna. Gurutzean errubi ederra dauan ezpata andia gazte baten sorbaldatik eskegita ikusia da... eta olan izatekotan, dalako gaztea Iroz'en semea baiño ezin daiteke beste iñor izan. Undaitz'eko nagusia il zanean, ondo ezagutzen neban bere seme Yanoz amabost urteko zan. Bera da urrean, gazteluko gezi-leio baten zear nire anai Ganix gezi batáz il egin ebana. Olako ekintza burutzeko gezilari bikain-bikaiña izan bear, eta neronek ondo bai ondo dakit gezi-jaurtiketan iñor gitxi berarekin kidetu zeitekezala... Eta orain gure lurraldean zear dabil aitaren ezpatarekin, nik ez dakit zeren billa, baiña bildur naz, bildur itzela izan be... aitaren eriotzaren apentza edo mendekua artzeke ez ete dabillen...

Aurpegi erkiña zurbilduta, eta soiña dardar baten, Gurbix jagi, eta urrats urduriz gelako alde batetik bestera ibiltzen asi zan. Alako baten, Konte Baltza'ren aurrean geldituta, mintzo totelaz,

–Jauna, bildur naz –oiu egin eban– egunen baten nire anai bikiaren eriotz berbera etorriko ez ete yatan...! Bai, aspaldi baten ames egin oi neban, Ganix gaixoa idunea gezi batek zearkatuturik, odolune baten erdian etzanda, erio-miñetan iraulkatzen zala. Azken aldiotan, amesen ikuskizun ori ... betiko joana zala uste izan neban, eta orra or, Yanoz lurralde onetan dagoala jakitean, lengo amestxar bereberak jazarten nauala... Bart iñoizkorik argien ikuskizun izugarri ori osterá be jasan neban...

Aturri ibai barrutiko bere menpeko Gurbix'en izua ikustean, Bertran jagi zan. Izan be, Konte Baltza berrogei ta zortzi urteko gizon garai ta indartsua, zenbatu-ezineko burruketan gogorturiko gudari bikaiña zan. Bizar baltz naroz ornituriko aurpegiak zaldun baten urentasuna erakusten eban, eta gizon ederra izango litzakean, bezulo sakonetan jarritako begiek itxura ain gogor eta ankerra adierazo ez ba'lebe. Griñak menperatuta, maitasun eta gorroto-arazoetan ez eban neurririk ezagutzen, eta antxiña baten Yunilde'ganako maitasun andi ta sutsua, Iroz'eri izana eutsan gorrotoa baizen andia zan. Biok il izan ziran, baiña orain, aitarekiko lengo gorroto izugarria, semeagana aldatu izan eban.

Gudari zangar, izukaitza izanik, Yanoz Akitania'n zear ebillela jakitean, poztu zan Bertran, eretia aurkezten baiyakon, bere baitan iñoiz ez itzungitako gorrotoa asetzeko. Iroz il zanean, mutikoa arrapatu aal izan ba'leu...! Orain, baiña, aspaldiz uts egiñiko aukerea barrio etorkion, eta orain ez leuke iñongo utsik egingo, ez orixe...!

Bere menpekoaren eskuari eutsita, Bertran'ek jesarri-erazo eban barrio, eta mintzo nasaigarriz,

–Begira, Gurbix –esan eutsan–, ezin dagiket ulertu menperatzen zaituan bildurra. Gure mendekua asetzeko ordua urreratzen danean, poztu-bearrean lur-jota ikusten zaitut. Mukizu orrek Undaitz gazteluko azkon-zulo baten zear gezi batáz zure anaia il egin eban, eta orain, zure aspèkundera asetzeko eretia aurkezten yatzunean, izuak jota zakust. Zelan daiteke ori...?

–Jauna, egia da diñostazuna, baiña azaldu ezin dagikedan oarpen bakan batek, egoera orretara naroa. Ain zuzen be, nire anaiaren ikuskizun orrek zoro biurtzen nau.

–Baiña, Gurbix, arazoa baretasun osoan begiztatu ezkerro, laster ikusiko dozu, Iroz'en semea berez lakio batera sartu egin dala, eta arentzat igesbiderik ez onezkerro. Ez al-do zu ikusten...?

–Bai, baiña...

–Entzuidazu ondo, Gurbix: aita zanaren ezpatea baiño besterik ez daroan ogeitabost urte inguruko gazte bat, Akitani aaltsuan zear ez dakigu nora ez zeren billa abiatzen da. Eta orrek ikaratzen zaitu...? Millaka doguz gudari ta zelatariak gure aukeran, eta lurraldea ta jendea ezagutzen ez dauzan arrotz gaixo batek orren bildur andia eragiten dautsu...? Ezin zagikedaz ulertu, lagun, beti adore andikotzat izan zaitut-eta. Non dagoz ba, zure begirariak, iñongo ardura barik lurraldea zearkatzen dauan arrotza ez ikusteko, eta berari buruzko barririk ez emoteko...? Orain arte ain onura andia ekarri dauskuan begirari edo zelatarien sarea, dukerriko talderik osoen eta eginkorre-na izan be, zergaitik zentzunez ez erabili, eta bakarrik dabillan zure anaiaren eraillea arrapatu, jarraian lepo-moztu edo urkatzeko...?

Izan be, Konte Baltza'k menpekoari zirautsanak ganoraz beteriko burubideak ziran ezkerro, Gurbix etoiari arrenkurak uxatzen asi yakozan, eta gero ta urrago eku-san bere mendekuak, kemen barria ekartsan, lengo bere bildurra ostentzen joiakiola. Noizbait, bere buruaren jabetasuna birrirabazita, gogo argiaz bere nagusiarekin arazo-aren azterpen arduratsuari emon eutsan.

Luzaro samar jardun eben gaizkille biok, euren asmo doillorak atontzeko. Zeatz guztiak ondo aztertuta, Bertran'ek buruzagiak aurkeztu ekiozan agindu eban. Zazpi bat ziran une aretan Yarre'ko gazteluan aurkitzen ziranak, eta mai baten inguruan jesarrita, Konte Baltza onetaraxe mintzatu yaken,

–Gure artean dagoan Gurbix nire zerbitzari zintzoak, gure lur maite onetan zear iparrerantz abiatzen dan gazte bat ikusi izan dala jakiñerazo daust. Dalako gazte orrek orkatz-narruzko janzkia darabil, eta basoillarraren luma batek apaindutako narru berezko txanoa, baita euskaldunek darabilezan orreitariko abarkak be. Onezaz gainera, gezi-ontzi ta uztaiekin errubidun ezpatea sorbaldatik dingilizka. Dalako gazteari buruz, orain arte dakigun guztia da ori, baiña naikoa be, ezagutu dagizuen.

Buruzagien begikadak arretarik andienaz beragan untzatuak, gogoetak taiutzeko une batez isildu zan Bertran kontea, eta gero, menperatzen eban gorrotoa ezkutatu eziñik,

–Entzun egistazue ondo –mintzo latzaz jarraitu eban–, artu dodan mezuaren arauz, etsai ori Dordoñe ta Garone ibaien arteko lurraldean zear dabil une onetan. Zuen egitekoa, beraz, auxe da: erresuma ori zazpi barrutitan bananduko dozue, eta zuetariko bakotxari jaurri dakion zatian, zelatariak jarriko dauz, dalako gaztea idoro-teko agindu zorrotzak emonez. Nai dodan arrakastea jaritsi dagizuen, egiteko orreri ardurarik andienaz emongo dautsazue, guztitariko zubi, bide-gurutz eta ostatuak zeatz-zeatz arakatuz, baita onezaz gainera, zuen gudariek baso ta zidorrak talde txiki-

tan ibilkatuko dabez edozein aztarnaren billa. Zuetariko baitu dagianak sari on-ona jasoko dau.

–Jauna –itaundu eutsan buruzagi batek–, dalako etsai ori ikusten ba'dogu, zein da gure egitekoa...?

–Aal izatekotan, atxillo egizue, eta au eziñezkoa azalduko ba'litz, il egizue zelan edo alan. Iges egin ez dakizuen beiñena da. Naiago neuke, baiña, bizirik baitu dagizu-ela, ia zer autortzen dauskuan arrotz orrek.

Isillune baten ostean, barriro be Konte Baltza'k,

–Ulertu daustazue dana ondo, ala beste argibideren bat bear izango ete dozue...?

Buruzagi guztiek dana argi egoala erantzun eutsoen, eta jarraian gelatik urten ziran urrengo egunerako abiamenak egitearren.

–Aizu –esan eutsan Bertran'ek Gurbix'eri, bakarrik geratu ziranean–, biar etxera biurtuko zara, Aturri aldeko barrutia zaindu dagizun. Ez dot uste oraingo onetan Yanoz madarikatua eskuetatik iges egingo dakigun, baiña badaezpadakoan iraun beti enai, eta ez lazotu zure zaintza. Gabon Gurbix.

–Baita zuri be, Jauna.

Baso-soil baten zear edatzen zan errege-bidearen ondoan, "Eiztarien" ostatua eritxana, Garone ta Dordoñe ibaien arteko lautadan egoan, zugaitz tantaiezko arizti usu batek inguraturik. Barruti aretan eiza ugaria zan ezkeru, sasoiu zanean, au da, neguan, eiztariiek ikertu oi eben. Udan be, baetorran bidari banakaren bat, urrengo egunerarte bearrezko atsedan eta janaria izatearren.

Aldi areitan oikoa zana, beekaldean jatokia zan areto ederra egoan, eta onen ego baten zaldientzako korta zabal eta epela. Aretoz bestaldean, sukaldea ta etxekoan lo-gelak. Ostatuko lenengo maillan bidazti edo eiztariantzako lo-gelak aurkitzen ziran.

Arratsalde aretako seiretan inguruan, Nunile eritxan ostatuko neskameak, aretoa apaitarako garbitzen ziarduan. Euri lodia zan arratsalde aretan, eta eguberdian asitako euriak laster atertuko zalako itxurarik ez eban erakusten. Nunile neskato gaixoari gitxik dei egiten eutsoen bere izenez, geienek ordea, "errentxua" ezizenez, eta or-emenka joian bezeroen artetik, ozta-ozta aztal autsia lurrean jarten ebalu, ankan zaurituriko txoritxua bai'litzan. Neskatoaren zaintzapean jatokiko erabiltea egoan, eta augaitik, sorua garbitu, maiak otordurako atondu, ontziteria mairatu ta gero garbitu, edaleai eskatutakoa ekarri, etab. bere ardurapean egoan. Itz gitxitan, "Eiztarien" ostatuko jatokiko jopua zan.

Alargun txiro baten alabea, bein baten, bost urteko izanik, basotik egurketan ziardua, zulo batera jausirik, txonkatillea biurrikatu yakon, eta ordutik erren billakatu zan betirako. Andik laster ama il egin yakon, eta senitartekoa zan egurlari batek, bere etxeko zerbitzurako artu eban. Egurlariaren emazte zakarpean, Nunile gaixoak ez eban zorionik ezagutu. Etxe aretan urte batzuk iraun eban neskatoak, oiko etxeko lanak egiñez emakume aren agintza zorrotzpean. Amabi urteko zala, andik urrun ez egoan "Eiztarien" jabeak neskame bat ostaturako bear izaten ebalu jakiñik, senar-emazteak Nunile eskiñi eutsoen, eta egurlariarentzat izango litzaken lan-sariari buruz bat etorrita, neskato gaixoa ostatuan mai-zerbitzaritzat asi zan. Astuna zan benetan, leku aretako eginkizuna, ostatua ikertzen ebenak zakar eta abo zikiñeko ziran-eta. Goizetik jagita, berandu arte ziarduan ezkeru, errentxuaren bizierea ez zan zoriontsua. Batzutan, berandu samar izanik, batetik bestera nekez ebillen Nunile'ren aurpegiño zurbil eta zimela ikustean, ostalariaren biotza bigunduta, ganbaran eban lo-gelara joan zeitan agintzen eutsan.

Ostatua ikertzen ebenak Nunile ikustera oituak ziran, eta batetik bestera edaria-

kaz joiala, ez eutsoen jaramon andirik egiten, euren autuai jarraitzen eutsoela neska-toa iñor ez bai'litzan. Nunile'k ez eban iñoiz irakaspenik artu, baiña bizitzaren garratasunak, eta ostatuko giro zantar eta zakarrak ez eben arimabako abere baten antzekoa biurtu. Bere baitan zerbaitek inguruko gaiztakeriaren gaiñetik goratzen eban, eta mirari baten antzera, bere barruan ontasun eta edertasunaren egarria dan olerkaritzaren sena taupadaka ebilkion, ortziko oztin garbiaren atzetik aalegintzen dan txori zaurituaren antzera.

Udako egun aretan, eguraldia zakarra zan ezkeru, sutea piztu egian agindu eutsan ostalariak, bearrezkoa izatekotan, euriak bustitako bidariren bat legortu zeiten.

Arratsalde euritsu aretan, urez blei-blei billakaturiko Yanoz, aterpe baten billa basoan zear joian. Alako baten, arratsbeerako argi motelpean, baso-soil baten erdian etxe bat ikusi, eta astirik galtzeke aratu zan.

Ur samar egoala, aizeak kulunkaturiko iragarki baten auxe irakurri aal izan eban: "Eiztarien ostatua". Itxita egoan atea, baiña bere joteari erantzun emonez, edegi ta bere aurean amabost bat urteko neskato erren bat agertu zan. Irribarretsu, auxe itaundu eutsan Yanoz'ek:

–Aizu, neskato, gaba emon al-dagiket ostatu onetan...?

–Bai, Jauna, zatoz barrura.

Au esanik, goiko lo-gela batera lagundu eutsan, eta atea edegirik, Yanoz oe bakarreko gela batera sartu zan. Otzez ikara bizian egoala ikusirik, Nunile'k,

–Begira, Jauna –esan eutsan–, kendu zure janzkia, eta burusi baten bilduta, jatsi ta jarri zaitetz sutondoan. Bitartean, janzkia legortu daiten su-aurrean ipiñiko dot.

Laster jatsi zan Yanoz burusian bilduta, eta sutondoan jesarri zan. Errentxuak janzkia aulki baten gainean edatzen ebal, irribarre bat ezpanetan,

–Aizu –itaundu eutsan adiskidetsu Yanoz'ek–, tamala da zu lako neskatoa erren ikustea, zelan billakatu zara orretara...?

Nunile'k arrituta begiratu eutsan. Izan be, alako gazte ederra berari buruz ardura-
tu zeiten eta orren maitetsu itz egion gauza bakana zan benetan. Ostatua ikertzen eben bidariek, txakur bateri baiño jara gitxiago emotsoen. Bere izaeraren lenengoz, gazte areganantz iñoiz ez ezagaturiko erakarpena oartu eban, eta begi itunak mutillarenetan ipiñita,

–Txikitarik jausi nintzan basoko zulo batera.

–Tamala da benetan. Ez ete dozu gurasorik...?

–Ez. Ama il egin yatan; aita, ostera, ez dot ezagutu.

–Esaidazu, neskato, zelan deritxazu...?

–Nunile esaten dauste.

–Izenaren ederra...! Barrutik, izen ori baizen ederra zarala baietz esango neuke...

–Ames egitea atsegin yat, eta orduan erren nazala aztu egin be... Txori edo lora bat biurtuta ikusten dot nire burua, argiz beteriko eguratsean zear egan noala.

–Aizu, Nunile, nork irakatsi dautsuz gauza eder orreik...?

–Iñork be ez, Jauna. Berez yatordez.

–Osaba Imoz'ek esan oi eustan, gure arima garbia danean, irakatsibako gauza ederrak Jaungoikoak geuron gogoan ipinten dauzala.

–Aizu, Jauna, nor ete da Jaungoikoa edo dalako ori...?

–Jaungoikoa zeru-lurren egillea da, zu ta biok egin ginduzana, baita izaera dauan guztiarena.

–Orduan berak erren egin ninduan...?

–Ez, Nunile. Artzen doguzan ezbearrak munduko gatxetatik yatorkez. Baiña azken baten bakotxak merezi dogun saria artuko dogu.

–Uste al-do zu nitzaz ez dala aztuko...? Zergaitik ez dautsazu niri buruz zeozer esaten...?

–Ez da bearrezkoa, Nunile. Jaio zintzazanetik Berak ezagutzen zaitu.

Begi itun sakonak garretan jantzaturik, Nunile gaixoak Yanoz'ek esandakoa une batez ausnartu eban, eta gero, begikadea gazteari zuzenduz,

–Jauna –esan eutsan–, gauza eder-ederrak dakizuz, eta nire bizitzan lenengoz, burura yator egunen baten zorioentsua izan naitekela. Nork irakatsi dautsu ori dana...?

–Nire aitak lenengoz, eta gero osaba eremulari batek.

Yanoz'en beraganako samurtasun txeratsua oartzean, auxe esaten azartu zan:

–Jauna, zelan dozu izena...?

–Ezin dagikezut esan orain. Egunen baten aal ba'nengi jakingo dozu.

–Zure euskereak doiño aldetik nire belarrietan arrotz emoten dau. Nongoa zara...?

–Napararra nozu, Nunile. Baiña, arren, ori ez iñori esan. Gure arteko isilpekoea da-ta.

Orduko, Yanoz'en janzkia legortu izan zan, eta,

–Aizu, Jauna –esan eutsan Nunile'k–, onezkero soiñekoea legortu yatzu. Laster apalordua izango da, eta nai ba'dozu, lo-gelara joan eta jantzi zaitetz. Gero, zatoz jatokira, aparta gerturik izango da-ta.

Esandakoari jarraituz, Yanoz bere gelara igon, eta andik ordu erdira-edo, narruzko janzki ta lumadun txanoaz azaldu zan. Orduko, sartu barriak ziran egurlari-itxurako iru gizon indartsuk, gelako txoko baten apartari itxaroten eutsoen. Yanoz agertu baiño ez, egurlarietariko batek zauskada andipean gazteari begiratu, eta jarraian lagunekin aboepan txutxumuka asi zan.

Laster amaitu eban Yanoz'ek aparta, eta sukaldera joanda, ostalariari auxe esan eutsan:

–Aizu, ostalari Jauna, biar goizetik urten egin bear dot, eta beraz esaidazu zenbat zor dautsudan.

Ainbatekoea egini, ostalariak,

–Larogei ta amar sos dira aparta ta oea.

Eskaturikoa ordaindu eutsan, eta zurubian gora asi baiño len, Nunile'gana joanda,

–Agur, Nunile –esan eutsan–, biar goizetik joateko nazan ezkeru, ez zaitut ikusi-

ko, baiña egunen baten zure amesak jaritsita, zorionsua izan zaitezala opa izaten dautsut.

–Agur, Jauna. Zure Jaungoiko orrek onik gorde zagizala.

Yanoz zurubian gora joan, bere lo-gelara sartu, eta barrutik atea giltzaz itxi eban. Aurregunetako bidegiteak zirala-ta, laster artu eban loak, bere arnas nasaia ozta-ozta aditzen zala. Alako baten, zerbaitek iratzarri eban. Atean norbaiten jote motelak aditzen ziran, zurrumurru batekin naastuta. Orduan mintzo bat aditu zan onetaraxe:

–Jauna, Jauna, atea edegi egistazu, arren...!

Ikoti bataz, Yanoz'ek morroilloaren giltza eragin, atea zabaldu, eta krisaillu baten argipean, Nunile'ren aurpegiño zurbilla ikusi eban. Soñia dardar baten, errentxuak eskuari oratu eutsan, aboepan auxe iñotsala:

–Jauna, iges egin, iges egin...! Began dagozan iru gizonok arrapatu nai zaitue. Aparia nekartsela, areitariko batek auxe zirautsen besteai: "Bera da gure nagusiak billatzen dauana, eta bizirik arrapatu nai dauan ezkerro, lo betean aurkitu daitenean, ostalariari bere gelaren bigarren giltza eskaturik, gelara sartu, eta oartu aurretik baituko dogu. Gero, agindutako saria gure eskura". Orain gizon orreik aparria amaitu-agi-nean dagoz –jarraitu eban errentxuak–, eta beraz, laster izango dozuz emen. Jauna, iges egizu...!

–Nasaitu zaitez, Nunile, eta jatsi lenbailen jatokira, gizonok suzmorik artu ez dagien. Enparaua laga niretzat. Joan zaitez, arin be arin...!

Errentxua aalik isillen zurubian beera abiatzen zala, atea barriro itxita, Yanoz jantzi zan, burko ta burusiakaz gizaki baten soñia irudikatu, eta oi eban lez iskilluak sorbaldatik eskegita, ate-ondoan jarri zan morroillotik giltza kendu ondoren. Ez eban luzarorik itxaron bear. Bere entzumen biziak urrats motelen ibillerea zurubian gora laster somatu eban, eta ate-ondoan geldi, aditu aal izan eban zelan ardurarik andienaz giltz batek morroilloa eragiten eban. Orduan, iru sasi-egurlariok arin baten oera oldartu ziran...

Isil-isillik, Yanoz urten, atea giltzaz itxi, eta zurubian beera laster zan jatokian. Ostalariak ikusi ebanean, mamu baten agerpena bai'litzan begiztatu eban, eta sasi-egurlariai bigarren giltza emoteagaitik zigortu egian bildurrez,

–Jauna –esan eutsan–, ez dot iñongo errurik arazo onetan. Giltza emon nengien beartu nabe...

–Badakit ori, baita nor dagoan onen atzetik be.

Au esanik, atea zabalduta, lekoreko illuntasunean ezabatu zan Yanoz'en irudi lerdena. Une aretan bertan, abo bete agiñakaz gertaturiko sasi-egurlariak, gazteak ziria sartu egin eutsela egiztaturik, ateari ukabilka birao zantarrak jaurtiten ebezan.

Edera zan giroa Yanoz urten zanean, eta zugaitzen ostoak eta bedarra bustita izan arren be, euri-jasa ostendua zan. Ostatutik urrundu aurretik, oiko txistuaz artzari dei egin eutsan, eta onen entzumen zorrotzak mutillaren agindua artuta, luzaro barik agertu zan. Astirik galtzeke, alkarrekin iparrerantz abiatu ziran.

Lo gura izanik be, aurreguneko euri-jasaz zabaldia urez blei-blei egoan ezkerro, jibiltari jarraitzea erabagi eban Yanoz'ek, eta Txartxa'ri urrundu ez ekion aginduta, iparreko izarra gidaritzat artuta, bidegiteari jarritu eutsan. Ez ekian Yanoz'ek, Marzak Akitani'ko uriburua non egoan, ezta zein zan arako bitartea be, baiña iparreko zuzen-bidean egoala baekian, eta beraz, aal ebanetan ipar-izarrari erraikion.

Gau osoan eta urrengo goizean ibilli ebillen, eta noizbait eguberdi-irian, zeozer eizatzea erabagi eban. Uztai-geziak eskuetan ebazala, baso usu baten zear barrendu zan, Txartxa'ri urruntzeko agindu ostean. Eizan ziarduan artza inguruan ez eban nai Yanoz'ek, onen usaiñak eizakiak uxatzen ebazalako. Baratxe-baratxe eta oarmenak ernai, sarasti baten zear joiala, baso-aate ederra ikusi, eta iges egin ekion aurretik, gezi bataz lurreratu, eta andik laster ur gardenetako errekatxu baten ondoan, lumatu ta erre eban. Aate-errekia gozo-gozoa azaldu zan, eta asetu ondoren, atzeraturiko loak menperaturik, an bertan etzanda jarrita lotan asi zan.

Egun aretako arrats-beeran, andik ur samar egurketan ziarduan atso batek, orain-diño piztuta egoan suaren keak erakarrita, mutilla lotan ikusi eban. Ez eutsan, baiña, jaramon andirik egin, eta sorbaldaren gaiñean egur-sointxua eroiala, etxera biurtu zan. Errira sartzean, baiña, auzoko andrazko batek,

–Aizu –esan eutsan–, ez al-dozu arrotzen bat ikusi-edo...?

–Zein arrotz, baiña...?

–Inguru oneitatik ei'dabillan gizon gazte bat. Oneri buruz argibideak emon dagiazana saritua izango dala, oraintxe bertan aldarrilari batek jakiñerazo dau.

Bapatean, basoan lotan ikusiriko gaztea burura etorri yakon atsoari, eta,

–Orreri buruz, nori jakiñerazo bear yako...?

–Enparantzan dagoan gudari-talde bateko buruzagiari.

Au entzun baiño ez, urrats ariñaz atsoa esandako lekura abiatu zan, eta ango gudari bateri,

–Zure buruzagia ikusi bear dot –esan eutsan urduri– jakingarri bat esateko.

Au entzunik, beste barik gudariak etxe bateraiño lagundu eutsan, eta andik laster buruzagi akitaniar baten aurrean egoan.

–Zer gura dozu, emakume...? –itaundu eutsan buruzagiak.

–Ara ba... –mintzo erabetiz atsoak– Arrotz baten billa zure gudariekkin zabiltzala esan dauste, eta nik ba... zeozer ikusi dot eta... sariren bat artzekotan ba...

–Billatzen dodanari buruz ezetariko argibiderik emongo ba'zeunst, dalako sari ederra aurtuko zenduke, eta ez makala, ain zuzen be. Orain emoidazu dakizunaren barria.

Len ikusitakoa edestu eutsan atsoak, eta amaitu ebanean, buruzagiak,

–Aizu, emakume –itaundu eutsan–, zelakoa zan dalako gaztea...?

–Narruzko janzki ederra ta lumadun kapela erabillean.

–Ikusi zinduzan berak...?

–Ez, Jaun buruzagia. Lo-zorro batek artuta egoan, argi-argi aren zurrungak aditu zeitekezan-eta.

–Lekua, urrun al-dago...?

–Ez, Jauna, emendik ordu bete batera-edo.

–Eroan nengikezu lekuraño...?

–Bai, ondo ezagutzen dodan errekatxu baten ertzean egoan-eta.

–Itxaron emen, abiamenak atondu dagidazan, eta bereala araiño gidatuko gaituzu.

Martzel, akitaniar buruzagiak, ezin egikean gaiñezkatzen eban poztasuna menperatu. Bertran'ek, arrotza atxillo egiteko lurraldean zear bialitako zazpitariko buruzagi bat zan. Mutilla baitu egianari sari andi bat emongo leuskiola agindu izan eban konteak, eta orain eskuen artean saria oartzean, bere pozak ez eban mugarik ezagutzen. Martzel'ek erriko neskatilla polita maite izaten eban, eta orain jasoko leuken sariaz, eskontzeko bear izandako etxea erosi leike. Mutillaz jabetzekotan bertanbera dana itzi, eta aalik ariñen Yarre'ko gaztelura ekarri egion aginduz, goiz aretan Konte Baltza'ren mezulari bat etorri izan yakon. Augaitik ba, arrotza atxillo egingo leuken toki berean, kapardia jarri, eta gaba igaro ondoren, baitutako gazte arrotza, urrengo goizean artez-arte Yarre'ko gaztelura eroango leuke.

Andik ordubete batera, iskillioak gerturik, kapardiko eunak, eta oiko janari-ediariak zaldietan, Martzel gudarien aurretik joiala, atsoaren gidaritzapean jarraigoa abiatu zan. Basoa usu izanik, illunpe areitan ezin zeitekezan arin ibilli, baiña noizbait errekatxua agertuta, onen ertze bitatik elburura urreratu ziran. Alako baten, atsoa aurreraturik, Martzel'eri,

–Jaun buruzagia –esan eutsan abopeka–, jarraitu dagigun astiro, eltzeko zorian gagoz-eta.

Orduan Martzel'ek jarraigoari gelditu zeiten agindu, eta lau zuzidun gudari berearekin artuta, zalditik jatsi, eta oiñez jarraitu eban ardurarik andienaz. Alako baten, zuzien argi motelpean arrotza ikusi eban. Buruzagiaren keiñua ikusirik, aukeraturiko lau gudariak danak batean oldartu yakozan, eta ustekabez artuta, amen baten oin-eskuak lotu eutsoezan. Bere oarmenatarra etorri zaneko, Yanoz ezinduta aurkitu zan, buruzagiaren begikada zorrotzpean.

–Ez dago ezpairik –bere buruari esaten eutsan Martzel'ek– Billaturiko arrotzaz jabetu naz.

Etsiak artuta, bere azkena zala uste izan eban Yanoz'ek, gogoak zurrunbillo zoroan ebilkiozala. Gero, indarraldi andiaz bere buruaren jabetasuna irabazi eban; izan be, etsipena etsirik andiena zan, eta tximistaren antzera itxaropen-izpitxu bat burura etorri yakon. Luzaro barik akitaniarrek kapardia jarri eban, eta onen erdian buruzagiaren kapar dotorea bereizten zala, onetara arrotza ekarri egioen agindu eban Martzel'ek. Txonkatilla-inguruko lokarria lazoturik, gudari bik Yanoz sarrerazo eban. Mai baten ondoan jesarrita, krisaillu baten argipean, buruzagiak tinko-tinko begiztatu eban, eta,

–Aizu, gazte arrotza –galde egin eutsan–, nondik zatoz...?

–Egoaldetik.

–Zertan diarduzu emen...?

–Senitarteko bat ikertzeko asmotan nabiltzu.

–Zure mintzo-doiñua dala-ta, euskalduna zara, ezta...?

–Orrek ez dautso iñori ardurarik.

–Baten batentzat ardura andikoa da ori, eta laster zerorrek egiztatuko dozu. Zein da zure izena...?

Yanoz'ek, baiña, ez entzunarena egin eban.

–Izena ez daustazu emon gura, ezta...? Baiña biar gabean Yarre'ko gazteluan, esan gura ez dozuzanak, nire ezagun batek atarako dautsuz, bai ta arin gero...!

–Ni ez naz iñori kalte egiteko asmotan etorri, eta arrotz bateri zor yakon begirune ta arraitasunaren orde, leku guztietan bidebagez, gorroto ta etsaitasunez abetaldu nabe. Zergaitik giza-legearen aurkako jokaera ori...?

–Baleiteke biar gabean gure nagusiak argitu dagitsula ori. Oraingo, baiña, ori ez da nire arazoa. Niri dagokidana auxe da: biar zu nire nagusiaren eskuetan jarri, eta or konpon; au dala-ta, iges egin ez dagizun, zugaitz batera ondo lotuta gaba emongo dozu, eta biar egunsentiaz batean, Yarre'ko gaztelura abiatuko gara.

Berba oneik esanda, gudariai eroan eta zugaitz batera estu-estu lotu egien agindu eutsen buruzagiak, eta onezaz gaiñera, begirari baten zaintzapean gau osoa iraun egiala.

Eta era onetan, igitu eziñik, gabaren lenengo zatia igaroten asi zan. Kapardiko lau kantoietan begirari bana jarrita, Yanoz'en aurrean itxura zakarreko beste bat egoan, aztamakilla gerturik ebala. Lekuari argitasuna emotearren, azken begirari onek abarrezko sua piztu eban.

Bajoian aurrera gaba, eta noizbait akitaniar gudariak lotara joanda, kapardia isiltasun osoan murgildu zan, besterik aditzen ez zala noizbeinkako begirariet alkarri didarka iñotsoen ezaugarri-berba baiño. Il-gora agertu zan zugaitzen adaburuaren artean, gabontzaren oiutuna lenengoz aditu zanean. Yanoz zaintzen eban begiraria mutilla lotuta egoan zugaitzera urreratu zan, eta adi-adi adarren zear begiratu eban gabontza ikustearren, entzundako oiuan zerbait ez-oituaren antzera egoala begitandu yakon-eta. Izan be, abardia guztiz illuna egoan iñongo egaztirik ikusi aal izateko, eta

buru-makur egoan Yanoz'eri begikada okerra jaurtita, sutondora biurtu zan beilari jarraitzeko, gaba ozten asten zan-eta.

Eta bigarrenez gabontzaren didar goibela aditu zan len baiño ozenago. Tximistaren antzera begiraria biurtu zan, eta une batez arrotzak burua jasota ebalu iruditu yakon. Len lez, oi u itzaltsu bakarti aretan dei bakana egoala antz emon eutsan, eta izua lako zerbaitek eraginda Yanoz'egana urreraturik, iduneari oratu eutsan auxe iñotsala:

–Arrotz madarikatua, nire lepotik barre egin ete nai dozu, gabontzaren oiua irudikatuz...?

–Barkatu, baiña ontzaren oi u ori benetakoa izan da.

–Eta zelan ikusi zaitut ba, une batez aurpegia gorantz zuzenduta...?

–Burua jaso dot gabontza ikustearren, eta ain zuzen be, egan egin dau, an aurrean dagozan aretzetarantz.

Zaindariai une batez zemaikor begiztatu eban, eta,

–Barriro be –esan eutsan zakar–, gabontzaren oiua aditzen baldin ba'dot, zartako bat az boa itxiko dausut.

–Ezin dagikeot, baiña, gabontzari eragotzi didar egin dagiala oi u-gura danean...

–Ez dakit ba, niri adarra joteko asmotan ez ete zabiltzan, baiña kontuz gero...!

Au esanik, bere biziko matraillekoa jo eutsan mutillari, eta barriro be, lengo tokira biurtu zan, Yanoz begimenetik galdu barik.

Gau aretan, Txartxa basoan zear or-emenka joian janari billa, gose zan-eta. Akitani'ra sartu zanetik, Yanoz'ek artzari naikoa aldenduta ibilli zeitela agindu izan eutsan, alkarrekin ikusi egiezan nai ez ebalako. Geienetan, ez beti baiña, gautzen zanean Txartxa'k ondo ezagutzen eban txistu bereizi bat az dei egiten eutsan. Dei ori entzun arte, artzak debekatua eban ugazabagana joatea. Baeban Yanoz'ek beste dei berezia aalik ariñen artza erakarteko: gabontzaren dei larria itxuratzea. Au entzun baiño ez, dana lagata ugazabagana aalik ariñen joateko zan. Irati'ko oianean alkarrekin igarotako urte luzeetan, bion arteko alkar-ulermena, gizaki ta abere baten arteko jaritsi daiteken osoenarikoa zan. Izan be, Yanoz'en eroapenak Txartxa'gan ondore arrigarriak lortu izan ebazan. Giza-irudiak erabilliz, Yanoz'en didar bateri men egieñez, arein aurka oldartu, eta gerriari oratu, txingoteak bai'litzazan lur-joka puskatzen ebazan. Yanoz'ek eta Txartxa'k alkar maite eben biziro, eta bien arteko sentipena ondoen adierazoteko, anai-arteko maitasuna lakoala zala esan leike. Ain zuzen be, urte-ten joanaz, Yanoz'en irakaspentak artzaren adimen aberekoian, ezaguera berezia erein izan eben. Naikoa zan itz soil bat, tximistaren antzera artzak men egitsan. Asmatu daiteken esanekoan billakatu zan Txartxa, eta ugazaba gur egiten eban, bere maitasunaren ordaiñez ezer eskatzen ez ebalu.

Bazan ordubete bat-edo igaro zala il-gora agertu zanetik, artzaren entzumen zorrotzera ugazabaren gabontz-oiuaren antzeko laguntza-deia eldu yakonean. Bertanbera dana itzita, Txartxa lauazka bizian dei-tokirantz oldartu zan. Urrundik eto-

rritako deia, baiña, ez zan naikoa zeatz ugazabagana eroateko, eta luzaro barik geldituta, entzumen ernai az zutundu zan beste dei baten begira. Argi ta zorrotz gabontzaren bigarren deia gau-zear etorri yakon, eta orain iñongo zalantzarik bage, artez-arte dei-lekurantz abiatu zan. Luzaro barik zugaitzen artetik suak sorturiko argia ikusi eban, eta baso-soilla zearkatzen ebanean, argi ta garbi ugazabaren eraso-deia etorri yakon.

Txartxa'ren irudi trinkoa basotik urtetan ikusi ebanean, sutondoan begirari egoan zaindariai eraso egitsan agindu eutsan Yanoz'ek. Ugazabaren agindua entzutean, asarre gorrian beilariaren aurka oldartu zan, eta au, orduan bertan atzetik etorkion lauazkaren otsak erakarrita, biurtu zan, ozta-ozta artzaren irudi bildurgarria ikusteko. Ezusteak eraginda, didar egin nai izan eban, baiña une aretako izu gorriak mintzoa elbarritu eutsan, eta gerritik artuta, txingote ezaiña bai'litzan artzak lurgaiñera zapaldu eban. Zaindaria illik ikustean, Yanoz'ek,

–Aiko Txartxa –aboepa esan eutsan–, ebagi egistazak loturak agiñakaz.

Au esatean, Yanoz'ek keiñukaz gura ebana azaldu eutsan. Txartxa'k bereala ulertu, eta bere letagin zorrotzek aida baten ebagi ebezan loturak. Astirik galtzeke, sutara urreratu zan Yanoz, ilduratutako esku-oiñak bero az euren einera biurtu zeitezaz, eta andik laster, bere oiko egoerara biurtuta, antxe bertan itxaron egian agindu eutsan artzari. Arin eta isillik kapardian zear abiatu zan, berarentzat ezinbestekoa zana egitera, bere aitaren ezpatea ta uztai-geziak bereganatzea, alegia.

Lekoreko illuntasunari oituta, kaparren artean bideratu zan, eta andik laster iretargipean, dotoreena ta garaiena zan buruzagiaren kaparra aurkeztu yakon. Une batez gelditu zan, begirarien batek zaintzen ete eban ziurtatzeko, eta iñoren zantzurik oartzten ez zala egiztatean, sarrerako eun-zatia jasota, aalik isillen barruratu zan. Erdian jarritako maiaren gaiñeko krisaillu batek argi motela edatzen eban, eta onen dizdirpean, txoko baten bere ezpatea ta iskillu batzuk ikusirik, oin-muturretan ibilliz urreratu zan, eta angu sastakai zorrotza aukeratu eban.

Martzel buruzagiaren zurrunga neurtuak, beste aldetik etorkiozan, eta krisailluaren argi aula ustiatuz, akitaniarra zetzan oatzeraiño urreratu zan, eta onen ertzean jesarrita, esku bat az estaltzen eutsala, beste az sastakaiaren erpin zorrotza saman jarri eutsan, auxe iñotsala:

–Buruzagi Jauna, nire menpean zaitut, eta bizitza gorde nai ba'dozu ez txintik atara, bestelan orain arte izandako nire zaindariairekin batuko zara itzaletako munduan. Ondo ulertu daustazun ezker, jesarri zaitez, zeuk eta biok autu bat izan bear dogu-ta, baiña ori baiño len esan bear dausut, edozein oarpen zure gudariai egin gura ba'zeuntse, bertanbera il egingo zindukedazala. Eta orain ekiogun ariari.

Une batez isildu zan Yanoz bere gogoak taiutzeko, eta,

–Lenengoz, buruzagi Jauna –Martzel'eri esan eutsan–, jakin nai izango neuke, zuen mintzaira darabillan neu lako bat zergaitik orren giza-legeen aurka abeltzen dozuen. Lurralde onetara Aturri ibaian zear sartu baiño ez, niri ostuz gaiñera, erail eta atxillo egiten saiatu zarie. Zergaitik jokaera zital ori...?

–Nik ez dakit erabilte orren zioa. Dakidan gauza bakarra, nire nagusiagandik artutako agindua dala.

–Nor da zure nagusia...?

–Bertran Konte Jauna.

Au entzutean, zirrara batek mutilla astindu eban. Noizbait, latz-ikarea menperaturik,

–Aizu, Buruzagi Jauna –itaundu eutsan–, berak agindu eutsun atxillotu zenkidazan... zergaitik...?

–Zergaitia ez dakit, baiña orain amar bat egun Yarre'ko gazteluan nintzala, Bertran Konteak zazpi buruzagiri dei egiñik, bakotxari agindu zorrotzak emon euskuzan. Niri auxe esan eustan: "Aizu, Martzel, zure agintzapean dagoan lurraldea ikertuko dozu, eta gudariekin arakatuko, ezpata andia ta lumadun txanoa darabillezan gazte arrotz bat arrapatzeko. Bide-gurutze, zubi, ostatu, eta baserri guztietan zelatariak jarriko dozuz, mutilla atxillo egiten lagundu dagizunai sari ona jasoko dauala agintzariaz. Bizirik atxillo egiten aal ez ba'dozu, orduan il egingo dozue, baiña zelan edo alan garbitu pizti kaltegarria bai'litzan". Auxe da Konte Jaunak gutariko bakotxari agindu euskuana. Bazirudian mezu txar bat artu barria zala, antza, berarekin egoan Aturri lurraldeko arduraduna begitarte illuna eban-eta.

–Nor zan arduradun ori...?

–Kontе Jaunaren lagun andia dan Gurbix izeneko, aspalditik ona etorri zan euskaldun bat.

–Zertan diardu dalako Gurbix orrek...?

–Aturri ibaiaren iparreko barrutia Konte Jaunarentzat zaintzen daben zelatarien burua da.

Biotz-ikara bat jabetu eziñik, berbok iges egin yakozan Yanoz'eri abopear:

–Bera oraindiño...! Etoi alena, nire bidean barriro gurutzatu bear be...!

Une batzuk isillik iraun ondoren, mutillak auxe esan eutsan:

–Zure argibideen ordaiñez ez dautsut kalterik egingo.

Jagi zan, eta ezpatea ta uztai-geziak arturik, urteteko gertatu zan. Urten-agiñean zala, Martzel buruzagiak, auxe itaundu eutsan:

–Aizu, gazte arrotz ori: zugaitz batera lotuta, eta begirariaren zaintzapean izanik, zelan askatu zara...?

–Ori isilpekoa da –irribarrez erantzun eutsan Yanoz'ek–. Biar nire jarraian abiatu zaitezenean, ez larregi arindu.

Itzok esanik, lekoreko illunpetan ostendu zan. Martzel buruzagiak une batez oldozkor iraun eban, eta gero abopear,

–Gazte arrotz orren jareipena siñisgatxa da, eta ez nau bape arritzen, Bertran Konteak bildur andia dagion.

Urten zanean, urrats arin eta isillez, Yanoz artzak itxaroten eutsan lekura joan zan, eta txistu egiñik,

–Gaiuzan, Txartxa maite ori –esan eutsan–. Nekatuta naiagok, gosez beterik, baita lo-gura be. Leku egokirik idoro arte, beraz, lepoan artuta eroango nauk. Akitaniarrek iparrerantz jazartuko nabe, baiña gu sortalderantz abiatuko gaituk.

Au esanda, artzaren lepora igonik, eta onen ule luzeari eutsita, txonkatillen zapalkuntzaz sortalderantz joan zeiten agindu eutsan. Bere nagusi maitea lepo-gaiñean eroiala, Irati'ko artza lauazka bizian kaparditik urrundu zan.

Gau osoan ilgoraren argipean artzak ariñeketan iraun eban, eta egunsentia egin zanean, eizarako ereti ona zala uste izanik, Yanoz'ek Txartxa geldierazo, eta gezi-uztaiak artuta eizaki baten billa asi zan. Luzaro barik, kimu samurren jateari emotsala erbi ederra ikusi eban. Areitz lodi baten enbor-atzetik ezkutaturik, gezi bat jaurti eutsan, eta alderik-alde zearkatuta, eizakia illik amildu zan. Erbia artuta, barriro be artzaren lepo-gaiñera igesari jarraitzeko, bera ta Martzel buruzagiaren artean aalik eta bitarterik luzeena lortzearren. Eta olan, Txartxa'k baso-erreka-zelaiak atzean lagata, eguberdi-irian txapar usuan zear joiala, atsedean izateko garaia bazala crabagi eban Yanoz'ek, eta artza geldierazorik, eta onek garauen billa or-emenka ziarduala, mutillak erbia narrutu, lurtean sartutako adar baten ziritu, eta erbikia su gelditan erre zanean, goseak jabetuta erreki-zati andi bat iruntsi eban. Jarraian, loa zaindu egitsan artzari aginduta, lo geratu zan.

Lotan asi baiño len, aalgetasunezko oarpen larriak menperatu eban, guztiz zailla ikustean aita zanaren agindua betetea. Leku guztietan bera salatzeko begirariak ipiñi izan ziran, eta luzaro baiño len gudarien ezaguerara bere barriak elduko litzakiez, ingurutik gero ta estuago ertsiten yakon jazarpenaren gorrikatik iges egin eziñik. Baldintza oneitan, zelan eldu Akitani'ko uriburura bere asmoak an lortzeko...? Kinka larrian egoan benetan... Irati'ko arpean aurkitzen zan osaba Imoz'en otoitzek ez leuskioe onik urteten lagunduko...? Gogoeta larri oneitan murgilduta une luzea iraun eban, baiña jasandako lengo egunetako nekeek bere arrenkurak garaitu ebezan, eta noizbait lo geratu zan.

Arratsalde-erdian Txartxa'k iratzarri eban, ez galtzoriren baten suzmoa artu ebalako, egarri andia zalako baiño. Orduetan zear lauazka bizian iraun ondoren, abere gaixoa egarri andia zan, eta olako abagunetan oi eban lez, ugazaba iratzarri eban. Artza abo-zabalik eta kurrinka larritan ikustean, bereala oartu zan aberea egarri andipean zala, eta jagita, uren billa asi zan, noizean bein adi-adi geldituz iturriren baten suzmurak entzuteko. Noizbait, lurtean ozta-ozta marraturiko bide-zidor bat ikusirik, onen jarraian asi zan nora ez ekiala. Alako baten, Txartxa zutundu zan, eta belarriak luzaturik, adi geratu zan burua ezkerretarantz zuzenduta. Luzaro barik, pozezko kurrinka jaurtita, arrapalada baten basoan zear oldartu zan zerbaiten billa, atzetik mutillak nekez erraikiola. Laster aditu eban Yanoz'ek be, iturri baten arradea.

Iturrira eldu zanean, egarria itzalita, urek craturiko oxintxuan Txartxa sartuta

ikusi eban, atsegiñez beterik bere biziko bustialdia artzen ebalatzen. Mutillak egarria itzungita gero, jake ta arkondarea kendurik, soin-enborra garbitu eban, egun sargoritsua zan-eta. Legortu-ostean jantzi zanean, artzari dei egin eta biurtu zan lengo lekura barrero joateko asmoz, baiña orduan zur eta lur geratu zan...

Bere aurrean, amar bat metroko bitartera, gazte batek begizatzen eban arritasunezko itxuraz. Ogeitsu urteko gaztea zan, eta jantzi ezain batek aren irudi trauskilla estaltzen eban. Txikia izanik, bere adiñari egokion baiño askozaz mirriñagoa emoten eban, lepoan eraturiko konkor andiagaitik. Izan be, mutil aren itxurea barregarria zan, baiña bere aurpegiari baerion gorputzaren makurra ezabatzen eban zerbait, urentasuna emotsan ulermen argi baten dizdira, alegia. Ule baltzen arteko bekoki zuripean begi illun sarkor argitsuek adimen aaltsua iragarten eben. Suur zuzen eta ezpan meeak zituan, eta bizar batek aurpegiari gogolari baten karantza emotsan.

Yanoz urreratzen yakola ikustean,

–Aizu, mutil –mintzo gozo ta erabetiz esan eutsan–, alboan dozun artz andi orre-ri, eraso ez dagistala agindu egiozu, arren...!

–Nire lagunak diranai ez dautse iñongo kalterik egiten.

–Adiskidetzat artu nagikezu...

–Ez dakit ba. Lurralde onetara sartu nintzanetik, toki guztietan ez dot besterik ikusten ni galtzeko gerturik dagozan etsaiak baiño. Dirudianez, arrotzai zor yakezan begirune ta abegi ona, Akitania'n ez dira iñondik agertzen. Zeu be laster joango zara aldarri bizitan bazterretan zear, arrotz gazte bat ikusi dozula jakin dagien, dagokizun saria jasotearren.

–Sari orrek ez ninduke zoriontsurik egingo. Judas'en egitekoa ez yat atsegin.

–Dirudianez Jaunaren Barri Ona ondo ezagutzen dozu.

–Prailleen artean zortzi urte igarota gero, ez dodaz ebanjelioak ezagutuko ba...? Orreik eta beste gauza asko be ikasia nozu. Begira adiskide: meza guztia latinez parra-parra esateko gai nozu, baita bearrezkoa izatekotan edozein sermoi be.

Barre egin eban Yanoz'ek, eta izan be, mutilla begiko izaten asten yakonez, barruko eragintza bateri jarraituz,

–Aizu, gazte –esan eutsan–, emendik ur samar, erbi baten erreki gozoa gure begira dogu. Etorriko zintzakez nirekin, merezi dauan abegi ona gure urdaillek egin dagioen...?

–Bai orixe...!

Gazte biok ibiltzen asi ziran, baiña Txartxa atzetik ur samar erraikiela ikusirik,

–Aizu, lagun –esan eutsan lepokerrak– ez al-dagikeozu artz orre-ri esan, orren ondolik etorri ez dakigula...?

–Nasaitu zaitez; ez dautso iñori erasoko nik agindu ez dagiodan artean, beintzat.

–Ederra da ederra artz ori, adiskide. Zeozer emongo neuke olako laguntzaille indartsua nire alboan izatearren. Baiña, zelan billakatu zara artz baten adiskidea...?

–Ori edeski luzetxua da, baiña jakin gura izatekotan, beste urrengo baten esango dautsut.

Autu onetan ziarduela, lengo lekura biurtu ziran, eta lagun barri biok gose andiaz errekiari eraso eutsoen, etenbarik alkarren barriak emotsoezala. Alako baten,

–Aizu, lagun –itaundu eutsan Yanoz'ek– zein da zure izena..?

–Nire benetako izena Arritza'ko Arnaut dozu, baiña egia esateko geienek "lepokerra" izenordeaz aipatzen nabe.

–Non bizi zara...?

–Koba baten Arritza'ko naspillean amarekin bizi naz.

–Urrun al-dago leku ori...?

–Ez, emendik ordubete biko bitartera-edo.

Izan be, lepokerra Yanoz'en jakingurea iratzarten asten zan, eta aren gora-beerak jakitearren,

–Aizu, Arnaut –esan eutsan Yanoz'ek–, atsegin izango litzakit zure gora-beerak jakitea.

–Ara ba... –asi zan Arnaut, lepoa zugaitz baten enborrean jarrita–. Lurralde onetako lurginien txabola baten lepoker munduratu nintzan amaren atsekabe andirako, baiña egoera onetan oikoa dana, nire akatsak amaren maitasun bizia iratzarri eban, eta ezeukiak izan arren nire umetaroa aalik eta zorionsuen biurtu eustan. Nire aita Bertran Kontearen otseña zan, eta onen lur-sail baten lurgintzat ziarduan, urtean ainbeste imillaun zekale emotekotan. Ni jaio ta bigarren urtean, zekale urriko uzta bildu zan, eta jarritako ordaintza emon eziniik, inguru aretako lurginiek ordezkartiza bat Bertran'egana igortea erabagi eben, ordaintzekoa beeratu egitsen eskaeraz. Lurgin-kideek nire aita eritxi-emoilletzat izendatu eben, eta Yarre'ko gaztelura dalako ordezkartiza joan zan. Eldu ta bereala konteak abetaldut eban, eta otseñen eskaerak entzunik, ezetza emon eutsen, atxaki bat baiño ez zalakoan, eta uzta-urritze ori lurginien alperkeriaren ondorioa zala esanez, kanpora igorri ebazan. Lurginiek, baiña, ugazabaren aginduari ostera egin eutsoen, eta badirudi curetariko baten batek kontearen aurka itz gogorrak jaurti ebazala. Bertran'en asarrea itzela azaldu zan, eta lurginien eritxi-emoillea baituta, bertanbera epaitu izan zan. Aurrerantzean olako osterak jazo ez zeitez, eredutzat aita iltera zigortu eban.

"Ori jakin ebanean, ama arin baten Yarre'ko gaztelura joan zan Bertran Kontearen aurrean aozpeztuta, aitaren bizitzaren alde arrenkatzeko. Yarre'ko gaztelura eldu zanean, baiña, goiko dorre batetik nire aita urkatuta, utsaren gainean kulunkatzen zan..."

"Egoitzat genduan txabolatik jaurtita, or-emenka eskale jardun eban ama gaixoak besoetan nindaroala. Geien kezkatzen ebana, baiña, aterpe bat ez izatea zan. Bein baten, Arritza'ko naaspillaren aurrean aurkitu, eta oarpen bakanak eraginda, sartu zan. Leku au, guztitariko arkaitzez zearkaturiko bidebako mataza malkorra da, or-emen soillik abetxo erkin batek apainduriko, besterik ez. Jendeak bildur itzela dautso ba-

samortu oneri, mamuz eta sorgiñez beteriko batzar-lekutzat dauala. Gaurregun ez leuke iñork munduko urre guztiagaitik bazter basati ori ikertuko.

"Besoetan nindaroola, bildur bakanpean ama naaspil aretatik barrendu zan. Noizbait, lekune aretako erdian sortzen dan atx andi baten beekaldean, leize baten antzera zulo zabala aurkeztu yakon. Illuntze-irian zan ezkeru, abar batzuen argipean koba edo arpe ederra zala egiztaturik, sarrerako orbel-pilloaz oatzea gertatu eban. Urrengo egunean arpea arakatu ostean, toki legor, epel aretan bere aukeran bizi zeitekeala ikusirik, leku a egoitzat aukeratu, eta ordutik biziera barri bateri emon eutsan.

"Bizi aal izateko, artzain bateri artulea erosten eutsan, eta galtz-orrazaz oso trebea izanik, galtzagintzari emon eutsan, gero errietan saltzeko. Izan be, ez eban irabazte andirik jaristen, baiña biontzat bizi izateko lain baeban. Bein baten, zaurituriko antzume bat basoan idoro eban, eta arpera ekarrita, zaindu ta osatu ondoren, gure esne-emoillea billakatu zan.

"Zeozer anditu nintzanean, inguruko basoetatik ibilten asi nintzan, eta egurlari batek lakio-ipintea erakutsi eustan. Andik laster, erbi, kirikiño, azeri, azkonar, basoi-larrak etab. arrapatzen ikasi neban, eta olan gure bizikerea obatu zan. Pozik bizi izaten nintzan Arritza'n nire buruaren jabe nintzala, eta izan be, lurralde onetako lurginotseñen bizierearekin bekaldetuta, askozaz ohea zan. Ama, baiña, nitzaz beti arrenkuretan bizi zan, beste mutikoak lez ez nintzalako, eta nire soñaren makurra ordeztearren, ezikera ona emon gura eustan.

"Amar urteko nintzanean, galtza-saltzetik biurtu zan bein baten, Ebanjelitarren lekaidetxean izan zala esan eustan, eta prailleekin berbatua zala ni ara sartzeko. Amaren asmoari jarki nintzakion aal neban giñoan, baita negar ugari egin be, baiña dana alperrik: amak bere aretan jarraitu eban, eta andik egun batzutara, aalik eta ondoen jantzita, Ebanjelitarren lekaidetxera eroan ninduan, eta besarkada estu batz nigan dik agurtu zan.

Ona elduta, une batez isildu zan Arnaut, eta Yanoz'en begietan zudu andia irakurrita, edeskiaren ariari jarraitu eutsan onetaraxe:

"Ez zaitut, lagun ori, nire edeskiaz nekatu gura, eta origaitik itz laburrakaz nire gora-beerai amaiera emongo dautset. Zortzi urte iraun neban Ebanjelitarren konbentu orretan, eta izan be, ez dot damurik, eta nire ama zuzen egoala autortu bear dautsut. Amar urteotan ikasi dodana ez da gaberdiko auntzaren estula, alegia. Guztitariko morroitzat erabili ninduen, eta an ikasitakoak ezin dagikezudaz lau itzetan esan, baiña garrantzitsuenak oneixek izan dira:

"Irakurten eta idazten irakatsi eusten, eta lekaideen eritxiz, arin ikasi nebazan gaiok. Bitartean, guztitariko lanetan niarduan, au da, baratzeko ortuarien eta igalondoen zaintzan; etxeko konponketan eta garbiketean; sukaldarako bearrezko egurra txikitu, eta sukaldariari lagundu janari-gertakuntzan eta ontziteriaren garbiketean. Kortako lanetan be, aspaldi batez jardun neban. Izan be, atsedendaldi luzerik ez neban izan, alajaiña...! Lekaidetxeko arduradunek oben edo pekatu anditzat eben begira

egotea, eta menpekoen arimak galdu ez zeitezaz, lanaren-lanez bide zuzenetik eroiezan.

"Bein baten, nik idatziriko ariketa bat abatearen eskuetara eldu zan, eta nire idazkerea oso txukuntzat ederretsirik, lekaidetxeko idaz-morroiz izendatu ninduan, eta jardun au ondoen beteteko, gerkeru ta latiñaren oiñarriak ikasi bear izan nebazan. Arrezkeru, etxeko liburutegian Idazti Deunak, Paul Deunaren idazkiak, lekaideen sermoiak, otoiñak etab'en birridazteari emoten neutsan. Jardun au zala-ta, amaika gauza ikasi nebazan. Bai, lagun ori, gai naiatzu Itun Zaar eta Barriko zati osoak parra-parra buruz esateko, uts bat bera be egin barik, baita Abateak berak zapuztu ezin leiken ordubete biko sermoi dotorea atondu be.

"Onezaz gainera, Abateak egunoroko mezatan laguntzailletzat ninduan ezkeru, oiko meza baita nagusia be, buruz esaten ikasi neban, bitarteko abestiak eta guzti. Zortzi urte zorionsu emon dodaz Ebanjelitarren artean, eta ain zuzen be, praille areik Gure Jaunaren irakatsiari ekintza guztietan jarraitzen dautsoela, esan bearrean nozu. Bai, bene-benetan ederrespen andia dautset, baiña azkenean bizitzaren patuak beste bide batetik eroan nau. Ona emen zelan...

"Illabete biro, ama ikertzeko baimena emoten eusten prailleek, eta ereti orreitan, amarekin egun bi emoten nebazan. Pozik egoan ama nire aurrerapenak egiztatzean, baiña jasaten eban biziera latzak eta bakartasunak batez be, azken aldiotan osasun-beerakada agiria ekarri eutsen. Egoera onetan, lekaidetxean ikasitakoari jarraituz, maite bear izaten neban lagun-urkorik urrena ama zala erabagi neban, eta orain urtebete bat-edo, Abatea nire ebazpenari buruz jakitun ipiñita, ontzat emon eban, eta nire joateari tamal andia izan arren, aren bedeinkapena arturik, amagana biurtu nintzan.

"Azken urtebete onetan, badirudi ni ondoan eukiteak amari osasuna ekarri dautsala, eta areago be kontuan arturik, basoko nire eizakiek janari egokia dakartsoela. Augaitik, ez dautso lengo beste galtza-egiteari emon bear, gaixoari ikusmena moteldu baiyako ainbeste orratz-lan urteetan zear egiteagaitik. Baiña geien osatu dauana, ni alboan eukitea da, norekin berba egin, noregan bere maitasun amatarra jarri, nori itxaron janaria gerturik etxera biurtzen daneko. Askotan diñost, lekaidetxera biurtu naiten ezierea biribildu dagidan, baiña ez naz biurtuko berak bizirik iraun artean, beintzat. Gaiñera, ez dot uste lekaidetza nire benetako deia danik. Ba al-dakizu, lagun, zer yabildan buruan azken aldiotan...? Ara... egunen baten idazle izatea. Jardun onek gizona sortzaille biurtzen dau, eta au bai ederra dala...!

Ona elduta, Arnaut lepokerra isildu zan begiradea utsean galduta amesetan bailitzan. Ederrespenez begiratzen eutsan Yanoz'ek, bere buruari zirautsala, soin ezain aretan arima eder batek abia ebala, eta a lako lagun bat izatea benetako zoriona izango litzakela. Orduan, barruko eragintzari jarraituz,

-Aizu, Arnaut, -esan eutsan adiskidetsu begiratu-, mundu onetara gorputzaren akats andiaz etorri zintzazan, baiña onen orde, nik uste, Jaungoikoak arima samur ederraz jantzi zaitu barrutik, eta gizona andia egiten dauana, barruko doia da.

–Orain arte, lagun –erantzun eutsan Arnaut'ek–, ez daust iñork olakorik esan, eta izan be, nire barruko irrika orrek soñaren akatsa aztu-erazoteraiño naroa.

Basoko bakeak inguraturik isildu ziran gazte biak, baiña len izandako kezkek barriro agertu yakozan Yanoz'eri, gero ta larriago oartzen zala. Zelan uxatu Konte Baltza'k bere inguruan jarritako esi igaroeziña...? Ain zuzen be, ezkutatu zeitekean, baiña orduan zelan Akitani'ko Dukeagana joan, aitaren agindua beteteko...? Egoera onen mataza askatu eziñik, Yanoz'en aurpegi atsegiña itzaldtu zan, eta lepokerraren itaunai erantzun emonez bere arrenkurak azaldu eutsazan. Amaitu ebanean,

–Aizu, lagun –esan eutsan Arnaut'ek–, ez zaitez larritu alperrik. aurkitu ez zagiezan, leku ezkutu baten gordeko zaitut.

–Orrek ez leuke ezer atonduko, Arnaut. Akitani'ko Dukeagana joan egin bear dot...

Zur eta lur begiratu eutsan lepokerrak, eta gero,

–Nor zaitut ba, orren gora joteko...? Zertarako ikusi nai dozu...?

–Ori ezin dagiketsut esan, lagun. Egunen baten jakingo dozu Jaungoikoak lagun. Oraingotz esan dagiketsudana, auxe da: nire aita zanaren agindua beteteko Dukeagana iño joan bearra dodala.

–Ez zaitez larritu. Zelan edo alan joango zara, eta au ziñez dinotsut. Orain illuntzen asi dan ezkeru, egin dagigun lo, eta biar goizean baleiteke zeozer otu dakidala... Gabon, eta ondo lo egin Jaungoikoak lagun.

Andik laster, Arnaut lo geratu zan, bere arnas neurtuak loaldi baketsua iragarten ebala. Yanoz'ek, osteru, ezin egikean atsedetik idoro, eta begi-zabalik, ortziko izarrak begizatzen ebazan, bere kinka larriari alperriko urtenbidea emon naiez. Noizbait, nekearen-nekez amestxarrez beteriko lo urduriak artu eban.

Biaramonean itxartu orduko, Arnaut'ek alde egiteko abiamenak egiten ebazala ikusi eban Yanoz'ek, eta arrituta,

–Nora zoaz, Arnaut –itaundu eutsan–, gosariaren billa, urrean...?

–Ez, lagun. Bidai luzea asteko zorian naz, eta illuntzerarte ez naiatzu biurtuko, baiña nire eginkizuna beteteko dirurik bear. Esan, arean bai al-dozu zeozer...?

Yanoz'ek jakepeko katanarrua atara, eta ontzurre bat erakutsirik,

–Naikoa izango al-da...?

–Naikoa ta lar be, lagun.

–Zertarako bear dozu dirua, Arnaut...?

–Ori gabeaz azalduko dautsut. Asmo bat bururatu yat, eta egi biurtzera noa. Ez niri beste itaunik egin, gabeaz dana azalduko dautsut-eta. Bitartean, zoaz eizaketara ia orkatzen bat arrapatzen dozun, inguru oneitan asko dagoz-eta. Biurtu naitenean, gerturik izan niretzat errekiaren zati eder bat, goseturik biurtuko nazalako. Agur, lagun.

–Agur, Arnaut. Zure begira izango nozu.

Ekuan urretx-makillea artuta, lepokerra baso-sarriari ibillera ariñez ostendu zan. Bakarrik geratu zanean, ezagun barria bera salatzeko joango ez ete suzmo doillorak eraso eutsan Yanoz'eri, baiña bereala gauza zitaltzat zapuztu eban. Ezagutu izan eban epe laburrean, zerbaitek iñotsan Arnaut lepoker gaixoa ez zala gai olakorik egiteko.

Illunabarrean, txingar batzuen alboan eizaturiko orkatz-kumea Yanoz'ek erretzen ebala, Arnaut ustekabez azaldu zan, bide-zorro andi bat ekarrela. Nekatuta zirudian lepokerrak, eta eldu baiño ez, bedar-gaiñean jesarri zan auxe iñoala:

–Arrastion, lagun ori, uste izan neban gaberarte ez nintzakela elduko, baiña zorionez emen nozu gautu baiño len. Gosez il-agaiñean nago, eta erreki orrek sakabaten dauan usaiñak zorutzen nau. Apalduta gero, nire asmoen barriak emongo dautsudaz.

Sastakiaz zati andi bat ebagi ta emon eutsan Yanoz'ek. Jateko iraduak agirian jarri eban Arnaut'en gose itzela. Noizbait ase, areitz baten ondoan jesarri zan, eta onen enborrean bizkarra jarrita,

–Aizu, lagun –mintzo nasaiaz asi zan–, ordua da buruan darabildana azaldu dagitsudan. Izan be, argi dago, oraingo zure itxuraz ez dozula ibilerik, errialde onetako bide, zubi, ostatuak-eta, konte Baltza'ren jendeek zaintzen dabezalako, eta onezaz gaiñera, erri guztietan zear egiztatu aal izan dot, sari on bat agindu dala zu arrapatze-

ko argibideak emon dagiazanari. Zorakeri andia izango litzake, beraz, ortik agertu zaitez anroto gazte baten itxuraz.

Une batez isildu zan Arnaut bere asmoak taitzeko, urrean, eta gero,

–Aukeran dozun bide bakarra, beraz, lurralde onetan zear mozorrotuta joatea da, eta onena, praille baten itxurapean, nik uste. Asmo au bart etorri yatan, eta orregaitik goizean Ebanjelitarren lekaidetxera abiatu naz, eta eguberdi-irian bertaratuta, ango abateari euren praille-janzki bat eskatu dausat. Asieran ez daust emon gura izan, euren janzkiak ortik edozeinen eskuetara joatea egokia ez dalako. Nik baiña, ilteko zorian dagoan Ebanjelitarren zalea dan osaba batek azken mezedetzat eskatu daustala esan dausat, eta abata onaren biotza bigunduta, baietza emon daust. Gero, badaezpadaoan, ari ta jostorratza eskatu daustadaz janzkia osabearen anditasunari egokitzeko, eta gaiok ordainduta ona etorri naz. Esan bear dausut, baiña, zuk emondako ontzurreaz ordaindu ondoren, oraindino sos batzuk atzera dakartsudazala.

–Orduan, Arnaut, Akitania'n zear lekaidetzat mozorrotuta joan bear izango dot...?

–Bai, lagun, eta benetako praille baten itxuraz.

–Orrek ez nau zorientsu egiten, baiña ez ete dabe nire itxuragaitik nor nazan igarriko...?

–Ori laga nire kontura, eta ez zaitez alperrik larritu, danari begiratu dausat-eta. Gautu da onezkeru, eta biar janzkia zure soñari egokituta gero, iparrerantz joango gara. Gabon, Jaungoikoak lagun.

–Gabon, Arnaut, eta eskerrik asko nire alde egiñagaitik.

–Ez da zergaitik, adiskide.

Gau aretan Yanoz'ek ondo samar lo egin eban, eta itxartu zanean gosariari gogoz ekin eutsan. Jarraian, Arnaut'ek zorrotik lekaide-janzkia atara, eta txamarra kenduta, Yanoz'en gainean jarri eban. Polito etorkion, baiña maukak laburtxuak izanik, luzatu bear ziran, eta amaituta, lepokerrak esan eutsan,

–Aizu, lagun, praille asko ikusia nozu azken urte oneitan, baiña zcu baiño doto-reagorik iñor ez.

Txotopean, baiña, bizar baltza laburraz inguraturiko Yanoz'en aurpegi gaztea nabarmentzen zan, eta orduan Arnaut'ek,

–Orain zure aurpegi gazte ori agure batenari egokitu bear yako.

Au esanik, bide-zorrotik eskukada artule atara, eta auxe esan eutsan:

–Onantza nentorrean, ezagunen etxe batera sartu, eta amak galtzagintzarako bear ebala atxakiz, eskukada artule au lortu dot, eta onen bidez bizar eta bekaiñak zurituko dausudaz.

Jarraian, antze andiaz agun-zati bateri artulea eratsi eutsan, eta andik laster agure baten bizarra itxuratu eban. Txotoak, matraillak eta bekokia begietaraiño estaltzen eutsazan ezkeru, bizarra ondo ta erraz egokitu yakon, eta bekaiñai artulezko zerrenda bana eratsirik, antzaldatze jatorra billakatu zan.

–Orain –jarraitu eban Arnaut'ek–, ez yako iñori begitanduko billatzen dan arrotz gaztea zaitezkanik, ez orixe...!

Urrats batzuk atzeratu zan lepokerra, eta bere laguna une batez begizaturik,

–Arriaio...! –didar egin eban–, Gure lekaidetxetik orain illabete batzuk igaro zan Aita Ikerlea emoten dozu. Bai, Aita Klobis berbera deritxazu, eta praille baten izena bear dozun ezkeru, zein arena baiño egokiagorik...? Aurrerantzean ba, Aita Klobis, Ebanjelitarren Ikerlea izango zara, eta olan dei egingo dausut.

Barre egin eben gazte biok, eta Arnaut'ek Yanoz'en lengo janzkia zorroan sartuta, bere lepo-gainean jarri eban, eta praille-soiñekopean, errubidun ezpatea gerrian jarri eutsan Yanoz'eri. Izan be, soiñekoa luze samar izanik, ezpatea ez zan ikusten. Abiatzeko zorian zirala,

–Aizu, Arnaut –esan eutsan Yanoz'ek–, orain uztai-gezien korapilloa aurkezten yaku. Ezin dagikeguz gurekin eroan, Aita Ikerle batentzat egokia ez dalako. Beste aldetik, baiña, nire iskilluak ez dodaz galdu nai.

Orduko, bajoiazan gazte biok basoan zear. Une batez oldozkor geratu zan Arnaut, eta gero,

–Zuzen zagoz, Aita Klobis –esan eutsan–, eta ez dot beste biderik ikusten, nire arpean gorde baiño. Onezaz gaiñera, amari esango dausat, aspalditxu baterako, Marzak'era, Akitani'ko uriburura joan egin bear dodala Ebanjelitarren arazo bat atontzeko. Aurrera ba, Aita Klobis..

Urrundik samar jarraitu egitsela agindu eutsan Yanoz'ek Txartxa'ri, eta basozelaietan zear ordu bi igarorik, Arritza'ko arkaitzen naaspilla agertu yaken. Atxarte estu batera elduta,

–Aizu, Aita Klobis –esan eutsan lepokerrak–, arperaiño noan bitartean, geratu zaitez emen. Laster zurekin izango nozu.

Eta uztai-geziak artuta, naas-maas aretan ostendu zan. Andik ordubete batera edo azaldu zan Arnaut, eta,

–Zure iskilluak –esan eutsan Yanoz'eri– Marzak'etik biurtzean bide batez jasoko doguz. Anartean, nire egoitzan ziur dagoz.

Abiatu baiño len, Arnaut'ek barriro,

–Aita Klobis, badaezpadaoan, nire bizilekua non dagoan erakutsi nai dausut. Ikusten dozu arritzaren erdian egazti-buru baten itxuraz jagiten dan arkaitz aren ton-torra...?

–Bai.

–Ara ba, arkaitz aren oiñarriari nire egoitza dago. Ez dot uste ara joateko bearrik iñoiz izango dozunik, baiña batek-badaki...

Une batez arkaitzari begiratu eutsan Yanoz'ek, eta gero,

–Ez dot aren itxura bakana aztu egingo, Arnaut.

–Goazen aurrera ba, Aita Klobis. Lau edo bost egunen buruan eragozpenik

ezean, Akitaniarren uriburua dan Marzak'era elduko gara. Eta orain entzun egistazu ondo auxe, benetako praille zaartzat artu zagiezan. Ba al-dakizu latiferarik...?

–Ez. Erromatarren izkuntza dala baiño ez dakit besterik.

–Ara ba... bidean zear norbait urreratu dakigunean, abopearan asi zaitetz latinke-riak esaten onetaraxe: Kuesimus... nobis... sanctorum... Deus... oratio... populorum... mandicantibus pinguedinem... pietatis... pax seculorum... oremus... nostris... altisimus...

Jarraian, itzok bein eta barriro berresan-erazo eutsazan, eta noizbait ikasleak latinkeriok buruz esaten ikasi ebanean,

–Orain beste zer bat, Aita Klobis. Zeu lako agure bateri dagokionez jendearen aurrean tatarrez ibilliko zara, era onetan-alegia:

Lepokerrak agure baten ibillera narratzaria itxuratu eban, eta bere lagunak olan ibiltzen ikasi ebanean, auxe esan eutsan:

–Beste gauza bat, Aita Klobis. Zure mintzo-doiñua ez da akitaniar jator bateri dagokiona, eta akats ori garaitzeko, zure abotsa koloka ta urratua izango da. Onezaz gaiñera, jende barritsu ta belarri-luzea gogait eragiteko, erdi-gorrena egingo dozu zure burua. Orduan, nik bi edo irutan arein itaunak birresango dautsudaz, noizbait aspertuta bakean laga zagiezan arte.

Isildu zan une batez Arnaut, eta andik laster,

–Eta oroz gain, Aita Klobis –jarraitu eban–, auxe kontuan artu egizu: Eban-jelitarren Aita Ikerlea izanik, etenbarik batetik bestera lekaideen etxeak ikertzen dozuzala, arein egoerai bearrezko artez-bideak ipinteko. Orain auxe artu bear dozu go-goan: Galias iparreko lekaidetxeak ikertzera zoazala.

Era onetan luzaro samar jardun eban lagun biok, Yanoz'ek lenengoz prailleen gora-beera batzuk ikasten, eta Arnaut'en noizbeinkako latinkeriak birresaten ebazala. Eguberdi-irian, ibai bat zearkatzearen errixka batera sartu bear izan eban, onen erdian egoan zubia erabilteko. Eldu ziranean, gudari batek geldierazo ebazan, eta,

–Nondik zatoze...? –galde egin eutsen–.

–Ze... ze... zer diñozu...? –eskua belarran jarrita itaundu eutsan Aita Klobis'ek– me... mezedez, esan gogorrago...

–Ja nondik zatozen...!

–Aizu, Arnaut, zer diño gudari onek...?

–Nondik zatozan jakin gura dau, Aita Klobis...! –oiu egin eutsan belarrira Arnaut'ek.

–A, bai!.. nondik natorren... Ara ba... sortaldetik ain zuzen be... eta... eta... ipa... iparrerantz noatzu seme maite ori... gure etxe batzuk... iker... ikertzera...

–Aizu, mutil –aspertu eragindako gudariak Arnaut'eri–, ez ete dozue gazte arrotz bat ikusi...?

–Zelako arrotza...?

–Buruan lumadun kapela darabillan euskaldun itxurako gazte bat.

–Ez, ez dogu olako arrotzik ikusi.

–Edonoiz ikusiko ba'zendukie, gudariai jakinerazo lenbailen.

–Bai, Jauna.

Eta beste barik, Aita Klobis'ek eta lepokerrak aurrera jarraitu eban. Erriko enpa-rantzara eltzean, turuta baten otsa aditu eban, eta aldarrilari bat onetaraxe asi zan:

–Jakiñazoten yake erri onetako guztiai, euskaldun gazte okerra lurralde onen zear dabillega. Aren baiturea egiteko bearrezko gora-beerak emon dagiazanari, bost urrezko dukat emongo yakoz.

–Goazen, Aita Klobis –esan eutsan Arnaut'ek–, erri onetan ez yaku ezer galdu-ta.

Zubia igarorik, neskatilla-saldo batekin gurutzatu ziran, eta areitariko batek Arnaut'eri auxe esan eutsan:

–Aizu, mutil, ez al-deritxazu egokirik lepo-gaiñean daroazun konkorra, bide-zorro bat az ez anditzea...?

Barre-santzoka asi ziran neskatillak, eta asarretuarena egiñez, Yanoz onetaraxe asi yaken asarre itxuraz:

–Oratio... nobis... gloriam... angelorum... populis... pietatis... seculorum...!!!

Aita Klobis'en oiua eta itxura asarrekoiak neskatillak uxatu ebezan, eta oneik arin baten kalean gora ostendu ziran, lagun biok barre-gurea nekez menperatzen egi-kiela.

Orduko, arratsaldea zan, eta bidariek geldiene bat egitea erabagi eban zeozer jatearren. Aurreguneko orkatzen ondakiñak bide-zorrotik atarata, iturri baten ondoan jesarri ziran. Alako baten Arnaut'ek,

–Aizu, Aita Klobis –esan eutsan jan bitartean–, biar orkatzen ondakiñok amai-tuko yakuz, eta bideari jarraitu aal izateko uztai-gezik ez dogun ezkerro, jangaiak errietan erosi bear izango doguz.

–Ez zaitetz larritu, Arnaut, ontzurre ugariak geratzen yataz oraindiño.

–Dana-dala, Aita Klobis, aal dagigun neurrian erriak uxatuko doguz, orreitan zelatari asko izango da-ta. Orain Dagonilla dan ezkerro, gabak basoan emongo doguz, eguraldia berotsua da-ta. Eguraldia euritsua biurtuko ba'litz, osteria, bide-ondoko ostatuetan babestu bear izango dogu, eta au ez yat bape atsegin, Konte Baltza'ren guda-riak zain egongo dira-ta. Dana-dala iru egunen buruan gitxi gora-beera Marzak'en izango gara. Esan, Aita Klobis, zer egingo dozu Akitani'ko uriburura sartu gaitezene-an....?

–Zelan edo alan, Undobika Dukea ikusi bear dot.

–Zertarako, baiña...?

–Ori, nire arazoa da, Arnaut. Dana-dala laster ezagutuko dozu orren zergaitia.

Isillune baten ostean, itxura oldozkorraz, lepokerrak auxe esan eban:

–Akitani'ko Dukeak illean bein erri-entzunaldia ospatzen ei dau erritarren naiak eta bearrianak ezagutzearen, nagusi zintzoa da-ta. Eta auxe da ereti bakarra, beste-lan ez dozu arekin alkar-ikusterik izango...

–Aizu, Arnaut –zuduz beterik eten egin eutsan Yanoz'ek–, entzunaldi batera joan egin bear dot, eta orretarako bideren bat aurkitu bear...

–Zein egunetan ospatzen diran entzunaldiok ez dakit. Baiña illaren azkenerantza diralakoan nago, eta Dagonilla amaitzeko zorian dan ezkeru, laster izango da, urrean. Ez zaitez larritu, Aita Klobis, arazoa urretik ikusi dagigunean, dagokion egitasmoa atonduko dogu.

Gero, lagun biok bideari jarraitu eutsoen, eta illuntzean baso eder batera elduta, eguraldia epela zan ezkeru, bedar-gaiñean etzanda lo egin eben. Urrengo egunean bardin, iparrerantz abiatu ziran, eta bide-ondoan baserritarren etxola bat ikusirik, Arnaut aurreratu zan sos batzutan ogi ta okela erostearren. Arratsaldean, baiña, eguraldia gainbera aldatu zan, eta euria asteko zorian zala igarririk, bide-ertzeko ostatu batera sartu ziran gaba asten zanean, baita garaiz be, orduantxe euri lodia asi zan-eta. Ostatura baiño len, Yanoz'ek txistu bat az andik urrundu ez zeiten agindu eutsan Txartxa'ri.

Sartu ziranean, ostatua bidariz bete samar egoan, onein artean gudari batzuk ikusten zirala. Etorri barriak ikustean, an egozanan autuak bapatean eten egin ziran, guztien arreta arekan josten zala. Ibillera kolokaz eta tatarrez, Arnaut'ek lagunduriko Aita Klobis txoko illuntsu baten jesarri, eta buru-makur, apaltasunik andienaz latinke-riak jaurtiten asi zan. Laster, an egozanan ardurea lengo autu-gaietara biurtuta, ostatu zuru-murruakaz bete zan osteru be. Ostalariagana joanda, Arnaut'ek biontzako aparua agindu eban, eta luzaro barik lagun biek apariari gogoz ekin eutsoen.

Alako baten, ostatuko atea edegita, Akitaniar buruzagi batek aginduta gudari batzuk sartu ziran. A ikustean, zauskada andipean Martzel buruzagia ezagutu eban Yanoz'ek, eta mintzo urduriz,

–Aizu, Arnaut –abopean esan eutsan–, sartu barria dan buruzagi orrek, lengo egunean atxillotu ninduan. Jokatu dagigun zuurtasunez ezagutu ez nagian.

Martzel buruzagia mairik-mai ibilten asi zan itaunak egiñez. Lagun biakana urreratu zanean,

–Aizu, Aita Klobis –esan eutsan lepokerrak–, aalik eta gitxien berba egin. Ori laga niretzat.

Noizbait Martzel urreratu yaken, eta mai-ondoan gelditurik,

–Entzun, praille ori –buru-makur egoan Yanoz'eri–, ikusi ete dozu euskaldun itxurako arrotz gazte bat...?

–Zer diño Jaun buruzagi orrek...? –Yanoz'ek Arnaut'eri–.

–Ia arrotz bat ikusi ete dozun...!!!

–Ikusi zer, baiña...? eskua belarrian jarrita Yanoz'ek barriro–. Aizu, Arnaut... zer nai dau, baiña... Jaun orrek...?

–Jakin gura dau, Aita Klobis, euskaldun itxurako gazteren bat ikusi ete dozun...!!!

–Zelakoak dira, baiña, euskaldunak...?

–Zelakoak izango dira ba...? –pipertuta erantzun eutsan Martzel'ek– Ez ete dozu iñoiz areitariko bat ikusi-ala...? Papao besteren papao ori...!

–Ikusi zer... Jaun buruzagia...? mintzo kolokaz barriro be Yanoz'ek.

–Arren, Jaun buruzagi orrek...! –tartetu zan Arnaut–, ez erabilli orren gogor Aita Klobis agurgarria, Ebanjelitarren Ikerle ospetsua. Jakintasunaren oxiña da ezagutzen dabenen eritxiz, eta apur bat gor izan arren be...

–Apur bat baiño ez...? –aserre bizian Martzel'ek– Yarre gazteluko arresiak baiño gorragoa da. Eta eroapena galdu baiño len, esaidazu lepoker orrek, ia gazte ori ikusi ete dozuen...

–Ez, Jauna, ez dogu iñongo arrotzik ikusi.

–Zelako arremonak dozuz praille txotxolo orrekin...?

–Begira, Jaun buruzagia: Aita Klobis Itali'atik dator Galias'ko iparraldeko lekaidetxeak ikertzeko. Nik Ebanjelitarren lekaidetxe baten urte batzuk igaro dodaz, eta orko Abateak Aita Klobis'en gidari izendatu nau, nire egitekoa izanik, berari Marzak'eraño laguntzea.

Bitartean, buru-makur eta eskuak mauka-barrenetan sartuta, Aita Klobis'ek latinke-riak parrastaka jaurtiten ebazan. Praille arek ulertu egian ainbeste oiur jaurtiteagaitik aspertuta, Martzel'ek bere itaunketa enparauko maien zear jarraitu eban, eta noizbait, jatokiko bestaldean jesarri zan apariari ekiteko.

Bitartean, euria gero ta lodiagoa biurtzen zan, eta jatokiko krisailluen izpi motelen artean, noizbeinkako iñusturiaren argi biziak, une batez dana beteten eban. Ezustean, iñusturi baten argi itsugarriean, Martzel'ek Aita Klobis'en begi gaztainakarak beragan untzatuta ikusi ebazan. Izango ete...? Bazirudien egun batzuk lenago atxillo egindako gazte arenak... Ezin, baiña, ezin zeitekezan praille gor kokolo aren begiak arrotzarenak baizen argiak. Ain zuzen be, iñusturiaren argi iratxokarak aurpegi-ien itxura antzaldatzen eban. Gero, lepokerrak lagundutako, ibillera kolokaz Aita Klobis otoi-suzmurren artean, zurubian gora goiko gela batera urrats neketsuaz abiatu zan. Lekaidea ostentzeko zorian zala, bere buruari iñotsan Martzel'ek, ikusmena moteltzen asten ez ete yakon, praille kokolo aregan len gazte baten begikada biziak ikusi uste izateagaitik.

Urrengo egunean goizerik, gosalduta gero Aita Klobis'ek eta Arnaut'ek, bideari ekin eutsuen barrero. Goiz ederra zan, eta gabeko euri-jasa lodieren ostean, zabalduak inoizkorik ederren zirudian eguzki beroak bizkortuta. Eurokandik ez urrun, artzak erraikioen ernai, ugazabaren aginduak beteteko gerturik.

–Aizu, Arnaut –galde egin eutsan Aita Klobis'ek–, noiz elduko gara Marzak'era...? Ain urrundik etorri ezketiño, ara sartzeko gero ta berantetsiago nozu.

–Nire ustez, biar gabean elduko gara, baiña uriko atea itxita egongo da urrengo goizalderarte.

–Eta biar arratsaldean elduko ba'gintzaz...?

–Orduan astirik galtzeke sartuko gintzakez.

–Arindu gaitez an ba biar arratsaldean urira sartzeko, Arnaut.

Andik laster, eta bideari ibillera biziaz ekiten eutsola, aspalditik jakin-gura andipean egoan Yanoz'ek,

–Aizu, Arnaut –itaundu eutsan lagunari–, Marzak'en izan gaitezanean, zelan lortuko dogu Dukearen entzunaldira joatea...?

–Lenago dalako entzunaldiaren gora-beera zeatzak artu, eta orduan gure egitas-moa atonduko dogu. Bestaldetik, ez deritxat ondo gure buruak or-emenka agirian ipinteari. Au dala-ta, etxe bat bizilekutzat artu bear izango dogu, eta orretarako Kirgis'ena, nire lengusu eltzegillearena aukeratuko dogu.

–Uste osokoa al-da, zure lengusu ori...?

–Bai, Aita Klobis. Biok umetarik alkar ezagutzen dogu, eta ni baiño zaarragoa izanik be, lagun-miñak izan gara beti. Ebanjelitarren lekaidetxera amak sartu ninduean, Kirgis lan-billa Marzak'era joan zan, eta maisu on batekin eltzegintza ikasi ondoren, bere kabuz lanean diardu orain, eta badirudi arazoak polito yoakozala. Nik Marzak'era joan bear dodanean, berak etxean poz-pozik abetaltzen nau, alkarrekiko uste ona ta ederrespena iraun-erazoz. Kirgis'ek ez ninduke munduko urre guztiagaitik be salduko, ez orixe...!

Bidariak isildu ziran, ibillera azkarrez iparrerantz zabalduan zear bideratzen zira. Eta olan erri ta baserriak saiestuz, baso-zelaietan gaindi, gabeko itzalak asi ziraneko, arizti usu baten lo egin eben, eta urrengo goizean bidegiteari ekin eutsuen ostera be.

Aurreratu-ala, barruti arek joan-etorri ta jendez beteagoa zirudian, eta bideak

nonai edatzen ziran erriak eta uriburua alkartzearren. Noizbait, eguzkia ostentzeko zorian zala, Marzak uriburura eldu ziran.

–Arindu gaitez, Aita Klobis –esan eutsan Arnaut'ek–, bestelan atea itxita aurkituko dogu.

Eta ozta-ozta ibai-gaiñeko zubia jaso izan zeiten aurretik, atea zearkatu eben. Zaindari batek, bidariak iraduz joiazala ikustean,

–Nora zoaz orren arin, aita...? –barrez esan eutsan–, Izan be, aparria ez galtzearen aizeari aurea artzeko...

Jaramonik egiteke, begirari maxiatzaillea atzean itzita, gure bidariak kalean gora abiatu ziran. Doi-doi kaleko lenengo biurgunetik galtzen zirala, lauazka bizian autso-odeien artean zaldun-talde bat uriaren atera eltzen zan, kate-kirrinken artean ibai-gaiñeko zubia atezaindariak jasoten asten ziranean. Aintzindaria Martzel zala ikustean, begirariak zubia beeratu eben, akitanar gudariak sartu zeitez. Ateko uztaipetik igaroten, Martzel'ek ate-zain nagusiari,

–Aizu, lagun –itaundu eutsan–, zeozer ez-oitua ikusi al-dozu...

–Ez, Jauna, dana berez joan da iñongo oztopo barik, eta lepoker batek lagunduriko praille bat oraintxe bertan, urrats ariñez sartu dala izan ezik...

–Lepoker batek lagunduriko praille bat ariñeketan diñozu... –oiu egin eutsan buruzagiak–. Ondo sartu daust ziria dalako praille denganiño orrek...! Danok Ebanjelitar Ikerle kokolo ta erbaltzat artu, eta berak gure lepotik barre galanta egin... Esan egistazu norantz jo dabe...

–Orko ezkerreko kale estu orretatik abiatu dira, orain miñutu erdi inguru.

Oiuka Martzel'ek zaldia zirikatu eban, eta zaldun-jarraigoa erraikiola, ate-zaiñak aipaturiko kalean gora lauazka bizian abiatu zan.

Egun aretan bertan, zaldiketa baten ostean Martzel'ek ostatuan bazkaltzen ziar-duala, azterlari bi sartu ziran, eta artez-arte Martzel'egana joanda, onek,

–Zeozer ikusi al dozue...? –itaundu eutsan–.

–Gauza andirik, ez, Jauna –azterlarietako batek erantzun eutsan–, betiko jendea batetik bestera joiala, baiña... egon apur bat... Gauza barregarria ikusi dogu Arzak ariztian zear giñoazala. Lepoker batek lagunduriko praille zaar bat, gazte askok zor bear izango leuskioe arintasunaz Marzak'erantz joian...

Tximista lakoa jagi zan Martzel, eta oiubizitan an egozan gudari guztiai, zaldiak gertuteko agindu eutsen. Bai... ezustean, irudimenera aurreguneko praillearen begiak etorri yakozan, eta zarrastada andipean, egun batzuk lenago atxillo egindako euskaldun arrotzarenak zirala begitandu yakon. Bai, gero ta ziurrago sentitzen zan, eta astirik galtzeke orduko gerturik egozan bere gudariekin iparrerantz abiatu zan, bidean zear ekusan jendeari praille bateri buruz itauntzen eutsala. Ezpaibarik, praillea ta lepokerra Marzak'era joiazan, eta augaitik, zaldiak etenbarik zirikatuz, ozta-ozta lagun biek uriburuko atea zearkatzen ebenean, jazartzailleak eldu ziran.

Gautu izan zan Yanoz eta Arnaut onen lengusuaren etxerantz bideratzen zirane-

an. Kantoietan jarritako krisailluen argi kolokapean, kalea nekez igarten zan. Alako baten, atzean itzitako kale-okergunetik, didarrek uiaturiko zaldien lauazka ariña aditu zan. Biotz-ikara bakan batek menperatuta, Arnaut'ek Yanoz alboko atepeko batera bultzatu eban, eta biok an zapalduta, arrapalada bizian igaro zan zaldun-taldea ikusi eben. Zorionez, illunpetan egoan kalea, eta gudarien ebakun ezabatsuak laster galdu ziran kalean gora. Une labur batez, gazte biek Martzel'en irudi motela ezagutu eben, eta suzmo txar batek jota,

–Aita Klobis –abopean esan eutsan lepokerrak–, gure billa doazelakoan nago. Au irudikeritzat artu daiteke, baiña zerbaitek zalantza gorrian jarten nau. Goazen isillik eta astiro, iñork ikusi ez gagizan.

Andik laster, kale ziztrin batera eltzean, okertu, eta Arnaut'ek ate bat jo eban. Luzaro barik, norbaiten urratsak entzun ziran, mintzo batek auxe itauntzen ebala:

–Nor da or...?

–Arnaut naz, lengusu Kirgis. Edegi egistazu atea lenbailen.

Giltz batek morroilloa eragin eban, eta krisaillu baten argipean ogei ta bost urte inguruko gazte baten aurpegi atsegiña agertu yakon auxe iñoala:

–Kaixo, Arnaut, aspaldiko...! Dirudianez, Ebanjelitarrek laguntzailletzat artu zaitue. Baiña sartu zaitez, eta ongi-etorriak.

Lagun biak sartu ziran, eta andik laster, bide-zorroko janariaren ondakiñak mai baten gaiñean ipiñita, Kirgis'ek ekarritako ogi ta ardoaz irurok apaltzeari gogoz ekin eutsoen. Asi aurretik, ain luzaro lekaidearena egiñez nekatuta egoan Yanoz'ek, Ebanjelitarren janzkia kendu, eta bere oiko soiñekoaz jantzi zan auxe iñoala:

–Aita Klobis ostendu egin da betirako.

Ebanjelitar praillea Yanoz txairo ta sendoa biur-tuta ikustean, Kirgis'ek abo zabalik begiratu eutsan, jazoten zana ulertu eziñik. Bere lengusuaren arritasuna ikustean, Arnaut'ek lekaide-janzkiaren zergaitia ta igarotakoaren barriak emon eutsazan. Amaitzean, Yanoz'ek,

–Aizu, Kirgis –esan eutsan–, zuk eta Arnaut'ek laster jakingo dozue Marzak'era nire etortzearen zergaitia, baiña orren aurretik, Kirgis, jakin gura dot ni laguntzeko gerturik zagozan ala ez. Aurrera joan baiño len, esan bear dautsut Konte Baltza'ren etsaia nozula, eta berak gorroto daustala itzalieziñeko amorruz. Eta au jakinda, nire adiskidea dana, arrisku gorrian dago aren aalmena andia dalako. Augaitik, beraz, ez dozu iñongo bearkizunik nire alde jokatzeke, eta ezelako erabagia artu baiño len, leporatu dagikezun ezbearra aintzakotzat artu dagizula nai dot. Ezetzkoan, Arnaut eta biok etxe onetatik alde egingo dogu, beste iñora joateko.

Ona elduta, Yanoz isildu zan, eta une batez oldozkor iraunda gero, Kirgis'ek,

–Aizu, Arnaut –bere lengusuari zuzenduz–, zer deritxazu orreri...? Gure lagun barriari laguntzeko, gerturik al-zagoz...?

–Bai, Kirgis. Niketz gerturik nago berari laguntza emoteko. Badira zenbait egun alkarrekin bizi izan garala, eta izan be, gero ta maiteago dot. Barruko zerbaitek badi-

ñost gure adiskide ori zuzentasunaren alde aalegintzen dala, eta bere isilpea berarentzat bakarrik gordeten badau be, nire uste osoa beragan jarri dot. Onezaz gaiñera, Kirgis, ez aztu Konte Baltza gure lurraldeko zigor eta madarikaziño gorria dala. Ni ume nintzala, ezerezkeri bategaitik nire aita urkatu eban, ama ta biok zoribakoak biurturik. Ordua da, zuzentasunaren alde zeozer egin dagigun.

–Izan be, Arnaut –mintzo irmoz esan eban Kirgis'ek–, diñostazunak orain arteko zalantzak eta bildurra uxatu daustaz. Zurekin datorren gazte arrotz orren alde, beraz, aaleginduko naz.

–Eskerrik asko, Kirgis –mintzo unkituaz esan eutsan Yanoz'ek–, baita zuri be, Arnaut maite ori, zure laguntzarik bage ezin neintekean onaiño eldu-ta.

Orduko, aparía amaitu izan zan . Yanoz'ek bere baitan bilduta iraun eban une batez oldozkun sakon bateri emonda, eta noizbait,

–Aurretik jakin gura dot, Kirgis, Dukearen urrengo entzunaldia noiz izango dan.

–Entzunaldiok, illeko azken barikuan ospatu oi dira. Augaitik ba, urrengo batzara etzi arratsaldean izango da.

–Zelan sartu naiteke dalako entzunaldira...? Zelako baldintzak bete bear dira...?

–Entzunaldi orreitara edonor joan daiteke, Undobika Dukearen Jauregiko sarrean emoten diran berunezko txanpon edo ezaugarri baten bidez. Berunezko ori erraza da jaristea, Konte Baltza'ren aldekoa izan ezker; ostantzean ez da sartzerik. Bertran Kontea'k bere lagunak nonai jarrita daukaz, eta jauregiko zaindariak bere aldekoak dira.

–Baiña batzar orreitara doazenen artean, ez al-da iñor Konte Baltza'ren geiegikeri ta okerkeriak salatu dagiazan...?

–Ez da iñor orretara azartu daitenik, bere burua galduta ikusi nai ez ba'dau. Onezaz gaiñera, Bertran Kontearen gogokoa ez danari, ez yako esandako txanponik emoten.

–Aizu, Kirgis –esan eutsan Yanoz'ek–, zelan edo alan, dalako berunezkoa lortu bear dot.

Kirgis'ek buruari atz eginda gero,

–Ez dakit ba... –esan eutsan–. Biar arazoari begiratuko dausat. Urrundik etorteko dan nire senitarteko batentzat txanpon ori bear dodala, jauregiko zaintzakoai esango dauset.

–Begira, Kirgis –ontzurreen katanarrua mai-gaiñean ipiñita, esan eutsan Yanoz'ek–, diruagaitik, sartzeko txanpon ori jaritsi barik ez bedi geratu.

Kirgis'ek arituta ezin egikeazan begiak kendu diruketa aretatik, bere bizitzaldi guztian urrezko bat bera be oso gitxitan ikusi izan eban-eta.

Onen ostean, eta oera joan aurretik, urrengo egunetan Yanoz agirian azaldu ez zeiten abo batez erabagi zan. Jarraian, Kirgis'ek alboko gela batera etorri barriak eroan, eta lastamarraga bana erakutsirik, danok oeratu ziran.

Urrengo goizean, Yanoz eta Arnaut oraindik lotan zirala, Kirgis jagi eta gosari

ariña artuta, Marzak'eko kaleetan zear Dukearen jauregira bideratu zan. Itxaron bear izan eban, sarreran egoan zaintzategia edegi zeiten arte, eta orduan idaztegi sartuta,

–Egunon –esan eban–.

–Baita zeuri be –idazkariak erantzun eutsan–. Zer nai dozu, gazte...?

–Biarko entzunaldirako, nire senitarteko batek txanpona bear dau.

–Zergaitik ez dator bera orren billa...?

–Ara... Biar arratsalderarte ez dau etortzerik, zeregin batzuk eragozten dautsoelako, eta augaitik, berarentzat berunezkoa lortu dagidalako mezua bialdu daust.

–Ezin dagikezut emon. Berbera etorri ezean ez dago txanponik. Niri emondako agindua auxe da-ta.

Kirgis'en etsipenezko itxura ikustean, auxe eratsi eban:

–Gizon garrantzitsu baten eskabidearen bitartez be, emon legikio txanpon ori zure senitartekoari.

–Zelako bitartekoa izan bear...?

–Erriko agintari, edo gudarosteko buruzagiren bat.

–Nik uste neban, edozeiñeri emon legikiola, nire senitartekoak eskatzen dauana erritar guztien eskubidea dalako.

–Olan izango da, urrean, baiña agindu yatana bete bear dot.

Atsekabea nekez menperaturik, Kirgis'ek alde egin eban. Alako baten, Dukearen jauregian noizgura sartzeko aalmena eban salerosle baten izena burura etorri yakon, eta beste barik aren etxera abiatu zan. Dalako merkatariak bustiñezko eltze ta beste ontziak erosi oi eutsazan, eta artu-emon oneik zirala-ta, bear izaten ebana emongo leuskio, urrean. Joan zan onen etxera ba, eta emen jakiñerazo eutsoen, urrengo egunerarte kanpoan zala. Eguberdia zan orduko, baiña naigabe bizipean Kirgis'eri ez yakon bururatu otordua zanik, eta jauregi-aurreko enparantzako arrizko aulki baten jesarrita, urtenbideren baten billa asmamenari ekin eutsan. Izan be, zelan biurtu etxera esku-utsik, eta zelako atxakia emon ain urrundik etorritako arrotz gazte areri...? Oldozkun larri oneitan murgilduta, eltzegilleak jesarrita zirauan zer egin ez ekiala. Orduak, baiña, aurrera joiazan, eta arratsalde-erdia egin zan, bere asmotan iñongo aurrerapenik egiteke.

Alako baten, lurrean josita ebazan begiak jaso, eta aurrean "Sugeliñ" eritxan erriko mutil arlotea ikusi eban. Erriko eskale ta bearrian utsaz arrapatari itzela zan mutiko au, Marzak'en danek ezagutzen eben, eta orratz baten zuloan zear sartzeko gai ei'zan. Ez eban gurasorik ezagutu, ezta babestu egian iñor be, eta or-emenka bere aukerari bizi zan, esku-elmenera etorkiona trebetasunik andienaz arrapatuz. Uriko auzunerik apaleneko zaldi-korta baten lo egiten eban neguan, eta udan edozein txokotan. Soñez txiki ta erkiña izanik, edozein zuloetatik igaroteko gai zan bear izaten ebana ebasteke sugelinda baten malgutasun eta isiltasunaz. Gaitasun augaitik, Marzak'en "Sugeliñ" ezizenaz ezagutzen eben mutiko errukarri au. Aurpegi zimel, erkinduan, begi bizi baltzek begitarteari itxura ernai bereizia emotsoen, beti gose danarena, alegia.

Une aretan "Sugeliñ" urreratu yakon, eta itxura gosetiz,

–Aizu, Kirgis –eskatu eutsan–, ez ete dozu niretzat sosen bat ogi-zati bat erosteko...?

Izan be, Kirgisiek erruki andia eutsan mutikoari, eta geienetan txiñen bat emon oi eutsan. Alako baten, tximistaren antzera burutapen bat etorri yakon eltzegilleari, eta jakepeko zizkutik ontzurre bat atararik,

–Ikusten al-yok urrezko au, Sugeliñ...? Ara... eurea izango dok, nire alde zozer egiten ba'yok.

–Ene bada...! –oiu egin eban Sugeliñ'ek– ez dot egundo be olako txanponik ikusi. Zer ete da...?

–Ontzurre bat dok au, eta izan be urtebeteko ire gosea kentzeko lain.

–Zer nai dozu nigandik...?

–Ara... ikusten al-yozak an, Dukearen jauregiko sarreran yagozakan dorretxu biok...? Eskumakoa zaintzarena da, eta ezkerrekoa idaztegiarena. Bigarren onetan, idazkariaren mai-gaiñeko kutxatxu baten berunezko txanponak yagozak, eta oneitari-ko bat niretzat arrapatu yaian nai yoat, eta orretarako dorretxuaren orman gora igon egingo yok, ango leiatillaraño, eta...

–Ori erraza da, Kirgis –eten egin eutsan Sugeliñ'ek– baiña idazkariak ikusiko ba'nindu...! Lengo egunean, aren ogitartekoa ostutearren leiatillatik sartu nintzan lo egoalakoan, baiña ozta-ozta bere amaiketakoaz jabetzen nintzala, ikusi ninduan, eta arrapalada baten igondako lekutik jatsi bear izan neban, aren didarrak enparantza guztian aditzen zirala...

–Ori ta guzti, baiña, ez enduan galduko ogitartekoa, eztok...?

–Bai zera...! Sugeliñ'ek arrapaturikoa galtzerik ez.

–Entzuidak ondo ba, Sugeliñ, arririk-arri dorretxuaren orman gora leiatillaraño eldu aitenean, zelan edo alan, idazkariaren arreta erakarriko yoat, eta orduan iñork ikusi ez aian, berunezkoa artuta, ementxe bertan alkar ikusiko yoagu. Ulertu...?

–Bai, Kirgis, ekiogun ba arazoari.

Orduko, zerbait illundua zan arratsaldea, eta dorretxuko arririk-arri Sugeliñ'ek erraztasun arrigarriaz gorantz egiten eban. Leiatillara eltzeko zorian zala, Kirgis dorretxuko idaztegiara abiatu zan, eta onen sarreratik,

–Aizu, lagun –idazkariari jaurti eutsan–, ezin izan dot zuk eskaturiko bitarteko-rik idoro, baiña nire senitartekoak bear dauan ezkerro, emoistazu berunezkoa.

–Len esan dautsut, baiña, orretarako bete bear dozun baldintza.

–Ez dot iñongo baldintzarik bear, ori edozein erritarren eskubidea dalako. Emon egistazu, beraz.

–Alde emendik, bestelan...!

–Ez naz joango, nire eskubidea da-ta...!

Asarraturiko idazkaria ateraiño joan zan, eta zaintza-gudariari,

–Bota gizon au kanpora, eta jarkitzen ba'da, atxillo egizu...!

Orduan Kirgis didar bizitan onetaraxe asi zan:

–Ez naz joango, zital alenok, azal-utsok, Akitani'ko lege-ausle madarikatuok...!

Bitartean, idazkariak eta zaindaria jakarturiko, Kirgis'ek atzera egiten eban didar egiteari laga barik, eta noizbait, bildu izan zan jendearen artean ostendu, eta lengo arrizko aulkian jesarri zan. Une aretan Sugeliñ agertu, eta,

–Idazkari papao a zurekin eztabaidan zala, erraza azaldu yat dalako txanponaz jabetzea –esan eutsan–. Eutsi, Kirgis.

Poztasun neurribakoaz berunezkoa artu eban, eta Sugeliñ'eri ontzurrea eskuratu eutsan auxe iñotsala:

–Eutso, Sugeliñ. Urrezko onen bidez urte osoan zear ostu barik bizi izango aite-ke. Orain agur, eta ez iñori esan gero, jazorikoa.

Zoriona ezkutatu eziñik, illuntzeko itzalen artean kale estu biurrutan zear, Kirgis etxera biurtu zan. Bere lagunek nasaitasunezko oarpenaz artu eban, orduko berante-ksiak egozan-eta, orduak aurrera bajoiazala egiztazean, eta Kirgis'en zantzurik ez. Poz-pozik apaldu eban irurok, eta laster erabagi zan urrengo eguneko egitekoa, auxe zana alegia: bazkalduta gero, akitaniar kapelaz eta baserritar soingaiñeko baten pean, Yanoz'ek bere euskal janzkia ezkutatuko leuke, eta edu onetan iñoren suzmoak irat-zarri barik, entzunaldira joango litzake, eta gero... Gai onetan Yanoz'ek ez eutsen ezetariko argibiderik emon gura, eta bere lagunek bein eta barriz arrenkatu baeutsoen be, ezin izan eban itz bat bera be jaritsi aal.

Pozik be pozik oeratu zan Yanoz gau aretan, bere aita zanaren agindua beteteko garaia eldu izan zalako. Biaramonean, urteetan zear ames egiñiko eretia aurkeztuko litzakio. Aitaren azken-naia betetearren bere gaztaroaren onena jarri izan eban bere aberria onik atarateko, eta Eneko Aritza, euskal buruzagi zangarpean, Naparra'n erre-iñu iraunkor bat sortzeko. Eta onen ostein Undaitz'eko gaztelura biurtuko litzake, Auñamendi'ko bazter zoragarri aretan bere leiñuari jarraipena emoteko. Egunen baten, Lakarri'ko Oiane zoragarria Undaitz'eko etxeoandrea billakatuko ete...? Ai, olan ba'litz...!

Urrengo eguneko bazkalostean, Kirgis'ek eta Arnaut'ek Yanoz'en akitaniar janz-kiari azken atonketak emotsoezala, kalean gizatalde baten urratsak aditu ziran, eta ustekabez, atea jo eban, oi bizitan auxe aditu zeitekeala:

–Edegi egiskuzue atea Undobika Dukearen izenean...!

Didar aren nortasuna bereala ezagutu eban Yanoz'ek. Martzel buruzagiarena zan...! Aita Klobis iñongo praillea ez zala, euskal arrotza baiño jakin ebanean, zelan edo alan atxillo egingo leukela bere buruari zin egin eutsan. Euskaldun arrotza ta onen laguna Arnaut, baiña, lurrindu izan ziran, eta bere azterketak arren, Ebanjelitar eta lepokerraren zantzurik iñon ez. Buruari eragin eta eragin, Martzel ondorio onetara iritxi zan: janzki edo mozorro baten bidez praille bat itxuratzea erraza zan, baiña lepoker bat gizon osoa biurtzea eziñezkoa. Au dala-ta, bere aalegin guztiak Mar-

zak'eko lepoker guztiakan jarri ebazan, baiña azterpen eta itaunketa zorrotzak egin ondoren, uriburu aretako konkordun guztiak alde batera itzi bear izan ebazan.

Alako baten, baiña, buztinlarien kalean bazala lepoker lengusua eban eltzegille bat, erritar batek salatu eutsan. Astirik galtzeke, gudari batzuk artuta, Martzel aipaturiko etxera joan zan. Orain, baiña, bide zuzenetik joiala, baiñotsan oarpen ezkutu batek.

Atea jo ebanean, Yanoz'ek aitaren ezpata astuna artuta, burrukan egiteko gertatu zan. Kirgis'ek, baiña, besoari oratu eutsan, eta abopeka,

–Geldi zaitetz eta zatoz nirekin atzekaldera –esan eutsan–, Emen, leio baten zear iges egin dagikezu iñork oartu barik. Aalik ariñen abia zaitetz, jauregiko entzunaldirako ordua da-ta.

–Eta zuek biok...?

–Nasaitu zaitetz, onik urtengo gara estualdi onetatik-eta. Gaiñera, ez dago beste biderik orixe baiño. Arrapatzen ba'zaitue zure asmoak bein betiko pikotara joango dira. Arindu zaitetz, arren...!

Kirgis'ek leio bat edegi eban, eta urteten lagundu eutsan. Onen ostean, leioa barriro itxita, atera biurtu zan, eta kanpoan egozaren oiui onetaraxe erantzun eutsen:

–Banoa, lagunok, banoa, astirik emon egistazue, baiña, giltza idoro dagidan, beintzat...!

Etxarte estu ta isil baten zear, Yanoz urrats ariñaz aldatz-gora abiatu zan. Aserre bizian joian baita kezka andipean be, atzean lagatako lagunai jazo leitekiegaitik. Aturri ibaia zearkatu ebanetik, ez ebazan jazarpen eta erasoak baiño ezagutu, eta bazirudian Akitani'rako bere bidaia Zoritxarraren patuaz marratua zala. Elmugatik ur egoan onezkero eta ez ekian zein beste oztopo etorri leitekion, baiña bearrezkoa izatekotan, burrukan asiko litzake bizitzaren alde.

Dukearen jauregiko atezaiñari berunezkoa erakutsi eutsan, eta beste barik barrura sartu zan. Emen, areto andi eder bateraiño morri batek lagunduta, olezko aulki luze baten jesarri zeiten agindu eutsan. Adiñeko gizon bat, eta alboan amar bat urteko mutikoa eban emakume bat, jesarrita egozan orduko. Andik laster, beste gizon bi sartu, eta euren ondoan egokitu ziran entzunaldiaren begira.

Aurrean, aretoko bestaldean besaulki batzuk egozan, onein artean erdikoa bereizten zala, eunezko sabai ta zur-lan ederrez apainduta. Dukearena zan, urrean, eta albokoak dukerriko andikientzat. Guztiz, bost besaulki zenbatu ebazan Yanoz'ek. Aretoko ezker-eskumaren luzeeran aulkiak ikusten ziran, etxeko jendearentzat, baita jauregian kokatzen ziran Dukearen aide ta lagunentzat. Sorua, ondo landutako arlas-takaz estaldua zan, eta ormetan brontzezko krisaillu ta argi-mutil antzetsuak bereizten ziran.

Noizbait, alboko aulki luzeak jauregiko jendeaz eta Dukearen lagunakaz beteten asi ziran, eta alako baten, aretoko erdian jarrita, tronpetari batek joteari emon eutsan. Amaitu ebanean, alboko ate batetik gudariakaz inguratutako jarraigo apaña sartu zan. Gudariak aretoko luezeeran erreskada bitan zutunik eta geldirik geratu ziran, eta

orduan Dukea ta bere lagunak besaulkietan jesarri ziran. Alboko mai txiki baten ondoan, idazkaria egokitu zan, gertatzeko ziran gora-beerak idazteko.

Yanoz'ek ezin egikeazan Dukeagandik begiak kendu. Izan be, Undobika gizon ikusgarria zan, bai soiñez bai azkaiaz. Bere jantzi ederpean gorputz garai ta indartsuko gizasemea iragarten yakon. Irurogei ta bost urteko gizon lerdena zan, eta burestun azpitik uleak parrastaka urteten yakozan zuritasun osoan, ondo ebagitako bizarra lez. Agintzari oitutako nagusia zirudian, eta aren igikun eta keiñu guztiak urentasuna erien. Ezin egikean Yanoz'ek bere aurpegiaren karantza ondo ikusi, urrun samar egoalako, baiña soiñaren azkaiaz aren baten ibilliko litzakela gauza ziurra zan.

Isiltasun betearen artean, Undobika Dukeak idazkariari keiñu bat egin eutsan, eta onek zutundurik,

–Aurreratu bedi lenengoa...! –oiu egin eban.

Orduan, jesarrita egoan gizon bat zutundu zan, eta aretoaren erditik abiatuta, Dukeagandik iru bat metrora begirunez beterik gelditu zan. Berrogei urteko inguruko gudari-itxurako gizon lerdan a besamotza zan. Gelditu zanean, izen-abizenak eta nongoa zan azaldu eban, eta jarraian, Dukeak aginduta itz egiten asi zan onetaraxe:

–Begira, Duke Jaun txit agurgarria: Milaun'go burrukean, britaindarrak gure gazteluaz jabetu ez zeitez, talde txiki bat ibai-gaiñeko zubian kokatuta, etsaiari aurre egin geutsan, eta augaitik gaztelua gaizkatu zan...

–Orduan –eten egin eutsan Dukeak–, Milaun'go zubiko gudaritariko bat izan zintzazan...? Gure erriak zor andia dautsue, zuen adoreari esker, burrukea irabazi gendualako. Jarraitu edeskiari, arren.

–Zubiko burrukea gure alde amaitzeko zorian zala, britaindarren gezi batek ezkumuturra zearkatu eustan. Andik egun batzutara kutsuturiko zauria usteldu egin yatan, eta ezinbestez besoa galdu neban. Ebakuntzaren ostean, lanaren billa asi nintzan, baiña besamotz izanik, ez ninduen iñon onartzen. Berrizan utsaz gosez ez iltearren, eskean ibillia nozu aspaldi batez, baiña orain asko ez dala, gudari-lagun batekin alkarrizketan nintzala, jakiñerazo daust, zeuk Duke Jaunak, agindu bat emon zenduala, Milaun'go zubian burrukan egin ebenak, ekintza aren ordaiñez begirunerik andienaz erabilli izan zeitez. Augaitik ba, Duke Jaun Txit Agurgarria zugana nator, ez eskupekoren billa, jardun baten billa baiño, auxe da-ta nai dodana.

Isildu zan gudaria, eta orduan Undobika'k,

–Asko zor dautsegu Milaun'go zubian Akitania'ren alde ekin ebenai –esan eban–. Idazkariak arazoari ardura emon dagion, eta gudari onek esanikoa egia azalduko ba'litz, gaztelu onetan bertan jardun eroso emon dakiola.

Idazkariak Dukearen erabagia idatzita gero, auxe san eban:

–Auzia erabagi da, erabagi. Orain urrengoa aurkeztu bedi.

Yanoz'en alboko emakumea mutikoaren eskuari eutsita, ibillera erabetiz Dukeaganaiño aurreratu zan. Agiri zan emakume aren urduritasuna, burutik oiñetariño dardar baten egoan-eta. Izena, bizilekua etab. lotsaren-lotsaz ulerteziñak azaldu ziran.

–Emakume –esan eutsan Dukeak maitasunez-, ez zaitez larritu, eta kontuan artu zigorra artzeko ez zagozala emen, oroz gain zuzentasuna egin daiten baiño, eta izan be, merezi dozuna emongo yatzu. Asi zaitez ba, zure arazoa bildur barik agertzen.

–Ara ba, Duke Jaun Txit Agurgarria –nasaia go asi zan emakumea–, orain amar urte-edo, gizon batekin artu-emonak izan nebazan, eta onein ondorioz azur barritan billakatu nintzan. Dalako gizonak ezkontitza emon eustan, baiña andik laster alde egin eban, bakarrik izten ninduala. Seiña jaio ta laster, bearrizan utsaz neskametzari emon bear izan neutsan, aal neban eran, nire umea orretarako eragozpen andia zan-eta, baiña izan be, eginkizunik zantarrentzat banebazan aukerak. Bizikera onetan amar urte emon dodaz, baiña nitzaz aztu zan nire semearen aita, orra or lengo egunean agertu yatala, semea niri kentzeko asmotan.

Ona elduta, emakume gaixoak negarrari emon eutsan, eta orduan,

–Ez zaitez larritu, emakume –esan eutsan Dukeak–, jarraitu aurrera.

–Ara ba... Amar urte orreitan, dalako gizona emakume naikoa aberats batekin ezkondu zan, baiña urteak joan urteak etorri, ez dabe umerik izan. Orduan, gizon orreri otu yakon, amar urte lenago jaioriko seme bat baekuala, eta ezagun aaltsuen bidez semea kendu egin gura daust. Olako zitalkeririk jazo ez daiten, Duke Jaun Txit agurgarria, zugana nator, nire eskubideai zuzentasuna egin dakien.

Une batez isiltasun osoa edatu zan aretotik, Undobika Dukeak gogoeta sakonai emoten eutsela. Noizbait, mintzo errimez,

–Emen al-da mutiko orren aita...? –itaundu eban Undobika'k– Olan ba'litz aurkeztu dakidan.

Yanoz'en alboan jesarrita egoan gizon apain batek urrats irmoakaz aretoa zearkatu eban Undobika'ganaiño, eta zutunik geratu zan. Izan be, artobero usaiña erion eta bere burua ederresten dakien orreitarikoa.

–Aizu –itaundu eutsan Dukeak–, mutiko orren aita al-zaitut...?

–Bai, Duke Jauna, eta nire itza naikorik ez ba'litz, emakume orrek berak olan autortu dau.

–Maite-maite ete dozu seme ori...?

–Ez dot maite izango ba...? Olan ez ba'litz ez neuke semetzat artu gura izango.

–Zelan ez yatzu bururatu orixe bera orain amar urte...?

–Begira, Jauna, iskillio-zerbitzuan jarduna nozu luzaro samar...

–Eta jardun orrek amar urteotan zure seme maite-maitea ikustea eragotzi ete dautsu...?

–Badakizu, Duke Jaun Txit Agurgarria, gudari zintzo batentzat aberria zer dan...

–Akitania'k gudari onak bear dauz benetan, baita gizon onak be. Ez dakit gudari ona izan zaran ala ez, baiña gizon ona ez zareana ziurtzat daukat. Zu atsegín-une batez soillik mutiko orren aita izan zara, eta berbaturikoa autsita, ama-seme orreik ez dozuz gogoan izan. Aztutako ama gaixo orrek, semea onik atarateko, istillu gorriak jasan dauz, izan daitekezan jardunik iguingarrienai emonda. Eta ez une batez baka-

rik, amar urteko une guztietan, gau ta eguneko aalegiñetan, gizon zital baten ardura-bakotasuna ta berekoitasuna ordeztzeko. Eta oraingo zure ezkontzaldian semerik izan ez dagikezun ezketiño, aztutako, lagatako emakume zintzoari, benetan maite dauan gauza bakarra kendu... Ez orixe...!

Isiltasun itzelak jarraitu eutsen Dukearen azken itzoi, eta gogoeta laburraren ostean, Undobika'k onetaraxe jarraitu eban:

–Auxe da, beraz gure ebazpena: emakume orrek semea betirako gorde dagiala, eta bere erriko nagusiak, nire izenean bearrezko laguntza emon dagiola. Eta zu –gizonari biurtuz esan eutsan–, alde egin lenbailen emendik, eta egunen baten zure asmo doillar ori aurrera eroan nai dozula jakingo ba'neu, espetxera sartuko zaitut.

Orduantxe idazkariaren abotsa aditu zan auxe iñoala:

–Auzia erabagi da erabagi. Aurkeztu bedi urrengoa.

Itzok entzutean, latz-ikara batek Yanoz artu eban. Noizbait, ain luzaro irrikaturiko une gorena aurkezten yakon, eta barruko zerbaitek une batez elbarri itzi eban. Amar urte luzeetan zear ames egiñiko eretia azkenean etorten yakon, bosteun kilometroko bidai luze, arriskutsua atzean itzita gero. Zauskada batek astinduta, josita lez auklian zirauan. Orduan idazkariaren abotsa, barriro:

–Aurkeztu bedi urrengoa...!

Une aretako larritasuna garaiturik, Yanoz tximistaren antzera jagi, eta ibillera irmoz aretoan zear abiatu zan. Onen erdira eldu zanean, ikusle guztien arritasunaren pean, erabillezan baserritar soingaiñeko ta kapela kenduta, basoillarraren lumakaz apaindutako txanoa buruan jarri, eta aita zanaren ezpatea saietsetik dilindan, Undobika'gana joan zan. Orkatzezko naruz jantzirik Yanoz'en itxura lerden, eder eta indartsuak zauskada esan-eziña ikusleakan sortu eban, danok abo-zabalik begizatzen ebela, gazte arrotz lerden a nondik sortzen ete zan euren buruai itauntzen eutsiela. Dukeagandik ur samar zala, gelditu, eta begirunez baita maitasunez be, begietara so egin eutsan.

Biotz-ikara bakanak artuta, Undobika'k ezin egikean gazte arrotz aregandik begiak kendu. Bere alaba zanaren Yunilde zoragarria gizon antzaldatuta ekusala iruditzen yakon, aspaldiz itzaliak ziran aren begi eder argitsuakaz begiratzen eutsala. Asiera baten, amesetan izango ez ete bere buruari itaundu eutsan. Baiña ez, eta gero bere burujabetasuna irabazita, dardar baten jagi zan, eta mintzo kolokaz, auxe itaundu eutsan:

–Esan egistazu, gazte arrotz orrek, nor zara, nondik zatoz...?

Orduan, Yanoz'en abots errimean onetaraxe aditu zan:

–Yanoz, Auñamendi'ko Iroz'en semea naz, Undaitz gazteluko nagusia izan zanaren semea. Naparra'tik natortzu, eriotzaren orduan aita emon eustan mezua zuri jakiñerazoteko...

Une aretan bertan, Undobika'ren ondoan egoan zaldun bat jagi zan, eta mintzo zakarraz, Yanoz'ek iñoanari eten egiñez,

–Guzurra...! –aurpegia gorri eginda jaurti eban–. Iroz'en seme ori aspaldiz il zan, Neronek ondo dakit ori, Auñamendi guztian iñork ez dau aren zantzurik artu amar urteotan-eta. Undobika, Akitani'ko nagusi agurgarria: aurrean dozun gazte arrotz ori, okerrenetariko gaizkillea dozu, eta ona baiño len, makur itzelak egin dauz.

Gizon aren itzak entzuten asi baiño ez, latz-ikara baten menpe, Konte Baltza zala oartu zan Yanoz. Bai, Undaitz'eko gezi-leio aretan zear entzuniko abotsa ez leuke iñoiz aztu egingo. Ereti aretan, mintzo arek bere aitari Eneko Aritza'ren bizilekuaren zeatzak eskatzen eutsazan, eta Iroz'ek emon gura ez ebazan ezkerero, bere aita itsutu egian Ganix etoiari agintzen eutsan. Amar urte luze igaro ziran ordutik, baiña beste eun urte igaroko ba'ziran be, ez leukean iñoiz abots aren doiñua aztu egingo. Orduan, iltzaille aregana biurta, mintzo salatariaz,

–Konte Baltza –esan eutsan–, azkenean soñez ezagutzen zaitut, eta areto onetan dagozan guztien aurrean, Iroz, nire aitaren iltzailletzat salatzen zaitut...

Konte Baltza zutunik egoan, eta onen aurpegiak mutilleganako gorroto itzungieziña erakusten eban. Begiai asarrezko txinpartak eriezala

–Iñoiz ikusi ez ba'nozu –bota eutsan–, zelan dakizu nor nazan...? Orra or, zure guzurraren egiztapena.

–Egia da orain arte ez zaitudala ikusi –erantzun eutsan Yanoz'ek–, baiña anai bikiak ziran nire aitaren beitzain arein saldukeriaren bidez, zeu Undaitz'eko gazteluaz jabetuta gero eizatik biurten nintzala, etxeko artzain batek jakifiñaren gaiñean ipiñi ninduan, eta orduan gaztelu-inguruan zetzan luebagian zear, gezi-leio batetik zaurituta egoan nire aita ikusi neban, eta zu nire ikusgunetik-at egon arren, argi ta garbi entzun neban Ganix etoiari agintzen zeutsanean, burdin gori batz nire aita itsu biurta egian, Eneko Aritza non egoan autortu nai ez eutsulako. Orduantxe, gezi batz neronek Ganix etoiari idunea zearkatu neutsan, beste saldukeririk egiteko gai izan ez zeiten. Gero, zuek bildurak jota ni arrapatzearen gaztelutik urten zintzazenean, iskillonen aretora joanda, aita eta biok iges egin genduan, eta artzain baten laguntzaz, onen sarobera aita eroan neban. Zuk baiña, gaztelura sartu zintzazenean, iskillu barik eta jarki ezin zeitekean nire aitari eraso zeutsan zauri txar bat egiñez, eta kutsadurak artuta, zenbait egun geroago, Undaitz gazteluko nagusia nire besoetan il zan. Baiña onen aurretik, Akitani'ko nagusia dan nire aitarentzat, onen alaba Yunilde'kin nire aita ezkondua zan-eta, mezu bat emon nengion agindu eustan, baldintza batz, baiña: mezuarekin aititagana ez joateko, bere ezpatea esku bakar batz jasoteko gai izan arte.

Onaño elduta Yanoz isildu zan, eta gerrikotik errubidun ezpata astuna atara ondoren, onen muturra soru-gaiñean jarrita, esku bakar batz luma bai'litzan jaso eban, eta jarraian beste eskuaz bardin. Aretoko isiltasuna osoa zan, baiña ekintza bikotxa amaitu zanean, ikusleak oi ta goraka asi ziran Yanoz'en indar eta erakarpenak irabazita. Une aretan bertan, biotzaren eragintzari aurre egin eziñik, Undobika Dukeak besarkatu eban auxe zirautsala:

–Yanoz, nire billoba maite ori, iru gizon bakarrik gai izan dira ekintza ori egite-

ko: Nerau, gero Iroz zure aita, eta orain zeu, nire leiñukoa zaran ori. Aita zana baizen indartsua zara, eta ori agirian ipiñi dozu, Yunilde nire alabarekin ezkondu zanean, zure aitari esku-erakutsizat emon neutsan nire ezpata ospetsua, esku bakar batz jagitean. Bada beste gauza batek oroz gain nire leiñukotzat bereizten zaituana, eta auxe alegia: begietan dozun Yunilde zure amaren argitasun bardinbakoa.

Guzti au gertatu bitartean, danek aztutako txoko baten egoan Konte Bertran'ek, ezin egikean bere lotsa ta gorrotoa jasan. Zeozer eta arin egin bear, bestelan txarto ikusiko leuke bere burua. Abotsaren indarra aalik eta geien goratuz, onetaraxe mintzatu zan:

–Undobika Duke Txit agurgarria...! Emen zagozen Jaun-andre andikiok...! Nik, Akitani'ko Bertran Konteak, aberriaren alde zenbatu-eziñeko burruketan tartekoa izanik, eta gizaldiz-gizaldi aitor semea nazan onek, zuek guztien aurrean auxe aldarrikatu bear dot. Ara... gazte arrotz guzurti batek egin ez dodan eriotz baten egilletzat zitalki salatua izan nazala, eta orrek nire izen onaren aurka doan ezkerero, akitaniar legeen arauz, irain ori garbitu izan daitela eskatzen dot...!

Une batez isildu egin zan Konte Baltza'k batzarkide guztien begikadak beragan josita ikustean, eta gero,

–Au dala-ta –jarraitu eban–, gure erriaren ekanduetara, eriotz-burrukaren bidez, nire aipu ona atzera emon dakidala eskatzen dot...

Aretoan sortu zan zurrumurruak Bertran'en azken itzok eten egin ebazan, eriotzaren itzal ikusteziñak leku aretako giroa illundu bai'leuan. Guztien artean larrienik sentitzen zana, baiña, Undobika zan. Beste iñork baiño obeto ezagutzen eban Konte Baltza'ren burrukarako gaitasuna. Berrogei ta zortzi urteko akitaniar zalduna, indartsu ta yaioa zan iskillu-erabiltean. Izan be, zaldiz ospatzen ziran leiaketetan, ez eban kidekorik ezagutzen, astamakilla eskuan lauazka bizian leikidearen aurka oldartzen zanean. Eta oraingo onetan, etsaia, nor eta Yanoz bere billobea...! Larritasun itzelaren menpe, Undobika'ri belaunak dardarrez asi yakoan, eta buruan dana zorabioka ebilkiola, lurrera ez jaustearren, besaulkian jesarri bear izan eban. Akitani'ko nagusia izan arren be, ezin egikean erriaren oiturai jarki, eta legekoa zanari jarraitu bear...

Une aretan bertan, Konte Baltza'ren abots sendoa aditu zan barriro onetaraxe:

–Gure erriaren ekanduetara, nire izen ona garbitzeko, eta iraindua ni nazan ezkerero, niri dagokit burrukaera autatzea, eta auxe da nire aukerea: burruka zaldiz izango da; eguna, etzi; lekua, Ibarzelaia; ordua, arratsaldeko bostak, eta iskillua astamakilla...

Orduan, Undobika Dukearen bestaldean jesarrita egoan Drone'ko Kontea jagi zan, eta eten egin eutsan onetaraxe:

–Aizu, Bertran, ori ez da Akitani'ko legea. Zaldiz izango dala, eguna, lekua, eta ordua aukeratzen ba'dozuz, erabilteko dan iskillua leikideari dagokio. Autu begi, beraz, Yanoz'ek, Iroz'en semeak, burrukarako iskillua.

–Niri bardin daust –destaifnezko doiñuz erantzun eutsan Bertran'ek–.

Une batez isiltasun betea edatu zan aretotik, eta orduan Undobika'k,

–Esan, Yanoz maite orrek –billobeari zuzenduz–, zein iskillo aukeratzan dozun...

Irmo ta garbi gaztearen mintzoa aditu zan,

–Ezpatea aukeratzan dot.

Aretoko zurrumurruean artean, Undobika'k idazkariari agindu eutsan erri-entzualdia amaitutzat emoteko, eta orduan idazkariak abots arranditsuaz auxe aldarrikatu eban:

–Auzia erabagi da erabagi, eta beste barik batzarra amaitzen da.

Undobika Dukea jagi zan, eta Yanoz'en besoari oratuta,

–Aizu, ene billoba maite ori –esan eutsan–, gaur egun gogoangarri izan da niretzat, eta nigan eragin dozun biotz-ikarea ta jazo diran gora-beerakaitik nekatuta nago. Lagundu egistazu nire lan-gelaraño, eta an biok bakarrik aparti indargarri bateri ekingo dautsagu.

Au esanik, igarobide zabal baten zear abiatu ziran. Ibilli ebiltzala, ustekabez, Yanoz'eri burura zeozer etorri yakon.

–Aizu, aitita –gelditzen zala esan eutsan–, onaiño etorten lagundu dausten gazte bi atxillo dagozala uste dot. Areiri esker, ezagutu zaitu gaur, eta zor andia dautset.

Jarraian, Kirgis'en etxean arratsalde aretan jazorikoa edestu eutsan. Amaitu ebanean, atzetik erraikien buruzagi bateri,

–Aizu, buruzagi –esan eutsan Dukeak–, abia zaitez erriko espetxera, eta Arnaut eta Kirgis izeneko gazte bi askatu, eta ekarrizuz ona ezagutu dagidazan.

Joan zan buruzagia, eta aitita-billobak lan-gela andi ta apain batera sartu ziran. Uda izan arren, suteagian egurren garrek giro atsegiña emotsoen lekuari. Undokika'k txalo batzuk jo ebazan, eta zerbitzari bat agertu zanean, billobarekin an bertan apalduko leukela esan eutsan, eta bearrezko atonketak egiteko. Andik laster, aitita-billobak janariz ondo ornituriko mai baten ondoan, aparti gozo bateri ekin eutsoen. Izan be, gau aretan Yanoz gose zan, eta astirik galtzeke jaten asi zan gogoz. Apalostean, Dukeak Yanoz zizaillu eroso baten jesarri-erazo eban, eta billobearen ondoan jesarrita,

–Orain Yanoz maite orrek –mintzo adikorraz eskatu eutsan–, emoistazuz zure aitaren eriotzari dagokiozan gora-beera guztiak.

Asi zan ba, Yanoz, Undaitz'eko gazteluaz Konte Baltza jabetu zaneke zeatz guztiak emoten, bere aita il zan arte. Jarraian Irati'ko oianean osaba Imoz'ekin bizi izandako amar urte areitan jasan ebazan gora-beerak. Eta onen ostean, Akitania'n zear aitaren agindua betetearren izandako jazarpen eta erasoak. Amaitu ebanean, joaletegi batetik amaikak barreiatu ziran urian zear.

–Eudosi Donearen eleizatik amaikak jo dabez –esan eban Dukeak–, eta niretzat beranduegi jagita egoteko, baiña ona ekarri zaituanari buruz ekin dagiogun. Egia alda Akitani'ko gudariak Euskalerrri'ko lurraldean zear lapurretan diarduela sarri askotan...?

–Bai, aitita, eta au dala-ta, Naparra'ko egoerea ez da ango euskaldunek nai genduken baizen ona. Mairutarren erasoak gaiñera, Aragoi eta Gaztela'ko erregeen guda-taldeek noizgura gure aurka doguz, Naparra leku guztietarako bide-gurutzean aurkitzen dalako, Akitani ta Galias'etarako bidean dagoala be aztu egin barik. Egoera onetan, gure iparreko mugak bakean iraun dagiela, ezinbesteko baldintza dogu naparrorok, gure lurraldean lotuta doguzan gudariak beste iñora bialdu dagiguzan, baita oso beñena dan Auñamendi'n sortzen diran aberastasunak guretzat gorde aal izatea, abelazkuntza ta lurgintza batez be, Naparra'k bere esku izaten jarraitu dagian.

Isildu zan une batez Yanoz, bere aberriko lurralde maitia gogoan aurkeztu bai'litzakion

–Ekin aurrera, Yanoz –esan eutsan Undobika'k–, esaidazu geiago ain maite dodan zure Euskalerrri'ri buruz.

–Ara ba, aitita. Aitak, osaba Imoz'ek eta entzun dodanez Auñamendi'ko beste nagusiek be, Naparra, erreñua biurtzeko asmotan ziran, danok bat eginda, gure aberria iraun-erazoteko gai izan gaitez.

–Eta nor izan zeitekean, Naparra'ko errege ori...?

–Ez dakit, aitita. Azken urteotan nire bakartasun osoan politika edo errigintzari dagokiozan arazoetatik urrun bizi izan naz-eta, baiña Eneko Aritza Naparra osoko nagusia izan leitekela, aitaren eritxia zan.

–Eneko Aritza diñozu... –oldozkor esan eban Undobika'k– Ezagutu neban orain amabost bat urte, Lizarra'n dodazan senitartekoak ikertu nebazan bein baten. Gizon zentzudun eta guda-arazoetan trebe begitandu yatan garai aretan, eta gaiñera burrukalarri indartsutzat ospe andia eban.

Gogoetan murgilduta isildu zan Dukea une batez, eta gero Yanoz'eri,

–Aizu, billoba, orduan nire gudaritako askok Euskalerrri'ko Auñamendi'n zear, lapurretan diardue...?

–Bai, aitita. Aal daben abelgorri ta giberrria ostuten dauskuez, baita jatekoa be eskura datorkienean. Augaitik, leku egokietan gudariak begirari jarten beartuak gara, baiña olan eta guzti be, ezin gaitekez arein ezusteko erasoai jarki, etorri baizen arin arrapagaiekin iges egiten dabe-ta. Ez yatorkez gudaroste baten antzera, banaka batzuk baiño toki askotatik, baiña egiten dauskuezan kalteak itzelak dira.

–Bertran Konteari agindu zorrotza emon neutsan ba, euskaldunen aurka ezetari-ko ekintzarik ez egiteko, eta berak berba emon eustan olan izango litzakela. Bertran Konte Baltza zitara, eraille ta lapurra...! Onen gaiztakerien barriak noizean bein yatordezan, baiña esames ganorabakotzat nebazan. Izan be, saxon eta britaindarren aurkako ekintzetan jarduna nozu aspaldi luzeetan, eta astirik ez, beraz, Gaskoiña'n edo Aturri'ko lurraldean eta Yarre'ko gazteluan gertatzen zan azpi-lanari jaramon andirik emoteko. Zergaitik Bertran'en jokaera ori, aberats eta ederretsia, baita Akitani'ko andienetariko nagusia izanik...?

–Osaba Imoz'ek esan eustan, aitari gorroto itzali-eziña eutsala, nire amarekin

ezkondu zalako, eta berak ori ezin egikeala eroan, beratzaz maitemindua zalako. Onezaz gaiñera, guztien aurrean zure ezpatea ezin jaso, eta jarraian aitak zu ta Yunilde'ren aurrean, eziñezkoa zirudiana jaritsi eban. Jazoera oneik barrukoa marraskatzen eutsoen, eta aitaren beitzain etoi bien diru-gosea ustiatuz, Undaitz'eko gazteluaz jabetu, eta aitari eriotz-zauria egin eutsan.

Ona elduta, isildu ziran biok. Alako baten, Yanoz'ek,

–Aitita, ezagutu ez neban ama, zelakoa zan...? Aitak ez eustan berari buruz asko esaten. Bazirudian orrek min egiten eutsala-edo. Dakidan guztia zoroki maite izan ebala da.

–Nire alaba Yunilde zoragarria...! Zelakoa zan itauntzen daustazu...? Begira, Yanoz, Akitani'ko lorea zan, eta olan esaten eutsoen danek lurralde onetan. Edonora joianean, dukerri onen zaldunek gur egiten eutsoen, baiña berak, nire Yunilde'k, ez eutsen jaramon andirik egiten, eta guztiai irribarreka, ez eban iñoiz ezetariko kutuntsunik iñorentzat adierazo. Ona ta maitetsua, bere baitan ontasun neurribakoak abia eban. Aurpegiaren larmintza zurizka zan, onetan ezpan politak bereizten zirala gozoki irribarrez. Baiña beragan nabarmenena aren urrezko begi eder eta argitsuak ziran, aingeru baten itxurea emotsoenak. Maite-maite neban nire Yunilde, Akitani'ko lora maitagarria...

Isildu zan Dukea une batez, bere alaba kutuna oroimenean laztanduz, eta gero,

–Gaur, Yanoz maite ori –jarraitu eban–, ikusi zaitudanean, zeugan jarrita, aren urrezko begi parebageak nenkusazala uste izan dot, eta orduan, biotza taupada zoro-tan asi yat... eta billobatzat artu zaitut, bai, Euskalerria'n obiratua datzan mundu onetan geien maite neban alabearen semea... Akitani'ko ta erbesteko amaika zaldun eta andiki ospetsuek berarekin ezkondu nai izan eben, baiña berak beti gozoki, ezetz. Bein baten, Euskalerria'n dodazan aideak ikustera joan nintzan, eta nire Yunilde eroan neban. Lizarra'n, Undaitz'eko nagusia zan Iroz ezagutu eban, eta ikusi baiño ez, aretzaz maitemindua, ni etxera biurtu aurretik, Iroz zure aitarekin ezkondu zan Akitani'ko lorea, nire aingerua... Andik urtebetea barik, zu jaiotakoan il egin zan nire Yunilde bardinbakoa...

Undobika'ri aurpegiaren beera malko isillak eriozan. Aitita olan ikustean, Yanoz urreratu yakon, eta bera be negarrez,

–Aizu, aitita –maitetsu esan eutsan–, Urtebete aretan ama zorionsua izan zala, Amañe'k nire iñudeak esaten eustan sarri askotan. Joan zanetik, aitak ez eban zorionik ezagutu, eta nire besoetan il-agiñean zala, amarekin batuko litzakelako itxaropenak, azken une larri areitan zoriona ekarri eutsan.

Eudosi Donearen joaleek amabiak jo ebezan, eta bere jabetasuna irabazirik, Undobika Dukeak,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, onezkero berandu da, eta biok atsedeen-bearrean gagozan ezker, oraintxe oeratuko gara. Biar goizean nire jauregia erakutsiko dautsut.

Zidarrezko txilin bat eragin eban, eta agertu zan morroiari,

–Eroan nire billobea, gerturik dagoan bere gelara –agindu eutsan–. Agur Yanoz, biar arte.

Alkar besarkatu eben aitita-billobak, eta oean etzan baiño ez, egun aretako gorabeerak eta jasandako zarrastadakaitik, Yanoz bereala lo geratu zan, eta urrengo goize-rarte atsedeen indargarria izan eban, morroi batek onetaraxe iratzarri arte:

–Jauna, Akitani'ko Dukea bere gelan zure begira dozu gosaltzeko.

Arin baten jagi zan Yanoz. Garbitu ta jantzi ondoren, aitagana joar zan. Onek besarkatu eban, eta maitxu baten ondoan gosaltzeari ekin eutsoen. Olan ziarduela, gudarien buruzagi bat sartu, eta Undobika'ri begirunez,

–Duke Txit Agurgarria –esan eutsan–, berorrek atzo gabean agindu eustanez, erriko espetxea arakatu neban, eta billaturiko gazte biak idororik, jareitu nebazan, eta kanpoan dagoz.

–Sartu daitezela.

Sartu baiño ez, eta orduan oikoa zanari jarraituz, lengusu biek belauna soruan jarrita, gur bana egin eben. Yanoz oldartu yakon, eta pozaren-pozez zutundu-erazorik, besarkatu ebazan, Dukeari auxe iñotsala:

–Ona emen, aitita, maite dodazan Arnaut eta Kirgis nire lagunak. Oneiri esker, gai izan naz onaiño etorteko. Zor andi-andia dautset, eta zelanbait ordaindu nai neuskie.

–Euren saria artuko dabe, Yanoz –esan eutsan Dukeak–, eta izan be, merezi daben giñoan.

Bitartean, zur eta lur eginda, Arnaut'ek eta Kirgis'ek, mamu bat bai'litzan Yanoz'eri begiratzen eutsoen; nor eta Undobika Dukearen billobea...! Kirgis isillik egoan, baiña Arnaut'ek menperatzen eban biotz-ikarea jabetu eziñik,

–Yanoz, Yanoz –esan eutsan– berori Duke Jaun Txit Agurgarriaren billobea izan bear be...! Nok asmatuko olakorik...?

–Aizu, Arnaut, itzi egizu alde batera "berori" ta olako andikeriak. Ni betiko laguna nozu. Zeugaitik izan ez ba'litz, pot egingo leukien onaiño etorteko nire asmoak. Aitita –Dukeari biurtuz esan eutsan–, etorri daitezkeez nire lagun oneik gurekin, jauregia ikertzera...?

–Bai benetan...!

Joan ziran ba, laurok, eta Dukeak berak guztitariko argibideak emotsezala, jau-regiko lorategi zoragarria ta zugatz mardulak, ondo zaindutako bidetxigorrezko sare baten zear begiztatu ebezan. Guenez, jauregi bera ikertu eben, eta izan be, bai Yanoz'ek bai bere lagunak abo-zabalik ikustatu ebezan areto eder arein aberastasun eta apaintasuna. Olan joiazala, Arnaut'ek aitita-billobai azaldu eutsen, lengo egunean Yanoz'ek iges eginda gero, Martzel'en gudariak erri-espetsxera eroan ebezala, eta oiñaze-gailluaren pean, non egoan Yanoz autortu erazoten nai eutsienean, Dukeak aren billa igorritako buruzagiak jaregin ebazala.

Ikerketea amaitu baiño len, Undobika Dukeak, jauregiko etxapean egoan zalditegia erakutsi eutsen. Ordurarte Yanoz'ek ez eban beste zaldirik ezagutu, Aña-mendi'ko beor-moxalak baiño. Akitania'n zear oso ospetsua zan Undobika'ren zaldite-ria, eta izan be, iru gazteak abo-zabalik batetik bestera ebiltzan eredu yaukal areik ikustean. Alako baten, Dukea zaldi zuri-zuri baten aurrean gelditu zan, eta,

–Auxe "Orion" nire zaldirik ederrena da –azaldu eutsen–, eta berau erabilliko dozu biar, Yanoz maitia, Bertran Kontearen aurka izango dozun burrukean. Akitani'ko zaldirik ederrena ei'da, eta ain zuzen be, eriotz-leiaketa baterako egokiena, orretarako oitua da-ta, eta gaiñera indartsu ta eskurakoia, baldintzarik egokienak burrukan egiteko. Arratsaldean, zabaldian zear zaldiketa bat egingo dogu, eta Yanoz'ek "Orion" erabilliko dau oitu daiten. Bertran'en zaldia be ona da, eta jaubea baizen bal-tza ta indartsua.

Orduko, bazkalordua izanik, Arnaut eta Kirgis onen etxera joan ziran, Yanoz'eri itz emon ondoren, urrengo egunean burruka-lekuan egongo litzakezala leiaketea ikus-teko. Jarraian, aitita-billobak jatoki eder baten bakarrik bazkaldu eben, Dukeak billo-bearen laguntasuna baiño ez eban gura-ta. Egia esateko, Undobika gero ta kezkatia go sentitzen zan, burutik kendu eziñik, leiaketa a arrisku andia zala Yanoz'entzat. Bertran Kontea berrogei ta zortzi urteko izan arren, burrukalari indartsu, trebe, eta asko-ikasia zan. Bere aalmenean ba'lego, Undobika'k eriotz-leiaketea debekatuko leuke, baiña orduko ekanduen jopua zan, eta ezin egikean zaldunen arteko leiaketai jarki, euretariko bat bere deduan iraindua sentitzen zanean. Bertran Kontea bere aita-ren iltzailletzat salatu izan eban Yanoz'ek, eta akitaniarrak bere burua iraindutzat arturik, orduko legeai jarraituz, eskubide beteaz bere aipu ona garbitzearren, eriotz-burrukea autatu izan eban. Salatu izan zan aldetik, Konteari egokion burruka-mota ebaztea, eta bere aukerea zaldiz izanik, besteari etorkion, au da Yanoz'eri, iskilloa autatzea. Dana-dala, Undobika arrenkura larripean egoan, eta uxatzeko aalegintzan bazan be, ezin egikean lortu.

Arratsaldea ederra zan, eta morroi bik atzetik erraikiela, aitita-billobak zaldiketa bat egitea erabagi eben. Uriburutik urten baiño ez, zaldiak lauazka nasaiari emonda, baso-zelaietan zear abiatu ziran. Yanoz ez zan iñoiz zaldi baten gaiñean jarri, baiña artzaren arre-lepoko igikun zaillari oitua, "Orion"en ibillerea erraza ta atsegiña azaldu yakon. Undobika'k zearretara begiratzen eutsan, eta billobearen zaldiketa nasai ta jatorra ikusirik,

–Aizu, Yanoz –itaundu eutsan–, non ikasi dozu zaldiaren gaiñean orren ondo ibiltzen...?

–Ez dot zaldirik ezagutu, aitita. Basoko artz batek irakatsi eustan Arrituta begiratu eutsan Undobika'k, eta,

–Ez niri esan, gero, artz baten gaiñean jardun dozunik.

–Bai, aitita, begira...

Jarraian Yanoz'ek Txartxari buruz jakitun ipiñi eban, guztitariko zeatzak emotsa-

zala, Irati'ko zulo aretatik atara ebanean asita. Arrituta entzuten eutsan Undobika'k, eta edeskia amaitzean,

–Baiña, Yanoz –itaundu eutsan–, egirik ete dalako piztia onaiño ekarri dozula...?

–Aitita, Txartxa ez da inongo piztirik, nire adiskidea baiño. Onantzakoa egin baiño len, Osaba Imoz'ek nirekin ekarri nengian agindu eustan, eta izan be, laguntza andikoa billakatu yat.

–Non dago bera orain...?

–Emendik ez urrun, aitita. Urira sartu-agiñean nintzala, inguru onetako basoan ezkutatu zeiten agindu neutsan.

–Ez niri esan, gero, Yanoz, artz batekin berba egiten dozunik.

–Ia amar urte dira nirekin bizi dala, eta epe luze onetan, itzez eta keiñuz nire esanetara men egiten irakatsi dautsat. Nirekin bizi izatera oitu da, eta neguko loaldian izan ezik, lagun miña bai'litzan, leku guztietara darraikit. Badira egun batzuk banan-du garala, eta izan be, ordua da alkar ikusi dagigun. Jatsi gaitzean une batez zaldietatik, aitita.

Jatsi ziran biok ba, eta morroia zaldiak lagata, aitita-billobak zugaitzetan zear bideratu ziran. Urrun samar egozanean, atzamar bi abora sartuta, Yanoz'ek txistu zorrotz batzuk jaurtiki ebazan. Dei indartsua zan, benetan, andik kilometro batzutara entzuteko beste.

–Non ikasi dozu orren indartsu txistu egiten...?

–Irati'ko oianean, aitita. Ekin eta ekin, txistu ozen, bizia botaten ikasi neban artz-ak urrundik entzun egistan.

Barriro be, txistu egin eban Yanoz'ek, eta luzaro barik biok egozan baso-soillera, lur-ikara bai'litzan azpikoa dardarka asi, eta tximista lakoa Txartxa eurokana oldartu zan.

Undobika Dukeak ezin egikean siñistu ekusana. Pozeko kurrinkak jaurtikiz, artza mutillegana joanda, onen lepogaiñean atzapar bildurgarriak jarri, eta aurpegia miazkatzen eutsala, besarkatu eban.

–Zer yiñostak, Txartxa...? –maitetsu itaundu eutsan Yanoz'ek–. Badozak egun batzuk alkar ikusi barik, eztok...? Baiña bizirik nauk, lagun, baita pozik be, azkenean aitaren agindua bete aal izan yoadalako. Aiko, Txartxa, alboko Jaun ori, Undobika, Akitani'ko Dukea ta nire aitita dok. Agurtu egik...!

Esanekoa, artzak Dukearen sorbalda-gaiñean atzapar bat jarri, eta kurrinka adis-kidetsu batzuk jaurti ebazan. Asikerako bildurra joanda, Undobika'k artzari begiratu, eta une batez ule luzeak laztandu eutsazan.

–Yanoz, nire buruari diñotsat amesetan ez ete nagoan. Ez dot egundo be olako-rik ikusi, ezta ikusiko be.

–Entzun egistak, Txartxa –itzez eta keiñuz agindu eutsan mutillak–, ez aite urrundu larregi. Inguru oneitan egongo az nik esan arte. Ire itxurea ikustean, ondo samar bizi izan azala esango ñeukek, lodi ta ondo janaritua emoten yok-eta.

Orduko berandu samar zan, eta une batzuk artzarekin izanda gero, Yanoz'ek azken aginduak emon eutsazan. Jarraian, aita-billobak lengo tokira biurtuta, jauregira abiatu ziran zaldika. Bidean beera uriburura urreratzen zirala, Yanoz'ek auxe itaundu eban:

–Aitita, bakarrik bizi al-zara jauregian...?

–Aspaldi onetan bai, Yanoz. Seme bi ta alaba bat dodaz. Azken au Galias'ko andiki batekin ezkondu, emendik urrun bizi da. Semeek Saxondarren aurka gudaketan diardue, eta zu sartu barik dodazan zazpi billobak, Loira ondoko euren amekin gazte-lu batera joan dira aspaldi baterako. Orain illabete bat biurtuko dira, eta nire jauregia barrez eta didarrez beteko da ostera be.

–Aitita, euskeraz egiten da zure dukerrian...?

–Bai, baiña gero ta gitxiago, Yanoz. Barruti onetan oraindiño euskeraz diardue, baiña sortalde ta iparretik datorkigun eragintzagaitik, Galias'ko izkuntza gero ta edatuago aditzen da. Ez dakit, Yanoz, baiña bildur naz egunen baten gure asaben berbe-tea ostenduko ez ete dan...

–Aitita, gure izkuntza dan ederra...!

–Bai, Yanoz, niretzat ederrena, baiña mundu onetan edertasuna, ontasuna lez, ez da aintzakotzat artzen.

Autu onetan jauregira eldu ziran, eta bustialdi bat artuta gero, eguraldia beroa zan-eta, aita-billobak ondo ornituriko mai baten ondoan, zerbitzari bien zaintzapean apariari emon eutsoen. Undobika, baiña, zalantza bizipean egoan, urrean, gogo gitxiz apalduz gaiñera, itz urriakaz billobeari erantzuten eutsalako. Aititaren betosko illuna ikustean, Yanoz'ek,

–Aizu, aitita –itaundu eutsan–, zergaitik orren artega...? Badirudi arrenkura andi-pean zagozala.

–Bai, Yanoz. Ezin dagiket zapaltzen nauan bildurra nigandik uxatu. Zeu lako gazte bikain, ez-ikasiak, dukerriko onenatariko zaldun trebe ta oituaren aurka biar burrukan jardungo dozulako oldozkunak, larritzen nau, benetan. Biar arratsaldean, Bertran Kontea, bere zaldi baltz, indartsuaren gaiñean, tximistaren antzera oldartuko yatzula burura yatordanean, latz-ikara batek astintzen nau. Dukerri onetan orain arte-an ez da agertu Bertran Konteari gaiña artu dagikeonik, indartsu izanez gaiñera, zen-batu-eziñeko leiaketetan eta burruketan tartekoa izan danez, amarrukeri guztiak eza-gutzen dauz.

–Baiña, aitita, uste al dozu indarretan ni beste danik...? Zergaitik, ez, orduan, zurea izaniko errubidun ezpatea, berak esku bakar bat az jaso...?

–Indarretan ez da zeu lakoa izango, ezta arintasunean be, baiña ezpata erabilte zue baiño geiago dala esango neuke.

–Aizu, aitita, ez ete dakizu, osaba Imoz maisutzat izan dodala...? Onantza etorte-ko zorian nintzala, bera baiño ezpatari ohea nintzala esan eustan.

–Zure osaba Imoz dalako ori, Bertran'en aurka burrukan egiten ikusi nai izango neukean, Yanoz.

–Ezagutuko ba'zendu Muskaria'ko bere ezpata-ukaldia...!

–Zer ete da ori, Yanoz...?

–Egunen baten azalduko dautsut, aitita, esateko luzeegia da-ta.

–Bai, mutil, orain beste gai garrantzitsu bateri ekin dagiogun. Goazen iskillote-gira.

Yanoz, Undobika Dukearen atzetik abiatu, eta jauregiko beekaldean iskilloz beteriko areto andi batera sartu ziran. Ormetatik dilindan guztitariko aztamakilla, ezpata, ustai-geziak, txurro, eta beste iskilluak ikusi zeitekezan, baiña onei Dukeak ez eutsen jara andirik emon. Artez-arte z, orman luzeeran jarrita egozan soin-babeskiak erakutsi eutsazan, eta orduan,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, emen dozuz gudarako babeskiak, eta ondoen ego-kitu dakizuna, zuretzat.

–Zertarako, baiña...? Ni ez naz orreitariko burdiñezko jantzipean sartuko, ez orixe...!

–Zoratu al-zara, Yanoz...? Biar, Bertran Kontea goitik-beera oneitariko soin-babeski-pean aurkeztuko yatzu, eta zeu inongo babeski barik soin-utsik...? Olako zora-keria ezin dagiket ontzat emon.

–Aitita, nik euskaldunetara burrukan egingo dot. Sarri askotan osaba Imoz'ekin arazo orreri buruz mintzatua naz, eta alde batetik burdiñezko eskola onuragarria ba'da, bestetik oztopo andia soiñaren jokorako. Ezpateaz gaiñera bear dodan gauza bakarra, erredola da. Oneitariko bat, beraz, autatuko dot.

Au esanik, Yanoz'ek erredola batzuk aztatu ebazan. Narruzko erredola baten billa, an egozanak aztertu ebazan. Osaba Imoz'ekin izandako iñarkunetan, narruzko bat erabilten eban, Irati'ko oianean narrua baiño ez eban eskura-ta. Augaitik, beraz, oneitariko bat naiago eban. Ango bilduman, baiña, ez egozan burdiñezkoak baiño, eta nai-ta-ez oneitariko bat aurkeratu bear. Luzaro samar azterketan jardun ondoren, ariña zan bat aukeratu eban. Biribilla izanik, erdian burdiñezko zorrozki bat az ornitua zan, arerioaren ukaldiak saiestearren.

Berandutxu zan orduko, eta egun aretako gora-beerakaitik zeozer nekatuta, Dukea bere gelara joan zan. Yanoz'ek gabon opa izan eutsanean, eta alboko bere lo-gelara joan-agiñean zala,

–Gabon, Yanoz, maite ori –irautsi eutsan Undobika'k–. Nik ez dot lo luzerik egingo, baiña nire gau-beilan zure alde otoi egingo dot, Jaunak ondo atara zagizan.

–Eskerrik asko aitita. Zure ta osaba Imoz'en eskariak dirala-ta, ziurrago sentitzen naz. Agur aitita.

–Gabon, Yanoz, Jaungoikoak lagun.

Izan be, garai aretan zeruko laguntza bear eban Yanoz'ek. Une aretan bertan, Marzak'eko jauregi baten, ezin-egonak artuta, Konte Baltza aretoaren alde batetik

bestera ebillen, urduritasuna jabetu eziniñ. Alako baten, atea zabaldu, eta Martzel buruzagia sartu zan.

–Jauna –esan eutsan–, beean dago gure gizona.

–Igon-erazo onainño.

Luzaro barik, morroi-itxurako gizon txiki bat, sartu zan, eta,

–Zer nai dozu, Jauna...? –itaundu eutsan.

–Dukearen zalditegian diarduzula, Martzel buruzagiak esan daust.

–Bai, Jauna.

–Gaur zure laguntza bear dot.

–Esan, Jauna.

Sakeletik zeozer atara eban Bertran'ek, eta esku-arrean ipiñita, zaldizaiñari erakutsi eutsan. Gaztain-oskolaren antzekoa, arantzaz estalitako burdin-zatia zan.

–Biar, dalako Yanoz erabilteko dan zaldi-zelapean, gauza au ipiñi dagizun gura dot. Ba al-dakizu zein zaldi erabiliko dauan...?

–Bai, Jauna. Gaur goizean zalditegian lanean nintzala, "Orion" erabiliko leulela, Dukeak gazte orreri esan daustso.

–Biar arratsaldean "Orion" zaldia atondu dagizunean, zelapean burdinkia au ipiñiko daustazu.

–Jauna, bildur naz. Eupadea edo leiaketearen ostean, gertaturikoa jakingo da, eta ondorenez, il egingo nabe.

–Garaiz iges egitekotan, ez zaitue arrapatuko. Zerbitzu orren ordainez, zisku onetan dagozan ogei ontzurreok emongo daustudaz, eta arazoa amaitzean beste ainbeste. Onezaz gaiñera, nire babespean artuko zaitut, eta izan be, egiñagaitik ez zara damutuko.

Dukearen jauregiko zaldizaiñak ziskuari irrika andiaz begiratu eutsan, eta esku dardartsuz ziskua artuta,

–Ondo da, Jauna, nai dozun lez egingo dot.

–Kontuz ibilli, eta azken unerarte burdinkia ez ipiñi, gero...!

–Ez dau inork somatuko, Jauna.

–Agur ba. Biarko leiaketea amaituta gero, etxe onetan bertan, sariaren beste erdia emongo yatzu, eta Yarre'ko gaztelura nirekin eroango zaitut. Agur.

–Agur, Jauna. Biar arte.

Joan zan zaldizain etoia, eta kale estu biurretan zear, Undobika Dukearen jauregirantz abiatu zan, beste Judas bai'litzan ogei urrezkoen ziskua laztantzen ebala. Ortziko gau-oxinean izarrak ñir-ñirka ikusten ziran, biaramonerako egun ederra iragarritz.

Noizbait, eupadaren eguna argitu zan. Aitita-billobak jagita, gosariari ekiten eustoenean,

–Bart –asi zan Dukea–, ez dot ondo lo egin Yanoz. Ezin izan zaitut burutik kendu, gaur arratsaldeko leiaketea dala-ta. Gero, goiz-erdian, iskilllo-aretora, jauregi-

ko ezpata-maisua etorriko da, eta beronekin ezpataz saio-aldi bat izango dozu, akitanien iskillloen erabiltea ezagutu, eta Bertran'en burrukaerea zelakoa dan jakin dagizun. Atzo ikusi aal izan nebenez, zaldiketea ondo menperatzen dozu, orain arte zalditzat artz bat erabili arren. Ezpata-erabiltea da, beraz, kezkatzen nauana, eta zu indartsua izanik be, ez dakit bearrezko trebetasuna jaritsi ete dozun. Ez aztu, Konte Baltza dukerriko burrukalaririk yaioena dala.

–Ez dot aztu ori, ezta maisutzat osaba Imoz izan nebala be.

Goizeko amarretan inguru, iskilllo-aretora jatsi ziran. Orduko, ezpatarien maisua begira eben, eta Dukea jesarri zanean, erredola ta errubidun ezpatea artuta, Yanoz maisuaren aurka ekiteko gertatu zan. Dukerriko maisu edo erakuslea, berrogeitsu urtekoa zan, eta ezpataren arloan berarentzat ezkuturik ez. Alkarri neurriak artzen asi ziran biok, sakonegi ekin barik, baiña astia igaro-ala, gero ta sutuago. Noizbait, aurkalaria on-ona zala egiztatzean, erakusleak benetan jardun eban, ekiazan ezpatakadarik zailenak erabiliz, baiña basakatu baten antzera, Yanoz'ek aren ukaldiak bata bestearen atzetik saiestu ebazan. Andik ordu-erdi batera-edo, izerdi patsetan eta nekatuta, Yanoz'en ukaldi bat ezin bazterturik, erakuslea bularrean unkitu izan zan. Onen ostean, saioa amaitutzat emonda, erakusleak,

–Jarraitzeari uko egiten daustat –Dukeari zuzenduz esan eban–. Gazte oneri ezin dagikeot ezer irakatsi. Bertran Kontea ezpatari on-ona da, baiña aalegindu bearkeo dan arratsaldean garaille urten gura ba'dau.

Au esanik, gur eginda gero, maisua urten zan, bere buruari iñotsala, zelan konponduko litzaken Bertran, basakatu bat zirudian gazte euskalduna garaitzeko.

Bazkalostean, eta eupada-orduaren begira, Dukeak eta Yanoz'ek lorategiko aulki baten jesarrita, autu nasaiari emotsoen. Agindu zorrotzak emon izan ebazan Dukeak, iñor etorri ez ekien, Yanoz'ek aalik baketsuen eupadeari aurre egian. Arratsalde gardenean, eguzkiak zeru aratzean dizdiraka, udako egun eder aretan dana urreztatzen eban. Zabaldia azken mugaraiño edatzen zan, urrunago ta oziñago biurtzen zala. Arratsaldeko bakeak eraginda, aitita-billobak isillik zirauen. Alako baten, Dukeak,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, ba al-dakizu zertarako neurtu zaran gaur goizean, ezpatarien maisuarekin...?

–Saioaldi bat izateko, eta akitanien ezpata-erabiltea ikasi nengian, antza.

–Ez, Yanoz. Bertran Konteari aurre egiteko gai ete zaran ala ez egiztatzeko. Zorionez, baiña, bazarala nor ikusi dot, eta orrek bake osoa ekarri daust.

–Eta zure ustez, bera baizen ezpatari ona izan ez ba'nintz, orduan zer...?

–Orduan ez zan ospatuko leiaketarik.

–Eriotz-eupada bat ezin daiteke ezereztu, norberaren aipu ona lorrindu barik. Olan egingo ba'neu lotsaz ilgo nintzake, eta nire aitaren eraillea guztien aurrean errubakotzat azalduko. Ez, aitita, il egingo ba'ninduke be, eupadeari ez neuskio ukorik egingo.

Iribarre batek Undobika'ren aurpegia argitu eban auxe iñoanean:

–Ez zindudazan lagako ara joaten.

–Nork eragotziko ninduke burruka-lekura joaten...?

–Neronek, Yanoz. Gudaritalde bat gerturik izan dot, zu nai-ta-ez Euskalerrira biurtzeko.

–Ori egin ba'zendu, lotsaz ilgo nintzakean.

–Begira, Yanoz, urte-mordo bat bizi izan naz onezkero, eta zaldunen dedua ta eriotz-eupadak ez dodaz aintzakotzat artzen, ez urrik emon be. Eriotz-leiaketa orreitan garaipena ez da zuzentasunaren alde azaltzen, burrukalari onenaren alde baiño. Eta ori ondo ikasia nozu, Yanoz. Ez zindukedaz emen ilten lagako, beste inon bizi aal izatekotan.

Isildu zan Undobika Dukea, eta gero billobeari maitetsu begiratzan eutsala,

–Zorionez, baiña –esan eutsan–, ezpataririk gorenetakoa zarala egiztatu aal izan dot, eta nire ustez zure aitaren iltzaillea baizen ona edo areago.

Lorategiko itzalguneak luzeagotzen asten ziran orduko, eta aulkitik jagiten zala,

–Goazen burruka-lekura, Yanoz –esan eutsan maitasunez billobari–, laurak badi-
ra-ta. Ez yat atsegin berandu izatea, goazen ba, eta Jaungoikoak lagundu dagizula,
Yanoz.



Leiaketea Ibarzelai eritxan landa leunean bostetan ospatzeko zan, eta ordu ori baiño len, Marzak, Akitani'ko uriburutik, eta inguruko errietatik, jendea multzoka abiatzen zan burruka-lekura. Baebazan Konte Baltzak aldeko asko, baita etsai amorratuak be, eta areik baiño ugariagoak, ain zuzen be. Bertran gizaki gogor eta ankerra zan menpekoekin, aalik eta zergarik andienakaz zapaltzen ebazala, era onetan Yarre gazteluan aberastasun andiak metatuz. Bazituan lagunak be, eta bere zerbitzuan aalegintzen ziranai baekian zelan saritu. Onezaz bestalde, gudaritzat aipu onekoa zan, eta bere izenak toki geienetan bildur eta begirunea sortzen ebazan, guda-ekintzek dizdir aintzatsua emotsuela. Alan eta be, baziran eta ez gitxi bere izena madarikatzen ebena. Augaitik, burruka edo leiaketearen ospea leku guztietara zabaldu izan zan, erri-tarren artean ikus-gura andia eragiñez.

Leiaketearen lekua, ibaiaren ondotik edatzen zan zelai leun eta zabala zan. Alde batetik ibaiak mugatua zan, eta bestetik, ostera, lautada amaibakoan begimen azkene-raino edatzen ziran ametz eta areitezko baso usuak. Burruka-zelaiia iru aldetik take-ten artean edaturiko soka lodiaz esitua egoan, eta laugarrena ibaiak berak mugatua zan. Eun bat metro luze ta larogei zabala zan burruka-lekua, bedar bikaiñaz estalduta agertzen zan, eta ain zuzen be, zaldien crasoetarako ezin egokiagorik. Ibaiaren ondo-an edatzen zan alde luzearen erdian, lendakaritzarako zan olanezko sabaiaz estalduri-ko oltz andia ikusten zan, larogei bat gizakientzako zana, eta izan be, Undobika Dukearentzat eta onen andikien jarraigorako.

Irailla-asierako arratsalde eder aretan, eguzkiak jai-itxurako ukitez dana eder-
tzen eban, jazoteko zan eriotzaren jaia agirian jarri gura izango bai'leuan. Jendetzaren zurrumurrua erlauntz baten kutsua emotsan lekuari. Bostak jo baiño len, laguntalde andiak erraikiola "Ikatz" izeneko zaldi eder baltzean ixtaklok, Konte Baltza bere aldekoen txalo ta didarren artean, semeek eta Gurbix'ek lagunduta, zelaiaren mutur batera astiro abiatu zan, goratutako aurpegi-babeskipean, begi arro baltz aginkorraz jendetza ta zelaiaren gora-beerak begiztatzen ebazala. Izan be, bai Bertran Konteak bai beronen zaldi baltzak ikusgai zauskagarria eskintzen eben.

Konte Baltza burutik oiñetaraño burdiñez jantzita egoan, une aretan begiak bakarrik agirian ebazala. Anak izan ezik, "Ikatz" zaldiaren gorputza oial sendo lodiaz babestuta be ikusten zan, burutik buztaneraño. Itxura arranditsuz Konte Baltza bere lekura abiatzen zan, eskuman ezpatea ta ezkerrean erredola erabillezala. Zaldi-

zaldunak ibillera andi-ederraz joiazan, ikusleen adikunea eurokan josita, ederrespenez baita bildurrez naasitako zurrumurrua aditzen zala. Une aretan andikien talde batek erraikiela, Undobika ta Yanoz zelairatu ziran.

Yanoz oiñez etorren, "Orion" zaldiaren ugalak eskuan artuta. Jauregiko atean zaldira igoteko zorian zala, zeozer urduri ta geldieziña aurkitzen zala begitandu yakon, eta augaitik zaldiarekin oiñez joaten erabagi eban.

–Zergaitik ez zara zaldi-gaiñera igoten, Yanoz...? –itaundu eutsan Dukeak.

–Ez dakit zer izango dan, aitita, baiña "Orion" bildurtuta-cdo dalakoan nago.

–Ori bai gauza bakana, Yanoz. Zaldi ori niretariko otzanena da, eta edozelan be ez da izutzen diran orreitarikoa. Dana-dala, oiñez joatea be ez yatzu txarto etorriko, zaldi-gaiñeko une luzea laster izango dozu-ta.

Aurrera joiazala, baiña, "Orion"ek ez eban baretasun-zantzurik agertzen, eta alboko zaldi-zaiñen berba txeratsuek ez eben nasaitzen. Noizbait, zelaira eldu ziran, eta Undobika'k billobea besarkatuta, auxe esan eutsan:

–Biotz on, Yanoz. Indartsua da, indartsua, Bertran Kontea, baiña zu askozaz ariña goa, eta ezpata-erabiltean ez zara makala...!

Yanoz'ek irribarre bat az erantzun eutsan, eta egokion zelaiko muturrera joan zan. Ona elduta, zaldira igon, eta begira geratu zan. Alako batean, turutots sarkorra aditu zan, eta leikide biak zaldien tiki-taka arroaz Duke ta andikien oltzara abiatu ziran. Ona elduta, biok batean Undobika Dukea ezpataz agurtu eben, eta jarraian bakotxa bere lekura joan zan, burruka-asieraren deia itxaroteko. Orduko, Ibarzelai eritxan leiketa-lekua, jendez mukuru bete egoan, alkarri maxiatuz eta posturak egiñez, janari-saltzailleen aldarriak etenbarik aditzen zirala. Aurreneko lerro baten, barruko zauskada larria nekez menperaturik, Arnaut, Kirgis, eta Sugeliñ ikusi zeitekezan. Azken au, noizean bein jendetzaren artean ostentzen zan ogitartekoren bat trebetasunik andienaz arrapatzeko. Arnaut eta Kirgis, ostera, Yanoz'eganako arrenkurak jota egozan, eta berba egiteko gogorik ez izanik, begiak Yanoz'en zaldi-gaiñeko irudi txairoan josita ebezan. Bitartean, Arnaut lepokerrak lekaidetxean ikasiriko otoitz eta erreguak, bere lagunaren alde aletzen ebezan. Latinez iñoazan, zerura artezagoak joango ziralakoan.

Baiña larrien egoana, Undobika Dukea zan. Baziran egun bi, Yunilde bere ala-beagandik izandako billobea ezagutzen ebala, eta biotz-biotzeraiño sartu izan yakon, betidanik ezagutu bai'leuan. Eriotz-eupada a galazo aal izango ba'leu... Baiña bere dukerriko lege ausieziña zan oiturea, ezin egikean eragotzi, bere senitarteko baten kaltera izanik be. Konte Baltza garaille azalduko ba'litz, ontzat emon bear izango leuke billobearen eriotza...! Baiña olan gertatuko ba'litz, ez ekian zelan, baiña Akitania'n ez litzake lekuri izango bera ta Konte Baltza'rentzat. Uneak igaro-ala Undobika'ren arrenkurak biziagoak biurtzen ziran, eta alako baten...

Burrukeari asiera emonez bigarren turutots ozena aditu zan, eta zaldiak zirikatuz, leikideak alkarren aurka oldartu ziran, ezpatak eguratsean erabillezala. Bere zal-

diaren ibillerea, baiña, ezoitua begitandu yakon Yanoz'eri. Aurreguneko zaldi otzan eskurakoiak urduritasunak artuta zirudian, eta lauazka luze ta neurtua erakutsi-bearrean, asaldata lez ikoti basatiak egiten ebezan zutundu naiean lez. Alkarri eraso eutsonean, "Orion"en ibillera ezoituagaitik, leikide biok ukaldia uts egin eben. Bigarrenez alkarren aurka oldartu ziranean, zaldi zuriaren jokaerea are arrigarriagoa billakatu zan, eta Yanoz'en aginduari jaramon egiteke, zentzunbako jokatu eban. Bigarren alkar-jote onetan, Konte Baltza'ren ezpata-ukaldi izugarriari ozta-ozta eutsi aal izan eutsan Yanoz'ek bere erredolaz, jausteko zorian izanik. Irugarren ekitaldia asteko zala, Yanoz'en aginduai men egin nai ez eutsela, miñezko irrintziak jaurtikiz, "Orion" batetik bestera zoratuta joian, ikoti basatiak egiñez. Alako baten jeiki itzelaren ostean, aurreko anak lurrean untzatu ebezan, eta Yanoz txolin baten antzera, aidean zear joanda, lurrera jausi zan saieska, zoraturiko "Orion" ikusleen artean ostentzen zala. Gaztea txingote barregarriaren antzera lurrean ikusirik, Konte Baltza'ren alderdikoak barreka asi ziran, Yanoz'en lepotik maxiatuz. Mutillaren aldekoek, ostera, atsekabeak jota jazoten zana begizatzen eben, izuaren-izuz Yanoz iltzat ebela.

Isillune larria edatu zan Ibarzelai'a'n zear. Orduko oituetara, zaldia galtzen eban zaldunak, eskura beste zaldirik ez izanik, burrukeari oiñez jarraitu bear izaten eutsan. Zoritxarrez, une aretan ez egoan eskura iñongo zaldirik. Estu ta larri, Undobika'k arin baten beste zaldi bat atontzeko agindu eban. Orduko, baiña, egoerea ustiatuz, zutuntzeko zorian zan Yanoz'en aurka "Ikatz" zirikatu eban Bertran'ek. Mutilla bere senetara biurtzen zala, trumoiaren antzera etorkion etsaiaren zaldia nekez uxatu aal izan eban, erredolaz akitaniarraren ezpatakada izugarria baztertuz. Konte Baltza urrundu zan barriro be, erasoari jarraitzeko. Orduan, onen didarra argi ta garbi aditu zan zelaiaren zear onetaraxe:

–Il egingo zaitut, napatarr madarikatua. Nire mendekuaren ordua eldu yat, eta Undaitz'eko gaztelua uts billakatuko da betirako...!

Berba oneik esanda, zaldia zirikatu eban, eta Yanoz'en aurka oldartu zan. Orduan bertan, Yanoz'ek iru txistu sarkor ozenak jaurtiki ebezan. Oneik entzutean, leiketearen ikusleak latz-ikara bakanak menperatuta isildu ziran, zer jazoko begira. Zelaiaren erdian, euskal abarkaz jantziriko anak zerbait zabaldua, orkatzeko narruaz jantziriko soiña lerdin-lerdin, eta basoillardun txanopean begiak dizdiraka, Yanoz'en irudi ederra ikusten zan etsaiaren eraso igurikan. Tximista lakoa oldartu yakon Konte Baltza, eta ondotik igarotear, bere biziko ezpata-ukaldia jaurtiki eutsan gazteari. Yanoz'ek ozta-ozta eutsi aal izan eutsan ezpatakada izugarriari, eta birao bat iges egiten yakola, akitaniarra urrundu zan, urrengo eraso gertatzeko. Barriro be, bigarrenez Yanoz'ek len lez txistu egin eban. Oraingo onetan, baiña, larritasun-ukitzea somatu zeitekean dei aretan.

Zelaiaren urrunenean jarrita, Bertran'ek atsedene bat emon eutsan zaldiriari, erasoari indar barrituaz ekion. Eta barriro orkatillakaz "Ikatz" zirikatu eban, aalik arienen mutillari oldartu ekiola, oiuka agintzen eutsala. Akitaniarren zaldi baltza eraso

asteko gertatzen zan une berean, zelai-ertzecko areitzen artean, tximistaren antzera, murre nabar anditzarra agertu, eta ikoti itzelaz jendetzaren gaiñetik igarorik, zelaian zear lauazka betean Yanoz'egana oldartu zan, ikusleen izuzko didarren artean. Txartxa'k oi eban lez, mutilla besarkaturik aurpegia miazkatu eutsan, pozezko kurrin-kak jaurtikiz.

–Arin, Txartxa, arin –agindu eutsan Yanoz'ek–, jarri aite lauroinka arrelepoan eroan naian.

Txartxa'k agindutakoa egin eban, eta Yanoz lepoan jesarrita, esku bat az ezpatea biraka erabillela, eta besteaz erredolari sendo eusten eutsala, artza uiatu eban Konte Baltza'ren aurka. Esanekoa, Txartxa bere lauazka bereiziaz arin baten aurrera oldartu zan. Orduko, ikusleen arritasuna ta izua adozeko didarrak biurtu izan ziran, eta Yanoz'eri txalo egiñez gaiñera, aren izena goratzen eben. Izan be, napartar gaztearen jokabideak eta edertasunak ikusle geienen begikotasuna irabazi izan eben.

Zaldiak, berez, artzen bildur dura, eta "Ikatz"ek artza etorkiola ikusirik, atzera egiten asi zan. Asarre bizipean, Bertran'ek orkatillak zaldi gaixoaren iztaietan untzaturik, eta abo-ugalak erabillezala, "Ikatz" beartu eban artzari aurre egiten. Barrero be leikideak gurutzatu ziran, alkarri jaurtiriko ezpatakadeak erredolatan jotzen ebela. Konte Baltza'k egoera garaia gotik burrukan egiten baeban be, alde au kittatuta egoan "Ikatz" nekatuagoa izanez gaiñera, artzari bildur itzela eutsalako. Ostera be alkarri eraso eutsoen bein eta barrero, eta alako baten Yanoz'ek etsaiaren erredolearen azpitik, ukaldi bat az Bertran bularrean jo eban, baiña burdiñezko babeskian irrist egin eban kalterik egiteke.

Leiaketak aurrera jarraitu-ala, Txartxa asarezko zantzuak agertzen asi zan. Alde batetik zaldiaren erasoak, eta bestetik jendetzaren oiuk zirala-ta, artzak gero ta sumiñago zaldiari erasoten eutsan. Orain arte oldartu ekion etsairik ez eban ezagutu izan, eta zaldi baltzaren oldarrek bere baitan amorru-antzeko sumiña sortzen eben. Onezaz gaiñera, zabaldiko bakeari oituta, ikusleen zurrumurre ta oiuck bere onetatik ataraten eben, eta noizbait jasapena galduta, erpakaz zaldia zauritzea erabagi eban, baiña babesten eutsan burusi lodiak bere asmoa ezereztzen eutsan.

Alako baten, baiña, zalditik ur samar igarotzen, erpakada indartsua jaurti eutsan, eta aurreko apatx-gaiñean arramaska izugarria egin eutsan. "Ikatz" gaixoaren zauriari odola parrastaka eriola, miñaren-miñez zoraturik, irrintzika ta ikotika zelaian zear oldartu zan, ezinduta belaunikatu arte. Au ikustean, Yanoz'ek gelditu zeiten agindu eutsan artzari, eta jatsita, ezpatea eskuan eroiala, zaldi baltza egoan lekura urrats nasaiaz abiatu zan, etsaiari zutuntzeko abagunea eskintzen eutsala. Une aretan, Konte Baltza'k zaldia zirikatzen eban zutundu zeiten, baiña artutako zauriagaitik eziña zala ikusirik, ibillera astirotsuz Yanoz'egana biurtu zan burrukea oiñez jarraitzearen, eta noizbait, etsai biok aurrez-aurre gelditu ziran.

–Madarikatu ori, il egingo zaitut –oiu egin eutsan Bertran'ek babeskipean–, Undaitz'eko leiña lur-gaiñetik betirako ostendu daiten.

–Nire aita etoikeriz zauritu zenduan iskillo barik egoanean. Baiña ni erail gura ba'nozu, berak emon eustan errubidun ezpata au garaitu bear izango dozu.

–Zure aitari aiñako gorroto dautsut, eta laster berarekin alkartuko zara.

–Aitari gorroto zeutsan zu baiño geiago zalako burrukan, baita beste gauzetan be.

Orruka, Konte Baltza'k Yanoz'eri eraso eutsan, eta millaka an egozan ikusleen aurrean, eriotz-burrukaren azken ekitaldia asi zan. Eta orduan, burdinpeko ziurtasunaren eta babesbako malgutasunaren arteko leikatea asi zan. Akitaniarraren ezpatakadak indartsuak ziran, eta Yanoz'ek ekian antze ta arintasun guztia erabilli bear izan ebazan. Onen ezpata-ukaldi batzuk Konte Baltza jo eben, baiña soin-babesak gaztearen ezpatakadak ezereztzen ebazan. Bere burua ziurtzat uste izanik, Yanoz'en erasoai jaramon andirik egiteke, Bertran'ek mutilla etenbarik atzera beartzen eban. Ezpatakada bat baiño ez, eta gazteak bereak egingo leuke. Yanoz'ek, baiña, bere arintasuna ustiatuz, ezpata gerturik ebala, akitaniarraren inguruan ikotika ebillenez, zauritzeko zaila zan, baiña zoritxarrez, gaztearen ukaldiak burdiñezko babeskian galtzen ziran. Laster oartu zan Yanoz, bide bat baiño besterik ez ebala etsaia menperatzeko, baiña orretarako bear izaten eban eretia ez yakon aurkezten. Bitartean, Konte Baltza nekearen zantzuak agertzen asten zan, eta izan be, soin-babeskia eragozpen andia izanik, onen pisu erbalgarriaren pean, arnas-estua gero ta larriago biurtzen yakon.

Burrukea bajoian aurrera, erabateko gora-beerarik jazoten ez zala, baiña alako baten, sustrai urten baten oztopo ariña egin eban Yanoz'ek. Ezustean, tximistaren antzera "Muskaria'ko ezpata-ukaldia" burura etorri yakon, eta izan be, arerioa garaitzeko ez eban beste biderik orixe baiño. Bertran'en ukaldien pean atzera egiten ebalakoa asi zan Yanoz, eta bapatean aratiñik jausi zan. Gurenda-didarra jaurtita, Akitaniarrak eraso eutsan eriotz-ukaldia emoteko, baiña ezpatakadeak ez eban aizea baiño zauritu aal, eta orduantxe, esku biakaz erabilliz, Yanoz'en errubidun ezpateak, buru-babeskia arrautz baten azala bai'litzan arrakalatu eutsan, odolozko arrada andia zauritik gorantz eriola. Ozta-ozta oiuk erlats, larria jaurtita, Konte Baltza, Akitani'ko zaldunik ospe-tsuenetariko bat, ilik amildu zan bere inguruan lurra odoltzen ebala.

Isillune larria edatu zan burruka-zelaian, eta gero, orru erraldoi baten antzera, jendearen didar eta txaloak ler egin eben Yanoz goratuz. Onek, bere aitaren iltzaillearen gorpua une batez begiztatu eban, lortutako gurenda aita zanari eskintzen eutsala, ordurarte iñoiz ez ezaguturiko sentipena bere izateaz jabetzen zala. Jarraian, odolduriko ezpatea bedarretan igurtzi eban garbitu arte, eta gerriko ugalean sartuta, ibilte malguz andikien oltzara abiatu zan. Ona baiño len, artzari dei egin eutsan, eta oi ebazan berba labur eta keiñuakaz, basoko lengo tokira biurtu, eta larregi urrundu barik an bertan begira egon zeiten agindu eutsan. Txartxa'k miikada batzuk emon eutsazan, eta lauazka ariñaz basoan zear ostendu zan.

Oltzara eldu zanean, pozez gaiñezka ta menperatzen eban adorea jabetu eziñik, Undobika Dukeak estu-estu besarkatu eban, auxe zirautsala:

–Nik ezagaturiko ezpataririk onena zara, eta beti siñestezintzat neukana, au da, soñez-soñeko burrukan ezpata utsak burnizko babeskiari garaitu, gaur millaka etorritako ikusleen aurrean erakutsi dozu. Zure aitari neronek emoniko errubidun ezpatea, gaur goizean Akitani'ko ezpata-maisuaren aurka erabilten ikusi zaitudanean, ziurtzat izan dot garaille billakatuko zintzakezala, baiña arraioa, Yanoz denganiño ori...! larritasun gorria jasan dot "Orion" nire zaldietariko onenak, belarrien gaiñetik aidean zear jaurti zaituanean. Orduan bertan iltzat izan zaitut... Artza etorriko ez balitzakizu... Bidebatez, Yanoz, zergaitik ez ekarri zure artz ori jauregira...?

–Ez, aitita, ori eziñezkoa da. Ormen arteko biziera jasangatxa biurtuko litzakio Txartxa'ri, jendearen oiua eta urretasunak zoratuta.

–Zelan ezi dozu artz ori, orren esanekoa biurtzeko...?

–Irati'ko oianean igarotako amar urte luze areitan, naikoa astirik izan neban txartxa otzan biurtzeko. Oso ernai da, aitita, eta asiera baten nireak eta bost jasan arren be, aurreratu-ala adimena zorrozten yakon, eta nire aginduak bete egiazala jaritsi neban. Ona etorri aurretik, basoko lengo lekura biurtu, eta an nire begira egoteko agindu dautsat.

–Zelan jabetu zintzazan artz orretzaz...?

–Ori edeski luzea da, aitita. Gero, apaldu bitartean esango dautsut.

Edu onetan Dukearen gurdi apaiñean jauregira bideratzen zirala, kaleko ertz baten, Arnaut'ek, Kirgis'ek eta Sugeliñ'ek Yanoz didar bizitan agurtu eben onetaraxe:

–Gora Yanoz, zaldun azkarra ta ezpataririk bikaiñena...!

Yanoz'ek gurdia gelditzeko agindu, eta lurrera jatsita bere lagunak besarkatu ebazan, auxe iñotsela:

–Lagun maiteok, ez dot astirik izan, merezi dozuen beste eskertzeko, baiña biar goizeko amarretan inguru, Akitani'ko Dukearen jauregira etorri zaitze, nire alde egiñikoa saritu dagitsuedan.

Arnaut'eri aurpegian beera malkoak eriozan auxe iñotsala:

–Yanoz, Yanoz, lenengoz ezagutu zindudazanean, zeugan zeozer andia egoala iragarri neban, baiña nork uste izan Akitani'ko Dukearen billobea laguntzat nebala...? Nik ez dot iñongo saririk gura, Yanoz, aski dot alkarrekin jasan doguzan gora-beerak gomutara ekarri, beste barik zorionsua izateko.

–Neu be, Arnaut, betirako eskertsu izango naiatzu, saririk itxaron bage nire alde egin dozunagaitik. Agur, lagunok, biar arte...!

Zortzi zaldik narraturiko Dukearen gurdi ederrak kaleetan gora jarraitu eban, ezker-eskoian egoan jendeak Dukea ta Yanoz batez be, oi bizitan goratzen ebazala.

Jauregira eldutakoan, oi eben lez, aitita-billobak aurrez-aurre apaldu eben. Asi baiño ez, Undobika'k billobeari artzaren gora-beerak edestu egiozan eskatu eutsan, eta Yanoz'en ezpanetatik dilindan egon zan guztitariko argibideak eskatzen eutsazala. Mutillak edeskia amaitu ebanean, eta oera joan aurretik,

–Begira, Yanoz –esan eutsan Undobika'k–, orain arte burrukaren gora-beerak

zirala-ta, ez zaitut nire Korte edo inguru-jendea aurkeztu, baiña ordua da nire dukeztari dagokiona egiteko. Biar, Akitani'ko andiki ta zaldun batzukin jai-apari bat izango dogu, eta etzi gain-gaiñeko beste bat. Azken onetara dukerriko autatuen eta onena etorriko da. Onein artean nire bigarren semea, Gartza, Miruz'ko kontea, ezagutuko dozu, apari orretan tartekoa izango da-ta. Bidebatez, Yanoz maite ori, soñeko barri bat kapela ta guzti zuretzat aginduko dot.

–Aztu baiño len, aitita, biar amarretan nire lagunak artu dagizuzan gura dot, euren alde aal dozuna egiteko. Zor andia dautset, Arnaut lepokerrari batez be.

–Nai dozun lez egingo dot, Yanoz.

Alkarri gabon emotsoela, Undobika'k,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, biar bazkal-aurretik, Akitani'ko oituerai jarraituz, Bertran zanaren semeak diran Gerin eta Yatxin, entzun-aldian artuko dodaz. Dukerri onetako ekanduetara, Andikiren bat ilten danean, Dukeari dagokio aren ondorengoa dan len-semea entzun-aldian artu, aita zanaren agintza, jardun, lurak eta anditasuna yarauntsi dagiazan. Bertran kontearen eta zure arteko burrukea garbi izan dala ezaugarritzat, baita zuen artean etorkirako iñongo etsaitasunik sortu ez daiten, ikertaldi onetan tartekoa izan zaitezala, begi onez ikusiko neuke.

Izan be, Yanoz'eri ez yakon atsegin berak il egin ebanaren semeekin alkar-ikus-terik izatea, baiña Undobika'k eskatzen eutsana zentzuzkoa zan ezker, baietz esan eutsan.

Biamonean, Yanoz'ek aitarekin gosaria artzen ebala, mezulari bat sartu zan, eta Dukeak baimena emonda, jakiñerazo eutsan, aurreguneko burrukatik iges egindako "Orion" bere zaldi bikaiña, gudari batzuk goizaldean aurkitu izan ebela, eta zela-pean arantzez beteriko burdin-zati batek zauri andia egin izan eutsala. Argi egoan, beraz, jauregiko kortan ziarduan baten batek, Yanoz'ek burrukea galdu egian, aurretiaz olako zitalkeria egin ebala. Au jakinda gero, azterketa zeatza zaldizain nagusiak egin ondoren, morroi bat ostendua zala jakin eban, eta dalako etoia aurkitzeko dukerri guztian zear mezuak zabaldu izan zirala.

Aitita-billobak bakarrik geratu ziranean, dukeak,

–Argi dago niretzat, Yanoz –esan eutsan–, Bertran Kontearen inguruko batek, edo Bertran'ek berak, zantarkeri ori egin dauala, eta izan be, Konte Baltza, Iroz, zure aitaren iltzaillea zala jakinda gero, orrek ez nau arritzen. Bertran'ek bere burua garaitetzintzat baeban be, bildur andia eutsun errubidun ezpatea esku bakar bat az jasoteko gai zintzazalako, eta berak ez orain, ez gazte zanean be, iñoiz lortu ez eban ezkerro, izuak eraginda zaldiari doillorkeri ori egingo eutsan.

Jarraian, Undobika ta Yanoz jauregiko baratzeraz urten ziran, eta aitak billobeari bere sendiari buruz argibide batzuk emon eutsazan. Baziran amar bat urte Dukea alargun billakatua zala, eta orain seme bi ta alaba bat ebazan. Semetariko nagusia zan Osartza, egunen baten Akitani'ko Dukea billakatuko litzake. Bigarren semea zan Gartza Kontea, Miruz Konterriko nagusia zan. Osartza'k orain iparreko saxondarren aurka burrukan ziarduan galitarrak laguntzeko, oneikin itun bat izenpetua ebalako. Sarri askotan, sartaldeko itsasaldean britaindarrak legorreatzen ziran, eta oneikin eta beste arerioekin burrukan egin bear ebala-ta, Akitani'ko Dukerriak ez eban bakealdi luzerik ezagutzen.

Era onetan ziardua, Yanoz'en lagunak etorri izan zirala iragarri eutsan Dukeari zerbitzari batek, eta andik laster, Arnaut, Kirgis, eta Sugeliñ aurkeztu yakezan. Orduan Yanoz'ek,

–Begira, aitita –esan eutsan–, lagun oneiri nire alde egiñikoa zelanbait ordaindu gura izango neuskië. Eurakaitik izan ez ba'litz, ez neuke zaganaiño eldu aal izan.

–Zer nai dozue saritzat –itaundu eutsen Undobika'k–, dirua, lurrak, ala jardun bereiziren bat...?

Arnaut'ek isillik zirauala ikusirik, Kirgis'ek auxe esan eban:

–Duke Jaun Agurgarria. Ni bustiñezko eltzegille nozu, baiña lanari buru-belarri emonda be, janaria lortzeko ozta-ozta irabazten dot. Askotan ames egin dot jauregi onetan mai-zaintzat jardutea.

–Nire mai-zaiña izango zara, eta zeregin orretan ondo jardungo ba'zendu, mai-zain nagusia billakatuko zara. Eta zeuk, Sugelin arlote orrek, zer nai dozu...?

Buru-makur andi bat egiñik, Marzak'eko arrapatariak,

–Duke Jaun Guztiz Agurgarria –begirunez esan eutsan–, nik ez dot iñoiz goserik kendu, eta au dala-ta, Berorrek jauregiko sukalde-mutilla izendatuko ba'nindu, iñoiz ez ames egiñiko zoriona artuko neuke.

–Alboko lagunak sakelak ez zendukez arinduko...?

–Duke Jaun Gain-gaiñekoa, beti aurrean erabilli nauan gosea kenduko ba'neu, munduko sukalde-mutillik zintzoena biurtuko nintzake.

–Une onetan bertan, sukalde-mutilla egiten zaitut, eta nire etxeko jakien ontasuna obatzeko gai ba'zintzaz, luzaro barik sukaldari-nagusia biurtuko zaitut.

Berba oneik entzutean, Sugelin ikotika asi zan. Bitartean, isillik iraundako Arnaut'eri, Yanoz'ek,

–Aizu, Arnaut, lagun maite ori –esan eutsan–, onaiño lagundu dausten artetik, zu zintzoena ta saiatuena izan zaitut. Eskatu nai dozuna, eta aitik emongo dautsula ziur naz. Zelako jarduna nai izango zenduke, beraz...?

–Yanoz Jaun Agurgarria –erantzun eutsan lepokerrak–, nik gura dodana ez dakit berorrek emongo ete daustan...

–Begira, Arnaut, ni betikoa naz, eta nire adiskidetasuna gorde gura ba'dozu, erabilli nagizu Aita Klobis nintzanean lez, au da, zure kidekotzat. Eta orain esan zelan ordaindu dagiketsugun nire alde egiñikoa.

Une batez lurrari begira isillik irauan eban Arnaut'ek, eta gero,

–Nik nai izango neukena ez dakit emongo ete daustazun, Yanoz... lepokerra ezaiña naz-eta... Begira, zure eskutaria izango ba'nintz...

Egoan aulkitik Yanoz jagi zan, eta zauskada andipean Arnaut estu-estu besarkatu eban.

–Arnaut, adiskide maite ori –esan eutsan–, eskatzen daustazuna merezi dozun baiño askozaz gitxiagoa da. Esan bear dautsut, baiña, zure eskaria dedu anditzat daukadala. Izan be, zu baiño eskutari ta lagun obarik nekez idoroko neuke.

Zarrastada andipean, Arnaut'ek esan egikeana auxe izan zan,

–Eskerrikasko, Yanoz...!

Era onetan ziarduela, Undobika'ren idazkari nagusia azaldu zan, eta,

–Duke Jauna –iragarri eutsan–, Gerin eta Yatxin, Bertran Konte zanaren semeak entzunaldien aretoan Berorren begira dagoz.

–Banoakie. Aizu, idazkari orrek: Kirgis deritxan gazte onek mai-zaintzat jardungo dau jauregian, eta gure Sugelin ospetsuak sukalde-mutiltzat. Begiraizu morroitzza-

tegian oe bana emon dakiela. Au oster, Arnaut deritxana, nire billobearen eskutaria dan ezker, aren ondoan lo-gela bat atonduko dautsazu.

–Bai, Duke Jauna.

Yanoz'en besoari eutsita, Undobika jauregira abiatu, eta andik laster entzunaldien aretora sartu ziran. Bertran Konte zanaren seme biak, Gerin eta Yatxin jagi, eta begirunez makurtu ziran, auxe iñotsoela:

–Egunon Duke Jaun Guztiz Agurgarria.

–Baita zuei be.

Jarraian, Undobika alkarren arteko aurkezpenak egiten asi zan onetaraxe:

–Au, Yanoz nire billobea da –eta jarraian–. Gazte au Gerin da, Bertran Kontearen seme nagusia, eta beste au Yatxin, seme gaztea.

Orduan, oikoa zana, alkarri buru-gurpen ariña egin eutsuen. Jarraian Dukeak,

–Aizu, Gerin –esan eutsan Bertran'en lenseinari–, tamala dot zure aitaren eriotza, ederrespen andia neutsan-eta. Nire aalmenean izan ba'litz, leiaketa ori debekatu-ko neukean, baiña oituren arauz ezin nengikean.

–Badakigu ori, Duke Jaun Aaltsua –esan eutsan Gerin'ek–, eta eskertzen dautsuguz zure dolu-miñaren itzok.

Au entzutean, Yanoz'ek zirrara andipean tinko-tinko begiratu eutsan... Bai, Olabarrieta'ko kapardi aretan Oiane atxillo eban akitaniar buruzagiaren abotsa zan. Lau urte igaro izan arren, orain Gerin begizatzean, erdi-illunean ikusiriko aurpegi arro ta errukibakoa gomutara etorkion. Argi gitxi egoan gau aretan kaparraren barruan, baiña entzun eban mintzoaren zakartasuna neskatillari itz egitean, ez leuke iñoiz aztuko. Argi-argi gogora etorkiozan gau aretan Oiane gaixoa larritu eben berba gordin eta lotsabakoen doiñua. Yanoz'ek bere buruari itauntzen eutsan Gerin'ek bere aldetik ezagutuko ete eban gau aretan krisaillu baten argi aulpean agertu yakonean. Une laburra igaro zan ukabilkada bat azkitaniarra lurrera jaurti aurretik. Augaitik, urrean, Konte Baltza'ren lensemeak ez eban ezagutuko. Yanoz'ek gogoeta oneitan ziardua, Undobika'k jesarri zeitezan agindu eutsen, eta gero Gerin'eri mintzatu,

–Ain zuzen be, eta gure dukaterriaren oiturai jarraituz –esan eutsan– aita zanaren barrutiko arazoak erabilliko dozuz, eta zure menpekoak aalik zuzenen jaurriko be. Zergatan eskatu egiezu bidezkoa izan daitena, gure dukaterriko domuari aurre egiteko. Baita be, bearrezko gudarien bilketea egin ain ugari doguzan arerioai jarkiteko. Badakizu, batutako guztietatik erdia dukerriko jaurtzarako izango dala, eta beste erdia Yarre'ko zure konterrirako. Arazo guztietan erria aalik ondoen erabilliko dozu, pozik bizi dan erria gudarako egokia da-ta. Epaketan zintzo ta zuzen jokatu egizu, makalen alde zure errukia beti agertuz. Argi al-dago...?

–Bai, Duke Jaun guztiz Agurgarria –erantzun eutsan Gerin'ek– Berorren esanetara beti izango nau.

–Orain beste zer bat. Akitani'ko egoko muga zainduko dozun ezker, Aturri ibairaiño bakarrik edatuko da zure jaurpidea. Ibaiaz bestaldean euskaldunen lurra

asten dan ezketiño, gogoan ondo jarrita izan dagizun auxe nai izango neuke: iñoiz ez dozu muga ori zearkatuko. Euskaldunak gure jatorri edo leiñukoak dira, eta gure artean oso ondo alkartu izan gara. Badakigu akitaniarrok, areikandik ez yakula iñoiz inongo erasorik etorriko. Azken aldiotan, gutariko talde txiki baiña ugariak Naparra'n eraso ta lapurketak egin dabez, eta gudari orreik zure agintzapean izango diran ezkerro, entzumenera olako ekintzak ba'letozkit, errua zeuri egotziko dautsut, eta orduan kontu estu ta zeatzak eskatuko neuskizuz.

–Zeuk agindua, Undobika Duke Jauna, egingo dot, eta aurrerantzean ez dozu eraso orrean albisterik izango.

–Ederto, Gerin, Yarre'ko Konte barria. Nire ederra irabazi dozula ezaugarritzat, zuek biok biar jauregi onetan Akitani'ko andikiekin nire billobearen goratzarrez ospatuko dan jai-aparira etorri zaitezela nai dot. Biar gaberarte, beraz.

–Eskerrikasko, Duke Jaun Guztiz Agurgarria.

Itz oneik esanda, Bertran Konte zanaren seme biak jagi ta urten ziran

–Zer deritxazu anai bioi, Yanoz...? –itaundu eutsan billobeari Undobika'k.

–Ez dakit ba... aitita.

Une batez ezpaitsu iraun eban Yanoz'ek, antxiñako gau aretan Olabarieta'ko basoan gertaturikoa, aitari esan ala ez, baiña azkenean isiltzea erabagi eban. Bazkalostean, Marzak'en inguruetatik egurastu gura ebala esan eutsan aitari, eta Arnaut berarekin artuta, biok uritik kanpora joan ziran. Benetako eskutari bateri dagokionez, Arnaut'ek lepo-gaiñetik eskegita errubidun ezpatea eroian, eta esku batz erredola. Zorionsua sentitzen zan Arritza'ko lepokerra jendearen adikunea eurakan jarrita oartzean, eta soñaren ezbearra aztu eginda, gizandi baten ibilleraz bideari ekiten eutsan, Yanoz bere nagusia gero ta ederretsiago ebala. Akitani'ko uriburua inguraten eban ibaiko urgeldi sakon baten, gazte biok euren biziko bustialdia izan eben, eta jarraian jauregira joan ziran.

Etxera elduta, Undobika'ren joskille nagusia Yanoz'en begira egoan gazteari orkatz-narruzko jai-janzkia egiteko. Undobika Dukeak bere billobarentzat soñekorik ederrena nai eban ezkerro, orkatzen narrutan aurkitu daitekezan ederrenetarikoa ziran. Zeatz eta arduratsu joskilleak neurriak artu eutsazan urrengo egunerako dana gerturik izan zeiten. Janzkiaz gaiñera, basoillar-lumadun kapela ta abarka barriak egingo leuskioz.

Gau aretan, dukerriko andiki batzuk lagunduta, aitita-billobak aparti on eta ugaria izan eben. Garai aretan, Undobika'ren seme gaztea zan Gartzza, Miruz'eko Konte ospetsua, ezagutu eban Yanoz'ek, eta izan be, lenengo unetik begikoa gertatu yakon osaba Gartzza, baita oneri loba Yanoz be. Andikien artean Akitani'ko jaurlaritzaren arduradun eta gudarburu batzuk egozan. Aparti onetan danok ederretsi aal izan eben Yanoz'en xalotasun eta apaltasuna. Aparia atsegin-atsegiña azaldu zan, eta andiki batzuk eskatuta, edestu bear izan eutsezan Txartxa'ren gora-beerak, oianean gosez ilteko zorian idoro ebanetik, anditu arte. Entzuleak napartar gaztearen ezpanetatik dilin-

dan egozan, eta artzaren ekintzen edeskia amaitu zanean, guztien goresmenak artu ebazan.

Apalostean, gudarburuen artean errubidun ezpatearen arazoa sortu zan, eta onen ondorioz, areitariko indartsuenek bere ezpataz saio bat egiten itzi egitsela eskatu eutsoen Yanoz'eri. Onen aginduz, Arnaut'ek errubidun ezpatea ekarri, eta mai-gaiñean ipiñita, gudarburuek saioari ekin eutsoen. Batak bestearen atzetik adorarik andienaz ezpata-jasoteari emon eutsoen, baiña uts egin eben. Orduan, Akitani'ko gudarostearen nagusiak,

–Aizu, napartar gazte –esan eutsan mutillari–, eskertuko neuskizu, Undobika Jaun Dukearena izan zan ezpata ori zerorrek jaso zengian. Lengo egunean jauregi onetako entzun-aldian aurkeztu zintzazanean, guztien aurrean ekintza arrigarri ori egin zenduala entzun dot, baiña nire begi oneikaz ikusi gura izango neuke.

Yanoz mai luzeen arteko zabal-unean kokatu zan, eta munduko gauzarik errazena bai'litzan, lenengo eskumaz eta gero ezkerrez errubidun ezpatea jaso eban. Amaitzean, txalokada durundutsu batek ekintzea saritu eban. Esku-zartaden artean, Akitani'ko gudarburu nagusiak, Undobika'ren belarrira abopeka auxe esan eutsan:

–Nire Duke Jauna; mutil orren jasa ta indarra ikusirik, daukadan guztia egingo neuke, baietz egunen baten gure dukerriko gudarbururik bikaiñena billakatu...

Undobika'k baietzko keiñu batz erantzun eutsan. Yunilde bere alabearen semeak eriotz-leiaktean Konte Baltza garaitu ebanetik, gudari gain-gaiñekoa zala oartu zan, eta bere ondotik aldendu zeiten nai izan ez eban ezkerro, zelan lotuko leuken alboan bide guztiakaz asmatzen eban, eta orain bere gudarburu nagusiari entzunikoak asmo bat ekarri eutsan.

Berandu samar amaitu zan lagunarteko aparria, eta maikideak joan ziranean, aiti-ta-billobak euren lo-gelatara abiatu ziran. Yanoz gero ta maiteago ebala konturatu zan Undobika Dukea gau aretan, eta ia goizalderarte billobarentzat asmoak egiten iraun eban.

Urrengo egunean eguraldi ederra izanik, Yanoz eta Arnaut basora joateko gertatu ziran, eta ogitarteko batzuk bide-zorroan sartuta, uriburutik urten ziran. Andik ordubete batera-edo, ugazabaren deiari erantzunez Txartxa agertu zan, eta mutillari oiko maitasun-txerak egiñik, irurok bide-egiteari jarraitu eutsoen. Pozik egoan Yanoz, eta ainbat areago artzaren itxura osasungarria ikustean. Egun zoragarria igaro eben, eta noizbait Txartxa basoan itzita, arrats-beeran jauregira biurtu ziran. Jai-aparria zortziretarako berbatua zan, eta ordu orren aurretik, zaldi ederrek lerraturiko gurdi bikaiñetan, dukerriko andiki ta gudarosteko nagusiak, emazte ta seme-alabekin etorten asi ziran, eta jatoki-aurreko areto ederrean talde txikitik autuan ziarduen. Zortzirak baiño len, dei egiñiko guztiak aretoan egozan. Akitani'ko oitura zan, Dukea elduta gero, baimen berizi baten bidez izan ezik, ezin zeiteala beste iñor sartu.

Gau aretan jatokiak eta onen aurreko aretoak ikusgai yaukala eskintzen eben. Ormetako luzeeran jarritako zuzi ugarien argipean, andiki ta gudarburuen iskillioek

dizdira biziak jaurtiten ebezan, eta andrazkoen bitxiai ta begi ederrai batez be, eguzki-antzeko leiñuruak eriezan. Alako baten, eta jauregiko joale batek zortzirak doi-doi jota, iru tronpetari ateko sarrerean agerturik, soiñu biziakaz Akitani'ko nagusiaren sarrerea iragarri eben. Aretoan isiltasun betea sortu zan bapatean, eta ikusle guztien begikadak eurakan josita, Akitani'ko Undobika Dukea ta Yanoz atezubipean agertu ta sartzeko zorian zirala, jai-arduradunak berba arranditsuakaz onetaraxe aldarrikatu eban:

—Andiki, gudaiburu ta Jaun-andreok...! Bide egin eta gurtu Akitani'ko gure Dukearen aurrean, eta beronen billoba dan Undaitz'eko Yanoz Naparra'ko zaldun zangarraren aurrean...!

Yanoz'en besoari eutsita, Undobika Dukeak itxura itzalgarria erakusten eban, soingaiñeko gorri luzea soru-gaiñetik narrazka, buruan urrezko duke-burestuna jarrita, eta eskuan agintza-makilla luzea eroiala. Itzalgarria zan benetan Undobika Dukearen itxura ta azkaia, baiña ikerle guztien begiak Yanoz'egan josita egozan, eta izan be, napartar gazteak guztien adikunea merezi eban. Orkatz-narruz egiñiko janzki barria ezin egokiago etorkiola, basoillarraren lumaz apaindutako txanopean ule gatzainkara naroak agirian jarten eben aurpegi gizonkoi ederrean, bizitzaz beteriko bereizten yakozan begi uren eta biziak. Gerritik eskegitako ezpataren errubiri, aretoko argiek gorrimiñezko dizdirak ataraten eutsoezan, eta euskal abarkaz jantziriko oin sendoek txairotasun bardinbakoa emotsoen bere irudi yaukalari. Eta Undobika'ren ondoan aretoan zear joiala, danek ederresten eben beragan, soin utsaz, burdiñezko babeskiz jantziriko Dukerriko andienetariko burrukalari bat garaitu ebala.

Andikien menpetasun-ezaugarrien artean, jatokira sartzeko zorian zirala, Undobika Dukea ikusleakanantz biurtu zan, eta mintzo argi ta sendoaz auxe esan eutsen:

—Akitaniar maiteok: nire alboan ikusten dozuen napartar gazte au nire billobea da, maite-maite izan neban Yunilde nire alabearen semea. Undaitz'eko Iroz zaldunarekin ezkondu zan, eta batasun onen ondorioz nire billoba Yanoz jaio zan. Eta Akitani'ko Dukea berbera bai'litzan, begirunerik andiena izan dagiozuela agintzen dautsuet. Orobat, euskalduna izanik, au da, Akitaniarren odolekoa, aurrerantzean iñongo atxaki barik, gure ta euren arteko mugea dan Aturri ibaiaz araindiko lurak ez zapaltzea agintzen dautsuet, eta erri guztia jakitun ipinteko, dukerriko toki agirienetan iragarriko da.

Au esanik, Undobika jatokira sartu, eta maipuruko jarlekuan jesarri zan, alde batean bere seme Gartzta, eta bestean Yanoz ebazala. Mai nagusi aretan mailla goreneko andiki ta gudaiburuak jesarri ziran, eta onen ezker-eskumatara jarritako beste mai luze bitan, enparauak.

Jakien zerrendea gain-gaiñekoa azaldu zan, bai kopuruz bi ontasunez, guztitari-ko barazki, arrainki ta errekiak aukerako ardaoakaz lagunduta. Mai-azkentzat mota askotako igali ta gozokiak. Errekiak amaitu ziranean, etenaldi bat sortu zan, eta zita-

ra batek lagunduta, Anuak, dukerriko koblari edo bertsolaririk ospetsuena, maien arteko zabalunean jarrita, eta maikideek isil-isillik egozala, onetaraxe asi zan:

Agurtzen zaitut biotzez
Undobika Duke andia,
gure erriaren dizdira,
nagusi zintzo ta argia.
Jainkoak emon daizula
urte askotako bizia,
beti izan zaitekiguzan
zeru aratzeko eguzkia.

Etxe onetako alaba zan
lora eder zoragarria,
maitasunak eraginda
sortu eban kimu barria.
Yunilde zan gure izarra
Akitani'ko lilia,
Yanoz bere ondorengoa
Goi-Naparra'ko eguzkia.

Areitza lako tantaia
zumea baizen lerdena,
biurtu zan Auñamendi'n
bere erriko itxaropena.
Errubidun ezpateaz
burrukalari gorena,
badirudi ler dagian
ortziko durundu ozena.

Iñongo babeski barik
artzaren bizkar-gaiñean,
azkon ariña dirudi
lauazka geldi-eziñean.
Euskaletara burrukan
ezpata zorrotza aidean,
buru-burdiña zulatuz
intxaur-azala bai'litzan.

Gudari izukaitz txairoa
gora Yanoz napartarra,
jatorriz Undaitz'ekoa
adore ta oldez zangarra.
Garona aldeko jendea

eta Euskalerriko adarra,
enbor bereko kimuak
beso bardiñeko indarra.

Gora Undobika gurea,
Aupa Yanoz napartarra,
bata nagusi zintzoa,
bestea biotz eta indarra...!

Koblariak amaitu ebanean, didar eta txalo-eztanda batek ler egin eban. Apariari jarraitu eutsoen maikideek, ardoak eta jaki bikaiñek miiak askatzen ebezala. Undobika Dukea zorionsua oartzen zan, bere seme Gartza alde baten, eta bestean Yanoz ebazala. Alako baten, akitaniar ardao bikaiñak eta billobaganako maitasunak eraginda, buruan ebilkion asmoari bide egिñez,

–Aizu, Yanoz maite ori –esan eutsan–, azken egunotan ezin dagiket buruan yabildan asmoari jarki. Begira, gure Akitania etsaiez inguraturik bizi da, eta gure buru-jabetza iraun-erazoteko, gudaroste ona izatea nai ta naiezko baldintza dogu. Orretarako, baiña, gudalburu onak izatea beifiena da, eta au dala-ta, Akitani'ko Ipar-gudarosteko gudalburuaren jarduna eskintzen dautsut. Bertran Kontea garaitu ondoren, erriko jende ta gudarien artean arrakasta itzela jaritsi dozu, eta ori bearrezkoa da gudariakan adorea piztuteko eta burrukak irabazteko. Zer deritxazu nire eskintzari, Yanoz...?

Undaitz'eko semeak une batez isillik iraun eban, eta gero,

–Begira, aitita –esan eutsan–, eskertzen dautsut benetan eskintza ori, baiña nire erriak bear izaten nau. Badakit, ango nire biziera emengoa baiño askozaz gogorrigo ta neketsuagoa izango yatala, baiña bakotxak bere eginkizuna bete bear dau, eta nirea Erro, Esteribar eta Aezkoa'ko nire erritarren artean dago. Naparra kinka larrian datza etsai aaltsuek inguraturiko, eta nire egitekoari ezin naitekio jarki, aitita.

Undobika'k ezin egikean jasan bere billoboa urrundu ekion, biotzean sakon sartu izan yakolako. Au zala-ta,

–Entzuidazu, Yanoz –mintzo maitetsuz Dukeak barrero–, Naparra'ko Auñamendia'n biziera emengoa baiño askozaz gogor eta garratzagoa izanez gaiñera, zer billakatuko zara...? Geienez gaztelu baten nagusi ezeuki ta aztuta. Emen ostera, andiki ta gudariak ederretsitako gudalburu aberatsa ta urena...

–Aitita, ezin dagiket nire erria saldu. Diru ta ospaeren aldetik emen askozaz geiago izango nintzake, baiña nire barruan etenbarik ar bat egiñikoa gaitzetsiz lebilkit, eta orrek zoribakoa egingo ninduke. Naparra'k errege bat bear dau burujabetasuna iraun-erazoteko. Iroz nire aitari ta osaba Imoz'eri orixe askotan entzun neutsen, eta ni errigintzari dagokionetan ezjakin andia izanik be, eurok iñoenari jarraitu bear dautsat, Euskalerrri gure aberria benetan maite izaten ebelako.

Lur-jota egoan Undobika Dukea, baiña ezustean, tximistaren alakoa burutapen

argi bat otu yakon. Andik ez urrun, alboko mai batetik urre-antzeko billoa eban neskatilla eder-ederrak ezin egikeazan begiak Yanoz'egandik kendu. Amazortzi urte inguruko neska zoragarriaren argiz beteriko betseiñek, lillura jarki-eziñaz dizdir egiten eban. Orduan Dukeak,

–Begira, Yanoz –esan eutsan–, ikusten al-dozu eskumako mai orretan jesarrita dagoan urrezko adatseko neskatilla ori...? Ara ba... Liliane, Drone'ko andereñoa dozu. Bere aita, Drone Konterriko nagusia da, eta izan be, Akitani'ko aberatsenari-ko bat, Drone ibaiaren ertzean dagoan gazteluko jabea. Bera ta biok lagun andiak gara, baiña Drone'ko kontearen buruaustea bere alabea da, onen inguruan dabiltzan zaldunetatik ez baidaki zein aukeratu Liliane'rentzat. Zenbatu-eziñak dira Drone'ko Lorearen atzetik zoratuta dabiltzan andikiak, eta au ez da arritzekoa, konteak beste ondorengorik ez dauan ezkerro, bere aberastasun guztia Liliane'ntzat izango da. Orra ba, neska bategan edertasun eta aberastasuna buztarturik. Akitani'ko oiñordekorik irrikatuena da, eta bere maitasuna irabaztearren, andikien artean amaika leiaketak ospatu dira, baiña orain arte beintzat, ez dau iñork Drone'ko Lorearen maitasuna jaritsi. Lengo egunean Ibarzelai'ko oltzatic burrukea begiztatzen ebalu, ezin egikeazan zugandik begiak kendu, eta orain bardin, ez dauz zugandik bazterzen.

Isildu zan Undobika, Yanoz'ek neskatilla yaukala bere aukeran begiztatu egian. Napartar gaztearen begikadea beragan josita oartzean, Drone'ko Lorea lotsaz gorritu zan betseiñen argi zoragarria maiko zamauan jarten ebalu. Ain zuzen be, nekez idoro zeitekean a baiño emaztegai ederragorik. Ustekabez, baiña, gomutara etorri yakon, Zuberoa'ko Lakarri'ko jauregian egoan beste lora baten begi argi ta otzanak, berak ezagutu eban une beretik betirako biotzean gordeten eban maitasun yaukala. Ederra zan ederra, Liliane Drone'ko Lorea, baiña Auñamendi'ko bazter aretan sortua zan basalilia berarekin edonora eroian. Eta diruaren aldetik... Yanoz'ek ez eban orren balioa ezagutu, Undaitz'en aitarekin igarotako aldian, eta gero Irati'ko oianean osaba Imoz'ekin, urrearen dizdiratik jarei bizi izan zalako. Drone'ko gaztelua ederra izango litzake, baiña non arrano-abia zirudian bere Undaitz'eko gaztelua baizen ederrik...? Gaiñera, emen obiratua egoan bere amari, egunen batean aita batuko litzakio...

–Zer deritxazu nire eskintzari, Yanoz...? –jarraitu eban Undobika'k–. Akitani'ko gudalbururik andienetariko bat, eta gudaldien arteko atsedun-UNETAN, Drone'ko Liliane zoragarriaren maitasuna, Dukerriko gaztelurik aberatsena... Bai, Drone'ko Konteari azalduko dautsat nire asmo ori, eta ondo ezagutzen dodan ezkerro, iñongo atxaki barik onartuko dau...

–Aitita, mesedez –larri eten egin eutsan Yanoz'ek–, laga egizuz asmo orreik alde batera, nire eginkizunak Naparra'ra naroalako. Ederra da ederra, Drone'ko Lorea, baiña Auñamendi'ko basa-lili baten urrundiko deia somatzen dot, eta nai-ta-ez emaztetzat ames egiten dot. Aberastasunak ez nau erakarten, eta Undaitz'eko nire gaztelua ez neuke munduko jauregi guztiakaitik emongo. Naparra'k bear nau, eta ara biurtuko naz, Auñamendi'ko euskaldun bateri dagokiona egiteko. Eta onezaz gaiñera, beteki-

zun bat nire begira dot. Aita, Igun artzaiñaren sarobe-ondoko obi baten datza, eta eriotz-orduan, gazteluko larrainean lurperatuta dagoan nire amaren ondora, egunen baten bere gorpuzkiak ekarri nengiazan agindu eustan, bizitzan zear baizen alkartuak eriotzean be iraun egien. Mezedez, aitita, zure asmo orreri ez eragon...!

Asperen bat jaurtiz, Undobika Dukeak burua makurtu eban, eta,

–Yanoz, billoba maite ori –mintzo itunaz esan eutsan–, eskiñi dautsudan guztia nirekoitasunak eraginda izan da. Zuzen zagoz, eta zure eginbearra Naparra'n dozu... baiña ames egin neban, Yunilde maitiaren semea nire alboan betirako izango neuke-la...

Eta jarraian, Gartzta bere bigarren semeari mintzatuz,

–Aizu, Gartzta– esan eutsan–, Osartzta'k zure anai nagusiak germanitarren aurka burrukan diardu, baiña zuek biok auxe jakin dagizuen nai dot: ez dozue iñongo atxakiaz Akitani ta Euskalerra arteko bake-ituna eten egingo. Au idatziz zuek biontzat ipiñiko dot, eta egunen baten itun au autsi egingo ba'zendukie, nire madarikaziñoak betirako jarraituko dautsue.

–Nasaitu zaitetz, aita –erantzun eutsan Gartzta'k–, akitaniarrok benetan maite dogu nire arreba Yunilde'ren semea, eta ez gara ezelan be, euskaldunen aurka joango. Gaiñera, kobleriak len esan dauskunez, enbor bereko adarrak gara, eta onen ziñaldaritzat, izkuntza bardiña darabilgu.

Yanoz'ek ederrespen andiz begiratu eutsan osaba Gartzta'ri, eta alkarri irribarre egin eutsoen. Orduko, berandu samar zan, eta egun aretako zarrastadek nekatu-riko Undobika Dukea jagi zan, eta Yanoz'en besoari eutsita,

–Goazen, Yanoz –esan eutsan–, nekatuta nago, eta ordua da oera joateko.

Jatokiko aterantz abiatu baiño ez, iru tronpetari-ek begirunezko agurra jo eben, eta maikide guztiak zutundurik, menpetasun-ezaugarritzat burua makurtu eben. Logelara joiazala, Undobika'k,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, noiz biurtuko zara Euskalerra'ra...?

–Aalik laisterren, aitita.

–Ez zintzakez aspalditxu batez nirekin geratuko...? Zaarra naz, Yanoz, eta ez dakit barriro alkar ikusiko ete dogun. Udagoiko atean gagoz, eta sasoi onetan eizaldia asten da gure lurraldean. Basabere ugari dago bazterretan, eta eizagaiak keatzen doguz, errikide ta gudari-ek bearrezko janaria izan dagien. Astebete bi besterik ez bada be, nirekin eizaketan jardungo ba'zendu...!

–Bai, aitita, amabost egunez zurekin izango nozu Euskalerra'ra biurtu aurretik.

Maitetsu begiratu eutsan Undobika'k, eta gero bakotxa bere gelara sartu zan. Egun aretako gora-beerakaitik, eta berandu zala-ta, oera sartu baiño ez, Yanoz lo geratu zan, amesen artean Oiane'ren aurpegi yauskala agertzen yakola.

Orren arin ez eban lorik egin Gerin'ek, Konte Baltza'ren lensemeak. Su itzungieziña lakoa gorroto neurribakoa eutsan Yanoz'eri, bere aita il ebanari. Egia zan ain zuzen be, gazteak burruka garbiz garaitu izan ebal, "Orion" zaldiari egiñiko zantar-

keri ta guzti, baiña bazan beste zer bat apentza-egarria piztu egiten eutsana. Undobika Dukearen entzunaldian ikusi baiño ez, ezagutu izan eban Yanoz, Lakarri'n arrapatu-riko neskato ederraren askatzailletzat. Une labur batez basoko kapardi aretan aurrez-aurre ikusi izan eban, baiña napartar gaztearen aurpegia gomutean betirako irarrita geratu yakon. Era onetan, Konte Baltza'ren Iroz'en aurkako gorrotoa, aren semeagana igarora zan Yanoz'eri gorroto itzela eutsala.

Urrengo goizaldean Gerin bere anaiarekin Yarre'ko gaztelura biurtzen zanean, barrutik ebilkion gorrotoak eraginda,

–Aizu, Yatxin –esan eutsan anai gazteari–, Yanoz madarikatu orrek zapaldu egin gaitu. Erriko andikien aurrean gure aita eraille zitaltzat salatu ondoren, gaztetasuna ustiatur, zaarra izaten asten zan Akitani'ko zaldunik zangarren eta saiatuena zan gure aita, iskilloen epaiketean guztien ederrespen eta txaloen artean il egin dau. Yarre, gure etxeko izen ona ta aipua lorrindu ditu, eta geren ori betirako eroango dogu, gure madarikaziñoa biurtuta. Gaiñera, eta au orain arte ez dausat iñori esan, Zuberoa'tik etxerantza nentorren bein baten, gau izanik suge baten antzera kapar-barrura sartu yatan, eta nirekin egoan euskal neskatillea lapurtu egin eustan, bere mirabe kutuna egiteko, urrean. Une igeskor batez soillik ikusi neban, baiña barruko krisailluaren argi aulpean, aren aurpegia ageri yatan, eta arrezkero gogoan beti irarrita daroat. Bideren bat ba'litz Yanoz madarikatua garbitzeko...!

–Begira, Gerin, Yanoz Euskalerra'ra biurtzeko asmotan ei'da, eta olan izanik, gure konterria zearkatu egin bear... eta Aturri ibaiko barrutia gure zaintzapean dagoan ezkerro, aren barriak jakingo doguz, eta eretiren bat aurkeztuko ba'litzakigun...

–Zuzen zagoz, Yatxin. Akitani'ko egoaldea gure zaintzapean dago, eta jendea beti lez geure esanetara gerturik. Etxera elduta, sare estu bat atonduko dogu, Yanoz irazi ez dakigun. Biar bertan, buruzagiak dei eginda gertu-lanari emongo dautsagu, eta Gurbix'eri aalik ariñen etorteko mezua igorriko dautsagu. Aturri ibaiaren mugea aren ardurapean izanik, eta Yanoz napartarrak etxerakoan nai-ta-ez ibai ori zearkatu bear dauan ezkerro, arazoaren giltza bere eskuetan dago. Ez aztu, Gurbix gure zerbitzari zintzoak gorroto itzalieziña dautsala Yanoz'eri, eta ainbat areago, bere anaiari Undaitz'eko gazteluan gezi bataz idunea zearkatu eutsanetik. Au dala-ta, beragan morroirik zintzoena izango dogu asmatzen doguna burutzeko.

Era onetan jardun eben Gerin'ek, Yarre'ko Konte barriak, eta bere anaiak, gudaritalde batek lagunduta Akitani'ko egoalderantz zaldiketa azkarras abiatzen zirala. Urrengo eguneko illuntzean, atsedetik artu bage, Yarre'ko gaztelu eder eta izugarria elduko litzakez... Gaztelu bikaiña zan, baita amaika edeski izugarriak ango jendeek abopeka alkarri zirautsoezan.

Marzak'eko jauregian eiza-aroa asita, egunoro Undobika Dukeari lagunduz, Yanoz'ek eizari buru-belarri emoten eutsan, Akitani'ko andikien talde batek lagunduta. Euren atzetik, arrapatu-riko eizakiak zerbitzari-ek gurdi-etan lorratzen ebezan, eta gaba elduta, su berezian inguruan jarrita, narrutu-riko eizakiak keatzen ebezan, negu-

ko bearrianari aurre egiteko. Zaldika jazarten ebezan arrapagaiak, eta gero inguratu-ta, astamakillez eta geziz eraisten ebezan. Beti Dukearen alboan, Yanoz'ek "Orion" zaldi zuri ederra erabillen, eta izan be, len izandako zauria osatuta, zaldi eskurakoi ta esanekoa zan. Askozaz naiago eban Yanoz'ek astamakilla baiño uztai-geziak erabiltea. Txartxa'ren lepo-gaiñeko jaurtiketeari oitua zan ezker, zaldiz be eiztari trebea azaldu zan. Noizean bein, Yanoz'ek igesari emoten eutsan, eta leku bakartiren batera elduta, Txartxa'ri dei egiten eutsan txistuka. Oneik entzutean, egoana-egoala, aren entzumen zorrotzak artzen ebazan, eta pozez gaiñezka ariñeketan etorkion, gur egiten eban ugazabari bere maitasun bizia adierazoteko.

Aspaldi zoragarria gertatu zan eizaldia, baiña ezusteko jazokizun bat zala-ta, amabost egun irauteko zana, epea igaro baiño len eten egin bear izan eben. Amargarren egunean-edo, gau baten su-inguruan egozala, urrundik etorritako mezulari batek Dukeari idazki bat eskuratu eutsan, oso garrantzitsua zala esanez. Irakurketea amaiturik, Undobika'ren aurpegia arrenkura bizi batek illunduta, bere alboan eban Yanoz'eri, mintzo kolokaz auxe esan eutsan:

–Billoba maite ori, artu bear ez neban mezua eldu yat, eta auxe alegia: britaindarrak Garone aldeko ondartzta baten legorreratu dira ontzi ta gudari askoekin. Dirudiane, gudaroste indartsua da, eta gure uriburu Marzak'erantz aalik ariñen ei'datoz. Ereti txarra Akitania'rentzat, gure iparreko gudarosteak, Osartzta, nire seme nagusiarren agintzapean germanitarren aurka diardu-ta.

Au esanik, andiki ta guda-buruzagiak batzar batera dei egiteko agindu eutsan Undobika'k laguntzaille bateri, eta andik laster eizaketea eten egiñik, batzarra ospatu zan. Amaitzean, turutak aditu ziran, eta aalik ariñen andikiak eta gudalburuak kapardia itzita, gudaroste atontzeko etxera biurtu ziran. Undobika'k berak gudaroste orren agintza artuko leuke. Marzak'eko bere jauregira abiatu aurretik, Yanoz'eri dei egin eta auxe esan eutsan:

–Alkarri agur egiteko ordua etorri da, Yanoz nire billoba maitea, eta ain zuzen be, bear baiño lenago, nire betebearrak britandarrak jarkitzera beartzen nau-ta. Biar bertan egunsentiaz batean biurtuko naz, dukerria gudarako gertatu daiten. Zu oster, Euskalerrira biurtuko zara, ain bizi ames egiñiko aberrira. Oztoboko biurpena ziurtatzeko, amabiko gudari-talde batek Aturri ibaiatz bestalderaiño lagunduko dautsu. Orain, maite ori, gabon eta biar arte Jaungoikoak lagun.

Urrengo egunean egunsentia barik, turuten otsek kapardia iratzarri eben. Joan aurretik, begietan malkoak ebazala Undobika'k Yanoz estu-estu besarkatu eban, eta,

–Agur, Yanoz, billoba maite-maitia. Ez dakit egunen baten alkar ikusiko ete dogun barriro, zaar samarra naz-eta, baiña nire maitasunak eta gomutak betirako lagunduko dautsue. Or begira dozu amabiko taldea, dagokizun laguntza emoteko. Eroan zurekin "Orion" nire zaldirik onena, eta badaezpadakoan torizu berrogei ta amar antzurreko zisku au, dirua beti lagungarria da-ta. Agur Yanoz...

–Agur, aitiba...

Eta aittiganako maitasunak malko bi jarri ebazan napartar gaztearen begietan. Barruko zauskada ta malkoak ezkutatzearren, Akitani'ko Dukeak aalik ariñen alde egin eban, atzetik andikien taldeak erraikiola. Kapardia utsik geratu zanean, Yanoz Orion-gaiñean jarrita, talde laguntzaillearekin egorantz abiatu zan. Urten baiño len, txistu bereizi bat, urrun samarretik jarraitu egiala agindu eutsan Txartxa'ri, artza iñork ikusi egian ez eban gura-ta, eta izan be, olan egitean bazirudian suzmo bakan batek eragiña zala.

Bere ondoan, eta beste zaldi baten gaiñean Arnaut joian. Benetako eskutari bateri dagonionez, sorbaldatik eskegita ugazabaren errubidun ezpatea eroian, eta zela-burutik Yanoz'en erredola. Egun osoan zaldiketari ekin eutsoen, beste geldiunerik egin bage, ordubete bateko atsedena baiño, bazkaria izateko. Urrilla amaitzeko zorian zan orduko, eta basoko zugaitzak laster billustuko litzakez Azilla'ren euri ta aizearen eragintzapean. Egun-argia laburtu izan zan nabariki, eta neguko urretasuna oroz gain agiri zan. Yanoz'ek askozaz naiago izango leukean, biurpena lenago egin izatea, baiña eizaketari emon aurretik, edozein atxakiz Undobika'k illabete batez geroratu izan eban billobearren biurpena, eta augaitik, orain negu-ateetan izanik, eguraldia ez zan egokia bidai luze bateri emoteko.

Illuntzean, zaldiketari eten egin eutsoen, eta gudari-taldeak kapardia jarri eban. Kapar baten Yanoz eta Arnaut kokatu ziran, eta apalduta gero, oeratu baiño len, urrezkoen katanarrua jakepetik atarata,


–Aizu, Arnaut –esan eutsan Yanoz'ek–, zisku au jakepean eroan-bearra bai nekegarria dala...! Izan be, txanponak egiteko gizonen beste gai ariñago bat autatu bear izango leukie.

Arnaut'ek barre egin eban, eta,

–Nai ba'dozu –esan eutsan–, neronek eroango dautsudaz urrezkook, prailleen dirua batetik bestera eroaten oitua naz-eta.

–Eutsi ba, eta eskerrik asko, Arnaut.

Au esanik, gazte biok etzanda jarri ziran, eta andik laster lo atsedengarriak artu ebazan. Kapardian, baiña, bazan lo egiten ez ebana... Amabiko taldearen burua, izan be...



YARRE'N ATXILLO

Konte Baltza'ren seme biak Yarre'ko gaztelura eldu baiño ez, euren agintzapean egozan buruzagiai dei egin eutsien. Baekian Gerin'ek gitxi-gorabeera Yanoz'ek artuko leuken norabidea Naparra'ra biurtzeko, eta barruti-zati orren zaindari nagusia Martzel buruzagia izanik, bearrezko argibidez jabetzearren, asmo zeatz eta oso bateri emon eutsoen, nonai salatariak jarriz agindu zorrotzakaz. Olan ba, Dukearen jarraigoak britaindarren erasoari buruz jakin ebanean, eta Yanoz'eri Euskalerra'ra laguntzeko taldea gertatzeko ordua aurkeztu zanean, Aturri ibairako bidea ondo ezagutu egian gogoko gidari bat eskatu eban Undobika Dukeak. Iñongo zalantza barik, Yarre barrutiko gazte batek bere burua eskiñi, eta amabiko talde-gidari ta burutzat izendatu eban Undobika'k. Dalako gudari gaztea, Martzel'en uste osoko menpekoa zan, eta artutako agindua betetera gertatu zan.

Egorako bidaiaren lenengo eguneko gau aretan, krisaillu baten argipean txartel bat idatzi eban, eta kapardiko begirari bateri dei egiñik,

–Aizu –esan eutsan–, ezagutzen al dozu Yarre gaztelurako bidea...?

–Bai, Jauna, inguru oneitako naz-eta.

–Artu egizu zaldia, eta iñori ezer esan barik eroan beingoan txataltxu au gaztelura. Gauzak okertzen ez ba'dira, biar gaberako Yarre'n izango zara, eta ango nagusiari eskuratuko dautsazu. Urten zaitetz lenbailen.

Andik laster zaldi baten azkazal-otsak gabeko magalean aditu ziran, eta jarraian gau-gentza oroz gain edatu zan barriro.

Urrengo eguna argituta gero gosaldu eben, eta kapardia ustuta, zaldiketeari jarraitu eutsoen baso usuetan zear geienbat, lurralde guztiz oiantsua zan-eta. Gabean ostera be kapardia jarri eben, eta eguraldia oztua zanez, kapar-inguruko sutan berotu ziran oeratu arte.

Irugarren eguna berandu argitu zan, ortzia odei lodiakaz estalduta agertzen zala. Barriro be zaldiketeari emon eutsoen, oi lez gidariaren esanetara bidea aukeratzen ebela. Bazkaltzeko, baso-soil baten gelditu ziran, eta barriro be baso lodietan zear abiatzen zirala, siri-miri baten antzera euria asi zan, gero ta lodiago biurtzen zala. Zentzunekoa izango litzakean kapardia jarrea, baiña ostatu batera laster elduko litzakezalako atxakiaz, gidariak aurrera joatea agindu eban. Eta olan urez uxel, illuntzeak arrapatu ebazan, basotik zelai zabal batera urteteko zorian zirala. Bapatean, oi bat aditu zan, eta alde guztietatik gudariek inguratu ebezan. Yanoz bereala oartu zan,

zelata baten egoala, eta Orion'eri aurrera oldartzeko agindu eutsan, baiña ezustean zerbaitek buruan jo eutsan, eta konortea galduta zaldi-gaiñetik jausi zan. Bere ugazabari laguntza emotera Arnaut makurtu zanean, astamakilla batek zaurituta, buruak enbor baten aurka jo, eta lurrera amildu zan konorte barik.

Andik egun bitara, Yanoz ziega bateko orma ezo ta otzen artean itxartu zan. Buruko min andipean, lenengo unetan ezin egikean ulertu jazo izan yakona, baiña gero astiro-astiro jazotakoaren zeatzak gomutara etorri yakozan. Amabiko talde-gidariak saldua izan zan, eta erasotzailleek aurrez itunduriko leku aretan begira egozan atxillo egiteko. Orain lasto-meta baten gaiñean egoan, eta burua biraka ebilkiola jesarri zan. Eskuak kate lodi bat azkuturren inguruan lotuta ebazan, eta edozelako zirkin egitean txirrin zaratsua egiten eban. Espetxe aretako ormai ezotasun nazkagarria erien, eta leiatilla batetik igazten zan illuntzeko argi motelpean, gela izugarriak eriotz-antzeko kutsua edatzen eban. Orduko, bazirudian buruko miña baretzen asten yakola, baiña latz-ikarakaz astindutako soiñak dardar egiten eban sukar andipean. Len basoan artutako bustialdiagaitik, urrean, otzitu izan zan, eta orain janzkia legortu izan arren, geisorik aurkitzen zan. Beragandik urbil samar pitxar bete ur eta zekalezko ogi baltzaren zati bat ikusi zeitekezan. Oneri ez eutsan jaramonik egin, baiña ura ikusi baiño ez, sukarrak eraginda era batean ustu egin, eta gero zutunduta, leiatillan zear begiratu eban. Burdiñezko aga bitan zear, lekoreko zabaldiak illuntzeko argi makalpean itxura margula erakusten eban. Eskuakaz agai eutsita, oin-muturrez jarri, eta kanporantza so egin eban. Euri lodia zan, eta ibaiko ur arrotuen joaira ariñak, gazteluko ormak suzmur itunaz miatzkatzen ebazan.

Yarre'ko gaztelua ibaiko ugarte baten eraikia zan, eta beraz, alde guztietatik urez inguratua zan. Gaztelua mundutik baztertua egoan, beste ertzean edatzen zan uriarekin lotzen eban zubi jasokorra izan ezik. Yanoz'eri gomutara etorri yakon Arnaut'ek gaztelu izugarriari buruz esandakoa. Bala-bala ebillen lurralde aretan, Yarre'ko gazteluan atxillo egiñikoetarik, bat bera be bizirik urten zeiten ez zala iñoiz ezagutu. Gabeko isillean, maiz espetxeratuene aiene ikaragarriak aditzen ei'ziran eriotz ariña eskatuz, emoten eutsiezan alamen izugarriak amaitu zeitezan. Uriaren aurrean jagiten zan gazteluko dorre gorenetik, Arnaut ume zala, erriak ikasbidetzat artu egian, bere aita urkatu eben, txirotasuna arintzearren, Bertran Konteari zergak gitxitu egiazan eskatzeraiño azartu zalako.

Oldozkun oneitan ziarduala, leiatillatik alderatuz Yanoz lasto-pillo gainean jesarri zan, sukarraren eragintzaz latz-ikara batek astintzen ebal, bein eta barriro gogora etorkiola Arnaut'eri entzuniko auxe: gaztelu bildurgarri aretan baitu izandakoetarik, bat bera be ez zala iñoiz bizirik urten. Urrundietan zear bere gogoa Irati'raiño osaba Imoz'egana egan egin eban... Ordu aretan, au da, illuntzean, egunoro otoitz gartsu bateri emoten eutsan, eta Akitani'ra abiatzeko zorian zala, onik urten zeiten Jaungoikoari egunoro eskatuko leuskiola esan eutsan... Une aretan bertan Yanoz'eri otoitz bat sortu yakon, urrean, osaba Imoz'enarekin alkartuko zana. Olan

ziarduala, giltza batek morroilloa eragin eban, eta kirrinka zaratsuz atea zabaldu zan.

Zuzi bana ekarrela gizon bi sartu, eta bere alboan gelditu ziran zorrotz begiztatzan ebela. Zauskada izugarripean Yanoz'ek Yatxin eta Gurbix ezagutu ebazan. Une batez begiratu eutsoen biok irrilarri, eta,

–Azkenean bazaitugu –zakar esan eutsan Gurbix'ek–, eta oraingo onetan ez dozu igesik egingo. Arratsalde aretan Undaitz'eko gazteluan, Ganix nire anaia il egin zenuanetik, nire buruari zin egin neutsan ez neuskiola mendekuari ukorik egingo urteak igaro arren, eta orra or, gure eskuetan zaitugula. Ganix nire anaiaren iltzaillea nor izan ete zan, ez dot iñoiz benetako agerbiderik izan, baiña samea zearkatu eutsan gezia, ezin zeitekean zugandik baiño etorri. Esan egistazu: zerorrek erail zenuan...?

Yanoz'ek, baiña, isillik zirauala ikusirik,

–Eriotza begira dozu, Yanoz, eta ordu orretan egia autortzeko eretia da.

–Bai, nik jaurti neutsan gezia zure anaiari, aizto goriaz nire aita itsu biurtzera gertatzen zanean. Zegokidana zan, eta aitaren alde edozein semek egingo leukena egin neban.

–Jakin bear dozu, Yanoz, eriotza begira dozula, eta onen atzaparretatik igesbiderik ez dozu. Gaztelu onetan atxillo egindakoetatik oraindiño iñor ez da bizirik urten. Gaztelu onetako nagusia dan nire ugazaba Gerin biar etorri daitenean, zelako eriotza artuko dozun berak erabagiko dau. Yarre'ko nagusi izanari aalegin guztiakaz morroi zintzo izan natzaio beti, eta aren semea biurtu daitenean, nire zerbitzuen ordaiñez, zu erailtea laga dagistala eskatuko dautsat.

Isildu zan une batez Gurbix, eta gero atxilloaren mosu zurbillean begi ankerrak untzaturik,

–Aurpegiari eriotzaren zantzua dozu, Yanoz –erdeiñuz esan eutsan–, baiña ba al dakizu gaztelu onetako ugazabari zuretzat zelako eriotza eskatuko dautsadan...? Ara... zugandik amabi metroko bitartera jarrita, gezi-jaurtiketeari emoten laga dagistala, zure sama zikin ori alderik-alde zearkatu arte. Nire asperkudearen ederra...! Zer deritxazu orreri, Yanoz...?

Burua makurtuta, napartar gazteak ez eutsan jaramonik egiten. Suminduta, Gurbix'ek saietsean ostikada basatia emon eutsan, eta miñaren-miñez Yanoz biurrikatzen zala, etoi zitalak barre egin eban. Orduan Yatxin'en mintzoa aditu zan onetara-xe:

–Laga egizu joteari, Gurbix, bere garaian baiño lenago il ez dakigun. Bri-taindarren aurka joateko deia artu dauan Gerin, biar emen izango dogu, gudara joan aurretik gure aitaren iltzailleari dagokion epaiketea emoteko. Zuk proposatzen edo esondatzen dozun gezi-erailketa ori ez dago txarto, baiña biar Bertran Konte zanaren eraillea epaituko da, eta gezi bat az samea zearkatzea, eriotz arin eta biguna billakatu-ko litzakio... Begira, Gurbix, nire anaiak eta biok ez dogu arazo ori erabilli, baiña nik beintzat, orko atez bestaldean atxillotejiaren erdian dagoan izu-oxinera jaurtikio

neuke, ara jaustean artutako zaurien miña, gosea ta egarriagaitik, bere aiene ta intzi-riak gau-egunetan zear illuntasun osoan izuaren-izuz jaurti dagiazan, an dagozan azurdi ta arratoinen artean. Ziur naz, nire anai Gerin'ek azken au aukeratuko dauala Undaitz' eko azken nagusiarentzat.

Itzok esanik, Yatxiñ'ek barre egin eban, eta gero, Gurbix'eri mintzatzuz,

–Goazen, lagun –esan eutsan–, ziega izugarri onen giro otz eta ezoa ez yat bape atsegin. Baiña joan aurretik bioakio nire azken agur txeratsua.

Au esanik, Yatxiñ'ek atxilloari txu egin eutsan, eta Gurbix'ek bardin egiñik, biok urten ziran barrez. Laster dana isillik geratu zan, ibaiaren joairaren suzmur goibelak soillik aditzen zirala.

Makaltasun utsaz Yanoz lasto-gaiñean etzanda jarri zan, eta luzaro barik, ames-tzarrez beteriko lo urduri batek artu eban, noizean bein intziri motelak iges egiten yakozala. Alako baten, amestxarren artean, lasto-gaiñean jesarrita itxartu zan. Ames egin izan eban, artzaren bizkar-gaiñean basoan zear lauazka zolian Undaitz'eko gazte-lurantz abiatzen zala...

–Txartxa, Txartxa, erdu, erdu nigana...! –bein eta barrero esanez bere senetara etorri zan–.

Igikun kolokaz zutundu zan, eta oin-muturrez leiatillean marratuta ikusten ziran burdiñezko agai oratu eutsen, eta une batez lekorera begiratu eban. Gau betea zan orduko, eta aizeak jazarturiko odei lodi arreak eguratsean zear arin joiazan. Eta orduan, bere soin makaleko indar urriak baturik, ibaiaren zear, zabaldira larritasun-deiaren txistu zorrotza jaurti eban. Tarte-une egokiaz iru bidar larritasunaren deia sakabanatu zan Yarre'ko gaztelu izugarritik.

Baziran egun bi Txartxa toki aretan egoala, ugazabaren azken aztarnen ondoan. Mutillaren aginduari jarraituz, zabaldian zear urrundik samar aren atzetik etorria zan, eta orain etsaien erasoaz kordebageturik jausi izan zan lekuaren aztarnak usnatzen ebazan, eta izan be, ez ekian nora jo, antxe bertan amaitzen ziran-eta. Batetik bestera dana usnatzen eban, baiña iñon ez aztarnen jarraipena. Orion'enak basoan zear iparre-rantz galtzen ziran, baita Arnaut'enak be, baiña berak idoro nai ebazanek ez ziran iñora joaten.

Azken egunetan euri-jasa lodia gertatu izan zan, eta onen ondorioz eguraldia otz billakaturik, Txartxa lo-guraren eragintza oartzen asten zan. Urte-aro aretan artzek arpe edo leize baten babesa billatu oi dabe, lo-aldian murgiltzeko udabarria arte.

Illuntze aretan, indar bik eragintzen eben artza. Bata ugazabaganako maitasua, eta bestea, ostera, bere naimena baiño indartsuagoa zana, lo egitera bultzaten ebana. Zorionez, baiña, arratsalde aretan ego-aize epela putz egiten asita, zentzumenen moteltasuna ezabatzen asten yakon, oarmenen jabe sentitzen asten zala. Ugazabaren astarnen usnatzeari adore barrituaz emon eutsan ostera be. Noizbait, aspertuta, kurrin-ka ta asarre basoko ertzera joan zan, eta zabaldian zear urrutira begiratu eban. An, ikusmen-mugan, argixu batzuk ñir-ñir egiela iruditu yakon. Olan egoala, bere entzumen zorrotzari Yanoz'en dei larria urruntasunak motelduta etorri yakon...

Pozezko kurrinkak jaurtiz, lauazka zoliari emon eutsan deiaren sor-lekura zuzentzen zala. Alako baten, eguratsean zear barrero be aditu zan ugazabaren deia, eta bere zuzenbidea zerbait eskumatara doitzuz, arinketeari jarraitu eutsan. Alako baten, ibai zabal batek bidea etenda, gaztelu baten irudi erraldoia agertu yakon, eta gelditzean, irugarrenez ugazabaren laguntza-eskearen deia argi ta garbi aditu eban. Ertzera eldu baiño ez, zutundu zan. Une aretan odei-soil baten zear iretargia agertu zan...

Biotza taupada zorotan ebilkiola, une aretan bertan Yanoz'ek leiatillan zear bere Txartxa maitia ikusi eban, eta itxaropen zoroa ozta-ozta menperaturik, ur-suzmurren gaiñetik,

–Txartxa, Txartxa –dei egin eutsan–, ator nigana, arin be arin...!

Ugazabaren dei larria entzunik, artz erraldoiak ur lasterretan murgil egin eban, eta joaira otzaren aurka burrukan, besakada indartsuz gaztelurantz ugerika, noizbait ertzeko arri bateri oratu, eta gero Yarre'ko oiñarrietan gora, leiatillara iñon apurka-apurka igon zan. Bitartean, iñork Txartxa ikusi egian bildurrez, larriak artuta Yanoz'ek

itxaroten eutsan urduri. Azkenean, leiatillaz bestaldean, artz zintzoaren burua agertu zan. Maitasunaren-maitasunez, oi eban lez Txartxa'k aurpegia miazkatu eutsan kurrinka leunak jaurtiten ebazala.

–Aiko, Txartxa –agindu eutsan gazteak keiñuka–, eutsi burdiñezko aga oneiri, eta okertu eizak, alkarren arteko unea zabalduz. Egik gogor gero...!

Artza argiak agindurikoa laster ulertu eban, eta aga banatan esku indartsuak jarrita, indarraldi itzela egin eban. Burdiñezko agak okertzen asi ziran, eta bien arteko zabalunea naikoa zanean,

–Geldi adi, Txartxa –agindu eutsan Yanoz'ek–, aski dok-eta...! Orain itxaron ni urten arte.

Lenengo, kateaturiko eskuak, eta gero burua aga bien artetik igaro ebazan. Soin-enborra zabalunea zearkatzean, baiña, arnas-estuka gelditu zan Yanoz, eta,

–Aiko, Txartxa –mintzo kolokaz agindu eutsan–, indarrrik bage naiagok... Oratu naik besopetik, eta atara naik kanpora...

Agindurikoa bereala ulertu eban Txartxa'k, eta ardurarik andienaz ugazaba ziega izugarri aretatik atara eban. Jarraian, Yanoz artzaren arrelepoan jarri zan, eta,

–Gaiioazan, Txartxa, murgil egik uretan aalik lasterren,

Artz zintzoak iñongo atxaki barik ur otz arrotuetan murgil egin eban, eta joaira-ren saieska beste ertzer a besokada indartsuakaz ugeri egin eban. Ur lasterrek izoztuak zirudien, eta Yanoz'ek oztasuna azur-muiñetaraiño artzen eban. Legorrera urtenda, makal eta sukar andipean mutillak auxe agindu eutsan:

–Aurrera egik, Txartxa. Urrundu adi aalik ariñen leku madarikatu onetatik. Jarraik zuzen edonora, baiña ez adi gelditu...

Olan egin eban Txartxa'k, aalik azkarren Yarre'ko gaztelu izugarritik urruntzen zala lauazka zolian. Yanoz'eri, baiña, sukarrak artuta agiñak karraskatzen yakozan, eta auleriagaitik ezin egikean artz-gaiñeko dendua gorde, onen saietsetik laban egiñez. Jausteko zorian zala, gelditu zeiten agindu eutsan artzari, eta bideari oiñez jarraitu eutsan, nora jo ez ekiala. Alako baten, eskuak kateatuak zituala oartu zan eta artzari,

–Entzun egistak, Txartxa –agindu eutsan–, eten egik katea...!

Kateari teinkada luzea emon eutsan artzak, eta kate-begi bat zabaltzen asi zan katea erditik eten egiten zala. Eskutur bakotxari kate-zati bana eskegiten yakon, baiña orain besoak erabilli egikeazan. Artzak erraikiola, ibilte norabako bateri emon eutsan mutillak, noizean bein bitargien zear iretargiaren izpiek gau otza zurizkatzen ebela.

Eta olan, aldiaren neurria zeaztu eziñik, sukar andipean eta igarotako barau luze-ak makalduta, Yanoz'ek aurrera jarraitu eban, Yarre'ko gaztelu izugarriaren irudiak jazartuta. Beste eragozpen bat aurkeztu yakon orain, eta auxe alegia: neguko ateetan izanik, otzak eragindako Txartxa, oiko bizitasuna galduta, ibillerea lazotuz, noizean bein erdi-lo atzenduten zan, Yanoz'ek aurrerantz zirrikatu bear ebala. Edu onetan, lo-ibiltarien antzera, norabage ta urrats kolokaz aurrera joiazan.

Orduak igaro ziran nekaldi biurtuta, baiña alako baten, baso-soil batera eltzean,

zirrara bakan batek artuta Yanoz gelditu zan, aurreko argi batetik soak kendu eziñik. Zabal-une aren erdian, ostatu bateko ate-gaiñean, aizeak kulunkaturiko krisaillu bat eragiten zan. Lekuari zerbait ezagun-antzeko erion, eta urratsak arinduz aurrera oldartu zan. Krisaillu-gaiñean auxe irakurri aal izan eban: "Eiztarien Ostatua". Barrutik ez zan iñongo zaratarik entzuten, eta zauskada bakanpean, Yanoz'ek kisketeari eragin eutsan, baiña atea barrutik itxita egoan. Une batez, lurreratu egian artzari agintzea otu yakon, baiña burutapen batek jota, ostatuko atzekaldera joan zan. Laiatilla baten zear argia igazten zan lekorera, eta barrura begiratu eban. Otzagaitik, leiarraren barrukaldea lausotuta egoan, baiña olan eta guzti be, irudi bat errenka igitzen zala begitandu yakon... Nor eta Nunile gaixoa...!

Itxaropen zoroepen, leioa jo eban, eta andik laster edegita, Nunile'ren aurpegi-ñoa agertu yakon auxe iñoala:

–Nor da or...?

–Ixo, Nunile, ni nozu –erantzun eutsan Yanoz'ek–. Itz egizu abopeka...!

–Ene... napartar Jauna...! Zertan zabiz ordu oneitan...? Oraintxe bertan sukaldeko garbiketea egiñik, oeratzeko zorian nintzaizun. Baiña zer jazoten yatzu...? Zure itxureak geisorik zagozala iragarten dau. Esan, zer egin dagiket zure alde...?

–Entzun egistazu ondo, Nunile. Yarre'ko gazteluan atxillo izan naz, baiña Txartxa'ren laguntzaz iges egin dot. Luzaro barik nire atzetik asiko dira, eta babesleku bat idoro bear dot aalik lasterren. Esaidazu, Nunile, Arritza'rako bidea ezagutzen ete dozu...?

–Bai, Jauna. Emendik ordubete bitara dago.

–Azaldu egistazu nondik joan naiteken.

–Itxaron apur bat.

Au esanik, aulki baten laguntzaz Nunile leioan zear Yanoz egoan aldera igaro zan.

–Goazen, Jauna –esan eutsan–. Neronek lagunduko dautsut, bestelan deslaituko zara-ta.

Au esanik, Nunile'k eskuari oratu eutsan, eta bidetxigor batetik sortalderantz abiatu zan. Mutillaren eskuari eustean, eta sukarpean egoala oarturik,

–Geisorik zagoz, Jauna –esan eutsan–, eta bidai luzea dogu araiño. Arakoa egiteko makal ikusten zaitut.

–Ez zaituz larritu, Nunile, ibiltari oituta nozu. Makaltasuna ta guzti, zelan edo alan iritxiko naz.

Euren alboan Txartxa ikustean, neskatoak,

–Ene bada...! –oiu egin eban– nondik urten da artz andi-andi ori...?

–Ez bildurtu, Nunile. Au nire lagun miña da aspalditik, eta gurekin etorriko da. Leku ziur bat bear dot geisotasunari aurre egiteko, eta Txartxa'k bere ezkutúnea neguko lo-aldiari emoteko. Goazen ba, arindu gaitez...!

Orduko, atertu izan zan, eta aizeak sakabanaturiko odeien artean illargiaren

musu esnetsua agertzen zan. Euriaren atzetik otzago biurtu izan zan eguraldia, eta Txartxa'ri ibillerea nagitzen asten yakon, burua batetik bestera igitzen ebala, lo egiteko leku egokiren billa bai'litzan. Yanoz'ek baiña, etenbarik zirikatzen eban berba maitekorrek esaten eutsazala. Eta olan, Nunile'ren gidaritzapean, ibillera neketsuz aurrera joiazan. Noizbait, basoa amaituta, andik ur samar Arritza'ko ebakun malkartsua agertu yakon. Aurrera jarraitu eban, eta alako baten, egazti-buruaren itxura eban atx baten ebakuna garbi-garbi marraztu zan iretargipean. Ustekabez, gogora etorri yakon Yanoz'eri bein baten Arnaut'eri entzundako auxe: atx aren oiñarrrian bere egoitza zan leizea egoala. Orduan, Arritza'ko naspillera sartu aurretik gelditu zan, eta,

–Nunile –esan eutsan–, aski da oraingotz. Onezkero gai naz billatzen dodana aurkitzeko. Biurtu zaitetz lenbailen ostatura zure aldegitza oartu dagien aurretik.

–Nigaitik ez da iñor ardurutzen, Jauna. Goizean lanari emotekotan, ez dauste beste jaramonik egingo.

–Begira, Nunile, zor andi-andia dautsut, eta nigaitik egiñikoa ez yat egundo be aztuko. Esan, zer egin dagiket zure alde...?

Neskato gaixoak begi sakon, itun, andiak, Yanoz'enetan untzaturik, mintzo erabizetiz auxe esan eutsan:

–Zuri lagundu aal izatea naikoa da niretzat.

Gero, errentxua une batez isildu zan, eta jarraian,

–Bein baten, ezagutu zindudazanean, Jaungoiko guztiz aaltsu bat badala esan zeustan, baita nitzaz oroitzen dala be. Ara ba... dirudienetz zure laguna dan ezker, esaiozu erruki izan dakidala, eta nazan baiño zoriontsuagoa biurtu nagiala. Badakit erren iraungo dodala betirako, baiña nire ariman argi pixka bat jarriko ba'leust...'

Sukarrak dizdiratsu biurturiko Yanoz'en begietan, barruko zauskada lako zerbait agertu zan, eta,

–Nunile maitia –esan eutsan–, merezi dozun baizen zoriontsua egin zagizan eskatuko dausat, eta ziur naz egunen baten entzungo daustala.

–Esan, Jauna, zein da zure izena...?

–Undaitz'eko Yanoz.

Zauskada batek artuta, Nunile'k orduan,

–Zu al-zaitut, leiaketa baten Konte Baltza il ebana...? Lengo egunean bidari batek ostatuan burruka orren zeatzak edestu euskuzan.

–Bai, Nunile, orain amar urte-edo, etxeko morroi biren saldukeriaz baliaturik, gure gazteluari eraso, eta andik egun batzutara, berak zaurituriko nire aita il zan. Baiña il-aurretik agindu bat emon eustan, eta agindu ori betetearren, Marzak'era, nire aitita dan Undobika Dukearen jauregira etorri nintzan. Emen Konte Baltza ikustean, nire aitaren iltzailletzat agirian salatu ostean, berak burrukan egitera eupatu ninduan. Onen ondorioz, nire aita zanaren ezipateaz il egin neban.

–Gizon gaiztoa zan Konte Baltza, eta merezitakoa artu ei'dau. Eta zu Dukearen billobea zaranez, Jaun andia zaitut. Nitaz noiz edo noiz oroituko al-zara...?

–Bai, Nunile. Zure alde egunoro eskatuko dausat Jaungoikoari, merezi dozun zoriona emon dagitsun.

–Erren ezaiña ez ba'nintz...!

–Osaba Imoz'ek beti esan oi eustan, gizaki bategan beiñena arimea dala. Eta zurea, Nunile, eder-ederra da.

–Agur, Yanoz. Ezagutzen ez dodan zure Jaungoiko orreri zaindu zagizala eskatuko dausat neuk be. Agur...!

–Agur, Nunile, Akitani'ko lilitxu ori...!

Makurtu zan Yanoz, eta neskatoaren aurpegiñoa eskuetan arturik, apa-laztan bat jarri eutsan bekokian. Gero, Txartxa'ri dei egiñik, Arritza'ko sarrera malkarrerantz jo eban. Aurpegian beera malkoak eriozala, ostatura biurtu zan errenka Nunile, oiko bizikera lander eta ezetsiari emoteko, baiña bere baitan argi-izpiño bat ebilkion, eta izan be, ez ekian isuritako malkoak naigabez ala zorionezkoak ete ziran.

Lo-guraren menpe Txartxa'k nekez erraikiola, Yanoz Arritza'ko atxen naaspillera sartu zan, eta aal eban giñoan andik barrendu zan. Otzezko latz-ikarek astinduta, ez eban besterik gogoan babesleku batera eldutea baiño. Arnas egitean bularrak min egiten eutsan, eta sukarrak lausoturiko begiek ezin egikien zuzenbidea ondo ikusi. Txaparrez bakanki estalitako naas-maas aretan, bidea ez zan ondo bereizten, eta gitxi-gorabeera Yanoz elburura abiatzen zan, non egoan jakin barik. Alako baten, aurreko biuruneza atzean itzita, eun bat metrora egazti-buruaren itxurako gaillurra illargipean ondo ebagita ikusi eban. Onen oiñarrria oldartu zan, eta irixteko zorian zala, aalik indartsuen irrintzi bat jaurti eban, eta gero beste bat. Naaspil aretan didarrak oiartzunetan galtzen ziran, milla iratxoek nonaitik oiuka erantzungo bai'leutsoen. Irugarren didarra jaurtiteko zorian zala, zugaño baten ondolik oiñotsak aditu ziran, eta bereala lepoker baten irudia agertu yakon. Yanoz'ek ikusi ebanean,

–Arnaut, Arnaut –oiu egin eban–, lagundu egistazu, aurrerago ezin dot-eta...!

Arin baten oldartu yakon lepokerra, eta Yanoz'en soin kolokari eutsirik,

–Yanoz, nire Jaun maite ori –pozez gaiñezka esan eutsan–, azkenean bazakust... Jaungoikoa bedeinkatua bedi...! Uste izan neban, eraso euskuen gaizkille arek erail zinduezala... Eta gaiñera Txartxa zurekin dator, au nire poza...! Zatoz, zatoz, zugaño orren atzetik nire arpeko egoitza dago.

Lepokerraren laguntzaz, azken bide-zati aldapatsu ta laburretik koba batera eldu zan. Su batek egoitza argitzen eban, eta leku epel, atsegiña zala ikusi zeitekean. Sartzean, emakume bat aulki batetik jagi, eta urreratu yakon.

–Ama –esan eutsan Arnaut'ek– Jaun au, Yanoz, Undaitz'eko nagusia ta nire uga-zaba da. Atondu egiozu oatze biguna, geisorik dator-eta.

Etxekoandrea etorbarriaren egoereaz oartu zanean, arin baten orbel eta bedarronduz oe biguna gertatu eban. Arnaut'ek Yanoz erantzi ondoren burusiakaz bildu, eta etzan-erazo eban. Ainbeste neke jasan ostean, ondo-izatezko oarpenaz, Yanoz etzan eta lo egitera gertatu zan. Onen aurretik, baiña, Irkene eritxan Arnaut'en amak geisoa-

ri azterketa ariña egin eutsan, eta onen ostean alborengoa zala iragarri eban, baita sukar andiak erakusten ebanez, gaiztoenetakoa be. Jarraian, salda bero indargarria edan-erazorik, lo egian aldendu zan. Baiña Arnaut'ek bere ondoan jarrita, aurpegi ta eskuak urez oztu eutsazan ordubete ta ordubetetan zear.

Arpera sartu baiño ez, lo-gura jarkieziñak menperatuta, Txartxa toki aretako txokorik urrutienera joanda, orbel-pillo baten gaiñean etzanda jarri zan, eta andik laster aren arnas-neurriak, illabete batzuk iraungo leukela neguko lo-aldian murgiltzen zala adierazo eban.

Egun luzeetan irauñ eban Yanoz'en alborengoak, baiña leku aretako bake ta ziurtasunari esker, baita Arnaut'en eta Irkene'ren zaintzari batez be, napatarrak gaztea indarrak irabazten asi zan, eta illabete bat igarorik, bere oiko egoera osasuntsura biurtu izan zan, eta Urtebarri egunean, arpetik urten, eta Arnaut'en laguntzaz Arritza'ko naaspillean zear osteratxu bat egiteko gai izan zan. Gau aretan bertan, arpeko txoko batera eroanda, Arnaut'ek errubidun ezpatea, uztai-geziak, eta agurtzean Undobika'k emoniko zisku bete erre erakutsi eutsazan.

–Jauna –esan eutsan Arnaut'ek–, ona emen aitagandik yatorzun zure ezpatea, Marzak'era joan aurretik emen itzi zenduzan uztai-geziak, eta nire zaintzapean zuk niri lagatako berrogei ta amar ontzurrook.

Gauza oneik ikustean, zorionezko didarra jaurti eban Yanoz'ek, eta Arnaut besarkatu ondoren,

–Aspalditik –esan eutsan–, ez naz gaur baizen zorionsua izan, Arnaut maite ori. Nire aitaren ezpatea...! auxe da niretzat altxorrik maiteena, eta betirako galdu izan zala uste izaten nebanean, barrero ikusteak ez dakizu zelako poztasuna dakarkidan! Onezaz gainera aititak emondako urrezkoak alkarregandik agurtzean. Ain zuzen be, gauza biok zure ardurapean laga nebazanean, Goi-dei batek eraginda izan zan. Esan Arnaut, zelan konpondu zara, gaiok, ezpatea batez be, gaizkatzeko...?

–Ara... Yanoz Jauna: Yarre'ko gaztelutik etorritako Gerin'en gudariek eraso euskuenean, dakizunez, errubidun ezpatea sorbaldatik eskegita, eta urrezkoen katanarrua jakepean neroiazan. Norbaiten ezpatakadak lurreratu ninduean, eta nire buruak zugaitz baten enborrean jotzean, kordebagetu nintzan. Zorionez, baiña, ez zan inor nitaz arduratu, eta andik ordubete batera-edo senetara biurtu nintzanean, ez zan ezeren zantzurik ikusten ez aditzen. Barruti au ondo ezagutzen dodan ezkerero, nire egoitza onetara biurtu nintzan sendotzeko asmoz, eta onen ostean Undobika Dukeagana joanda, jafiñaren gainean ipinteko. Joan baiño len, baiña, etorri zaiataz, eta orain beti baizen indartsu ta adoretzu ikusten zaitut. Noiz biurtuko zara Naparra'ra, zure aberrira...?

–Lenbailen joango nintzake, baiña...

Yanoz gero ta irrikatsua sentitzen zan etxera biurtzeko, baiña ez eban gura ezelan be, artza barik joan, eta augaitik Jorraiilla arte itxaron bear izango leuke. Orduko, bera be indar guztien jabe billakatuko litzake. Bitartean, baiña, bizitzeari aurre egin bear, eta eizeari emenez gainera, Arnaut'ekin alkarrizketa luzeak izan oi ebazan.

Arnaut idazle yaioa zan, eta negu aretako eguraldi zakarrari aurre egitearren, arpeko subazterrean, Yanoz'ek ama-semeai bere bizitzaren gora-beerak edesten eutsezanean, eta Irkene'k artulezko burusiak-eta eiotzen ziarduala, Arnaut'ek, entzuten ebana esku ariñaz narrukitan idazten eban. Olan ba, negu luzeko egun illun areitan, Arritza'ko lepokerraren eskuz, ordurarte izandako Yanoz'en gora-beerak betirako idatzita billakatu ziran.

Egunak igaro-ala, iruon arteko maitasun eta oneritsia sendotzen zan, Irkene'k gero ta semeagotzat eban Yanoz, eta onek bardin ordaintzen eutsan amatzat erabililla. Emakume gaixo aren bizitza latz eta gogorra gertatua zan, senarra urkatuta galdu ebanetik batez be, baiña orain gazte biek inguratuta, bizitzaren azken zati aretan, inoiz ez ezaguturiko bake ta poztasuna sentitzen ebazan, eta Yanoz'ek, Undobika Dukearen billobak, bere semea adiskidetzat erabilli egian zorion bakanaz beterik oartzen zan.

Eguraldia ona zanean, gazte biok arpetik urtenda, eta Yanoz'ek uztai-geziak erabillezala, eizeari emotsoen. Arnaut lepokerrak ez eban inoiz gezirik jaurti, baiña orain, Yanoz'en zuzendaritzapean eizakiren bategan aparta egiteko gai zala ikusirik, pozez beteten zan. Osaba Imoz'en legerari jarraituz, ez eben beste basabererik ilten, jateko bearrezkoa zana baiño. Aranaut'en arritasuna andia zan bere lagunak uztai-erabiltean erakusten ebazan indarra ta aparagaitik. Baiña izan be, baziran ogei urte Yanoz'ek ekintza oneitan ziarduala, bost urteko mukitzua baiño izanik, aitaren irakas-kintzapean gezi-jaurtiketeari arrakasta andiaz emoten eutsala.

Edu onetan egunak igaroten ziran, noiz eizeari, noiz arpe-barruko edeski nasaiari emonda. Irkene sukaldari bikaiña zan, eta arpe-aurreko baratz txiki baten biltzen ebazan ortuariz, eta ekartsoen eizakiz, sukalki bikaiñak atontzen ebazan. Lekaidetxetik ekarritako Idazteun edo Biblia bat gorde izan eban Arnaut'ek, eta gau guztietan, Irkene'k sutondoan aparta atontzen ebanean, oso gogoko yakon Yanoz'eri, Arnaut'ek aren zatiren bat irakurri egitsan.

Noizbait, egunen jarraigo geldi-eziñak negua uxatu eban, eta bein baten eguzkiaren laztanpean edurra gesaltzen asi zan, zabaldua argi ta margoz beteten zala. Goiz baten, lagun biek arpeko sarreran, Arritza'ko itxarkundea begiztatzen ebela, pozezko kurrinka batzuk aditu ziran, ela Yanoz'ek, Txartxa'ren miinkada maitetsuak aurpegian artu ebazan.

–Txartxa –oiu egin eutsan–, noizbait itxartu az...!

Oi eban lez artzak ugazaba besarkatu eban, eta gero Arnaut ezagutzean, beste ainbeste egin eutsan. Neguko barau luzearen ostean, Txartxa oso argal agertzen zan, baita gosez beterik be.

–Gaiuzan basora, Txartxa –esan eutsan Yanoz'ek–, orain baso-garau asko yagok, eta zenbat-gura janari aurkituko yok.

Artzak jarraituta, zidor malkor baten zear, andik ordubete batera egoan basora bideratu ziran, eta araturik, artz gosetiak jateari emon eutsan buru-belarri. Amar egun

igarorik, jateari egun osoa emonda, Txartxa'ren narru dilindatsua anpatzen asi zan, erabat oiko dizdira irabaziz. Aberrri-miñari jarki eziñik, Naparra'ra biurtzeko garaia zala erabagi eban Yanoz'ek, eta arratsalde baten Arnaut'ekin arpeko sarreratik udabarriko ozkarbi oztifiari begiratzen eutsala,

–Aizu, Arnaut –esan eutsan–, tamal andia badot be, alkarri agur egiteko ordua etorri da. Aspaldi onetan irrikan izan nozu asaben lurraldera biurtzeko, baiña artzagitik geroratu egin dot. Orain, baiña, garaia eldu yat, eta biar bertan, Euskalerrirantz abiatuko naz.

Arnaut'en aurpegi argian naigabe baten itzala agertu zan, eta begiak lurrean jositak, isillik irauan. Gero, Yanoz'ek urrezkoen katanarrua artu, eta,

–Entzun ondo auxe, Arnaut –jarraitu eban–, zisku onetan aitita Undobika'k emoniko berrogei ta amar ontzurre dagoz, eta aberrri biurtzeko dirurik bear ez dodan ezker, auxe egin dagizula nai dot...

Isildu zan une batez, eta gero,

–Ezagutzen ete dozu "Eiztarien Ostatua"n neskametzat diarduan Nunile, neskato errena...?

–Ez dot ezagutuko ba, Nunile zoribakoa...?

–Auxe eskatzen dautsut, Arnaut: inguru oneitako lekaimetxerik onenera sartu dagizula, diruari begiratu barik. Katanarru onetan dagozan ontzurreakaz, naikoa ta geiago dozu orretarako.

–Niretzat, "Jesus'en Mirabeak" lekaimetxerik onena da, eta ogeitamar edo geinez berrogei urrezko naikorik izango dira, bizitzaldi guztirako dotetzat. Etxe orretako lekaimak onak eta maitetsuak dira, otoitz eta beartsuen laguntzari emonda.

–Ederto, Arnaut. Uste on guztia zeugan jarrita daukat, eta badakit nire agindu au ondo beteko dozula.

–Eta berak ara sartu gura izango ez ba'leu...?

–Esaiozu nire guraria dala, an Jaungoikoa aurkituko daualako, eta Berarekin iñoiz ez ezagaturiko zoriona be. Noizean bein nigaitik, baiña nire erriaren alde batez be, Jaungoikoari otoitz egin dagiola. Bere ezaintasun eta guzti, Nunile baso-loratzat daukat, edo-ta ñir-ñir bigunaz dizdir egiten dauan diamante yaukaltzat.

Isildu zan une batez, eta gero,

–Ontzurreen enparaua zuretzat eta zure amarentzat erabilliko dozu, ezeren bearrizanean bizi ez zaitez. Zaindu zure ama, eta aal dozun nasaitasunaz inguratuz egizu...

–Baiña zu, Yanoz, nire Jaun ori, esku-utsik biurtuko al-zara Naparra'ra...? eroan egizuz urrezko batzuk badaezpadakoan.

–Ez dodaz sos batzuk baiño eroango. Urrearen dizdirak biotzak zitaltzen dauz. Onantzakoan, Aturri ibaia zearkatu baiño ez, il-zorian billakatu nintzan, ontzurreak nebazala jendea oartu zanean.

Lagun biok isillik geratu ziran, zer besterik esan ez ekiela-ta.

Noizbait, Yanoz'ek,

–Goazen barrura, Arnaut –mintzo leunaz esan eutsan–, bidegiterako gauzak atondu bear dodaz-eta.

Urrengo goizean, malkoak begietan Irkene'k bidaiarako zorro bete janari Yanoz'eri emon eutsan, eta mintzo kolokaz,

–Agur, Yanoz, seme ori –esan eutsan–, Jaungoikoa bedeinkatu zagizala.

–Baita saritu dagitsueta be nigaitik egiñikoa –gazteak erantzun–.

Alkar besarkatu eben. Gero, menperatzen eban zauskadea ezkutatzearren, Arnaut gidari ebala, eta artzak erraikiola, Yanoz'ek Arritza'ko naaspilla begiztatu eban azkenengoz.

Urtenda gero, isillik joiazan, noizean bein Txartxa gelditzen zala garauren bat artzearren. Andik ordubete batera-edo, iparretik egorantz joian gurdibide batera eldu ziran, eta orduan Arnaut'ek,

–Yanoz, nire Jaun ori –abots itunaz esan eutsan–, bide onek zuzen-zuzen Aturri ibairaiño eroango zaitu. Ez erabilli bidea, baiña; jende askok ustiatzen daben ezker, Gerin'en menpekoren batek ikusiko ba'zinduz, arin baten Yarre'ko gaztelura joango litzake angoak jakiñaren gaiñean ipinteko. Bideratu zaitez basoetan zear, ikusi ez zagiezan, eta bidebatez artzak bear dauan janaria idoro dagian. Ernai ibilli, Yanoz nire Jauna, lurralde onetan begi-belarri asko dago zu salatze gerturik.

–Olan egingo dot, Arnaut. Orain biurtu zaitez amagana, eta Undobika'ri idatzit dautsadan mezua eroan egiozu, lenbailen jakin dagian berak emondako agindua autsirik, Konte Baltza'ren semeek etxerakoan eraso eustela, eta Yarre'ko gaztelura atxillo eroan ninduela. Agur, lagun maite ori, eta eskerrikasko nire alde egindakoagaitik, bizitza zor dautsut-eta.

Orduan burutapen batek jota,

–Aizu, Arnaut, ezin dagikezut betirako agur esan. Zergaitik egunen baten Undaitz'eko gaztelura nirekin bizi izatera ez etorri...? Nire arazoen arduraduna egingo zinduket, orretarako zu baiño gaitasun andiagorik ez dot ezagutzen, eta gaiñera, zelanbait nire alde egin dozuna ordainduko neuskizu.

Lepokerraren begiak zorionezko argiaz piztu ziran ori entzutean, eta,


–Yanoz, nire Jauna –erantzun eutsan–, ni naz zuri zor dautsuna, zure laguntasunak benetako gizona biurtu naualako. Nire zorionik andiena, bertanbera zurekin joatea izango litzake, baiña betekizunak amaren ondora naroa, eta bizirik dirauan artean, ez dot itziko. Bere azken urteetan aalik eta zoriontsuen egingo dot, eta joan dakidanean, orduan Undaitz'era joango natzaizu.

–Arnaut, anartean besarkatu nagizu.

–Jauna, noiz ikusi da, nagusi batek bere eskutaria besarkatu dagian...?

–Ez zaitut eskutaritzat, benetako laguntzat baiño.

Zauskada andipean alkar besarkatu eben, eta gero, besterik esateko gai ez izanik, bakotxak bere bideari ekin eutsan.



Udabarriko egun zoragarri aretan, eguzkiaren aintzapean txorien eresiek eta loreen margoek izadiaren edertasuna aldarrikatzen eben. Errubidun ezpatea ta uztai-geziak lepotik dingilizka, Arnaut'en burubideari jarraituz, Yanoz basoan zear joian, aberrira biurtzeak zauskada jorantsuz bere izaerea beteten ebala. Augaitik ba, bere naija aalik ariñen joatea zan, baiña ez berak nai izanda beste, geldiune luzeak egin bear izaten ebalako Txartxa janaritu zeiten. Neguko loalditik urten barria zan, eta barau luzeak sorturiko argaltasuna orain ordaintzeko zan aalik eta geien iruntsiz. Baziran guztitariko garauak, baiña oraingo bere berreun kiloeak, oiko irureun biurtu arte, janari asko eskatzen eben.

Lantzean bein, baiña, berantetsia, Txartxa'ren irusteari eten egiten eutsan Yanoz'ek, eta ixtaklok jarrita, zorion bakanpean, basoan zear lauazka biziari emoten eutsan. Beiñola, arrats-beeran baso-soil baten zear artzaren gaiñean arretxikoan joiala, arritutako egurlari batek tximista lakoak igaroten ikusi ebazan. Izan be, ikusgai ederra zan artz nabar anditzar-gaiñean, mutillaren irudi txairoa ikustea, lumadun txanopean aren ule luzeak aizearen eragintzaz egan joiazala. Egurlaria baiña, Yarre'ko gazteluko zerbitzaria izanik, bereala oartu zan, Gerin Konteak billaturiko euskal arrotza zala, eta agindutako sariak erakarrita, andik ur samar egoan bide-gurutzeko ostatura abiatu zan. Alabearrez, eldu zanean Martzel buruzagia urtetzen zan, eta oneri ikusitakoaren zertzeladak emon eutsazan.

Biotz-ikara baten, buruzagia zaldiz aalik ariñen berak ondo ezaguturiko bide batetik Yarre'ra abiatu zan. Goizaldean elduta, astirik galtzeke Gerin bere nagusia jazotakoaren jakitun ipiñi eban. Andik laster, eskura egozan buruzagiak deitu izan ziran eguberdian gazteluko areto baten ospatuko litzaken batzarrera.

Undobika Dukearen bildurrez, Gerin'ek ez eban gura ekintza arek zarata andirik atara egian, eta eretirako iru buruzagi naikoak izango litzakezala erabagita, jarraian bere asmoaren gora-beera batzar-aurretik astiro ta zeatz ausnarturik, aurrera eroateko gertatu zan.

Batzarra bazkaldu bitartean ospatu zan, eta maikidea zan Gurbix'en aurrean, Gerin'ek iru akitaniar buruzagiai, bere égitasmoa azaldu eutsen onetaraxe:

—Iru talde txikitan napatarr arrotzari jarraituko dautsagu. Zuek irurok, nire buruzagi saiatuok, amar gudari bana artuta, iru taldetan Aturri ibairantz sakabanatuko zarie. Erdiko taldea Martzel'ek aginduko dau, eta onen ezker-eskubitan beste biak.

Aturri ibairaiñoko lurraldea arakatuko dozue, eta bearrezko argibideak bilduko dozuez, bideak, etxeak eta ostatuak arakatuz, baita ikusi dagizuezan erritarrai itaunketak egiñez. Ordezte-zaldiak eroango dozuez, nekaturikoak atsedean artu dagien. Egurlariaren argibideen arauz, Yanoz'ek egun bat eta erdiko aurrerapena kentzen dausku, eta Aturri baiño len arrapatu bear dogu, au da, Euskalerrira barik. Gaur iru egunetara ibaitik ur samar dagoan "Azeri Gorria"ren ostatuan alkartuko gara, azken egitasmoa atontzearen, orduko, napartar madarikatu ori gure eskuetan ez ba'lego. Ez aztu gero, amarreko talde bakotxerako usmalaririk onena aukeratzea, eta auxe izan beti gogoan: gazte ori demoniño berbera dala. Gaztelu onetako ziega baten goseak eta sukarrak jota egoala, eskuak katez lotuta izan arren, leioko burdiñak okertu ta iges egin ebala pentsaten dodan bakotxean, zoratzeko zorian ikusten dot nire burua. Ez dot mirarikerietan siñisten, baiña orduan mirari-antzeko zeozer jazo ez ba'zan, ezin dagiket aren igesa azaldu. Dana-dala, ezpatari gain-gaiñekoa ta indartsua izan arren, ez uste garaitezifia danik. Ez izan aren bildur, beraz, oraingo onetan gurea izango da-ta. Egizuez abiamenak astirik galtzeke, lenbailen urteteko.

Buruzagiak joateko zorian zirala,

–Beste zer bat –esan eutsen Gerin'ek— jakiñerazo bear dautsuet. Biar goizean urtenda, zuekin "Azeri Gorria"ren ostatuan alkartuko natzaizue iru egunen buruan. Ia orduko napartar arrotza arrapatu dozuen. Orretarako, baiña, aurretik artz madarikatua geziz josita il egin bearko dozue. Agur, eta biotz on...!

Buruzagiak urten ziranean, eta biok bakarrik geratu ondoren, ugazabari auxe esan eutsan Gurbix'ek:

–Gerin, nire konte Jauna. Mezede bat eskatuko neuskizu, eta auxe alegia: zurekin eroan nagizula napartar denganiñoa arrapatzeko. Urteak dira nire anai Ganix il egin ebanetik, eta orain aurkezten yatan eretia, berarekin kontua garbitu barik ez dot itzi gura.

–Amar urte baiño geiago igaro dira ordutik, eta epe luze orretan ez ete yatzu berari dautsazun gorrotoa baretu...?

–Baretuko nauan gauza bakarra aren eriotza da. Aldiaren bidean kiskaltzen nauan gorrotoaren sukarra gero ta andiago oartzen dot. Sarri askotan amesen artean, Ganix nire anaiaren mamua agertzen yat iduna gezi bataz zearkatua, eta eriotzaren arnas-estuak jota, bere iltzailleagandik mendekua artu dagidan eskatzen daust. Orduan bakarrik, lurpeko bere oatzean jasaten dauzan oiñaze larriak amaituko yakoz. Nire ordua eldu yat, Jauna, eta oraingo onetan, Undaitz'eko Yanoz il dagidanean, jazarten nauan mendeku-egarria betirako itzungiko yat.

–Bazatozke, Gurbix, bidelaguntzat pozik artuko zaitut-eta. Joan aurretik arazo batzuk aztertu bear dodaz, eta biar egunsentiaz batean, napartar orren jazarpenera ekingo dautsagu. Madarikatu orrek zure anaiaren eta nire aitaren eriotzakaitik ordaindu bear izango dau.

–Eskerrik asko, Gerin Konte Jauna.

–Gabon, eta biar arte, Gurbix.

Yarre gazteluko batzar au jazoten zala, oarpen bakanak jota, Yanoz Aturri ibairantza aalik azkarren Txartxa'ren lepo-gaiñean joian. Adu gorriak, baiña, ezusteko eragozpena ekarri eutsan. Alako baten, basoan zear arrapalada bizian joiala, Txartxa'ri arantza bat sartu yakon aurreko erpe baten, eta ezinbesteko geldialdia egin bear izan eban. Trebetasun andiz Yanoz'ek arantza kendu eutsan, baiña artutako zauriagaitik, artz gaixoa ezin zeitekean zutunik baiño ibilli, Yanoz'ek oiñez jarraitu bear ebala.

Biamonean, zauriak itxura ona erakutsi arren, oiñez jarraitzea erabagi eban Yanoz'ek, eta Txartxa'k jan egian geldialdi laburrak egiñez, eguna igaro zan aurrerapen andi barik. Illuntzean ortziko lenengo izarrak agertzen zirala, bide bat zearkatzean, andik ez urrun, ostatu bateko argipean zaldi batzuk ikusi ebazan. Toki aretatik alde egiteko zorian zala, baiña, zaldien itxurak mutillaren arreta erakarri eban. Arein ugaldiek akitanian gudarienak zirala adierazoten eben ezker, ikus-naiak zirikatuta, artza geldierazota, illuntasuna ustiatuz urreratu, eta atzekaldean erdiz edegitako leio baten zear, zelatan jarri zan. Alako baten, zauskada larriak artuta mintzo bat aditu eban. Nor eta Martzel'ena...! Une aretan auxe iñoan:

–Gaur be, lagunok ez dogu napartar madarikatuaren zantzurik artu. Biar illuntzean, Aturri ibai-ondoko "Azeri Gorria"ren ostatura iritxiko gara, beste talde biekin alkartzeko. Gerin Kontea ta Gurbix be an izango dira, eta ia orduko, arrotzaren zantzua ikusirik, arrapatzen dogun ibaiaz bestaldean dagoan Euskalerrira eldu baiño len, bestelan gurea ez dan lurraldetik jazartu bear izango dogu.

Isillune bat sortu zan, eta gero,

–Biar beraz, aalik ernaien jardungo dogu, eta egunsentian urtenda, gure taldeko bakotxari egotzi yakon barrutia ardurarik andienaz arakatuko dogu. Napartar denganiñoa arrapatzekotan, badakizue sari on bat izango dozuela. Orain, ondo irabizitako atsedena lo indargarri baten bidez izan dagizuela...

Yanoz'ek ez eban besterik entzun bear, eta artzagana biurtuta, abopeka,

–Gaiuzan, Txartxa –esan eutsan–, gau osoan zear oiñez jarraituko yoagu, eta biar goizean ire erpe ori osatuta, arlelepoan jarriko natzaio. Gaiuzan...!

Egorako norabidea artuta, biok bidegiteari jarraitu eutsoen, ortzi gardenean izarrak gidari ebezala. Illargi beteko gaba izanik, ondo argituriko bide baten zear joan ziran, eta egunsentiak uxatuta izarrak ezabatzen asten ziranean, Yanoz gelditu zan artzak oiko janaria billatu egian, eta eguzkiak zugaitzen adaburuak gorritzatzen ebazala, Txartxa'ren bizkarrean ixtaklok jarrita, Aturri ibairantza lauazka bizian abiatu zan.

–Arindu aite, Txartxa –noizean bein zirikatzen eban–, gure bizitzak arrisku gorrian yagozak-eta. Ondo jardun ezker, gaba-aurretik, Euskalerriko lur maitia zapalduko yoagu.

Ulertu izan bai'leutsan, artz indartsua basoan zear barrendu zan, ordurik-ordu

Akitani'ko azken lur-zatiak atzean gelditzen zirala. Egun ederra zan, eta zeruko oztiañaz maiteminduriko txorien eresiek gelditzeko dei egiten baeutsoen be, iradu larriak artuta, aberri-miñak jotako, Undaitz'eko nagusiak bideari erraikion okertzeke.

Eguberdian bazkaltzeko geldi-une laburra egiñik, barriro be artz-gaiñean lauazka, egorantz abiatu zan. Alako baten, gurdi-bide ederra agertu yakon, eta ariñago joatearren, oneri jarraitu eutsan. Arrats-beera asten zanean, bide-ertzean iturri bat ikusi eban, eta egarria baretzeko une batez gelditu zan. Edateko makurtzean, zarrastada andiak artuta, Mizan'go iturria zala egiztatu eban. Iturri aretan bertan, Akitani'ra eldu barria izanik, eroiazan ontzurreek erakarrita, Gartxot-eta oldartu, eta kordebarik iltzat itzi eban. Poztu zan Yanoz Aturri ibaitik urbil egoala egiztatzean, eta adorez beterik ibiltzeari jarraitu eutsan.

Eguzkia sartalderako bidaian urrutiko zugaitzen adaburuetarantz makurtzen zanean, bide-okergune baten kokatuta "Azeri Gorria" ostatua agertu zan, eta onen aurretik tximista lakoa igarorik, bidean beera ur egoan Aturri'rantz arinduta, luzaro barik ibai ederra agertu yakon. Artzaren lepo-gaiñean urak zearkatzea Yanoz'en asmoa zan, baiña udabarriko lurmen andiagaitik, joaira oso bizia zan. Ustekabez, Txorki txalupariaren ontzia andik urrun ez egoala gogora etorri yakon, eta beste barik ibai-ertzearen ondotik joian bidea artuta, Txartxa zirikatu eban arindu zeiten. Ordu bete bat igaro barik, ontzira eldu zan, eta ikoti bat azartarekin sartu zan. Une aretan bertan, andik ez urrun akitaniar gudari-talde bat zaldiketa zolian urreratzen zan. Talde au, "Azeri Gorria" ostatuan atsedean artzen egoala, gudari bat oiubizitan sartu, eta Yanoz artz-gaiñean igaro izan zala jakiferao eutsan. Arin baten, taldeak zaldiak batu ebazan, eta aalik azkarren astrapala zaratatsuz jazarpenari emon eutsan.

Ontzira sartu ziranean, Txorki txaluparia jesarrita egoan ogitarteko bateri ekiñez.

–Arin, txalupari –didarka esan eutsan Yanoz'ek–, astirik galtzeke eroan gagizuz beste aldera...!

Txalupari zitala, baiña, une aretako egoereaz jabetuta, gudariai urreratu zeitezan eretia emon nai eutsen, eta patxadarik andienaz,

–Bai, lagun –esan eutsan–, baiña arren, gorde egizu artz ori nigandik urrunen.

Ezpatea eskuan artuta, Yanoz'ek orduan,

–Jaregin txalupea oraintxe bertan, edo...!

Txorki maltzurak txaluparen lokarria askatu nai ebalakoa egiten eban korapilloa eskukatuz. Yanoz'en ezpatea, baiña, tximistaren antzera jausi, eta lokarria ebagita, ontzia kaitik urruntzen asi zan, ertzerik-ertze edatzen zan soka lodiarri eutsita, Txorki'k ontzia bultzaten ebala. Akitaniarrak ur samar egozan orduko, eta txaluparen aurka geziak jaurtiten asi ziran. Erredolaz babesten zala, Yanoz'ek ezpatearen muturra txalupariari saietsean untzatu eutsan, auxe zirautsala:

–Arindu zaitez, bestelan...!

Txalupariaren aurpegia bellegi biurtuta, izerdi otzez estaltzen asia zan, eta Yanoz'ek benetan ziarduala ikusirik, indar beteaz urruntzeari emon eutsan. Bitartean,

aurreneko gudariak kaira elduta, asarre bizian gezi-jaurtiketeari jarraitu eutsoen, ontzia urruntzen yakiela ikusirik. Bitartean, artza bere atzean jesarrita, Yanoz erredolaz bakesten zan. Noizbait, bide-erdira elduta, geziak alperrik galtzen zirala ikusirik, akitaniarrek gezi-jaurtiketeari uko egin eutsoen, birao ta aiñen zakarren artean.

Beste ertzera urreratzen ziranean,

–Aizu, txaluparia-itaundu eutsan Yanoz'ek–, non dago urrengo txalupea...?

–Emendik ogei kilometrora-edo.

Tinko-tinko begiratzen eutsala, Yanoz'ek orduan,

–Txalupari, ez al-zara nitzaz gogoratzen...? Orain urtebete bat, txalupa onetan bestaldera eroan ninduzun.

–Ba'leiteke, Jauna, zeuk diñozun ezkerero...

–Oroimena indartu bear dautsut, Txorki. Bestaldera elduta, ordaintzerakoan zizku bete ontzurre nebala ikusi zenduan, eta leku au lapur-zulo ustela dan ezkerero, astirik galtzeke "Azeri Gorria"ra joanda, angozure arrapakideai nire ziskuarena esan zeutsen.

Orduko, Txorki'ren aurpegia bellegi-zurbilla billakatua zan, eta mintzo totelaz,

–Ez dakit, gazte –erantzun eutsan–, zeri buruz diarduzun.

–Gartxot izena, ez al-yatzu gomutara etorten...?

–Ez dakit ba...

–Bai, gizona, begibakarreko bide-lapur ospetsua, eta zure lagun zintzoa. Mizan'go iturrian eraso eustan, eta ontzurreak niri ostu ondoren, iltzat laga ninduan. Zer diñoztazu...?

Gorpu baizen zurbilla, eta izuak jota, txalupari zitalak ezin egikean berbarik esan. Bitartean, beste ertzean ziran, eta txalupariaren eskuari oratuta, Yanoz'ek legorrera zapart egin, eta eskua askatu barik,

–Badakit zer darabiltzun gogoan, Txorki –esan eutsan Yanoz'ek–. Arin baten Akitani'ko aldera biurtu, eta an dagozan akitaniarrak ona ekarri, nire jazarpenari jarraitu dagioen, ezta...? Gaiztakeri asko mundu onetan egin dozun ezkerero, ez dot ezelan be gura beste bat egin dagizula, ez orain ez beste urrengo baten be.

Txaluparen branka-gaiñean zutunik, esku biak ezpata astunari eutsi, eta azpiko olai zartada itzelak jaurti eutsezan. Egindako zirrituetatik ura borborka sartzen asi zan, eta gero lokarria azken zartada batez eten eginda, ol-meta bat biurturiko txalupea, Aturri ibaiko joaira arifnean beera ostendu zan.

Dardar baten egoan Txorki'gana biurtu zan Yanoz, eta auxe esan eutsan:

–Txalupeari egiñikoa, zeuri egitea merezi dozu, zital alena, baiña zure epaiketea Jaungoikoaren eskuetan lagako dot, eta egunen baten zure burua txarto ikusi nai ez ba'dozu, damu egizuz egiñiko gaiztakeriak.

Au esanda, artzari dei egin eutsan, eta ur egoan arizti baterantz abiatu zan, atzean Txorki doillorra aiene ta biraoka galtzen zala.

Gaba asten zan orduko, eta ortzi gardenean izar urrundariek dardar eta asperenka

eguzkiaren eriotza agurtzen eben. Gabeko ortzi-liburuan ondo irakurri eroian Yanoz'ek, eta egorako norabidea arturik, Txartxa'k erraikiola, ibillera ariñez aberri-rantz abiatsu zan. Gaberdian inguru, atsedenaldir bat bearrezkoa yakiela ebatzi eban, eta bide-zorroko janari-zati batzuk janda gero, alboan artza ebalu lo indargarri bateri emon eutsan. Izan be, jazartzailleek urrengo txaluparaiño ogei kilometro ibilli bear izango leukenez, ordubeta batzuen aurrea kentzen eutsen; gaiñera, eurek be atsedean artu bear izango... Yanoz'eri ez yakon bururatzen jazartzailleek nekaturiko zaldiak barriakaz ordeztu egikiezala...

Egungentziaren aurretik itxartu zan Yanoz, eta janari-mokau batzuk artuta, indar barriakaz bidegiteari jarraitu eutsan. Luzaro barik, udabarriko eguzki ederra urrutiko oatze larroskaratik jagiten asi zan, gorritz musukaturiko adaburuetatik txorien txintak aditzen zirala. Basoko zidorrak argitu ziranean, Txartxa'ren lepo-gaiñean ixtaklok jarrita, lauazka azkarrari emon eutsan, orduetan zear era onetan jarraituz. Eguberdiaren ordu biko geldidaldia egini janaritu ta atsedean artzeko, gaberarte artzaren arrolepoan irau eban.

Urrengo egunean, bideari ekin eutsan barriro, joran utsaz biotza pilpila zorotan ebilkiola. Lakarri'tik ur samar egoalako usteak zirrara bakana eragiten eutsan. Laster ikusiko leuko Oiane, biotzeko aingeru aztu-eziña... Urtebete bat igaroa zan azkenengoz ikusi ebanetik, eta arrezkero, beti ta nonai aren irudi maitagarria ezin egikean iru-dimenetik kendu. Ezagutu baiño ez, oartu barik maite izaten asi zan, eta aldiaren bidean sentipen ori gar itzungi-eziña lakoa biurtu yakon. Orain, baiña, gaztelura biur-tu aurretik bere maitasuna autortuko leuskio, eta baietza artzekotan, betiko alkartuko litzakez Naparra'ko arrano-abi aretan, Undaitzarren leiñuak jarraipena izan egian. Baiña azkenengoz ikusi ebanetik ona, ez litzakean beste batekin arremonetan asi izango...? Oiane edertasun yaukalekoa izanik, ezkongai asko urreratuko litzakio orduko, eta gazte batekin berbatua izatea ez litzake arrigarria izango.... Oldozkun au ja-sangatxa gertatzen yakon, eta olan ba'litz, bizitzarako guraria galduta, zaldun alderrai baten biziareari emongo leuskio.

Gogo oneitan murgilduta joiala, eguberdia egin zan, eta goseak zirikatuta gane-txu bateko baso-soillean, atsedenaldir laburra artzea erabagi eban. Izan be, Lakarri'ko jauregia ezin zeitekan urrun egon, eta araiñoko azken bide-zatia egin aurretik, on izango litzakio atsedenaldir laburra izatea. Bide-zorrotik azken janari-puxka atarata, bion artean banandu eban. Andik laster, lo-gurak menperatuta, biagoa egitearren, be-darrean etzanda eta bide-zorroa burkotzat ipiñita, lotan asi zan.

Bitartean, Gerin eta Gurbix'en zuzendaritzapean jazarkundeak jarraitzen eban. Txorki'ren txalupea ondatua zan ezkerro, urrengo igaro-ontziraiño abiatsu ziran, goizaldean Aturri ibaia zearkatzeko asmotan. Olan egin eben, eta astirik galtzeke Yanoz'en jazarpenari emon eutsoen. Orain usmalariak euren egitekoa etorri izan yakon. Baekien, Yanoz artz-gaiñean zaldika joiala, eta beraz, onen oinkadearen aztarna billatzea arazorik garrantzitsuena zala. Augaitik, noizean bein zalditik jatsita, usmala-

ri bakotzak lurra aztertzen eban artzaren zantzuen billa. Onezaz gainera, eta aalik ari-ñen joatearren ordubeta biro zaldien aldaketea egiten eben.

Iparreko Euskalerrian zear igarotako lenengo egun aretan, ez eben iñongo zantzurik oartu. Bigarrena asi zanean, eta euren azken aukerea zala jakiñik, jazarkuntze-ari buru-belarri emon eutsoen. Alako baten, eguberdia inguruan usmalari batek lurrean ondo marrazturiko Txartxa'ren erpe-atzak oartu ebazan. Poztasun andiak artuta, Gerin'ek iru taldeak batu zeitezala agindu eban, eta gudariak azken aginduak emonda, aalik isillen aztarna arein atzetik bideratu ziran. Aurrean, zugaitzez ezalitateko ganetxu bat jagiten zan, eta suzmo bakanak jota, Gurbix'ek,

–Gerin Konte Jauna –arrenkatu eutsan–, mezedo anditzat eskatzen dautsut, taldearen aurrea artzen laga dagidazun. Zerbaitek badiñost, napartar gaztea ezin daiteke-la urrun izan.

–Bedi nai dozun lez, Gurbix. Atzetik joango naiatzu, baiña ernai ibilli zaitez, Undaitz'eko nagusi gazte ori tximista baizen azkar eta indartsua da.

Ain luzaro irrikaturiko apentza edo mendekuaren ordua eldu izan yakon Gurbix'eri, eta aztamakillari estu-estu oratuta, ganetxuan gora abiatsu zan, atzetik, aztamakillak eta uztaiak gerturik, enparauek erraikiola.

Arrats-beera zan... Ezustean, Txartxa'ren entzumen bikaiñak zaldien azkazalen otsak aditu ebazan, eta lotan egoan Yanoz'egana joanda, kurrinka asi yakon urduri. Mutilla, galtzori gorriaren suzmoak menperatuta, jagi, eta bizkarra areitz baten enbo-rean jarrita, adi-adi geratu zan. Une aretan bertan, ur samarretik zaldi baten irrintzia entzumenera etorri yakon. Latz-ikara batek astinduta, Yanoz'en lenengo eragintza igesari emotea izan zan, baiña bereala baztertu eban. Zaldien jazarpenetik iges egite-rik ez... Uztaia zutunik jarrita eta belaun bat lurrean, ondolik gezi-eskukada bat ebalu, etortekoari itxaron eutsan. Zaldien ibillerea gero ta argiago etorkion, eta alako baten, akitaniarren guda-irrintzia aditzen zala, lauazka baten agertu ziran.

Bereala ezagutu eban Yanoz'ek taldeko aurrelaria, eta gezi bat uztaian ipiñita, itxaron eban. Aalik ariñen joan zeiten zirikatzen eban Gurbix'ek zaldia, aztamakillea beerantz zuzenduta eriotz-ukaldia emoteko gerturik. Amabost bat metrora egoala, Yanoz'ek gezi jaurti eutsan. Mutur zorrotza arrats-beerako eguzki-printzek jota, une batez tximistaren antzera dizdiratu eban. Gurbix'ek berak be, eguzkiak erauzitako geziaren urrezko txinparta ikusi eban, baiña ozta-ozta eriotz-mezularia ikusirik, ezta-rrian kokatu yakon. Oiu erlatsa jaurtita, abo edegiaren zear odola borborka eriola, zalditik bedar-gaiñera jausi zan. Undaitz'eko bere Jauna saldu izan eban bigarren Judas, sama salataria gezi batatz zulatuta, bere anai Ganix'ekin betirako alkartu zan.

Atzetik, baiña, aztamakillari tinko eutsita, lauazka zoroan Gerin etorren, eta Yanoz'ek beste gezi bat gertatu aurretik, akitanianak gorroto bizian eraso eutsan. Une aretan baiña, zaldiak Gurbix'en gorpuan soster egin eban, eta Yanoz'en bularrera zuzenduriko aztamakillea saiestuta, irristadan sorbaldea zauritu eutsan. Ez zan kalte

andikoa gertatu, baiña min andipean Yanoz'ek oiur larria jaurti eban, eta gero artza zirikatuz, auxe agindu eutsan:

—Txartxa, uia, uia...!

Ugazabaren miñezko didarra, eta onen uia aginkorra entzutean, asarre biziak zoratuta, burrukarako gertau zan. Une aretan, ukaldia jaurti ondoren, Gerin Yanoz'en aurka ilteko asmoz oldartzen zan. Ondo ikasita eban artzak Irati'ko oiarean bere ugazabak giza-irudien aurka zirikatzen ebaneko saioak, eta ikoti itzela eginik, Gerin'eri gerritik eutsita, txingote ezaiña bai'litzan, zaldi-gaiñetik erauzi, eta Yanoz'en ondoko zugaitz-enborrean zapaldu eban. Burua arrautz-azalaren antzera apurtuta, Yarre'ko Konte gaztearen gorpua bedarrean etzanda geratu zan.

Bitartean, zugaitzaren babespean aalik ariñen Yanoz'ek gezi-jaurtiketeari emotsan. Sorbaldako zauriagaitik, ezin egikean indar beteaz jaurti, baiña arerioak ur samar izanik, gezi geienek aparta egiten eban. Asarre gorriak eraginda, Gerin ilda gero, kurrinka ta orruka, gezi-erauntsi baten pean Txartxa akitaniarren aurka oldartu zan, aal ebazan beste zaldi-zaldunak triskatuz. Geziek egindako miñak gero ta sumiñago biurtzen eban, eta bere irureun kilok emotsoen indar itzelaz, ezker-eskubian ondapena ereintzen eban. Alako katen, Yanoz'ek jaurtiriko gezi bat Martzel'eri bularrean entzatu yakon, eta une batez zer egin ez ekiala geratu zan. Burrukea, baiña, zaldiek erabagi eban, artzari eutsuen bildurragaitik. Zaldiek artzari jatorrizko bildur itzela dautsoe, eta azkenean izuaren-izuz atzera egiten asi ziran, zaldunen agintzai jaramonik egiteke. Izan be, orduko, Gerin eta Gurbix ilda, Martzel zaurituta, akitaniarren adorea mailla askoz beeratua zan, eta ezer gitxi joiakien burrukeari uko egiñik, zugaitzen artean iparrerako norabidean ostendu ziran.

Oiuek eta odol-usaiñak akuillaturiko Txartxa arein atzetik oldartu zan, baiña baso-soilleko bestaldera ozta-ozta eldurik, ezustean koloka ibiltzen asi, eta noizbait geldituta, lurrera amildu zan. Atzetik etorkion Yanoz, zarrastada larripean bere ondoran belaunikaturik, aren burua eskuen artean artu eban, eta oiñazeak larrituriko mintzoz,

—Txartxa, Txartxa...! —oiur egiten eutsan— entzun naik, emen nok irekin, ez eik lorik orain, gure bidegitea laster amaituko dok-eta. Entzuten nok, Txartxa...?

Geziz jositako artz gaixoari, baiña, odola parrastaka erion, eta begietan eriotzaren errezela kokatzen asten yakon. Yanoz'ek burua eskuetan artuta laztantzen eban auxe iñotsala:

—Aiko, Txartxa, ez aite lo geratu. Begiraik: ire jaiolekua dokan Irati'ko oian ederrera laster elduko gozak, eta an osaba Imoz begira yoagu...

Artz erraldoiak ugazabaren eskua azkenengoz miazkatu eban, eta gero eriotz-aurreko intziria jaurtita, geldi-geldi geratu zan. Malkoak mara-mara eriozala, ezin egikean siñistu Yanoz'ek bere Txartxa maitia betirako joana zala. Azken urte areitan bere bizitzak arenari lotuta iraun izan eban, eta bera barik bete-eziñeko utsa izango leuke betirako.

Une luze batez iraun eban Yanoz'ek Txartxa'ren gorpu-ondoan malkoai eutsi eziñik. Arrats beera, baiña, aurrera joian, eta eguzkia laster ostenduko litzake Lapurdi'ko itsasoaren atzetik. Bearrezkoa zan lenbailen Lakarri'ko babes billatu, Gerin'en aztamakilleak egindako zaurian zear odola erion, eta unerik-une makalago sentitzen zalako.

Txartxa'ren begiak itxi ebazan, eta azken laztana egiñik, egorantz, aurrean agertzen yakon Añamendi'rantz abiatu zan. Ganetxuan beera joiala, ume bateri lez malkoak bor-borka eriozan. Laster oartu zan Yanoz, indarrak galdu aurretik Lakarri'ko jauregira iritxi bear izango leukela. Sorbaldako zauria ilgarria ez izanik be, minkorra zan, baiña txarrena odol-jarioak eragindako aultasuna zan. Beekaldera eldu zanean, gurdi-bide bat ikusi, eta onetatik jarraitu eban. Ibilli ebillela, uztai-geziak ganetxuan aztu egin ebazala oartu zan, baiña une aretako egoera larrian, biurtzerik ez. Arrezkero, ez leuke iskillorik bear izango, baiña errubidun ezpatea oi eban lez sorbaldatik eskegita oartzeak, zelanbait nasaitu eban.

Illuntasun betean bideari jarraitu eutsan, Ori mendiko gaillur edurtsua gidaritzat artuta. Ezpairik bage bide arek Lakarri'ko jauregira zuzenduko leuke, baiña ez eban iñongo ziurtasunik, araiño elduko ete litzaken. Orduko, bazirudian odol-isurtzea zezker baretua zala, baiña menperatzen eban aultasuna gero ta andiagoa zan. Bide-ertze-ko zugaitz tantaiek bazirudien gaztearen bidaia begiztatzen eban mamu isillak, gabe- an zear geldi ta itzaltsuak. Ordu bi igaro ziran ganetxua itzi ebanetik, eta orduko, indarren mugan sentitzen zan, txolin baten antzera sigi-saga joiala. Ez ekian non egoan, ezta nora abiatzen zan be.

Alako baten, zugaitzak amaitu ziran, eta aurrean gabeko laiño meearen artean, andi ta sendoa Lakarri'ko jauregia agertu yakon. Gelditu zan, eta aalik indartsuen oiur egin eban, baiña erantzunik ez izanda, ibilte kolokari jarraitu eutsan. Alako baten, oinpean, jauregi-aurrean egozan lats-gaiñeko zubiko olak zapaldu ebazan, eta barriro irrintzi-deia bota eban. Ozta-ozta jaurtita, baiña, zentzua galdurik lurrera amildu zan. Geldi-geldi geratu baiño len, olak jotetan ezpatearen otsa aditu zan.

Ordu batzuk igaro ziran udabarriko egun ederra gabaren altzoan ostendu izan zala. Lakarri'ko sukaldean Oiane'k goruetan ziarduen artulea iruten, baiña gogoa andik urrun ebilkion, noizean bein asperen sakon bat iges egiten yakola. Sutondoan amak aparia atontzen eban laratzetik maskillo bete esne berotzen zala. Etxekojaunak kortan ziarduan abelgorria zaintzen. Etxeko seme biak negutea igarota, artaldea Auñamendi'ko goi-larradietara iru egun lenago eroan izan eben, eta urrengo egunerarte ez litzakez biurtuko. Joanes'ek baebazan kortan jardun egikien morroiak, baiña etxeko arazoak berak zaintzen eta begiratzen ebazan, etxalde aberats bateri egokionez.

Aspaldi aretan etxekoandrea bere alabeari buruz kezka andipean egoan. Oiane bere barruan bilduta, isiltsu ta itun etxetik urrun jarrita eban bere gogoa, bein baten urrutira abiatu zan Yanoz'egan, alegia. Aspaldi aretan batez be, udabarriaren etorrereaz, gomutan eban urtebete bat zala mutilla Akitani'rantz joan zanetik. Gogoan ebazan, joan aurretik mutillak esandako itzok: "Ikusi arte, Oiane; andik biurtu naitenean Jauregizar'entzat izango da nire lenengo ikerketa..." Urtebete bat igaro izan zan, eta arrezkero aren barririk ez. Bidai luze aretan ezbearren bat jazoko ete yakon, ala beratzaz aztuta, ez litzake iñoiz Jauregizar'era biurtuko...?

Oldozkun oneitan ziarduala, asperen bat jaurti eban, aurpegian beera malko baten ildo marrazten yakola. Etxekoandrea urreratu yakon, eta malkoa ikustean,

–Oiane maite ori –esan eutsan–, ez negarrik egin. Ez al-zara zoriontsua emen gure artean...? Esaidazu zer nai dozun, eta nire aalmenean izatekotan jaritsiko dautsut...

–Urtebete bat igaro da, ama, joan zanetik, eta aren barririk ez...

–Orrenbeste maite dozu, Oiane...? Begira, alabatxu, bazterretan badira gazte ederrak eta aberatsak zurekin ezkonduko litzakezanak.

–Ni ez naz ezkonduko berarekin baiño. Jauregizar'era biurtuko ez ba'litz, Donibane Garazi'n lekaike sartuko naz, eta bere alde egunoro otoitz egingo dot. Batzutan, nitzaz aztu ete dan uste izaten dot, baiña... jakingo ba'zendu joan zanean zelan begiratu eustan... Yanoz ez da guzurak erabilten dauzan orreitarikoa, eta augaitik, sarri askotan gogora yatort ezbearren bat jazo ez ete yakon...

–Alabatxu maite orrek, ez galdu itxaropena. Gure patua izarretan idatzirik ei'dago, eta gazte orrena, Jaungoikoak nai ba'dau Jauregizar'etik igaroko da. Ez negarrik egin, Oiane, itxaron Yanoz'en etorkia izarrek idatzi dagien...

Isiltasuna danaz jabetu zan barriro, eta Oiane'ek iruten ebalu, gogora etorri yakon egun aretan Yanoz'ek akitaniar buruzagi aren atzaparretatik zelan jaregin eban. Alako baten, bere entzumen zorrotzeraño, didar larri bat etorkiola begitandu yakon, eta,

–Ama, ez al-do zu zeozer entzun...? –itaundu eutsan gorua baztertuz.

–Ez, Oiane, zure irudikeriren bat izango da, urrean. Otsoen aiuria-edo.

Neskatillea leiora urreratu, eta zabaldu ondoren, adi-adi geratu zan. Lekorean dana isillik egoan, izarren dizdir aulpean iñontz meea ibarraz jabetzen zala. Olan egoala, olezko zubitxu-gaínean, ibilte astunaren urrats kolokak aditu ziran, eta orduan didar ito ta larria jaurtirik, jauste baldarra ta ezpata baten blaustadea entzun ebazan.

–Ama, ama –larri jaurti eban Oiane'k–, baten bat zubitxu-gaínean jausi da, goakiozan arin baten...

Amak erraikiola zurubian beera oldartu zan neskatillea, eta aalik azkarren, etzanda jarrita egoan arrotzagana urreraturik, belaunikatu zan, eta, "Ai ene, izango ete...?" berekiko iñoala, aren aurpegia eskuetan artu, eta,

–Ama, bera da...! Nire Yanoz maitia etorri da, etorri da...!

Etxekoandrea urreratu zanean, sorbaldatik odola eriola oartu zan, eta Joanes'eri dei egiñik, iruren artean etxera eroan, eta beti gerturik egoan arrotzen gelara igon, erantzi, eta oean sartu eben. Onen ostean mutilla dardar baten egoanez, ontzibete ur beroakaz inguratu eben. Jarraian, larranbilozko uraz etxekoandreak zauria garbitu eutsan. Oiane gaixoak ezin egikean besterik egin Yanoz'en aurpegia ta billoak laz-tandu baiño, bein eta barriro amari itauntzen eutsala,

–Ama, bizirik al-dago...?

–Bai, Oiane, nasaitu zaitez. Odol-isurtzea dala-ta, makaldu da konortea galtzeraíño. Onik atarako dogula uste dot.

Astiro-astiro berotu-ala Yanoz bere senetara biurtzen zan, eta begiak itxita, berba ulerteziñak esaten asi zan. Izan be, mutilla makaltasun andipean egoan, eta etxekoandreak esne beroa edan-erazo eutsan. Gero, sukarraren menpe burua galduta, berba totalakaz zeozer esan nai eban. Oiane'k aita-amak lotara joan zeitezan agindu eutsen, eta oe-buruan jesarrita, Yanoz'en aurpegi kiskalgarría oztuten eutsan, maitasunezko itzak iñotsazala.

Urrengo goizean, lengora biurtu izan ez arren be, Yanoz itz batzuk esateko gai izan zan, eta bere ondoan Jauregizar'ko etxekojauna ikusirik,

–Aizu, etxekojauna –esan eutsan–, onarako bidean, ganetxu bateko soillean... akitaniar batzuen gorpuak datzaz, baita Txartxa nire artzarena be... Giristiñoen oiturai jarraituz... lurperatu egizuz, eta obiburuan egurrezko gurutz bana ipiñi egizue. Artzari be... nire Txartxa maitiari dagokionez... lurra emongo dautsazue goiko arkaitzetako saiek irutsi ez dagien... eta obi-gaiñean zutuniko arlasta baten "Txartxa" izena ildas-katuko dozue, bere gorpuzkiñak non dagozan jakin dagidan...

–Bai, mutil, bazkalostean nire semeak goiko sarobetatik biurtuko dira, eta or-

duan iruron artean obiratuko doguz. Ez zaitez larritu, eta atsedean artu, oso makal ikusten zaitut-eta.

Lengo berbak esateko Yanoz aalegindu bear zanez, sukarrak barriro artuta, amestxar baten artean itz ulerkaitezak jaurtiten asi zan. Oez bestaldean egoan Oiane'k auxe esan eutsan aitari:

–Aita, mesedez, ez egiozu barbarik egin, artegatzen da-ta. Beragaitik bildur naz, aita. Azken aldiotan, antza, nekaldi andia jasan egin dau, eta azur-eskukada baiño ez da. Gaiñera, isuritako odolak makaldu dau zearo. Itxi egizuz leio-estalkiak, erdi-illun-ean atsedean artu dagian.

–Oiane, zu zara atsedean artu bear dauana, nire alabatxu ori. Gau osoa ta goiza bera etenbarik jagoten irauñ dozu. Ordua da lo apur bat egin dagizun.

–Arratsaldean ama datorrenean, gaberarte lo egingo dot. Apalduta gero Yanoz'en jagoteari emongo dautsat barriro.

Bakeak, isiltasunak eta zaintzak batez be, Yanoz'en osabidea eragin eben, eta amar bat egun igarorik, goiz baten lengora biurtuta itxartu zan Yanoz. Loaldi luze batetik bere senetara biurtua bai'litzan, begiak edegitean bere ondoan Oiane'ren irudi zoragarria ikusi eban.

–Oiane, Oiane –esan eutsan–, amesetan izango ete, nire ondoan zaitudala...?

Eskua luzatuta, neskearena artu eban, eta laztanduta gero,

–Oiane –esan eutsan irribarrez–, zu zaitut bene-benetan. Esan egistazu zelan nagoan emen.

–Bai, Yanoz, ni nozu. Orain amar egun Jauregizar'era etorri zintzakiguzan...

Jarraian, Oiane'k bere etorrerearen gora-beerak emon eutsazan, baita igarotako geiso-aldiarenak be. Egund aretan bertan Yanoz oetik jagi, eta ibillera kolokaz neskatillearen laguntzaz sukaldera jatsita, sutondoan bere eskuz jaten asi zan.

Arrezkero, geiso-oste laburra izan eban Yanoz'ek, eta zenbat-gura zaintza ta janari aukeratuak izanik, astebete bat igarota gero, gai izan zan inguruetatik egurastu laburrak egiteko. Eguraldi ederra zan ezkerro, etxaurreko aulki baten jesarrita, alboan Oiane ebalu, astia arin baten igaroten zan.

Olan ba, Oiane'ren begi yaikalak beragan josita, eta onen itaunai erantzuna emonez, Yanoz'ek azken aldiotako gora-beera zeatzak emon eutsazan, baita Oiane'k ez ekiazan aspaldikoenak be. Olan ba, Undaitz gazteluko guztitariko gora-beerak emon eutsazan, Iroz bere aita il zan arte. Gero, Irati'ko oianearen igarotako amar urteak. Zenbait egund irauñ eban Yanoz'en edeskiak, noizean bein Oiane'k eten egitsala zeatzen bat argitzearren. Aspaldi zoragarria billakatu zan edestaldi a, neskatillearen aurpegi zoragarria irribarre argitsu batatz piztuta, mutillak iñotsan guztia bere gogoan betirako gordeten ebalu. Edeskia amaitzean,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, zuk egiñagaitik zure aita pozik egongo da onezkero.

–Ez dot besterik egin, berak irakatsiari jarraitu baiño.

–Zorionsua izango da, zeu lako semea izateagaitik.

–Nire aitak, zoriona aurkitu eban Yunilde nire amarekin ezkondu zanean.

–Bai tamal andia bera orren gazte galdu izatea...

–Ordutik, aita ez zan lengora biurtu. Igun, gure artzaiñaren sarobean, besoetan il yatanean, orduan barriro zoriontsua zala begitandu yatan, noizbait amarekin betirako alkartzeko zanean.

–Yanoz, enda gorenekoa zara; nor eta Akitani'ko Dukearen billobea...

–Ez dot gitxiesten amaren jatorria, baiña benetan pozten nauana euskaldunen leiñukoa izatea da, eta zer esanik ez, Undaitz'eko semea.

–Undaitz'ekoak, baita euskaldun guztiak be, arro oartuko dira zeuk Akitania'n egiñagaitik.

–Jaungoikoak lagundu daust, baita nire aitak zerutik, eta zer esanik ez osaba Imoz'en otoitzek.

Bajoian aurrera edu onetan Yanoz'en sendaldia, eta bein baten Oiane'ri auxe esan eutsan:

–Aizu, Oiane, atsegin izango litzakit, azken burrukea egin neban ganetxu aretara biurtu, Txartxa'ren illobia ikertzearren.

Arratsalde ederra zan gazte biok Jauregizar'etik Yanoz'ek aipaturiko lekura abiatu ziranean. Udako asierea zan arrezkero, eta Zuberoa'ko zabaldia aintzaz beteten zan Ori mendipeko pizkunde yaukalean. Lakarri'ko barrutia iparrerantz edatzen zan usain gozoz eta argiz blei-blei. Andik ordu bitara ganetxuko baso-soillera eldu ziran, eta jazotako burrukearen aztarnak ezabatuta jadanik, tokia bakez beterik egoan. Alkaren ondoan egurrezko lau gurutzek akitaniarren illobiak erakusten ebezan, eta andik ez urrun, zutuniko arlasta batek Txartxa'ren azken atsedena.

Arlastaren ondoan burumakur eta begiak malkoz laifñoturik, une luze batez isillik iraun eban Yanoz'ek. Oiane urreratu yakon, eta aren esku bateri eutsirik, mintzo samurraz,

–Maite-maite zenduan, ezta Yanoz...?

–Ez dot anai-arrebarik ezagutu, Oiane, eta maitasun anaikorra zer dan, beraz, ez dot ezagutu be. Baiña ziur naz, Txartxa'ganako nire maitasuna anaikorra izango zala. Mundu onetan ez eban beste iñor ezagutu ni baiño, eta basabere bat maite izateko gai dan beste ta areago maite izaten ninduan berak. Bai, eriotzaraiño maite be... Jaungoikoak nire bidean ipiñitako anai maitekorra izan neban. Berari esker, nire aitaren agindua beteteko gauza izan naz, baita arbasoen gaztelura onik biurtzeko be...

Yanoz'en begiai malkoak mara-mara eriezan. Bere ondoan isillik, Oiane erruki-tsuari asperen bat sortu yakon barru-barrutik, eta arratsbeeran urrezko egoakaz ortzi oztifñean zear galdu zan. Oiane'k Yanoz'en eskua bigun-bigun estutuz,

–Goazen, Yanoz –esan eutsan–, arratsbeera badoa argitan galtzen. Biurtu gaitzen illundu baiño len.

Burruka-egunean areitzaren ondoan lagatako uztai-geziak jaso ebazan Yanoz'ek, eta ganetxutik jaisten asi ziran, aurrean Auñamendi'ko tontor garaiak oztifñez eta

amuskoz jantziten zirala. Eguzkiak adats-inguruan jarten eutsan urrez edertuta, Oiane'ren aurpegi lirain-liraiña iñoizkorik lilluragarrien agertzen zan. Une batez Yanoz'ek begiratu eutsan, eta aren eskuari oratuta, borborka sentitzen eban maitasunak eraginda,

–Oiane, nire kutun ori –irautsi eutsan polliki–, maite zaitut zoroki, gero ta geiago izan be. Ezagutu zidudazanetik gogoan izan zaitut gau ta egun. Ez neutsun ezer esan gura nire aitaren agindua bete arte. Orain aren guraria beterik eta Undaitz'eko gaztelura biurtu aurretik, maite izaten ete nozun jakin nai dot, Oiane...

–Bai, Yanoz, ezagutu zindudazanetik maite izan zaitut. Oroitzen al-zara, maitia, akitaniar arein atzaparretatik jaregin ninduzunean...? Ordutik bertatik zu maite izaten asi nintzan. Asiera baten ez nekian zelakoa zan zukanatzen ninduan sentipena, baiña orain urtebete bat, zure aitaren agindua betetearren Akitani'rantz abiatu zintzazanean, orduan oartu nintzan, zoroki ta betirako maite izaten zindudazala.

–Eta niganako maitasunez, Undaitz'eko gaztelura bizi izatera joango zintzakez...?

–Bai, Yanoz, munduaren azkeneraiño.

–Begira, Oiane: gaztelua arrano-abiaren antzera arkaitz larden malkorraren erpiñean kokatzen da. Leku bakarti aretan, ez dozu Jauregizar'en lako biziera erosorik izango. Ederra da Undaitz, ederra, baiña guztiz basatia.

–Zurekin izatekotan, edonora joango nintzake.

–Undaitzarren leiñua gudakoia izanik, nire betekizunak gaztelutik lekorera aspaldi luzetarako zuegandik urrunduko nau.

–Zure begira goruetan izango nozu, Yanoz, eta zu biurtzean iñoizkorik zoriontsuen izango naz.

–Ereti areitan gaztelua ta gure lurren zaintza zuegan izango da.

–Zeuk irakasten ba'daustazu, gai izango naz.

Irribarrez begiztatu eban Yanoz'ek, eta gozoki bereganatuz musu maitekorraz, euren betirako maitasun-ituna berbatua geratu zan.

Jauregizar'era biurtuta, gazte biok etxeko jaun-andreai euren maitasun-lokarria azalduta gero, ezkontzerako baimena eskatu eutsien. Joanes une batez oldozkor geratu zan, eta gero,

–Tamala dot benetan –esan eutsen–, gure alabea etxetik ain urrun joan daiten, baiña maitasunaren bideak jarki-eziñak dira. Gaiñera, iñork ez dau Yanoz'ek beste meriturik Oiane gure kutunaren maitasunarentzat, eriotza baiño askozaz izugarriagoa dan etorki negargarritik onik atara ebalako. Izan be, etxe onerj argia dakartsan lorea joango yaku, baiña bera zoriontsua izango dalako oldozkunak gure oiñazea arinduko dau. Jaungoikoak bedeinkatu zagiezala, maiteok. Noiz ezkonduko zarie...?

–Ori baiño len, nire gazteluaren jabetasuna artu bear dot –crantzun eutsan Yanoz'ek– eta orreri dagokiozan gora-beera guztiak atonduta, ezkontzeko Jauregizar'era biurtuko naz.

–Noiz abiatuko zara Undaitz'era...?

–Aalik lasterren, onezkero indarretan lengora biurtu naz-eta.

Izan be, Yanoz zuzen egoan. Lakarri'ko jauregian izaniko zaintza ta ardurakaitik, betikoa oartzen zan. Garaia zan, beraz, Undaitz'era biurtzeko. Gau aretan bertan, Yanoz biaramonean alde egingo leukela erabagi zan. Urrengo goizean goizik, biderako gerturik egoan Yanoz. Urteterakoan, etxeko jaun-andreak besarkatu ta bedeinkatu eben eta bide-zorro bete janariz, errubidun ezpatea ta uztai-geziak sorbaldatik eskegita, Oiane'ren eskuari eutsi, eta Irati'rako bidea artu eban.

Bagilla'ko (Ekaiña'ko) egun zoragarria zan, eguzkiaren argiak Zuberoa'ko lurralde zoragarriaren edertasuna agirian jarten ebala. Zugaitzetatik, pozez zoraturiko txoriek goizalde-maitasunaz eraginda, ortzi oztinari eresi-andanak bialtzen eutsoezan. Azken agurraren larritasunak eraginda, gazteak isillik joiazan. Noizbait, bide-ganetxu batera elduta, Yanoz gelditu zan, eta,

–Oiane maite-maitia –esan eutsan–, ementxe amaitzen da zure lurraldea, eta Benaparra asten da. Bide luze samarra eginda gero, ordua da etxerakoa egin dagizun.

–Yanoz neuria, noiz biurtuko zara...?

–Nire aitaren etxeko jabetasuna artu baiño ez.

–Noiz izango da ori...?

–Ezin dagikezut esan. Onezkero badira amaika urtebete Undaitz itzi nebanetik, eta ez dakit etxeko arazoak zelako egoeran aurkituko dodazan. Ez dot uste, baiña, luzarorako izango danik, baiña zurekiko maitasunak nigan egoak jarriko dauz aalik ariñen Jauregizar'era biurtzeko. Zeu barik nire gaztelua illun eta itzaltsua izango yat.

–Yanoz, bitartean noizean bein gogoan izango ete nozu...?

–Noizean bein, diñozu...? Begira, Oiane: azken urteotan itzalak soiñari darraikion lez, nire gogoa zugana irrikan joana da. Nire maitasunak ez dau betetasunik lortuko, zu Undaitz'eko etxekoandrea biurtu arte. Besarkatu nagizu, Oiane.

Alkar besarkatu eben, eta azken musu luzea alkarri emonda, bideari ekin eutsan Yanoz'ek biotza taupada zorotan ebilkiola. Begi andi eder gozoai malkoak eriezala, leku berean irauten eban Oiane'k, mutillaren irudi lerdena bide-okergune baten atzetik ostendu arte. Gero, egunen baten alkartuko litzakezala itxaropenaz adoretuta, neskatilla zoragarria etxera biurtu zan.

Eguberdian bazkaltzeko geldiune bat egiñik, arratsaldeak gabari bide egiten eutsala, Olabarieta'ko basoan aurkitu zan Yanoz, eta bidezorroa lurean lagata, sua piztu, eta onen ondoko orbel-meta baten gaiñean, pagoen artetik dizdiraka ikusten ziran izarrai begira, etzanda jarri zan. Baso aretan bertan ezagutu izan eban Oiane zenbait urte lenago, Gerin'ek Konte Baltza'ren seme nagusiak atxillo ebala, eta bere atsegiñerako Akitani'ra eroateko asmotan zala. Jaungoikoak bere bidean ipiñi izan eban Oiane zoragarria, egunen baten bere emaztea billakatu zeiten.

Luzaro iraun eban Yanoz'ek izarrai begira lo egin eziñik. Noizbait, Oiane'ren begi argitsuak gogora etorkiozala, lo geratu zan basoko gentzak inguraturik. Txoriek iratzarri eben eguzkia zugaitzen adaburuetatik jagiten zanean. Mokau batzuk iruntsita, bideari ekin eutsan barrero, arratsalde berean osaba Imoz'en arpera eltzeko asmotan. Berrogei kilometro inguruko ibilte, aurrean zetzakion, baiña bidari gain-gaiñekoa izanik, arlo erraza berarentzat. Egun berotsua zan udalენari egokionez, eta ondo ezagutzen eban bidegiteari emon eutsan.

Eguberdiko, Apurra erreka'ren iturburura iritxi zan, eta ementxe bazkalduta gero, azken bide-zatiari ekin eutsan. Noizbait, Mendibeltz'eko tontorra saiets batean itzita, Irati ibaia agertu yakon. Ezin egikean biotzaren pilpira zoroa menperatu, ain maite ebazan ur garbi, garden, eresintsuak ezagutzean, eta ertzean aozpezturik, laztanen antzekoak ziran txurrut batzuk artu ebazan. Gero, jabetzen eban urduritasuna menperatu eziñik, esku-arra baizen ondo ezagutzen eban barruti aretatik, urrats ariñez osaba Imoz'en egoitzara abiatu zan.

Arpe-aurreko zelaira eldu zaneko, ortzi oztin gardenpean eguzkia Orreaga'ko mendietarantz makurtzen zan. Leizearen aurrean zirrara esan-eziñak artuta, une batez zer egin ez ekiala geratu zan Yanoz... Aitak aginduriko eginkizuna beteta, barrero be etxean egoan, eta menperatu ezin egikean poztasunezko zauskada batek eztarria elbarritzen eutsan. Beti lez, sarrerako uztaitik osabaren ezpatea dingilizka ikusi zeitekean. Amabost illabete igaro izan ziran leku maite a itzi ebanetik, eta dana bardin egoan aurreguna izan bai'litzan. Ezpanak dardarikatzen yakozala, dei egin eban,

–Osaba Imoz, Osaba Imoz...!

Oiu onein oiartzunak atxez-atx oraindiño itzungi barik, leizeko sarreran eremulariaren irudi argal, lerdena, agertu zan, eta besoak zabalik lobeagana oldartu zan, auxe iñotsala:

–Yanoz, neure maitia, zein luzaro zure begira...!

Alkar estu-estu besarkatu eben, eta gero zeozer aldunduta, Imoz'ek lobeari begiratu eutsan. Zorion utsaz eremulariari malkoak aurpegian beera eriozan Yanoz bein eta barrero begizatzean. Noizbait, mintzoa irabazirik,

–Yanoz, Yanoz –esan eutsan–, mutil ederra ta indartsua aldegin zenduan orain amabost illabete, baiña gaur are ederrago ta sendoago ikusten zaitut. Esaidazu, mutil, aitaren agindua bete al-dozu...?

–Bai, osaba Imoz, oso-osorik bete egin dot.

Ingurura begiratu eban eremulariak, eta zeozer uts-emonik,

–Aizu, Yanoz, non da Txartxa...?

Malkoz lañotu yakozan begiak Yanoz'eri, eta mintzo urratuaz,

–Osaba Imoz, –esan eutsan–, ez da iñoiz bihurtuko. Zuberoko'ko ganetxu baten, nire alde bizitzea galdu eban. An bertan datza arlasta baten pean obiratuta... Nire lagunik onena galdu egin dot osaba Imoz, iñoiz izango ez dodan baizen zintzoa...

–Yanoz, joan zintzazanetik, gau ta egun amaika otoitz egiña nozu zure alde, onik bihurtu zeitezan, eta neurri baten Jaungoikoak jaramon egin daust onik ekarri zaitualako. Mundu onetan, baiña, zorion bete-beterik ezin daiteke aurkitu...

Isildu ziran biok une batez, eta gero osabak,

–Aizu Yanoz –irautsi eutsan–, ikusi al-dozu Jauregizar'ko Oiane zoragarria...?

–Bai, osaba, betiko aingerua da, eta etenbarik biotza ta gogoa aregan jarrita dodaz. Alkar berbatua gagoz, eta Undaitz'eko gazteluaz jabetu naitenean, nire emazte bihurtuko dot. Au nire poza, osaba...!

–Berak zoriontsu egingo zaitu, Yanoz. A lako emazte bat aberastasun neurri-eziña da, eta Jaungoikoari beti-beti eskerrak emon bear izango dautsazuz.

–Bai, osaba. Berak ipiñi eustan bidean.

–Orain, Yanoz maite ori, jesarri gaitez an jausiriko enbor orretan, eta zure gorabeerak joan zintzazanetik ona esango daustazuz.

Jesarri ziran osaba-lobak, eta arrats-beera baketsuan eguzkiak Auñamendi'ko tontor garaiak margo yaukalez edertzen ebazala, bere gora-beeren edeskiari ekin eutsan Yanoz'ek. Illuntze gorri ta sargoritsu aretan, mutillak urten zanetik bihurtu arte izandako jazoerak iradu barik edestu eutsazan osaba Imoz'eri. Onak lilluratuta lez entzuten eban, noizean bein zeatzen bat argitzearren eten egiten eutsala. Bitartean, ozkorriak ederturiko odei zemaikor lodiak agertu ziran Ortanzurieta mendi-gaiñean, baiña Yanoz'ek edestiari eten egin barik jarraitzen eutsan, osaba Imoz aren ezpanetatik dilindan egoala.

Eta eguna gorrimiñezko irazekian il zanean, eta Auñamendi gaiñeko izarrak iñoizkorik yaukalen argi-dardarretan pagoen adaburuak laztantzen ebezala, Yanoz'ek edeskiari jarraitzen eutsan, Orreaga'ko mendietan ekaitz baten iñusturiak nonai edatzen zirala. Udako gau aretako sargoriak eraginda osaba-lobak izerdi-basatan egozan, baiña Imoz'ek ez eban gura ezelan be, Yanoz'ek edeskiari eten egitsan, eta geldiu-

ren baten sortzen zanean, aurrera zirikatzen eban. Noizbait, gau-miña atzean geraturik, eta ekaitzak ezker-eskuman ler egiten ebal, Yanoz'ek edeskiari amaia emon eutsan. Isillune luzea sortu zan, eta gero, osaba Imoz'ek gabaren sorgindurea autsirik,

–Zudugarriak izan dira, Yanoz maite ori, jasan dozuzan gora-beerak. Ain zuzen be, zure alde otoi egin dot ordu luzeetan zear eta badirudi alperrik ez dala izan. Zeu lako loba bat izateak arrotasunez beteten nau. Euskaldunen aipu ona gorengo mailletan ipiñi dozu, eta zure ikerpenak Naparra'ra ekarriko dautsan onurea neurribakoa izango da.

Beste isillune bat sortu zan, zelaian eta leize-sarreran trumoi durundutsuekin batean, iñusturiek dizdir iratxokarak marrazten ebezala. Ekaitzaren erakarpenaz menperaturiko osaba-lobak isillik zirauen, bakotxa bere gogoetan murgildurik. Alako baten, Yanoz'ek,

–Aizu, osaba Imoz –esan eutsan–, zein luzaro bizi izan zara emen eremulari...?

–Ogei ta zortzi urte, gitxi gora beera.

–Eta ez al-dozu naikorik ordaindu egiñiko pekatua...? Ogei ta zortzi urtez emen bakarrik, basabereen antzera bizi izaten, sustrai ta onen antzeko landaretzaz janarituz. Izan be, osaba Imoz, zorotasunezko unetxu baten egiñikoaren ordaiñez, larregi deritxat.

–Ez da olan, Yanoz. Lagun bateri bizitza kendu neutsan, eta ez da ezerk bizitza bat erosi dagikenik, eta are gitxiago lagun batena.

–Noiz arte jarraituko dozu emen, osaba Imoz...?

–Jaungoikoak gura dagian arte. Gaur, biar, ala iñoiz ez... batek-badaki...!

Une aretan durundu izugarriak jarraituriko, iñusturi batek ler egin eban, argi biziaz dana agertzen zala. Yanoz'ek gero,

–Osaba Imoz, zergaitik ez zara Iratxe'ra biurtzen, Abateari esateko ogei ta zortzi urteok igarorik, barkatu dagitsula...? Jaungoikoaren izenean bera bada nor pekatuak barkatzeko, eta zeuk bein esan zeustanez, mundu onetan ez da pekatuak Jaungoikoak barkatu ez dagianik.

–Begira, Yanoz: Munio'k, Iratxe'ko Abateak, Jaungoikoaren barkapena jarritsi arte lekaro baten eremulari izan neiten, ordaintzat jarri eustan. Eta nik zelan jakingo neuken barkatua nintzala, itaundu neustanean, ezaugarri bat etorriko litzakidala esan eustan. Augaitik ba, zantzu ori agertu arte emen jarraituko dot. Otoitzaren bidez Jaungoikoarekin gero ta alkartuago sentitzen naz, eta Bere barkapenak inguratzen naua oartzen dot...

Une aretan bertan, durunda izugarriaz lagunduta leize-aurrean iñusturi itsugarri batek ler egin eban, amaika oiartzunetan Abodi ta Ori artean luzatzen zala. Izu bakanak jota, Osaba Imoz lurrean aozpeztu zan didar bizitan auxe iñoala:

–Jaungoikoaren asarrea da...! Erruki zakidaz, Jauna, baiña Zure naia nire bizitzaz ordaindu dagidala ba'litz, gerturik nozu, bidezkoa da-ta...!

Beste iñusturi batek gabaren errezela urratu eban. Une aretan begiak sarrerako uztaietan untzatuta, Yanoz biotz-ikara batek artuta egoan. Sarrerako atadi-zubian, ogei

ta zortzi urtez eskegita irauin izan eban Imoz'en ezpatea ostendua zan... Didar bizitan osaba Imoz'egana oldartu zan, eta lur-gaiñetik jasoten ebala,

–Zantzua, zantzua, osaba Imoz...! –oiu egin eutsan–, begira, zure ezpatea ostendu egin da, begira sarrerako goikaldera...!

Begiak zabal-zabalik eta aurpegiaren zurbiltasunak mamu baten itxurea emotsala, urruntzen asten ziran iñusturiaren argipean, eremulariak ezin egikeazan uztairik begiak kendu. Gero, belauniko ibilliz urreratu zan, eta iñusturiak urturiko burdiñezko ezpata-ondakiñaren aurrean makurturik, mosu luzea emon eutsan, eta gero didarretan,

–Ezpata iltzaillea garbitu izan da, eta nire oben larria Jaunak barkatu egin daust...! Bedeinkatua bedi zeru-lurren Egillea, nire zitalkeriaz errukituta, jaregin naualako...!

Eta aurpegi zimelean beera malkoak otzan-otzan eriozala, bein eta barrero ezpatearen ondakiñak mosukatzen ebazan. Yanoz'ek beso indartsuetan osabearen soin makala jaso, eta arpe-barrura eroan eban, oiko aulkitxoan jesarri zeiten. Gero, indarren mugetan egoala oarturik, auzten esne beroa edan-erazo, auxe zirautsala:

–Oeratu gaitez osaba Imoz, biok atsedean luzea bear dogu-ta. Nik, egiñiko bide luzeagaitik, eta zuk jasandako zarrastadagaitik. Biar arte, Jaungoikoak lagun...!

Biok etzan ziran, eta andik laster mutillaren arnas neurtua, atsedengarria, aditu zeitekean. Osaba Imoz lo-egiten saiatu zan, baiña alperrik, loak iges egiten eutsan. Noizbait, arpeko sarreran belauniko, ezpatearen ondakiñen aurrean, otoi gartsuari emon eutsan, mara-mara jausten zan euriari jaramonik egiteke.

Yanoz'ek urrengo eguberdirarte lotan irauin eban. Itxartu zanean, osaba Imoz'ek bazkaria atontzen ziarduala ikusi eban, eta,

–Egunon, osaba Imoz –esan eutsan.

–Baita zeuri be, Yanoz.

–Zertan diarduzu or, osaba...?

–Bedarrezko sukua atontzen nabiltzu.

–Orren ostean, bide-zorroan ekarri dodazan janarietatik, urdazpiko zati gozo bana jango dogu. Zure itxuratik urdazpikoa zer dan aztu egin yatzula, baietz egingo neuke...!

Osaba Imoz'ek irribarre egin eutsan. Bazkalduta gero,

–Aizu, osaba Imoz –galde egin eutsan mutillak–, orain jarei billakatu zaran ezker, zeintzuk dira zure asmoak...?

–Gau guztian otoitz eta gogoetan irauin dot, eta noizbait, egunsentian nire eginkizuna argi ikusi dot. Berrogei ta amabost urte atzean itzi dodaz... Iratxe'ra joango naz, Munio Abataren aurrean belaunikatuta, gertaturikoa esateko. Eskatuko dausat, nire obenetik jareginda, Iratxe'n lekaidetzat onartu nagiala, oraindiño bizi izango nagan bizitzaren azken zatian, Jaungoikoari ta lagun-urkoari bete-betean emoteko. Egunen baten Zeruko Ogia sagartzeko gai izango al naz...!

–Ziur nagotzu, lortuko dozula, osaba Imoz. Noiz abiatuko zara Iratxe'ra...?

–Biar bertan. Eta zu...?

–Neu be, asmo orretan nozu. Ordua da aitaren gazteluaz jabetu naiten. Undaitz'eri buruz, entzun ete dozu zeozer azken aldiotan...?

–Ez, Yanoz. Badakizu emen baztertua beti bizi izan nazala, baiña on izango litzakizu, ara baiña len, Aezkoa ta Erro ibarretan argibideak artzea. Amaika urte badira zure etxea itzi zenduanetik, eta epe luze orretan gauza asko jazo izan leitekez.

–Aita il zanean, eta konte Baltza'ren akitanierrek Undaitz itzi ebenean, etzeko gudariak Fortun zaldunaren agintzapean Muskaria ta Errioxa'ko mugetan mairuen aurka burrukan egiten eben. Onezkero, urteak izango dira gaztelura biurtuko zirala.

–Aizu, Yanoz, zelakoa zan Fortun dalako buruzagia...?

–Gomutan dot aren irudi garai ta indartsua. Guda-arazoetan aitaren ordezkaria, eta bere uste osokoa zan. Aitak benetan ederresten eban, eta basurde arek zauritu ebanean, etxean geratu bear izanik, Fortun Undaitz'eko gudarien burutzat Muskaria'ra jgorri eban. Sarri askotan entzuna dot ezpatari ona ta gezilari apartekoa zala, eta aita izan ezik, ez egoala arekin neurtu zeitekeanik. Gezi-jaurtiketan Fortun maisu izan neban, eta esan dagikezut, a baiña gezilari obarik ez dodala egundo be ezagutu.

–Ederto, Yanoz. Olan izatekotan, zure gazteluaren jabetasuna artzeko ez dozu eragozpen andirik izango. Biar goizean urteteko, egin dagiguzan bearrezko abiame-nak.

Arratsalde aretan, osaba Imoz'ek janzkia ta oiñetakoak bidairako atontzen ebazala, Yanoz eizaketara urten zan, bion bidezorroak eizakiaz beteteko. Ekintza onetatik biurtu zanean, arrapagaiak narrututa, erre ebazan, eta gero apalostean azken otoitzak esanik, zauskada bizipean etorteko ziran jazoerak buruan erabillezala, lo geratu ziran. Ames egin eban Yanoz'ek, Undaitz'eko gorengo almenetik, mendiek eta Urrobi ibaiak mugaturiko bere zaintzapean egozan Aezkoa ta Erro'ko ibar ederrak begiztazten ebazala. Gazteluaz jabetuta gero, Naparra'ren onerako bere aitak aipaturiko errege bat nagusien artean izendatu bear izango leukie. Bizi izango litzake artean, bere aitaren laguna izaniko Eneko Aritza zaldun zuur eta indartsua...? Izan be, Akitani'ko Dukeari egiñiko ikertaldiaren ostean, napartarrentzat aspaldi luze batez gauzak beste itxurapean aurkeztuko ziran, eta iparreko mugak baketuta, ezin ereti egokiagorik Auñamendi'tik Ebro'raiño erreñua sortzeko.

Goiz ederra zan osaba-lobak Irati'ko leizea betirako itzi ebenean. Isillik joiazan bakotxa bere gogoetan murgilduta. Atzean, garbai ta otoitzean emoniko ogei ta zortzi urte izten ebazan eremulariak, bakea ta barkapena jaritsi izan ebazan aspaldi luzeluzea, mundutik gero ta urrutiago, Jaungoikoagana, ostera, egunik-egun urreratzen zala. Ogei ta zortzi urte aztu-eziñak, iñorekin arremonik izan bage, lobearekin igarotako amar urteak izan ezik. Irati'ko oian bardinbakoa atzean geratzen zan, baiña itxaropen batek iñoizkorik zorionsuen egiten eban, eta auxe alegia: Iratxe'ra lekaidetzat sartu, eta oiko ikasketak eginda gero, egunen baten mezakotuta, Jauna bere eskuetan sagaratu aal izatea. Sentipen onek iñoiz ez ezagaturiko poztasuna ekarkion, eta bidean beera Aezkoa'rantz joiala, Jaungoiko errukitsuari eskertzen eutsan.

Yanoz be, amesetan joian bere arbasoen egoitzara, Oiane'gandik bere maitasunezko oldozkunak kendu eziñik. Bitartean, bere egitasmoa taiutu aurretik, Oroz-Betelu'n bizi izaten zan iñude Amañe ikertuko leuke, eta arazoa berak uste izaten eban baizen ondo aurkeztuko ba'litz, Undaitz'era mezulari bat igorriko leuke, Yanoz, gazteluko nagusia, etxerako bidean zala iragarteko.

Pozgarria zan, izan be, udako goiz aretan basoko tantaiek inguraturiko, millaka urtetan orbelak sorturiko lur-baltz biguneko zidorretatik ibiltea, zeru oztin gardenpean amaika usain gozo ta eresien artean. Eguberdian zelaigune baten geldialdi laburra egiñik bazkaldu eben, eta jarraian, iradu barik ibaian beera abiatu ziran. Gaba, baso betean igaro eben, izarrek eta kilkerrek urrumaturik.

Egunsentian bidegiteari jarraitu eutsoen, eta eguberdia zala, Oroz-Betelu'ko etxolak eskumatara agertu ziran. Bide-gurutzean osaba Imoz gelditu, eta,

–Yanoz maitia –zauskadapean esan eutsan–, gure bideak ementxe banatzen dira. Artuizu eskumako bidea, eta iñude Amañe ikusiko dozu. Nik, ostera, bide nagusiari jarraituko dausat, eta Aoiz'en zear Gares'era joango naz, eta emendik, Lizarra ondolan dagoan Aiegi'ko Iratxe'ra. Emoidazu besarkada andi bat, Yanoz. Nire egunoroko otoitzetan, leku bereizia izango dozu. Undaitz'eko jabetasuna lortu dagizunean, jarraitu zure aitaren ereduari. Napartar zaldun giristiño bateri dagokion bide zuzen eta duiñaren zear, zure menpekoak babestuz eta onein on-izateari begiratuz. Ondo ezagutzen zaitut, eta badakit Iroz'en, zure aitaren ildoari jarraituko dautsazula. Eta orain agur, Jaungoikoak barriro alkartu gagizan arte.

Estu-estu alkar besarkatu eben, eta eztarrian korapillo bat, eta begiai malkoak eriezala,

–Agur, Yanoz, nire loba maitia.

–Agur, osaba Imoz, gogoan beti izango zaitut.

Eta besterik esateko gai ez zirala, bakotxa bere bidetik abiatu zan. Andik laster, aldi aretan amabost etxeko baserri txikia zan Oroz-Betelu'ra elduta, arribillez egindako kale estuetan zear, goikaldean egoan iñudearen etxera eldu zan. Erdiaroko etxe geienak lez, Amañe'ren egoitza latazko teillatu aldapatsuz buruturiko, arrizko ta olezkoa zan. Sutondoan egoan emakumea, jagi, eta,

–Nor da or...? –itaundu eban begimena zorrozotuz.

–Iñude Amañe, ez al-nozu ezagutzen...?

–Yanoz, nire maitia... bedeinkatua bedi Jaungoikoa noizbait ekarri zaitualako...!

Eta mutillegana oldartuta, bere bularreko kutuna besarkatu eban, bein eta barriro auxe iñotsala:

–Yanoz, nire mutilla, zein luzaro zugandik ezer jakin barik...! Mutilla joan, eta gizon egiña biurtu zara. Ez nekian bizirik irauten ete zenduan. Azkenengoz ikusi zindudazanetik, banan-banan urteak zenbatu dodaz... Amaika urte luze igaro dira. Orain ogei ta sei urteko izango zara, ezta...?

–Bai, Amañe, olantxe da.

Amañe zintzoak ezin egikeazan ugaseme kutunagandik begiak kendu, eta onen irudi txairoa ta aurpegi atsegiña bein eta barriro begiztatuz, auxe esan eutsan:

–Izan be, Yanoz, Naparra osoan ez da mutillik zurekin kidedu daitekenik.

–Amañe, zuk burua lengo lepotik –irribarrez erantzun eutsan gazteak–, zure Yanoztxu lakorik iñon ez.

–Zatoz sutondora, eta bereala zeozer bazkaltzeko atonduko dautsut.

–Ez zaitetz larritu, iñude Amañe. Bide-zorroan erbi baten errekia dakart, eta auxe jango dogu. Berotu egizu esne pixka bat, besterik ez dot bear-eta.

Au esanik, sutondoan jesarri zan. Garai aretan erabilli oi zanez, sukalde-erdian kokatuta egoan, eta arrizko lau zutoinen gainean bustin bereiziko su-burua ikusten zan. Sorua arlasta zabalez estalia zan. Albo baten lo-gela bi egozan, baita korta txiki bat auntsak gordeteko.

Amañe'k larazetik esne-maskilloa eskegi eban, eta pago-egurrezko sua auspoz bizkortzen ebala,

–Aizu, Amañe –itaundu eutsan Yanoz'ek–, non da Batix...?

–Ai ene...! Igaz il yatan geiso-aldi luzearen ostean... Egunoro zutzaz mintzatzen gintzazan il zan arte.

–Eta nire iru bular neba-arrebak...?

–Aizune nire alabea, Iruña'ko andiki batenean neskame dago. Seme nagusia Abaurre-goikoan egurlari, eta txikiena Jaurrieta'n dot beitzain. Aizune ta seme nagusia laster ezkonduko dira. Orain, Yanoz, kontau egistazuz jazoriko gora-beerak joan zintzazanetik ona.

Bazkaloste aretan, iradu barik Yanoz'ek gaingiroki bere gora-beerak edestu eu-

tsazan. Olan eta guzti be, illunabarra zan jadanik, edeskia amaitu ebanean. Bitarte onetan, Amañe'k mutillari adi-adi entzun eutsan, bere kutunagandik begiak kendu eziñik. Edeskia amaituta,

–Yanoz –esan eutsan–, gertaera itzelak eta sinisteziñak jasan dozuz, eta jendeak ezagutu dagiazanean, neuk lez gizurentzat artuko zaitue. Euskalerra'ren izena goratu dozu benetan... Nork esango nire altzoan zindudazanean, orren ospetsua billakatuko zintzakezanik... Inguruko jendeak jakin dagianean...

–Mesedez, iñude Amañe, ez iñori esan biurtu nazanik, gaztelura biurtu arte beintzat. Orduan napartarrek jakingo dabe Akitani'rekin egiñiko bakezko ituna, eta aurrerantzean Naparra'ren onerako zein bidetik joan.

Isillune bat egin zan, eta gero Amañe'k itxura kezkatiz,

–Yanoz –esan eutsan–, ez zaitetz arindu Undaitz'era joateko.

–Zer ba...?

–Begira, nire kutun ori... Etxe onetan baztertua bizi naz, nire Batix il egin zaneetik batez be, baiña olan eta guzti be, zeozer beti entzuten da. Ez dakit, baiña zurrumurruak etorri yataz, eta...

–Zelako zurrumurruak...?

–Ara... urtebete bat-edo bada Fortun egoko mugatik biurtu dala, eta...

–Zer, Amañe....?

–Iroz, Undaitz'eko nagusia il zanez, eta aren seme Yanoz danek iltzat dauken ezkerro, ba... Fortun Undaitz'eko gazteluaz jabetu da, len lez Erro ta Aezkoa'ko barrutiak bere zaintzapean artuta. Badakizu, Yanoz, ezjakiña nazala, eta arazo ori zertan dagoan benetan, ez dakit zeatz-zeatz...

Isildu zan Amañe une batez, eta orduan Yanoz'ek,

–Iñude Amañe –agindu eutsan–, arren eta arren, esan egistazu dana, arazo ori niretzat beñena da-ta.

–Ez dakit gauza andirik, baiña Aezkoa'ko jendea ez dago pozik. Badirudi Fortun nagusi gogorra billakatu dala artzain eta beitzaiñak zakar erabilliz, eta onezaz gaiñera, zergak anditu dauzala, baita lurginien amarrenak be. Eta bitartean, guztitariko esamesak nonai bala-bala dabiltz, batzuk gazteluaz aldirako jabetu dala, au da, Yanoz biurtu arte. Beste zenbaitek, ordea, Iroz'en semea il dala ziurtzat emonik, Auñamendi'ko nagusiek, mairu ta gaztelarren aurka buruturiko ekintzen saritzat, Undaitz'eko gazteluaz jabetzeko eskubidea emon dautsoela... Ez dakit, Yanoz, baiña kontuz ibilli...!

Une batez oldozkor geratu zan mutilla, eta gero berekautan lez auxe esan eban,

–Labia mendi-katean eskorta dauan Igun nire aitaren artzain zintzoari ikustera joango natzaio, eta...!

–Alperrik dozu ori, Yanoz –cten egin eutsan Amañe'k–, Igun ez da onezkero Labia'ko artzañia. Orain sei illabete-edo, emendik igaro zan Bizkarreta'rako bidean, an bizi izaten dan arreba baten etxera. Igun zintzoak asko daki Fortun'eri buruz, eta bera

baño zerbitzari obarik, iñon ez. Zutaz mintzatu gintzazan, eta irrika bizian zure biur-
tzearen zain dago, buruan orixe baño ez daua. Artzain orren zukanako maitasuna...!

–Gomutan dot Igun artzaiña, nirekin baizan aita il zanean. Maite izan eban aitak
beti, beste zerbitzariak baño areago. Biar bertan joango natzaio.

–Bai, Yanoz, iñor ez bera baizen zintzoa.

Urrengo goizean Yanoz jagi zanean, Amañe'k sutondoan gosaria atontzen ziar-
duan, eta bereala, esne ta zekale-uruz aia gozoa eskiñi eutsan. Gogoz gosaldueban
mutillak, eta bide-zorroa lepoaren gainean, ezpatea ta uztai-geziak artuta, abiatzeko
gertatu zan. Maitasun amatarrak Amañe'k besarkatu eban auxe zirautsala:

–Yanoz, nire mutilla, irurogei urtekoa naz, eta ezueriaz jota izanez gainera, begi-
mena zearo moteldu yat. Emen beti izango nozu zure begira. Etorriko al-zara noiz
edo noiz, ain maite zaituan zure iñude Amañe ikustera...?

–Ez, iñude Amañe, ez naz etorriko, bearrezko ez da izango-ta. Gazteluaz jabetu
naitenean, Undaitz'era betirako bizi izatera etorriko zaiataz. An ez dozu ezetariko
lanik egingo, eta nire ugatzama zintzo-zintzoak merezi dauan lez, guztien begirunez
inguraturik, azken urteak emongo dozuz.

–Yanoz, nire maitea, Jaungoikoak gorde zagizala...!

Malkoak aurpegian beera eriozala atzean geratu zan Amañe, Yanoz'en irudi txai-
roagandik begiak kendu eziñik.

Uda-miñeko egun argi ta berotsua zan Yanoz Bizkarreta'rako bidetik abiatu
zanean. Ogei bat kilometroko bidaia ibilli bear izango leuke, baiña luzea ez bazan be,
leku makur eta malkarretatik edatzen zan, eta gainera, eguraldi sargoritsua izanik,
bidegitea zailla zan. Irati ibaiko ibarra itzita, Elkiz mendiko iparreko bizkarretarantz
abiatu zan. Ondo ezagutzen ebazan Yanoz'ek barruti aretako bide ta zidorrak, muti-
koa zanean sarri askotan eizaketan jardun izan ebalako, eta baekian otadi ta txapar
naasietatik ibilli bear izango leukela. Eguberdian geldiene bat egin eban bazkaltzeko,
eta eguzkiari izpi kiskalgarriak eriozan ezker, atx baten gerizpean ordubete bi emon
ebazan. Gero, bideari jarraitu eutsan, eta noizbait Urrobi erreka zearkaturik, illunabar
orduko Bizkarreta'ra iritxi zan.

Itaundu eban Igun'en arrebeari buruz, eta erriko bazter baten zetzan etxola batera
bialdu eben. Etxe txikia zan, Amañe'rena lakoa baiña ortu txiki batek inguratuta.
Senar-emazteak zirudien bikote bat, illuntzeko ozkirria gozatzearren nonbait, ate-
ondoan ikusi eban.

–Igun artzaiña, emen al-da...? –itaundu eutsen Yanoz'ek–.

–Bai, barruan da. Sartu zaitez –esan eutsan emakumeak, jakin-guraz begira-
tzen eutsala, zeozer ezagun-antzekoa mutillegan igarririk.

Yanoz sartu zan, eta sukaldeko txoko baten otzarak egiten ziarduala, gizon bat
egoan. Bereala ezagutu eban bere aitaren artzaiña, eta urteek beragan itzitako aztar-
nak agiri baziran be, oraindiño txairo ta bizkor zirauan. Mutilla urreratu yakon, eta
mintzo gozoaz,

–Igun, ezagutzen al-nozu...?

Abots maitea entzutean, ezusteko indarrak eraginda, artzaiña jagi zan, eta mal-
koai eutsi eziñik, belaunikatuta mutillaren eskua musukatu nai izan eban, abots kolo-
kaz auxe iñoala:

–Yanoz, nire Jauna, bazakust noizbait... au zoriona...!

Mutillak, baiña, Undaitz'eko artzaiñaganako maitasun biziak eraginda, lurretik
jagi-erazo, eta besarkada andia emotsala,

–Igun –esan eutsan–, nire aita zanaren artzain eta zerbitzari zintzo orrek, besar-
katu nagizu adiskide-antzer. Ez nagizu erabilli morroiek ugazabak oi dabezan lez.

Artzaiñari malkoak eriozan mara-mara, onein artean Yanoz'en aurpegi maitia
begizatzen ebala nekatu barik.

–Txukatu egizuz negar-anguluok, Igun –esan eutsan mutillak–, gaurkoa ez da
negar egiteko eretia.

–Oi, Yanoz nire mutilla, zorionezko negarra da. Urteak joan urteak etorri,
Undaitz'eko nire nagusia noiz etorriko igurikan beti... Eta noizbait, zu ikusteko itxa-
ropena galtzen asten nebanean, orra or agertzen zaiatazala gizon biurtuta, eta zelakoa
gainera...! Ez da Naparra osoan zurekin kide du daitekenik. Bai, zure aita baizen eder
eta indartsua edo areago, esango neuke... Baiña esan, zelan eldu zara nigana...?

–Gaztelura joan aurretik, atzo Oroz-Betelu'n iñude Amañe ikertu neban, eta
onek gauzak zeozer okertu dirala ta zugana joatea esondatu eustan. Orregaitik emen
nozu.

–Arazoak okertu egin dira, Yanoz, eta ez gitxi. Geroago, iradu barik gauzak
azalduko dautsudaz, eta jakiñaren gainean ipiñita gero, zerorrek erabagiko dozu zer
egin, eta bai neu bai beste asko be zure esanetara jarriko gaiatzuz.

Orduan bertan, Igun'en arrebea ta onen senarra sartu ziran. Artzaiñak alkarren
aurkezpenak egin ebazanean, Engartze eritxan arrebeak,

–Yanoz ikusi baño ez –esan eban–, andiki bat zala begitandu yat, eta Un-
daitz'eko leiñukoa, ain zuzen be.

–Gauza bat eskatuko dautsuet –esan eutsen Yanoz'ek–; iñori ez esateko biurtu
nazala, nire garaia eldu arte, beintzat.

–Olan egingo dogu, Jauna –ziurtatu eutsoen senar-emazteek–, eta gugandik
iñork ez dau ezertxo be jakingo. Ez dot esan bear –Engartze'k eratsi eban–, etxe one-
tan pozik artuko zaitugula nai dozun arte, Jauna. Orain ariari ekingo dautsagu.

Mai-ondoan jesarri ziran, eta lapikoko gozoa apaldu eben, maiazkentzat sagar
eta intxaurrak izanik. Agiri zan, aberatsak ez baziran be, etxe aretan naikoa nasai bizi
izaten zala. Apalostean oiko lan batzuk egiñik, senar-emazteak lo-gelara joanda,
Yanoz eta Igun bakarrik geratu ziranean, jakin-gurak eraginda, Yanoz'ek,

–Aizu, Igun –agindu eutsan–, orain astiro baiña zeatz bat bera be aztu barik,
esan egistazu dana.

Asi aurretik, Igun bere baitan bildu zan, eta gero onetaraxe asi zan:

–Ara ba, Jauna... Oroituko zara, urrean, zure aita mairuen eta gaztelarren aurka joan eziñik etxean geratu izan zala, basurde batek zauritua billakatu izan zalako. Ez zan kalte andiko makurrik izan, baiña burrukarako eragozpena izanik, etxean geratu bear izan eban.

–Gomutan dot ori, Igun.

–Orduan, Eneko Aritza'gandiko mezu bat eldu yakon, zure aita berarekin Lizarra'n alkartu zeiten, egorantz abiatzeko asmoz. Zure aitak, eskaturiko gudariak igortea erabagi eban, eta izan be, Fortun'en agintzapean. Baziran urteak Undaitz'era etorria zala, eta...

–Aizu, Igun –eten egin eutsan gazteak–, nongoa zan, eta zelan egoan etxean dalako Fortun ori...?

–Eugi aldekoa zan, eta ezagun batek esondatuta, gazteluan azaldu zan. Gure nagusiak artzaintzan jardun egian erabagi eban, baiña Undaitz'eko gudari zaar batek, etorri-barriaren itxura indartsua ta jasa ikusirik, burrukan egiteko egokia izango litzakela esan eutsan ugazabari. Olan ba, urte pare bat eskutarizat emonda, noizbait benetako gudaria billakatu zan.

Isildu zan une batez Igun, gomutak taiutzeko, urrean, eta gero,

–Gudari ona azaldu zan Fortun, eta andik urtebete batzutara, Undaitz'eko buruzagi bat billakatu zan. Aldi aretan, gazteluko gudarostea eun bat gizonezkoa zan, ogei ta bosnako lau taldetan eratu. Aldiaren joanean zure aitaren uste ona irabazi eban, eta zu amabi urteko mutikoa zintzazanean, iskilloen irakaskintza artzeko garaia izanik, irakasletzat Fortun izendatu eutsun, eta beronek gezi-jaurtiketearen lenengo ikasketak emon eutsuan.

–Bai, Igun, gomutan dot nire lenengo kitaldiak. Jaurtilari indartsu ta trebea zan, eta aren zuzendaritzapean, andik urtebete batzutara, gezi-jaurtiketea zearo menperatu neban. Bera baizen gezilari yaiorik ez dot egundo be ezagutu. Jarraitu, Igun.

–Bein baten, amabost urteko mutikoa zintzazanean, zure aitari esan eutsan gezi-arloan dana zenekiala, eta beste iskillorabiltea ikasi bear izango zendukela. Aldi aretan inguru, Eneko Aritza'ren deia etorri zan, eta zure aitak joaterik ez eban ezker, Undaitz'eko guda-taldea Fortun'en agintzapean Lizarra'ra igorri eban, bera gudari banaka batzuekin gazteluan geratzen zala, osatuta gero egoko mugara joateko asotan.

Zure aita gizon gitxi batzuekin gazteluan geratu izan zala, Ganix eta Gurbix anaien saldukeria ustiatuz, Konte Baltza'k gazteluari eraso, eta zure aita atxillo egin eban, ondo dakizunez. Arrezkeroko gora-beerak ni baizen ondo edo obeto badakizuz.

–Bai, izugarria izan zan orduan jazo zana... Gero, nire aita ilda, bere agintza betetearren Irati'ko oianean eremulari egoan osaba Imoz'egana joan nintzakion. Baiña zer gertatu zan orduan gazteluan...?

–Andik laster, Konte Baltza bere gudariekin Akitani'ra biurtu zan, eta Undaitz'en geraturiko gitxiok gaztelua ta onen lurrak zaintzen aalegindu gintzazan, egunen baten,

zu, Iroz'en semea etorriko zintzakezan egunaren begira. Ordutik urte bi igarorik, Fortun gudariekin biurtu, eta jazoriko guztiaren jakitun ipiñi neban. Onen ostean, zu itzuli arte gazteluaren zaintza bere ardurapean artuko leukela erabagi eban Fortun'ek.

Olan ba, urteek alkarri erraikioen gazteluko jendeak eta ingurukoek zure biurpenari itxaroten geutsala. Beste iru bidar joan bear izan eban Fortun'ek Undaitz'eko gudariekin, Naparra'ren aurka etozenari jarkiteko. Orduan gertaturiko guda-ekintzek gero ta aipu geiago emotsoenez, Fortun arro biurtzen asi zan. Etxerako etorrera bate-tik urrengora, beragan aldakuntza andia gertatzen asten zan, bere burua gero ta andia-gotzat eukala.

Orain urtebete ta erdi-edo azkenengoz itzuli zan, eta zugandiko iñongo barririk etorten ez zan ezker, bein betiko zu iltzat emotea bidezkoa zala esan eban, eta nagusibako gazteluaren egoerea kaltegarria zalako atxakiaz, benetako nagusi bat autu bear izango litzakela, lau aizeetara barreiatu eban. Gauzak, baiña, legez egitearren, Erro, Arze ta Aezkoa ibarretan, egokiozan aldarri ta iragarkiak egingo litzakezala, Iroz'en semearen barriak eskatuz, eta illabete biren epean, zure zantzurik ezean, Undaitz'era-ko nagusi barria aukeratu bear izango litzakela. Ondo ekian berak, baita geurok be, epe orretan barririk ez litzakela agertuko.

Bitartean, Fortun'ek ingurumarietako nagusiak palagutan erabilliz eta azpi-lana egiñez ikertu ebazan, eta andik laster illabete biko epea igarorik, albo-barrutietako lau nagusien aolkuz, guda-ekintzak saritzearren, Undaitz'eko gaztelua ta oneri egokiozan lur eta aberastasunak Fortun'eri emotea ebatzi zan.

Ekintza oneri buruz, amaika zurrumuru ta esames sortu dira, eta barruti onetako jenderik zintzoenek zure eriotza egiztatu barik olakorik ezin daitekela egin zabaldu dogu, baiña Fortun'en bildurrez, benetako jarkiterik ez da agertzen...

–Esan, Igun –eten egin eutsan mutillak–, zelan jarduten dau orain Fortun'ek...?

–Nagusi gogor eta errukibakoaren antzera; bere nagusitza zalantzan ipinten doguzan aurka batez be, jardunik ezain eta zantarrenak emoten dauskuezala, eta osterara, bere esanetara beste barik makurtzen diranentzat, onenak izan oi dira.

Orain iru illabete-edo, artzaintzan niarduan eskorta edo sarobera mezulari bat igorri eustan, gaztelura joan neinten aginduaz. Urrengo egunean iskillorareto ederrean abetaldu ninduan, eta niri jaramonik egiteke une luze batez zutunik ninduala, noizbait auxe esan eustan:

–Aizu, Igun, entzumenera eldu yat, zuetariko batzuk nire aurka mormoxetan zabiltzela, ni lapurtzat salatuz. Jakin bear dozue, eta zeuk areago salataririk amorratuentzat zaitudalako, gauzak legez egin dodazala, eta barruti onen inguruko zaldunek Undaitz'eko ugazabatat aukeratu nabela. Ia amabi urte igaro dira, Yanoz, Iroz'en semea ostendu zanetik, eta bitarte luze onetan gazteluko oiñordearen zantzurik ez. Naparra'ren onerako, barruti onek ezin dagike ugazaba barik jarraitu, eta orretarako, inguruko andikiek aukeratu naberen ezker, zugandik bearrezko menpetasuna eskatzen dot.

–Barkatu, Fortun Jauna –erantzun neutsan–, baiña Undaitz'ez jabetu aurretik, Yanoz benetan iltzat ala ez egiztatu bear... eta oindiñokarren olako ziurtasunik ez da agertu.

–Eta ostendu zanetik, iñork jakin barik il ba'da, zer...?

–Iroz il-agiñean zala, mezu bereizi bat Akitani'ra eroateko semeari agindu eutsan. Orretarako, baiña, gizona biurtu ta bearrezko indar eta ezpata-trebetasuna lortu arte, leku ezkutu baten bizi izateko agindu eutsan. Eta onen ezaugarritzat, errubidun ezpatea esku bakar bat az jasoteko gai izan zeitenean, orduan Akitani'ra joateko garaia izango litzakela.

–Ez niri ipuiñik irunsi-erazo, Igun...! Iroz kenduta, ez da iñor esku bakar bat az dalako ezpatea jaso dagikeanik.

–Jauna –esan neutsan–, neuk Iroz'eri eriotz-orduan entzun neutsana baiño ez dautsut esan.

–Lapurtzat nozue, zuen antzeko artzain baten semea jaio nintzalako, eta ezin dagikezue jasan, beste iñor zaldun ospetsu izatera eldu daitela.

Une batez isildu zan Fortun, eta gero,

–Begira, Igun –esan eustan–, nire etxean ez dot zerbitzari etoirik gura. Benetako nagusizat nozu ala ez...?

Au entzutean bildurrak jota nengoan, zelako erantzuna emon ez nekiala, baiña orduantxe gomutara etorri yatan zure aitaren eriotza, baita Undaitz-leiñukoai zor neutsen zintzotasuna be, eta luzarago oldoztu barik,

–Jauna –esan neutsan–, zor dautsudan begirunez esan bear dautsut, Yanoz'en benetako eriotz-albisteak etorri ez dakidazan arte, ezin naitekizula Undaitz'eko nagusizat artu.

Tximista lakoa jagi zan, eta asarre baten, mintzo sumiñaz auxe jaurti eustan atea erakutsirik:

–Kanpora, etoi zantar ori...! Ez zaitut iñoiz ikusi gura, eta Elke mendian Uriz-gaiñeko zelai baten dozun nire artaldearen zaintza lagata, beste iñora joango zara aal dagizun lez ogia irabaztera... Alde emendik betirako...!

Alde egin neban gaztelu maitetik, eta sarobean nire gauzak artuta, ona, Bizkarreta'ra, nire arrega Engartze'gana etorri nintzan, eta etxe onetakoai laguntzearen, gaztaroan ikasi neban saskigintzari emon dausat barriro be.

Edeskia amaitzean, Igun zintzoari malko mingotsak eriozan, eta oneik ikustean, Yanoz urreratu yakon, eta esku bat sorbaldan jarri eutsan auxe iñotsala:

–Zeu lako eskukada lagun zintzo nire alde izanik, dagokidazan eskubideen alde aaleginduko naz. Augaitik, ez dot beste aukerarik auxe baiño: aitaren gaztelua nireganatu, ala il...!

–Bai, Jauna. Ni ta beste batzuk zurekin izango gara eriotzerarte.

Eskerronez gaiñezka begiratu eutsan Yanoz'ek, eta gero isillune luzearen ostean,

–Aizu, Igun –esan eutsan gazteak–, gauza batek arritzen nau benetan, eta auxe

alegia: mutiko nintzanean geziketa-maisutzat aitak Fortun izendatu eustanean, gazte begiko ta maitetsua zan. Amaika eizaldi atsegiñak berarekin izan nebazan, Erro ta Aezkoa'ko mendietatik. Ezin dagiket ulertu garai areitako bera lako zerbitzari zintzoa, orren zakar eta berekoia biurtu zeitekeanik.

–Gudaldiak txarrak dira, Yanoz, eta zoritxarrez euskaldunok nai-ta-ez, gure arbasoen lurraren alde burrukan egin bear dogunez, ekintza orreitan murgilduta gagoz. Jendea odol-isurtzeari oitzen da, eta gizaki baten bizitzeari begirunerik ez. Onezaz gainera, edateari, andikiro bizi izateari, lizunkeriari etab.emotea erraza da. Baiña txarrena dator benetako giza-oñarri ta siñismenik ez dagoanean, eta areago onezaz gaiñera guda-ekintza ospetsuren bat lortzen danean... Orduan norberaren arrotasunak eta griña txarrek ez dabe mugarik ezagutzen, andikeria neurribakoa biurtzen dala, eta asko-nai baten zurrinbilloan, barrukoa ta ontasun-oñarriak ostenduta, atsegiñaren beso epeletan aberastasun –irrikak orbelaren antzera lilluratuta garoaz...

Isildu zan une batez, eta gero,

–Orixe bera jazo yakon Fortun'eri –jarraitu eban Igun'ek–. Burrukan egitetik gaztelura biurtzen zan bakotxean, gero ta kanpo ederrago agertzen zan, eta noizbait, bere asmoetarako egokitzen ikusten asi zan zu iltzat emotea, ainbeste urte igarorik zuegandiko barri barik izanda batez be. Eta lurralde onetako nagusi batzuk bere asmoetan laguntzen dautsoela jakiñik, orain ez dautso ezelan be Undaitz'eko jabetasunari ukorik egingo. Ziur naz, zure izena entzuteaz soillik, asarre bitsetan jarten dala gero ta gorrotoago zaituala. Bere burua Undaitz'eko Jauntzat dauka, eta aalegin guztiakaz burrukan egingo dau nagusitasun ori iraun-erazoteko.

–Aizu, Igun; Erro, Arze ta Aezkoa ibarretako erritarrek zelan artu dabe Fortun'en nagusitza ori...?

–Ez ondoegi. Errialde onetako jendeek, urteak igaro arren zure aita zanaren oroitza bizirik gordeten dabe. Azken urteotan Undaitz'en ez da nagusirik izan, eta ori barruti onetarako kaltegarria izan da, akitaniarren erasoai jarkiteko gudari-ezagaitik. Noizbait, nagusi baten bearrizan ori bete izan danean Fortun'en etorrereaz, onek ez dau jakin bere burua benetako jauntzat agertzen. Undaitz'era azkenengoz biurtu zanean, illabete bitan Iroz'en semearen barririk edo aztarnarik artu ezean, iltzat emon bearko litzakiola, aldarrikatu eban inguruko ibarretan zear. Bitartean, palagu ta losintakaz inguruko zaldun batzuen ederra irabazten saiatu zan, eta illabete bi orrean epea igarorik, dalako zaldunek Undaitz'eko Jauntzat izendatu eben.

–Aizu, Igun –eten egin eutsan Yanoz'ek–, eta zergaitik ez aukeratu Nagore'ko nire lengusu Garroz...?

–Zure lengusu Garroz orain urte bi-edo, il egin zan Naxera aldeko burruka baten

–Eta Fortun Undaitz'eko nagusia billakatu ondoren, zer jazo da...?

–Asiera baten, zure aitaren aldietako zergak eta amarrenak jarri ebazan. Laster, baiña, bide makurretatik doazenai jazoten yakenez, naikorik ez zala oartu zan. Gazteluan orain ospatzen diran otoruntza itzeletan, eta bere lizunkerietarako bear

dauzan beste dirurik ezean, menpekoen zergak goratu egin dauz, eta olan gure erritarren egoerea txarragotuz, inguru oneitan jokabide orren aurkako zurrumurruak sortu dira. Oneri erasten badautsagu Undaitz'etaz bereganatzeari lapurretaren usaña dario-la, erritarren artean Fortun'en aurkako giro indartsua sortu dala esan dagikegu.

–Eta gazteluan...?

–Gazteluko zerbitzarien arteko giroa Fortun'en aurkakoa dala esango neuke, ondo ezagutzen dodaz-eta. Baiña bildur naz gudarien ederra aren alde jarri ez ete dan. Olan izatekotan, estu ta larri ikusiko dogu gure burua...

–Igun –eten egin eutsan mutillak–, Undaitz nire aitaren etxea da, eta onen alde azkeneraño burrukan egingo dot, baiña gaiztakeria ta saldukeria nire eskubideak eta niganako erriaren maitasuna baiña indartsuagoak ba'litzaz, il naiago neuke.

–Baita neuk be, Yanoz. Azken urteotan zure biurpenaren begira bizi izan naz, egunen baten etorriko zintzakidazala banekian-eta. Egun zorionsu ori etorri da, Jauna, eta zurekin azkeneraño izango naz.

Irribarreka begiztatu eban Yanoz'ek, eta,

–Banekian ori, Igun –esan eutsan–, eta orregaitik artez-arte etorri natzaizu zin-doentzat zaitudalako.

Isildu ziran ugazaba-zerbitzariak, bakotxak bere gogoan azken jazoerak ausnar-tzen ebezala. Noizbait, Yanoz jagi zan, eta,

–Berandu da, Igun –esan eutsan–. Biar goizetik eizaketara joango naz, zelanbait etxe onetako nire ostatua ordaintzearren.

–Jauna, arren...! –Igun'ek minduta– Ez olakorik esan, emen gurekin egon zaitezala duintasun andia da-ta...

–Begira, Igun: zure arrebearentzat ez dot iñongo buruausterik izan gura, eta diruz ezin ordainduz, niretara egingo dot. Onezaz gainera, eiza-iñarkuna asmamene-rako onuragarria izanik, bidebatez saiatuko naz bearrezko egitasmoa atontzeko. Gabon eta biar arte, Jaungoikoak lagun.

–Baita zuri be, Jauna.

Au esanik, alboke gela baten gerturik egozan etzangu banatan egokitu ziran.

Biaramonean etxeokak oraindiño lotan zirala, Yanoz isillean jagi, uztai-geziak artu, eta lekoreko lenengo argi-itzaletan galdu zan. Ibilli bitartean, urrats arin eta erri-meiz berak ondo ezagutzen eban Uriz gaiñeko zelai batera abiatu zan. Igun'en sarobe-a egoan lekura barru-min batek eroian, eta sentipen oneri jarki eziñik oinkada azkarrez ebillen. Auñamendi'ko tontor garaisuetatik eguzkia jagiten zanean elduta, sarobe-a inguratzen eben pago-saldoa atzean itxirik, atx baten babesean jagiten zan egurrezko gurutz bateraño joanda, belaunikatu zan. Aurpegian beera eriozan malkoai eutsi ezi-ñik, auxe bakarrik esateko gai izan zan:

–Aita, lagundu egistazu...!

Luzaro samar iraun eban Yanoz'ek aitarekin erdiz otoika erdiz itz egiz, umeta-roko aldiak gogora etorkiozala, eta bere besoetan il yakoneko azken oroitzak laztan-

duz. Noizbait, zutundu zan, eta malkoak txukaturik, Dagonilla'ko egun berotsu areri aurre egiteko, Elke mendiko tontorrera iradu barik abiatu zan. Noizbait, eguber-dian inguru tontorrera elduta, arri baten gainean jesarri, eta inguratzen eban edertasunak menperatuta, ikuspegi yaukalari nekatu barik bein eta barrero atzo-miñez begiztatu eban.

An beean, Erro, Arze ta Aezkoa'ko ibarrak, baso, larradi, errekatxuek zearkatu-rik bitxien antzera edatzen ziran. Naparra'ko zati zoragarri arek esan-eziñeko zauska-da eragin eutsan, sentipen jorantsu batek menperaturik. Iparrerantz, Auñamendi'ko tontor goitsuak ganduaren artean erraldoi oztiñak zirudien. Egorantz, oska leunetan mendiak apaltzen ziran, lautadari bide eginez, eta urrutiagoko lanbro meearen artean Erribera'ko lur emonkorak iragarten ziran. Sortalderantz aurrez-aurrez, Labia mendi-katea iparretik egorantz edatzen zan, eta onen amildegi izugarri baten gaiñean, begi-rari ernaia bai'litzan, bere jaiotegia, oroz gain maite eban bere amesen abia... Un-daitz'eko gaztelu arroa, dorre zorrotzak zeruari begira, jaurti-agiñean dagozan gezien antzera.

Zauskada esan-eziñak menperatuta, luzaro samar iraun eban Yanoz'ek bizitza baiña areago maite izaten eban bere leiñuko gazteluari begira ta begira. Aldiaren neu-rria galduta, an jarraitzen eban mutillak, iñoiz ez ezaguturiko yoran bakanaz atxillo. Gero, gazteluz bestaldera edatzen zan Larraeta eritxan zelai eder luzea. Eta orduan, urte guztietan udazkenara sartu baiña len, leku onetan ospatzen zan Iru Geziko jaia burura etorri yakon. Barruti aretan izaten ziranen arteko jairik aipatuena zan. Irailla'ren bigarren Igandean, inguruko baserritar, artzain, egurlari, eta antzeko jendez beteten zan, baita gazteluko gudari ta morroiakaz be.

Zelaiaren erdian aga luze bat sartzen zan, eta berreun eta ogei ta bi (200 metro inguru) kanaren bitartetik leikide-bakotxak iru gezi jaurti oi ebazan, eta irurotan agatik urrenen untzaten zana, irabazle. Guztitariko jendeak eskubidea eban jaurtiketa orretan tartekoa izateko, zana-zala, au da, artzain, egurlari, lurgin naiz gudari. Geienetan gudariren bat txapeldun azaltzen zan, baiña baziran leiaketa onetan gudari baizen onak ziran artzaiñak. Leiaketea amaituta, burduntzi anditan erretako zekor-rak bazkaritzat ebezan erromesek, eta gero dantzaldi alai illuntzerarte.

Gogoeta oneitatik bere zerera biurtu zanean, arrats-beera zala oartu zan Yanoz, eta bide-zorrotik erreki-zati bat atarata, jan ostean mendian beera abiatu zan urrats ariñez, arrapagairen bat eizatzeko asmoz. Illuntzea barik, errekatxu baten ondoan orkartz bat ikusi, eta gezikada bat az lurreratu eban. Gau betea zan jadanik, orkatza lepoan artuta, Engartze'ren etxera eldu zenean.

Gau aretan apalduta gero, etxeko senar-emazteek etxe-barruko lanari emotsiela, Yanoz eta Igun gabeko ozkirria gozatzearren ate-ondoko arrizko aulkian jesarri ziran. Mutillak egun aretako gora-beerak edestu eutsazan artzaiñari, baita Undaitz'eko gaz-telua ikustean artu izan eban zirraea be. Edeskia amaitzean,

–Aizu, Iguen –itaundu eutsan Yanoz'ek–, antxiña baten, gaztelu-ondoko Larrae-

ta zelaian urtero udagoia asi baiño len, "Iru Geziak" inotsoen jaia, ospatzen ete da ondiñokarren...?

–Bai, Yanoz. Etenaldi batzuen ostean, Fortun biurtu zanetik jai ori ospatzen da, eta arek jendearen aurrean bere indarra ta trebetasuna agirian ipinten dauz.

–Entzun egistazu ondo, Igun –abopeka asi zan Yanoz– ...

Eta izarren dizdirpean, mutillak Elke mendiko artzaiñari, egitasmo zeatz bat azaldu eutsan. Amaitzean,

–Egin dagigun lo, Igun –esan eutsan–, biar goizetik asmo ori egi biurtzera abiatuko gara, eta orrek lan andia eskatuko dausku.

"IRU GEZIAK"

Urrengo egunean, bide-zorroak janariz beterik, Jaun-zerbitzariak Bizkarreta'ko etxetik urten, eta Auritz'era bideratu ziran, illuntzean erri onetako artzain baten sarobera eltzeko asmoz. Illundu baiño len an ziran, eta gaba emonda, iru astebete iraungo eban bidezkunde neketsuari emon eutsoen.

Erro arana erririk-erri ta saroberik-sarobe ikertu eben, goiko mugatik asita bekoraino. Egunez, artzain-beitzaiñak ikertzen ebezan, ez guztiak baiña, Igun'ek ezagunen eta zintzoentzat ebazanak bakarrik. Yanoz ikustean, zauskada andiak artuta, Jauntzat artzen eben, eta bere alde aaleginduko litzakezala itz emoten eutsoen. Urteak igaro izan arren, Yanoz'egan bereala ezagutzen eben Iroz'en semea, Undaitz'eko nagusitzara eskubide osoa ebana, eta eraspn bakanak jota, atzo-miñez beterik, aspal-diko Iroz'en nagusitzaldia uts emoten eben.

Jarraian, Yanoz'ek Undaitz'eko gaztelua berrirabazteko egitasmoa azaltzen eutsen. Dalako asmoa "Iru Geziak" ospatzeko zan iru egunez aurretik, aboz-abo inguruko lagunai jakiñerazoko leukie, eta aipaturiko egunerarte ezkutuan gordeteko zan. Olan ba, egunez mendirik-mendi ziarduen, eta gaba urreratzen zanean erri batera jatsirik, Igune'k aukeratutako erritar zintzo baten txera joiazan euren egitasmoa azaltzearren. Erri bakotxean lagun bat baiño ez eben ikertzen, gero legami edo labaritzat jardun egian errikideai egitasmoaren zeatzak emonez.

Edu onetan iru astebete iraun eben Jaun-zerbitzariak, Erro, Arze ta Aezkoa'ko ibarretan zear, eta izan be, arazoa erraza aurkezten ez bazan be, toki guztietan izandako arrera maitetsuak eraginda, Igun gero ta baikorrigo azaltzen zan. Yanoz'ek ostera, arazoa ez eban orren argi ikusten, eta uxatu ezin egikean arrenkuren eraso askotan oartzen eban. Baekian mutillak, Fortun etsai trebe, gogorra ta errukibakoa zala, eta ainbat areago bere agintzapean eun gudari saiatuak izanik. Izan be, arazo aren korapilloa emen zetzan, nai-ta-ez auxe zala Yanoz'en buruaustea, eta augaitik, zabaldian zear joiala, astiune guztietan gezi-jaurtiketeari emotsan, berreun ta ogei ta bi kanen bitartera sartutako agari jaurti-saioak egiñik. Zuurra izanik, baiña, Fortun'en eun gudariak bere aurka izanik, baekian Yanoz'ek bere garaipena zailla zala.

Bein baten kezka au Igun'eri azaldu ostean,

–Begira, Igun –itaundu eutsan–, Undaitz'eko lau buruzagien artean, ez al-da bat bederik izango, nire aitaren oroitzari zintzo iraun dagitsanik...?

Elke mendiko artzainak, une batez ausnartzeari emonda gero, auxe erantzun eutsan:

—Jauna, Agoitz'eko Murki, egurlari baten semea ogeitabost gudariko talde-buruzagia da, eta nire eritxiz uste oneko bat izatekotan, auxe izan leiteke.

—Bost egunen buruan Agoitz ikertuko dogu. Joan zaitez ba oraintxe bertan erri orretara, eta dalako egurlariaren etxeokai esaeizu auxe: datorren Egubenean Murki Agoitz'en azaldu daiten mezu bat igorri dagioela. Itarantzun egiezu ori oso garrantzitsu dala.

—Bai, Jauna.

Bereala joan zan Igun Agoitz'eko egurlariaren etxera. Biaramonean biurtu zan, mezua igorri izan zalako barriaz. Mendirik-mendi ta erririk-erri, lanari jarraitu eutsan, eta noizbait Egubena elduta, gau betea zancan egurlariaren etxera joan ziran. Atea jo ta bereala, agure batek edegi eban, eta gela batera sartuta, berrogei bat urteko gudari baten aurrean aurkitu ziran.

Buruzagia ikusi baiño ez, onen aurpegian zeozer ezaguna lakoa ekusala begitandu yakon Yanoz'eri, eta une batez adi-adi begiratu eutsan. Gelako zuziaren argipean, Murki'ren aurpegia zurbildu zan, eta urrats bi aurreratuta, Yanoz'en eskua berenetan artuta mun egin eutsan, mintzo dardartsuz oi bat iges egiten yakola,

—Yanoz, Yanoz, nire mutilla, benetan zu ete zaitut, ala aspaldi aretan ezagutu neban mutikoaren mamua...?

Buruzagiaren mintzoa aditzean, aspaldiko lainotatik Yanoz'egan oroitzaren argia piztu zan, eta gudaria besarkatuz,

—Murki —esan eutsan—, orain nor zaran gomutara yator. Bai, ume nintzala zure zaintzapean aspaldi batez egon nintzan, eta eskutik artuta, gazteluko bazterrak erakusten zeustazan. Askotan aspertu eragiten zindudazan, ezta Murki...?

—Ez ainbeste, nire mutilla, urduri zintzazan baita esanekoa be. Abailla erabilten irakatsi neutsun, eta gomutara yator gaztelu-aurreko zubi jasokorra argitzeko jarri oi ziran zuzi biak, zelan atsegin yatzun abailkada banaz itzungitea. Bai, barrabas orrek, laster ni baiño obeto erabilten zenduan abailla. Zailla da benetan, arrapalada bizian iges dagian erbiari abaillaz jo, baiña zuk irutatik bi, aparta egiten zenduan.

—Bai, Murki, gomutara yat orain lizaga'ko istingan udako eguzki beropean, igelak eizatzen genduzala. Erbi bateri aparta egitea zailla ba'da, askozaz areago igelari.

—Bai, baiña igelak geldirik egozan. Erbiak ostera...

—Arrezkero ostendu zintzakidazan. Zer jazo zan...?

—Amabi urteko mutilla zintzazanean, Eneko Aritzak Iroz zure aitari, ogei gudari eskatu eutsazan, Aragoi aldetik etozan erasoai aurre egiteko, eta Xabier'etik ur dagan Undues gazteluan iru urte emonda gero, Undaitz'era biurtu nintzan. Tamal andiaz jakin neban orduan zure aitaren eriotza ta zure suntzipena. Arrezkero, batetik bestera burrukan egiten urteak igaro yataz, egunen baten zu agertuko zintzakezan itxaropenaz, baiña alperrik. Eta orain zure aitaren menpekota zana Undaitz'eko nagusia

biurtu da. Ezinbestez, Fortun'en esanetara makurtu gara gazteluko gudariak, Undaitz'eko enda amaitu dalakoan, baiña orain, Yanoz, zu zara gazteluko legezko nagusia, eta zeurea danaren alde ekin bear dozu...!

—Bai, Murki, orretarako nagotzu emen. Jesarri zaitez, eta ikusagun egin geinena. Gazteluaren jabetasunari buruz, zelakoa da gudarrien arteko giroa...?

—Benetan esateko, Fortun nagusitzat ez dogu gogokoa, gudari zaarrok batez be. Iroz ezagutu ez eben gazteai, bost ardura damotse arazo orrek, eraspén andia Fortun'eri ez badautsoe be. Baiña gutariko batzuk bizirik irauten dozula jakingo ba'lebe, orduan gudari saiatuen eskukada bataz gauzak beste itxura bat aurkeztuko leukie...

—Entzun egistazu ondo, Murki: "Iru Geziak"en jaiá egun batzuen buruan ospatuko da, eta orduko...

Astiro ta zeatz, Yanoz'ek Murki buruzagiari bere egitasmoa azaldu eutsan, eta amaitu ebanean, onetaraxe mintzatu zan,

—Badakit, Murki zintzo ori, arazoa ez dala erraza, baiña irmo jokutzen ba'dogu jendeak jarraituko dausku, eta orduan...

—Bai, Jauna, nik beintzat zeuk aginduta lez egingo dot... eta gero gerokoak...!

—Agur, Murki. Iganderate Larraeta'ko zelaian.

Gudariak mutillaren eskua mun egin nai izan eban, baiña Yanoz'ek auxe esan eutsan:

—Ori ez. Besarkatu nagizu...!

Etetik Undaitz'era biurtzen zala, Murki zintzoak berekiko bein eta barriz auxe iñoan:

—Mutillaren ederra...! Bere aita Iroz baizen indartsu ta garaia da, edo areago. Ainbeste urte igaro arren, bereala ezagutu dot antxiñako mutiko bizi ta zoragarria, bai orixe...!

Agoitz'eko egurlariaren etxean gaba emonda, biaramonean Yanoz eta Igun Bizkarreta'ra biurtu ziran, eta emen jakin eben, barruti aretan aboz-abo jendeak alkarri iñotsoela, Iroz'en semea bizirik egoala, eta noiznai agertu leitekela...

Egun bi peitzen ziran Larraeta'ko jairako, eta artzainak lagunduta Yanoz'ek Elke mendiko sarobearen emon ebazan, besterik egiten ez ebala gezi-iñarkunak baiño. Sarobe-aurreko zelaian aga bat josi eban lurrean Igun'ek, eta berreun eta ogei ta bi kanako bitartetik, gazteak gezi-jaurtiketeari emon eutsan goizetik gaberarte. Aize arearen indarra ta norabidea kontuan arturik. Oso garrantzitsua da aizea gezi-jaurtiketean, bitarte zabala danean batez be. Gezia eguratsean zear luzaro doan ezker, aizearen eragintza andia izan daiteke. Yanoz'en asmoetarako, bearrezkoa zan jaurtiketea irabazi egian, eta augaitik, egun bi areik iñarkunari buru-belarri ekin eutsan.

Larunbat arratsaldean Bizkarreta'ra jatsi ziran, eta gau aretan Erro ibarreko erri-tar autatu batzuekin urrengo eguneko egitaraua, Engartze'n etxean azkenengoz aztertu

zan. Ikerleek alde egin aurretik, dana gerturik egoala ziurtatu eutsuen gazteari, eta Iroz'en semearen biurpenaren barriak jendea goren maillaraino adoretu izan ebala.

Iraila'ko leiaketaren Igandea eguzkitsu ta gardena billakatu zan, "Iru Geziak"en jaia ospatzeko egokia benetan. Gurdibideak guztitariko orga, lera, zaldi ta mandoz beterik ikusten ziran, eta mendietako zidorretatik ibarretako erritarrak, adarren joteak lagunduta, alai ta adoretu Larraeta'ko zelairantz aldapan gora joiazan. "Iru Geziak"en jaia barruti aretakorik ospetsuena zan, eta inguruetakoa jendea multzoka etorren.

Jaia amabi-amabietan asteko zan, eta edozeiñek eskubidea eban tartekoa izateko. Zelaiaren mutur baten, luebagi sakon batek aldentuta, Undaitz'eko gaztelua arkaitz baten erpinean begirari erraldoiaren antzera, zerurantz jagiten zan zorrotz eta indartsua beekaldeko erri ta lurren babesle. Dorre garaietatik etxeko ikurrin eta oialak aizepean andikiro kulunkatzen ziran, eta atezubi goitsuan ikurrinxuen xingolek gaztelu izaltsuari margoen alaitasuna emotsoen. Zelaiko txoko baten artzain batzuk zekor-erreskada luzea txingarretan erretzen eban.

Amabiak doi-doi izanik, gazteluko turuta batek leiaketea asten zala iragarri eban, eta gudarien aurrean Fortun'ek zubi jasokorra zearkatu eban tronpetarien joteek inguratuta, arro ta andikiro bere jesarlekura abiatzen zala. Berrogei bat urtekoa zan, garai ta indartsua, zenbatu-eziñeko burruketan zaildua. Burdiñezko babeskia erabilen, bere menpekoai zauskada eragiteko, urrean, baiña, burutsik joian, bere billoak eta bizar naro baltzak agirian jarteko, aurki. Gizon ederra zan, begi sarkor baltzek agintzeko oitua zala adierazoten ebela. Gudari-bizierak sendotutako soin garaiari indarra erion, eta aipu andikoa zan gezilaritzat. Izan be, jaurtiketa onetan ez ei'zan iñoiz garaitua izan. Onezaz gaiñera, ezpatari gain-gaiñekoa zala iñoen ezagutzen ebenek.

Ibillera arranditsuaz, gerturik eban besaulki apaiñera abiatu zan, eta jesarri aurretik, bere aginduz, zerbitzari batek auxe aldarrikatu eban:

—Erro-Arze-Aezkoa ibarretako Jaun-andreok, artzain, beitzain, lurgin, argin, egurlari, gudari ta zerbitzariok: Fortun, Undaitz'eko nagusiaren aurrean, lurralde onetan urtero ospatzen dan "Iru Geziak"en leiaketeari asiera emongo dautsagu. Asi aurretik ona emen oiko baldintzok: edozeiñek jardun dagike. Bakotxak bata bestearen jarraian iru gezi jaurtiko dauz, eta berreun eta berrogei ta bi kana-bitartera jarrita dagoan agatik, iruotatik urrenen aparta dagianak, auxek balioko dau leiaketarako. Irabazleak saritzat iru ontzurre jaritsiko dauz, eta onezaz gainera, Undaitz'eko gudaria billakatzeko eskubidea. Irabazlea gudaria ba'litz, iru ontzurreaz gaiñera, urtebete batez aztamakillaren muturrean oorezko galartzu gorria eroateko eskubidea.

Aldarrilaria isildu zan une batez, eta gero,

—Orain —jarraitu eban—, asi aurretik jendeak bide egin dagiala, marratik kanporantz jarrita.

Jendetzak men egin eban, eta zelaiko bedarrean jesarrita, ikusgaiari itxaroten eutsan. Aize gozo batek zelaia ukitze bigunaz orrazten eban. Alako baten, artzain bat

aurreratu zan, eta turutaren ezaugarri-jotea entzunda gero, iru geziak jaurti ebazan, eta agatik urrunen jausitako biak kenduta, urrenenari galartzu gorria ipiñita, an bertan geratu zan. Eta olan, etenaldi laburrak egiñez, jaurtilariek erraikioen, jendeak txaloka ta didarka jaurtiketa onak goratzen ebazala. Jaurtiketan gudari ta artzaiñak aldizkatzzen zirala, amabost bat tartetu ziran, eta beste iñor aurkezten ez zala ikusirik, aldarrilariak Fortun'ek berak, gazteluko Jaunak, gezi-jaurtiketeari emongo leuskiola iragarri eban. Jendea adi-adi egoan arnas-egiteari eutsiz, euren nagusi ospetsuaren antzea ikustearren.

Izan be, gazteluko nagusiak ez eban iñoiz leikidetzat jarduten, baiña saritik kanpo bazeitekean tarteko izan, menpekoen aurrean bere indar eta aparta agirian jarteko. Jagi zan, beraz, Fortun, eta jaurtiteko burdiñezko babeskia oztopoa izanik, eguberdi berotsuan makutsik geratu zan, giar indartsuak nabarmentzen yakozala. Metro bi luze zan uztaiari oratuta, iru gezi aukeratu ebazan, eta oin-muturra marraren ondolan ipiñita, zelai-erdian bereizten zan agarantz lenengo jaurtikia zuzendu eban. Tximistaren antzera eguratsean gaindi oldartu zan gezia, agatik kana bitara kokatzen zala. Bigarren jaurtikia zeozer urrunago untzatu zan, baiña irugarrena kana bateko bitartera sartu zan, ordurarte izaniko jaurtiketa guztiak obatur. Ederrespeneko suzmu-rra edatu zan ikusleen artean, arro ta andikiro, Fortun'ek inguruko morroien zorionak artzen ebazala.

Tronpetariak jote batzaz norgeiagoko aren amaia iragarteko gertatzen zanean, ikusleen arritasunezko abotsen artean, eskuan uztai-geziak ekarrezala gazte bat aurreratu zan, eta Fortun'en aurrean jarrita,

—Jauna —eskatu eutsan—, iru geziak jaurti al-dagikedaz...?

Iroz, bere aspaldiko nagusiaren semea ezagutzean, sentipen bakan batek ikaraz jarri eban. Azken gudaldetik etorrira gero, Yanoz, Undaitz'eko oiñordea oraindiño bizirik izango ete litzaken suzmo bildurgarriak ez eban bakean izten, eta gau ta egun beragandik uxatu ezin egikean bildur orrek jazartuta bizi izaten zan. Aurrean eban artzaiñez jantziriko mutil eder aren aurka, gorroto itzali-eziña oartu eban. Orren luzaro bildur izandako eretia aurkeztu izan yakon, eta konturatu zan bide bi baiño ez ebazala bere aukeran: mutilla Iroz'en semetzat onartu, eta gazteluaren jabetza emon, ala ez ikusi egin, eta arazoa zertan amaituko litzaken itxaron. Bestaldetik, oso zailla zan berak jaritsitako aparta Yanoz'ek obatu egian, eta olan izatekotan errazagoa litzake gaztea lotsatu ta isillerazotea. Une batez au dana ausnartu ondoren, Yanoz gorrotoz begiztaturik, Fortun'ek auxe esan eutsan:

—Berandu eldu zara, gazte ori, baiña au lagun-arteko arazoa dan ezkeru, jaurti dagikezuz.

Gazteak ardi-narrua erantzi, eta bera be makutsik, jaurtiketea egiteko gertatu zan. Osaba-Imoz'ek Irati'ko arpean egiñiko agiñezko uztai luze ederra erabilen, Fortun'ena baiño zerbait luzeagoa, izan be. Marra-ondoan oin-muturra jarri, uztaiari gezi bat ipiñi, eta atezuari emon eutsan, soin-enborraren giar indartsuak marratzen

yakozala. Jendea ez zan itz egitera azartzen be, eta isiltasun betean, tximistak bai'ljitzazan iru geziak alkarren jarraian txistu egin eben. Lenengoa zelaiari agurtzeko; bigarrena aizea neurtzeko, eta irugarrena eguratsa laztantzeko. Ikusleak oartu zirane-ko, zidarrezko izpien antzera, bata bestearen atzetik, eguberdiko oztin garden-zear, euren bidean makurtu ziran gezi txairoak, eguratsean ildoak marratuz.

Lenengoa agatik kana bitara josi zan; bigarrena kana bateko bitartera, eta irugarrena arranoa bai'litzan agaren ondoan arrabete baten menean kokatu zan. Azken gezi au agarekin ia bat egiñik untzatu zanean, une batez arritasunezko isillune bat edatu zan, eta gero, durundu gortugarriak ler egin eban mutillaren ekintza goratuz. Une aretan bertan, jendearen artean, gazte a, Yanoz, Iroz'en semea zala bala-bala ibiltzen asi zan aborik-abo.

Yanoz Fortun egoan tokira biurtu zan, eta berbarik esan bage aurrez-aurre begiratu eutsan. Kentzaillearen aurpegi zurbillari gorrotoz beteriko txinpartak eriozan, burdiñezko babeskia keiñu urduritsuz jazten ebala. Bere aginduz zerbitzari batek iru ontzurreko katanarrua ekarri eutsan, eta gaztearen oiñetara jaurtirik,

–Eutsiok, artzain –zakarr esan eutsan Fortun'ek–, ire saria dok, irabazi egin yok-eta.

Yanoz'ek, baiña ziskuari jaramonik egiteke, kentzailleari auxe esan eutsan,

–Gorde iretzat txanpon orreik, Fortun. Ez ete nok ezagutzen...?

–Ez, ez aut ezagutzen. Eta orain ken adi nire aurretik.

–Ez, Fortun, ez natzaik kenduko. Nirea dokanaren billa naiatok, nire aitarena izan zoana, eta niri yagokidana. Yanoz, Iroz'en semea nok, eta euk ondo yakik ori, orain amabi urte-edo nire aitaren menpekoea izanik, gezi-jaurtiketearen maisua izan intzakidazan, eta sarri askotan basurdeetara alkarrekin joan gintzoan, Ez al-aiz oroitzen...?

–Ken adi nire aurretik, guzurti ori, bestelan...

Itzok esan bitartean, bere ogei ta bosteko taldea artuta, Murki gazteluko zubiraiño urreratu izan zan, eta ona elduta, atearen aurrean jarri ebazan bere gudariak, sarbi-dea galerazoz. Igun'ek eta onen lagun ugariak eragindako, eskuetan abailak erabiltzezala, artzain eta lurginiñen talde andia Fortun eta Yanoz'en ingurura urreratzen ziran. Ur samar egozanean, Yanoz areikana biurtuz, auxe esan eutsen:

–Entzun egistazue, guztiok, Jaungoikoaren aurrean eta Naparra'ko lur maite onetan zutunik, zin dagit Undaitz'eko Iroz'en semea nazala. Il-orduan aitak erbestera igorri ninduan Akitani'ko Duke Undobika'gana, eta betekizun onetan amabi urte emon dodaz. Etxera biurtzean, arrituta jakin dot, nire aitaren gudarien buruzagia zan Fortun'ek, eskubideak ostu daustazala, bere burua gazteluko nagusitzat aldarrikatuz. Ziñaldaritzat ona emen nire aita zanaren errubidun ezpatea...

Au esanik, beso indartsuz errubidun ezpatea jaso eban, jendeak ikusi egian.

Aurpegia errautsezko itxuraz, Fortun'ek oiñu bizitan,

–Guzurra...! –esan eutsan–. Ondo bai ondo dakit neronek, dalako Yanoz il egin zala. Erraza da edonorentzat bere burua Undaitz'eko nagusitzat aldarrikatzea. Ondo

ezagutu neban neronek Iroz'en benetako semea, garai baten mutikoaren maisu gezilaria izan nintzakion-eta.

Yanoz'ek erantzun egitsan baiño len, Igun'en mintzo errimean onetaraxe aditu zan:

–Entzun egistazue, napartarrok...! Iroz'ek gure nagusiak ez eban sasikumerik sortu, eta bera ondo ezagutu genduanok badakigu ori, berarentzat bere emazte Yunilde baiño ez eban beste emakumerik ezagutu, zoratzerañño maite eban-eta. Barruti onetan ondo ezagutzen dan gauza da ori. Gure nagusia, Yanoz bere semearen besoetan il zan Elke mendiko nire sarobean, eta an bertan lurperatuta datza. Neuk, Igun'ek, Undaitz'eko artzaiñak, Jaungoikoa ziñaldaritzat jarrita, zin dagit, aurrean dogun gazte au, Yanoz, Iroz'en semea dala...!

–Isildu adi, urde guzurtia..! –bere onetatik urtenda bota eutsan Fortun'ek–. Gudariok, biurtu gaitez gaztelura, eta Jaungoikoaren diñotsuet, artzain guzurti orreri ta bere lagunai kontuak artuko dautsedazala, bai orixe...!

Fortun bere gudarien aurretik gaztelura abiatzen asten zala, Yanoz'ek errubidun ezpatea lurrean untzatu, eta,

–Aizu, Fortun zitala –oiu egin eutsan–, nire aita zanaren ezpata au erabilli dagidan artean, ez zara gaztelura biurtuko...!

Ezker-eskubi gudariak inguratzen ebala, sumindutako Fortun ezpateari eutsirik, Yanoz'egana joan zan. Une aretan bertan, Murki Yanoz'en ondoan jarri zan, eta mintzo indartsuz,

–Fortun –esan eutsan–, zubi-ondoan dagozan nire gudariok ez dabe beste iñor gaztelura itziko, Yanoz baiño, gazte ori gure ugazaba zanaren semea da-ta. Ondo ezagutu neban garai baten, eta bera da gure benetako jauna.

–Gudariok...! –oiu egin eban Yanoz'ek– Nire aita zana ezagutu zenduenok, aren semetzat ezagutuko nozue, orduan amabost urteko mutikoa nintzan-eta. Zuetariko onartu zakidazenok, Naparra'ren onerako nire zerbitzuan jarraituko dozue, eta begirunerik andienaz erabilliko zaituet.

Eta gero, Fortun'eri,

–Eta zentzunik geratzen ba'yatzu, galdutzat emongo dozu zure burua. Berreunetik gorako nire lagun eta zerbitzariok inguratzen zaitue abail eta makillakaz. Murki'k bere gudari-taldeaz gaztelu-aurreko zubia zaintzen dau. Urtenbiderik ez dozu, Fortun... Ez neuke ezelan be gura izango, gaur lako egun baten napartarrek anai-arteko burruka zentzunbako bateri emon dagioen. Joan zaitez emendik betirako, eta betirako aztu egingo dot nire eskubideen aurka jardun dozula. Joan zaitez, Fortun...

Kentzailleak begiraldi ariña ingurura jaurti, eta Yanoz'ek iñotsana egia zala oartu eban. Bere inguruko gudariak kemena galduta, ez leukie ordurarte izaniko buruzagiaren alde burrukarik egingo. Aurrean, aitaren ezpata ospetsua eskuan artuta, Yanoz'ek gaztelurako bidea eragozten eutsan. Atzerago, Murki'k bere gudariakaz zubi jasokorra zaintzen eban, eta ezker-eskuma abail zemaikorrek erabiltzezala, ar-

tzain-lurgiñak urreratzen yakoan. Lur-jota oartu zan Fortun, jokia galduta egoala, eta bere gudariak dei egiñik, Aezkoa'rako bidean beera biraoka urrundu zan, atzetik amar bat gudari bakarrik erraioela. Laster pagoen arteko bide malkartsutik ezabatu ziran.

Zoratua bai'litzan jendeak ler egiteraiño Yanoz goratu eban, eta onek erritar garrantzitsuenak inguratuta, errekoa gogoz jaten eben bere menpekoen artetik, batetik bestera joian. Undaitz'eko nagusi barriak ez leukean iñoiz sinistuko, menpekoak zelako maitasun eta eraspina eutsoezan. Arratsalde zoragarria billakatu zan, eta illuntzerarte beretarrekin iraun eban Yanoz'ek, alkarrekiko ezaguerea gazteekin egiñez batez be, eta oroitzen eben adiñekoen maitasun eta begirunezko agerbideak artuz.

Jendeak euren etxeetara biurtu ziranean, Yanoz gaztelura abiatu, eta ate-aurrean egozan gudarien aztamakillen pean larrain nagusira sartu zan. Onen erdian, Yunilde bere ama zanaren illarria, idazkun bataz bereizten zan, eta alboan belaunikaturik, une batez otoi egin eban. Gero, Igun'ek eta Murki'k lagunduta, gazteluko bazterrak ikertu ebazan; gudari ta zerbitzarien azpiko lo-gelak, eta goikoak senitarte ta ikerleentzat ziranak. Amildegi-gaiñetik jagiten zan dorre garaitsuaren goikaldean, bere gurasoen izaniko lo-gelan, zerbitzariak oatzte garbia berarentzat atontzen ziarduen. Gela ederra zan, eta ate batetik, almenez inguraturiko arrizko sapaillor batera urtetzen zan. Ikustoki yaukal onetatik, Aezkoa, Arze ta Erro aranen edertasuna bete-betean ikusi zeitekean, eta izan be, arrano-abi aretatik amildegiak zorabioa eragiten eban. Luzaro iraun eban Yanoz'ek leku maite aretan, umetaroko oroitza aztu-eziñak jabetuta.

Gau aretan apalostean, gudari ta zerbitzari guztien aurrean Yanoz'ek, Murki gudarien buruzagitzat, eta Igun zerbitzarien burutzat izendatu ebazan. Gero beste jardun batzuk, Igun'en aolkuz banandu ebazan. Oera joan aurretik, iskillor aretora joanda, une luze batez amabi urte lenago toki aretan jazorikoa gomutara ekarri eban, Konte Baltza'ren aginduz, Ganix'ek artzain etoiak bere aita itsu biurtzeko gertatzen zanean batez be. Gazteluko bazter guztiek bere aitaren oroitza ekarkioen, baiña iskillor aretoak beragan zirrara bakana eragiten eban.

Oe bikaiña ta jasandako nekeak zirala-ta, aspalditik lenengoz lo-aldirik atsedengarriena izan eban, eta almendun sapaillorik egun ederreko eguzkia oeraiño sartu yakonean, pozik eta adoretu arin baten jagi, eta jatokira jatsita, gosari gozo ta naroa Igun'en agintzapean morroi batek ekarri eutsan. Jarraian, Igun eta Murki'ri dei egiñik, abiamenak egiezan aitaren gorpuzkiñak etxera ekarteko agindu eutsan.

Murki ta Igun laguntzailleak ebazala, sei gudarien jarraigoarekin Yanoz Undaitz gaztelutik urten, eta Elke mendirantz bideratu zan. Egun eder aretan, asteko zorian zan udagoiaren ukitze sorgingarriak eguraldiari lillura bereizia emotsan. Eguberdian sarobera elduta, inguratzen eben pagoetara eldu baiño ez, astirik galtzeke, egurrezko gurutzaren ondoko lurra aitzurkatu eben gudariak. Iroz'en gorpuzkiñak agertu ziranean, begirunerik andienaz zorro batera sartu, eta gudari batek lepoan artuta gaztelura biurtu ziran.

Eguzkia suzko oatzte gorritik ostentzeko zorian zala, gorpuzkiñak Undaitz'era eldu ziran. Yunilde'ren obia estaltzen eban illarria kenduta, aren gorpuzkiñen ondoan maitasun eta begirunerik andienaz Yanoz'ek berak Iroz'enak ipiñi ebazan, eta berariz etorritako abade batek otoiitzen artean bedeinkatuta gero illarriak estaldu ebazanean, Igun'ek eta Murki'k lagunduta, une luze batez otoiika iraun eban Yanoz'ek ortzian izarrren begi keiñulariek gabaz jabetu arte.

Gau aretan apalostean, Yanoz'ek Igun eta Murki'rekin alkarrizketa luzea izan eban, urrengo egunetako ekintza aztertzearen. Zerbitzari ta lagun zintzo bi areikin, Undaitz'eko nagusi barria ziur sentitzen zan. Gaztea izanik, baiña zentzuduna baita be, Yanoz'ek zerbitzari bien burubideak ontzat artu, eta onein arauz egitekoa atondu eban.

Egun bi geroago, Igun'ek eta Murki'k lagunduta, illabete ta erdi iraungo eban bidai luzeari zaldiz emon eutsan. Buruzagiak esondatuta, Yanoz'ek babes eta jarraigotzat amar gudari aukeratu ebazan, eta eguraldi ederreko goiz aretan Auritz'era abiatu ziran, Undaitz'eko barrutia astiro ta zeatz ikertzeko asmoz.

Olan ba, Erro ibarra goitik beekalderaiño ikertu eban. Bidai onen zergaitia, erri ta baserriak, menpekoak, uri-ordezkarriak, artaldeak eta bere agintzapean egoan barrutiaren gora-beerak ezagutzea zan. Erriz-erri ta mendirik-mendi, Undaitz'eko lur, jende ta aberastasunak ikertu ebazan. Zergak eta amarren arazoa oso garrantzitsua zan ezkerro, bere zerbitzari zintzo bien burubideai ta ornitua zan zentzun argiari jarraituz, menpekoek zor eutsoen ordaintzak gitxitu ebazan, Iroz'en, bere aitaren aldietan erabilten ziranai egokituz. Bildutakoa ugari billakatuko ba'litz, Yanoz'en asmoa zergak gitxitea zan. Argi ikusten eban Undaitz'eko nagusi gazteak, erritarrak eta aberastasunak babesteko, dirua ezinbestekoa zala, baiña menpekoak larregi estutu barik. Undaitz'eko barrutiak ez leuke aurrerapen andirik egingo, jendea pozik bizi izango ez ba'litz. Aldi berean, Undaitz'eko gazteluari bearrezkoa emoten ez ba'yakon, etsaien erasoek lurraldea ondatuko leukie. Arazoak dendua edo oreka eskatzen eban ezkerro, erriko jende zeeak ziran Igun eta Murki'ren burubideak Yanoz'ek aintzakotzat artzea erabagi eban.

Illabete ta erdi neketsua eskatzen eban ikertaldi onek, baiña onurakor eta lagungarria azaldu zan etorkirako batez be. Noizbait, egun baten amaituta, Yanoz bere jarraigoarekin gaztelura biurtu zan. Asmo bat erabilten buruan nagusi gazteak, eta Oroz-Betelu'tik biurtzea agindu eban. Amañe'ren etxe-aurretik igarotean, zalditik jatsi, eta atea jo eban. Andik laster Amañe azaldu zan, eta Yanoz ikustean, oi eban maitasunaz besarkatu eban, auxe iñotsala:

–Yanoz, nire mutilla, au poztasuna...! Jakin dodaz jasan dozuzan gora-beerak, baiña azkenean, zure aitaren gazteluaz jabetu zarala, eta Naparra'ko bitxia dan gaztelua, betiko leiñuaren eskuetan jarraituko dauala... Au bai zoriona, Yanoz nire semetxua...! Orain ilteko gerturik nago...!

Amañe'ri pozaren-pozez malkoak eriozan, bere ugatz-sume maitiari egokion arbasoen etxeko ugazaba ikustean. Malkoak txukatu ebazan, eta,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, sartu zaitez barrura, eta zeozer jateko atonduko dautsut.

–Ez Amañe, zu zara nire etxera etorteko dana. Gertu egizuz zure gauzak, eta zatoz nirekin Undaitz'era.

–Ni gaztelura, Yanoz...? Itzi nagizu emen, seme. Orain ez nozu lengoa, eta ezertarako gauza ez nazan ezkerro, an goian, oztipoa baiño ez naiatzu izango. Noizean bein ikustera etorriko ba'zintzakidaz, naikoa ordaintza niretzat...

–Ez, Amañe. Zu nirekin biurtuko zara, eta gazteluan, merezi dozun bizikera nasai izango... ala ez dozu zure ugatz-semearekin bizi nai, egunen baten nire umeak zaintzeko, ni zaindu ninduzun lez...?

–Zurekin bizi ete nai dodan, eta egunen baten zure umeak zaindu gura izango ez ete dodazan diñostazu...?

–Gertau zure gauzak ba, eta zatoz gurekin, ia illuntzea barik gaztelura eltzen garan.

Arrapalada baten bildu eban Amañe'k bere jabetasun urria, eta poz-eztitan aspaldiko egoitzara abiatu zan. Nekatu ez zeiten, Yanoz'ek zaldi-gainean jarri eban, eta udagoiko arrats-beera ederrak kadenezko urre-kutsua zabaldian jarten ebal, Undaitz'eko gaztelura eldu ziran. Zubi jasokorra zearkatzen ebela, Amañe'k ezin egikioen malkoai utsi, ogei ta sei urte lenago ama barik billakaturiko Undaitz'eko len-semea inudetzeko, zubi berbera lenengoz igaro ebala oroitzean.

Amañe aukera ta begirunerik andienaz inguratu egion, Igun'eri agindu eutsan Yanoz'ek gau aretan.

Bajoiarian egunak aurrera, eta oraindiño gauza beñen batek etenbarik kezkatzen eban Undaitz'eko nagusi gaztea. Eta egiteko orrek zer-ikusia andia eban Akitani'ra egindako bidaiatz, baita bere aita zanaren asmoekin be. Ezin egikean luzaroagorik betekizun ori geroratu, eta bein baten mezu batekin, Murki buruzagia Iruña'ra igorri eban. Andik bost egunera biurtu zan mezuaren erantzunarekin, eta berau irakurtean Yanoz poztu zan. Mezu onek jakiñerazoten eutsan, Iruña'ko Errotxapea'ko jauregian, Gabonilla'ren 15'ganean ospatuko litzaken batzarrean, berak esateko ebana pozez entzungo leuskioela. Idazkia Aibar'ko nagusiak izenpetua zan.

Batzarraren aurregunean, Murki'ren agintzapeko ogei zaldizkoekin goizetik urten zan, eta etenbarik zaldika, gau betea zala Iruña'ra eldu zan. Errotxapea'ko jauregian begirunez abetaldu eben. Urrengo egunean, Aibar'ko nagusiak batzarrera etorritako zaldun batzuk aurkeztu eutsazan. Beste askoen artean onek ezagutu ebazan: Ilzarbe, Ibargoiti, Saraitzu, Orba, Berruetza, Amezkoak, Yerri, Arakil, Urraul, Erronkari, Gesalaz, Ultzama, Baztan, Baigorri, Longida, Burunda, Araitz, Mixe-Ostabarre, eta beste barrutietako nagusi batzuk. Geienek, bere aita Iroz ezagutu izan eben, eta au dala-ta, gaztea guztiz maitetsu erabilli eben. Onezaz gainera, gaztearen aurpegi atsegiñak, eta beragandik erion indarrak eta zintzotasunak, napartar nagusien ederra irabazi eben. Bazkaltzeko zorian zirala, Lizarra'tik etorri barria zan Eneko Aritza ezagutu eban, eta izan be, zaldun ospetsu onen irudiak zarrastada andia eragin eban gazteagan. Bazkaldu bitartean, beragandik ur samar egoan Eneko'gandik ezin

egikeazan begiak kendu. Bere aita zanari askotan entzun izan eutsazan nagusi orren ekintza arrigarriak, eta beste zertzeladak.

Iroz'ek Eneko zaldun indartsutzat eban, eta orain aurrez-aurre ikustean, egia zala bere buruari autortu bear izan eutsan, baiña bazan zaldun aregan soñiaren sendotasuna baiño agiriago zan eta barrutik etorkion beste indarra: otantzarena edo erakarpen bizi-bizia. Aren begi nabar dizdiratsu ta andiai kemena erien, eta oso bakanki gizonak erakutsi dagikien doai gorena dan karismea. Bare ta berba urrikoa, itz egitean berak esana aintzakotzat artzen eben entzuleek. Bazkariak irauten ebala, Eneko'ren begirada sarkorra zenbait aldiz Yanoz'en aurpegian untzatu izan zan itaunkor, lenengoz ikusten eban gazte txairo ta eder arek erakarrita.

Bazkaria amaitu zanean, eta batzar-aurretiko alkarrizketak ospatzen zirala, lepoan esku baten ukipen ariña oartu eban Yanoz'ek, eta biurtzean, aurrean Eneko ikusi eban. Onek irribarretsu begiztatzen eban, eta mintzo gozoaz,

–Aizu, gazte –esan eutsan–, Aibar'ko nagusiak Undaitz'eko Iroz'en semea zarea-la esan daust.

–Bai, Jauna, aren seme Yanoz nozu.

–Ez ni "Jaunka" erabilli. Naparra'ko nagusien artean olakorik ez dala erabilten-eta. Bai al-dakizu nor nazan...?

–Bai, Eneko Aritza zarea esan dauste.

–Begira, Yanoz, zure aita ta biok lagun-miñak izan gintzazan, mairuen eta Gaztela'ko erregearen aurka amaika burrukan tartekoak izanik. Bein baten Naxera errian mairuen eraso jasaten genduala, zure aitari zor neutsan bizitza. Lagun asko izan dot, baiña Iroz zangarra lakorik iñor ez. Bere eriotza jakin nebanean, nire bizitzaren naigaberik andiena artu neban.

–Bera be, zutzaz sarri askotan mintzaten yatan, eta Naparra'ko gizonik indartsuentzat zinduzan.

–Ez dot iñoiz zure aitarekin indarrrik neurtu, baiña ez dakit bera ala ni nor indartsuena izan. Iroz'en indarra, ospetsua billakatu zan, Akitani'ko Dukearen ezpatea esku bakar batz jasoteko gai zala erakutsi ebanean. Ez dakit, ni neu ori egiteko gai izango ete nintzakean.

–Nik baietz egingo neuke.

–Zelan jakin dagikezu ori...?

–Begira, Eneko: Nik aitaren arrigarri ori ekiñaren-ekiñez egiteko gai billakatu naz. Eta zu ni baiño indartsuagoa izanik, zelan ez...?

–Geu biotatik nor indartsuena, ikusi barik zailla da igartea, Yanoz.

Alkarri irri-barreka begiratu eutsoen. Izan be, une aretan bertan betirako iraungo leuken erakarpen autsi-eziña sortu zan alkarren artean. Une aretan berean, Aibar'ko nagusiaren itzok aditu ziran, auxe iñoala:

–Jaunok, jesarri zaitzeze. Batzar au, Undaitz'eko nagusia dan Yanoz'ek eskatuta, eta lagun batzuen eritxia entzun ostean atondu izan da. Nire ustez, gazte onek esango

dauskuena, Euskalerrarentzat guztiz zudugarria edo jakingarria dan ezkerero, nire kabuz batzar onetara dei egin dautsuet. Yanoz'en esatekoak entzunda gero, gure artean batzar bat ospatuko dogu, gure erriari dagokiozan erabagiak artzeko. Danok, edo geienok dakizuenez, gaur gurekin dogun Yanoz gaztea, Undaitz'eko Iroz, napartar nagusi uren eta zangarraren semea da. Ez dot besterik eratsi bear, gazte onen aitor-semetasuna guztiz garbia dala baiño. Mintzatu bedi, beraz, Undaitz'eko Yanoz.

Isiltasun betean jagi zan Yanoz, eta begikada guztiak beragan untzatuak, une batez isillik bere baitan bildu zan, eta jarraian, argi ta astiro onetaraxe asi zan:

–Dakizuenez, etxeko morroi bien etoikeriz, orain amabi urte-edo, Konte Baltza ezizeneko Bertran, Akitani'ko andikia, Undaitz'eko gazteluaz jabetu zan, eta nire aita gaizki zauritu eban, iskillu barik egoala. Erasotzailleen atzaparretatik jareitzea lortu neban, eta etxeko artzain baten sarobera eroan genduan. Il zorian zala...

Yanoz'ek aitaren agindua aipatu eban jarraian, eta onen ondorioz Irati'ko oianean osaba Imoz'ekin igarotako urteak Akitani'ra abiatu arte. Gero, lurralde onetan jasan-dako gora-beerak, Dukea ikusi baiño len. Konte Baltza'ren eupadea ta onen eriotza errubidun ezpatearen bidez; gero, Undobika Dukeak Euskalerraren bakeari buruz emondako itza ta agintza agiria, eta Naparra'ra biuritzen zaneko, Konte Baltza'ren semeen eraso ta baiturea. Osteko jareikuntza, eta Arritza'ko naasian igarotako negu-taldia udabarrirarte. Euskalerr'i ra biurtea erabagi ebanean, zelan Zuberoa'ko Lakarri'ra barik, ganetxu baten, Txartxa'ren laguntzaz Gerin ilda gero ta akitaniarrak garai-turik, noizbait Lakarri'ra zaurituta eldu zala. Onen jarraian, Fortun'en txarkeriaz, eta "Iru Gezi"en jaia ospatu zanean jazorikoak gaztelua berrirabazteko.

Iru ordu iraun eban Yanoz'en edeskiak, mintzo argiz jasandako gora-beerak guz-titariko zeatzakaz entzuleen atsegiñerako aletzen ebazala.

Amaitu ebanean gau betea zan jadanik, eta alako baten areitariko zaldun baten abotsa onetaraxe aditu zan:

–Gauza ederrak esan dauskuzuz, gazte, baiña zelan jakingo dogu egizkoak diranik...?

Berba oneik entzutean, Yanoz'en aurpegia asarrez gorritu zan, baiña zaldun areri erantzun aal baiño len, beste batek,

–Ostabarre'ko nagusia nazan neronek, itz zital orreik entzunik, auxe baiezten dot: Undaitz'eko nagusiak Konte Baltza'ren aurka izandako burrukaren gora-beerak egizkoak dirala. Akitania'n ezkonduko, eta burruka orren ikusle izan zan nire anai batek, orain illabete batzuk izandako eupada orren gora-beerak emon eustazan, eta izan be, Yanoz'ek esanda lez jazo ziran, Euskalerr'i'ko aipu ona goren maillara igon-erazorik. Eta ori, nire ezpateaz baiezteko gerturik nago.

Yanoz'en gora-beerak ezbaian jarten azartu zanak, ez eutsan ezetariko erantzu-nik emon, eta orduan, batzar aretara eroan eban asmoari jarraituz,

–Naparra'ko nagusi ta zaldunok –mintzatu zan Yanoz–, nire aitatik Akitani'ko Dukeak gure erriarekin betirako bakean iraungo leukelako berba emon eustan, eta

orren ondorioak agirian dagoz, azkenengo urtebete onetan gure iparreko mugak bake osoa ezagutu dau-ta. Au oso garrantzitsua da, mairuak godotarren azken erregea zan Errodrigo garaitu ostean batez be. Gure egoko aldean edatzen diran lur guztien jaun eta jabe billakatu dira mairuak, eta au dala-ta, iñoizkorik indartsuen euskaldunen aurka jarduten dabe, Europa'ko beste lurraldeen atea dan Naparra'z jabetzearren. Guk, baiña, orain Iparreko mugatik iñongo erasorik jasango ez dogun ezkerero, egoko mu-gan dagozan Muskaria ta Naxera indartu dagikeguz.

Isildu zan une batez Yanoz, abotsen zurrumurrua edatzen zala. Yanoz konturatu zan orduan, esateko ebana jaurtiteko garaia zala, eta,

–Entzun egistazue ondo, Naparra'ko nagusiok –jarraitu eban–. Olan eta guzti be ez da naikorik. Geuk, Euskalerr'i'ko nagusiok, bakotxak geure aukeran jokutzen dogu, aberria benetako alkartasunik ezagutzeke, taldekerien legepean jarrita dagola. Etsaiek au jakinik, gaiña artu dauskue euren indarrak buru bakar baten pean alkartu dabezala, eta au egiztatzeko ez dozue besterik ikusi baiño, aspaldi onetan jaristen asi diran garaipenak. Neuk, Naparra'ri dagokiozanetan, zuek baiño askozaz gitxiago dakit, baiña nire aita zanari ta osaba Imoz'eri, beti entzun izan dautset, Euskalerrria sendotzeko ta aldietan zear gure nortasuna iraun-erazoteko, bearrezkoa dala, gure erriak, gudariak, ondasun eta ziurtasuna, agintza bakarpean ipintea. Beste itzakaz esanda: Naparra erreñua biurtu bear dogu.

Itz oneik esanda, isiltasun osoan Yanoz jesarri zan. Gero, abopeko berbak aditzen asi ziran, amaika alkarrizketa biurtu arte. Izan be, Undaitz'eko nagusiaren asmoa, napartar askoren aspaldiko guraria izanik be, ez zan erraza. Batetik, nagusi askori agintzea murriztu edo mugatuko litzakiola bildurrez, eta bestetik, errege baten auke-rapenak eskintzen ebazan zailtasun eta buruaustek. Augaitik, asmoa beti atzeratu izan zan.

Mintzoen zurrumurruek luzaro samar iraun eban. Alako baten, Aibar'ko nagusia-ren itzok aditu ziran:

–Jaunok; ni beintzat Undaitz'eko nagusiarekin bat nator. Aspalditik arrenkuraz beterik nagotzue, atzerritarrek gu baiño indartsuagoak dirala ikustean, eta geu baiño adoretzu edo zangarragoak dirala, agintza bakarpean diarduelako. Eta gure Euskalerrria jareit ta bere buruaren jabe ikusi nai ba'dogu, orixe bera egin bear izango genduke, guretari korik onena erregetzat aukeratuz. Orretarako norberaren agintzakeri-zati bat kendu ta erregeari emonez, Naparra iñoizkorik andiena billakatuko da, eta gu-ri eraso aurretik, atzerritarrek gure indar eta gaitasuna kontuan artuko leukiez. Nire ustez egiteko ori ezinbestekoa da, eta geroratzea umekeri utsa izango litzake.

Itz oneik zarrastada andia sortu eben entzulekan, eta euren arteko nagusi batzuk eritxia emon eben, batzuk aurka, baiña geienek alde. Alako baten, Errotxapea'ko nagusiak auxe esan eban:

–Lagunok, ez dagigun astirik galdu, berandu samar da-ta. Errege baten aldekoak eskua jaso begie.

Amazazpi zaldun errege baten alde azaldu ziran, eta bost aurka.

–Zaldunok –esan eban Errotxapea'ko Jaunak ainbaketea amaitu zanean–, Naparra'k errege bat nai dau, eta beraz, emon bear yako. Orretarako ondo ba'deritxazue, illabete baten buruan, emen alkartuko gara Naparra'ko nagusiak, eta orren aurretik astirik izango dogu gure erriak merezi dauan erregea nor izan daiteken jakiteko. Gaur illabete batera emen alkartuko gara, beraz, eta gaur ona etorri ez diranai dagokien mezua bialduko yake, iñork uts ez dagian.

An egozanez esondapen edo proposiziñoa onartu eben, eta jadanik berandu izanik, geienak apaltzeko mai-inguruan jesarri ziran. Gau aretan Yanoz'ek eta beste nagusi batzuk Errotxapea'ko jauregian lo egin eben, biaramonean etxerako bidaiari asteko. Gosalduta gero, Yanoz urteko zorian zala, etxejoauna urreratu yakon, eta,

–Bidegite ona opa izaten dautsut, mutil –esan eutsan–, eta ia illabete baten barruan Naparra'k merezi dauan erregea aukeratzeko dogun. Auteskundera biurto baiño len, on izango litzakizu, alboko nagusiekin alkarren eritxiak aldatu dagizuezan.

–Ondo deritxat orreri, Errotxapea'ko Jauna, baiña etxera biurto aurretik, orretarako burubide ona emongo daustan bategana joateko zorian nozu.

–Noregana joko dozu, gazte...?

–Iratxe'n dagoan lekaide bategana.

–Bidegite ona ta burubide oba izan dagizuzala opaltzen dautsudaz, Yanoz. Agur.

–Agur, Jauna, eta eskerrik asko zure abegi txeratsugaitik.

Au esanik, zaldia zirikatatu eban, eta Lizarra'rako bidea artuta, etenbako zaldiketari emon eutsan. Eguberdiaren Garex'en geldi-aldi laburra izan eban bazkaltzeko, eta zaldiari atsedean eta janaria emoteko be. Onen ostean, zaldi-gaiñera barriro, eta illuntzean Iratxe'ko ate-aurrean zan. Atezaiñari Imoz'en lobeia zala esan eutsan, eta an bertan gaba igaroteko zan ezkerreko, zaldia kortara eroan eta janaritu egian. Andik laster osaba Imoz jatsi zan, eta Yanoz ikustean pozezko oiua jaurtita, estu-estu besarkatu eban. Jesarri ziran biok, eta osabak eskatuta, aldendu ziranetik ordurarteko gora-beerak edestu eutsazan Yanoz'ek. Amaitu ebanean,

–Izan be, Yanoz maite ori –esan eutsan osaba Imoz'ek– estu ta larri ikusi dozu zure burua, Fortun doillorragaitik. Ez neban iñoiz siñistuko, zure aita zanaren gudari orrek ain zikin jokatu leukenik, baiña gizaseme baten barrukoa zailla za ezagutzea. Jaunari esker, baiña, onik urten zara, eta nire egunoroko otoitzek zer-ikusit izan dabe, aurki. Zeintzuk asmo darabiltzuz orain...?

–Asmo batek eraginda natortzu, osaba Imoz, eta auxe da: illabete baten epean errege bat aukeratu bear dogu napartarrok, eta...

–Errege bat, diñozu...? –didar egin eban Imoz'ek–, Ordua zan gure erriak errege bat izan egian. Sarri askotan, orren bearrianak arrenkuraz bete egin nau. Bedeinkatua bedi Jaungoikoa, noizbait ezinbesteko arazo orreri ekingo dautsoelako napartarrek. Zein zorionsua egiten nauan orrek, jakingo ba'zendu...!

Poza jabetu ezifnik Imoz jagi zan, eta isillune baten ostean,

–Yanoz, esan egistazu dana –eskatu eutsan–. Ori guretzat napartarrentzat albiterik onena da.

Lobeak, Errotxapea'ko jauregian aurregunean jazorikoa edestu eutsan, eta amaitu ebanean,

–Orregaitik, osaba Imoz –esan eutsan–, zeugana burubide edo argiaren billa natortzu. Nik ez dodaz ezagutzen Naparra'ko nagusiak, ezta errigintza edo politikaren arazoak be. Augaitik etorri naiatzu, zeure eritxiz erregerik onena izan daitekenaren izena emon dagistazun.

Une batez isildu zan osaba Imoz erantzun aurretik, eta gero,

–Sei illabete baiño ez dira igaro eremutik etorri nazala –erantzun eutsan oldozkor–, eta ia ogei ta amar urte mundutik baztertua iraun ezkerreko, gure erriari buruz ezer gitxi dakit... Baiña Munio Abata jakintsuarekin sarri askotan mintzatua naz arazo orreri buruz. Gure Abatak iñork baiño obeto ezagutzen dauz Naparra'ko andiki ta zaldunak, eta bere ustez, argien eta zuzenena Eneko Aritza da. Nik neuk gaztaroan ezagutu neban, eta bera lako gizon arteza ta zangarririk ez neban ezagutu. Ordutik ona ainbeste urte igaro arren, elduago edo gertuago izango da, aurki.

–Orixe da, osaba Imoz, zugandik jakin gura neban. Aitak be, orixe bera esan oi eban, eta gogoan daukat zelan il-agiñean zala, Naparra'ko erregegaitzat, Eneko aipatu eustan. Azken amabi urteotan, baiña, ez dot iñorekin arremonek izan, eta orregaitik etorri naiatzu. Atzo lenengoz ikusi neban Eneko Aritza, eta beragandik oi-ez-lako indar ezkutua dario. Benetan esateko, a baiño beste nagusirik ez neuke nai izango, osaba Imoz.

–Naparra'ko nagusiek jakin bear dozue, baiña, erregetzari zergak eta amarrenak emon bear izango dautsazue, eta gaiñera, zuen aalmena zerbait gitxituko yatzuela. Baiña guzti oneik, txikikeriak dira, Naparra'k jaritsiko dauan onuraren aldean.

–Niket, osaba Imoz, gerturik nago orretarako. Oba benetako erri bat, amaika jauntxokeri baiño.

–Bai, Yanoz, eta zeu lako nagusi asko izatekotan, Naparra onik urtengo da.

Edu onetan luzaro samar jardun eben osaba-lobak, eta lekaidetzeko joale batek otordu-deia barreiatu ebanean, biok jatokira joan ziran, oiko aparti bakunari ekiteko. Onen ostean, osaba Imoz'ek arrotzentzako gela batera lagundu eutsan, eta Yanoz'ek urrengo egunerarte, erabateko lo atsedengarria izan eban.

Goizean goizik jagita, gosaria arturik osaba Imoz'eri agur esateko joan yakonean, onek auxe esan eutsan:

–Aizu, Yanoz, Munio Abatak ezagutu nai zaitu.

Gela berezi batera joan ziran, eta lekaide zaar baten aurrean aurkitu zan gaztea. Abateari ontasan eta jakituria alde guztietatik eriozan, eta Yanoz'en eskuai oratuta,

–Aizu, Undaitz'eko nagusi gazte orrek –maitekiro irautsi eutsan–, Naparra'ko zaldunek darabiltzuen asmoari buruz jakitun ipiñi nau zure osabak, eta orixegaitik, gaurko nire otoitzik beroenak asmo ori egi biurto dagizuen izango dira. Jaungoikoak

bedeinkatu bei gure Euskalerrri kutuna...! Agur, napartar gazte ori, eta zuen aukerapenak Zeruko ederra jaritsi dagiala...!

Abateak eskiñi eutsan erestunari mun egin eutsan Yanoz'ek, eta osaba Imoz'ek jarraituta gelatik urten zan. Lekaidetxeko atean zaldia begira eban, eta alkar besarkaturik, oiko maitasunez, osaba Imoz'ek,

–Agur, Yanoz maite ori –esan eutsan–, aal dagizunetan zatoz etxe onetara.

–Pozik al-zagoz lekaidetxean, osaba...?

–Mundu onetan gizaki batek aal dauan beste. Ikasteari buru-belarri damotsat, eta olan jarraitzekotan, urtebete bien buruan, Jauna sagaratzeko gai izango naitzu. Nire zoriona...!

–Ori baiño len ez ba'nentor, eretia yatortzunean jakitun ipiñi nagizu, etorri naki-zun. Agur, Osaba Imoz, izan nagizu zure otoitzetan.

–Beti izango zaitut, Yanoz. Agur maite ori...!

Zirikaturiko zaldia arrapalada bizian Iruña'rako bidetik abiatu zan. Negu miñeko egun otz eta ozkarbikoa zan. Iruña'ko ostatu baten gaba emonda, bigarren eguneko arrats-beeran, eguzkiak musukaturiko Undaitz'eko amildegia aurkeztu yakon, eta bide aldapatsuan gora igonik, aurreneko izarrak ortzian marrazten zirala, gazteluko zubia zearkatu eban.

Arrezkeroko egunetan, barrutiko arazoan atontzeari emonez gainera, alboko nagusien ikerpenari emon eutsan Yanoz'ek, eta olan, Esteribar, Longida, Urraul eta Saraitsu'ko nagusiak ikertuz gainera, Benaparra'ko Baigorri, Zize ta Mixe'koak be. Leku guzti orreitan ondo abetaldu eben, eta bere itxurak eta agertzen eban zintzotasunak, beste nagusiakanako bidea edegi eutsoen. Naparra erreñu biurtzeak ekarriko leukezan onurak, eta orretarako nagusi egokia billatu bear eben ezkerro, Eneko Aritza'ren doaiak kontuan arturik, autagairik onena izango litzakela azalduz, orduetan zear aalegindu zan Yanoz. Adore ta etorri guztiak erabilli ebazan Undaitz'eko nagusiak arlo onetan, eta izan be, beragandik erion arteztasunak irabazita, inguruko nagusi geienek, Eneko Aritza'ren alde azaldu ziran. Illabete bateko epea arin baten igaro zan, eta Yanoz oartu zaneko, auteskundearen eguna etorri zan.

Aukerapena goizean egiteko zan, eta Yanoz Errotxapea'ko jauregira eldu zanean, areto nagusia zaldunez mukurru bete egoan. Naparra'ko zaldunik geienak talde txikitari bananduta etorri izan ziran orduko, eta auteskundeari buruz ziardeen, errege-gai batzuen on-gaitzak aztertuz. Zer egin ez ekiala, Yanoz gelditu zan, andiki arein azkai ta janzki ederrak begiztatuz. Olan zala, Aibar'ko nagusia urreratu yakon irribarretsu, eta,

–Kaixo, Yanoz, Undaitz'eko Jauna –esan eutsan–, azkenetarikoa zaitugu, eta batzarra bereala asiko da. Autagai bien izenak aurkeztu yakoz eskribauari, eta onei-kek alegia: Azkoien'go nagusia, eta gure Eneko Aritza. Zu etorri aurretik, batzarra luzeegi ez egitearren, autagai bakotxaren alde batzarkide bakar batek itz egin dagiala

ebatzi dogu. Azkoien'goaren alde batek, eta besteak Eneko'ren alde. Lagun batzuekin itz egin dot, eta zuk Eneko'ren aldeko goratzarrea egin dagizula erabagi dogu.

–Baiña –erantzun eutsan Yanoz'ek arrituta–, zelan arraioa otu yatzue, egiteko garrantzitsu ori eldu barria dan bateri emotea...? Nik ozta-ozta ezagutu neban Eneko Aritza orain illabete bat, eta gaiñera, Naparra'ko nagusiak, banaka batzuk kenduta, ez dodaz ezagutzen. Arren, Aibar'ko nagusi orrek, izendatu egizue beste bat orretarako.

–Begira, Yanoz, zu orretarako aututea, ez dauzazu nire eragiñari egotzi bear, orko zaldun askori baiño. Lengo egunean, zure gora-beerak batzarrean edestu bitartean, zarrastada andia sortu zenduan entzulekan, eta iru ordubetez lilluratuta entzun zindugun. Zerorrek oartu ez izan arren, itz-etorriaren doaiak jantzita zagoz, eta Naparra'rako ordu beiñen onetan, bere etorkia jokutzen da-ta, ez guri utsik egin, Yanoz...!

Isillune bat sortu zan Yanoz'ek gogoeta bateri emotsala, eta noizbait,

–Egin bedi zuen guraria, Aibar'ko Jauna, baiña beste bat izendatu al izango zenuen..!

Aibar'koak irribarre batz erantzun eutsan, eta une aretan bertan, eskribauaren mintzoa onetaraxe aditu zan:

–Naparrako zaldunok...! Auteskunderako eratu bedi maia gure oituratara, au da, iru zaldunek osotua. Bata iparrekoa, bestea naparra-erdikoa, eta irugarrena Erriberatarren artek, eta izan be, iru errialde orreitariko zaarrenak. Urreratu bediz ba, adiñezko maipuruok.

Andik laster iru adiñeko zaldun azaldu, eta mai-inguruan jesarri ziran. Ostabarre, Arakil, eta Biana'ko nagusiak ziran, eta onein artean zaarrena Ostibarrekoa izanik, erdian jesarri zan albo banatan beste biek jarlekua arturik. Aurrerantzean, eta batzarrak iraun egian arte, iru Jaunok erabilliko leukie auteskundea.

Ostabarre'ko nagusia onetaraxe asi zan:

–Jaunok, jesarri zaitze guztiok, eta iraun aalik isillen, arren, gure Euskalerrria'rentzat ain garrantzitsua dan ordu onetan.

Isildu zan une batez, eta gero,

–Iruña'ko eskribau edo idazkari Jaunak idatzi beiz banan-banan batzarkideen izenak, eta mai onetara ekarri dagiskuzala.

Olan egin eban idazkariak, eta maipuruak orduan,

–Ogei ta zortzi zaldun batu gara –aldarrikatu eban–, au da, gutariko bat bera be ez da dauzuet, iñoiz ez dala ospatu Naparra'n gaur lako batzar gain-gaiñekoa. Leku guztietako nagusiak batu gara emen, gure erriari errege bat emotearren, bear dauan gidari ta lemazaiña emoteko. Au ezinbestekoa yaku inguratzen gaituen etsaiari jarki aal izateko, gure menpekoai ziurtasuna ekarteko, eta Jaungoikoak emoniko aberastasunak zaindu ta geitzeke. Zuen aukerapena, beraz, beiñena izanik, ondo bai ondo gogoan erabilli bear dozue Naparra'ko erregea aukeratzean autarkia nori emon. Ez uste, baiña, onezaz batean gure gatak amaituko diranik. Gure aberriaren askatasuna,

egunik-egun irabazi bear izango dogun saria da. Eta orrek eskatzen dau beste gauzen artean, zuek nagusiok, zeuon aberastasunetik zati bat, eta ez txikia, erregeari emon dagiozuen, au da, neurri baten txirotu zaitezen aberria anditu daiten. Orrek eskatzen dau baita be, zuen askatasunetik beste zati bat erregetzari eskuratu dagiozuen, gure Naparra au askeago billakatu daiten...

Ona elduta isildu zan maipuruua, batzarkideen adikunea beragan untzatuta egoala, eta gero,

–Gure lenengo erregearen aukerapena asten da une onetan –jarraitu eban maipuruak–, baiña orren aurretik esan bear dautsuet autagai bi aurkeztu dirala, eta oneixek alegia: Azkoi'en'go Garzes eta Eneko Aritza. Naparra'ko nagusi bi oneik, aitor-sembleak izanik, badabe eskubide osoa gure erriaren gidariak izateko, baiña ontzi bat lemazain bakar batek darabillan lez, gure Euskalerrri'ko lurralde onen arazoak, buru bakar batek erabilli bear izango dauz. Tamala da biotatik bat baztertu bearra, baiña ori ezinbestekoa da. Bakotxak eritxi-emoille bat izango dau zenbat-gura goratarre egiteko, baiña bestearen aurka ezer esatea debekatua da. Eta orain goazen arira: eskribau Jaunak esan bekiguz eritxi-emoilleen izenok.

Eskribaua jagi zan, eta,

–Azkoi'en'go Jaunaren alde, Abarzuza'ko Usalaz Jauna, eta Eneko Aritza'ren alde, Undaitz'eko Yanoz Jauna.

–Urreratu bediz –agindu eban maipuruak–, eritxi-emoilleok.

Aurreratu ziran Yanoz eta Usalaz. Legezkoa zanez, eskribauak zotz egin eban, eta Usalaz Jaunari etorri yakon goratarrea astea.

Orduan, Ostabarre'ko Jaunak, auxe agindu eban:

–Asi bei, beraz, Abarzuza'ko Usalaz Jaunak, Azkoi'en'go erregegaiaren aldeko goratarrea.

Danak jesarrita egozala, eta bera zutunik, Usalaz onetara asi zan;

–Nork ez dauz Azkoi'en'go Jaunaren ekintzak ezagutzen...? Nork ez dauz aren ezpatearen bikaintasunari buruz entzun...? Zein mairu, aragoitar edo Gaztelar ez da dardarretan asten, bere aurrean Azkoi'en'go Jaunaren aztamakillea ikustean...? Auñamendi'ko bidetxigorretan edo Erribera'ko lautadan zear, Azkoi'en'go nagusia igarrotean, badirudi arranoaren egada garaiteziña arrapagaiaren aurka oldartzen danean, edo goitik-beera ikara bizian amiltzen dan iñusturi bildurgarria...! Bein baten, Muskaria'ko arresi-aurrean burrukan ziarduala, Azkoi'en'goa etorkiela jakitean, ikarak jotako angoo mairuak, iskilluak laga, eta igesari emon eutsuen. Beste baten...

Edu onetan jarraitu eban Abarzuza'ko Usalaz Jaunak, bere mintzo arranditsuaz, Azkoi'en'go Jaunaren gaitasun, zuurtasun, eta zangartasuna agirian ipiñiz. Izan be, erregegai onek ondo merezitako aipua eban burrukalari yaio, nagusi emonkor, eta pentsalari zuurtzat. Errege-besaulkian ondo samar jardungo leukoan, aurki, baiña baeban griñatxu bat, (nor ete da akatsbakoa...?) eta auxe alegia: Erribera'ko ardao lodiari merezi eban ederrespena eutsan, eta mozkortia ez bazan be, noizean bein zeozer txo-

lin agertzen zan. Ain zuzen be, gudari gain-gaiñeko batek badau eskubiderik noizean bein txurrutada bat az tarria garbitzeko. Onezaz gainera, gona-zalea ei'zan; baiña edertasuna aintzakotzat artzea ez doa izadiko legeen aurka... Dana-dala, Azkoi'en'go Jaunak baebazan alde on eta ugariak.

Ekiogun, baiña, Abarzuza'ko Usalaz'en goratarreari. Erretolikaren zaletasunak eraginda, eritxi-emoille onek bere erregegaiaren ontasunak aletuz jarraitzen eban, eta mintzo argikoa izanez gaiñera, baebazan gauzak esateko gatz eta piperra. Zoritarrez, baiña, itz-etorriak eraginda, aurrera ta aurrera eroturiko zaldia ren antzera, ez ekian noiz ezta zelan gelditu be. Berbaldia mugabakoa izanik, ezin egikean iñork aren jarduna eten egin, eta adorea eraginda Abarzuza'koa goratarreari erraikion. Baiña izlari on-ona izan arren be, astia igaro-ala esanak makaltzen dira, eta azkenean, lo-gura eragiten dauan urruma txeratsua biurtzen da.

Auxe jazo yakon aretoan egoan zaldun askori, eta buruak makurtuta benazko itxuraz entzule onak egin oi daben antzera, nagusi batzuk Morfeo'ren besoetan ames egiten eban. Maipuruak eta onen alboko maikideek be, euren biziko aalegiñak egiten ebezan lo ez egiteko, noizean bein buruak ederrespenaren itxuraz makurtzen bayakozan be.

Noizbait, eta ordu bete ta erdi igarorik, Abarzuza'ko Usalaz Jaunak goratarrea amaitu eban, txalo ta nasaitasunezko asperen ugarien artean. Oartua zan Yanoz orduko, munduko onenatariko izlaria izanik be, entzuleek ezin dagikiela jasan ordu-erdi goitiko berbaldirik, eta Abarzuza'koa itzaldia amaitu aurretik, bere buruari zin egin eutsan, esateko ebanak ez leukela ordu-erdi batetik gora iraungo.

Atsedendaldilaburraren ostean, maipuruak txiliña jo, eta auxe esan eban:

–Orain, Eneko Aritza'ren aldeko txandea dator, eta goratarrea Undaitz'eko nagusiari dagokio. Berba egiten asi bedi, beraz.

Jagi zan Yanoz, eta une batez bere baitan bilduta iraun ostean, onetaraxe mintzatu zan:

–Naparra'ko zaldunok: Abarzuza'ko Usalaz Jaunaren itzaldi bikaiña entzunda gero, niri dagokit Eneko Aritza'ren goratarrea egitea. Naparrako erregeak adoretu ta zangarrak izan bear dau, eta baldintza oneik bene-benetan beteten dauz Eneko Aritza'k. Alperrik litzake aitor-semble onen ekintza arrigarriak emen aipatzea, eta egun oso batez izketan jardungo ba'neuke be, naikorik ez litzake berak egiñikoak azaltzeko. Alperrik litzake baita be, zuek eta napartar guztiek ondo bai ondo dakizuelako, aren biotz sutuak eta beso indartsuak Euskalerrria'ren alde egiñikoa. Ez dot zuek aspertu-eragin gura, lendik dakizuenaz nire itzaldia eiotu. Baiña badira errege bategan, zangartasuna beste edo areago balio dabenak: zuurtasuna ta gizakien ezaguera, eta ikuspegi onetatik gure Eneko zelakoa dan adierazoteko, orain urte batzuk jazo zana edestera noatzue.

Isildu zan Yanoz unetxu batez, eta guztien adikunea beragan untzatuta egoala, onetaraxe jarraitu eban:

"Aldi areitan, Urbasa mailloan zear zamariekin igaroten ziran merkatariak, sarri askotan bidelapur talde batek erasota, salgai guztiak galtzen ebezan, eta lapurketeari jarkiten azartzen ba'ziran, askotan bizitza bera be. Egoera onek aberastasunaren garenarako oztopo andia zanez, bein baten nagusi batzuk Iruña'n batu ziran, eta onen ondorioz, Urbasa'ko barrutia ondo ezagutzen eban Eneko Aritzari, egoera negargarri areri amaia emon egiala eskatu eutsoen. Arazoa ondo ausnartu ondoren, Eneko'k baietz esan eutsen, eta lagun on bateri etorri zeiten eskatu eutsan. Au etorri zancan,

–Zertarako dei egin daustazu...? –itaundu eutsan–, Gazteluan naikoa lanpetuta nago orain, Eneko.

–Badakit ori, lagun, baiña ezpatari on-ona bat bear dot, eta iñor ez zu baizen egokia. Urbasa'rako bidean azalduko dautsut dana.

Etxarri-Aranaz'era abiatu ziran, eta bitartean Eneko'k lagunari jakitun ipiñi eban, eta amaitzean,

–Lagun –esan eutsan–, gure erriaren onerako salketarien lapurra arrapatu bear dogu, bestelan, Urbasa'n zearko salgaien joan-etorriak amaituko dira, eta salerostera-ko oztopo andia izango da. Nirekin talde andi bat ba'letor, dalako lapur-talde ori gugandik urrun lebilke, eta arrapatzerik ez orduan. Baiña bi bakarrik ba'gara eretia izango dogu bidelapurak ikusteko. Baldintza oneitan nire alboan ezpatari gain-gaiñekoa nai dot, eta iñor ez zu baizen ona zaldun moztortua ta lagunai aurre egiteko.

–Zaldun moztortua, diñozu, Eneko...?

–Bai, lagun. Dalako bidelapur orrek aurpegia moztortu baten atzetik estaltzen ei'dau, iñork ezagutu ez dagian.

Edu onetan, zaldun biok Etxarri-Aranaz'era eldu, eta ostatu baten kokatu ziran, euren zaldun-ezaugarriak salketarien soingaiñekoaz ezkututuz. Andik egun batzutura zamari-talde andi samar batekin, Gipuzkoa'tik Erribera'ra joian merkatari bat ostatura etorri zan. Eldu baiño ez, arremonetan asi zan ostalariarekin, Lizarra'ra joateko laguntzaren billa. Ez zan inor, baiña, Urbasa zearkatu gura izango leukenik, eta salketaria larri egoan ekarrezan Gipuzkoa'ko gaiak Erribera'n saltzeko eta emendik ardaaz zamatuta etxera biurtzeko. Zer egin ez ekiala, Eneko urreratu yakon, eta,

–Aizu, merkatari –esan eutsan–, gu biok biar Lizarra'rako gara, eta nai ba'dozu, alkarrekin joan gaitkez.

–Ni zamaltzain bikin bakarrik nator, eta zuekin bost izango gara. Uste al-dozeu naikorik gareala moztortuaren lapurtaldea uxatzeko...?

–Bai, nik uste. Gaiñera Urbasa'ko barrutia nire etxea baizen ondo ezagutzen dot. Ez kezkatu, onik urtengo gara.

–Biamonean goizean goizik, zamari-lerroa zamaltzain bik zuzenduta, eta atzetik merkatariak, Eneko'k eta lagunak erraikiela, Lizarraga'ko gurdi-bidean gora, Lizarra'rantz abiatu ziran. Gauzak baketsu samar joiazan, baiña Zumbeltz mendi-ostatura barik, alako baten, ezker-eskubitik zortzi bat zaldizkok eraso eutsoen, ezustez arrapatzeko asmoz. Eneko'k eta lagunak ezkutaturiko ezpatak atara, eta aurre egin

eutsien. Andik laster bidelapurak garaituta, igesari emon eutsoen. Eneko ta lagunak, baiña, moztortuaren atzetik oldartu ziran, eta luzaro barik, zaldun moztortuak bere burua galduta ikusirik, biurtu zan burrukan egiteko, baiña ezpatea erabilli aurretik, gure zaldunek atxillotu eben, eta eskuak lotu eutsoezan. Arrats-beera zan, eta argia ostendu baiño len, Eneko'k moztortua erauzi, eta aurpegiari begiratu eutsan.

–Zu, zu ete zara...? –didar egin eban–. Zu, Naparra'ko aitor- seme bat bidelapur biurtu zaiakuz...?

–Nor ete, dalako moztortua...? –itaundu eutsan lagunak–. Ezagutzen ete dozu...?

–Bai, lagun, Arakil'go leiñu andiko bigarren semea da. Zaldun zital onek bidelapurretari moztortuta emoten dautso, iñork ezagutu ez dagian, eta noizean bein Jaun anditzat etxera biurtzen da, eta emen bear dauzan argibideak artuta, antza, barriro salketariak erasoten dautse ondoen yatorkon ordu ta lekutan.

–Eneko, biar bertan, Lizarra'ko agintarien eskuktan ipiñiko dogu, gure erriko ekanduari jarraituz urkatu dagien.

Eneko'k ez eutsan erantzunik emon, eta atxilloa ondo lotuta, Zumbeltz'eko mendi-ostatura biurtu ziran. An jakin eben, ikarak jotako merkatariak eta zamaltzaiñek salgaiekin Abarzuza'rantz iges egin ebela.

Bidariantzako aterpea baiño ez izanik, sasoi aretan mendi-ostatuan ez egoan iñor, eta su andia egiñik, irurok jesarri ziran. Ondo lotutako baituak, buru-makur eta aurpegia oraindiño moztortuaz estalia, bere azken izugarria ausnartzen eban, antza. Gogoeta sakonai emotsela, Eneko'k ez eban itz egiteko gogo andirik, eta au ikusita, laguna be laster isildu zan. Apalduta gero,

–Aizu, lagun –esan eutsan Eneko'k–, gaur egun neketsua izan dogu. Atsedean artu dagigun, beraz. Neuk lenengo beilaldia egingo dot, eta bigarren zatia egiteko iratzarriko zaitut.

–Ederto, Eneko. Gabon, Jaungoikoak lagun.

Soingaiñean bilduta, laguna laster geratu zan lo. Itxartu zanean, goizaldeko lenengo argiak Oskia menditik agertzen ziran. Bere ondoan Eneko'k lo egiten eban, baiña moztortuaren zantzurik ez. Arrenkura bizipean zutundu zan, eta Eneko iratzarri eban auxe iñotsala:

–Eneko, Eneko, arindu gaitzean, moztortuak iges egin dau-ta...!

Eneko'k, baiña, patxada osoan etzanda jarraitu eban, eta,

–Bai, lagun –crantzun eutsan– badakit ori, neronek jaregin dot-eta.

–Baiña burutik eginda zagoz...? Bera lako gaizkille andia nekez arrapatu, eta gero beste barik joan daiten itzi...?

Eneko jagi zan, eta arri baten gaiñean jesarrita su egiten ebala, goizalde otza zan-eta, itz egiten asi zan astiro.

–Mozortortuaren urkapenak bere etxekoai ekarriko leuskien gerena bururatu yatan, eta zuk lo egin bitartean, asmo bat garatu neban, eta auxe: moztortuaren etxe-

koai, semearen urkapenaren gerena ta lotsa ez ekartearren jareituko neuke, baiña Naparra'tik betirako joan zeiten baldintzaz...

–Uste al-dozu, Eneko –lagunak eten egin eutsan–, olako gizon zitalak zure baldintza beteko dauanik...?

–Bai, bete egingo dau. Jareitu aurretik, agindu neutsan baldintza ori autsiko ba'leu egoan lekura bere billa joango nintzakiola, eta neronen eskuz urkatuko neukela. Eta beste baldintza bat jarri neutsan. Ara...bere lapurtaldearekin mairuen lurraldera joan zeiten, eta an, napartarren zelataritzat jardun egian, mairuen joan-etorri ta asmoen barri guri emoteko. Gudaroste batentzat oso garrantzitsua da etsaien gora-beerak jakitea, eta nik uste, mozorrotua guretzat onuragarria billakatuko dala. Bere egitekoa ondo beteko ba'leu, azkenean, bere zerbitzuen ordaintzat egunen baten Naparra'ra biurtu zeitekeala agindu neutsan. Zer deritxazu orreri, lagun...?

–Ondo deritxat, Eneko, eta izan be, orrek gizon argi ta zuzentzat bereizten zaitu. Lapur orren baiturak ekarriko eutsuzan ospe ta aintzari, napartarren onerako uko egin dautsezu, Eneko. Ori ez leukean edozeiñek egingo.

Eta beste barik, lagun biak etxera biurtu ziran. Urbasa'n bidelapurketea amaitu zan, eta auxe bai garrantzitsua: mozorrotuaren taldeari esker, napartar gudarosteak, bere onerako argibide asko jakin aal izan eban.

Onaiño edatu zan Yanoz'en edeskia, eta aretoan entzuleen zurrumurruak aditzen zirala, andiki baten mintzoa onetaraxe aditu zan:

–Zelan jakin edeski ori egizkoa danik...?

–Nik beintzat, badakit ekintza ori benetakoa dala –erantzun eutsan Yanoz'ek–. Ara... Undaitz'eko gazteluan neguko otza uxatzearen aita ta biok sutondoan gengoza-la, berak guztitariko zeatzakaz jazokun ori edestu eustan... Bai, bera izan zan Urbasa'ko ekintza aretan Eneko'ren laguna... Eta niri beintzat aitag ez eustan inoiz guzurrik esan.

Isillune osoa edatu zan aretoan zear, eta barrero be Undaitz'eko nagusi gaztearen mintzoa onetaraxe aditu zan:

–Auteskunde onetan, eritxiemoilletzat amaitzera noakizue auxe esanez: errege batek zangarra izan bear dau, eta onetan gitxi, inor ba'da Eneko'ren maillara eldu dai-teke. Baiña errege orrek beste baldintzak are zailagoak bete bear dauz, eta oneik alegia: zentzun eta zuurtasuna, eta Eneko'gan baldintza orreik agirian ipinteko, nire aitak orain amabi urte-edo edestu eustana jakiñerazo dautsuet. Eta besterik ez, Naparra'ko nagusiok. Jaungoikoak lagundu dagiskula errege on eta zuurra aukeratzeko.

Yanoz'ek amaitu ebanean, maipuruak egurrezko maillu batatz maia jota gero, auxe esan eban:

–Jaun agurgarriok: ordu-lauren bat dozue, alkarren arteko azkenengo argibideak izan dagizuezan, eta jarraian, autarki-emotea izango da.

Talde txikitari banandu ziran autesleak, eta epea igarorik, Ostabarre'ko nagusiak, maillukada batatz alkarrizketak eten egin ebazan.

–Jaunok –aldarrikatu eban–, autarki-emotea asiko da. Orretarako ona emen zorrotxu bi. Bata beterik eta bestea utsik. Bete dagoanean naasirik ezkurak eta urre-txak dagoz. Banan-banan bakotxak bere izena entzunda, maira urreratuko zarie, eta eskua zorro betean sartuta, ukimenez ezkurra ala urretxa artu, eta ukabilla zabaldu barik inork jakin ez dagian aukeratzin dana, zorro utsean sartuko dozue. Ezkurra Eneko Aritza'ren aldekoa izango da, eta urretxa Azkoien'go Jaunaren aldekoa.

Garai aretan, Naparra'n beste lurralde askotan lez, nagusi askok ez ekien irakurten ez idazten, eta augaitik auteskundera azaldutako eran egiten zan. Izan be, zaldun batzuk izan ezik, enparauek ez eutsien irakurte ta idazteari jaramonik egiten.

Idazkaria izenak aldarrikatzen asi zan, eta ogei ta zortzi nagusiek banan-banan, zorro utsean euren autarkia sartu eben. Ekintza au amaitu zanean, maipuru zorrotik aleak ataraten asi zan, eta "ezkurra" ala "urretxa" esanez, mai-gaiñean ipinten ebazan. Bitartean, idazkariak aukeragai bien autarkiak idatziz jarten ebazan. Azken autarkia zorrotxutik urten zanean, eta zenbaketea egiñik, isiltasun betean idazkariak auxe aldarrikatu eban:

–Jaunok, ainbaketea auxe da: ogei ta bi ezkur, eta sei urretx. Naparra'ko erregetzat, beraz, Eneko Aritza aukeratu izan da.

Onen ostean, didarrak eta zorion-besarkadak gertatu ziran. Giroa zerbait baretu zanean, eguberdia izanik, jatokira aldatu ziran, eta bazkari on bateri emon eutsoen, eta izan be, ereti aretan Naparra'ko ardao gorri, lodi, indartsuari, merezi eban ederespena egin eutsoen. Bazkaria amaitu zanean, errege-bureskundera andik iru aste-betera izango litzakela, gora ta didarren artean aldarrikatu eban Ostabarre'ko nagusiak.

Onen ostean, bazkailiarrak etxerakoa egiteko jauregia izten asi ziran. Yanoz etxejoaunagandik agurtzen zanean, onek auxe esan eutsan:

–Aizu, Yanoz, Eneko'k ikusi gura zaitu.

Ate-ondoko gela batera sarrerazo eban, eta mai baten ondoan idazten ziarduan Eneko jagi zan, eta gaztearen besoari maitekiro eutsirik,

–Yanoz –esan eutsan–, nire aukerapena neurri andian zor dautsut, eta gaiñera, zentzudun andikotzat zaitudan ezkerero, nire kortean edo jarraigoan beiñenatariko jardun bat emon gura dautsut. Zer deritxazu nire jauregiko zaindari nagusia izateari...?

Une batez Yanoz'ek oldozkor iraun eban, eta gero,

–Eskerrik asko Eneko, baiña Undaitz eta onen inguruko biziarea naiago dot. Zabaldian bizi izateko jaiio naz, eta ez orma lodien artean egoteko. Ez artu txartzat, Eneko, baiña nire eginkizun eta zaletasuna Undaitz'en dagoz. Gaiñera, neu barik zer billakatuko litzakez arbasoakandik yarauntsiriko gaztelu ta lurrak...? Bestaldetik, Eneko, badakizu Naparra'k bear nagianeñ, zurekin eriotzararte izango nozula.

–Eta ez zenduke nire onularien taldekoa izan nai...? Naparra'ko zuurren eta zintzoenen arteko bost zalduneko batzordea izango da.

–Bai, Eneko, pozik be artuko dot jardun ori. Zure aukeran izango naiatzu beti.

—Eskerrik asko, Yanoz. Nire bureskunde edo koroaziñoa, iru astebete barruan izango da. Naparra'ko zaldunen jarraigoan ikusiko zaitut, Yanoz. Ordurarte ba.

Alkar besarkatu eben, eta Yanoz Iruña'n eban ostatura biurtu zan, biaramonean Undaitz'era biurtzeko.

Iru astebete geroago, oskarbiko egun otz baten, Eneko Aritza Naparra'ko lenengo erregetzat koroiatu izan zan. Oorezko jarraigoa napartar nagusiek eratua zan, eta iñongo bekaizkeririk sortu ez zeiten, jarraigoa adinariaren arauz osotu izan zan. Gazteena izanik, Auñamendi'ko abarkak, orkatzezko soiñekoa, eta lumadun txanoa erabillezala, Yanoz'en irudi ederra bereizten zan azkenengo lekuan, gerritik aitaren ezpatea eskegiten yakola.

Eta olan, erregeen leiñu bikaiñari asiera emongo leuskion Eneko Aritza, 824'ko urtean, Naparra'ko lenengo erregetzat gantzutu izan zan. Au zala-ta, Naparra'k nortasun berezia artuko leuke Euskalerrria'n. Zoritzarrez, Euzkadi'ko beste lurraldeek ez eben ain argi ikusi euren nortasuna, eta anai-arteke burruka zitaletan eunurteetan zear odolgetu ziran, Naparra'rekin eratu bear izango leukien Aberri baten laterria osotu barik. Odolez, izerdiz, eta malkoz ordainduko leukie euskotar guztiek Ama-lurrareki-ko izan eben axolagetasun edo ardurabakotasuna. Arana Goiri' tar Sabiñ'ek erakutsiko leuskie aberkideai, aztu egindako amaren egoera larria, eta artzeko zan bide bakarra euren Aberria ondapenetik jareitzeko.

Epailla'ren asierea zan, eta orduko, Undaitz'eko nagusiak bere barrutiko arazoak polito erabilten ebazan. Laster, gaztelua ta egokiozan aberastasunak, lengora, aitaren aldiatar biurtuko litzakez. Arazo askori begiratu bear izaten eutsan Yanoz'ek aldi areitan. Eta onezaz gainera, onularitzaren betekizunek noizean bein Eneko Aritza'gana eroaten eben.

Baiña oroz gain, egiteko zoragarri bat etenbarik gogoan erabilen, eta bere bizitza ames gozoakaz beteten eutsana: Oiane'ren oroitz bizi, maitagarria. Auxe zan Undaitz'eko gaztelua argituko leuken izar bardinbakoa, eta maite-miñez eraginda, Yanoz'ek udabariaren etorrera irrikatzen eban. Lakarri'ko jauregira bere maiteari mezu bat bialdu izan eutsan arestian, arazoak ondo joiazala jakiñerazoz, eta beraz, Oiane'k ezkontzarako eguna jarri egian. Astebete bat igarorik, neskatillearen erantzuna eldu yakon, gerturik egoala Orrilla'ren lenengo Iganderako esanez, eta orduko, arria ia gerturik ebala.

Barri onek ez titan jarri eban Yanoz, eta astirik galtzeke, bere emaztea gazteluan artzeko, bearrezko ziran lanai buru-belarri emon eutsen, egunek alkarri arin erraikioen-eta. Dorre goreneko aretoa, gurasoen izandako lo-gela, Agoitz'etik etorritako arotz on batek aalik ederren apaindu eban. Onezaz gaiñera, beste gora-beerak zaintzen ebazan, Oiane aalik ondoen bizi izan zeiten. Gazteluan baegoan guztitariko eunen, oialen, burusien eta beste gaien orniketa ugaria, eta alde onetatik ez egoan buruausterik. Azkenean, Yunilde'k bere amak garai baten erabillitako zalpurdi ederra, garbitu ta egokitu-erazo eban. Noizbait, dana gerturik billakatu zan Lakarri'ko bitxi ederra Undaitz'era ekarteko.

Epailla'ren asierako egun a oso zakarra goiztu zan, euri ta kaskabarraren jasa lodien artean iparreko aizeak zartada basatietan putz egifnez. Iñorako eguraldia ez izanik, sutondoan jesarrita, Igun'en laguntzaz Yanoz'ek kontuak atontzen ebazan iskilloraretoan. Leku guztietatik etorritako argibideakaz, bere bei, ardi ta beorren errolda egiten ziarduan, eta itxuren arabera, egun guztirako eginkizuna izango leuke.

Eguberdi-irian, janzkia urez blei-blei eginda erromes bat agertu zan, eta aldi areitan oikoa zanez, arraiki abetalduek eben, sukalde zabaleko sutondoan janzkia legortu zeiten jesarri-erazoten ebela. Ederra zan Undaitz'eko sukaldea, eta onetan zerbitzari ta gudariak otorduak izaten ebezan. Iparreko Galiatatik eta beste lekuetatik etozantzat, Santiago'rako bidean egoanez, gazteluan erromes arrotzai janari ta oatzea

emotsiezan, nortzuk ziran eta nondik nora joiazala itaundu barik. Etorri barriari, beraz, ez eutsoen galdera askorik egin, isiltsu ta aurpegia kapusaiaren txotoaz estalita, sutondoko garretan legortzen zala. Noizbait, bazkalordua etorri zan, eta arrotza, guda-ri ta zerbitzariaren artean jesarri zan, etxeko bazkari bakuna baiña bizigarriari ekiteko.

Erromesaren alboan egoan zerbitzariñe batek arekin izketan asi nai eban, baiña arrotzak itz labur, ulerteziñakaz erantzuten eutsan ezkeru, noizbait erromesarekin itz egiteari uko egin eutsan, eta beste alboko lagunarekin izketan asi. Alako baten, eta bazkaria amaitu-agiñean izanik, iñork jaramonik egiten ez eutsala, arrotza urrats isil-lez sukaldetik urten, eta arlastazko igarobidean zear bere irudi illuna galdu zan. Zerbait beranduago, atezaiñak ubi jasokorra beeratu eban erromesa urten zeiten, eta onen irudia kapusai illunpean arrastian ostendu zan, iñetasi ta iñusturien artean ekai-tza gero ta zakarrago biurtzen zala

Oi eban antzera, gau aretan apalostean zalditzaiñak lagunduta, Yanoz'ek egunoro-ko ikertaldia egin eban kortara. Gogokoa yakon oera baiño len etxeko zaldien egoe-rea egiztatzea, beorkumeena batez be. Dana ondo egoala ikusirik, zuzi bat artuta zurubian gora abiatu zan, goiko dorrean eban lo-gelara. Au, gazteluko ederrena zan, eta antxiña baten bere gurasoena izan zan. Ate baten zear, amildegi izugarriaren gai-ñean, ikusgai zauskagarria eskintzen eban, eta arrizko almindun sapaillu batera urte-ten zan. Gaba, baiña, ez zan iñongo begiraldirako egokia, eta ango atea erdi-zabalik egoala ikusirik, Yanoz erantzi zan oeratzeko. Urte askotan zear Irati'ko aize garbiari oituta, gogoñoa eban ate edegiaz lo egitea. Txoko baten, sutondoko txingar gorritzek apurka-apurka moteltzen joiazan, eta oera sartu zanean, ondo-izatearen oarpenaz egiztatu eban Yanoz'ek, txingar-ontziaz berotu izan zala.

Atsegiñezko asperena jaurtita, luze-luze etzanda jarri zan, eta oroimena Oiane'gana joiakiola, andik laster loak artuta bere arnas neurtua ekaitz zakarrean zear aditu zeitekean. Gaba aurreratu-ala, iñusturiak gero ta sarriago aditzen ziran, tximista igeskorrek unetxu labur bat az gelea dizdira iratxokaraz argitzen ebela.

Gaberdi-irian, iñetasi edo kaskabar-jasa lodien artean tximistek alkarri erraikio- en, durunda izugarriek gaztelua astintzen ebela. Alako baten, iñusturi burrunbatsu batek Yanoz iratzarri eban, eta jarraian beste tximist baten argi itsugarripean, sapaill- loko atean islatuta, mamu izugarria zirudian irudi bat marraztu zan. Iatz-ikara batek artuta, mamu-itxurako irudia bere billa etorrela oartu zan Yanoz, eta arin be arin zeo-zer egin bear izango leukela, eta ainbat areago iskillu barik izanik. Tximista baten argi igeskorpean, sastakai baten dizdira motela mamu aren eskuan ikusi aal izan eban.

Arnasari eutsiz, Yanoz aalik isillen izaren artean lerratu, eta oetik urtenda, jazo- kunen begira geratu zan. Erasotzailleak didar erlatsa jaurtirik, oera oldartu zan bein eta barriz sastakatzen ebela. Laster oartu zan, baiña, ukaldiak utsean galtzen yakoza- la, eta amorru bizipean, lo-gelea begiz arakatu eban. Beste iñusturi bat, eta ormaren ondoan marraztuta Yanoz'en irudia ikusi eban. Onen elburua, atean zear iges egitea zan, eta iskilloren bat artuta, erasotzailleari aurre egitera biurtu. Oea, baiña, bera ta

atearen bitartean egoan, eta ate-ondoan etsaia geldirik somatzen eban, zantzuren ba- ten begira erasoari jarraitzeko. Luze-luze zirudian une bat igaro zan, eta orduantxe...

Iñusturi batek gela barriri argitu eban. Sorturiko argiaz, Yanoz ormaren ondoan ikusirik, oe-gainetik zapart eginda, arrotzak eraso eutsan, baiña oraingo onetan be, il- tzaillaren sastakaiak utsean jo eban. Bereala, baiña, beste tximistaren argipean, Ya- noz aterantz oldartu zala ikusi eban arrotzak, eta oiuka eraso eutsan barriri. Illunditan alkar jo eben, eta orduan Yanoz'ek etsaiaren eskuturrari eutsita, onen eskua indar itzelaz arlastazko soru-gaiñean zapaldu eban. Miñezko oiuka bat jaurtita, sastakaia es- kutik yarei oe-azpitik ostendu zan, eta orduan eskuz-esku burruka itzela gertatu zan.

Arrotza indartsua zan, eta sorutik txirrindolan, noiz goian noiz beean etsai biok didarka ta arnas-estuka ukabilka jarraitu eben. Eta olan bira-biraka, sapailloko aterai- no eldu ziran. Arrotza, baiña, nekatzen asten zan, eta alako baten, Yanoz'en ukabilka- da indartsua okotzean artuta, konortea galdurik geldi-geldi geratu zan. Astirik galtze- ke, sutondoko txingarrakaz zuzi bat piztu, eta erromes-soiñekoz jantzitako arrotzaren aurpegia aztertu eban. Odolez estaliriko aurpegia, baiña, ezagutu-eziña izanik, urez blei-blei egoan kapusaiaren ertzaz aurpegia garbitu eutsan. Arritasunezko didarra menperatu eziñik,

–Zu, zu ostera, Fortun...! –jaurti eban.

Bitartean, arrotza bere senetara etorren, eta,

–Bai, neu nozu, Yanoz madarikatu orrek...! –mintzo kolokaz erantzun eutsan Fortun'ek soru-gaiñean jesarten zala–. Len "Iru Geziak"ko jaijan garaitu ninduzun, eta gaur, ostera be.

–Zer egin dautsut, baiña, orren gorroto izan dagidazun...?

Fortun'en begiak zorotasunezko dizdiraz piztu ziran, auxe iñotsala:

–Agertu ez ba'zintzaz, orain ni izango nintzake Undaitz'eko nagusia, eta azken urteotan izaniko nire ames bizia egi biurtuko litzakidan. Bai, aitor- seme izatera eldu- ko nintzakean. Naparra'ko onenatariko leiñukoa izan be. Errioxa'tik burrukan egin ondoren gaztelura biurtu nintzanean, eta zure aita Iroz il egin zala, eta zu ostendua jakin nebanean, apurka-apurka gaztelu onen nagusia biurtu neintekeala, amesaren antzera piztu yatan... Baiña orain zu etorrita, ames ori uskeri billakatu da...

Au esanik, Fortun zutundu zan, eta sapaillora urtenda, une batez iñusturiek argi- turiko ikusgai ederra begiztatu eban, eta begiak zoro-itxuraz piztuta,

–Orregaitik gaur biurtu naiatzu erailteko asmotan –esan eutsan–, baiña ostera be garaitu nozu, ni, Naparra'ko gudari ospetsuenatariko bat, eta nirea zana kendu dausta- zu... Gorroto dautsut, Iroz'en seme orreri... Eriotzarañoko gorrotoa izan be...!

Yanoz oartu zan orduan, Fortun zorotasunak jota egoala, eta mintzo adeitsuz,

–Aizu, Fortun –esan eutsan–, baretu zaitez eta entzun egistazu auxe: oraindiño zuretzat ez da galdu guztia. Gudari ona zara benetan, eta Naparra'ko erregea billakatu barria dan Eneko Aritzari zutaz mintzatuko natzaio, buruzagitzat jardun on bat emon dagitsun, eta bere ondoan ziur naz egunen baten aitor-semetza lortuko dozula.

—Gaztelu onen jabetza da gura dodana, eta besterik ez. Undaitz'ek bizirik nai ez ba'nau, ilda izango da...

Zuziaren argi gorritapean, Fortun'en aurpegiak zoraturiko deabru baten itxura erakusten eban, eta ikoti bat az almen bien arteko utsunean jarririk, amildegirantz bihurtuta,

—Bai, Undaitz'eko gazteluak ilda izango nau...!

Au entzutean, Yanoz oldartu yakon janzkiari eusteko, baiña kapusaiari eldu egitsan baiño len, aiuri basati bat az, Fortun'ek bere burua utsari jaurti eban. Yanoz amildegirantz makurtu zan, eta une aretan iñusturi baten argipean, zoribakoa beeko arkaitzetan lertzen zala ikusi eban.

Yanoz'ek begiak alderatu ebazan izuz beterik, eta latz-ikara batek artuta, gazteluko sukaldera jatsi, eta aurpegian ebazan zauriak urez garbituta, sutondoan jesarri zan, len jazoriko ikuspene gogotik kendu ezin. Orduak astiro igaro ziran, eta egun-sentian zerbitzariak agertuta, zeozer bero jateko atondu egioen agindu eutsen.

Eguna argi beteaz apaindu zanean, Yanoz'ek Igun'eri eta Murki'ri gabean jazorkoa edestu eutsen. Gero, gudari batzuk artuta, gaztelupeko arkaitzetara jatsi ziran, eta an Fortun gaixoaren zatituriko gorpua idoro eben. Orduan, gazteluko dorrerik goreneko almen bateri lotuta, Fortun'en gorputik ez urrun, soka bat dilindan ikusi eben. Zeatz onek dana argitu eban. Erromes-jantzi pean sukaldetik urtenda, gazteluko txoko guztiak ondo ezagutzen ebazan Fortun'ek, zurubian gora garaieneko dorrera igonda, kapusai pean eroian lokarria sapailloko almen bateri lotu, eta gero bide bardiñetik bihurtuta, gazteluko atetik urten zan. Inguruko atx baten babespean iraun eban, eta gero, sokaren bidez gora, dorreraiño, Yanoz ilteko asmoz.

Jarraian, lurrean obi bat aitzurkaturik, gazteluko gudarien buruzagi-oia lurperatu eben. Gaiñean egurrezko gurutz bakuna jarrita, iru Gure Aita esan ebazan. Yanoz'eri, baiña, bere aitaren buruzagi izana batentzat gitxi iruditu yakon, eta gazteluan oraindiño egozan Fortun'en aztamakillea ta ezpatea, obi-gaínean ipiñi ekiozan agindu eban. Gero, astiro ta itun, gaztelura igon zan, eta egun batzuk barruko samiña kendu eziñik iraun eban.

Laster, baiña, udabarriaren zantzua bazterrak alaitzen asi zan, eta onezaz batean, Yanoz'ek bere dendu ta poztasuna birrirabazi ebazan, eta lengo adorez jabetuta, laster etorteko zan bere emaztearentzat azkenengo egokitze-lanai emon eutsen.

Auñamendi'ko udabarri zoragarri pean, Naparra'ko zabaldia joranez gaiñezka bizitza barrira itxarten zala, Orrilla'ren asikeran, Igun gazteluan itzita, biurpenerako dana gerturik egon zeiten, Murki ta amar gudari artuta, Yanoz'ek Lakarri'rako bidea artu eban, bere biotzeko Oiane emaztea egiteko.

Goizean goizik urtenda, Aezkoa'n gora Irati ibaiaren ertzetik zaldiz abiatu ziran. Gero, oianera sartuta, illundu zaneke osaba Imoz'en arpera eldu ziran, eta emen aparria izanik, burusietan bilduta lo egiteko gertatu ziran. Yanoz'ek baiña, ezin egikean lorik egin, eta jagita, arpe-aurreko zelaira urten zan. An bertan, Oiane jaregin eta laster, gurasoen etxera eroan aurretik, neskatillarekin egun bi emon ebazan. Maitasuna zer zan jakin barik, aingeru antzekoa zan Oiane maite izaten asi zan, eta egunik-egun beragandik urrun aurkitu arren, maitasun garbi arek etenbarik bere gogoetan iraun izan eban, bizitzeari sen berezia emonez. Jaungoikoak mutillaren bidean jarrita, galduta dabillan bidariari agertzen yakon izar gidariaren antzekoa billakatua zan.

Buruz-buru eban leizeako sarrerea beti lez agertzen yakon; alde bat az, baiña: goikaldetik beti eskegita egon zan osaba Imoz'en ezpatea ostendu izan zan, Irati'ko eremulariari askatasuna ta bakea ekarririk. Osaba Imoz'ekin iraundako amar-amaika urteak ez litzakiozan iñoiz aztu egingo. Baso eder zoragarri aretan osabaren laguntzaz gizon billakatua zan, eta amabost urteko zala maite-maite eban aita galdu ebanean, onen anaiagan, osaba Imoz'egan, galduriko aita neurri baten idoro izan eban. Leku aren txoko ta bazter guztiak ezagutzen ebazan, eta Undaitz'en urrengo, Irati'ko oiana biotzean eban.

Baiña oroz gain, aitaren agindua bete izanaren sentipen biziak barruko bakea ekarkion, eta ainbeste naigabe ta burrukaren ostean, Undaitz'eko gazteluan bere leiñuari jarraipen emoteak iñoiz ez ezaguturiko zorionez beteten eban. Eta orain, undaitzarren endari kimu barriak ekarriko leuskiozan Oiane'ren billa joian, gazteluari izar jaukala emotearren. Lakarri'ko neskatilla zoragarria ezagutu ez ba'leu, Eneko Aritza'ren eskintza onartuko leukean, aurki, eta Naparra'ko andienetariko bat billakatu litzakean. Orain, baiña, argi ikusten eban bere eginkizuna Undaitz'en egoala, oroz gain maite eban emakumeari betirako lotuta, eta ondorengoekin lokarri ori indartuta.

Luzaro samar iraun eban Yanoz'ek gogoeta kutun oneiri emonda. Izarrek, baiña, berandu samar zala adierazoten eutsoen, eta urrengo eguneko bidegitea zaila izango

zanez, asperen bat jaurtita, leizera sartu, eta burusian bilduta, ames egiteari jarraitu eutsan.

Egusentia barik, bidariak, jagi, gosalduta, eta zaldizka, Irati'ko iparraldetik Mendibeltz'eko egian zear Apurra errekaraiño jatsi ziran. Emen, bazkaria ta atsedena izanik, Lakarri'rako azken bide-zatiari ekin eutsoen, eta gau betea zanean, Jauregizar'era eldu ziran. Etxekoak zain egozan, eta arrera maitetsua egin eutsien. Oiane Yanoz'en besoetara oldartu zan, begiak maitasunezko argiz piztuta. Baziran zortzi illabete-edo, azkenengoz alkar ikusi ebenetik, eta orain, Yanoz'eri Oiane iñoizkorik ederren iruditu yakon. Bost bat urte igaroak ziran neskatilla zoragarria ezagutu ebanetik, eta egun gitxiko epe laburra kenduta, urruntasunaren zear etenbako ames egiteari oitu izan ziran. Orain, baiña, betirako alkartuko litzakez, luzaro itxarotako Undaitz'eko paradisuan.

Apari naro ta alaia izan eben, eta alkarrizketa bizian, berandu samar egin yakon. Jauregiko gela zabaletan urrengo eguneko berandurarte lo egin eben, eta gosalduta baiño ez, Oiane'k arrioa erakutsi eutsan Yanoz'eri. Bikaiña zan, eta senargaiari larregi iruditu yakon.

–Baiña Oiane maitia, uste al-dozu Undaitz'en, eun, izarak, burusiak-eta ez doguzanik, orren arrio aberatsa atondu dagizun...?

–Ez zaitez asarratu, Yanoz, baiña Jauregizar'ko alabeari dagokiona da. Gaiñera, orrek astia emoteko lagundu daust, eta gaiñera, biontzat izango litzakela bururatzen yatanean zorionsua nintzan.

Irribarrez begiratu eutsan Yanoz'ek, eta biok eskuak alkarri eutsirik, etxetik urten, eta etxaurreko aulki baten jesarrita, alkarri esan eutoen euron amesak. Bazkalostean,

–Aizu, Oiane –esan eutsan Yanoz'ek–, biar ezkondu, eta etzi Undaitz'era joango garan ezker, arratsalde au soillik dogu gure aukeran. Zer deritxazu, beraz, zauritu ninduen ganetxura joan gaitezelari...?

Oiane'k irribarrez begiratu eutsan, ondo bai ondo ekialako bere senargaiak nai ebana, eta auxe izan be: Txartxa'ren obia ikertzea.

–Bai, Yanoz, burutapen ezin ohea otu yatzu, eta gaiñera, bidea zoragarria da.

Arratsaldeko edertasunak inguratuta joan ziran ba, ganetxura, eta andik ordu bitara, Txartxa'ren obia bereizten eban illarri-ondoan ziran. Une luze batez egon zan Yanoz isillean. Gero, Oiane'gana biuruta,

–Goazen, nire maitia –esan eutsan–, biurtu gaitezen etxera.

–Yanoz, zer egin dozu orren luzaro artzaren obi-ondoan...?

–Begira, Oiane kutuna, Txartxa'ren alde ezin izan dot otoitzik egin, abereek ari-marik ez dabe-ta, baiña berarekin autu bat izan dot...

–Zer esan dautsazu, Yanoz...?

–Esan dautsat gogoan beti izango dodala, eta abere bat mundu onetan maite dai-
teken baiño areago maite izan dodala beti, eta zabaldian zear noanean, ikusten eta

entzuten dodan guztiak bere irudia ekarten daustala. Bai, uts emoten dautsadazala bere laztanak, eta batez be, arrelepoan tximista baizen azkar nindaroanean...

–Eta berak zer esan dautsu...?

–Ezer ez, Oiane, baiña iruditu yat aurrean nebala, eta berak maitasunez gaiñezka begizatzen ninduala oi eban antzera, nire berbak entzun edo nire laztanak artzen ebazanean. Abereek ez dabe itz egiterik, baiña... Txartxa maiteak berba egin aal ez arren be, oso ondo ulertzen eustan beti. Goserik ba'zan, burua alde batera makurtzen eban, eta arriak bigundu leukezan moduan begiratzen eustan, kurrinka negartsuak jaurtiz. Burua igurtziten neutsanean, atsegiñezko erron-erron bataz erantzuten eustan, zorion utsaz begiak ixten yakozala. Besteetan, berak maite izaten ninduala be adierazoteko, miin latzaz aurpegia miazkatzen eustan... Azken baten bere bizitza nire alde eskiñi eban... Nire Txartxa zan zintzoa...!

Isildu zan une batez, eta gero,

–Ez dot anai-arrebarik ezagutu –jarraitu eban Yanoz'ek–, eta ez dakit, beraz, anai-arteko maitasuna zer dan, baiña Txartxa'ri neutsan sentipenaren antzekoa izango dalakoan nago...

Oiane'k buru txanbeliña Yanoz'en besaburuan jarri, eta maitasunez begiratu eutsan. Mutillak burua makurtu, eta aren ezpanetan mosu luze maitekorra jarri eban, eta gero,

–Ez gaitezen atsekabetu, Oiane; gogoan izan dagigun gure maitasunak betirako iraungo dauala, eta biar ezkontzaren loturak batuko gaituala.

–Bai, Yanoz, urteetan zear itxarotako zorion-amesa egi biuruko dan eguna.

Arrats-beera zan, eta zabaldi ederrak urrez jantzita zirudian, eresiz, margoz eta usaiñez gaiñezka. Jauregizar'era eldu ziranean, Aztobizkar atzetik, odei gorritzek eguzkiaren eriotzari beila egiten eutsoen, alargunen soñeko baltzaren begira. Auñamendi garaiko mendietatik, iretargiaren aurpegi betea urteten zan ezkongaiari ongi-etorri isilla emonez.

Urrengo egunean, barruti aretako ezkontz-janzki bikaiñaz Oiane atadian agertu zanean, bazirudian goiz aretako eguzkia ta ortzi oztiña bera agurtzeko etorriak zirala. Eta Zuberoa'ko Lakarri'ko bitxia danek begizatzen eben, aurrean aingeru biurturiko lora bai'leben.

Aitak lagunduta, Oiane zalpurdira igon, eta gurasoen artean zaldien kaskabilloen soñuaz abiatu zanean, Yanoz'ek zuzenduriko, Undaitz'eko gudariak iru irrintzi ozen jaurti ebezan. Atzetik Jauregizar'ko seme biek eta artzain-zerbitzariak erraikien. Noizean bein burua atzerantz biurtuta, Oiane'k irribarre gozoa bialtzen eutsan senargaiari. Jauregizar'ko Joanes'en anai prailleak ezkondu ebazan, eta alkarri baietza emotoela, zorionezko malkoak isuri yakozan Oiane'ri aurpegiaren beera, maitasunez gaiñezka Yanoz'ek begiratzen eutsala.

Eleizatik urteteen, Undaitz'eko gudarien aztamakillen pean igaro ziran ezkon-

barriak, ikusleen txalo ta aldarrien artean. Etxerakoan, Yanoz'ek ugalkak erabillezala eta Oiane alboan ebala, zalpurdian biurtu ziran.

Eztegu-bazkaria bikain eta ugaria izan zan, Jauregizar'ko alaba bateri egokionez, eta bazkalostean, berariz ekarritako txirula-jotzaille onenek jaia alaitu eben illuntzerarte. Gaberdian, eta egun aretako gora-beerakaitik nekatuta, ezkon-barriak oeratu ziran, urrengo egunean Undaitz'erako bidaia egiteko.

Goizean goizik jagi ziran, eta etxeakoandik agurtuta, ezkon-barrien jarraigoa mendian gora abiatu zan. Bide malkartsu areitatik zalpudi-erabilterik ez egoanez, Oiane'ren arrioa sei mandok eroien, eta gudariak inguratuta, Yanoz'en zaldi-gaiñean ezkon barriak joiazan, Oiane bere senarraren besoek inguratuta aurrean jarrita egoala.

Irati'ko arpera eltzeko egun bi erabili ziran, eta emendik Undaitz'eko gazteluraino beste bi. Noizbait, Oroz-Betelu igarota, laugarren eguneko arrastian, Labia mendikateko egietara eldu ziran. Alako baten, bideko okergune bat igarorik, Yanoz'ek zaldia geldierazo, eta besoa gorantz zuzenduta,

–Begira, maitia –emazteari esan utsan–, axe da gure egoitza.

Arkaitz baten erpiñean, zerurantz zuzenduriko geziak bai'litzazan, amildegi izugarri baten gainean, Undaitz gazteluko dorreak marrazten ziran. Leku batetik ezcan, au da, Larracta'ko zelaiari lotuta egoan lekutik, beste enparaua amildegi utsaren gainean eraikia zan. Ikusgai zauskagarria benetan, lenengo ikustean batez be.

–Oiane, orra or Undaitz'eko gaztelu malkartsua, edo zaldun batzuk esaten dabenez, "Odeien artean ames dagian gaztelua". Leku basatia da nire jaiotetxea, eta bakar-tasun orretan biziarea ez da erraza, baiña bera barik, ez dakit bizi aal izango neuken...

Oiane'k ezin egikeazan irudi zirrargarri aretatik begiak kendu, eta noizbait, berekiko mintzatu bai'litzan,

–Gaztelua dan ederra...!

Zorion bakan esan-eziña Yanoz'ez jabetu zan emaztearen oneritxia entzutean, eta auxe itaundu utsan:

–Ez al-zara Undaitz'eko bakartasunean aspertuko, nire maitia...?

–Zoriona, Yanoz, ez datza gizarteko zaratan eta sasi-dizdiran, norberaren barruan baiño. Nirekin zaidazan artean, ez dot iñongo gauzarik uts emongo...

Pozez gaiñezka, Yanoz'ek zaldia zirikatu, eta gazteluraino kiribilkatzen zan bide aldapsuan gora abiatu ziran. Bide ederra zan areitzen artetik luzatzen zala lenengo zatia, baiña gaztelura urreratu-ala, pagoek ordeztuak ziran. Gudari bat aurreratu zan ugazabaren etorrerea iragartearren, eta ordubete bat igarorik, gaztelu-aurreko zelaira eldu ziran. Orduko, zubi jasokorra etzanda egoan, eta turuta-joten artean barruko larraiñera sartu ziran. Launazko gudarien erreskada bien artean igaro ziran, oi ta irrintziak aditzen zirala. Orduan Yanoz zalditik jatsi, eta Oiane besoetan artuta, bere ondoan jarri eban, eta ikusleak isilleraoz, auxe aldarrikatu eban:

–Gudari ta zerbitzariok...! Ona emen Oiane nire emaztea, eta gaztelu onen nagu-

siñea. Aurrerantzean, beronek aginduari beste barik men egingo dautsazue, neronek agindua bai'litzan. Maite izanez gaiñera, begirunerik andienaz erabiliko dozue, Undaitz'en nagusiñeak beti erabili izan diran lez, eta bearrezkoa ba'litz bizitza bere alde emongo dozue. Eta orain nirekin batean didar egizue: Gora Oiane Undaitz'eko nagusiñea...!

Eundik gorako didarrek erantzun eutsoen bein eta barriz jauregiko Andrea goratuz. Jarraian, Yanoz'ek bana-banan morroiak aurkeztu eutsazan Oiane'ri. Lenengoa, Igun, etxeko zerbitzarien nagusia zana. Oiane'k onen eskua berenetan arturik,

–Asko esan daust zuri buruz gaztelu onen nagusiak, eta benetan eskertzen daustut Undaitz'en alde zuk egiñikoa.

Jarraian, Yanoz'ek Amañe aurkeztu eutsan. Au, morroiek oi eben antzera makurtu zan, baiña Oiane'k besarkatu eban auxe zirautsala:

–Zu ez zara nire aurrean makurtuko, Amañe. Neurri baten nire senarraren ama izan zara, jaiota gero zeuk bizirik iraun-erazo zenduan-eta. Etxe onetan, beraz, amatzat izango zaitut.

Amañe'ri malkoak mara-mara eriozan aurpegian beceera, auxe iñotsala:

–Bedeinkatu zagizala Jaungoikoak...!

Gero, Yanoz'ek beste morroiak aurkeztu eutsazan, baktxarentzat Oiane'k berba maitekorrak ebazala. Amaitu ebanean, Yanoz oartu zan bere emaztea nekatuta egoala, eta augaitik, apaltzeko zeozer euren gelara igon egien agindurik, Oiane Amañe'ren zaintzapean itzi eban ur epelaz garbitu egian, eta zaldiak ikertzearren kortatik oi eban osteratxua egiñik, eta urrengo egunerako aginduak emonda, goiko dorreko lo-gela nagusira igon zan.

Eldu zanean, txabutx garbi baten bilduta, Oiane sutondoan egoan. Sasoi aretan eguraldia ez zan otza, baiña atsegiña zan mukurren garrai begiratzea. Besarkatu ondoren, eskuari eutsita, Yanoz'ek sapaillora eroan eban, Undaitz'eko barrutia ikusi egian. Begiratoki au biribilla zan, eta augaitik, beraz, ikuspegia neurribakoa.

Aralar'en atzetik eguzkia ilten zan lits gorritzat amesgarria guztiari emotsala. Ikustoki zauskagarri aretatik, aurrean zabaltzen zan edertasuna Oiane'k isilleen begiztatu eban, iñoiz ez ezagaturiko zorion bakanpean. Yanoz'ek ezin egikeazan emazte zoragarriagandik begiak alderatu. Egoalderantza, illunabarko lenengo artizarra dizdiraka ikusten zan ortzi gardenean, eta Oiane'k orduan,

–Begira, Yanoz –esan eutsan–, badirudi Undaitz'era "Ongi Etorria" emon gura dauskuala artizar jaukal orrek.

–Izar orrek, zuri, Undaitz'eko izar barriari "Ongi Etorria" emon nai dautsu.

Gabaren besana illuna danatzaz jabetzen zan. Ibarrean gora, isiltasun gozoak Undaitz'eko gaztelua scaskatzen eban. Alako baten,

–Egia da, Yanoz –esan eban Oiane'k mintzo leunaz–. Auxe da benetan "Odeien artean ames dagian gaztelua". Berarekin batean geuk be ames egingo dogu, ezta, Yanoz...?

–Ni amesetan nagotzu jadanik, Oiane.

–Zein ames, Yanoz...?

–Seme bat emongo daustazula, Naparra'ren onerako Undaitz iraun-erazo dagian.

–Bai, Yanoz, olan izango da Jaungoikoak lagun.

Gero, illunabar yaukalean alkar besarkatu eben, eta Undaitz'eko nagusiak gelara sartu ziran.

ARNAUT'EN EDESKIA

Aberrirako bidea asteko zorian Yanoz'eri agur esan neutsanean, atsekabe larripean Arritza'ko nire egoitzara biurtu nintzan. Maite izaten doguna galdu arte, ez dautsagu uts emoten, eta Yanoz galtzean jakin neban lagun-min bat galtzea zer zan. Oarzteke biotzeraiño sartu izan yatan Undaitz'eko Yanoz, eta agur arek naigabetzen ninduan, ordurarte inoiz ez beste.

Urrengo egunean, arek agindua betetearren, amari "laster arte" esanda, jakepean Undobika Dukearentzat billobearen idazkia neroiala, Marzak'era abiatu nintzan. Yanoz'ek bere eskutaria egin ninduan, nai-ta-ez zaldiz joaten ikasi bear izan neban, eta aldiaren bidean atsegiña azaldu yatan. Augaitik ba, eta Arritza'tik Marzak urrun samar egoanez, urten eta lenengo errian merkatu-eguna izanik, ontzurre batean zaldi bat erosi, eta traka-traka nasaiaz udabarriko egun eder aretan iparrerantz jo neban. Zaldia ez zan onenatarikoa, baiña neu lako erdipurdiko zaldizkari batentzat ez zan makala, eta gaiñera, ontzurre bategaitik ezin geiegi eskatu.

Seigarren egunean arrats-beera zala, Undobika Dukearen jauregi ederrera eldu nintzan, eta astirik galtzeke, Duke Jauna ikusi bear nebala esan neutsan atezaiñari.

–Noren alde...? –itaundu eustan.

–Arnaut, Yanoz Jaunaren eskutariaren alde.

Itxura pekotiz goitik-beera begiztatu ninduan gudari arek, eta joanda, andik amar bat miñutora zaintza-buruzagia etorri yatan, adeitsu auxe iñostala:

–Sartu zaitezala diño Duke Jaunak.

Laster nintzan bere aurrean, eta oiko gurtzak egiñik, Yanoz'en idazkia eskuratu neutsan. Irakurri bitartean, asarrezko keiñuak egiten ebazan, eta irakurketea amaituta, gudarostearen gudaiburua aurkeztu ekion agindu eban, eta etorri zanean, suminduta auxe esan eustan:

–Biar egunsentian Yarre'ra abiatuko gara. Gertatu egizuz ogei euneko talde ango gazteluari erasoteko. Zuekin joango naz.

–Bai, Duke Jauna.

Jarraian, Undobika'k bere alboan jesarri-erazo ninduan, eta Yanoz'eri buruz nekiana, au da, geisorik Arritza'ra etorri zanetik, sei egun lenago Naparra'ra biurtu arte, jazorikoa edestu neutsan. Amaitu nebanean,

–Entzuidazu, Arnaut –esan eustan–, geratu zaitez jauregian lo egiteko, eta biar

goizean nai ba'dozu etorri zaitez, Yarre gazteluko jendearen zigorra ikusi dagizun. Agur, eta biar arte.

Joan nintzan jauregiko sukaldean ziarduan Kirgis nire lengusua ikustera, baita bidebatez Sugelin be, eta biokin autu atsegiña ta aparria izanda gero, morroien gelan lo egin neban. Biaramonean goizean goizik jagita, zaldia artu, eta jauregitik urten nintzan. Orduko, bi milla zaldizko gudalburuaren agintzapean urteteko zorian ziran, eta Undobika Dukea "Orion" zaldi zuri ederraren gaiñean agertu zanean, turuta-joten artean egorantz abiatu ziran lauazka bizian. Arein atzetik oldartu nintzan, baiña "Potxi" nire zaldi gaixoa gudakoia ez izanik, bai osterata otzan eta eskurakoia, laster atzeratuta billakatu nintzan. Ain zuzen be, txanpon bataz, urrezkoa izanik be, ezin nengikean egodun zaldirik eskatu.

Olan ba, eta iradu barik "Potxi"ren aukeran niñoala, zazpi egunen buruan, Yarre'tik biurtzen zan Dukearen gudarostearekin gurutzatu nintzan. Undobika Dukeak ikusi ninduean, gelditu zan, eta,

–Aizu, Arnaut –irautsi eustan–, Yatxiñ'eri, Konte Baltza'ren bigarren semeari merezitakoa emon dautsat. Gerin seme nagusia, ezin izan dot aurkitu, baiña Yarre'ko gazteluaz yabetu naz, eta oraingo onetan, Bertrandarren leiñuak ez dau iñongo gaztelurik ezagutuko. Yarre'koa, zintzo-zintzo urte askotan Akitani'ko zerbitzuan jardun dauan buruzagi batentzat izango da. Agur, Arnaut.

–Agur, Duke Jauna –erantzun neutsan–.

Joan ziran, eta iñorako iradurik ez izanik, Yarre'tik igarotea erabagi neban. Urrengo egunean urira elduta, ibaiaz bestaldean izaro baten eraikia zan gaztelura urreratu nintzan. Ibaiaren ertzetik itzaltsu ta erraldoia jagiten zan Bertran'darren egoitzari begiratu neutsan, eta... latz-ikara batek alderik-alde zearkatu ninduan. Gorengo dorretik, urkatu baten gorpua soka loditik eskegita, aizeak eraginda kulunkatzen zan. Begira ta begira nengoala, andik etorren egurlari batek,

–Bai, begiztatu ondo –esan eustan– Konte Baltza'ren bigarren semearen gorpua. Tamala da, Yatxiñ'en anaia dan Gerin, or be dilindan ez izatea. Enda madarikatu orrek, gure lurraldera ez dauz besterik ekarri gose ta eriotza baiño.

Gorantz begira nengoala, bapatean gomuta bat burura etorri yatan. Orain ogei bat urte umetxua nintzala, ezerezkeri bategaitik, Konte Baltza'k aginduta nire aita urkatu izan zan... Zarrastada itzelak artuta, gorpu aregandik begiak kendu, eta andik laster Yarre uria ta gaztelua betirako itzi nebazan. Iru egunen buruan, Arritza'ko nire egoitzan ama besarkatu neban.

Yanoz'ek baiña, beste agindu bat emon izan eustan, eta urrengo egunean "Eiztariaren Ostatu"ra bideratu nintzan. Eldu orduko bazkalostea zan, eta jatokia txukuntzen ziarduan Nunile ikusi neban. Mai baten ondoan jesarri, eta edontzi sagardao eskatu neutsan. Ekarrita gero, nirekin jesarri zeiten bein eta barrero eskatu arren, berak ikarati ezetz, bere jarduna amaitu baiño len ezifiña zala esan eustan. Itxaron neban ordubete ta erdi, eta noizbait nire aurrean jesarri zan erabeti.

–Aizu, Nunile –itaundu neutsan–, ezagutzen ete nozu...?

–Bai, Jauna. Arritza'ko Arnaut zara.

–Baita onezaz gainera, Undaitz'eko Yanoz'en adiskide andia be, Nunile, eta izan be, arek niri aginduriko mezu bat emotera natortzu.

Yanoz'en izena entzutean, errentxuaren begiak argiz bete ziran, eta mintzo dardartsuz,

–Mezu bat niretzat, diñozu...? Nitzaz oroitzen al-da oraindiño...? Non dago bera...?

–Naparra'ra, bere aberrira biurtu da orain illabete bat-edo, baiña joan aurretik, agindu bat emon eustan zuretzat.

Au entzutean, biotz-ikara andipean Nunile'ri biotza taupada zorotan asi yakon, eta abots unkituaz,

–Esan, Arnaut, zein agindu emon eutsun niretzat...?

–Lekaimetxe batera sartu, Jaungoikoa ezagutu dagizun.

–Ai, ni gaixoa...! Nora joango naz ni, "Eiztariaren Ostatu"ko neskame ezain, erren eta zoribakoa...?

–Zeuk nai izatekotan, lekaimetxe on batera. Yanoz'entzat ez zara iñongo neskame ezaiñik, basalore ederra baiño. Bere aititak emoniko ontzurreak zuri dotetzat emotea agindu eustan, eta orregaitik emen nozu. Jakin gura dot, beraz, gerturik eta zagozan lekaimetxe batera sartzeko, eta baietz izatekotan, nik billatuko dautsut leku on bat.

–Bai. Yanoz'ek olan nai ba'dau, gerturik nozu.

–Orduan, Nunile, lurralde onetako lekaimetxe batzuk ikertuko dodaz, eta ondoen iruditu dakidana, zure egoitza biurtuko da. Luzaro barik emen izango nozu barrero. Agur, Nunile.

–Agur Arnaut, eta eskerrik asko.

Alde egin neban, eta "Potxi"ren bizkar-gaiñean, lurraldea iradu barik zearkatuz, zenbait lekaimetxe ikertu nebazan. Azkenerako "Yosu'ren Mirabeak" berariz itzi neban. Lekaimetxe onen Abatiñea ezagutzen neban, prailleekin emondako urteetan, noizean bein lekaimetxe gogo-iñarkunak emotearren eta autortzeko, Anastas izenenko lekaideari laguntzen neutsalako. Abatiñeak ni ikustean ezagutu ninduan bereala, eta orduan Nunile'ri buruzkoa esan neutsan. Lekaime-mota bi egozala azaldu eustan berak: korukoak eta zerbitzariak. Azken oneik ez eben doterik ekarri bear, baiña korukoek ogei ontzurrez ekarriz gaiñera, eskolatuak izan bearko leukie.

Agur esan neutsan Abatiñeari, eta ostatura biurtuta, nire asmoak azaldu neutsan Nunile'ri, eta onek baietza emonda, nirekin Arritza'ra eroan eta amaren zaintzapean itzi neban. Bitartean, irakurten eta idazten irakatsi neutsan, eta izan be, nik uste baiño ariñago ikasi be. Astebete gitxi batzuk igaro baiño ez, Idazti Deunak parra-parra irakurritz gaiñera, iradatzi nebazanak polito idazten ebazan. Noizbait, udako goizalde eder baten "Yosu Mirabeak"en lekaimetxera abiatu gintzazan, eta "Potxi"ren gaiñean traka-traka, urrengo eguneko arrastian eldu gintzazan. Abatiñeak artu gindu-

zan amultsuki, eta eskolatua ete zan jakitearren urrengo eguneko bazkalostean, azterketa zeatza egin eutsan, eta izan be, Nunile'k guztiz ondo jardun eban.

Abatiñeari doteko ogei ontzurreak eskuratu neutsazanean,

–Aizu, Abatiñe agurgarria –esan neutsan–, diru oneik Akitani'ko Dukearen billo-beagandik datoz, neskatilla onek bere alde egiñikoa ordaintzeko, bizitza zor dautsota. Zuek Nunile begirunerik andienaz erabilli dagizuela da bere gurari bizia. Lokatzaren artean sortzen dan basalore ederraren antzekoa dala esan eustan, eta neskatilla onentzat zoriona nai ebala, Jaungoikoagan aurkitzen dan zorion betea, izan be.

–Nasaitu zaitetz, Arnaut –esan eustan Abatiñeak–, gure arteko beiñena maitasuna da, baiña nire zaintza bereizipean izango dan basalore au, orain arte izandako zorigaitza, poztasun eta maitasuna biurtuko yako. Agur, Arnaut, eta aal dagizunetan, zatoz Nunile ikertzera.

–Agur, Abatiñe agurgarria.

Gero, eskuetan Nunile'ren aurpegiñoa artuta, bekokian apa-laztan bat ipiñita,

–Agur, Nunile, urrengorarte –esan neutsan.

–Agur, Arnaut, niganako guztiz ona izan zara.

Malkoak erorkiozan aurpegian beera, eta zauskadea ezkutatzearren, urten, eta etxerakoa egin neban, Nunile'ren aurpegiño goxoa ta begi baltz andiak gogotik kendu eziñik.

Arritza'n oiko biziareari emon neutsan, eta ama lengoa ez izanik, begimena ta eskuen trebetasuna uts egiten asten yakozan-eta, lengo lan gogorra debekatu neutsan, eta astia emotekoak soillik lagatzen neutsazan. Geratu yatazan ontzurreakaz aalik ondoen zaindu neban. Berak ez eban gauza andirik bear, eta gaiñera, Yanoz'ek uztai-geziak erabilten irakatsi eustanez, beti eizaki ona ta basotik arakoa bagenduan gure aukeran.

Lau urte geiago iraun eban amak, eta orio urritzen yakon kandelatxu baten antzera itzungiten joian. Gau baten, egun batzuk jagi barik oean zirauala, dei egin eta auxe esan eustan:

–Banoa, Arnaut, zure aitagana. Noizbait, berarekin alkarteko ordua etorri yat, eta zoriontsua naz, baiña zu seme laztan ori, zer billakatuko zara...?

–Ez zaitetz larritu, ama. Naparra'ra Yanoz'egana joango naz, orixe bein baten agindu neutsan-eta.

–Zuzen zagoz, seme. A baiño nagusi obarik nekez aurkituko zenduke. Noan lekutik lagunduko dautsut. Agur, seme.

Gau guztietan oi neban antzera mosu bat emon neutsan, eta berak oi baiño besarkada estuagoaz erantzun eustan. Urrango goizean, lo-antzean illik egoan, eta aurpegia iñoizkorik baketsuen eban. Berak sarri askotan agindu eustana bete neban, eta errekatxu mee batek laztanduriko zelaitxu baten obiratu neban. Egurrezko gurutz batez aren obia bereiztu, eta obi-ondoko bedarrean belauniko otoi egin neban; gero leizera biurtuta, samieñzko negar luze etsiari emon neutsan.

Arrezkero, ez neban ezer Akitani'ra lotu ekidan, eta Yanoz'egana joatea erabagi neban. Nire gauza urriak batu, eta lotuki baten "Potxi" zaldiaren gaiñean jarrita, udako goiz eder baten bidegiteari ekin neutsan. Ez nintzan zuzen-zuzen joan, baiña, Nunile'ri azken agurra esan gura neutsalako, eta augaitik saiestu nintzan "Yosu'ren Mirabeak"en lekaimetxera. Urrango eguneko arrastian elduta, Abatiñeak pozik abaltdu ninduan, eta jarraian, Nunile azkenengoz ikusi nai nebala esan neutsan. Laster azaldu zan errentxua, eta ikusi ninduan aurpegiñoa atseginez argitu yakon.

–Arnaut –esan eustan–, au nire poza...!

–Baita neuria be, Nunile. Itxura ona erakusten dozu, zoriontsua al-zara etxe onetan...?

–Bai, mundu onetan izan daiteken beste. Orain gitxi dala, inguruko neskatoen irakasle izendatu nabe, eta jardun au gogokoa dot, benetan. Eta zeuk, Arnaut maite orrek, zer diñostazu...?

–Ama il barria dot, eta lur onetara lotu dakidan ezer ez izanik, banoatzu emendik urrun.

–Tamala dot zure amarena, Arnaut, eta bere alde eskatuko dot. Esan, nora zoaz...?

–Euskalerrri'ra, Yanoz'en Undaitz'eko gaztelura. Azkenengoz ikusi nebanean, berarekin joan neinten eskatu eustan, baiña nire betekizuna amarekin egoan orduan. Orain, baiña, jarei billakatu nazan ezker, aregana noa. Aizu, Nunile, zer esango dautsat zure alde...?

–Esaiozu... Jaungoikoa aurkitu dodala, eta onek aberatsa ta zoriontsua biurtu nauala. Egun guztietan ta uneoro nire gogoan eta otoitzetan dodala. Merezi dauan baizen zoriontsua izango al-da...!

Nunile'ren begi andi, eder, goxoetan malkoen dizdira ikusi neban. Dana esana zan, eta agurtzat bere eskuai eutsirik, mosu bana ipiñi neutsen. Eskuak ziran txairo ta leunak...! Nork ezagutu aingeru arenetan ostatuko lengo neskamearen esku latz eta gorritzak...!

Saman korapillo bat eratu izan yatan, eta azkenengoz begiztatzen nebala,

–Agur, Nunile –esan neutsan.

–Agur, eta Jaunak zu ta Yanoz bedeinkatu zagiezala...!

Etxe aretatik urten-agiñean nintzala Abatiñea ikusi neban, eta,

–Agur, Abatiñe agurgarria –esan neutsan–, pozik noa, Nunile zoriontsua dala egiztatzean.

–Bai benetan. Aingeru baten antzekoa da, eta lekaimetxean danok maite-maite dogu. Agur, Arnaut, Jaungoikoak lagun dagizula.

Arrats-beera zan, eta zabaldia urrez eta bakez blei-blei agertzen yatala, egorako bidaia asi neban iradu barik, elburura etenbarik urreratzen nintzala. Uda-miñeko egun ederrak ziran, eta noiz "Potxi"ren gaiñean traka-traka, noiz oiñez aren abo-ugalari

entsita, bidegiteari nerraikion. Bein baten, bide-ertzean iturri ederra ikusi neban, eta andik igaro zan egurlari bateri,

–Aizu, lagun –itaundu neutsan–, ur gozotako iturri eder oneri zelan deritxa...?

–Mizan'go iturria.

Zauskada batek jabetu ninduan izen ori entzutean, Yanoz'ek esan eustalako, Aturri ibaia zearkatuta gero, leku onetan erasorik, konortea galdu izan ebala.

–Orduan –erantzun neutsan–, Aturri ibaia ta "Azeri Gorria" ostatua ez dodaz urrun.

–Ez, emendik ordu-erdira gitxi gora-beera.

Bideari jarraitu neutsan, eta luzaro barik baso-soil baten "Azeri Gorria" ostatua agertu yatan. Sartu nintzan, eta edari otz bat eskaturik, ostalariari,

–Aizu –galde egin neutsan–, ibaia zearkatzeko, bai ete da txaluparen bat-edo...?

–Bai, zoaz ibaian gora, eta ordu lauren batera baldus bat idoroko dozu.

Esandako zuzenbidea artu neban, eta andik laster zutoin eta olezko kai batera eldu nintzan. Une aretan bertan, mutil gazte batek eragindako, baldusa urreratzen yatan. Begira nengoala, gomutara etorri yatan Yanoz'ek esana, eta auxe alegia: Txorki txalupari salataria, berrogei bat urteko zala. Une aretan, baiña, baldusa erabillena ogei bat urteko mutilla zan.

Kairatu zanean, "Potxi" ta biok ontziratuta, ertzerik-ertze edatua zan sokeari eutsirik, andik laster beso-endarrez ibaian zear abiatu gintzazan. Alako baten, Txorki'rena burura etorri yatan, eta,

–Aizu, gazte –itaundu neutsan–, oker ez ba'nago, orain urte batzuk leku onetan Txorki izeneko txalupari batek ziarduan. Zer billakatu da...?

–Nire osaba da, eta bizirik dago, baiña burutik eginda.

–Zelan ba...?

–Bein baten, orain lau urtebete-edo, gazte indartsu batek Akitani'ko ertzetik Euskalerrri'kora igaro egian beartu eban. Gaztea euskalduna zan, eta berarekin iñoiz ez ikusiriko artzik andiena joian, gaztelua baizen garaia, ain zuzen be. Euskaldun gaztea akitaniar gudari-talde batek jazartuta etorren, eta aalik ariñen igaro egian agindu eutsan. Ikara baten, akitaniarrek jaurtiten eutsiezan gezien artean txalupa beste ertzera eroan aal izan eban Txorki'k. Legorreatzean, baiña, euskaldun gazteak ezpatatza itzela artuta, txaluparen olak autsi egin, eta bultzada bat az ibaian beera igorri ebazan. Au egiñik, bera ta artza orko baso orretan zear ostendu ziran.

–Eta arrezkero zer jazo zan...?

–Txalupea betirako galdu zan, baiña txarrena Txorki osabeari jazo yakona izan zan. Arrezkero, amesen artean, artzak lagunduriko euskaldun indartsua agertzen yakon, eta geziketa itzelaren pean aurrera beartzen dau. Bestaldera elduta, baiña, ezpata-zartada bizitan txalupea zatitzen dautso. Dirudianez, ameskeri oneik osabeari bere onetatik atara eben, eta zorotu egin zan. Orduetik etxeko lanetan diardu, eta ez dau "txalupa" izena bera be entzun gura. Illabete batzuk leku au txalupari barik billa-

katu zan, eta etxekoek eraginda, areitz-enborrez baldus au egiñik, osabearen jarduna artu neban.

–Agur, gazte, eta goraintziak osabeari.

–Noren alde...?

–Euskaldun indartsuaren eskutariaren alde.

Txorki'ren lobeak begiak zabal-zabalik begiztatu ninduan zer esan ez ekiala, eta nik "Potxi"ren arre-lepoan jarrita, traka-traka leunaz bidegiteari jarraitu neutsan. Naparra'ko Aezkoa'ra zuzen joan barik, egokiagoa iruditu yatan Yanoz'en edeskiari jarraitu, eta Lakarri'rako argibideak eskatuta, Zuberoka'ko errietan zear joatea erabagi neban. Olan ba, ezkerretara saiestu nintzan, eta Donapaleu ta Maule'n zear Lakarri'rantz abiatu nintzan. Beiñola, ganetxu bateko goikaldean areitzez inguratutako zelaigune batera eldu nintzan. Alako baten, gurutz batzuk ikusi nebazan, eta oneitatik ur samar, obi-buru antzeko arlasta bat.

Sentipen ezkutuak eraginda, urreratu nintzakion. Gurutzetan ez egoan ezetariko idazkunik, baiña arlastak alde baten zeozer baeban, eta jakingureak zirikatuta, urretik aztertu neban, eta zauskada batek menperatuta, bildur bakana nitzaz jabetu zan. Arlastak auxe ildaskatuta eban: TXARTXA.

Une batez izu andiak artuta, zur eta lur geratu nintzan. Axe Txartxa'ren obia zan ezpaibarik, eta artza il egin ba'zan, Yanoz'eri zer gertatuko litzakion...? Zorionez, baiña, noizbait zentzuna etorri yatan, nire buruari auxe niraustala: illarri au baten batek jarri dau, eta nork Txartxa'ri oroitarri au ipiñi, Yanoz'ek baiño...? Zana-zala, nire zalantzak uxatzearen, "Potxi" aalik azkarren zirikatu neban, eta ordubetea barik Lakarri'n nintzan. Andik laster, zeozer baztertua zetzan Jauregizar etxe ederrera eldu nintzan.

Nire olesari erantzunik, Joanes bera agertu zan, eta nor nintzan jakin ebanean, oso amultsuki jauregira sarrerazo ninduan. Orduan Yanoz'eri buruzko egia jakin neban, bein eta barrero Jaungoikoari eskertzen neutsala gaztea onik atara izateagaitik. Onezaz gaiñera, etxeko alaba Oiane emaztetzat artuta Undaitz'en bizi izaten zala jakin nebanean, ez nintzan arritu bape. Yanoz'ek ez eustan iñoiz esan Oiane maite ebala, baiña neskatileari egokionetan erakusten ebazan begirune ta samurtasunagaitik, igarri izan neutsan bere kutuna zala.

Iru egun emon nebazan Jauregizar'en etxekotzat erabilten ninduela, eta nire aukeran neban astia ustiatuz, Auñamendi'ko egietan alatzen ziran artalde ta beitalde ugariak ikertu nebazan, eta ain zuzen be, etxeko aberastasuna andia zala egiztatu neban. Orduko, Jauregizar'ko oiñoordea ezkondua zan, aitarekin etxeko ogasuna erabilten ebala, eta aitaren jasekoa izanik, etxe aretako etorkia baikor ikusten neban.

Noizbait, goiz baten, zorro bete janariz, eta Joanes'en argibideak ustiatuz, Irati'ko oianerantz mendian gora abiatu nintzan. Egun bi geroago pagadi usu batera eldu nintzan, eta ibaiaren ertzetik Aezkoa'rantz jatsi nintzan. Irati'ko oiana nik iñoiz ez ikusiriko ederrera zan, eta Yanoz'ek aren edertasuna sarri askotan niri aipatu arren

be, ezin zeitekean kidetu nenkusan edertasunaz. Eguraldia ederra izanik, zugaitzen arteko lur-baltz bigunaren gainean lo egin neban, eta biaramonean "Potxi" ta biok bidean beera joan gintzazan. Basoa amaitu zanean ibaiari jarraitu neutsan, eta noiz-bait Oroz-Betelu'ra eldu nintzanean, zauskada bakana nitzaz jabetu zan, Undaitz'etik ur nengoala somatzean.

Alako baten, bideko okergune bat igarorik, gora begiratzean arrituta geratu nintzan. Arratsaldeko ortzi gardenean zear, dorre zorrotzak gaindegietara zuzenduta geziak bai'litzazan, gaztelu bat agertu zan. Nenkusana zauskagarria zan, eta une batez arnasa eten egin yatan. Amildegi ikaragarri baten gaiñean jagiten zan Undaitz'eko gazteluak, arranoen kabia zirudian... eta orduan, Yanoz'eri bein baten entzundakoa gomutara etorri yatan:

–Arnaut –esan eustan–, Naparra'ko zaldun batzuk Undaitz'eri "Odeien artean ames dagian gaztelua" esaten dautsoe.

Zauskagarri ta ederra zan. Orain ulertzen neban Yanoz'ek jaiotexeari eutsan maitasun bizia. Nirea izan ba'litz ez neukean gitxiago maite izango. Leku bakarti aretan biziera gogor eta latza nire begira egoan, baiña yaukal eta ederra baita be. Eta iñongo arrenkurarik bage, zugaitzen artean kiribilkatzen zan bidean gora abiatu nintzan gazteluari erion lillurak erakarrita.

Gora eldu nintzanean, eguzkia gorrimiñezko errezel baten atzetik ilten zan, gaztelua gar bizia biurturik. Andik ikusita, Undaitz'ek itxura gozoagoa, bigunagoa, eskintzen eban, eta biotza taupadaka ebilkidala, urreratu nintzakion.

Gazteluko zubia jasota izanik, oles egin neban, eta ate-zaiñiak nire gora-beerak itaundu ostean, beste barik barruratu zan. Andik laster, kate-karraska zaratatsuen artean, zubia beeratu, eta bestaldean Yanoz ikusi neban. Aregana oldartu nintzan poza-ren-pozez didarka:

–Yanoz, Undaitz'eko nagusia...!

–Arnaut –erantzun eustan besarkatzen ninduala–, adiskide maitia...! Bazan ordua agertu zeintekidazan...!

–Lau urte igaro dira azkenengotik ona. Niketz lenago etorriko nintzan, baiña ama zaintzearen Arritza'n geratu bear izan dot. Orain luzaro ez dala il egin yat, eta Akitani'ra lotu nenkion ezer ez izanik, emen nozu, Yanoz.

–Sar zaitez, eta otordua dan ezkerro, zuk, nire emazteak, eta irurok alkarrekin apalduko dogu.

Jarraian, "Potxi" kortara eroateko agindu eban, eta areto txiki, txukun batera eroan ninduan. Leio baten ondoan, illuntzeko azken argia ustiatuz, emakume gazte batek josten ziarduan.

–Oiane –esan eutsan Yanoz'ek–, Arnaut, nire lagun miña etorri da

Pozezko oiua bat jaurtita, emakumea jagi zan, eta urreraturik, nire eskuai eutsi eutsen, aurrez-aurre begizatzen ninduala. Aurrean, iñoiz ez ikusiriko emakumerik

ederrena neban. Bere abo txanbeliñak eta begi argitsu andiek, irribarre egiten eusten, luzaro kanpoan egonda ta etxera biurtzen dan lagun onari agur egiten yakon lez.

–Arnaut –esan eustan–, zutaz asko esan daust Yanoz'ek, benetan maite zaitu-ta. Azken urteotan zu noiz etorriko begira egon gara, eta noizbait etorri zaiakuz. Au gure poza...!

Bere edertasunari egokion mintzo gozo ta eresintsua eban. Izan be, geiago begiratu, eta ederragoa iruditzen yatan. Benetan, gazteluko bitxia baiño, Oiane Undaitz'eko aingerua zala esango neuke.

Jarraian, mai-inguruan jesarri gintzazan, eta apariari ekin bitartean, kontu-kontari ume bi ebezala jakin neban. Yunilde, iru urteko neskatotxua, eta Iroz urte bete ta erdiko ume erñaia. Aparia amaituta, umeak jagoteko Oiane'k alde egin eban, Yanoz eta biok bakarrik itzirik. Autuaren bitartean, Yanoz'ek auxe esan eustan:

–Begira, Arnaut, irakurri-idazten eta gauzen ezaguerea dakiazan arduradun on baten bearrean naz, eta orretarako zu baiño egokirik ez dot ezagutzen. Niri laguntzearen, geratuko zara Undaitz'en...?

Erantzun aurretik une batez gogoetan iraun neban, eta,

–Begira, Yanoz Jauna –esan neutsan–, arazoa onartu baiño len, aspaldi batez jardun orren ikasteari emonda izango nozu, eta saioa ondo urtengo ba'litz, orduan gazteluan geratuko nintzake. Jakin gura dot, baiña, zelako jarduna izango dot.

–Zure egitekoa, Undaitz'eko arduraduna izatea litzake. Nire artalde, beitalde ta beortaldeak, baita baso ta lurraren emoitzak zure zaintzapean artu, eta diruaren arduralaritza be bai.

Isildu zan Yanoz une batez, eta gero irribarrez,

–Onezaz gaiñera –jarraitu eban–, urte batzuen buruan nire seme-alaben irakaslea be, bear dan lez irakurten eta idazten, baita jakintzari dagokiozanak irakatsi dagiezu-zan. Sarri askotan etxetik-at jardun bear dot, gudaketara edo Eneko Aritza'k, gure erregeak, onularitzat dei eginda. Zeu lako bat gazteluan ardurulari dagoala jakiteak, atsedean andia lekarkit. Bear zaitut, Arnaut, baiña ez dot ezelan be gura, eskintzen dautsudazan jardunak zure naiaren aurka artu dagizuzala. Zentzunezkoa daritxat, beraz, aspaldi batez arazoak aztertu, eta onen ostean dagokizuna aukeratu.

Alako baten, eta kontu-kontari giarduala,

–Esan, Arnaut –itaundu eustan Yanoz'ek–, eroan zeutsan aitita Undobika'ri, idatzi neutsan idazkia...?

–Bai, Yanoz Jauna, eroan neutsan Dukeari zure mezua eta...

Jarraian, jazorikoa edestu neutsan, eta onetaraxe amaitu neban:

–Yatxiñ'en gorpu urkatua Yarre'ko gazteluko dorre batetik eskegita ikustea, ez yat ain erraz gogotik kenduko. Baiña bere anaia Gerin, Konte Baltza'ren seme nagusia ortik jareti ibilliko da, aitaren antzera basakeria emonda.

–Ez, Arnaut, ori eziña da. Lakarri aurreko ganetxuan, beste akitaniar gudariekin cortzi genduan.

–Eta egurrezko gurutz areik...?

–Bai, ildako akitanar baten obia Gerin'ena da. Onen aztamakilleak zauritu ninduean, eta ni erailteko gertatzen zala, Txartxa zirikatu neban, eta onek sumiñaren-sumiñez, Gerin txingote baten antzera atzitu, eta areitz baten enborrean ler egin eban. Nasaitu zaitez, Arnaut, Konte Baltza'ren seme biak il dira, eta leiñu orren gaiztake-riak betirako amaitu.

Une batez isillik irauin eban Yanoz'ek, eta gero,

–Aizu, Arnaut, Nunile'ri buruz zer diñostazu...?

–Zure aginduari jarraituz, "Yosu'ren Mirabeak"en lekaimetxera sartzen lagundu neutsan, eta...

Orduan, Nunile'ren buruzko gora-beera guztiak emon neutsazan. Edeskia entzun bitartean, Yanoz'en ezpanak irribarre bat azargituta egozan. Amaitu nebanean,

–Barri orrek benetan poztuten nau, Arnaut. Biziera latza ta mingarria jasan ondoren, Nunile gaixoa noizbait zorionsua da...

–Bai, zuri esker, aren naigabe ta ezbeharrik amaitu dira. Jaungoikoa aurkitu dau, eta onek poztasun eta zoriona ekarri dautsoz. Zu, Yanoz, etenbarik gogoan zaitu, eta beragandik agurtu nintzanean, zure alde beti-beti otoi egingo leukela esan eustan...

–Nunile, baso-loratxu zoragarria...! Bera oartu barik gogo-betetasunaren atzetik ebillen, basabereño egarritsuak ur ozkirriak billatzen dituan antzera... Nire bitartez, Jaunak ur biziakaz aren egarria asetu dautso... "Eiztarien Ostatua"n txori eri baten antzera ziarduan, ezaiña ta guztiak zapuztuta sentitzen zala. Lokatza ta zikinkeriaren artean sortzen dan bitxiaren antzekoa zan. Ezin dagiket aztu bizitza berari zor dautsadala.

Oroitzetan murgilduta, une luze batez biok isillik irauin genduan. Berandu samar zan orduko, eta noizbait, Yanoz jagi, zuzi bat artu, eta,

–Barandu da onezkero, Arnaut –esan eustan–, eta gaur egin dozun bidai luzearen ostein, nekatuta aurkituko zara.

Lo-gela txiki, txukun batera zuzendu ninduan, eta nigandik agurtuta joan zan. Oe bigun eta nasai aretan lo gozo batek artu ninduan. Itxartu nintzanean goiz-erdia zan jadanik, eta arin baten jantzita, larraiñera jatsi nintzan. Orduko, Yanoz nire begira egoan, eta alkarrekin gosalduta gero, Yunildetxu ta Iroztxu bere seme-alabak ekarri eustazan, alkarrekiko ezaguera egiteko. Ume zoragarriak ziran, eta bereala betiko laguntzat artu ninduen.

Gero, Yanoz eta biok inguruak ezagutzearen zaldiz urten gintzazan, eta gautu arte gazteluko inguru-mariak ikertu genduzan. Era onetan ba, illabete batez batetik bestera ibilli gintzazan, eta noizbait, begira neban ango biziarea ondo samar ezagututa, Undaitz'eko arduralaritza artzeko gerturik nintzala jakifierazo neutsan Yanoz'eri, eta beste barik Undaitz'eko gazteluan betirako geratu nintzan.

Aldiaren bidean, nire aukerea egokia izan dala jakin dot, Undaitz'ekoak gero ta maiteagoak dodazala, baita eurok ni be. Umeek osaba Arnaut esaten dauste, eta ain zuzen be, neurri andi baten gaztelura lotzen nauan maitasun-lokarria izan dira.

Egunoro ordubete bitan guztitariko ikaskaiak irakasten dautsedaz, eta biok adimen urtena erakusten dabe. Neskatotxua ama baizen eder eta zoragarria dator, eta mutikotxua aitaren jas eta irudikoa da.

Arduralaritza dagokidan aldetik, Yanoz'en burubideai jarraituz, gure menpekoak aalik eta maitetsuen erabilten dodaz, eta Undaitz arein lanaz eta emoitaz bizi ba'da, eurok be, gazteluak eskintzen dautsezan babes eta ziurtasunari esker, artzaintza ta lurgintzari onura polita ataraten dautsie.

Gure barrutian eta Naparra osoan be, Yanoz guztiz ederretsia da. Orain asko ez dala, gudarien jarraigo batekin Eneko Aritza, Naparra'ko erregea, Undaitz'en azaldu zan. Errege bateri zor yakon begirunez, bere gudariekin Yanoz'ek abetaldu eban, eta Eneko larraiñera sartu zanean, turutotsen artean biok alkar besarkatu eban. Iskilloraretoan, erregeak, Yanoz'ek, eta onein bion buruzagiek, bazkari ona ta ugaria izan genduan, neu be tartekoa nintzan-eta. Maipuruan, bere edertasun bardinbakoa eguzki baten antzera dizdiraka, Oiane iñoizkorik yaukalen agertzen zan, eskubian Naparra'ko lenengo erregea, eta ezkerrean Yanoz bere senarra ta Undaitz'eko nagusia, ebazala.

Bazkalostean, Eneko ta Yanoz areto txiki batera baztertuta, autu bat izan eban, eta nire ugazabak eskatuta, ni be tartekoa izan nintzan. Eneko'k, Naparra'ko egoerari buruz jardun eban. Bazirudian gudako arazoak polito joiazala, eta Erribera'ko mugak ziurtaturik, egoera iñoizkorik onena zala. Azalpena guztitariko zeatzakaz lagunduta izan zan, eta amaitzean erregeak auxe esan eustan:

–Ba al-dakizu, Yanoz, zeri zor dautsagun ondo-izate ori...?

–Naparra'k, nagusitzat errege bat aukeratu daualari.

–Ba leiteke ori neurri baten, baiña egoera orrek zeuri asko zor dautsu. Zure aitaren aginduz, Undobika'rekin jaritsi zenduan bake-itunak ondore bikaiñak ekarri dautsuz. Au dala-ta, Undaitz'eko Iroz eta Yanoz'eri asko zor dautse Naparra'k, eta nik neuk zelanbait ordaindu gura neuskizu. Esan, Yanoz, nire jarraigo edo kortekoa ez aldozu nai izan...? Onulari nagusiaren jarduna emongo neuskizu. Zer deritxazu orreri...?

–Eskerrik asko, Eneko nire erregea, baiña Undaitz'en jaiio nintzan, eta mundu onetan geien maite dodazanak emen bizi dira. Egunen baten nire semetariko batek gaztelu onen nagusitza artuko dau, eta bere irakaslea izan gura dot benetako gizona biurtu daiten. Badakizu, Eneko, dei egin daustazunetan, zure aldean izango nozula, naiz burrukan egiteko, naiz aal dodan giñoan nire onuz laguntza emoteko. Onezaz kanpora, emaztea, seme-alabak, eta nire ardurapean dagozan erritarrak zaindu bear dodaz.

–Bai, Yanoz, zuzen zagoz. Neu be zeu baizen jarei ba'nintz...! Baiña erregetzaren buztarri astuna nigan jarri dozue, eta nai-ta-ez nire patuari jarraitu bear dautsat. Eizeari emonda egun batzuk zurekin igaroko neukez, baiña zoritxarrez biar goizean Iruña'rako izango naz, arazo batzuk beartuta.

Urrengo egunean eguzkia agertu zanean, turutotsen artean Eneko Aritza'k Undaitz laga eban, Yanoz'eri besarkada anaikorra emonda gero. Izan be, Naparra'ko erregea Undaitz'etik bere jarraigoarekin zaldiz urruntzen zala, bere irudi txairo ta

indartsua ikustean, nire buruari nirautsan, nekez idoro zeitekela, bera baiño zaldun egokiagorik Naparra'ko etorkia zuzentzeko, Yanoz nire ugazaba izan ezik. Baiña Undaitz'eko nagusiak "Odeien artean ames dagian gaztelua" naiago eban munduko erregetza guztiak baiño.

Bein baten senarrari ezuste bat emoteko, Oiane'k agindu bat emon eustan, eta bereala "Potxi" atondurik, Abaurrea'ra jo neban egurlari batzukana. Mezua emonda gero, urrengo egunean gaztelura biurtu nintzan. Andik illabete bitara-edo, Abaurrea'ra abiatu nintzan agindurikoa artzearren, eta... asmatu daiteken artzumerik maitagarriena eskuratu eusten. Gose utsaz kumea intzirika egoan, eta ango etxeoandreak eskiñitako esne-ontziari zoroaren antzera ekin eutsan. Ase zanean, altzoan lo geratu yakon, eta orduan zorro batera sartuta, aalik ariñen Undaitz'era astirik galtzeke biurtu nintzan, aurrekin egoan Oiane'ri erakusteko. Artzumea zorrotik agertu zanean, nekez asmatu daiteke Oiane'ren eta onen umeen poztasuna. Izan be, zoragarria zan artzumea, eta gose gorriak eraginda negarrez asten zanez, aida baten, Amañe'k eskiñi eutsan ontzi bete esne papar-lepo bitartera sartu eban. Onen ostean lo geratu zan, eta lasto-pillo baten gainean Amañe'k sutondoan jarri eban, Oiane'k eta umeek maitasunez gainezka laztantzen ebela.

Gau aretan umeak lotan egozala, Yanoz Iruña'tik biurtu zan, eta oi eban lez Oiane samur-samur besarkatu eban, eta oiko mosu maitekorra emonda, etxeko janzkia jarri ondoren,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan Oiane'k–, zuretzat emokari arrigarria daukat. Zatoz beingoan.

Une aretan, goseak iratzarriko artzumea intzirika asten zan, eta Yanoz'egana urreturik, abarka bateri oratuta, aztalean gora igon nai eban. Yanoz makurtu zan, eta besoetan artuta, artzumearen buruiñoa bere aurpegiaren ondoan ipiñi eban, auxe iñotsala,

–Txartxa, nire Txartxa maitia, orain amabost urte bera lakoxe az, nire kutun ori...

Lakarri aurreko ganetxuan obiratua zan Txartxa zintzoa gogoratzean, Yanoz'en begietan malkoen dizdira ikusi zeitekean. Une batez isillik iraun eban, itz egin eziñik. Oiane urreratu yakon, eta maitekiro,

–Aizu, Yanoz –esan eutsan–, Abaurrea'ko egurlariai aalegindu zeitezan artzume bat bizirik artzeko agindu neutsen. Zuk beti emoitzez beteten nozu, eta ordua zan zelan edo alan ordaindu nengizun. Zer deritxazu artzumeari...?

–Niretzat ezin emoitza obarik, Oiane, eta eskertzen dautsut bene-benetan. Kumetxu onek gogora dakarkit lengo nire Txartxa maitia. Ez ete izango kumetxu au Txartxa'ren ondorengo bat...?

–Baleiteke, Yanoz, aren itxurakoa da-ta. Gogoan dot bere laguntzaz zelan atara ninduzun Gerin'en atzaparretatik. Abaurrea'ko egurlariok, Irati aldera edatzen dan Abodi'ko egian arrapatu dabela diño.

Une aretan, kurrinka leunaz lagunduta, artzumea Yanoz'en aurpegia miazkatzen asi zan.

–Txartxa izena ipiñiko dautsagu, ezta Yanoz...?

–Oba ez...! Lenengo illabetetan Amañe'ren zaintzapean izango da, eta andituta gero, nire ardurapean artuko dot eta Txartxa berari irakatsi neutsana, oneri be erakutsiko dausat. Gure seme-alabak azi daitezeneko, gure Txartxa au baiño zaindari obarik ezin idoro.

Gurari au egi biurtu da. Aldiaren bidean kumea artz eder baten itxurea artzen asi, eta Yanoz'en agintzapean, antxiñako Txartxa baizen ikasia billakatu da. Sarri askotan Undaitz'eko seme-alabai (orain lau dira), zabaldian zearko ibillaldietan laguntzen dautse, eta ikustekoa da zelako arduraz jagoten dauzan txikienak batez be, eta zelako egonarriz lepo-gaiñean jarri dakiozan izten ditu.

Negua amaitzeko zorian da, eta aroaren sorgindurapean, edurra goiko mendietara babestu da, Undaitz inguruko ibarretatik udabarriaren arnasa somatzen dala. Luzaro barik artaldeak goiko alagunetara abiatuko dira bedar samurraren irrikan, eta orain arte mutu egindako txoriek bizitzaren eresia aldarrikatuko dabe barriro be, edurraren lurmenak arroturiko ibaien ertzetatik.

Undaitz'en dodan jarduna, neguari esker zeozer arindu yat, eta onen ondorioz Yanoz'en gora-beerak idazteko gai izan naz. Laguntza-eske Arritza'ra etorri yatan, geisorik egoan-eta, sendaldi bitartean ordurarte izandako gora-beerak edesten asi yatan, eta nik narrukitara aldatu nebazan. Negu onetan, arrezkeroko bere ibillaldiak gai izan naz idatziz jarteko. Jaunari eskertzen dausat egunero, bera lako ugazaba emon daustalako. Izan be, ugazaba baiño, anaia esan beariko neuke, olakotzat narabil-eta. Ez dot besterik gura, bera, Oiane, ta bion umeak, nire azkenerarte zaindu baiño.

Badakit ezkongea iraungo dodala, neu lako lepokerrik iñongo emakumerik ez leuke onartuko-ta, baiña Yanoz'en seme-alabek "osaba" esaten dauste, eta berba ori entzutean, baderitxat neurri baten neureak dirala, eta Txartxa gaztearen miazkadak nire aurpegian oartzean, biotza samurtasunez beteten yat. Ezkongea iraungo dot mundu onetan, baiña seme bat itziko dot, liburu au izan be, idazle batentzat, bere idazia seme lakoxea da-ta. Ez dakit iñoiz argitaratuko dan ala ez, baiña eskuetan dodazan Yanoz'en gora-beerak idatziriko narruki oneitan, seme baten arnasa bizirik sentitzen dot... eta onek poz bakanaz beteten nau.

Ortzia illuntzen da, eta iparraldetik datozen odoi ibiltariak Undaitz'eko dorre garaiak miazkatzen dabez, amaika ipuin zoragarri mintzo isillez edestu nai bai'leutsiezan. Eta iñoizkorik maiteen, "Odeien artean ames dagian gaztelua" biotzean sentitzen dot.

Arritza'ko Arnaut